



EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

www.ararteko.eus

The image features a stylized, low-angle view of a building facade in shades of green and olive. The building has several windows, some with a yellow 'H' sign above them. A large, white, rounded shape overlaps the right side of the building, containing a prominent red teardrop-shaped element. The overall aesthetic is modern and graphic.

**txosten
bereziak**

EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa



**Arartekoak
Eusko Legebiltzarrari
egindako txosten berezia**

Vitoria-Gasteiz 2017

Lan hau [Creative Commons Reconocimiento 4.0 Internacional \(CC BY 4.0\)](#) lizentziapean dago



Lan honen bibliografia-erregistroa [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Oinarrizko azterlanaren egilea: Elkartu, Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: Eps-Comalpa-Irudi, UTE



Aurkibideak

Aurkibidea

Aurkezpena	21
I. kapitulua	
Sarrera: Proiektuaren helburua eta norainokoa. Azterlanaren metodologia	27
II. kapitulua	
Arau esparrua	45
III. kapitulua	
Irisgarritasuna aztertutako ospitaleetan	69
IV. kapitulua	
Euskadiko ospitale-sarearen irisgarritasuna. Osakidetzako teknikarien eta osasun zerbitzuak erabiltzen dituzten ezintasunen bat duten pertsonen ikuspuntua	211
V. kapitulua	
Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak burututako jardun-programak	219
VI. kapitulua	
Ondorioak	223
VII. kapitulua	
Gomendioak	235
VIII. kapitulua	
Laburpena	245
Eranskinak	
1. eranskina: Emaidza globalak: irisgarritasun-baldintzak ospitaleetan	261
2. eranskina: Informazioa biltzeko galdera-sorta	321

Aurkibidea

Aurkezpena	21
I. kapitulua	
Sarrera: Proiektuaren helburua eta norainokoa. Azterlanaren metodologia	27
1.1. Proiektuaren helburua eta norainokoa	29
1.2. Txostenaren edukia eta egitura	30
1.2.1. Irisgarritasuna	30
1.2.2. Irisgarritasun katea	30
1.3. EAEko mugikortasun urriko taldeen azterketa soziodemografikoa	31
1.3.1. Mugikortasun urriko pertsona desgaituak	31
1.3.2. Mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonak	33
1.3.3. Mugikortasun urri iragankorra dutenak	34
1.4. Txostenaren egitura	36
1.5. Azterketaren metodologia	36
1.5.1. Faseak	37
1.5.2. Diagnostikoa egiteko tresnak	37
1.5.3. Aztertutako ospitaleak	39
1.5.4. Eskuratutako datuen ustiapena	41
1.5.5. Eskuratutako datuen azterketa eta lehen ondorioak	44
1.5.6. Kontraste taldea	44
II. kapitulua	
Arau esparrua	45
2.1. Esparru juridiko eta kontzeptuala	47
2.2. Arau esparrua	48
2.2.1. Nazioarteko esparru arautzailea	48
2.2.2. Estatuko araudia	51
2.2.3. Araudi autonomikoa	53
2.2.4. Eskumen esparrua	55
2.2.5. Irisgarritasun-baldintzak ospitaleetan	55

■ III. kapitulua

Irisgarritasuna aztertutako ospitaleetan	69
3.1. Sarrera	71
3.2. Arabako ospitaleak	71
3.2.1. San Onofre Zainketetarako Ospitalea	71
3.2.2. Lezako Ospitalea	74
3.2.3. Arabako Ospitale Psikiatrikoa	77
3.2.4. Quirón Vitoria Ospitalea	80
3.2.5. Santiago Apóstol Ospitalea	83
3.2.6. Txagorritxu Ospitalea	88
3.2.7. Vithas San José Ospitalea	95
3.3. Bizkaiko ospitaleak	99
3.3.1. Indautxu Klinika	99
3.3.2. Andra Mari Zuria Klinika	99
3.3.3. Basurtuko Ospitalea	103
3.3.4. Gurutzetako Ospitalea	110
3.3.5. Galdakao-Usansoloko Ospitalea	117
3.3.6. Gernika-Lumoko Ospitalea	124
3.3.7. Gorlizko Ospitalea	127
3.3.8. Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa	130
3.3.9. Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoa	134
3.3.10. Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa	138
3.3.11. San Eloy Ospitalea	141
3.3.12. San Juan de Dios Ospitalea	144
3.3.13. Santa Marina Ospitalea	148
3.3.14. Urdulizko Ospitalea	152
3.3.15. Victoria Eugenia Ospitalea	155
3.3.16. Osatek, Areilza Doktorea Anbulatorioa	157
3.3.17. Osatek, Areetako Anbulatorioa	159
3.4. Gipuzkoako ospitaleak	161
3.4.1. Santa María de la Asunción Klinika	161
3.4.2. Aita Menni Ospitalea	165
3.4.3. Debagoieneko Ospitalea	170
3.4.4. Bidasoa Ospitalea	174
3.4.5. Mendaroko Ospitalea	178
3.4.6. Ricardo Bermingham Ospitalea	182
3.4.7. Donostiako Unibertsitate Ospitalea	185
3.4.8. Zumarragako Ospitalea	196
3.4.9. Onkologikoa-Donostia	202
3.4.10. Usurbilgo Erietxea	205

■ IV. kapitulua

Euskadiko ospitale-sarearen irisgarritasuna. Osakidetzako teknikarien eta osasun zerbitzuak erabiltzen dituzten ezintasunen bat duten pertsonen ikuspuntua	211
4.1. Sarrera	213
4.1.1. Aurretiazko kontu batzuk	213
4.2. Balorazioa azpitaldeen arabera	214
4.2.1. I. AZPI-LANTALDEA: euskal osasun-sistema publikoko langileak	214
4.2.2. II. AZPI-LANTALDEA: ezintasunen bat duten pertsonak	215
4.3. Ondorio bateratuak	216

■ V. kapitulua

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak burututako jardun-programak	219
--	-----

■ VI. kapitulua

Ondorioak	223
6.1. Ondorio orokorrak	225
6.2. Baliabide motaren arabera ondorioa	227
6.2.1. Ospitaleetarako sarbideen ibilbideak	228
6.2.2. Ospitale-esparruaren barrualdeko ibilbideak	228
6.2.3. Aparkalekuak	228
6.2.4. Ospitaleetako sarrera nagusietara iristea	228
6.2.5. Eskailera-tarteak	229
6.2.6. Igogailuak	229
6.2.7. Komun orokorrak	229
6.2.8. Komun erreserbatu eta irisgarriak	229
6.2.9. Itxarongelak	229
6.2.10. Kontsulta orokorrak	230
6.2.11. Erradiologiako kontsulta	230
6.2.12. Ginekologia-arretako kontsulta	230
6.2.13. Pazientearen eta erabiltzailearen arreta-zerbitzua (PEAZ)	231
6.2.14. Logelak	231
6.2.15. Boxak	232
6.2.16. Askotariko aldagelak/komunak	232
6.2.17. Osatek zentroak	233
6.2.18. Errehabilitazio-kontsultak	233
6.2.19. Adingabeentzako eskolak	234
6.2.20. Ziber-gelak	234
6.2.21. Farmaziak	234
6.2.22. Kafetegiak	234
6.2.23. Ekitaldi-aretoak edo auditoriumak	234
6.2.24. Kaperak	234
6.2.25. Beilatokiak	234

■ VII. kapitulua

Gomendioak	235
-------------------------	-----

■ VIII. kapitulua

Laburpena	245
------------------------	-----

■ Eranskinak

1. eranskina: Eraitza globalak: irisgarritasun-baldintzak ospitaleetan	261
1. Kanpo espazioen irisgarritasun baldintzak	264
1.1. Udal titulartasuneko kanpo ibilbideak	264
1.2. Ibilbideak ospitale-eremuen barruan	268
2. Aparkalekuak	272
2.1. Udal titulartasuneko aparkatzeko eremuak	272
2.2. Aparkatzeko eremuak ospitale-instalazioeta	273
3. Sarbideak	275
3.1. Sarrera/sarbide nagusiak	275
3.2. Mostradoreak eta leihatilak	277

3.3.	Altzariak	278
3.4.	Itxarongelak	278
3.5.	Beste sarrera/sarbide batzuk	278
4.	Larrialdi eremuak	281
4.1.	Itxarongelak	281
5.	Ospitaleetako barrualdeko elementuak	282
5.1.	Eskailera-tarteak	282
5.2.	Igogailuak	284
5.3.	Komun orokorrak	285
5.4.	Komun erreserbatu eta irisgarriak	287
5.5.	Lagundutako komunak	290
5.6.	Itxarongelak	292
6.	Kontsulta orokorrak	294
6.1.	Aldagelak	297
6.2.	Komunak	297
6.3.	Entzuteko desgaitasuna	298
6.4.	Erradiologiako zonak	298
6.5.	Errehabilitazioko kontsultak	300
6.6.	Errehabilitazioko gimnasioak/eremuak	300
7.	Ginekologiako kontsultak	302
8.	PEAZ (Pazientearen eta Erabiltzailaren Arreta-Zerbitzua)	303
9.	Ospitaleratzeko eremuak	304
9.1.	Logelak	304
9.2.	Logela bikoitzak	305
9.3.	Banako logelak	307
9.4.	Bi ohe baino gehiago dituzten logelak	309
9.5.	Boxak	311
9.6.	Aldagelak	312
10.	Osatek zentroak	314
10.1.	Osatek zentroetako sarbideak	314
10.2.	Osatek zentroetako itxarongelak	315
10.3.	Osatek zentroetako barrualdeak	315
10.4.	Osatek zentroetako irisgarritasuna entzuteko desgaitasuna duten pertsonentzat	317
11.	Beste batzuk	317
11.1.	Eskolak ospitaleetan	317
11.2.	Ziber-gelak	317
11.3.	Farmaziak	317
11.4.	Kafetegiak	317
11.5.	Ekitaldi-aretoak eta auditoriumak	318
11.6.	Kaperak	318
11.7.	Beilatokiak	318
11.8.	Makina saltzaileak	319
11.9.	Askotariko ekipamendua	319
11.9.1.	Askotariko ekipamendua erabiltzea	319
11.9.2.	Postontziak eta txirrinak	319
11.9.3.	Jardunbide onak	320
11.9.4.	Larrialdietako irteerarako ateak	320
2. eranskina:	Informazioa biltzeko galdera-sorta	321

Irudien aurkibidea

1. irudia		
Irisgarritasun katea	31	
2. irudia		
Aurreikuspen demografikoak 2026rako (iturria: Eustat)	33	
3. irudia		
Fitxa teknikoaren eredua (egileak egina)	38	
4. irudia		
Osakidetzako 16 ospitaleak	38	
5. irudia		
Osakidetzarekin ituna duten 9 ospitale pribatuak	38	
6. irudia		
8 ospitale psikiatrikoak (4 berariazkoak eta 4 beste ospitale batzuen barruan).....	39	
7. irudia		
Aztertutako ospitaleak guztira.....	39	
8. irudia		
“Ama-hurren” planoa. Donostia Unibertsitate Ospitalea	42	
9. irudia		
“Ama-hurren” xehetasun-planoa. Donostia Unibertsitate Ospitalea	42	
10. irudia		
Datu-basea (egileak egina).....	43	
11. irudia		
Datu-baseari buruzko xehetasunak (egileak egina).....	44	
12. irudia		
Udal aparkalekuen excel-a (eredua)	44	
13. irudia		
SPSS estatistika-programa. Udal aparkalekuei buruzko datuak.....	44	

Taulen aurkibidea


1. taula	
Irisingarritasun katea.....	31
2. taula	
Mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonak (egileak egina).....	34
3. taula	
Mugikortasun urri iragankorra duten pertsonak, ospitaleratu direnak. 2014ko datuak (egileak egina).....	34
4. taula	
Mugikortasun urria duten biztanleak EAeko ospitaleetan (iturria: egileak egina).....	35
5. taula	
Mugikortasun urria duten biztanleen ehunekoa EAEn (iturria: egileak egina).....	35
6. taula	
Laginaren banaketa lurralde historikoaren arabera (egileak egina).....	39
7. taula	
Aztertutako ospitaleen zerrenda.....	39

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa			
EAEko biztanleria 2015ean.....	32		
2. grafikoa			
EAEko biztanleriaren piramidea 2015ean (egileak egina, Eustaten datuen arabera)	33		
3. grafikoa.			
Mugikortasun urria dutenak EAEko biztanleen guztizkoaren gainean (iturria: egileak egina).....	35		
4. grafikoa.			
Mugikortasun urria duten biztanleak EAEko ospitaleetan (iturria: egileak egina)	36		
5. grafikoa			
EAE mugikortasun urria dutenen taldeen banaketa, lurralde historikoka (iturria: egileak egina)	36		
6. grafikoa			
Aztertutako ospitaleen zerrenda (iturria: erakunde honek egin du, azterketarako hautatutako laginetik abiatuta).....	40		
7. grafikoa			
Espaloietakoa malda	264		
8. grafikoa			
Ibilbideak ospitaleetara	265		
9. grafikoa			
Seinaleztapena ospitaleetarako ibilbideetan.....	266		
10. grafikoa			
Eskailerak ospitaleetarako ibilbideetan	266		
11. grafikoa			
Arrapalak ospitaleetarako ibilbideetan	266		
12. grafikoa			
Oinezkoen pasabideak ospitaleetarako ibilbideetan.....	267		
13. grafikoa			
Irlatxoak ospitaleetarako ibilbideetan.....	267		
14. grafikoa			
Garraio geltokiak ospitaleetarako ibilbideetan	268		
15. grafikoa			
Maldak ibilbideetan, ospitale-eremuen barruan	269		
16. grafikoa			
Espaloiak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan	269		
17. grafikoa			
Ibilbideetako elementuak ospitale-eremuen barruan	269		
18. grafikoa			
Seinaleak ibilbideetan, ospitale-eremuen barruan	270		
19. grafikoa			
Seinaleztapenaren ezaugarriak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan.....	270		
20. grafikoa			
Arrapalak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan	271		
21. grafikoa			
Oinezkoen pasabideak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan	271		
22. grafikoa			
Zer kota oinezkoen pasabideetan, ospitale-eremuen barruko ibilbideetan.....	271		

23. grafikoa	Irlatxoak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan	272	46. grafikoa	Eskailera-tarteak, lurraldearen arabera	283
24. grafikoa	Eskailera-mailak eta arrapalak udal titulatasuneko aparkatzeko eremuetan	272	47. grafikoa	Eskaileren ezaugarriak	283
25. grafikoa	Erreserbatutako aparkatze plazak, udal titulatasunekoak, kopuruaren arabera	273	48. grafikoa	Igogailuen kanpo espazioa	284
26. grafikoa	Udal titulatasuneko aparkatze plaza erreserbatuen ezaugarriak	273	49. grafikoa	Igogailuen kabinak	284
27. grafikoa	Eskailerak aparkatzeko eremuetan, ospitale-instalazioetan	274	50. grafikoa	Igogailuen botoiak	285
28. grafikoa	Erreserbatutako plaza kopuria ospitale-instalazioetako aparkatzeko eremuetan	274	51. grafikoa	Igogailuen ezaugarriak. Ikusteko desgaitasuna	285
29. grafikoa	Erreserbatutako plaza kopuria ospitale-instalazioetako aparkatzeko eremuetan	275	52. grafikoa	Igogailuen ezaugarriak. Entzuteko desgaitasuna	285
30. grafikoa	Sarbide atea	276	53. grafikoa	Komun orokorretara sartzeko eskailerak/arrapalak	286
31. grafikoa	Arrapalak sarbideetan	276	54. grafikoa	Komun orokorren kanpoaldea	286
32. grafikoa	Sarbideak. Ikusteko desgaitasuna	277	55. grafikoa	Komun orokorren barrualdea	287
33. grafikoa	Mostradoreak	277	56. grafikoa	Komun orokorren komunontziak	287
34. grafikoa	Sarbideetako itxarongeletako altzariak	278	57. grafikoa	Erreserbatutako komunen sarbide ateak	287
35. grafikoa	Sarbideetako itxarongelak	278	58. grafikoa	Komun erreserbatuen motak	288
36. grafikoa	Beste sarrera/sarbide batzuetako ateak	279	59. grafikoa	Komun erreserbatuen barrualdea	288
37. grafikoa	Sarbideko arrapalak	279	60. grafikoa	Komun erreserbatuetako komunontziak	289
38. grafikoa	Seinaleak sarbideetan	279	61. grafikoa	Komun erreserbatuetako konketak	289
39. grafikoa	Sarbideetako itxarongelak	280	62. grafikoa	Komun erreserbatuetako osagarriak	289
40. grafikoa	Askotariko seinaleak sarbideetan	280	63. grafikoa	Alarmak erreserbatutako komunitan	289
41. grafikoa	Larrialdi zonetako sarbideak	281	64. grafikoa	Komun erreserbatuetako ezaugarriak. Ikusteko desgaitasuna	290
42. grafikoa	Larrialdi zonetako sarbideetako arrapalak	281	65. grafikoa	Lagundutako komunitarako ibilbideak	290
43. grafikoa	Larrialdi zonetako itxarongelak	282	66. grafikoa	Lagundutako komunen barrualdeak	291
44. grafikoa	Larrialdi zonetako sarbideak. Ikusteko desgaitasuna ...	282	67. grafikoa	Lagundutako komunen komunontziak	291
45. grafikoa	Aztertutako eraikinak guztira	282	68. grafikoa	Lagundutako komunen konketak	291
			69. grafikoa	Lagundutako komunen dutxak	292
			70. grafikoa	Itxarongeletako sarbideak	292

71. grafikoa			
Itxarongeletako altzariak	293		
72. grafikoa			
Itxarongeletako seinaleak.....	293		
73. grafikoa			
Aztertutako kontsulta orokorrak, lurraldeka	294		
74. grafikoa			
Kontsulta orokorretako ateak	294		
75. grafikoa			
Kontsulta orokorretako altzariak.....	296		
76. grafikoa			
Kontsulta orokorretako mahaiak eta beste osagarri batzuk.....	296		
77. grafikoa			
Aldagelak.....	297		
78. grafikoa			
Komunak aldageletan.....	298		
79. grafikoa			
Erradiologiako zonetako barrualdea eta altzariak	299		
80. grafikoa			
Erradiologiako zonetako aldagelak	299		
81. grafikoa			
Erradiologiako zonetako komunak	300		
82. grafikoa			
Errehabilitazioko eremuetako ohatilak eta garabiak.....	301		
83. grafikoa			
Errehabilitazioko eremuak. Ikusteko desgaitasuna	301		
84. grafikoa			
Errehabilitazioko eremuetako aldagelak.....	301		
85. grafikoa			
Errehabilitazioko eremuetako komunak	302		
86. grafikoa			
Ginekologiako kontsulten kanpoaldeak	302		
87. grafikoa			
Ginekologiako kontsulten barrualdeak.....	303		
88. grafikoa			
Ginekologiako kontsultetako altzariak.....	303		
89. grafikoa			
PEAZetara joateko sarbideak	304		
90. grafikoa			
PEAZetako barrualdeak.....	304		
91. grafikoa			
Logela bikoitzetako barrualdeak	305		
92. grafikoa			
Logela bikoitzetako altzariak	305		
93. grafikoa			
Logela bikoitzetako komunak.....	306		
94. grafikoa			
Logela bikoitzeko komunetako elementuak.....	306		
95. grafikoa			
Logela bikoitzetako dutxak	307		
96. grafikoa			
Banako logeletako sarbideak	307		
97. grafikoa			
Banako logeletako altzariak	308		
98. grafikoa			
Banako logeletako komunak.....	308		
99. grafikoa			
Banako logeletako komunontziak	308		
100. grafikoa			
Banako logeletako dutxak.....	309		
101. grafikoa			
Bi ohe baino gehiago dituzten logeletako komunak	310		
102. grafikoa			
Bi ohe baino gehiago dituzten logeletako komunontziak	310		
103. grafikoa			
Bi ohe baino gehiago dituzten logeletako dutxak	310		
104. grafikoa			
Boxetako altzariak.....	311		
105. grafikoa			
Boxetako komunak	311		
106. grafikoa			
Boxetako komunontziak.....	312		
107. grafikoa			
Boxetako dutxak	312		
108. grafikoa			
Aldageletako sarbideak.....	313		
109. grafikoa			
Aldagelak.....	313		
110. grafikoa			
Aldageletako komunontziak	313		
111. grafikoa			
Aldageletako dutxak.....	314		
112. grafikoa			
Osatek zentroetako ibilbideak eta sarbideak	314		
113. grafikoa			
Osatek zentroetako sarbideak. Ikusteko desgaitasuna	315		
114. grafikoa			
Osatek zentroetako itxarongelak.....	315		
115. grafikoa			
Osatek zentroetako aldagelak.....	316		
116. grafikoa			
Osatek zentroetako komunak	316		
117. grafikoa			
Osatek zentroetako altzariak.....	316		



Aurkeztena

Aurkezpena



Desgaituen eskubideek beti toki nagusia izan dute Arartekoan, talde horrek traba handiekin topo egiten baitu bere eskubideak baliatzeko orduan. Erakunde honek urteotan burutu dituen jarduera ugariak helburu hau izan dute, beste ezer baino lehenago: talde horren benetako beharrei dagokienez, gizartea sentikorrago bihurtzen ahalegintzea, eta benetakoa goa eta eraginkorragoa egitea bereizkeriarik ez jasateko eta aukera berberak izateko duen eskubidea.

Horregatik, banaka eta taldeka egin dizkieten kexetan erakundeak etengabe egiten dituen jarduerak ez ezik, zenbait alditan, desgaituek egunero arlo ezberdinetan dituzten arazo orokorrak ere aztertu ditu Arartekoak.

Horrela, 2011. urtean, honako txosten berezi hau argitaratu zen: *EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa*. Haren **helburua** zen EAEko garraio sistema publikoaren gabeziak eta akatsak identifikatzea, mugikortasun urriko pertsonen joan-etorrietako segurtasunari eta funtzionaltasunari begira.

Desgaituen Europako urtean, 2003an, erakunde honek txosten berezi hau aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean: *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn*. Txosten hartan, oso egoera ahulean zeuden ezgaituen multzo handi bat (60.000 gutxi gorabehera, lanerako adinean) aztertu zen, eta garrantzi handiko gai bat jorratu: ordaindutako lana lortu ahal izatea, pertsona askorentzat horixe baita, oraindik ere, gizarteratzeko bide nagusia.

Orobat, 2003. urtean, Arartekoak beste txosten berezi bat amaitu zuen: *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoak duten eraikinen irisgarritasuna*. Han aztertu zen herri-administrazioek –Eusko Jaurilaritza, foru aldundiak eta udalak zenbateraino betetzen ari ziren arlo horretan dituzten betebeharrak.

Txosten hartan, osasun sistemaren eraikinetara zer-nolako sarbideak zeuden aztertzea erabaki zen. Ikuspegi mugatu horretatik begiratuta (erakinetarako hasierako sarbidea), aditzera eman zen osasun zerbitzuetako irisgarritasuna oro har egokitzea jo bazitekeen ere, beste zerbitzu publiko batzuk (justizia edo segurtasunarekin lotutakoak) bere baitan hartzen dituzten eraikinetan lortutako irisgarritasun mailetatik urrun zeudela.

Ez dago dudarik desgaituak erabat gizarteratzea eta gizar-tean parte hartzea lortu nahi bada, ezinbestekoa dela eraikin eta osasun zerbitzu iristerrazak izatea, denek berdintasunean erabili ahal izan ditzaten. Horregatik, 2003an egindako txostenean ez bezala, orain aurkezten ari garen azterlanean ahalegin berezia egin da osasun sistemako eraikinen irisgarritasuna osorik aztertzeke, bai eraikinei berei dagokienez, bai horietan egiten diren osasun-zerbitzuei dagokienez.

Desgaituek erakunde honi egin zizkieten eskaerengatik erabaki zuen Arartekoak, nagusiki, txosten hau prestatzea. Izan ere, urteotan barrena, talde horrek kexa ugari egin ditu, banaka nahiz taldeka, EAEko ospitaleetan eta beste zerbitzu edo laguntza-zentro batzuetan dauden oztopoak direla eta.

Era berean, azterlan honen bidez, [Desgaituen eskubidei buruzko Hitzarmenetik](#) eratorritako betebeharrak bete nahi da. Hitzarmen hori New Yorken onetsi zen, 2006ko abenduaren 13an, eta Espainiak berretsi zuen, 2007ko abenduaren 3an ([BOE, 96. zk., 2008ko apirilaren 21ekoa](#)). Honela dio: “estatu kideek informazio egokia bilduko dute, estatistika eta ikerketa datuak barne direla, hitzarmen hau gauzatzeko politikak formulatu eta ezarri ahal izan ditzaten”.

Desgaituek (fisikoak, psikikoak edo zentzumenezkoak) aurre egin beharreko egoera zehatza ikertzen duen edozein azterlanen jomugan, aintzat hartu behar da irisgarritasun unibertsa-

laren eredua, hau da, hiri-ingurune, eraikin, garraio, komunikazio eta zerbitzuen irisgarritasuna. Horiek guztiak funtsezko elementuak dira pertsonen berdintasuna bermatzeko eta beraien eskubideak betetzeko. Aldi berean, irisgarritasun unibertsalak pentsarazten du aurretiaz denontzako diseinu baten estrategia eratu dela, eta, beraz, onartzen dela gizarte osoak egokitu behar duela bere kideen aniztasunera.

Txostenaren helburuak, irismena eta metodologia

Arartekoan kudeatu diren kexetatik lortutako informazioan oinarrituta, gero eta gehiago sendotu da diagnostiko-txosten bat egitea komenigarria zelako ideia, Osakidetzaren ospitaleek eta Osakidetzarekin itundutako ospitaleek irisgarritasunari buruzko araudia zenbateraino betetzen duten aztertu ahal izateko. Horrela, Euskadiko ospitaleen irisgarritasunaren irudi zehatzagoa lortu ahal izango da.

Beraz, txosten honek Euskal Herriko ospitaleen irisgarritasuna zertan den aztertzea du helburu.

Horretarako, Osakidetzak hiru lurraldeetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) dituen ospitaleak aukeratu eta aztertu dira, baita Osakidetzarekin itunduta dauden beste ospitale batzuk ere (lurralde bakoitzeko, gutxienez, horietako bi aztertu ahal izateko). Halaber, Osateken ospitale psikiatrikoak eta zentroak bisitatu dira. Guztira, Osateken 36 ospitale eta 7 zentro bisitatu eta aztertu dira.

Lehen fasean, Ararteko erakundea Osakidetzako arduradunekin harremanetan jarri zen, bi helbururekin: lehena, lankidetzat eskatzea, txostena prestatzeko behar ziren informazioa eta agiriak eskuratu ahal izateko; eta bigarrena, aukeratu ziren EAEko ospitale publiko eta itundutako ospitale pribatuen sarerako bisitak eta sarbidea koordinatzea, Elkarturen lantaldeak landa-lana egin zezan, txosten honetan Arartekoarekin elkarlanean aritu baita.

Horren haritik, ospitaleak ikustera joan eta datuak bildu ziren; gero, datu horiek sistematizatu, tratatu eta lortutako emaitzak balioetsi ziren. Horretarako, lantalde teknikoek laguntza eman diete erakunde horretako gizarte ekintza, aholkularitza sozio-juridiko eta administrazio arloetako profesionalak.

Diagnostikoa egiteko prozesuan kontuan hartu dira **“irisgarritasunaren katea”** deritzona osatzen duten hiru segmentu edo etapak:

- Lehen segmentuak kanpoko irisgarritasunarekin du lotura, hau da, kalearen eta osasun ekipamenduaren arteko **ibilbide** irisgarriarekin edo igarotzeko modukoarekin.
- Bigarren segmentua, zehazki, barruko irisgarritasuna da. Bere baitan hartzen ditu **ekipamenduaren** barruko joan-etorriak, paziente nahiz bisitari izan.
- Azkenik, ospitaleko zerbitzu, kontsulta, logela, proba, eta abarren eskuragarritasuna aztertu nahi da.

Zeharkako elementu gisa, irisgarritasun-kate osoko komunikazioa aztertu da.

Nazioartean, Estatuan eta autonomia erkidegoan gure aztergaia arautzen duen esparru juridikoa ere ikertu eta doku-

mentatu da, bai ospitaleetan bete behar diren irisgarritasun baldintzen ikuspegitik, bai hirigintza-antolamenduko tresnen ikuspegitik ere.

Txostena egitean Arartekoak ahalbidetu dituen kontraste-tal-deetan, osasun arloko langileek parte hartu dute (nork bere kabuz), baita ere euskal osasun sistema erabiltzen duten zenbait desgaituk.

Informazio kopuru izugarri hori tratatu behar zenez gero, gainditu egin behar izan dira txostena prestatzeko hasieran ezarri ziren epeak. Denbora luzea behar izan da bisitetan lortutako datu guztiak sistematizatzeko. Horri esker, datu anitzen birtartez aberastu da eskura zegoen informazio teknikoak, eta hori interesgarria izango da, zalantzarik gabe, osasun arloko kudeatzaileentzat beraientzat, ospitaleetara sartzeko azpiegituren eta garraio-elementuen arduradunentzat. Era berean, horri esker, datuak alderatu ahal izango dira etorkizuneko eguneratze-lanetan. Hori oso garrantzitsua da.

Argazki asko sartzea erabaki da, grafikoki eta modu adierazgarrian ikusi ahal izateko egin diren irisgarritasun diagnostikoak.

Txostenaren ondorioz sortutako gogoeta eta oinarritzko ideia batzuk

Euskal osasun sistemak garrantziko tokia du Estatu osoan; horregatik, Arartekoak, ekimen honen bidez, elementu garrantzitsuak eman nahi izan ditu irisgarritasunaren arlo zehatzetan sistema hobetu ahal izateko.

Erakunde honek badaki Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko arduradunek pixkanaka neurriak ezartzeko borondatea dutela desgaituei osasun-zerbitzuak egitea errazteko. Horren erakusgarri, txosten hau egiten ari zen bitartean, zenbait jarduera egin dira ospitale batzuetan; jarduera horiek, bisitak egin ostean burutu direnez gero, ezin izan dira diagnostiko honetan sartu. Hala ere, behar bezala idatziz jasoko dira datozen urteetan txosten honen bilakaeraz egiten diren azterketetan.

Urdulizko Ospitalea 2016ko bigarren seihilekoan jarduten hasiko zela jakinda, Arartekoak ez zuen txosten hau bukatutzat jo harik eta bertan sartu arte ospitale berri hori zabaldu ondoren hasiera batean abiarazi ziren zerbitzuen irisgarritasunari buruzko informazioa (txosten honen V. kapituluari). Horri esker, hainbat aurrerapen eta hobekuntza garrantzitsuak ikusi dira sareko beste ospitale batzuekin alderatuta.

Jakina, txostenean gomendatzen diren aldaketa guztiek batera ezartzea lan ikaragarria izango litzateke, eta, zentzuzkoa denez, ezingo litzateke epe laburrean egin jardunaren behar orokorrak eta euskal osasun sistema osorako beharrezkoak diren inbertsioen aurreikuspenak alde batera utzi gabe. Hortaz, txostenean egindako gomendioei erantzuteko, aldi baterako plangintza egokia egin beharko da dagozkien lau urteko planetan, eta aurrekontuzko konpromiso iraunkorra beharko da epe ertain eta luzean, benetako leheneste eraginkorrean oinarrituz, osasun-sistemaren irisgarritasuna hobetzeko zimentuak jartzeko.

Ildo horretan, ontzat jotzen dugu EUSKADI 2020 XI. Legegintzaldiko Gobernu Programan, osasunari dagokion atalean (II.1 ARDATZA. Osasun eskubide unibertsala), 64. konpro-

misoan (**Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu**), **3. EKIMENA** sartu izana: **Desgaitasun fisikoa edo sentsoriala dutenen irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin euskal osasun-sistemaren zentro, instalazio, baliabide eta zerbitzu guztietan.**

Bestalde, ezin ditugu ahaztu beste errealitate batzuk ere, zeinak aintzat hartu beharko baitira iradokitako aldaketak egin ahal izateko etorkizunean onartu beharko diren estrategietan:

- Abenduaren 4ko 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzekoa, eta hori garatzen duten dekretuak. Horietan baldintza tekniko batzuk ezartzen dira, legeak zehaztutako jarduera-eremuetan ezarri beharrekoak, eta bere baitan hartzen dute osasun-administrazioak egiten duen edozein jardueratan bete beharreko araudi teknikoa.
- **Desgaituen eskubideei buruzko Hitzarmena**, Nazio Batuek onetsitakoa (2006). Bertan biltzen dira desgaituen eskubideen paradigma osatzen duten oinarrizko printzipioak.
- Ezin saihestuzko errealitatea da biztanleria pixkanaka zahartzen ari dela eta osasun-eremuan baldintza bereziak gertatzen ari direla aldi berean. Euskadin, desgaituen ehunekoa %8ra iristen da, eta ospitaleetan aldi baterako mugikortasun urria dutenen ehunekoa, %9ra. Gainera, txostenaren I. kapituluaren ikus daitekeenez, 65 urtetik gorako pertsonak jada euskal biztanleen %21 ziren orain 2 urteko datuetan. Laburbilduz, orain EAEn bizi diren eta ospitaleak erabiltzen dituzten biztanleen %38k, aldizka behintzat, mugikortasun urriko egoerak pairatzen dituzte edo paira ditzakete. Orduan, ez gara mintzo erabiltzaile gutxi batzuen beharrez, baizik eta herritar kopuru handi baten premiez, eta kopuru hori apurka-apurka handituz joango da.

Ondorioak eta gomendioak

Txostenean, lehendabizi ondorio orokorren (17) atala agertzen da. Jarraian, ondorio zehatzak atera dira txostenean aztertutako elementu bakoitzari buruz. Ondorio guztiek, orokorrek nahiz zehatzek, indarreko araudiaren babesa dute. Araudi horretan oso nabarmen aipatzen dira xehetasun ugari hornitutako arau teknikoak.

Txostenak lehenbailehen egin beharreko jarduera batzuk argitzen ditu. Horrela, arrazoizko eta betetzeko moduko epean azken helburua lortu arte (hau da, euskal osasun sistemak denontzat diseinatutako irisgarritasun unibertsala bermatzea), beharrezko hainbat urrats egin beharko dira, pixkanaka baina erabakitaz, euskal ospitaleetako zerbitzu eta osagaietan (logelak, komunak, diagnostiko kabinak, itxarongelak, aparkalekuak, e.a.) hasiera batean elementu eskuragarrien gutxienezko ehuneko bat egongo dela bermatzeko. Era berean, askoz errazagoa denez, irisgarritasuna bermatzen ez duten oraingo elementuen ikuskatze funtzionala egin beharko da, izan ere, orain tratatuta daude, altzariengatik edo instalazioak behar bezala erabiltzen ez direlako.

Irisgarritasuna hobetzeko prozesua abiarazi nahi bada (horixe eskatzen da txotenean), lehenik, ospitale bakoitzaren irisgarritasun plana idatzi beharko litzateke. Plangintza horri ekiteko unean, osasun administrazioak gogoan izan beharko du irisgarritasun katearen 3 segmentuak aintzat hartu behar direla, hasten diren aldaketek eraginkortasun handiena izango dutela ziurtatzeko. Horrela, osoko konponbideak onartu beharko dira, bada jarduera zehatzak –oso interesgarriak eta eredugarriak izan arren– ez dira eraginkorrak izaten, baldin eta mugikortasun urriko pertsonak ez badaukate ziurtatuta irisgarritasun kate osoa.

EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa izenburuko txostenean ondorioztatu zenez, gabeziarik handiena komunikazio arloan gertatzen da, izan ere, osasun sisteman ia ez dago neuririk ikusmen edo zentzumen urriko informazioa eskuragarriago jartzeko.

Bestalde, gomendioak (guztira, 42) 3 multzo handitan egiaturatu dira: lehen multzoan, bi gomendio orokor bildu dira; bigarren multzoan, hiri-inguruetan eta garraio-sistematan erantzukizuna duten euskal administrazioei egindako gomendioak; eta, hirugarrenean (luzeena), ospitale sistemako arduradunei egindakoak.

Eranskin batean zehatz-mehatz bildu dira txostenaren atal bakoitzean gomendioak zenbateraino betetzen diren adierazten duten ehunekoak.

Esker emateak

Adierazi dugunez, txosten berezi honen oinarrizko azterlana prestatzeko ardura Elkarturi eman zitzaion (**Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Gipuzkoako federazio koordinatzailea**). Elkarre horrek 30 urtetik gorako ibilbidea sendotu du, gizarte irisgarriago eta barneratzaileagoa lortzeko lan eginez, eta erreferente bat da desgaitu fisikoaren eskubideak babestearen arloan. Arartekoak eskerrak eman nahi dizkio, asmo handiko txosten hau burutu ahal izateko erakutsi duen arduragatik eta bere konpromisoagatik.

Era berean, erakunde honek esker ona erakutsi nahi dio Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari, laguntza eman baitugu ospitale eta osasun-zentroetan informazioa biltzeko bisitetarako, eta etengabe hitz egin ahal izan baitugu txostena prestatzen ari ginenean. Horri esker, informazio zehatza eta dokumentazio euskarria eskuratu ditugu, eta modu egokian koordinatu ahal izan dugu, ahalik eta gutxien oztopatzeko aztertutako zentzuen jarduna.

Bereziki nabarmendu nahi dugu eztabaida-taldetan esku zabaltasunez parte hartu duten pertsonen laguntza, kontrastatzeko elementu interesgarriak eman dizkigute eta.

Horiei guztiei, eskerrik asko beren lanagatik.

Manuel Lezertua

Arartekoa



Sarrera: Proiektuaren helburua eta norainokoa.

Azterlanaren metodologia

k a p i t u l u a

I. kapitulua

Sarrera: Proiektuaren helburua eta norainokoa. Azterlanaren metodologia

1.

Proiektuaren helburua eta norainokoa

EDEKAK egin duen *Euskadiko desgaitasunari buruzko liburua zurian*¹ osasunaren arloan gizarte-erakundeek nabarmentzen dituzten arazoetako askok eta askok oztopoak ego-tearekin eta irisgarritasun-gabeziekin dute zerikusia.

Adibidez, honako hauek nabarmentzekoak dira:

- *“Entzumen-urritasuna dutenek salatzen dute interprete-zerbitzuak zerbitzu arruntak baino ez dituela betetzen. Adibidez, larrialdietara edo ospitalera joan behar izanez gero, familiako edo beste pertsona batek lagunduta joan behar da.*
- *Euskadin duela gutxi ezarri den ordua eskatzeko sistema ere erabat iristezina da entzumen-urritasuna dutenentzat.*
- *Errezetak ez daude egokituta ikusteko desgaitasuna duten pertsonak erabili ahal izateko.*
- *Itsuentzat osasun-zentroetara edo Osakidetzaeren eraikitara joatea zaila izaten da, laguntzailerik ez badute.*
- *Kalean edo garraio publikoan ibiltzeko arazoak dituzten pertsonak ere badaude, eta oso zaila egiten zaie Osakidetzaeko zerbitzuetara iristea.*

¹ EDEKA. *Libro blanco sobre la discapacidad en Euskadi. Libro blanco sobre la discapacidad en Euskadi. Inclusión Social, Vida independiente, Participación, Ciudadanía Activa y Derechos Sociales de todas las personas con discapacidad en Euskadi: el Reto de la Igualdad.*

- *Osasun-zentroen eta ospitaleen irisgarritasunari dagokionez, gabezia ugari daude. Ate astunak, ohatila iristezinak, gurgil-aulkientzako tokirik eza, harrera-mahaiak altuak, zoladurak ez dira berdinak, gelak egokitu gabe...*
- *Emakumeen arreta zerbitzuak ez dira irisgarriak.*
- *Oro har, baliabide eta baldintza guztiek pertsonen autonomia bermatzea eta duintasuna errespetatzea aldarrikatzen da”.*

Azterketa honen bidez Arartekoaren erakundeak planteatu dituen helburu zehatzak honako hauek dira:

- Osakidetzaeren sareko edo itunpeko ospitaleetan, irisgarritasunari buruzko araudiaren betetze maila aztertzea.
- Desgaitasun eta mugikortasun urria duten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleak baldintza berdinetan erabiltzeko eskubidea bermatzea, are gehiago, biztanle guztiei bizitzako une batean eragin dokiekeen gaia dela kontuan hartuta.
- Oinarri objektibo eta metodologikoa hartuta, lege- eta administrazio-neurriak eskatzea, ospitaleekin zerikusia duten hirigintza-jarduketetan irisgarritasunari buruko araudia betetzea bermatzeko.
- Osasun Administrazio Publikoa kontzientziatzea irisgarritasunari buruzko indarreko araudia bete behar duela, desgaitasuna duten pertsonen osasun zerbitzuak bete-betean eta baldintza berdinetan erabili ahal izateko. Horretarako, ahaleginak egin behar dituzte osasun zerbitzu horiek, osasun mentaleko zerbitzua, laguntza psikologikoa, kanpo-kontsultak eta gaixo ospitalizatuena zainketa barne, nahikoa ekipamendu izan dezaten eta eraginkorrak izan daitezen pertsona desgaituen premiak betetzeko.

- Hain zuzen ere, aniztasun funtzionala duten emakumeek ginekologoaren zerbitzua (kontsultak eta tratamendua) eskuratzeko daukaten aukera aztertzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen komunikazioa errazteko eta eurekin komunikatzeko neurriak hartzen direla bermatzea. Komunikazioak ulergarria izan behar du eta gaixoari ezinbesteko informazioa eman behar zaio (zeinu-hizkuntzako interpreteen bidez, braillez, ahoz edo beste sistema bat erabiliz) osasun-arretaren arloko beharrei edo egin behar zaizkion tratamendu medikoei buruz.

2.

Txostenaren edukia eta egitura

Txostenaren edukia eta egitura zehazteko, kontuan hartu dira, alde batetik, irisgarritasun arazoak beti izaten dituztenen taldea (desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala dutenak), mugikortasun urriko pertsonak, eta, bestalde, adina dela eta, edo ebakuntza kirurgiko baten ondorioz ospitalean denbora batez egon behar duten eta mugitzeko gaitasuna murriztua izan dezaketen pertsonak (mugikortasun urriko pertsonen taldearen azterketa soziodemografikoari hurrengo atalean helduko zaio).

2.1. Irisgarritasuna

Bestalde, azterketa horren edukia mugatzeko, beharrezkoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistemaren eginkizunak irisgarritasunaren ikuspuntutik zehaztea, mugikortasun urriko pertsonentzako ibilbide, instalazio eta zerbitzuen kokapena eta erabilgarritasuna erabakitzen dituen irisgarritasun katea kontuan hartuta.

Irisgarritasuna honako premisa honen ikuspuntutik ulertu behar da: edozein pertsonak eskubidea du eraikin, zerbitzu edo produktuak baldintza berdinetan erabiltzeko. Eraikin bateko sarrerako eskailera-maila bat ordezkatzeko aukera baino gehiago da; aukera eta onura berdina izatea da eta besteek erabiltzen dituzten programa eta zerbitzu berdina eskuratzeko. Horien artean, ez dira ahaztu behar, askotan gertatu bezala, komunikazioarekin eta informazioa ematearekin loturiko zerbitzuak.

Era berean, irisgarritasunaren kontzeptua ulertzeko, giza jarduerari loturiko hiru oinarritzko gaitasunak hartu behar dira kontuan: mugikortasuna, komunikazioa eta elkar ulertzea. Hiru giza jarduera horiek mugatuak daude, hainbat oztopo daudelako.

Liburu zuriak ezartzen duenari jarraikiz², irisgarritasuna hau da “...ingurune, produktu edo zerbitzuak izan behar dituen ezaugarrien multzoa, pertsona guztiek, eta bereziki, desgaita-

sunen bat dutenek, erosotasunez, segurtasunez eta baldintza berdinetan erabiltzeko”.

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarte-ratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, bere 22.1 artikuluan honako hau xedatzen du: “Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubidea dute bizimodu beregaina egiteko eta bizitzako alderdi guztietan osoki parte hartzeko. Horretarako, botere publikoek neurri egokiak onartuko dituzte, irisgarritasun unibertsala gainerako pertsonen kiko baldintza-berdintasunean izango dela ziurtatzeko, dela inguru batzuetan eta besteetan behar den irisgarritasun unibertsala, edo dela prozesuetan, produktu eta zerbitzuetan, garraioetan, informazioan eta komunikazioetan (informazioko eta komunikazioetako sistemak eta teknologiak barne), hedabide sozialetan eta herritarrek erabiltzeko edo herri-erabilerako beste zerbitzu eta instalazio ireki batzuetan behar den irisgarritasun unibertsala”.

Ildo horretan, aipatu beharra dago irisgarritasuna bermatzeak esan nahi duela ingurune, eraikin, garraio bide edo komunikabide jakin batera sartzeko aukera egongo dela eta pertsona guztiek zerbitzua pentsatu den moduan erabili ahal izango dutela. Gainera, erabilera autonomoa bermatu behar da, hau da, pertsona guztiei baliabidea modu independentean erabiltzeko aukera eman behar zaie.

2.2. Irisgarritasun katea

Pertsona bat lekuz aldatzeak jarraitua eta oztoporik gabea izan behar du, abiapuntutik helmugaraino. Hau da, ibilbideak hasieratik amaierara izan behar du irisgarria, pertsona guztiek baldintza berdinetan erabili ahal izateko.


Ildo horretan, irisgarritasun katearen oinarritzko elementuak aipa ditzakegu:

1. Etxebizitzaren eta espazio publikoaren arteko lotura: etxetik ateratzea eta eskaratetik kalera irteea.
2. Espazio publikoaren eta garraiorako azpiegituraren arteko lotura (geltokia, ibilgailua): oinezkoen ibilbidea hiri-gunean zehar, garraio publikoa hartzeko geltokiraino edo aparkalekuraino.
3. Geltokiaren eta ibilgailu edo garraio bidearen arteko lotura: ibilgailura igotzea, barruan mugitzea, ibilgailutik jaistea.
4. Garraioa hartzeko azpiegitura espazio publikoarekin eta helmugarekin konektatzea: geltokietan edo aparkalekuetan mugitzea helmugara iritsi arte.
5. Helmuga.

Irisgarritasun kate horrek joan-etorriak egiteko informaziorako sarbidea ere eman behar du, mezuak jaso eta ulertzeko erraztasunak eta abar.

² ACCEPLAN. Libro blanco. Por un nuevo paradigma, el Diseño para Todos, hacia la plena igualdad de oportunidades. 2013ko otsaila.

1. irudia.

Irisgarritasun katea

Lekualdaketa orok hainbat etapa ditu, eta horiek IRISGARRITASUN KATEA deritzona osatzen dute.

Txosten hau egiteko, irisgarritasun katea egituratzeko aintzat hartu diren funtsezko elementuak honako hauek izan dira: garraioa, publikoa (ospitaletik hurbil dauden geltokiak) zein pribatua (aparkalekuak), ospitalera iristeko beharrezkoak diren elementuak, kanpoaldetik barrura sartzeko ibilbidea eta ospitalearen eraikina.

- KANPOKO IRISGARRITASUNA:** ekipamendurako (geltoki edo aparkalekurako) ibilbideak irisgarria izan edo gutxienez ibiltzeko moduan egon behar du; geltokiek edo aparkalekuek ere irisgarriak izan behar dute.
- BARNE-IRISGARRITASUNA:** (bisitaria-gaixoa) sarbidea eta barrutian zehar mugitzea, barruko elementuetara heltzea eta ekipamendua erabiltzea.
- OSPITALEKO IRISGARRITASUNA:** (gaixoa) gelen barruan mugitzeko baldintzak, baita ospitaleratzeak, kontsultategietara heltzeak, errehabilitazioak, erradiografiak eta ekografiak egiteak eta abarrek eskatzen dituzten zerbitzuetara iristeko baldintzak ere.

Zeharkako alderdi gisa, irisgarritasun katearen ibilbide osoan komunikazioa aztertu da. Komunikazio hori garrantzitsua da helmugara heltzeko, eta seinaleen, jarraitu beharreko marren eta informazio akustiko zein bisualeko elementuen bidez eman behar zaie entzuteko zein ikusteko desgaitasuna duten pertsonari.

1. taula.

Irisgarritasun katea

KANPOKO IRISGARRITASUNA UDALAK/OSPITALEAK	BARNE-IRISGARRITASUNA (BISITARIA)	BARNE-IRISGARRITASUNA (PAZIENTEA)
Oinezkoentzako ibilbidea irisgarria / ibiltzeko modukoa. Irisgarritasun motorizatua: - aparkalekuak - garraio publikoa	Autonomiaz eta segurtasunez mugitzea. Oinarrizko zerbitzuetara heltzeko aukera. Informazioa eskuratu ahal izatea.	Lekualdaketa praktikoa ospitale-zerbitzuan. Oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea (gelak, analisiak, erradiografiak eta abar).
KALEA/kanpoaldea ospitaleak	ERAIKINA, BARNEALDEA	EKIPAMENDUA

komunikazioa

3.**EAEko mugikortasun urriko taldeen azterketa soziodemografikoa****3.1. Mugikortasun urriko pertsona desgaituak**

Mugikortasun urriko pertsonaren kontzeptuak barnean hartzen ditu kanpoko laguntzarik gabe mugitzeko gaitasuna aldi baterako edo betiko mugatua dutenak ([apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua](#), hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena).

Europako Parlamentuaren arabera, "mugikortasun urriko pertsonatzat" 65 urtetik gorakoak edo pertsona desgaituak jotzen dira, baita mugitzeko arazoak edo murrizketak dituztenak ere, hala nola:

- pertsona desgaituak (urritasun psikiko edo sentsorialak dituztenak edo gurgil-aulkiak erabiltzen dituztenak barne);
- desgaitasuna gorputz-adarretan duten pertsonak;
- garaiera txikikoak;
- esku ekipajea edo fardelak daramatzaten pertsonak;
- adin aurreratukoak;
- haurdunak;
- erosketa-orgak daramatzatenak;
- haurrak daramatzaten gurasoak (haur-kotxeetan dauden umeak barne).

Irisgarritasun-arazoak izaten dituzten taldeak, arrazoia mugikortasuna edo komunikazioa delarik, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan definitu dira.

Desgaitasun fisiko, psikiko, intelektual edo sentsorial batek eragin dezake mugitzeko gaitasuna murriztea, aldi baterako bada ere. Adina ere izan daiteke arrazoia. Gainera, ospitaleetako erabiltzaileek, hala nola haurdun dauden emakumeek

edo 3 urtetik beherako haurrak dituzten pertsonak, mugitze-ko zailtasunak izan ditzakete, denboraldi batean.

Azterketa honen ondorioetarako, adineko eta desgaitu guztiak izango dira mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonak. Mugikortasun urri iragankorra dutenak, berriz, gaixotasun edo eragozpenak dituzten pertsonak dira (haurdunak, igeltsua jarrita dutenak, iktusak jota daudenak, bihotzeko gaitza dutenak, hezur-giltzaduretako gaixotasunak dituztenak eta abar), baita ospitalera 3 urtetik beherako hurrekin batera jotzen dutenak ere.

Euskatek (Euskal Estatistika Erakundea) 2015ean jasotako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 2.173.210 pertsona bizi ziren. Horietako **458.396** 65 urtetik gorakoak izan dira, biztanleen %21. Era berean, 2008ko desgaitasun, autonomia pertsonala eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestaren bidez jasotako datuen arabera, **169.400** pertsona desgaitu bizi ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, biztanleen %7,79, alegia.

Osasunaren Mundu Erakundearen datuen arabera (2011ko “**Desgaitasunari buruzko munduko txostena**”), mila milioi pertsona baino gehiagok, hau da, munduko biztanleen %15ek desgaitasunen bat zuen. Desgaitasun tasa hori gero eta handiagoa da, biztanleria zahartuz doalako.

Euskatek 2014an EAEko zentroetan ospitaleratuta zeuden biztanleei buruz jaso dituen datuei dagokienez, “%46,5 65 urtetik gorakoak ziren eta ospitalizatutako gaixo gehienak 78 urtekoak ziren”.

Pertsona horien kopuruari gehitu behar zaio, ospitaleen erabiltzaile direnez, mugitzeko gaitasuna aldi batez mugatua duen edozein pertsona, hau da, desgaitasuna aitortua ez izan arren une jakin batzuetan mugitzeko arazoak izan ditzaketen pertsonak, hala nola aldi baterako ezintasuna dutenak, haurdunak, igeltsua jarrita dutenak, istripuren bat izan dutenak, oro har, gaixoak eta abar.

Kontuan izan behar da, gainera, mugikortasun urriko pertsonak biztanleen %50 izatera hel daitezkeela, “**EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa**” izenburuko txostenean azaldu bezala. Osasun zerbitzuen erabiltzaileei dagokienez, ehuneko hori are handiagoa izango dela aurreikusten da.

Nazio Batuek 2006an onetsitako **Pertsona desgaituen eskubideei buruzko konbentzioaren Aukerako Protokoloaren** 25. artikulua aitortzen duenez, “*pertsona desgaituek eskubidea dute ahalik eta osasun-maila handiena izateko, desgaitasun-arrazoien ondoriozko bereizkeriarik gabe*”.

Ospitaleetako zerbitzuetara iristeko orduan, talde horrek aurrizko arazo nagusiak honako hauek izan daitezke:

- **Arazo fisikoak:** jarraitu beharreko ibilbideetan, azpiegiturretara heltzeko gorabeherak, aldapak eta eskailerak igotzeko ezina; toki edo pasabide estuetatik pasatzeko ezina, bira emateko tokirik eza; ateak ireki eta itxeko zailtasunak; esku biek in batera eragiten diren mekanismoak erabiltzeko arazoak; igogailuak edo eskailerak erabiltzeko oztopoak; kontsultategietara sartzeko edo azterketa eta miaketa jakin batzuk egiteko arazoak eta abar.
- **Arazo sentsorialak:** botoiak edo errotuluak bezalako objektuak identifikatzeko ezina; gorabeherak edo elementu

irtenak bezalako oztopoak detektatu ezina; jarraitu beharreko norabideak edo ibilbideak aukeratzeko informaziorik eza; seinale akustikoak edo argizkoak identifikatzeko zailtasuna, adibidez, alarmak edo txanda eskatzeko seinaleak.

Premisa hori betez, erantsitako grafikoak eta taulek mugikortasun urriko EAEko biztanleen kopurua adierazten dute, ospitaleen erabiltzaileak izan daitezkeen talde desberdinen arabera banatuta. Hori kalkulatzeko, hainbat estatistika- eta dokumentu-iturri erabili dira, azterketan aintzat hartutako mugikortasun urriko pertsonen kategoria bakoitzeko:


MUGIKORTASUN URRI IRAUNKORRA DUTEN PERTSONAK	ITURRIAK
Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak, guztira	Eustat (Euskal Estatistika Erakundea), 2015eko datuak
Adinekoak	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria jaiotze urteari jarraiki, lurralde historiko eta sexuaren arabera. Eustat, 2015
Desgaitasun iraunkorra duten pertsonak	Desgaitasun, autonomia pertsonala eta mendekotasun-egoerei buruzko inkesta (EDAD-2008)
Aldi baterako desgaitasuna duten pertsonak	Osasun-egoera, ospitale-morbilitatea. Eustat, 2014

Ildo horretan, mugikortasun urriko pertsonen taldean biltzeko bereiz daitezke: mugikortasun urri iraunkorra dutenak eta mugikortasun urri iragankorra dutenak:

- **Mugikortasun urri iraunkorra:** adinagatik edo izaera fisikoko edo zentzumen izaerako desgaitasunagatik autonomiaz mugitzeko gaitasuna mugaturik ikusi duten gizabanakoei egiten die erreferentzia. Talde hori adinekoek eta desgaitasun iraunkorra duten pertsonak osatzen dute.

1. grafikoa.

EAEko biztanleria 2015ean



Kontuan hartu behar da biztanleriaren piramidea gero eta handiagoa dela. 2000. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, 64 urtetik gorakoak biztanleen %17,6 ziren (Eustaten datuak), hala ere, 2014an, 65 urte baino gehiagokoak biztanleriaren %21 ziren. Hau da, 65 urtetik gorako biztanleen kopurua %3,4 igo da 15 urtetan. Datozen urteetako bilakaera antzekoa izango dela aurreikusten da.

2. grafikoa.

EAEko biztanleriaren piramidea 2015ean (egileak egina, Eustaten datuen arabera)



65 urte edo gehiagokoek kopuruari dagokionez, 110.000 gehiago izan daitezke 2026an, hortaz, biztanleen %26,5 izango lirateke -ia-ia 7 puntu gehiago 2013an baino-. Guztizko horretatik, 32.000 pertsona 85 urte edo gehiago dituztenen taldekoak izango dira, biztanle guztien %4,6, alegia (Eustaten datuak).


■ **Mugikortasun urri iragankorra:** joan-etorriak autonomiaz egiteko gaitasuna aldi batez murriztua duten gizabanakoei egiten die erreferentzia. Talde hori honako hauek osatzen dute: haurdun dauden emakumeek, aldi baterako ezintasuna duten pertsonak, gaixotasun edo egoera baten ondorioz aldi baterako ezintasuna duten ospitaleen erabiltzaileak.

3.2. Mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonak

Lehen esan bezala, Eustatek 2015ean bildutako datuen arabera, 2.173.210 pertsona bizi ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horietako **458.396**, hau da, biztanleen %21, 65 urtetik gorakoak ziren. Era berean, 2008ko desgaitasun, autonomia pertsonala eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestaren bidez jasotako datuen arabera, **169.400** pertsona desgaitu bizi ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, biztanleen %7,79, alegia.

2. irudia.

Aurreikuspen demografikoak 2026rako (iturria: Eustat)



2. taula.

Mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonak (egileak egina)

BIZTANLEEN BANAKETA LURRALDEKA ETA MUGIKORTASUN URRIKO TALDEEN ARABERA	Adinekoak	Adinekoen ehunekoa	Desgaitasun iraunkorra	Mugikortasun urri iraunkorra	Mugikortasun urri iraunkorraren ehunekoa	
Araba	321.777	62.611	%19	22.800	85.411	%26,5
Bizaia	1.141.442	246.791	%22	92.100	338.891	%29,6
Gipuzkoa	709.991	148.994	%21	54.500	203.494	%28,6
EAEN GUZTIRA	2.173.210	458.396	%21	169.400	627.796	%28,8

3.3. Mugikortasun urri iragankorra dutenak

Mugikortasun urri iragankorra duten pertsonen buruzko informazioa eskuratzeko, [Eustaten](#) 2015eko "Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria jaiotze urteari jarraiki, lurralde historiko eta sexuaren arabera" estatistikatik ateratako datuak estrapolatu dira. Hortik atera da "Osasun-egoera. [Estatistika-etaulak. Ospitale-morbilitatea](#)".

Aipatutako estatistikatik, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale publikoan edo pribatuan alta jaso duten gaixoei buruzko datuak hartu dira aintzat. Datuak ateratzeko erabilitako aldagaiak honako hauek dira: diagnostikoa eta lurralde historikoa, 2014. urtean zehar.

Mugikortasun urri iragankorra akutuen ospitaleetan dauden bitartean jasan behar duten gaixoei buruzko datuak estrapolatu dira, ospitaleetan irisgarritasun arazo handienak izan ditzaketen gaixoak direla ulertzen delako. Horrela, haurdun dauden emakumeak, umea izan dutenak, gaixotasun baten ondorioz ezgaituak (miokardioko infartu akutua, hezur-giltzaduretako eta lokomozio aparatuen gaixotasunak, begietako arazoak, kataratak, anomalia perinatalak, lesioak eta pozoidurak) eta 3 urtetik beherako haurrei laguntzen dienak bereiz daitezke.

Jarraian dauden tauletan jaso dira bai datu horiek, baita 2014an ospitaleratutako pertsonen guztizkoa ere.

3. taula.

Mugikortasun urri iragankorra duten pertsonak, ospitaleratu direnak. 2014ko datuak (egileak egina)

GAIXOTASUN MOTA	GUZTIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Begietako arazoa	33.890	4.692	19.876	9.322
Kataratak	25.002	3.134	13.861	8.007
Miokardioko infartu akutua	2.008	385	1.018	615
Haurdunaldia eta erditzea	22.717	3.394	11.304	8.019
Hezur-giltzaduretako eta lokomozio aparatuen gaixotasunak	29.799	5.286	14.070	10.443
Anomalia perinatalak	2.446	380	1.166	900
Lesioak eta pozoidurak	23.269	3.433	12.477	7.359
3 urtetik beherako haurrak	59.064	9.769	29.618	19.677
GUZTIRA	198.195	30.473	103.390	64.342
ALTAK GUZTIRA (EAE)	320.761	49.427	165.296	106.038

4. taula.

Mugikortasun urria duten biztanleak EAEko ospitaleetan (iturria: egileak egina)

BIZTANLEEN BANAKETA LURRALDEKA ETA OSPITALEERTUTA DAUDEN MUGIKORTASUN URRIKO TALDEEN ARABERA	MUGIKORTASUN URRI IRAGANKORRA DUTENAK OSPITALEETAN				MUGIKORTASUN URRI IRAGANKORRA DUTENAK OSPITALEETAN, GUZTIRA	MUGIKORTASUN URRI IRAGANKORRA DUTENEN EHUNEKOA OSPITALEETAN
	Gaixoak guztira	Haurdunaldia eta erditzea	Mugikortasun urri iragankorra duten pertsonen gaixotasunak	3 urtetik beherako haurrak	GUZTIRA	EHUNEKOA
Araba	49.427	3.394	17.310	9.769	30.473	%9,4
Bizaia	165.296	11.304	62.468	29.618	103.390	%9,05
Gipuzkoa	106.038	8.019	36.646	19.677	64.342	%9,06
EAEN GUZTIRA	320.761	22.717	116.424	59.064	198.205	%9,12


Lurralde historikoak gorabehera banatutako datu erlatiboek agerian uzten dute mugikortasun urri iraunkorra nahiz iragankorra duten pertsonen artean banaketak baliokideak direla. Hala eta guztiz ere, deigarria da Bizaian bizi den eta izaera iraunkorreko mugikortasun urria duten biztanleen portzentajea. Hori, biztanle kopuruaren aldetik, %1 handiagoa da Gipuzkoan baino, eta, Arabarekin alderatuta, 3,1 puntu portzentual gehiagokoa da.

5. taula.

Mugikortasun urria duten biztanleen ehunekoa EAEn (iturria: egileak egina)


LURRALDEA	MUGIKORTASUN URRI IRAUNKORRA, GUZTIRA	MUGIKORTASUN URRI IRAGANKORRA, GUZTIRA	MUGIKORTASUN URRIA DUTENAK, GUZTIRA	MUGIKORTASUN URRIA DUTENEN EHUNEKOA
Araba	85.411	30.473	115.884	%36,01
Bizaia	338.891	103.390	442.281	%38,74
Gipuzkoa	203.494	64.342	267.836	%37,72
GUZTIRA	627.796	198.205	826.001	%38,00

3. grafikoa.

Mugikortasun urria dutenak EAEko biztanleen guztizkoaren gainean (iturria: egileak egina)

4. grafikoa.

Mugikortasun urria duten biztanleak EAEko ospitaleetan (iturria: egileak egina)




Datu orokorretara joz gero, esan daiteke egun EAEn bizi eta ospitaleen erabiltzaileak direnen %38k mugikortasun urriko pertsonak direla.

Ospitaleen erabiltzaileei dagokienez, %76,5ek mugikortasun urria dute, iraunkorra edo iragankorra. Datu hori kontuan hartuta, ospitaleen inguruko irisgarritasunaren gaiari lehenbailehen heldu behar zaiola ikus daiteke. Izan ere, ezinbestekoak dira gaia erakunde eta agente eskudunen agendetan sartzea eta aurrekontu egokia ezartzea, irisgarritasun-baldintzak betetzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleak normaltasunez erabiltzea ahalbidetzeko.

5. grafikoa.

EAEn mugikortasun urria dutenen taldeen banaketa, lurralde historikoka (iturria: egileak egina)



4.

Txostenaren egitura

Txostenaren edukiak honako ardatz hauen inguruan egituratzen dira:

- **1. kapitulu** honek helburuak, proiektuaren norainokoa eta azterketaren metodologia azaltzen ditu.
- **2. kapitulu**an irisgarritasunari loturiko esparru juridiko eta kontzeptuala deskribatu da, gaia maila teorikoan kokatzeko eta araudiaren bilakaera ulertzea errazteko. Horretarako, nazioarteko zein estatuko arau-esparruari buruzko azalpen orokorra eskaintzen da, baita EAEn indarrean dauden arauen azterketa xehea ere.
- **3. kapituluak**, berriz, txostenaren zati nagusia osatzen duenak, EAEko ospitale guztien irisgarritasun mailaren ebaluazioari buruzko datuen azterketa jasotzen du, oro har, eskema berari jarraikiz:
 - Hiri-ingurunea.
 - Aparkalekuak.
 - Sarrerak eta itxarongelak.
 - Kontsultak.
 - Komun irisgarriak guztientzako eremuetan.
 - Gelak eta boxak.
 - Beste gela batzuk.
 - Ondorioak.
- **4. kapituluak** kontraste taldeetan jasotako emaitzak biltzen ditu.
- **5. kapitulu**an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak burutu dituen (edo laster burutzeko asmoa du) ekintza-programei buruzko informazioa dago jasota.
- **6. kapitulu**an azterketaren ondorioak azaldu dira.
- **7. kapituluak**, azkenak, administrazio publikoei –batez ere, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari– zuzendutako gomendioak jasotzen ditu.
- **1. eranskin**ak irisgarritasun katea osatzen duten elementuetan jasotako datuak –irisgarritasunari buruz– aztertzen ditu, modu orokorrean baina xehetasunez.

5.

Azterketaren metodologia

Azterlana burutzeko ikerkuntza partehartzaileko metodoa hartu da oinarri, hortaz, parte hartu duten profesionalak horren protagonista bihurtu dira eta prozesuaren etapa guztietan egon dira (diseinua, faseak, garapena, ekintzak, proposamenak eta abar).

Ikerlanean metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili dira. Metodologia kuantitatiboa irisgarritasunaren arauen betetze maila ebaluatzeko adierazleen ereduak erabiliz burutu

da. Adierazleen multzoa gure teknikariek osatu dute. Horietaz gain, galdetegi batzuk ere erabili dira, bisita egin aurretik ospitaleetara bidali direnak. Galdetegien bidez, aztertutako arloei buruzko datu zenbatgarriak batu ditugu.

Metodologia kualitatiboa ospitaleetan zein ospitale desberdinetako teknikariez osatutako kontraste taldeetan egindako elkarrizketen bidez burutu da.

5.1. Faseak

Azterlana burutzeko, zenbait fasetan oinarritutako metodologia jarraitu da. Fase bakoitzean, halaber, ekintza batzuk bereizten dira eta, horiei esker, azterketa egitean parte hartu duten eragile desberdinen (tekniko, sozial eta legala) ekarpenak bildu eta bateratu ditugu, aztergaiaren gaur egungo egoera ezagutu eta ikertzeko.

1. FASEA	<p>1. EKINTZA: azterketan parte hartzeko teknikariak hautatzea.</p> <p>2. EKINTZA: ikertu beharreko berariazko arloei buruzko dokumentu-basea sortzea.</p> <p>3. EKINTZA: ospitaleetara egiten diren bisitetan bertetzeko fitxa egitea.</p> <p>4. EKINTZA: datuak biltzeko sistema informatikoa egitea eta datu-basea sortzea.</p>
2. FASEA	<p>1. EKINTZA: bisitak ospitaleekin adostea eta egitea.</p> <p>2. EKINTZA: ospitaleetara egindako bisitetan jaso diren datuak biltzea.</p>
3. FASEA	<p>1. EKINTZA: bisitetan jasotako datuen azterketa.</p> <p>2. EKINTZA: lehen ondorioei buruzko txostena egitea.</p>
4. FASEA	<p>1. EKINTZA: ikerketa eta azterketaren xede diren gai-eremuei buruzko kontraste taldeak sortzea.</p>
5. FASEA	<p>1. EKINTZA: lehenengo ondorioak eta kontraste taldeen ekarpenak aztertuta, amaierako txostena egitea.</p> <p>2. EKINTZA: txostena gizaritari eta aztertutako gaiari loturiko eskumenak dituzten erakunde publikoiei eza-gutzera emateko programa prestatzea.</p>

Aipatutako faseak 2014 eta 2016 bitartean garatu dira.

5.2. Diagnostikoa egiteko tresnak

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako irisgarritasuna ebaluatzeko prozesuan hainbat datu zehatz biltzen dituen fitxa tekniko bat erabili da oinarri. Horri esker, irisgarritasunari buruzko araudiarekin bat, ospitaleek –publikoek zein pribatuek– irisgarriak direla esateko bete behar dituzten zenbait eskakizun aztertu dira. Izan ere, fitxa horrek ospitaleetara egindako bisitetan datuak biltzeko tresna gisa erabili da. Fitxak emango du ondoren landuko den informazio osoa.

Diseinuan, Estatu Batuetako North Columbia State University unibertsitateko Diseinu Unibertsalaren Zentroak kontzeptu horrekin bat datoz produktuak garatzeko oinarri hartzen dituen [funtsezko printzipioak](#) hartu dira kontuan: 1. Erabilera unibertsala guztientzat: diseinu erabilgarria, erabiltzaile talde guztiek erabiltzeko modukoa. 2. Erabilera malgutasuna: diseinua lehenetsun eta banakako trebetza-

sunen multzo zabal batera egokitzen da. 3. Erabilera erraza eta intuitiboa: diseinua lagungarria da erabilera ulertzeko, erabiltzailearen esperientzia, ezagutza, hizkuntza-gaitasuna edo arreta biltzeko gaitasuna edozein dela ere. 4. Hautesman daitekeen informazioa: diseinuak erabiltzaileak behar duen informazioa ematen dio, modu eraginkorrean, giro-kondizioak edo norberaren abilezia sentsorialak kontuan hartu gabe. 5. Akatsen edo erabilera okerren tolerantzia: diseinuak murriztu egiten ditu nahi gabe edo akats bat dela medio burututako ekintzek eragin ditzaketan kalteak eta ondorio txarrak. 6. Esfortzu fisiko txikia behar izatea: diseinatutako elementuak modu eraginkor eta erosoan erabili daitezke, asko nekatu gabe. 7. Aparkalekuaren tamaina eta aparkatzeko, mugitzeko eta erabiltzeko tokia: hurbiltzeko, iristeko, biratzeko eta erabiltzeko tamaina eta toki egokia, erabiltzailearen gorpuzkera, jarrera edo mugikortasuna kontuan hartu gabe.

Horretaz gain, hainbat datu tekniko bildu dira, honako bi araudi hauetan jasota daudenak: [apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua](#), hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena; Eraikuntzaren Kode Teknikoa, hain zuzen ere, "[Documento Básico SUA. Seguridad de utilización y accesibilidad](#)". Datu horiek aparkalekuak egiteko erabili dira.

Kanpoaldean gune bakoitzean jarraitu behar den ibilbidea aztertu da, ospitaleetik gertuen dagoen garraio-sistematik (autobus edo metro) mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuetaraino.

Era berean, sarrera, espaloi, arrapala, eskailera eta seinaleetara heltzeko jarraitu behar diren ibilbideak aztertu dira. Hiri-ingurune horietan esku-hartzea ospitaleak dauden udalei dagokie, hortaz, hala badagokio, udalak arduratuko dira antzemandako irregulartasunak zuzentzeaz.

Zentroetako sarbideetan, kanpoko ibilbideak eta aparkalekuak aztertzeaz gain, begiratu da sarbidea kale mailan dagoen, zer ate mota erabili den, ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzako seinaleak, ibilbideen seinaleztapena eta abar.

Ospitaleetako barnealdeari dagokionez, honako elementu hauei buruzko datuak bildu dira: zoladura mota, ibilbideak, kontsultategiak, komunak eta aldagelak, itxarongelak, gelak, kafetegiak, kaperak, beilatokiak, farmaziak eta abar. Saiatu da gaixoei zein familiakoek erabili ditzakeen elementu guztiak aztertzen, eta kasu batzuetan, langilearen ikuspuntutik ere.

Jasotako datu guztiak (argazkiak, fitxak eta planoak) azterketa-fitxa bakar batera, baita datu-base batera ere, irauli dira. Horrela, ospitale bakoitzean eskuratutako informazioa bildu eta sistematizatu egin da, eta aztertutako datu guzti-guztiak antolatuta era erabilgarri daude.

3. irudia.

Fitxa teknikoaren eredia (egileak egina)

Habitaciones	
Gipuzkoa Donostia-San Sebastián Hospital Donostia-San Sebastián (VESTUARIO) familiares EDIFICIO MATERNO-INFANTE, hospitalización, p	
Habitación	
Dormitorio	Ancho de la puerta (≥ 90 cm) 1.-Si Se permite inscribir un círculo (180 cm) El espacio anterior y posterior permite circunferencia (180 cm) Acceso lateral a la cama sin obstáculos Acceso lateral por el lado derecho (90 cm) Acceso lateral por el lado izquierdo (90 cm) Altura de la cama (45-55 cm) Ancho del acceso al mobiliario (90 cm) Situación de mecanismos de control (junto a la cama 90-120 cm) Altura de mecanismos de control (junto a la cama 90-120 cm) Baldas y cajones del armario (50-120 cm) 2.-No Tiradores de la puerta de los armarios 1.- Fácil apertura
Cuarto de baño	Ancho de la puerta general (90 cm) 2.-No Suelos antideslizantes en seco y mojado 1.-Si Zócalo protector (30 cm alt. min) 2.-No Apertura hacia el exterior o corredora 2.-No Iluminación NO automática 2.-No Se permite la inscripción de un círculo, incluso acceso frontal 2.-No Espacio de acceso al inodoro 1.-Ningún espacio $>0,80$ c Espacio frontal al inodoro (≥ 120 cm) 2.-No Espacio por lado derecho (≥ 80 cm) 2.-No Espacio por lado izquierdo (≥ 80 cm) 2.-No Se permite la inscripción de un círculo, acceso frontal (150 cm) 2.-No Sistemas de alarma 2.-No
	Barras de soporte en inodoro 2.-No Barras en el lado derecho (≥ 80 cm) 6.-No es necesario/a Barras en el lado izquierdo (≥ 80 cm) 6.-No es necesario/a Altura de la barras (70-75 cm) 2.-No Longitud de las barras (80-90 cm) 2.-No Separación entre barras (30-35 cm) 2.-No Altura del asiento del inodoro (45-50 cm) 2.-No Altura del mecanismo de descarga del inodoro (70-110 cm) 2.-No Altura del lavabo (Mín 80 cm) 1.-Si Altura libre debajo del lavabo (70 cm) 1.-Si Fondo libre del lavabo (≥ 60 cm) 2.-No Grifería (Manomando o automática) 1.-Manomando Altura máxima del borde inferior del espejo (Mín 90 cm) 2.-No Altura de accesorios del lavabo (90-120 cm) 2.-No Altura de aparatos y mecanismos de control ambiental (90 cm) 1.-Si

Página 4520 de 6229

Hori dela eta, ospitaleei buruzko datu-baseak egiteko informazio-iturriak honako hauek izan dira:

- Informazioa jasotzeko fitxa.
- Irisgarritasunari buruz *in situ* jaso den informazioa.
- Ospitale bakoitzeko profesionalengandik jasotako informazioa.

Azterketa zuzena egiteko hautatu diren establezimenduak mapa digital batean markatu ziren eta kale, posta-kode eta udalerrriaren arabera sailkatu ziren, azterketa zuzena edo aurrez aurrekoa errazteko xedez.

4. irudia.

Osakidetzako 16 ospitaleak



5. irudia.

Osakidetzarekin ituna duten 9 ospitale pribatuak



6. irudia.

8 ospitale psikiatrikoak (4 berariazkoak eta 4 beste ospitale batzuen barruan)

7. irudia.

Aztertutako ospitaleak guztira**5.3. Aztertutako ospitaleak**

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleak 42 dira guztira; horietako 16 publikoak dira eta gainerako 26 pribatuak. Horietako

tako 42tik 29 “akutuen”³ ospitaleak dira (txosten hau amaitzen denean, Urdulizko ospitaleko ospitaleratze medikoaren zerbitzua oraindik ez dago martxan). Bestalde, azpimarratu behar da ospitale horietako 8k arreta psikiatrikoa ematen dutela.

Azterlan honetarako, Osakidetzako sare publikoko 16 ospitaleak aztertu dira, Osakidetzarekin ituna sinatu dute 12 ospitale pribatu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 8 ospitale psikiatriko. Ospitale garrantzitsuenak eta “gaixotasun aku-tuak” artatzen dituztenak hautatu dira lagina osatzeko.

Era berean, Osatekek eskaintzen dituen 7 zerbitzuak aztertu dira, ospitaleak osatzeko elementu behar-beharrezkotzat eta garrantzitsutzat jotzen direlako. Gainera, oinarrizko tresna dira hainbat gaixotasun ikertu eta ondoren tratatzeko.

Laginaren banaketa lurralde historikoaren eta ospitale publikoen, itunpekoen, psikiatrikoen eta Osatekek ematen dituen zerbitzuen arabera:

6. taula.

Laginaren banaketa lurralde historikoaren arabera (egileak egina)

OSPITALEAK	PUBLIKOAK/ OSAKIDETZA	PRIBATUAK/ ITUNPEKOAK	PSIKIATRIKOAK	GUZTIRA	OSATEK
Araba	3	3	1	7	2
Bizaia	8	4	3	15	4
Gipuzkoa	5	5	4	14	1
GUZTIRA	16	12	8	36	7

Aztertutako ospitaleak eta Osateken zerbitzuak:

7. taula.

Aztertutako ospitaleen zerrenda

OSPITALEAK	HIRIA
Indautxu klinika	Bilbao
Santa María de la Asunción klinika	Tolosa
Virgen Blanca klinika	Bilbao
Aita Menni ospitalea	Arrasate/Mondragón
Bidasoako ospitalea	Hondarribia
Basurtuko ospitalea	Bilbao
Gurutzetako ospitalea	Barakaldo
San Onofre Zainketa Ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Gorlizko ospitalea	Gorliz
Lezako ospitalea	Laguardia
Mendaroko ospitalea	Mendaro
Urdulizko ospitalea	Urduliz
Zumarragako ospitalea	Zumarraga
Deba Garaiko ospitalea	Arrasate/Mondragón
Galdakao-Usansoloko ospitalea	Galdakao
Gernika-Lumoko ospitalea	Gernika-Lumo

³ Akutuen arreta honela definitzen da: osasun-arreta espezializatua eskatzen duen egoera edo denboraldia, gaixo batek lesio, gaixotasun edo traumatismo larri bat dela eta tratamendu jasotzen duenean edo ebakuntza kirurgiko baten ondoren osatzen den bitartean.


(I). SARRERA: PROIEKTUAREN HELBURUA ETA NORAINOKOA. AZTERLANAREN METODOLOGIA

OSPITALEAK	HIRIA
Arabako Ospitale Psikiatrikoa	Vitoria-Gasteiz
Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa	Bermeo
Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoa	Zaldibar
Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa	Zamudio
Quirón Vitoria ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Ricardo Bermingham ospitalea	Donostia-San Sebastián
San Eloy ospitalea	Barakaldo
San Juan de Dios ospitalea	Santurtzi
Santa Marina ospitalea	Bilbao
Santiago Apostolua ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Txagorritxuko ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Donostia-San Sebastián
Donostia Unibertsitate Ospitalea. Arantzazu eraikina	Donostia-San Sebastián
Victoria Eugenia ospitalea	Bilbao
Vithas San Jose ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Donostiako Onkologikoa	Donostia-San Sebastián
Osatek, Areetako anbulatorioa	Getxo
Osatek, Doktor Areilza anbulatorioa	Bilbao
Usurbilgo sendategia	Usurbil

Ospitale publikoen, itunpeko pribatuen, psikiatrikoen eta Osatekek ematen dituen zerbitzuen ehunekoa:

6. grafikoa.

Aztertutako ospitaleen zerrenda (iturria: erakunde honek egin du, azterketarako hautatutako laginetik abiatuta)



Ospitaleetan landa-lana egiteko, zentro bakoitzeko ardura-dun baten kolaborazioa eskatu zen, bisita antolatzeko eta ikerketa taldeak egin behar zuen azterlanean laguntzeko.

Aurrez aurreko azterketa hori 2014ko abuztutik 2015eko martxo-ra garatu zen, Urduizko ospitalean izan ezik, bertan 2016an egin baitzen, martxan jarri ondoren. Bisitatutako ospitale bakoitzaren azterketa egiten emandako denbora ez da berdina izan kasu guztietan, izan ere, 4 eta 40 ordu bitartekoa izan da.

Jarraian azaltzen den taulan ospitale bakoitzari egindako bisiten egunak zerrendatu dira, baita aztertutako guneak ere:

2014	
ABUZTUA	
12	Gurutzetako ospitalearen kanpoaldea
13	Basurtuko ospitalearen kanpoaldea
20	Donostia Unibertsitate Ospitalearen kanpoaldea
21	Donostia Unibertsitate Ospitalearen eta Ricardo Bermingham ospitalearen kanpoaldeak
22	Gorlizko ospitalearen kanpoaldea
28	Deba Garaiko, Mendaroko eta Zumarragako ospitaleen kanpoaldeak
IRAILA	
2	Virgen Blanca klinikaren, Indautxu klinikaren, Victoria Eugenia ospitalearen eta Doctor Areilza anbulatorioaren (Osatek) kanpoaldeak
15	Bisita Zumarragako ospitalera
16	Bisita Zumarragako ospitalera
18	Bidasoako ospitalearen kanpoaldea
19	Bisita Bidasoako ospitalera
22	Bisita Mendaroko ospitalera
23	Bisita Deba Garaiko ospitalera
25	Bisita Donostia Unibertsitate Ospitalera
29	Bisita Donostia Unibertsitate Ospitalera
URRIA	
1	Bisita Donostia Unibertsitate Ospitalera
2	Bisita Donostia Unibertsitate Ospitalera
6	Bisita Donostia Unibertsitate Ospitalera
7	Bisita Donostiako Onkologikora
20	Bisita Gorlizko ospitalera
22	Bisita Santa Marina ospitalera
23	Bisita San Eloy ospitalera
29	Bisita Gernika-Lumoko ospitalera
AZAROA	
3	Bisita Basurtuko ospitalera
4	Bisita Basurtuko ospitalera
5	Bisita Basurtuko ospitalera
10	Bisita Basurtuko ospitalera
11	Bisita Basurtuko ospitalera
17	Bisita Galdakao-Usansoloko ospitalera
18	Bisita Galdakao-Usansoloko ospitalera
19	Bisita Galdakao-Usansoloko ospitalera
ABENDUA	
1	Aita Menni ospitalearen kanpoaldea
3	Bisita Gurutzetako ospitalera
15	Bisita Gurutzetako ospitalera
16	Bisita Gurutzetako ospitalera
17	Bisita Aita Menni ospitalera
2015	
URTARRILA	
8	Bisita Txagorritxuko ospitalera
13	Bisita Areetako anbulatorioa (Osatek)
14	Bisita Txagorritxuko ospitalera
28	Bisita Zamudioko Ospitale Psikiatrikora
29	Bisita Bermeoko Ospitale Psikiatrikora
30	Bisita Zaldibarko Ospitale Psikiatrikora
OTSAILA	
6	Bisita Zaldibarko Ospitale Psikiatrikora
9	Bisita Arabako Ospitale Psikiatrikora
11	Bisita Santa María de la Asunción klinikara
19	Bisita Usurbilgo sendategira
20	Bisita Lezako ospitalera
23	Bisita Virgen Blanca klinikara
25	Bisita San Juan de Dios ospitalera

MARTXOA	
4	Bisita Victoria Eugenia ospitalera
9	Bisitak San Onofre Zainketa Ospitalera eta Quirón Vitoria ospitalera
13	Bisita Vithas San Jose ospitalera
31	Bisita Ricardo Bermingham ospitalera
2016	
IRAILA	
22	Bisita Urdulizko ospitalera

5.4. Eskuratutako datuen ustiapena

Argazkietan eta bisitetan bete ziren fitxa eta planoetan jasotako datuak datu-basean sartu eta sistematizatu ziren, aztertutako datu bakoitzari loturiko informazioa erraz berreskuratzea ahalbidetzen duen euskarri informatikoan.

Aurrez aurreko azterketa egitean, ospitaleetatik bidalitako planoak bete ziren, azterlan honetarako prestatutako kodea erabiliz. Argazki, fitxa eta planoetan jasotako datuak datu-basean sartu eta sistematizatu ziren, aztertutako datu bakoitzari loturiko informazioa erraz berreskuratzea ahalbidetzen duen euskarri informatikoan.

Erabilitako plano eta kodeen adibidea:



Ezin da egoki biratu.



Egoki bira daiteke.



Ez dago tarte nahikorik pasatzeko.



Badago tarte nahikoa pasatzeko.



Ez dago horretarako gordeta dagoen tarte egokirik.



Badago horretarako gordeta dagoen tarte egokia.



X altuerako eserlekua beso-euskarririk gabe.



X altuerako eserlekua beso-euskarriekin.



Ateko sarbide librearen zabalera.

Ondoko oharrak aztertutako elementuen irisgarritasuna sailkatzeko ere erabili dira:

KOMUNEI BURUZKO OHARRAK:

- *A1 Komuna erabat iristezina.
- *A2 Pasatzeko tarte 80 cm baino gutxiagokoa edo okupatuta.
- *A3 Komun-ontzia <45 cm.
- *A4 Ez dago heldulekurik edo ez daude ondo jarrita.
- *A5 Konketa 80 cm baino gehiagoko altueran eta/edo zutoina.
- *A6 Ispilua 90 cm baino gehiagoko altueran, inklinatu gabe.

- *A7 Atea babes-oinalderik gabe edo babes-oinaldea desegokia.
- *A8 Konketako elementuak desegokiak.
- *A9 Argiztapen automatikoa.
- *A10 Atea barrurantz irekitzen da.
- *A11 Ez dago langileak abisatzeko alarmerik edo ez dago ondo jarrita.

ALDAGELEI BURUZKO OHARRAK:

- *V1 Aldagela erabat iristezina.
- *V2 Pasatzeko tarte 80 cm baino gutxiagokoa edo okupatuta.
- *V3 Atea barrurantz irekitzen da.
- *V4 Argiztapen automatikoa.
- *V5 Arropa aldatzeko ohatila desegokia.
- *V6 Ez dago langileak abisatzeko alarmerik edo ez dago ondo jarrita.
- *V7 Esekitokiak edo apalak goian egotea.
- *V8 Ez dago heldulekurik edo ez daude ondo jarrita.

KONTSULTATEGIEI BURUZKO OHARRAK:

- *C1 Kontsultategia erabat iristezina.
- *C2 Sarbidea oztopatzen duten altzariak.
- *C3 Tamaina desegokia duen mahaia.
- *C4 Proba osagarriak egiteko kabina iristezina.
- *C5 Ohatila goian egotea.

GELEI BURUZKO OHARRAK:

- *H1 Gela erabat iristezina.
- *H2 Pasatzeko tarte 90 cm baino gutxiagokoa edo okupatuta.
- *H3 Ohearen altuera desegokia.
- *H4 Altzarietarako sarbidearen zabalera <90 cm.
- *H5 Kontrol-mekanismoak 120 cm baino gehiagoko altueran.
- *H6 Apalak eta tiraderak 50-120 cm-ko tartean.

BAINUGELEI BURUZKO OHARRAK:

- *B1 Komuna erabat iristezina.
- *B2 Pasatzeko tarte 80 cm baino gutxiagokoa edo okupatuta.
- *B3 Komun-ontzia <45 cm-ra.
- *B4 Ez dago heldulekurik edo ez daude ondo jarrita.
- *B5 Konketa 80 cm baino gehiagoko altueran eta/edo zutoina.
- *B6 Ispilua 90 cm baino gehiagoko altueran, inklinatu gabe.
- *B7 Atea babes-oinalderik gabe edo babes-oinaldea desegokia.
- *B8 Konketako elementuak desegokiak.
- *B9 Argiztapen automatikoa.
- *B10 Atea barrurantz irekitzen da.
- *B11 Ez dago langileak abisatzeko alarmerik edo ez dago ondo jarrita.
- *B12 Dutxa iristezina.
- *B13 Dutxan sartzeko tarte desegokia.
- *B14 Bainuontzi iristezina.
- *B15 Bainugelan ez dago esertokirik.

Ohar eta kode horiek honako plano hauetan erabili dira:

8. irudia.

“Ama-haurren” planoak. Donostia Unibertsitate Ospitalea



9. irudia.

“Ama-haurren” xehetasun-planoak. Donostia Unibertsitate Ospitalea

Xehetasunak



10. irudia.

Datu-basea (egileak egina)

Hospital-Aparcamiento
Hospital Universitario de Cruces

Nombre Identificación: Cafetería, consultas externas, oncología. Área: Cafetería, consultas externas, oncología.

Tiene plazas de aparcamiento: 2.-No tiene propias. Planta en la que se encuentra: 0. Nº de plazas: 0.

UBICACIÓN E ITINERARIOS

¿El destino es exterior?

Está en el mismo nivel que recepción: 1.-Si

Escaleras, escalones aislados o desniveles: 0

Altura de los escalones 15 cm: []

Rampa alternativa: 2.-No

Ancho de la rampa 20 cm: 6.-No es necesario/a

Bordillo lateral h=5 cm: 6.-No es necesario/a

Longitud e inclinación de la rampa:
L<2m pte 10%: 6.-No es necesario/a
L<6m pte 8%: 6.-No es necesario/a
Baste de caros 6%: 6.-No es necesario/a

Longitud más 10m: 6.-No es necesario/a

Bellanos intermedios 2 m: 6.-No es necesario/a

Pendiente transversal <1,5%: 6.-No es necesario/a

Inscripción círculo en acceso 1,8 m: 6.-No es necesario/a

Pasamanos en la rampa: 6.-No es necesario/a

Alta del pasamanos 1ª (90-110 cm): 6.-No es necesario/a

Alta del pasamanos 2ª (65-75 cm): 6.-No es necesario/a

Prolongación del pasamanos (visual) 40cm: 6.-No es necesario/a

Contraste entre pasamanos y pared (visual) Presenta contraste: 6.-No es necesario/a

Pasamanos continuo en mesetas (visual): 6.-No es necesario/a

Pavimento antiderrapante: 6.-No es necesario/a

Ficha itinerario: []

Accesorio: []

Escalera: []

Observaciones Ubicación e Itinerarios: []

Accesibilidad para personas con discapacidad Auditiva

¿Existe? Sistema de comunicación visual: 1.-Si

Observaciones accesibilidad: []

Observaciones generales aparcamiento
En esta zona solo aparcamientos adaptados

Imagen-Aparcamiento: []


11. irudia.

Datu-baseari buruzko xehetasunak (egileak egina)



13. irudia.

SPSS estatistika-programa. Udal aparkalekuei buruzko datuak




5.5. Eskuratutako datuen azterketa eta lehen ondorioak

Bildu eta datu-basean sartu diren datuekin “excel” dokumentu bat osatu zen, ondoren estatistika-programa egokiaren bidez tratatzeko eta aztertzeko. Balorazio eta ondorio garrantzitsuenak ekar zitzaizketen aldagaiak txertatu ziren.

12. irudia.

Udal aparkalekuen excel-a (eredua)



Jasotako datuak lehen ondorioak ateratzeko erabili dira, amaierako txostena egiteko eta behin betiko ondorioak ateratzeko oinarri erabiliko zirenak. Horren bidez, oinarri objektiboa aurkitu nahi da Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetan irisgarritasunari buruzko araudiaren betetzeari buruzko gomendioak arrazoitzeko.

5.6. Kontraste taldea

Lehen ondorioak lortuta, “kontraste talde” bat sortu zen, ateratako ondorio horiek ospitaleen erabiltzaileak diren pertsona desgaituen iritzi orokorrarekin eta osasun arloko profesionalak ikusten eta ezagutzen duten errealitatearekin bat ote zetozen egiaztatzeko.

Kontraste taldean medikuek, ospitaleko langileek, erizainek zein zeladoreek hartu zuten parte, baita ospitaleratuta egon diren pertsona desgaituek, langile desgaituek eta Elkartu eta Arartekoko langileek ere.

Talde horren metodologia, osaera eta ondorioak txostenaren 4. kapituluaren daude jasota.



Arau esparrua

k a p i t u l u a

II. kapitulua

Arau esparrua

1.

Esparru juridiko eta kontzeptuala

Irisgarritasunaren esparruan kontzeptu aldaketa gertatu da azken hamarkadetan eta, horri esker, lege aurrerapauso garrantzitsuak izan dira ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasuneko eta bereizkeriarik ez jasateko eskubidearen gizarte aitortpenaren alde.

Lehenengo aldaketa honi esker gertatzen da: bakarkako errehabilitazioaren ikuspegiaren oinarritutako ezgaitasun teoretatik haien gizarte izaera defendatzen duten teoretaria igaro izana. Planteamendu honek –irisgarritasunaren gaien onarraraztea ekarri zuen ez dela gizabanakoa egokitu egin behar dena batez besteko gizakiarentzat diseinatu den ingurunera, baizik eta ingurunea dela biztanleriaren behar anitzei egokitu behar zaiena, ingurune hori irisgarri izan behar pertsona guztientzat.

Kontzeptu aldarazpen horrek eragin egin du irisgarritasun arauak gorpil aulkia aukeratzea erreferentziako elementu gisa, izan ere, ezgaitasun mugatzaileenak estaltzearekin besteak ere barne hartuko lirateke. Horregatik, gorpil aulkia, ezgaitasunaren sinboloa, irisgarritasunaren sinbolo ere bihurtzen da.

Bigarren aldaketa bat ere gertatzen da agertoki juridikoan, ezgaitasunaren araudi tratamenduan bereizkeriaren aurkako legeak agertzearekin. Arau horiek oinarritu egiten dira eskubide zibilen eta gizarte eskubideen aitortpen eta defentsan, berdintasun eskubidean, bereizkeriarik ez jasatekoan eta erabateko herritar izatekoan, eta ez ingurune fisikoaren ez-augarrien arauetatik ezgaitasunen bat duen pertsona baten erator daitezkeen eskubideetan. Arau hauen izaera

juridikotik datorren ondorio nagusia epaitegietan horiek betetzea exijitzeko aukera da.

Bestalde, eta paraleloki, baina bereizkeriaren aurkako arauekin bateragarria izanez, irisgarritasun unibertsalaren filosofia sendotzen joan da azken hamarkadan, guztiontzako diseinuaren kontzeptuaren premisatik abiatuta.

Duela hogeita hamar urte, Dessertin-ek proposatu zuen ikuspegi hori. 1975eko lege frantziarraren egileetako bat izateaz gain, irisgarritasuna herritar guztioi dagokigula baieztatu zuen lehena izan zen nazioartean; ezintasunen bat duten pertsonen zalantzarik gabe, baina adinekoei, haurrei, haurdun dauden emakumei, haur-kotxea daramatenei, pixoiha-lak daramatzen eta abarrei ere badagokiela. Bere ustez, *“guztiok izan gara, gara edo izango gara ezintasunen bat duten pertsonak”*.

Irisgarritasun unibertsalaren filosofia onartzeak esan nahi du gizarte delat bere osotasunean bere kideen aniztasunera egokitu behar duena, pertsona guztiek bizitzaren eremu guzti-guztietan erabat parte hartzen dutela bermatzeko behar diren ingurune aldarazpenak sartuz. Halaber, gizarte aniztasunera egokitzea pertsonen berdintasunerantz eta haien eskubideen errespeturantz eraginkortasunez eramaten duen bide bakarra dela onartzea dakar.

Kontzeptuaren bilakaeraren prozesu hau islatu egiten da Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioa onetsi izanean 2006ko abenduaren 13an NBEren Biltzar Nagusiak onetsi zuen. Hura 2008ko maiatzaren 3an jarri zen indarrean Estatu espainiarrean.

Konbentzio hori aldaketa adierazgarria izan da ezgaitasunaren tratamenduan. Ikuspegi juridikotik begiratu gero, esan dezakegu horrek ezgaitasuna eredu errehabilitatzailearen eruditik begiratzeko modua edo horrela tratatzeko modua gainditzea eta gizarte eta aniztasun ereduak barneratzea

ekarri duela. Bi eredu horiek bateratzea da konbentzioaren filosofiaren inspirazio.

Jada esan den moduan, gizarte ereduaren premisa irten egiten da ezgaitasunaren jatorriaren arrazoi gisa gizarteak jartzen dituen mugak aitortzetik, zerbitzuak emateari dago-kionez eta ezgaitasunaren bat duten pertsonen gizartearen antolamenduan, berdintasun baldintzetan, parte hartzeko aserik behar dituzten berariazko beharrak egokitzeari dago-kionez. Hori dela eta, hartu beharreko konponbideak ez zai-zkie zuzendu behar pertsonari bakarka, baizik eta, baita ere, gizarteari, horren bitartez gertatzen diren bereizkeria egoerak gainditzen saiatzeko.

Bestalde, aniztasunaren dimentsioa bizitza independentearen mugimenduen printzipioetara iristen da. Mugimendu horrek uste du ezgaitasuna gizakiari datzekion ezaugarri bat dela, eta giza aniztasunaren beste adierazpen bat. Ezgaitasunaren bat duten pertsonak eskubide eta aukera berdintasuna duten gizaki ezberdin gisa aitortu daitezela eskatzen dute, eta uste dute ezgaitasunaren ezaugarri unibertsal horrek eskatu egiten duela gizarteak beharrezko esfortzua gain hartzea egoera horretara iritsi ahal izateko.

Halaber, konbentzioak giza eskubideen eremuan kokatzen du ezgaitasuna. Horren froga dira oinarritzat hartzen dituen printzipio gidariak:

- Atxikitako duintasunaren, bakarkako autonomiaren – norberaren erabakiak hartzeko askatasuna barne– eta pertsonen independentzia errespetatzea.
- Bereizkeriarik eza.
- Gizartearen erabateko parte-hartzea eta gizarteratzea edukitzea eta horiek eraginkorrak izatea.
- Ezberdintasunekiko errespetua eta ezgaitasunaren bat duten pertsonak onartzea aniztasunaren eta gizaki izatearen alderdi gisa.
- Aukera berdintasuna.
- Irisgarritasuna.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.
- Ezgaitasunaren bat duten haurren gaitasunaren bilakaera eta beren nortasuna mantentzeko duten eskubideak errespetatzea.

2.

Arau esparrua

Jada adierazi dugun moduan, azken bi hamarkadetako lege aurrerapausoak estatu eta nazioarte mailan– elementu errolea izan dira eta haien gainean finkatu dira ezgaitasunaren bat duten pertsonen aukera berdintasunerako eta bereizkeria ezerako eskubidearen gizarte aitortpenaren aldeko estrategiak.

Irisgarritasunari buruzko lege esparruak finkatu egiten du pertsonaren mugikortasuna oinarritzat hartzen den elementu dela egungo mundu ekonomikoan eta gizartearen parte hartzeko. Iris-

garritasunari ez edukitzeak baldintzatu egiten du ezgaitasunaren bat duten pertsonen gizartearen autonomiaz eta aukera berdintasunaren parte hartzeko duten eskubidea.

Ondorioz, muina eratzen duen printzipio bat da, eta, nazioarteko eta batasuneko esparru juridikoaren bitartez, sartu egin da Estatuaren ordenamendu juridikoan, egitura arautzaile zabal eta xehatu baten bitartez.

2.1. Nazioarteko esparru arautzailea

Nazioarte mailan, ezgaitasunaren alorreko erreferentziako esparru politikoa finkatu egin da Nazio Batuen testuinguruan arau uniforme batzuk aldarrikatzearen ondoren. Bertan, giza eskubideen ikuspegitik ezgaitasuna aintzat hartzearen ezaugarria egonkortuz joan da pixkanaka.

Kontzeptuaren aldetik, araudiaren bilakaerak aldaketa adierazgarria ekarri du irisgarritasun politiketara; horrela, pertsonak “ezgaitutzat” hartzetik, inguruneak “ezgaitutzat” hartzera igaro da.

Nazio Batuen Erakundea

Gizarte ereduaren esparruan, azpimarratzekoak dira hurrengo une garrantzitsuak Nazio Batuek adierazitako ekimenetan:

[Ezintasunaren bat duten pertsonentzako aukera berdintasunari buruzko Arau Bateratuek](#) (1994ko martxoaren 4ko 48/96 Ebazpena) ezarri dute zeintzuk diren parte-hartze berdintasunerako betekizunak, berdintasun hori zein eremutan gauzatu behar den, burutzapen neurriak eta ikuskapen mekanismoak.

Txosten honen xedeetarako, aipatzekoa da ebazpen horren 5. artikulua. Bertan, sarbide aukerak arautzerakoan, zera finkatzen da:

“Estatuak aitortu egin behar dute sarbide aukeren garrantzi orokorra, gizartearen maila guztietan aukera berdintasuna lortzeko prozesuaren barruan. Edozein motatako ezintasuna duten pertsonentzat, hauek egin behar dituzte estatuak: a) ekintza programak finkatu, ingurune fisikoa irisgarria izan dadin, eta b) neurriak hartu, informazioarako eta komunikazioarako irisgarritasuna bermatze aldera”.

Bestalde, 2001eko azaroaren 30eko Nazio Batuen Biltzar Nagusiak nazioarteko hitzarmena sustatzea erabaki zuen, horren bitartez ezgaitasunaren bat duten pertsonen eskubideak eta duintasuna babestu eta sustatzeko, eta horrek, lehen adierazi dugun moduan, garrantzia eduki zuen [Ezgaitasunaren bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioan](#). 2006ko abenduaren 13koa da konbentzioa, eta 2008ko maiatzaren 3an jarri zen indarrean Espainian. [Ezintasunaren bat duten Eskubideei buruzko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa](#).

Konbentzioak ezgaitasunaren bat duten pertsonen eskubideak defendatu eta bermatzen ditu bizitzaren eremu guztietan (hezkuntza, osasuna, lana, kultura, aisialdia, gizarte parte-hartzea eta parte-hartze ekonomikoa...), irisgarritasuna erakutsiz testuinguru hauetako bakoitzaren zeharkako elementu gisa.

Tresna berri honek ondorio garrantzitsuak eduki ditu ezgaitasunen bat duten pertsonentzat. Ondorio nagusien artean, azpimarratzekoak dira herritar talde honen “ikuspena” Nazio Batuen giza eskubideen babes sistemaren barruan, ezgaitasuna giza eskubideen gai bat bezala nahitaez hartu beharra eta pertsona hauen eskubideak defendatzerakoan tresna juridiko loteslea edukitzea.

Konbentzioaren 9. artikulua zera zehazten du irisgarritasunari buruz:

“1. Ezgaitasunen bat duten pertsonak askatasunez bizi ahal izan daitezen eta bizitzaren alderdi guztietan erabateko parte-hartzea eduki ahal izan dezaten, Alderdi diren Estatuak neurri egokiak hartuko dituzte ezgaitasunen bat duten pertsonak ingurune fisikora, garraiora, informaziora eta komunikazioetara –informazioaren eta komunikazioaren sistema eta teknologikoetara barne– gainerako baldintza berdinetan iristen direla ziurtatzeko. Halaber, jendeari irekitako edo erabilera publikoa duten beste zerbitzu eta instalazio batzuetarako sarbidea ziurtatuko da, bai hiri inguruneetan, bai landa izaerakoetan. Neurri horiek, irisgarritasun oztupoak eta mugak identifikatzea eta deuseztatzea barne hartuko dutenak, aplikatu egingo zaizkie, besteak beste, hauei:

a) Eraikinak, bide publikoak, garraioa eta bestelako kanpo eta barruko instalazioak, adibidez ikastetxeak, etxebizitzak, osasunaren alorreko instalazioak eta lantokiak.

b) Informazio, komunikazio eta bestelako zerbitzuak, zerbitzu elektronikoak eta larrialdikoak barne.

2. Alderdi diren Estatuak, halaber, neurri egokiak hartuko dituzte honetarako:

a) Instalazioen edo jendeari irekitako edo erabilera publikoko zerbitzuen irisgarritasunari buruzko gutxieneko arauak eta jarraibideak garatu, aldarrikatu eta aplikatzen direla ikuskatzeko.

b) Jendeari irekitako edo erabilera publikoko instalazio eta zerbitzuak ematen dituzten erakunde pribatuak ezgaitasunen bat duten pertsonentzako irisgarritasun alderdi guztiak aintzat hartzen dituztela bermatzeko.

c) Ezgaitasunen bat duten pertsonak aurre egin beharreko irisgarritasun arazoetan esku hartzen duten pertsona guztiei prestakuntza eskaintzeko.

d) Eraikinei eta jendeari irekitako beste instalazio batzuei Braille moduan idatzitako eta irakurketa eta ulermen errazeko formatuetan idatzitako seinaleztapea emateko.

e) Giza laguntzako edo animalia eta bitarteko laguntzako moduak eskaintzeko, gidak, irakurleak eta zeinu hizkuntzaren interprete profesionalak barne. Horren bitartez, jendeari irekitako eraikinetara eta beste instalazio batzuetara sartzea erraztu behar da.

f) Ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntza eta babesa emateko beste modu egoki batzuk sustatzeko, horren bitartez informaziora iristen direla bermatzeko.

g) Ezgaitasunen bat duten pertsonak informazio eta komunikazio sistema eta teknologia berrietara iristen direla sustatzeko, Internet barne.

h) Etapa goiztiar batean informazio eta komunikazioaren sistema eta teknologia irisgarrien diseinua, garapena, ekoizpena eta banaketa sustatzeko, sistema eta teknologia horiek irisgarriak izan daitezen ahalik eta kostu txikienean”.

Aldi berean, honakoa ezartzen du 19.c) artikulua: “Ezintasunen bat duten pertsona guztiek komunitatean baldintza beretan bizitzeko eskubidea dutela aitortzen dute konbentzio honetan Alderdi diren Estatuak, gainerako aukera berberak dituztela. Aipatu estatuak neurri eraginkorrak hartuko dituzte, beharrezkoak horiek, ezintasunen bat duten pertsonak erabat goza ahal izan dezaten eskubide hori, eta komunitatean sartu ahal izan daitezen, eta bertan parte hartu, eta bereziki ziurtatuko dute ezintasunen bat duten pertsonentzat eskuragarri egongo direla herritar guztientzako instalazio eta zerbitzu komunitarioak, baldintza beretan, eta aipatu instalazio eta zerbitzuek kontuan hartuko dituztela pertsona horien beharrak”.

Osasunerako eskubideari dagokionez, hau zehazten du konbentzioak 25. artikuluan: “Ezintasunen bat duten pertsonak, ezintasunagatiko bereizkeriarik gabe, egon daitekeen osasun maila altuenaz gozatzeko eskubidea dutela aitortzen dute Alderdi diren Estatuak”. Zentzu horretan, ezin daiteke bazter utzi “ezintasunagatiko bereizkeriaren” definizioa, 2. artikuluan ezarritakoa: “Eremu politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturean, zibilean edo bestelako edozein eremutan oinarritutakoak diren giza eskubideen eta askatasunen aitortza, gozamina edo erabilera baldintza beretan gauzatzea oztopatzeko edo efekturik gabe uzteko xedea edo ondorioa duen edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa, ezintasun arrazoiengatik egindakoa. Bereizkeria modu guztiak hartzen ditu bere baitan; horien artean, arrazoizko adostasuna ukatzea dago”.

Europako Kontseilua

Testuinguru europarrean, azpimarratu egin behar dira Europako Kontseiluak ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen alde bideratutako ekimen hauek:

■ 1992. urtean, elbarritasunen bat duten pertsonak gizarteratzeari buruzko politika koherente bati buruzko gomendioa onetsi zen [Recommendation N° R (92) 6 of the Committee of Ministers to member states on a coherent policy for the rehabilitation of people with disabilities, 1992ko apirilaren 9koa].

(Gaztelaniaz: http://benestar.xunta.es/export/sites/default/Benestar/Biblioteca/Documentos/Lexislacions/recomendacion_R92-6_sobre_la_elaboracion_de_una_politica_....pdf).

■ 1993. urtean, irisgarritasunaren gaiko printzipio eta gidalerroei buruzko gida bat landu zen.

■ 1996. urtean, Gutun Sozial Europarrak jaso egin zuen ezgaitasunen bat duten pertsonen autonomiarako, gizarteratzeko eta komunitatearen bizitzan parte hartzeko eskubidea dutela, horretarako komunikazio eta mugikortasun oztupoak gaitzera zuzendutako neurriak hartuz nahiz pertsona horiei garraioetara, etxebizitzara eta kultura eta aisialdi jardueretara iristea erraztuz (Berrikusitako Gutun Sozial Europarra, 1996ko maiatzekoa).

■ 2001. urtean, Tomarreko Ebazpenaren bitartez, Europako Kontseiluak bere gain hartu zuen irisgarritasun unibertsalaren filosofia [ResAP (2001)1 Ebazpena, honi buruzkoa: “eraikitako ingurunearen esparruan lan egiten duen lanbide multzoaren prestakuntza programetan ideia unibertsalaren printzipioak sartzea”, [Resolution ResAP\(2001\)1 on the introduction of the principles of universal design into the curricula of all occupations working on the built environment](#), 2011ko otsailaren 15ekoa].
(Gaztelaniaz: http://www.ceapat.es/InterPresent2/groups/imsero/documents/binario/im_029646.htm).

Era berean, beharrezkoa da aipatzea [Estatu Kideen Ministroen Batzordearen REC\(2006\)5 Gomendioa](#), ezintasunen bat duten pertsonen eskubideak eta erabateko parte-hartzea sustatzeko Europako Kontseiluaren Ekintza Planari buruzkoa, 2006-2015eko European ezintasunen bat dutenen bizi-kalitatea hobetzeko xedea duena, 2006ko apirilaren 5ekoa ([Implementation of the Council of Europe Action Plan to promote the rights and full participation of people with disabilities in society: Improving the quality of life of people with disabilities in Europe 2006-2015](#)).

Europar Batasuna

Europar Batasunaren esparruan hurrengo testuak aipatu behar harko lirateke:

■ 1996. urtean, abenduaren 20ko Kontseiluaren baitan bildutako Europar Batasunaren Kontseiluaren, Gobernuetako ordezkarien eta Estatu kideen Ebazpena egin zen. Ebazpen hori elbarritasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunari buruzkoa da (EEAO 97/01/13) eta azpimarratu egiten du beharrezkoa dela ezgaitasunen bat duten pertsonen erabateko herritar izatera iristea galarazten dieten oztopoak deuseztatzea [[Komunitatearen estrategia berria, elbarritasun arloan](#) COM(96) 406 azkena, 1996ko uztailaren 30ekoa].

■ 2000. urtean, Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako Jakinarazpena onetsi zen: “[Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako oztoporik edukiko ez duen Europarantz](#)” [Brusela, 2000ko maiatzaren 12koa, COM 2000 (284) azkena, ez dago EEAO n argitaratuta]. Jakinarazpenak azpimarratu egiten zuen Europar Batasunak trakzio elementu gisa zuen papera, estatu kideen arteko lankidetzaren bultzatzeko, trukea sustatzeko eta egungo oztopoak deuseztatzerako eramango duten praktika onen garapenerako.

Batzordeak koordinazio handiagoa defendatzen du hurrengo esparruen artean: enplegua, hezkuntza, lanbide heziketa, garraioa, barne merkatua, informazioaren gizartea, teknologia berriak eta kontsumitzaileen politika. Era berean, jarraitu beharrek ibilbidea ezartzen du, ildo estrategiko zenbaitekin: mugikortasunaren eta irisgarritasunaren hobekuntzarantz, guztion zerbitzura dagoen informazioaren gizarte baterantz, laguntza teknologiei dagokien garapen gehiago edukiko duen merkatu komunerantz.

Bestalde, jakinarazpen honekin lortu nahi diren helburuak hauek dira:

- Mugikortasunaren alde egitea herritartasunaren osagai den heinean.
- Irisgarritasunaren gaian, sektore arteko politiken ga-beziak estaltzea.
- Ezgaitasunen bat duten pertsonen informazioaren gizartean sartzea ahalbidetzea.
- Laguntza teknologien merkatua hobetzea.
- Merkatuan, ezgaitasunen bat duten kontsumitzaileen eskubideak eta interesak babestea.

■ Urte horretan bertan, [Kontseiluaren 2000ko azaroaren 27ko 2000/78/CE Zuzentaraua](#), enpleguan eta lanetan tratu berdintasuna egoteko marko orokorra ezartzeko, (EEAO L303/16, 2000ko abenduaren 2koa) onartu zen. Bereizkeriaren aurkako arau bat da, laneko irisgarritasun fisikoko gaiei buruzkoa.

2003. urtean “Ezgaitasunen bat duten pertsonen Urte Europarrak” sortutako bultzada baliatuz, Batzordeak emaitza horiek aprobetxatu nahi izan zituen urte anitzeko ekintza plan bat ezartzearen bitartez. Ekintza plan honen helburua hau da: 2010. urtea baino lehen, ezgaitasunaren dimentsioa sartzea eragindako politika komunitarioetan eta ekintza zehatzak aplikatzea oinarritzeko eremuetan. Horrela, ezgaitasunen bat duten pertsonen integrazio ekonomikoa eta gizarteratzea hobetuko dira [[Aukera berdintasuna ezintasunen bat dutentzat: ekintza plan europarra \(2004-2010\)](#), COM(2003) 650 azkena, 2003ko urriaren 30ekoa].

■ 2008an, [2008ko martxoaren 17an bildutako Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Estatu Kideen Gobernuetako Ordezkarien Ebazpena](#), ezintasunen bat duten Europar Batasunean duten egoerari buruzkoa (2008/C 75/01) (EEAO 75/1, 2008ko martxoaren 26koa). Honako hau bermatzeko gonbita luzatzen die estatu kideei eta batzordeari: ezgaitasunen bat duten pertsonentzako irisgarritasuna; lan merkatuan duten parte-hartzea areagotzea, enplegu malguko planak, laneratze aktiboa eta laguntza teknologiak eta laguntza pertsonala erabiltzea bezalako neurri positiboak konbinatzearen bitartez; herritar guztiak informazioaren gizartean sartzen direla sustatzea, esparru digitalean sartzeari buruzko Rigako Adierazpenarekin bat etorritik, informazio eta komunikazioko teknologia irisgarriak garatuz eta ezgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntza teknologien bitartez.

■ Azkenik, hau aipatu behar dugu: [Ezgaitasunari buruzko 2010-2020 estrategia europarra: oztoporik gabeko Europarako konpromiso berritua](#) [COM(2010) 636 azkena], 2010eko azaroaren 15ekoa. Oztopoak kentzea da strategiaren oinarria. Batzordeak jarduteko funtsezko zortzi eremu identifikatu ditu: irisgarritasuna, parte-hartzea, berdintasuna, enplegua, hezkuntza eta prestakuntza, gizarte-babesa, osasuna eta kanpoko ekintza.

Osasunari dagokionean, ezintasunen bat duten pertsonen “*gainerako herritarrek osasun laguntzara iristeko duten eskubide bera dutela*” aitortzearekin batera, honakoa adierazi du: “*EBren jarduerak neurri nazionalen lagunduko die, osasun-zerbitzu eta -instalazio irisgarriak eta bereizkeriak gabekoak emateko xedea badute*”. Horretarako, xedezat ezarri du “*ezintasunen bat duten pertsonak osasun-zer-*

bitzuetara eta horiei lotutako instalazioetara iristeko berdintasuna bultzatzea”.

2.2. Estatuko araudia

a) Espainiako Konstituzioak, 9.2., 14. eta 49. artikuluetan ezarritako aginduen bidez, pertsonaren berdintasuna eta bakarkako garapena sustatzeko eskatu die botere publikoari; baita herritar guztiak bizitza politikoan, ekonomikoan, erlijioarenean, kulturalen eta gizartearenean parte har dezatela bultzatzeko eskatu ere, edota haien osotasuna zailtzen duten oztopoak deuseztatzeko eta pertsona guztientzat errazteko irisgarritasuna, ezgaitasunen bat duten pertsonen prebentzio, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratzeko politikak eginez horretarako.

b) Konstituzio testuaren 49. artikulua Elbarriak Gizarteratzeko apirilaren 7ko [13/1982 Legearen](#) (ELGL) oinarri zuzena da. Lege hori esparru lege bat bezala antolatu zen, eta, ondorioz, ezintasunen bat zuten pertsonak gizartearen erabat sartzeko posible izateko oinarriak finkatu ziren.

c) Hala eta guztiz ere, ELGLk indarrean bi hamarkada eginda ere, gizartearen desberdintasunak nabarmenki ageri ziren oraindik, eta batasunaren esparruan ezgaitasunaren adieran gertatutako aldaketetatik (bereizkeriaren aurkako borroka, irisgarritasun unibertsala) etorritako estrategiek –gizarte mugak espresuki aitortuta– eskatu egiten zuten legediak bilakaera edukitzea printzipio berri horiei jarraiki. Hori Estatu mailako aukera berdintasunari, bereizkeria ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko [51/2003 Legea](#) aldarrikatzearekin gauzatu zen (ABBEIUL) Arau horrek, ELGL indargabetzen ez duenak, aldaketa sakona ekarri zuen ezgaitasunaren fenomenoaren jorratzeko modura, izan ere, hura giza eskubideen gai bat bezala hartzea planteatu zuen.

Legegintzako testu horretan, jada aipatutako irisgarritasun unibertsalaren eta bereizkeriarik ezaren korrontek bateratzen dira, dagoeneko ezaguna den xedea bitarteko berrien bidez jarraitzen duten xedapenen multzoa islatzeko markoa eratuz. Hau da aipatu xedea: ezintasunen bat duten pertsonak aukera berberak edukitzeko eta bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren eremu guztietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzea eta aitortzea.

d) ABBEIUL indarrean jartzea eta ondoren hura garatzeko arauak egin izana bultzada garrantzitsua izan da ezgaitasunen bat duten pertsonen eta elkarte mugimenduak behin eta berriro eskatutako kontzeptu berrientzat. Proiektu hau aplikatzeko eremuari dagokionez, azpimarratzekoa da lege multzo hau:

d.1) [505/2007 Errege Dekretua](#), apirilaren 20koa, ezgaitasunen bat duten pertsonak espazio publiko hirituetara eta eraikinetara sartu eta horiek erabiltzeko behar dituzten oinarrizko irisgarritasun eta bereizkeria ezeko baldintzak onesten dituen.

Arau honek hiri esparru publikoan eta eraikinetan arautzen ditu irisgarritasun baldintzak, eta pertsona guztiei bermatzen zaie haien gaineko erabilera independentea eta segurua. Halaber, terminoak eta

parametroak harmonizatu eta bateratzeko beharrari erantzuten zaio, bai eta ekintza positiboko neurriak ezartzeko beharrari ere, eraikitako ingurunearen eta hiri espazioen erabilera normalizatua egitea ahalbidetuz horren bitartez.

Bestalde, guztiontzako diseinuan eta autonomia pertsonalean oinarritzen den irisgarritasunaren ikuspegiari egokituriko araudia eskaintzen da, eta, halaber, dauden beharretara irekiago dagoena, ezgaitasunaren barruan pluraltasuna gain hartuz.

Azken xedapenetatik hirugarrenak zehazten du *“eraikinetara sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasun eta bereizkeriarik gabeko oinarrizko baldintzak, errege dekretu honen arabera onartzen direnak, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoaren (EKTaren) I. zatian sartuko direla, irisgarritasun unibertsalerako eta bereizkeria gabeziarako oinarrizko eskakizun gisara. Era berean, EKTaren II. zatian sartuko da aipatu oinarrizko eskakizunak betetzeari buruzko oinarrizko dokumentua”*. Bestetik, bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen du *“errege dekretu honen bidez onartzen diren eta azken xedapenetatik hirugarrena betez Eraikuntzako Kode Teknikora sartuko diren oinarrizko baldintzak, hau da, eraikinetara sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasun eta bereizkeriarik gabeko oinarrizko baldintzak nahitaezkoak izango direla eraikin berrietarako, bai eta jada badauden eraikinak handitzeko, aldatzeko, eraberritzeko edo birgaitzeko egiten diren obretarako ere, baldintza horiek Eraikuntzako Kode Teknikora sartzeko erabiliko den errege dekretuak ezarritako epean”*.

d.2) [1544/2007 Errege Dekretua](#), azaroaren 23koa, ezgaitasunen bat duten pertsonak garraio moduetara iritsi eta horiek erabiltzeko behar dituzten oinarrizko irisgarritasun eta bereizkeria ezeko baldintzak onesten dituen.

Arau honek irisgarritasuneko oinarrizko baldintzak eta bereizkeria ezekoak finkatzen ditu, ezgaitasunen bat duten pertsonen trenbideen garraio moduak, itsasotikoak, airetikoak, errepeditikoak, hiri eta hiri inguruko autobusezkoak, trenbide metropolitarrak, taxi eta garraio bereziko zerbitzuetakoak erabil ditzaten. Horretarako, ezarpen egutegia finkatzen da abenduaren 2ko 51/2003 Legearen zortzigarren azken xedapenean ezarritakoaren esparruan.

d.3) [49/2007 Legea](#), abenduaren 26koa, ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunaren, bereizkeria ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren gain arau-hauste eta zehapen araubidea finkatzen duena.

Irisgarritasunaren gain onetsitako estatu mailako arau hau osagarri modura aplikatzen da legedi autonomikoa eta gero. Autonomia erkidegoek beren legeak aldarrikatu dituzte irisgarritasun unibertsalaren printzipioak bermatze aldera.

e) Lehen adierazi dugun bezalaxe, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 2006ko abenduaren 13an onartu zuen konbentzioak, hots, Espainiak 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen eta 2008ko maiatzaren 3an indarrean jarri zen horrexek, hau da, Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioak, ezintasunen bat duten pertsonen eskubideen gaineko ikuspegia sagaratzeko ekarri zuen. Horrela, konbentzioak eskubidedun subjektutzat jotzen ditu ezintasunen bat duten pertsonak, eta eskubide horien erabilera erabatekoa eta eraginkorra izatea bermatzera behartzen ditu botere publikoak. Konbentzioaren 4. artikulua ezartzen duenaren arabera, ezintasunen bat duten pertsonen giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen erabateko erabilera ziurtatzeko egokiak diren neurri legegileak, administratiboak eta beste mota batzuetakoak ezartzeko konpromisoa hartzen dute Estatu Alderdiak. Ezgaitasunaren gizarte ereduaren eremu horretan sakontzen du abuztuaren 1eko 26/2011 Legeak, araudia Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioari egokitzen dionak, bultzada berritzailea emanez, beren bizitzako alderdi guztietan erabakiak har ditzaten laguntzeko xedez, bai bizitza pertsonalean, bai kolektiboan, autonomia pertsonalean eta bereizkeria ezan aurrera egiteko.

Osasunaren arloan, hainbat lege aldatu ziren, eta pertsonen eta osasunaren arloko herri-administrazioen arteko harremanetan diskriminaziorik ez eragiteko arrazoi bezala jaso zen ezintasuna, eta informazioa pertsona guztientzat erabilerrazak eta ulergarriak diren formatuetan jasotzeko eskubidea arautu zen, bai eta hainbat osasun-eremutan onespena ematea ere.

Era berean, esku artean dugun eremuan, nabarmentzekoa da lanbide sanitarioen antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 22. artikuluko 3. paragrafoaren (26/2011 Legearen 10. artikulua) aldaketa, honela geratu baita idatzita:

“3. Gobernuak, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak hala proposatuta eta Osasun Sistema Nazionaleko Giza Baliabideen Batzordeak aurretiko txostena eginez, ekintza positiboko beharrezko neurriak hartuko ditu, osasun prestakuntza espezializatuko plaza sartzeko urteroko hautapen-proben deialdietan ezintasunen bat duten pertsonak bete dezaten horietako bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien ehuneko zazpi gutxienez (ezintasunen bat duten pertsonatzat hartuko dira Ezintasunen bat dutenen aukera berdintasunari, bereizkeria ezari eta irisgarritasunari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutakoak), beti ere, hautapen-proba gaintzen badute, ezintasuna egiaztatzen badute eta hautatu den espezialitateari dagozkion zereginak betetzeko bateragarritasuna egiaztatzen badute.

Eskudun administrazio publikoek beharrezko neurriak hartuko dituzte, ezintasunen bat duten pertsonen beharretarako zentzuzko egokitzapenak eta doikuntzak egin daitezen, bai sarbiderako probetan, bai prestakuntza-plazen esleipendunak prestatzeko lanpostuetan”.

Ondorioz, aipatu aginduan xedatutakoa betetzeko, beharrezkoa izango da instalazio irisgarriak edukitzea, aipatu plazetara sartzen diren eta ezintasunen bat duten pertsonak beren prestakuntza garatu ahal izan dezaten.

Irisgarritasuna ezintasunen bat duten pertsonen eskubideak guztiz eraginkorrak izan daitezten elementu giltzarri eta nahitaezkotzat jotzeari dagokionean, nabarmentzekoa da Hiriak Birgaitzeari, Biziberritzeari eta Eraberritzeari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen bidez Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeari egin zaion aldaketa.

f) Aldi berean, abuztuaren 1eko 26/2011 Legeak, hau da, araudia Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioari egokitzekoak, azken xedapenetatik bigarrenean ezarritakoa betez, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua onartu da, eta, horren bidez, ezintasunen bat duten pertsonen eta horiek gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onartu da.

Lehen aipatutako hiru lege nagusiak bateratu ditu legegintzako errege dekretuak arau horretan: 13/1982 Legea, 51/2003 Legea eta 49/2007 Legea. Modu berean, hiru lege horiek indargabetu dira, eta lege horiei egindako aipamen eta bidaltze-ohar guztiak araudi horri buruzkoak direla ulertuko da hemendik aurrera. Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioari eguneratu zaizkio termino, definizio, printzipio eta eduki guztiak.

Irisgarritasunaren eremuan, zera ezartzen du **ezintasunen bat duten pertsonen eta horiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorrak**: *“ezintasunen bat duten pertsonen modu independentean bizitzeko eta bizitzaren alderdi guztietan guztiz parte hartzeko eskubidea dute. Horretarako, irisgarritasun unibertsala gainerako pertsonen baldintza beretan ziurtatzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte botere publikoek, eremu guzti hauetan: ingurunean, prozesuetan, ondasunetan, produktuetan eta zerbitzuetan, garraioan, informazioan eta komunikazioetan, informazio eta komunikazioko sistemak eta teknologiak barne hartuta, bai eta komunikabideetan eta jendeari irekitako edo erabilera publikoko zerbitzu eta instalazioetan ere, bai hiri eremuetan, bai baserri inguruetan”.* 26. artikulua, bestalde, hauxe dio: *“edozein motatako eraikinek ezintasunen bat duten pertsonen irisgarritasuna ahalbidetzeko bete beharko dituzten gutxienezko baldintzei buruzko aurreikuspenak jasoko dituzte eraikuntzari buruzko arau teknikoek. Oinarritzko proiektuak, betearazteko proiektuak eta zati bateko proiektuak idazteko fasean jaso beharko dira arau horiek guztiak, eta oniritzi ofizialak ukatuko zaizkie, profesionalen elkargoenak zein eskudun administrazio publikoetako ikuskaritza bulegoenak, aipatu arauak betetzen ez dituztenei”.*

g) Azkenik, eraikuntzarako eskakizunei buruz, arau hauek aipatu behar ditugu:

g.1) Azaroaren 5eko 38/1999 Legea, eraikuntzaren antolamenduari buruzkoa. *“Pertsonen segurtasuna, gizartearen ongizatea eta ingurumenaren babesa bermatzeko asmoz, eraikuntzarako oinarritzko betekizun hauek ezartzen dira, eta arauz ezartzen den*

moduan bete beharko dira eraikinen eta horien instalazioen proiektuan, eraikuntzan, mantentze-lanetan, kontserbazioan eta erabileran, bai eta jada badauden eraikinetan egiten diren esku-hartzeetan ere:

a) Funtzionaltasunari buruzkoak:

a.1) Erabilera. Eraikinean aurreikusi diren zereginak egoki betetzea erraztuko dute instalazioetako espazioen eta horniduraren antolaerak eta neurriek.

a.2) Irisgarritasuna. Eraikineran sartzeko eta bertatik mugitzea ahalbidetuko zaie mugikortasun eta komunikazio urritasuna duten pertsoneri, berariazko arauan aurreikusitako baldintzetan.

a.3) Telekomunikazio, ikus-entzunezko eta informazio zerbitzuatarako sarbidea, berariazko arauan aurreikusitako baldintzetan.

a.4) Posta zerbitzuatarako sarbidea erraztea, posta bidezko bidalketak entregatzeko instalazio egokiak hornituz, berariazko arauan aurreikusitakoaren arabera (3.1. artikulua).

g.2) Eraikuntzako Kode Teknikoa onartu duen martxoaren 17ko [314/2006 Errege Dekretua](#) ere nabarmendu beharra dago, "eraikinek eta horien instalazioek bete behar dituzten oinarritzko kalitate-betekizunak erregulatzen dituen marko arautzailea da, segurtasunerako eta bizigarritasunerako oinarritzko betekizunak asebetetzeko xedea duena, eraikuntzaren antolamenduari buruzko azaroaren 5eko [38/1999 Legearen](#) azken xedapenetatik bigarrenaren aurreikusitakoa garatuz.

2. EKTak oinarritzko eskakizun horiek ezartzen ditu «egituraren segurtasunerako», «suteetako segurtasunerako», «erabileraren eta sarbidearen segurtasunerako», «ingurumenaren higienarako, osasunerako eta babeserako», «zarataren aurkako babeserako» eta «energia aurrezteko eta isolamendu teknikorako» oinarritzko betekizunetarako, eta behar beste-ko berme teknikoekin betetzen direla egiaztatzeko prozedurak ematen ditu" (1. artikulua).

g.3) Beste erreferentzia garrantzitsu bat otsailaren 19ko [173/2010 Errege Dekretua](#) da. Horren bidez, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Eraikuntzako Kode Teknikoa aldatzen da, ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasunaren eta bereizkeriarik ezaren arloan (2010eko martxoaren 11ko BOE, 61. zk.).

g.4) Hirietako espazio publikoetara sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasun eta bereizkeriarik gabeko oinarritzko baldintza teknikoan agiri teknikoak garatu duen otsailaren 1eko [VIVI/561/2010 Agindua](#) (2010eko martxoaren 11ko BOE, 61. zk.).

g.5) Hiriak Birgaitzeari, Biziberritzeari eta Eraberritzeari buruzko ekainaren 26ko [8/2013 Legeak](#) politika publikoan xedean artean ezartzen du, hiri jasangarriagoa, efizienteagoa eta lehiakorragoa lortze aldera, "herritarrek azpiegiturretara, instalazioetara, ekipamenduetara eta zerbitzueta iristeko irisgarritasun

unibertsala, eta horien mugimendua" (3. e) artikulua).

g.6) Lur eta Hiri Berritzearen Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko [7/2015 Errege Dekretu Legegilea](#) (2015eko urriaren 31ko BOE, 261. zk.).

h) Beste alde batetik, adierazi beharra daukagu [Ezgaitasunari buruzko Espainiako Estrategiaren 2014-2020 Ekintza Planak](#), osasun arloa jorratzeko unean, xede zehatz gisa jaso duela osasun zerbitzu eta instalazio irisgarriak eta ez bereizkeriazkoak indartzeko beharra.

Zentzu horretan, adieraz daiteke Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko [16/2003 Legeak](#), 2. artikuluan, legea osatzen duten printzipioen artean ezartzen duela "berdintasunezko eta kalitatezko baldintza eraginkorretan ematea zerbitzuak Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaileei". Era berean, 23. artikulua ezartzen du une oro bermatu behar dela irisgarritasuna, eta zehaztu du "Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaile guztiek edukiko dutela lege honetan aitortutako osasun-prestazioetarako sarbidea, berdintasunezko baldintza eraginkorretan".

Horri dagokionez, bereziki garrantzitsua da 28. artikulua, izan ere, zera zehazten du kalitate-bermeak eta erreferentziako zerbitzuak erregulatzean: "Ezintasunen bat duten pertsonentzako osasun-zentroen, -zerbitzuen eta -prestazioen irisgarritasuna kalitate-irizpidea da, eta Osasun Sistema Nazionalak bermatu behar du. Irisgarritasuna sustatzeko eta edozein motatako oztopoak kentzeko arloan indarrean dauden eta aplikagarriak diren arauak bete beharko dituzte osasun-zentro berriek. Antzinateanagatik edo beste arazo batzuegatik mugikortasun-edo komunikazio-arazoak dituzten erabiltzaileentzako oztopoak dauzkaten osasun-zentroetan eta -zerbitzueta oztopoak kentzeko programak bultzatuko dituzte osasun arloko administrazio publikoek.

2.3. Araudi autonomikoa

EAEK, ELGL onetsi aurretik, bere jarrera adierazia zuen hirigintza irisgarritasunaren gaian, hain zuzen ere Hirigintza-oztopoak kentzeko araudiari buruzko martxoaren 23ko [59/1981 Dekretuaren](#) bitartez. Hala eta guztiz ere, eraikinetako irisgarritasunaren araudia ez zen euskal arautegian 1983. urtearen amaierara arte finkatu, hain zuzen ere Arkitektura-oztopoak kentzeko araudiari buruzko abenduaren 19ko [291/1983 Dekretuaren](#) onespenerekin.. Xedapen horren izaera aurrerakoia zen erabat garai hartarako, izan ere, xedea definitzerakoan, zera aipatzen zuen: "ezgaitasun iraunkor nahiz behin-behineko izan dezaketen guztiek -haur, haurdun dauden emakume, zama-eramaile, eta abar-". Beste era batera esatearren, nolabait diseinu unibertsalaren oinarritzko postulatuetako bat biltzen zuen, hain zuzen ere ingurunea guztion beharretara egokitzean zetzana.

Arau horrek, egun indarrean dagoen araudiaren aurrekari zuzenak, oinarritzko akats bat zuen: ez zeukan berori betetzera derrigortuko zuen zigortzeko sistemarik.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunaren gaian indarrean dagoen araudia honela egituratzen da:

- a) Jarduteko esparru orokorra, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko [20/1997 Legeak](#) definitzen duena da. Esparru honek zera jasotzen du:
- Legearen xedea eta hura aplikatzeko esparru materiala.
 - Neurrien definizioa lau esku-hartze eremuetan irisgarritasuna bermatzeko –hiri inguruneak eta espazio publikoak, eraikinak, informazio eta komunikazio sistemak eta garraioak–; definizio horretan, batetik, baldintza orokorrak sartzen dira eta, bestetik, erreserbak.
 - Herri administrazioek –Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek, udalek eta gainerako erakunde publikoek– hartu beharko dituzten neurriak irisgarritasuna sustatu eta bultzatzeko.
 - Araudiko eskakizunak betetzen diren edo ez kontrolatzeko neurriak.
 - Zehapen araubidea, hau da, arau-hausteak, zehapenak eta araudia betetzen ez den kasuan aplikatu beharreko prozedura definitzea.
 - Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua sortzea, gai horretako kontsulta organo eta parte hartzeko organo gisa.
- b) Esku-hartze eremu ezberdinetan aplikatu beharreko baldintza teknikoak, legea garatzeko bi dekretuetan bildutakoak:
- [68/2000 Dekretua](#), apirilaren 11koa, hiri-inguruetako, espazio publikoetako, eraikinetako eta informazioaren eta komunikazioaren sistemetako irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartu dituenak. Dekretu honek bost eranskin ditu:
 - I. eranskinak parametro antropometrikoak finkatzen ditu. Bertan, irisgarritasun kontzeptuen oinarriko definizio batzuk sartzen dira, irisgarritasun zailtasunak dituzten pertsona taldeak identifikatuz eta neurriak, gorputz dimentsioak, helmenek eta kontrol egoerak eta mugimendu eta transferentzietarako espazio beharraz ezarritak.
 - II. eranskinak irisgarritasuneko baldintza teknikoak arautzen ditu, espazio publikoetan eta komunitate izaerako elementuetan.
 - III. eranskinak irisgarritasuneko baldintza teknikoak finkatzen ditu eraikuntzarako.
 - IV. eranskinak irisgarritasuneko baldintza teknikoak finkatzen ditu komunikazio sistemetarako.
 - Azkenik, V. eranskinak, aurreko eranskinetan aurreikusitako irisgarritasuneko baldintza teknikoak arautzen ditu urbanizazio eta eraikuntzetan berriztatze, zabalkunde edo aldarazpen obrak egin behar direnerako.
 - [126/2001 Dekretua](#), uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituenak.
 - Dekretu horretan garraio azpiegiturretan bete beharreko irisgarritasun baldintzak finkatzen dira, eta baita errepedetiko eta trenbidetiko garraio publikoaren material mugikorrean egon beharrekoak ere. Bertan sartzen dira ere garraio pribaturako baldintza jakin batzuk eta arautu egiten dira irisgarritasun baldintzen egokitzapenak gauzatzeari eta horiek kontrolatzeari buruzko alderdiak.
 - Era berean, interesgarria da [Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunaren alorrean indarrean dagoen araudi teknikoa aplikatzeko gida](#) (2012ko uztaila).
- c) Arau hauek ere aplikagarriak lirateke:
- [2/2014 Legea](#), urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatu duena (EHAA, 190. zk., 2014ko urriaren 7koa).
 - [2/2006 Legea](#), ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (EHAA, 138. zk., 2006ko uztailaren 20koa).
 - [42/2005 Dekretua](#), martxoaren 1ekoa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen dekretua aldatu duena.
- d) Bestetik, adierazi nahi dugu [Euskadirako Osasun-politikak 2013-2020](#) egitasmoak modu sistematikoan ezartzen duela ekitate-ikuspegia osasun-sistemako eta osasun publikoko plan eta esku-hartze guztietan. Gizartean eta osasunean desabantaila gehien dituzten giza-taldeei zuzendutako baliabideen esleipena nagusitzeko ekintza anitzak burutzea dakar horrek, bai eta *“osasun-zerbitzuetarako irisgarritasun unibertsala, zainketen jarraitutasuna eta kalitatezko arreta integrala bermatzea ere, Euskadin bizi diren pertsona guztientzat, pertsona talde edo kolektibo jakin batzuei desabantailak edo zailtasunak eragiten dizkieten oztopoak kenduz osasun-zainketen sarbidean, hala nola:*
- *Oztopo fisikoak edo garraio-oztopoak pertsonen aniztasun funtzionalagatik.*
 - *Genero-oztopoak.*
 - *Gaixotasun eta asaldura jakin batzuek eragindako estigma sozialagatik oztopoak.*
 - *Oztopo sozialak, kulturalak eta ekonomikoak”.*
- d.1) [31/2006 Dekretuak](#), otsailaren 21ekoa, osasun-zentroen, -zerbitzuen eta -establezimenduen baimenei buruzkoak, 7. artikuluan adierazten du osasun-zentroen, -zerbitzuen eta -establezimenduen titularren betebeharrak gisa *“indarrean dauden arauak osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimendu mota bakoitzerako ezartzen dituzten baldintza eta betekizun teknikoak mantentzea”.*
- d.2) Osasun-sailburuaren [1996ko otsailaren 29ko aginduak](#), Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleak sortzeko, aldatzeko eta horiek funtzionatzeko baimenak erregulatzeko dituenak, *“Euskal Autonomia Erkidegoan dauden titulatasun publikoko zein pribatuko ospitaleak sortzeko, horietan aldaketa garrantzitsuak egiteko eta horiek funtzionatzeko baimenetarako aurreti-*

ko baimen administratiboak erregulatzea” xedatzen duenak, era berean ezartzen du errehabilitazio-unitateetan arkitektura-oztoporik ez egoteko betebeharra, ospitaleetako eremu ezberdinen betekizun espezifikoak erregulatu dituen III. eranskinean.

- d.3) Osasun-sailburuaren [2013ko azaroaren 12ko aginduak](#) ezartzen ditu ebakuntza-jarduerak edota ospitaleratu gabe prozedura diagnostiko edota terapeutiko inbaditzaileak egiten dituzten osasun-zentroei eta -zerbitzuei ezar dakizkiekeen betekizun teknikoak, eta horren xedea da *“ebakuntza-jarduerak edota ospitaleratu gabe prozedura diagnostiko edota terapeutiko inbaditzaileak egiten dituzten osasun-zentroek eta -zerbitzuek bete behar dituzten betekizun orokorrak eta espezifikoak erregulatzea”*. Era berean, irisgarritasun eta arkitektura-oztopoak kentzeko arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela ziurtatzeko betebeharra jaso du, osasun-zentroen eta -zerbitzuen baimenerako betekizun tekniko orokorrak erregulatu dituen III. eranskinean.

2.4. Eskumen esparrua

Estatuaren eta autonomia erkidegoaren arteko eskumen-banaketa dagokionean, eraikitako inguruneen irisgarritasun arloan, hirigintza eta etxebizitza dira eragindako eremu nagusiak, eta biak dira EAEren berariazko eskumenekoak, Konstituzioaren 148-1-3. artikuluan eta Autonomia Estatutuaren 10.31. artikuluan ezarritakoaren arabera. Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak horrelaxe adierazi du arrazioen azalpenean.

Eusko Jauriaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko eskumen-banaketa dagokionean, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko [20/1997 Legeak](#) ez du eskumenean esleipenik ezartzen espresuki, izan ere, administrazio publiko ezberdinak sartu ditu tartean eta betebeharrak espezifikoak ezarri dizkie *“dagozkien eskumenean garapenean eta exekuzioan”*. Lege hori zeharkatuz jo daitekeen araua da, hau da, administrazio-jardueraren hainbat eremuri eragiten die, eta horrek azaltzen du aipatu igorpen orokorra. Kasu horietan, arauak ezarritako betebeharrak ezartzen zaizkie askotariko administrazio publikoei, aipatu eremuak kasu bakoitzean erregulatzen dituen legediaren bidez eremu horietako bakoitzean esleitutako eskumenean arabera.

Oro har, honakoa esan genezake:

Eusko Legebiltzarrari dagokio berariaz lege maila duten arauak idazteko eskumena, baina Eusko Jauriaritzari dagokio eraikinetako irisgarritasun arloko eskumen arautzailea. Bestalde, [Toki Araubidearen Oinarriak erregulatu dituen Legearen 22.2.d\)](#) artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantzak onartzeko ahala daukate udalek, baina horiek inola ere ezingo dute maila goragoko beste arau batzuetan aurreikusitakoaren aurka egin, [Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 11.](#) artikulua zehaztu duen bezala.

Administrazio publikoen multzoari dagozkio araudia beteazteko eskumenak:

- Batetik, guztiek dute beren titulartasuneko eraikinetan aurreikuspen arautzaileak errespetatzeko betebeharra.
- Bestetik, irisgarritasuna sustatzeko eremuan, lau urterako programak eduki behar dituzte, legean eta horren garapen-arauetan aurreikusitako irisgarritasun-baldintzei egokitzeko pixkanaka jada badauden eraikinak, titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikokoak.
- Udalei dagozkie, funtsean, kontrol-eskumenak, toki araubidearen eta hirigintza-antolamenduaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera; udalak dira, besteren artean, eraikuntza berriko obren, egituraren aldaketan edo jada badauden eraikinen kanpoko itxuraren aldaketan eta eraikinak eraisteko kasuetan, baimena emateko eskumena dutenak.

Alabaina, Eusko Jauriaritzak aurretiko kontrol-eskumenak dauka baimen edo kalifikazio bat eman behar duen kasuetan edo antzeko egintzetan, eta ikuskapen-eskumenak dauka zerbitzu jakin batzuetan, osasun-zentroen eremuan adibidez, osasun-zentroen, -zerbitzuen eta -establezimenduen baimenari buruzko otsailaren 21eko [31/2006 Dekretuan](#) aurreikusitakoarekin bat eginez.

Azkenik, udalak izango dira oinezkoen irisgarritasunaren arduradun kaletik ekipamendu ezberdinetaraino doan hiri ingurunean, eta baita autobus hiri zerbitzuen eta taxi egokituaren zerbitzuaren gaineko arduradun ere.

2.5. Irisgarritasun-baldintzak ospitaleetan

Ospitaleetako irisgarritasunaren analisia egiteko, indarrean dauden erreferentziako araudietan oinarritu gara, horiek baitira mugikortasun murriztua duten pertsonen eta ezintasunen bat duten pertsonen autonomia eta erabateko irisgarritasuna bermatzeko baldintza eta jarraibide nagusiak ematen dizkigutenak.

Ondorioz, autonomia erkidegoko eta estatuko araudiak aipatu ditugu, irisgarritasunerako oinarritzko baldintzak zehazten dituztenak.

Alde batetik, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 8/2000 Dekretuaren II. eranskina hartu da kontuan, eta, bestetik, Eraikinaren Kode Teknikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoa

Kanpoaldean, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 8/2000 Dekretuaren II. eranskinean arabera, hauek dira ezintasunen bat duten pertsonen mugikortasunerako kontuan hartu diren beharrezko eta oinarritzko elementuak:

- Oinezko ibilbideak.
- Zoladura motak.
- Zebrabideak.

(II). ARAU ESPARRUA

- Eskailerak.
- Arrapalak.
- Eskubandak.
- Aparkalekuak.
- Hiri-altzariak.
- Semaforoak.
- Mutiloiak.
- Informazio-guneak.
- Autobus-geralekuak, markesinak.

SUA 9 oinarrizko betekizuna: Irisgarritasuna. EKT (Eraikinaren Kode Teknikoa)

“Eraikinetan, bereizkeriarik gabeko irisgarritasuna eta erabile-ra ziurtatuko dira, independenteak eta seguruak, ezintasunen bat duten pertsonentzat”.

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Oinezko ibilbideak	
Oztoporik gabeko igarobidearen gutxieneko zabalera 2 metrokoa izango da.	<i>Ez da irtengunerik egongo, ezta eskailera-maila isolaturik ere.</i>
Malda longitudinala $\leq 6\%$ koa izango da.	<i>Zuhaitzek, zuhaixkek eta abarrek ez dute inoiz hartuko oinezko ibilbidea.</i>
Zeharkako malda, gehienez ere, $\leq 2\%$ koa izango da $-1,5\%$ koa izatea gomendatzen da.	<i>Ibilgailuak sartzeko eta irteteko elementuek ez dute oinezko ibilbide irisgarria hartuko.</i>
Igarotzeko altuera libre 2,20 metrokoa izango da.	<i>Ez da irtengunerik egongo, ezta eskailera-maila isolaturik ere.</i>
Zoladura gogorra, trinkoa eta irristatzearen aurkakoa.	
Maldetan, kota-aldaketetan, sakonuneetan –arrapaletan, eskaileretan, lurrazpiko igarobideetan eta abarretan-. Ohartarazpen-zerrenda adierazkorrik jarriko dira (≥ 1 m), joanaren noranzkoarekiko perpendikular.	
Zoladurak	
Zoladura bat izango da nagusi, oinezko ibilbidearen zati handiena hartuz.	<i>Ez dituzte 4 mm-tik gorako irtengunea duten junturak edukiko.</i>
Ibilbidearen ardatza. Beste zoladura bat, ikusmen-arazoak dituzten pertsonen zuzen joaten eta orientatzen laguntzeko.	<i>Gehieneko $\leq 25\%$eko maldekin konponduko dira 5 cm-tik beherako desnibelak.</i>
Berdindutako burdin-sare eta erregistroak eta 1 X 1 cm-ko lauki-sareak.	<i>Ez da egongo 1,5 cm-ko diametroa duen esfera sar daitekeen hutsunerik.</i>
Zuhaitz txorakoak estali egingo dira.	<i>Zirkulazio-guneak mugatzeko hesiak, 80 cm-ko altuerakoak gutxienez</i>
Ibilgailuen pasabideak	
Luzetarako eta zeharkako maldek ez diete oinezko ibilbideei eragingo.	<i>Ibilgailuen pasabideak ez dira oinezkoen pasabideak izango.</i>
Espaloiaren zabalera 1,50 m-koa izango da gutxienez, onartutako maldekin.	
Espaloia 1,50 m-koa bada, zintarria beheratuko da.	
Zebrabideak	
Oinezko ibilbidean seinaleztatuko dira, “seinaleztapen-zerrendekin”. 1 m-ko edo hortik gorako zabalera.	<i>Pasabidearen plano inklinatuaren eta galtzadaren arteko elkargunea berdindua.</i>
Pasabidearen seinaleztapena.	<i>Hiru planok osatutako oinezkoen pasabideek malda bera eduki behar dute.</i>
Luzetarako gehieneko malda $\leq 8\%$ koa izango da.	<i>Unean uneko elementu baten bidez babestuko dira alboetako desnibelak, plano inklinatuaren albo bakoitzean.</i>
Zeharkako malda $\leq 1,5\%$ koa gehienez.	<i>Galtzada kotan, plano inklinatuaren gutxieneko zabalera 1,80 m-koa izan behar da.</i>
Espaloiaren gutxieneko zabalera 1,50 m-koa.	<i>Irristatzearen aurkako margoarekin egingo da seinaleztapena.</i>
Galtzada kotan.	<i>Ibilgailuek ondo ikusi behar dituzte oinezkoak, eta alderantziz.</i>

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
<p>Zebrabidearen zabalera bera.</p> <p>Irlatxoak galtzadaren maila berean egongo dira, eta zebrabidearen zabalera bera edukiko dute.</p> <p>Bi noranzkodun eta hiru errail edo errail gehiago dituzten irlatxoetan, babesteko gutxieneko hondoa 2 m-koa izango da.</p> <p>Semaforoek soinuaren seinaleztapena eduki behar dute.</p> <p>Irristatzeen aurkako zorua.</p> <p>Espaloi estuetan, galtzada kotara beheratuko da espaloia oinezkoentzako zabalera guztian.</p>	
Irlatxoak	
Tarteko irlatxoak zebrabidearen berdina izango da, eta zoladura pasabidearen berdina.	Gutxienez, 1,50 m-ko luzera.
Bi noranzkodun eta hiru errail edo errail gehiago dituzten irlatxoetan, gutxieneko hondoa 2 m-koa izango da.	Ukipen-seinaleztapena edukiko dute.
Eskailerak	
Ezin izango dira isolatutako mailekin eraiki.	Desnibelen babesak: babes-hesiak egongo dira 55 cm-tik gorako kota duten desnibeleetan, zuloetan eta irekiguneetan.
Mailartea edukiko dute eta ez dute bozelik edukiko.	55 cm-ak gainditzen ez dituzten eta erorikoak eragin ditzaketen maila ezberdintasunak ikusmenaren eta ukipenaren bidez hautemateko seinaleztapena jarriko da. Gutxienez, bide-bazterretik 25 cm-ra hasiko da.
Eskubandarekin bi aldeetan ibilbide osoan zehar, 1,20 m-ko zabalera gainditzen bada.	Bihurgunedun tarteeetan, gutxienez 28 cm-ko mailagaina, barruko bide-bazterretik 50 cm-ra eta kanpoko bide-bazterretik 44 cm-ra.
Eskaileraren zabalera 2,40 m-ak gainditzen dituztean, eskubanda garaiera bikoitzean ere jarriko dira.	Norabidezko ukipen-zerrenda adierazgarriak, arrapalaren edo eskaileraren bi aldeetan.
Eskaileretarako sarbideetan ukipen seinaleztapena.	
Orientazio plaka eskubandetan.	
Arrapalak	
Hiri ingurunearen gutxieneko zabalera 2 metrokoa izango da, eta 1,80 metrokoa, berriz, eraikinaren barrualdean.	Norabidezko ukipen-zerrenda adierazgarriak, arrapalaren edo eskaileraren bi aldeetan.
Gehieneko malda %8koa izango da (%6koa izatea gomendatzen da) eta zeharkako malda %1,5koa izango da.	
Atsedeen-gunerik gabeko tarteearen luzera gehienez 10 metrokoa izango da.	
Sarbideek 1,80 metroko diametroa edukiko duen bira maniobra ahalbidetu behar dute.	
Heldulekuak bi ertzetan, garaiera bikoitzean, eta ibilbide osoan zehar.	
Aldeetako babesak arrapalaren.	
Irristatzearen aurkako zoladura.	
Eskuzko seinaleztapena arrapalarako sarbideetan.	
Eskailera mekanikoak	
	Gutxieneko zabalera librea 1 m-koa.
	0,80 m-ko azalera horizontala, mailak hasi aurretik.
	Eskubandak eskailera baino lehen eta gero, 0,80 m gutxienez.
	Seinaleztapena eskaileren hasieran eta amaieran, norabidezko ukipen-zerrenda adierazgarriekin.
Eskubandak	
Ez dira ahokaturik jarriko.	Ez dira eskalagarriak izango.
Krokatzeak saihesteko moduan errematatuko dira.	Elementu bertikalen arteko irekiguneek eta espazio libreek ez dituzte 10 cm-ak gaindituko.
Bikoitzak izango dira, 100 cm-ra (5 cm +/-) eta 70 cm-ra (5 cm +/-), eta 45 zentimetroz luzatuko dira arrapalaren edo eskaileren muturretan; eskaileren edo arrapalaren tarte osoaren estaldura bermatu egin beharko da.	
Ukimen orientazioko plakak jarriko dira eskaileren eta arrapalaren eskubandetan, braille sisteman eta goi-erliebean.	
Parkeak, lorategiak, espazio publiko libreak	
2 m-ko bideak edo bidezidorrak.	Oinezko ibilbide irigarria, debekatuta dago lur askea, hartxintzarra edo hondarra erabiltzea.
Irristatzeen aurkako zoladura deformatzina, bereizita.	Banku irigarriak.
40 cm-tik gorako plataforma altuek babes-elementuak izango dituzte.	Orientatzeko eta ibilbideak aurkitzeko informazioa.

(II). ARAU ESPARRUA

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Oinezko ibilbidea 2,20 m-tik behera hartu gabe landatuko dira zuhaitzak.	<i>Ukipen-mapek, planoek edo maketek ez dituzte kristalak edo oztopoak izango aurrean. Sarbide nagusietan egongo dira, 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran. Erliebean eta bereizita.</i>
Hiri-altzariak lerrokatuta.	
Ukipen-planoak.	
Aparkalekuak	
40 aparkalekutik bat gordeko da mugikortasun murriztua duten pertsonen gidatzen dituzten ibilgailuetarako.	<i>Gutxienez 1,50 m-ko zabalera duten transferentzia-espazioak. Bi espazioi transferentzia-espazio hori parteka dezakete.</i>
Aparkalekuak oinezko ibilbideetatik eta eraikinen sarreretatik hurbil.	<i>Ilaran dauden aparkalekuek hurbilpen- eta transferentzia-gunea izango dute; aparkalekuaren zabalera bera edukiko dute, eta, gutxienez, 1,50 m-ko luzera.</i>
Nazioarteko irisgarritasun-sinboloa, bai bertikalki, bai horizontalki.	
Gainerako ibilgailuek hor aparkatzeko debekua dutelako seinaleztapena.	
Irristatzeen aurkako seinaleztapen horizontala.	
Erreserbatutako bi aparkalekuren artean, ibilbideak ez ditu 250 m gaindituko.	
Gurpildun aulkien erabiltzaileak erreserbatutako aparkalekutik oinezko ibilbidera edo espaloiara iristea bermatuko da, arrisku-egoerak saihestuz.	
Ilaran dauden aparkalekuetan, aparkalekuen gutxieneko neurriak 6 m X 3,60 m izango dira, eta, baterian dauden aparkalekuetan, 5 m X 3,60 m.	
Eraikinaren barruan daudenean, kale mailan dauden solairuetan erreserbatutako dira ahal bada, larrialdia gertatuz gero ebakuazioa errazteko, oinezkoentzako guneen ondoan.	
Hiri-altzariak	
Ez dute irisgarritasunaren eragingo.	<i>Ez da ertz bizirik egongo.</i>
Erabilera publikoko elementu guztiak (iturriak, bankuak eta abar) diseinatuko eta kokatuko dira irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsonen erabiltzeko moduan.	<i>Hiri-altzariak espaloien kanpoko bandaren ondoan egongo dira lerrokatuta. Zintarriaren eta galtzadaren arteko mugatik 0,40 m-ra.</i>
Fatxadatik iritertzen diren elementuek 2,20 m-tik gorako altueran edukiko dute beheko ertza.	<i>Elementu gardenek kolore biziko banda opakoak edukiko dituzte, eta beiratzatutako azaleraren zabalera guztia hartu beharko dute.</i>
2,20 m-tik beherako altuera duten elementu guztiak luzatuko dira lurzoruraino.	
Hiri-altzariak oinezkoentzako ibilbidearen luzetarako noranzkoan jarriko dira.	
Espaloietan, kanpoko ertzean egongo dira jarrita, eta ez dute oinezko ibilbidea murriztuko 2 m-tik behera.	
Ez dituzte oinezkoen pasabideak hartuko.	
Elementu gardenek 20 cm-ko zabalera duten bi seinaleztapen-banda horizontal edukiko dituzte. Garaiera bikoitzean jarriko dira, 1,50 m-ra eta 0,90 m-ra.	
Semaforoak	
Soinuak igortzeko sistema.	<i>Zerbrabidearen kanpoko mugatik 1,50 m-ra baino gutxiagora egongo dira, oztopoak saihestuz.</i>
Argi-aldaketa eragiteko pultsadorea 0,90 m-tik 1,20 m-ra bitarteko altueran egongo da.	<i>4 cm-ko gutxieneko diametroa, eta tonua edo ahots-mezua igorriko da sakatu dela baieztatzeko. Ezagutzeko ikonoa eta ehundura. Norabidezko gezia.</i>
Mutiloiak	
Bolumenagatik eta koloreagatik ikusiko dira, eta kroatzeak saihestuko dituzte.	<i>0,75 m-ren eta 0,90 m-ren arteko altuera, gutxieneko zabalera edo diametroa 10 cm-koa, diseinu borobildua eta ertzik gabea.</i>
	<i>Kolorea kontrastean, zoladurari dagokionez.</i>
	<i>Lerrokatuta eta oinezko ibilbidea hartu gabe.</i>
Informazio-guneak	
Informazio-etaulak, kartelak, elkarreraginezko informazio-guneak eta abar edozein erabiltzailek irakurtzeko moduko altueran egongo dira jarrita, letra-tamainagatik eta kontraste kromatikoagatik.	<i>Jendearekiko elkarreraginezko bitarteko informatiboak dauzkaten elementu manipulagarriek egokitzapenak eduki behar dituzte, braillea erabili ahal izatea, ahozko elkarrizketa edukitzea eta karaktereak gehitzea ahalbidetzeko moduan.</i>
Elkarreraginezko informazio-sistemak erraz aurkitzeko eta horietara erraz iristeko moduan egongo dira jarrita. Biratzeko 1,80 m-ko erradioa ahalbidetu behar dute, oztoporik gabe.	
Teklatua 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran egongo da, pixka bat inklinatuta, eta bermatzeko apal txikia edukiko du.	
15°-ren eta 30°-ren arteko inklinazioa edukiko du pantailak, 1 m-ren eta 1,40 m-ren arteko altueran egongo da, eserita dagoen pertsonak ondo ikusteko moduan.	

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Autobus-geralekuak, markesinak	
Alboren batean eta itxaron-gunean eta nasan oztoporik gabeko zerrenda librean egongo da, 1,80 m-ko zabalera librearekin.	<i>Oinezko ibilbidetik hurbil egongo dira, berori hartu gabe.</i>
45/50 cm-ko altuerako eserlekuak.	
Ibilbideei eta ordutegiei buruzko informazioa, komunikazioko irisgarritasunari buruzko IV. eranskinaren arabera.	
Geralekua oinezkoen pasabidetik hurbil.	
Plataforma baldin badago, 20 cm-ko altuerako ertza duen espaloia zoladura eta ezaugarri berberak edukiko ditu.	
Elementu gardenak badauzka, seinaleztapen-bandak edukiko ditu altuera bikoitzean.	

Ospitaleen **barruko espazioan**, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko III. eranskinaren (eraikinen irisgarritasunaren gaineko baldintza teknikoei buruzkoaren) arabera, bai eta SUA 9 oinarrizko eskakizuna: EKTaren (Eraikuntzako Kode Teknikoaren) irisgarritasunaren arabera ere, hauek dira ezintasunen bat duten pertsonen mugikortasunerako kon-tuan hartu diren beharrezko eta oinarrizko elementuak:

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Sarbideak	
Kanpoko zoladuraren maila berean egon behar dira.	
Eskailerak badaude, arrapala eduki beharko dute.	
Oinezko ibilbideei dagokiena bete beharko dute eraikinen arteko oinezkoen ibilbideek edo komunikazioek.	
Eraikinik gabeko eremuak, korridoreak edo portxeak adibidez, argidun piboteekin seinaleztatuko dira, bi aldeetan, eremu horiek iluntasunean mugatzeko.	
Ateak	
Kontraste kromatikoaren bidez nabarmendu behar da atea fatxadatik, eta argiztapen ona eduki behar du.	<i>Irteera-ateen zabalte-indarra: $\leq 25 N$.</i>
Zenbakiaren edo letraren berri emateko kartela, eraikinaren erabileraren berri ematearekin batera. Sarbideak atearen eskuinaldean egongo da, lurretik 1,50 m-ren eta 1,60 m-ren arteko altueran.	<i>Zabalte-mekanisмотik bazterreara arteko distantzia: $\geq 0,30 m$.</i>
Komunikazio-, dei- edo zabalte-sistemak atearen ondoan egongo dira, ezkerrean, 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran. Manipulazio-zailtasunak dituzten pertsonen erabiltzeko moduan egongo dira aipatu sistemak.	
Atezain automatikoaren bidezko zabalte-sistema duten atean, pultsadoreen bidez eragiten bazaie, edo txartela sartuz edo antzeko mekanismo baten bidez, 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren artean egongo dira aipatu sistemak, eta behar diren bitarteko teknikoak jarriko dira atearen segurtasun-sistema askatzeko edo indargabetzeko, zabalte- eta itxiera-maniobra amaitu arte.	
Atearen alde banatan, espazio libre horizontala egon behar da, atearen orriek hartu gabea, 1,80 m-ko diametroko oztoporik gabeko zirkulua ahalbidetuz.	
Zabalte-angelua ez da 90°-tik beherakoa izango.	
Ate automatikoetan, igarotzeko tartearen gutxieneko zabalera 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren artekoa izan behar da.	
Bi orriko atean, normalean irekitzen denak 0,90 m-ko zabalera igarobide tartea utzi behar du.	
Atearen zabalte automatikoko malgukiek edo gailuek ez dituzte 30 newtonak gaintu behar.	
Larrialdietarako ateez barra bikoitza eduki behar dute, 0,90 m-ra eta 0,20 m-ra; behekoa laua izango da. Presioaren bidezko eragingailua.	

(II). ARAU ESPARRUA

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Ateak	
Ate automatizatueta, irekierarako programatu den denbora mugikortasun urriko pertsona igarotzea ahalbidetzeko egokia dena izango da eta horrek ez ditu 0,5 m/s gaindituko.	Zabaltze-mekanismitik baztertera arteko distantzia: $\geq 0,30$ m.
Beira duten ateeetan seinaleztapenerako zerrenda horizontal bikoitza jarriko da, kolorearen aldetik kontraste nabarmena egiten duena, 1,50 m-ko eta 0,90 m-ko altueran. <ul style="list-style-type: none">- Segurtasun-beira.- Babes-zokaloa 0,40 m-ko altueran.	
Barruko atear behar bezain arinak izango dira, esku bakarrarekin irekitzea posible izan dadin.	
Oztopoetatik libre dagoen tokiarekin eta gurpil aulkiaren maniobra bermatzeko behar besteko zabalerarekin (gutxienez, 0,90 m bi orriko ateentzat).	
Garaiera egokian (0,90-1,20 m) kokatzen diren eskuz eragiten diren gailuak (krisketak, helduleku ergonomikoak), eta mugikortasun urriko pertsonen ekintza eremuaren barruan. Debeakuta daude "pomo" motakoak.	
Heldulekuak 0,90 m-ko eta 1,20 m-ko altueran egongo dira. Bertikalki jarrita badaude, atearren behealdean 40 cm utzi behar dituzte libre. Atearen mailatik 4 cm-ra.	
Atarteak	
1,80 m-ko diametroko zirkulua egiteko aukera egon behar da.	Lanpasak eta moketak lurlean sartuta edo finkatuta egon behar dira.
Etengabeko argiztapena, itzalik gabe, 300 lux gutxienez. Itsualdia saihestu kanpoaldearen eta barrualdearen artean.	Ibilbide irigarriak seinaleztatuko dira, arreta-gune irigarrieekin, joanaren noranzkoarekin paraleloak diren artekadun seinaleztapen-bandaren bidez, 40 cm-ko zabalerarekin eta 3 mm-ko sakontasunarekin (1 mm +/-) barrualdean eta 5 mm-koa (1 mm +/-) kanpoaldean, zoladurarengandik bereizita.
Kontraste kromatikoa lurzoruen eta hormen artean.	55 cm-ak gainditzen ez dituzten maila ezberdintasunak hautematea ikusmen- eta ukipen-bereizketaren bidez, ertzetik 25 cm-ra gutxienez.
Irristatzearen aurkako zoladurak.	
Atarteetan planoak eta maketak egon behar dira.	
Alarma-pultsadoreak	
	80 cm-ren eta 120 cm-ren arteko altueran, aginte- eta kontrol-elementuak. 40 cm-ren eta 120 cm-ren arteko altueran, korronte- edo seinale-harguneak badira.
	Elkarguneetarako distantzia, txokoan, 35 cm-koa gutxienez.
	Ukabil itxiarekin, ukondoarekin eta esku batekin eragin daitezkeen etengailuak eta pultsadoreak, edo automatikoak.
	Inguruarekiko kontraste kromatikoa.
	Ez dira onartzen biraketa- eta palanka-etengailuak.
	Ez da tenporizadoredun argiztapena onartzen komun eta aldagela irigarrietan.
	Arrapala edo igogailu irigarrien bidez konponduko dira desnibelak. Ez dira eskailera-mailak onartzen.
Korridoreak	
Desnibelak daudenean, arrapalak jarri beharko dira.	
Kolore bereiziaz lurzoruaren eta hormen artean.	
Ez dute oztoporik izango 2,20 m-ko altueran eta 1,80 m-ko zabaleran. Ez da altzarien, erradiadoreen, su-itxalgailuen edo antzeko elementuen inbasiorik egongo.	
Norabidezko zerrenda gidak.	
Irristatzearen aurkako zoladurak, jarraituak, ertzik edo tolesik gabeak.	
100 m-tik gorako ibilbidea egon behar da ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonen gurpildun aulkientzat. Aurreikus daitezkeen gehieneko pertsona-okupazioan, 1 100 pertsonako.	
Korridoreetan altzari-elementuak jarri behar direnean, albo berean jarriko dira guztiak.	
Behar bezalako argiztapena edukiko dute.	
Leihoak	
Leihoen mekanismoak eta itxierak 0,80 m-ren eta 1,10 m-ren arteko altueran egongo dira, horietara iristea zaildu dezakeen oztoporik gabe.	
Leihoaren irekidurak ez du korridorea hartuko 2,20 m-tik beherako altueran.	

Komunikazio bertikalak:

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Eskailerak	
Ezin daiteke maila isolaturik egon.	<i>55 cm-tik gorako altuera duten eskailerek eskubandak eduki dituzte, albo batean gutxienez.</i>
Eskaileren azpiko igarobide librearen gutxieneko altuera 2,20 m-koa.	<i>Ikusmenezko eta ukipenezko seinaleztapen-banden kolorea zoladuraren kolorearekin kontrastean egongo da, eta erliebea edukiko dute; 3 mm-koa (1 mm +/-) barrualdean eta 5 mm-koa (1 mm +/-) kanpoaldean. Eskaileren abiapuntua seinaleztatzeko, 80 cm-ko luzera edukiko dute joanaren noranzkoan, eta ibilbidearen zabalera eta artekak eskaileren ardatzarekiko perpendikularak izango dira.</i>
Mailartea edukiko dute eta ez dute bozelik edukiko.	
Debekatuta dago eskailera-mailak gainjartzea.	
Eskaileren tarte baxueneko arkubarnera itxita egon beharko da 2,20 m-ko gutxieneko altueraraino.	
Eskailera guztiak eduki behar dituzte eskubandak bi aldeetan 1,20 m-tik gorako zabalera badute, ibilbide osoan zehar. 2,40 m-ak gainditzen badituzte, tarteko eskubandak egon behar dira.	
Eskaileretarako sarbideetan ukipen-seinaleztapena egon behar da.	
Behar bezalako argiztapena edukiko dute eskailerek.	
Arrapalak	
Gutxieneko zabalera 1,80 m-koa.	<i>%8ko maldan 6 m-tik beherako luzeretan, eta %6koa gainerako kasuetan.</i>
Arrapalaren luzapenean ezin daiteke eskailerarik egon 3 m-tik beherako distantziara beheranzko norabidean.	<i>9 m-ko gehieneko luzera.</i>
Baimendutako gehieneko maldan %10ekoa da 3 m-tik gorakoak ez diren luzeretan, eta %8koa gainerakoetan; hala ere, %6koa gomendatzen da.	
Atsedengunerik gabeko luzera gehienez 10 metrokoa izango da.	
Tarteko atsedenguneez 1,80 m-ko luzera.	
1,80 m-ko diametroko zirkulua egiteko aukera egon behar da sarbideetan.	
Irristatzearen aurkako zoladura.	
Alboetan 5 cm-ko zintarri nabarmenduak.	
Tarteak 2 m-ko luzera gainditzen duenean, eskubandak eduki behar ditu bi aldeetan.	
Eskubandak	
Diseinu anatomikoa, eskuari egokitzeko itxurarekin. 4 cm-ren eta 5 cm-ren arteko diametroko sekzio zirkularra gomendatzen da.	
Eskubanda bikoitzak eta jarraituak. Goikoa 100 cm-koa (5 cm +/-), eta behekoa 70 cm-koa (5 cm +/-).	
Eskaileren eta arrapalaren alboetan 45 cm-z luzatu behar dira, beti ere, ibilbideak edo elkartzeko edo biratzeko guneak inbaditzen ez badituzte. Kasu horietan, eskaileren luzera estali behar dute gutxienez.	
Errematatuta egongo dira, katigatzea saihestuz.	
Kolorea kontrastean egon behar da gainerako elementuei dagokienez.	
Eskaileren eta arrapalaren eskubandetan orientazio-plakak egon behar dira.	
Igogailuak	
Sartzeko plataforma, 1,80 m-ko diametroko zirkulua egiteko moduan.	
100 lux-ekin seinaleztatu igogailura sartzeko eremua, lurzorua mailan, eta ontziratzeko-gunea adieraziko duen seinaleztapen-zerrenda jarri, ehundura eta kolorea kontrastean. 1,50 X 1,50 m-ko azalera.	
Solairuaren adierazgailuak 1,50 m-ko altueran. Eskuinaldean, kanpoko markoaren atezangoan, informazioa erliebean eta braille sisteman.	
Soinudun eta argidun ohartarazleak.	
Deia erregistratu delako baieztapena, argidun seinale akustikoaren bidez.	
Atearen zabaltzea seinale akustikoarekin.	
Joanaren noranzkoa (gora edo behera) adieraziko duten argidun adierazgailuak.	
Pultsadoreak presiadunak izango dira, eta 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran jarriko dira, solairu guztietan, alde berean. Argiztapen onarekin eta gainazalarekin ondo kontrastatuta.	
Taminagatik ondo irakur daitezkeen karakteredun botoiak, goi-erliebean eta braille sisteman, gainerako botoiekin kontraste kromatikoa onean.	

Igogailu-kabinak

Oztoporik gabe, 1,40 m-ko sakonera eta gutxienez 1,10 m-ko zabalera barrualdean. Sarrera eta irteera noranzko ezberdinean badaude, 1,80 m-ko sakonera eta 1,50 m-ko zabalera.

Kabinaren eta sartzeko plataformaren artean maila ezberdintasuna badago, ez da 20 mm-koa baino handiagoa izango, eta tarteak ez ditu 35 mm-ak gaindituko.

Zoladura gogorra, irristatzeen aurkakoa lehor zein bustita dagoenean, laua eta finkoa.

Botoiak ontziratzeko ate nagusiaren albo batean, 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran. Gainerako hormekiko distantzia 400 mm-koa izango da gutxienez.

Pultsadoreak presioaren bidez eragingo dira, eta argia izango dute sakatzen direnean. Beste kolore bat edukiko dute, gainerako botoiei dagokienez. Hondoko kolorearekin kontraste onean, kabinako gainerako kolorearekin bezala.

Pultsadoreak goi-erliebean eta braille sisteman edukiko dituzte zenbakiak.

Alarma- eta geraldipultsadoreak ondo bereizi behar dira.

Posiziozko argidun markagailua, geldiunean zein mugimenduan adieraziko du solairua.

Adierazgailu akustikoarekin adieraziko da solairura iritsi dela eta ate zabaltzea.

Argiztapen homogenea ez da 100 lux-etik beherakoa izango.

Eskubanda jarraitua, 0,90 m-ra (5 m +/-).

Ispilua atearen aurrean.

Igogailuko ateak

Ate automatikoak.

Hautemate-sistema, itxiera automatikoa galarazteko.

Igarotzeko zabalera librea 0,90 m-koa izango da.

Eskailera mekanikoak

Igogailuaren osagarri izango dira.

Tapiz ibiltariak eta eskailera mekanikoak ez dira oinezko ibilbide irisgarrien zati. Elementu osagarriak dira.

Gutxieneko zabalera librea 1 m-koa.

Eskubanda 90 cm-ra (5 cm +/-), 45 cm-tan luzatuta.

Plataforma jasogailu bertikala

Ontziratzeko-gunea, baita ontzitik jaisteko ere, 1,80 m-ko diametroarekin.

Eskuko aginteak plataforman, ontziratzeko-gunean eta ontzitik jaisteko gunean, 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran.

Erabilera-jarraibideen taula.

Gutxieneko neurriak: 1,40 m-koa luzeran eta 1,10 m-koa zabalera. Babes-hesia eta segurtasun-topeak.

Gutxienez, 250 kg jasotzeko gaitasuna.

0,90 m-ko ateak plataforman.

Translazio zeharrekoko plataforma

Hesia kentzeko aukerarik ez dagoenean jarriko da.

Ontziratzeko eta ontzitik jaisteko plataforma bertikaletan bezalakoa.

Gutxieneko neurriak: 1,25 m-koa luzeran eta 1 m-koa zabalera.

Babes-hesia eta segurtasun-topeak.

Gutxienez, 250 kg jasotzeko gaitasuna.

Baldintza orokorrak

Irristatzearen aurkako zoladurak.

Inguruneak eta tokiak bereizten saiatu, bereizketa kromatikoaren bidez eta argiztapenaren intentsitatearen bidez, intereseko puntuak (informazio-guneak eta ateak, adibidez) nabarmenduz.

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Elementu bisualak, informazioa, seinaleztapena eta errotulazioa	
<p>Irakurtzeko planoak 1,50 m-ra. Bigarren lerro bisuala gurpil aulkia erabiltzen duten pertsonentzat, 60 cm-tik 145 cm-ra.</p> <p>Adierazleetan bildutako informazioa irisgarria izango da braille sistema eta goi-erliebean markatutako makro-karakterek sartzearen bitartez. Ez da islak edo itsualdiak eragin ditzaketen pantailekin edo beirekin babestuta egongo.</p> <p>Toki irisgarrietan eta erraz topa daitezkeenetan kokatuko dira. Informazioa irakurterraza eta ulerterraza izan behar da edozein pertsonarentzat. Informazioaren eta atzealdearen artean kontraste kromatikoa adierazgarria egongo da.</p> <p>Ukimen zerrendak erabili egiten dira eskailerak, arrapalak, eta abar seinaleztatzeko, eta horrek informazio eta ohar izatearen funtzio bikoitza beteko du.</p> <p>Norabidean gidatzeko zerrendek intereseko zona eta elementuetara eraman behar dute.</p>	
Erakusmahaiak, arreta-leihatilak	
<p>Gehienez ere, 1,10 m-ko garaieran. Gutxienezko luzerako 1,20 m-ko tartearekin, 0,80 m-ko garaieran eta oztoporik gabeko zokoa -0,70 metroko garaierakoa eta 0,50 metroko sakonerakoa-.</p>	<p>Jendeari arreta emateko eremuetako altzari finkoek arreta-gune irisgarri bat edukiko dute gutxienez, edo arreta jasotzeko deia egiteko leku irisgarria.</p> <p>Interkomunikazioa badago, indukzio-begizta edo xede horretarako egokitutako beste sistema bat edukiko du horrek.</p> <p>Arreta jasotzeko gunea: oinezko ibilbide irisgarriarekin komunikatuta egongo da eta sarbide irisgarria izango du. Interkomunikazio-sistema mekanismo irisgarriaren bidez, informazio-errotulua edukiko du, eta noranzko biko komunikazioa ahalbidetuko entzumen-errotulua duten pertsonekin.</p>
Egongelak, bilera-aretoak, areto nagusiak eta abar	
<p>Modu autonomoan sartu ahal izatea bermatu.</p> <p>Mugikortasun urria duten pertsonentzat gordetako eta seinaleztatutako tokia. 2 toki gurpildun aulkien erabiltzaileentzat, 1,40 m X 1,10 m-koak, eta bi eserleku ibiltzeko laguntza behar duten edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, 0,45 m-ko altueran, eta beso-euskarriak eserlekutik 0,20 m-ra, eraisgarriak, 0,90 m libre edukiz aurrean.</p> <p>Oholtzara modu autonomoan igo ahal izatea bermatu behar da.</p>	<p>Egoteko eremuek mugikortasun murriztua duten pertsonen gordetako leku bat eduki behar dute, 1,50 m-ko luzerarekin eta 1 m-ko zabalarekin, oinezko ibilbidetik ahalik eta hurbilen. Gurpildun aulkien erabiltzaileentzako erreserbatutako toki bat 100 eserlekuko edo zatikia.</p> <p>50 eserlekutik gora dituzten eta entzuteko jarduera duten espazioetan, entzumen-errotulua duten pertsonentzat gordetako toki bat egon behar da 50 eserlekuko edo zatikia. Indukzio-begizta edo xede horri egokitutako bestelako edozein gailu duen tokia.</p>
<p>Oholtzara modu autonomoan igo ahal izatea bermatu behar da.</p>	<p>Eratxikitako eserlekua lagun batentzat.</p> <p>Elkarreragina erraztuko duten gailuak eta teknologia berriak, pertsona guztiek erabiltzeko moduan.</p>
Makina saltzaileak	
<p>Braille sistema edota makro-karakterek goi-erliebean.</p> <p>Soinudun informazioa.</p> <p>Ordainketa gailuak 0,90 eta 1,20 m artean.</p> <p>Produktuak 0,70 m-ko altueran emango dira.</p>	
Informazio eta komunikazio sistemak	
<p>Megafonia anplifikatua indukzio magnetikoko begiztekin (T modua).</p> <p>Teleadierazgailuak testuekin eta atzealdearekiko kolore kontraste adierazgarria edukiz.</p> <p>Soinudun informazioa.</p>	<p>Oinezko ibilbidetik hurbil, aurreko erabilera-eremua oztoporik gabea. 1,50 m-ko zirkulua egiteko aukera.</p>
Edukiontzien, paperontzien, postontzien eta antzekoen zuloak	
<p>0,90 m-ko altueran, oztoporik edo paramentutik iriteta den ertzik gabea.</p>	

(II). ARAU ESPARRUA

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Higiene-zerbitzuak, aldagelak eta dutxak	
Elementuen erreserba, 10 elementutik sexu bakoitzerako bana edo zatikia.	<i>Komun irisgarri bat instalatutako 10 komun unitateko, bi sexuek erabiltzeko aukerarekin.</i>
Komunerako sarbidean, 1,80 m-ko diametroa oztoporik gabe egiteko aukera.	<i>Aldagela bakoitzean, aldagela-kabina irisgarri bat, komun irisgarri bat eta dutxa irisgarri bat 10 unitateko edo zatikia. Banakako kabinarik ez badago, kabina irisgarri bat jarriko da gutxienez.</i>
Ateek 0,90 m-ko igarobide librea izango dute, eta babes-zokaloa 30 cm-ko altueran. Kanpora alderako zabaltzea edo ate lerragarria.	
Pixatokiak bateriak, bat behintzat 0,45 m-ko altueran. Oin gainik edo irtengunerik gabeak.	
Aldagelak, komunak, dutxak eta abar isolatuta, eta irisgarriak izan behar dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Elementuak pilatzen direnean, elementu bat gordeko da sexu bakoitzeko, 10etik bat edo zatikia.	
Egokitutako komun-kabina	
Irisgarritasunaren nazioarteko sinboloaren seinaleztapena eduki behar du atea.	<i>Sexu bakoitzaren piktograma normalizatu, goi-erlebean eta kontraste kromatikoa, 0,80 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran, atearen eskuineko markoaren ondoan, sartzeko noranzkoan.</i>
Alarma-sistema lurretik 0,40 m-ra, kordoi mota.	<i>Konketaren azpiko espazio librea 70 cm-ko altuerakoa eta 50 cm-ko sako-nerakoa.</i>
Barruan, 1,50 m-ko diametroko zirkulua egiteko aukera, 0,70 m-ko altueraraino. 1,80 m-koa gomendatzen da.	
Oin gainik gabeko konketa, 0,80 m-ko altueran, aginte bakarreko txorrota edo txorrota automatikoa.	
Irristatzeen aurkako zoladura, bai lehor dagoenean, bai bustita dagoenean.	
Berdindutako estolda-zuloak, irristatzeen aurkakoak. 1 X 1 cm-ko zirrikituak.	
Ispiluek, gehienez ere, 0,90 m-ra eduki behar dute beheko ertza, erortze arin batekin.	
Esekigailuak, eskuoihal-euskarriak, apalak eta abar. Bat gutxienez 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran egongo da.	
Ur beroaren hodiak babestuta eta termikoki isolatuta.	
Komuna	
45 eta 50 cm-ren arteko altueran, kanpoko ertza hormatik 70 cm-ra gutxienez. Albo batek gutxienez 80 cm-ko espazio librea edukiko du, translazioa egiteko.	<i>Transferentziarako albo-espazioa bi aldeetan, 80 cm-ko zabalera eta 75 cm-ko sakontasuna gutxienez.</i>
Barra zuzenak bi alboetan, sarbide eraisgarriaren aldekoa gutxienez. 80 cm-ko (5 cm +/-) altueran eta 80 eta 90 cm-ren arteko luzera.	<i>Edozein noranzkotan 1 kN-ko indarra jasango duten euskarri-barrak.</i>
Barretatik komunaren ardatzerako distantzia 30 cm-tik 35 cm-ra.	
Deskarga-sistemaren pultsadorea manipulazio-arazoak dituzten pertsonen eragiteko modukoa izango da.	
Aldagelak	
Banakakoak izango dira, baina ez dituzte esparru bereiziak eratuko; egokitutako komunarekin eta konketarekin osatuko dira.	<i>Kanpora alderako zabaltzea edo ate lerragarria.</i>
Ohartarazpen- eta alarma-sistemek pultsadorea edukiko dute bi hormatan, lurzorutik 20 cm-ra. Horieta bat komunetik eragin ahal izango da.	<i>Eraisgarria eta bizkarduna.</i>
1,80 m-ko diametroko zirkulua egiteko aukera egon behar da sarbidean, eta, barrualdean, 1,50 m-koa.	<i>Eserlekuaren aldean, euskarri-barra horizontalak egongo dira izkina egiten duten bi hormaren inguruan gutxienez, eta barra bertikal bat horman, izkinatik edo eserlekuaren bizkarraldetik 60 cm-ra.</i>
Igarotzeko 90 cm-ko tarte librea duten atea. Babes-zokaloak bi aldeetan, 30 cm-ko altuerakoak.	<i>Berdindutako lurzorua, <=2ko hustuketa-mailarekin.</i>
Hormari atxikitako bankua, 0,60 m-ko zabalera, 1,50 m-ko luzerakoa eta 0,45 m-ren eta 0,50 m-ren arteko altuerakoa.	
0,60 m-ko sakonerako eta 0,45 m-ren eta 0,50 m-ren arteko altuerako eserleku eraisgarria duen dutxa.	
Barra zuzenak albo batean gutxienez, baina bi aldeetan edukitzea gomendatzen da. Sarbideko aldekoa izango da eraisgarria. 80 cm-ko (5 cm +/-) altuerakoak eta 80/90 cm arteko luzerakoak. Eserlekuaren ardatzarekiko distantzia 30 cm-tik 35 cm-ra.	
Aldageletako eta dutxetako hormek eskubanda eduki behar dute, 90 cm-ko (5 cm +/-) altueran.	
Irristatzeen aurkako zoladura, bai lehor dagoenean, bai bustita dagoenean.	
Aginte bakarreko txorrota ergonomikoa, palanka luzeduna, tenperatura erregulatzeko aukerarekin eta 0,90 m-ko altueran.	

**68/2000 DEKRETUA.
EUSKO JAURLARITZA****SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA:
IRISGARRITASUNA EKT**

Manipulazio-arazoak dituzten pertsonak maneiatzeko moduko ur-zurrusta, barra bertikalaren gainean altueran erregula daitekeena, eserlekuaren albo batean.

Ur beroaren hodiak material isolatzailearekin babestuta.

Irtengunerik gabeko duxak, zoladuraren mailan, malda egokiarekin.

Bainuontzia

Bainuontziaren ondoan 1,80 m-ko diametroko espazio librea.

Diagonalean edo bertikalki jarritako barrak, bainuontziaren lurzorutik 0,70 m-ren eta 1 m-ren arteko altueran.

Luzetara jarritako txorrotak.

Goiko ertza, gehienez ere, 0,45 m-ra.

Bainuontzira sartzeko eta hortik irteteko laguntza teknikoa.

Altzariak

Altzarien artean, 1,80 m-ko pasabide nagusiak.

Altzari guztiek edukiko dituzte ertz edo izkina kamutsak.

Erraz aurkitzeko moduko altzariak, argiztapen onarekin eta mugitzeko bastoiarekin erraz hauteman daitezkeenak.

Itxaron-guneetako eserlekuak modu erregularrean antolatu behar dira. Ilarak badaude, horien arteko gutxieneko distantzia 0,90 m-koa izango da, eserleku bat 45 cm-ko altueran egongo da, eta beso-euskarri eraisgarria edukiko du eserlekutik 20 cm-ra.

Armairuak

Lurzoruaren gainean 0,35 m-ko altuera librea.

1,60 m-tik beherako altuera.

Barruan, esekigailua jartzeko barra eduki behar du, 0,80 m-ren eta 1,10 m-ren arteko altueran.

Telefonoak

Telefono publiko isolatuak. Irisgarriak izango dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

Dialak, txanponak sartzekoa eta txartelak sartzekoa 0,90 m-ko altueran.

Manipulazio-arazoak dituzten pertsonak maneiatzeko moduko teklatura. Tamainagatik eta kontrasteagatik ondo ikus daitezkeen zenbakiak.

Bermatzeko apala 0,80 m-ko altueran eta 0,70 m-ko altuera librea azpian.

Erraz aurkitzeko eta iristeko moduan, 1,80 m-ko erradio-bira ahalbidetuz aurreko sarbidean.

Elektrizitatea eta alarma eragiteko mekanismoak

0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran jarriko dira.

Kolore kontrastea paramentuarekiko.

Elkarguneetarako distantzia, txokoan, 35 cm-koa gutxienez.

Ukabil itxiarekin, ukondoarekin eta esku batekin eragin daitezkeen alarma-etengailuak eta -pultadoreak, erraz eragin daitezkeenak.

Ez dira onartzen biraketa- eta palanka-etengailuak.

Ez da tenporizadoredun argiztapena onartzen komun-kabina eta aldagela irisgarrietan.

Kutzainak eta elkarreaginezko elementuak

Erraz aurkitzeko eta iristeko modukoak, 1,80 m-ko erradio-bira ahalbidetuz aurreko sarbidean.

Teklatua 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran, plano horizontalean edo bertikalean pixka bat inklinatuta, bermatzeko apalarekin.

15°-ren eta 30°-ren arteko inklinaziodun pantaila, 1 m-ren eta 1,40 m-ren arteko altueran.

Informazioa eta seinaleztapena

Adierazgailuak irisgarriak izan behar dira, eserita dagoen edo ikusmen-arazoak dituen pertsonak ondo irakurtzeko modukoak.

Ez dituzte oinezko ibilbideak oztopatu behar, ezta altzarien erabilera ere.

Hormatik kanpo badaude, paramentuetan, lurreraino iritsi behar dira, ertz borobilduekin.

Erraz aurkitzeko modukoak, eta modu uniformearen argiztatu behar dira, argi-maila handiarekin.

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Aparkalekuak	
Erreserbatutako aparkalekuen gutxieneko kopurua: 1 40 aparkalekuko edo zatikia.	<i>Hurbiltzeko eta transferentziarako espazio eratzia edukiko dute, 1,20 m-ko zabalera alboa baterian bada, ondoz ondoko bi plazarekin egin daitezkeena, eta 3 m-ko luzera atzean, ilaran bada.</i>
Eraikinaren barruan, kale mailan dauden solairuetan erreserbatutako dira, ahal bada, oinezkoentzako guneen ondoan.	<i>Bertako langileentzat ez den eremuan, aparkaleku irisgarri bat egon behar da 33 aparkalekuko edo zatikia.</i>
Gutxieneko neurriak: 6 m-ko luzera bider 3,60 m-ko zabalera ilaran dauden aparkalekuetan, eta 5 m X 3,60 m-ko zabalera baterian dauden aparkalekuetan.	
Logelak (logeletan, gurpildun aulkien erabiltzaileentzako edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzako etxebizitzetarako neurriak hartu dira kontuan)	
Ateek 0,90 m-ko igarobide librekoa izango dute, eta manipulazio-arazoak dituzten pertsonak irekitzeko eta maneiatzeko moduak izango dira. Komunitateko ateak irekitzeko noranzkoa ez da barrurantz izango, eta ate lerragarria izan ahalko da.	<i>Zabaltze-mekanisмотik bazterrerara arteko distantzia: >=0,30 m-koa.</i>
Atarteetan edo banalekuetan 1,80 m-ko diametroko zirkulua egin ahalko da.	<i>Ez dira eskailera-mailak onartzen.</i>
Korridoreen gutxieneko zabalera 1,20 m-koa izango da.	<i>Terrazan, biratzeko 1,20 m-ko espazioa egongo da, oztoporik gabe.</i>
Terrazak: maila handirik edo eskailera-mailarik gabeak izango dira, irisgarriak izan daitezke. Kontuan hartuko da karelaren edo babes-barandaren diseinua, eserita dagoen pertsonaren esparru bisuala libre uzteko.	<i>Etengailuak, entxufeak, balbulak eta ixteko giltzak, koadro elektrikoak, interkomunikazio-sistemak, arotzeria, kanpoaldea eta abar mekanismo irisgarriak izango dira, hau da, ezaugarri hauek bete behar dituzte: 80 cm-ren eta 120 cm-ren arteko altueran egon behar dira aginte- eta kontrol-elementuak direnean, eta 40 cm-ren eta 120 cm-ren arteko altueran korronte- edo seinale-harguneak direnean.</i>
Irristatzeen aurkako estolda-zuloak, baita bustita daudenean ere. Gehienez ere 1 cm-ko irekiguneak dituzten burdin-sareak, eta bastoiak edo gurpildun aulkia erabiltzen dituzten pertsonak estropuz ez egiteko moduan egongo dira antolatuta.	<i>Elkarguneetarako distantzia, txokoan, 35 cm-koa gutxienez.</i>
	<i>Ukabil itxiarekin, ukondoarekin eta esku batekin eragin daitezkeen alarma-etengailuak eta -pultadoreak, erraz eragin daitezkeenak, edo automatikoak.</i>
	<i>Inguruarekiko kontraste kromatikoan. Ez dira onartzen biraketa- eta palanka-etengailuak.</i>
	<i>Ez da tenporizadoredu argiztapena onartzen komun eta aldagela irisgarrietan.</i>
Zentzumen-arazoak	
Orientatzeko modu errazak.	
Oztopoak saihestu.	
Argia egokitu.	
Irudiak handitu.	
Informazio akustikoa.	
Ukipen-informazioa, zintestesikoa.	
Deitzeko tinbrea edo bideo-atezaina.	
Irisgarritasuna komunikazioan	
Kokapenari, norabideari eta larrialdiei buruzko informazio garrantzitsuena eta interesgarriena adieraziko da.	<i>Ibilbide osoan zehar orientatzeko behar den informaziorako sarbidea egon beharko da ibilbide osoan, bai eta intereseko espazioak eta ekipamenduak aurkitu ahal izateko informazioa ere. Informazioa modu analogikoan komunikatu beharko da, seinaleen, errotuluen eta adierazgailuen bidez. Oinezkoentzako eremuan egon beharko dira banatuta, modu sistematizatuan, eta une oro erraz irakurtzea bermatzeko moduan egongo dira instalatuta eta diseinatuta.</i>
Adierazgailuak: karaktereak goi-erliebean eta braillean. 1 mm-ko gutxieneko altuera eta 1,5 mm-ko gehiengo altuera, 1 mm-ko gehiengo zabalera. Testuaren azpian, braillean egongo da inprimatuta testua, goi-erliebean.	<i>Euskarrri kopuru txikienean multzokatuko dira, eta espaloien kanpoko bandan jarriko dira, zintarriaren eta galtzaren arteko mugatik 0,40 m-ra.</i>
Ez dira pantailekin edo beirekin babestuta egongo. Modu uniformearen argiztatuko dira.	<i>Igarotzeko zabalera librekoa estutzen badute, fatxadari eratzitako jarri ahalko dira, 2,20 m-ko gutxieneko altueran.</i>
Interes orokorreko toki irisgarrietan, erraz aurki daitezkeen tokietan jarriko dira. Ez da informazio gehiegi egon behar espazio berean.	<i>Modu uniformearen jarriko dira luminariak, ilaran, norabide-gida gisa. Puntu interesgarriak nabarmenduko dira.</i>
Adierazgailuak gainazalei eratzitako: erraz iristekoak, 5 cm-ko gehiengo distantziara, 1, 50 m-ren eta 1,70 m-ren arteko altueran.	<i>Larrialdietako irteerak: seinaleztapen akustikoa eta bisuala duen sistema, larrialdietako sistema orokorrera konektatuta.</i>
Informazio nagusia jasotzen duten adierazgailuak. Informazio-gune hurbilekoenera bideratuko dituzte pertsonak, informazioa areagotu dezaten.	<i>Berehalako ingurunean jarritako semaforoetara konektatutako sistema edukiko dute larrialdietako ibilgailuek, eta automatikoki aktibatuko da ibilgailu bat ateratzen edo iristen denean. Semafoerok argi- eta soinu-seinalea igorriko dute.</i>

68/2000 DEKRETUA. EUSKO JAURLARITZA	SUA 9 OINARRIZKO BETEKIZUNA: IRISGARRITASUNA EKT
Errotulazio guztiek edukiko dituzte karaktereak goi-erliebean eta braille sisteman.	<i>Besoarekin eragin daitezkeen errotuluak, plafoiak eta kartelak. Braillea eta goi-erlieboko seinaleztapena erabiliko dira: braillea beheko aldean ezkerrealdian, errotuluaren ezkerreko eta behealdeko marjinatik 1 cm-ko distantziara gutxienez eta 3 cm-ko distantziara gehienez. Erraz ulertzeko moduko sinboloak eta piktogramak. Sinboloen altuera ez da 3 cm-tik beherakoa izango. 1 mm-ren eta 5 mm-ren arteko erliebea letretarako eta 2 mm-koa sinboloetarako.</i>
Planoak erliebean eta maketak: neurri handiko espazio publiko libreetan, atarteetan eta hainbat solairu dituzten eraikinetan jarriko dira. Sarbideko atetik hurbil. Gehien erabiltzen diren edo interesgarrienak diren espazioak, ibilbideak eta aretoak jasoko dituzte. Ez dira estalita egongo. Erliebean eginda egongo dira, irudiaren eta hondoaren arteko kontrastearekin. Soinudun planoak jartzea gomendatzen da. 0,90 m-ren eta 1,20 m-ren arteko altueran.	<i>Oinezko ibilbideak ez duenean eraikitako aldea mugatzen duen lerrorik fatxadan edo elementu horizontalik lurzoruaren mailan, norabidezko ukipen-zerrenda adierazgailua jarriko da zoladuran, 0,40 m-ko zabalera, oinezko zirkulazioaren noranzkoan, luzetara.</i>
Seinaleztapen-zerrendak: sakonuneak eta kota aldaketak adierazteko. Informazio eta ohar gisara. 1 m-ko zerrendak, oinezko ibilbidearen zabalera hartuz, joanaren noranzkoarekiko perpendikular. Irristatzen aurkakoa, bai lehor dagoenean, bai bustita dagoenean. Ez da gehiegi edo ezegoki erabili behar. Ehundura berezia zoladurari dagokionez.	<i>Arrapaletan eta eskaileretan, norabidezko ukipen-zerrenda adierazgarria jarriko da zoladuran, arrapalen edo eskaileraren bi muturretan eta oinezko zirkulazioarekiko zeharkako zentzuan. Arrapalaren edo eskaileraren zabalera bera, eta 1,20 m-ko hondo.</i>
Norabidezko zerrenda-gida: sarbidean hasiko da eta intereseko tokiraino jarraituko du (informazio-gunea, igogailuak, eskailerak eta abar). 1 m-ko zabalera. Elkarguneak daudenean, ehundura-kodea diseinatu behar da noranzkoa aldatzeko.	<i>Igogailuetan, norabidezko ukipen-zerrenda adierazgailua jarriko da zoladuran, igogailuko ateen aurrean, solairu guztietan eta oinezko zirkulazioarekiko zeharkako zentzuan. Sarbideko ateen zabalera bera izango du, eta 1,20 m-ko hondo.</i>
Orientazio-plakak: eskubandaren barruko ertzean jarriko dira. Horietan jasotako informazioa goi-erliebean eta braillean egon beharko da.	<i>0,80 m-ko norabidezko ukipen-zerrenda adierazgailua jarriko da zoladuran, eraikitako muga lurzoruaren mailan fisikoki gauzatzeko duen fatxadaren lerroaren eta oinezko pasabidearen hasieraren artean. Espalioan dabilen oinezko trafikoarekiko zeharkako zentzuan jarriko da aipatu zerrenda, eta galtzadaren beste aldean jarritako seinaleztapen-zerrendarekin lerrotatuta egongo da.</i>
Soinudun informazioa idatziz ere emango da.	<i>Bidegurutzeetan, galtzada hurbil dagoela ohartarazteko, 0,60 m-ko hondo duen zerrenda jarriko da pasabidean, botoidun ukipen-adierazgailua, pasabidea eta galtzada elkartzen diren lerroan zehar.</i>
Megafoniak begizta magnetikoa eduki behar du, eta anplifikadorea. Soinudun mezuak modu bisualean ere emango dira.	



Irisgarritasuna aztertutako ospitaleetan

k a p i t u l u a

III. kapitulua

Irisgarritasuna aztertutako ospitaleetan

1.

Sarrera

EAEko ospitaleek barne hartzen dituzten eraikinen azterketa egitea da kapitulu honen helburua. Osasun-eremuan irisgarritasun-katea eratzen duten etapa ezberdinei arreta emanaz egin da aurkezpen hau.

Bada, adierazi beharra daukagu honako hauek direla bisitatu ditugun esparruetan jorratu ditugun elementuak:

- Eraikinen hiri-ingurunean, ospitaletik hurbil dauden zonaldeak aztertu dira; bai kanpo-ibilbideak, bai ospitale barruko ibilbideak.
- Aparkalekuak batetik, ezinduentzat gordetako lekurik duten, zer-nolako neurriak dituzten, aparkalekuetatik zentroetarako ibilbideen egoera zein den eta abar egiaztatze aldera.
- Eraikinetarako eta itxarongeletarako sarbideak bigarrenik, horien baldintza teknikoak aztertzeko: aldapak, ateak, harrera-mahaien guneak, altzariak eta abar. Larrialdi-guneetarako eta Osatek zentroetarako sarbideak berariazko ataletan jorratuko dira.
- Kontsultak bestetik, ospitaleko unitate bakoitzeko kontsulten zein gela horiei atxikitako aldagelen eta komun irisgarritasuna aztertzeko. Era berean, proba gehigarrietarako kabinak aztertu dira.
- Baita eraikinetako gune komunetan mugikortasun murriztua duten pertsoneri gordetako komunak ere, beren kokalekua edota irisgarritasunerako baldintza teknikoak betetzen ote dituzten zehazteko xedez.

- Bestalde, logelak eta boxen eremuak, ezinduei gordetako logelarik dagoen eta, egotekotan, horien baldintza teknikoak zeintzuk diren jorratzeko: sarbideak eta logelaren barruko espazioa, altzarien banaketa, transferentzia-guneak, komunak eta abar.

- Era berean, kafetegien, areto nagusien, kaperen, eskolen, tanatorioen eta abarren irisgarritasuna aztertu dugu, gela horiek dituzten ospitaleetan.

Azkenik, eraikinen irisgarritasunerako baldintza teknikoen gainean egin dugun azterketaren emaitza kontuan harturik, egoki ikusi dugu ondorioetarako atal bat sartzea. Bertan, ospitale bakoitzean egin beharko liritekeen ekintzei buruzko oharrak jaso dira, mugikortasun murriztua duten pertsonak osasun-zerbitzuetara ondo iristea bermatzeko.

Ospitale bakoitzean deskribatzen diren egoera batzuk behar bezala argitze aldera, argazkiak erantsi dira.

2.

Arabako ospitaleak

2.1. San Onofre Zainketetarako Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Salbatierrabide kalean, oinezkoentzako bidean, proiektzio horizontalik gabeko markesina dago, arriskutsua ikusmen-eginatasuna duten pertsonentzat. Zuhaitzek ez daukate txorkorik.

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

Zebrabideetako pasabideak oinez hautemateko baldosak ez dauka behar besteko kontraste kromatikorik.

Salbatierrabide kaleko 28. zenbakiaren aurrean, oinezkoentzako bidean, kontraste kromatikoz seinaleztatu gabeko koska dago, estropezuak eta erorikoak eragin ditzakeena.

Ospitale-esparruaren kanpoaldean, bisitaren egunean obretan zegoen arren, azpimarratu beharra daukagu eraikineko sarrera nagusiaren kanpoaldeko seinaleztapena ezdeusa dela. Esparru zabala denez, ez dauka seinaleztatutako ibilbiderik ikusmen-egintzasuna duten pertsonentzat.



Fatxada nagusia.



Ukipenezko seinaleztapena zebrabidean, kontraste kromatiko egokirik gabe.



Markesina oinezkoentzako bidean. Ez dauka proiektzio horizontalik. Gainera, txorkorik gabeko zuhaitzak ikusi dira.



Ospitalearen barrualdeko esparrua.

Aparkatzea

Batan pasealekua

Kale honetan, ez dago urritasunen bat duten pertsonentzat gordetako aparkalekurik. Ezinduei gordetako aparkalekua jarri behar da sarrera nagusitik hurbil.



Aparkaleku-eremua Batan pasealekuan.

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrera nagusira sartzeko arrapalak ez dauka tarteko pausalekurik; 10 metrotik gorako arrapala da. Sarrerako harre-ra-mahaiak gune irisgarria dauka. Behin-behineko sarrera nagusia da, zentroan obretan ari dira-eta.



Sarrera nagusira iristeko arrapala.

Kontsultak

Behe-solairuko kontsulta-geletan ez dago behar besteko igarobide-zabalera librea duen aterik. Bigarren solairuko mediku-kontsultako mahaiak ez dauka hondo egokirik.



Egongela. Espazio egokia gurpildun aulkia erabiltzen duten pertsonen zirkulatzeko, sarrerako ateak igarobide-zabalera libre egokirik eduki ez arren.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Gordetako komunek, oro har, irisgarritasunerako ezaugarri egokiak dauzkate. Horietako batean ikusi da, ordea, komuna eta eskuak lehertzeko papera altuera ezegokian daudela, sarrerako atearen igarobide-zabalera librea nahikoa ez dela eta ez dagoela behar besteko espaziorik komunera sartzeko atearen aurreko gunean.

EZINDUEI GORDETAKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Atari nagusia
	Jantokiko sarrera
2. S	1. banatzailea
	2. banatzailea
P 2	3. banatzailea
	4. banatzailea

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK**Solairua** **Unitatea/Gunea**

0. S Atari nagusian dagoena egokitu



Ezinduei gordetako komuna. Alarma altuera ezegokian dago jarrita.



Ezinduei gordetako komuna. Konketako osagarriak altuegi daude.



Ezinduei gordetako komunerako sarbidea. Ezin daiteke birarik egin atearen aurrean. Zailtasunak sarreran.

Logelak eta boxak

Ospitaleak egokitutako logelak dauzka unitate, eremu edo solairu guztietan. Logelaren espazioa egokia da; alabaina, irisgarritasun-gabezia batzuk daude komunetan; hala nola: konketak ez dauka hondo egokirik, heldulekuak baxu daude, isplua eta konketako osagarriak altu daude eta abar.

Ospitaleratze-guneko itxarongelak eta egongelak gurgildun aulkia erabiltzen duten pertsonen gordetako espazioak dauzkate, baina ez daude ondo seinaleztatuta.

Mugitzeko garabi nahikoak ikusi dira.



Egokitutako logela. Gurgildun aulkian doazen pertsonen maniobra egiteko espazio egokia.



Egokitutako logelako komuna. Komuna behar bezala egokituta.



Egokitutako logelako komuna.

Beste gela batzuk**Kafetegia**

Jantokira sartzeko atea, pazienteentzako bakarrik denak, ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera libre. Atearen osteko espazioan bira egin daiteke.

Altzarien banaketa ez da egokia, eta, beraz, gurgildun aulkia erabiltzen duten pertsonak ezin daitezke mahai guztietara iritsi. Mahaien neurria egokia da.



Pazienteek bakarrik erabiltzeko jantokia. Altzariak modu ezegokian banatuta.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu beharko dira, eta ospitaleko sarrera nagusiko seinaleztapena hobetu.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekua jarri behar da sarrera nagusian.

Sarbideak eta itxarongelak

- Sarrera nagusiko arrapala egokitu behar da.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera librea ez duten ateak ordezkatu behar dira, eta altzari irisgarriak jarri.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Halaxe behar duten komunen irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, bai eta ezinduei gordetako komunak eraiki ere, "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitateetan edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.

Beste gela batzuk

- Jantokia egokitu behar da.

2.2. Lezako Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Autobus-geralekutik dagoen sarbidea zein ospitale-esparruko ibilbidea guztiz iristezinak dira. Autobus-geralekutik ospitaleko aparkalekurako bidean araudian ezarritako zabalera gabeko espaloiak, oinezkoentzako pasabiderik gabeko espaloiak eta irtenguneak zein landaredia dituen zoladura ikusi dira.

Ospitaleko kanpo-esparruak aparkalekua dauka. Hartxintzarrezko zoladura duenez aparkalekuak, aipatu aparkalekutik datorren hartxintzarrez josirik dago **sarrera nagusirako sarbidea**, eta erorikoak eragin diezazkieke horrek ospitaleko erabiltzaileei. Era berean, ibilbidea ez dago mugatuta, eta, ondorioz, furgonetek eta kamioiek traba egingen dute, ohikotasunez, sarrera horretan.

Oinezkoentzako ibilbidea autobus-geralekutik. Espaloiak ez dauka oinezkoentzako pasabiderik, ezta ezarritako zabalera ere.



Ospitaleko oinezkoentzako dagoen bidea. Ez dauka oinezkoentzako pasabiderik, ez eta ezarritako zabalera ere. Gainera, irtenguneak daude zoladuran.



Ospitaleko autobus-geralekurako oinezkoentzako bidean, irtenguneak daude zoladuran.



Sarrera nagusirako sarbidea. Hartxintzarra dago bidean, eta anbulantziak traba egiten du.



Zabalera ezegokia duen espaloia eta oinezkoentzako pasabiderik gabeko zebra-bidea.



Aparkatzea

Ospitaleko esparrua

- Ezinduei gordetako bi aparkaleku daude; ospitaleko sarrera nagusira arteko bidea errepidetik igarotzen da, zerbabiderik gabe.
- Aparkaleku nagusiko zoladura hartxintzarrezkoa da, erabat iristezina.
- Zoladura mota dela-eta, ez da ondo ikusten zenbat aparkaleku dauden guztira. Gutxienez, ezinduei gordetako beste aparkaleku bat jarri behar da, eta ospitaleko sarrera nagusira lekualdatu behar dira daudenak. Gainera, ezinduei gordetako beste aparkaleku bat jarri behar da eratzikitako eraikineko sarreran.



Ezinduei gordetako aparkalekuak. Bide iristezina sarrera nagusiraino. Seinaleztapen bertikala falta da.



Ezinduei gordetako aparkalekua. Ez dauka seinaleztapen bertikalik.



Iradokizun-postontzia gehiegizko altueran dago.



“Mojen eraikineko” espaloirako arrapala.



“Mojen eraikinerako” arrapalak %22ko aldapa. Barandarik gabe.

Sarbideak eta itxarongelak

Gehiegizko aldapa dauka **sarrera nagusirainoko** arrapalak. Estropezuak eragin ditzaketen lanpas finkatu gabeak daude, eta sarbideko postontzia gehiegizko altueran dago jarrita harreragunean. Sarrera nagusiko seinaleztapena ez da egokia.

“Mojen eraikinerako” sarrera erabat iristezina da. Arrapalak zabalera ezegokia dauka, eta aldapa gehiegizkoa da, %22koa gutxi gorabehera, eta ez dauka inolako heldulekurik.



Sarrera nagusira iristeko arrapala.

Kontsultak

Erradiologiako kontsultak ez dauka mugikortasun murriztua duten pertsonen gordetako komun eta aldagelarik. Eraikin nagusiko **behe-solairuko kontsultetako** ate guztiek daukate igarotzeko hutsune libre ezegokiak. Kontsulta horien barruko espazioa egokia da; hala ere, esku-oheen altuera finkoa da, ez aldagarria.

“Mojen eraikineko” kontsultetako ateek igarotzeko hutsune libre ezegokiak daukate, eta kontsultetara sartzeko korridoreek ez die bira egokia egiten uzten gurgildun aulkia erabiltzen dutenei.

Errehabilitazioa: Errehabilitazio-unitatera sartzeko ateek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia. Bai gimnasioko espazioa, bai tratamenduetarako espazioa zuzenak dira. Ekipamendu egokia dago mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil dezaten. Unitate honetan, ez dago aldagelarik.

*Erradiologiako
aldagela mota.
Iristezina.*



*Erradiologiako
esku-oheak.
Plataformaren
gutxieneko altuera
78,5 cm-koa da.
Iristezina.*



*Mugikortasun urriko
pertsonentzako
ekipamendu
berezia.*



*Mugikortasun urriko
pertsonentzako
ekipamendu
berezia.*



Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Aztertu diren ezinduen komunek irisgarritasun-gabeziak dauzkate; hala nola, komunak altuera ezegokian daude, alarmak gehiegizko altueran daude, heldulekuak falta dira, konketako osagarriak gehiegizko altueran daude, atek ez daukate kontraste kromatikorik.

ERAIKIN NAGUSIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Errehabilitazio-unitaterako sarrera.
1. S	Ospitaleratze-unitatea (urria)
2. S	Ospitaleratze-unitatea (urria)
3. S	Ospitaleratze-unitatea (urria)

"MOJEN ERAIKINEKO" EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Kanpo-kontsultak
1. S	Dagoena egokitu
2. S	Dagoena egokitu
3. S	Dagoena egokitu

"MOJEN ERAIKINEAN" EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Gune komuna

*Lagundutako
komuna, beheko
solairuan. Komun-
zuloa altuera
ezegokian.*



*Lagundutako
komunera saltzeko
atea, kontraste
kromatikorik gabe.*



*Lagundutako
komuna,
ospitaleratze-
gunean. Ez dauka
heldulekurik.*




Logelak eta boxak

Banakako logeletako komunek, irisgarritasunerako neurri batzuk dituzten arren, ez diete barnealdean bira egokia egiten uzten gurgildun aukia erabiltzen duten pertsonen. Oro har, logela bikoitzak irisgarriak dira, sarreran bira egiten uzten dute eta transferentziarako espazioa daukate lehenengo ohearen albo batean, baina barruko ohera iristeko pasabideak, kasu batzuetan, trenkada dauka. Horrek igartzeko espazioa murrizten du, bigarren ohera edo komunera iritsi ahal izatea eragotziz. Era berean, balkoien atean, koska bat

dago. Logela bikoitzetako komunek behar besteko espazioa daukate, baina irisgarritasun-gabezia batzuk hauteman dira; hala nola, konketen eta konketetako osagarrien altuera, alarma kiribildua eta abar.

Ospitaleratze-guneko itxarongelak eta egongelak ez daukate gurpildun aulkian dabilzan pertsonentzako espaziorik.

Mugitzeko garabi nahikoak ikusi dira.



Egokitutako logela.



Egokitutako logelako komuna. Alarma kiribildu helezina.



Egokitutako logela. Maila bat dago balkoira irteteko.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden bideak egokitzea gomendatzen da.
- Ospitaleko sarreretako seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Aparkamenduko zoladura ordezkatu behar da.
- Ospitalerako sarbideetako batean ezinduei gordetako aparkaleku bat jarri behar da, eta ospitaleko sarbideetatik hurbil daudenak antolatu.

Sarbideak eta itxarongelak

- Ospitaleko bi sarbideak egokitu beharko dira.
- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.

- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera libre egokia ez duten ateak ordezkatu behar dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohetako finkoen ordeiz.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.

2.3. Arabako Ospitale Psikiatrikoa

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Kanpoko seinaleztapena, ospitale-esparrurako sarrera adierazten duena, ez dago ikusgai, landarediak estaltzen du-eta. Ospitale-esparrurako sarreraren ondoan dagoen seinaleak ez dauka kontraste kromatikorik.

Araba kalean dagoen zebrabideak, trafikoaren noranzkoarekiko paraleloa denak, koska dauka sarbidean. Zebrabideetako ukipen-seinaleztapenak ez dauka kontraste kromatikorik.

Ospitale-esparruaren barrualdeko zebrabideak ez dauka ukipenezko seinaleztapen-zerrendak.



Akastun zebrabidea oinezkoentzako pasabidean.



Ospitale-esparrura sartzeko kalea.



Gizarte langilearen bulegoa.

Aparkatzea

Ospitale-esparruaren barrualdea

Ezinduei gordetako aparkalekuek ez daukate seinaleztapen bertikalik.



Aparkalekuen eremua. Ez da bereizten non dagoen ezinduei gordetako aparkalekua.



Terapia-eremuek ez daukate igarobide libre egokia, ezta berariazko gunerik ere gurpildun aukia erabiltzen dutenentzat.

Sarbideak eta itzarongelak

Sarrera nagusirako arrapalak gehiegizko malda dauka, eta albo batean bakarrik dauka altuera bikoitzeko heldulekua. Harrera-mahaiak ez dauka gune irisgarririk, eta lanpasa ez da finkoa, estropezu egitea eraginez.



Gehiegizko aldapa dauka sarrera nagusirainoko arrapalak.

Kontsultak

Behe-solairuko **terapia-aretoetako** ateek ez daukate igarobide-hutsune libre egokia. **Gizarte langilearen bulegoaren** barnealdeko espazioak ez dauka behar besteko espaziorik bira egitea ahalbidetzeko gurpildun aukien erabiltzaileei.

Bigarren solairuko bulegoetako ateek ez daukate igarobide-hutsune libre egokia, eta mediku-kontsulten ateek eta barruko espazioa ez dira nahikoa.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunek irisgarritasun-gabeziak daukate. Kafetegiko komunak behar besteko lekua dauka kabinaren barrualdean, baina osagarriak ez dira egokiak: komunean jarritako heldulekuak ez dira zuzenak, komun-zuloa altuera ezegokian dago jarrita, deskargarako mekanismoa helezina da eta abar. Hori guztia, eraberritu berri den komunean. Ospitaleratze-eremuetako guztientzako komunek irisgarritasunerako arazo gehiago daukate, eta aztertutako kasu gehienetan ez dago komunean transferentzia egiteko tokirik. Horretaz gain, komuneko osagarrietan gabeziak daude.

EZINDUENTZAT GORDETA DAUDEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
	Kafetegia
0. S	Ospitaleratze-guneko 1. unitatea (urria)
	Ospitaleratze-guneko 2. unitatea (urria)
	Ospitaleratze-guneko 3. unitatea (urria)
1. S	Ospitaleratze-guneko 4. unitatea (urria)
	Ospitaleratze-guneko 5. unitatea (urria)
	Ospitaleratze-guneko 6. unitatea (urria)
2. S	Ospitaleratze-guneko 7. unitatea (urria)
	Bulegoen eremua

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
	Sarrera nagusia
0. S	Ospitaleratze-guneko 2. unitateko jantokia egokitu
	Ospitaleratze-guneko 2. unitatea (urria)
1. S	Daudenak egokitu
2. S	Ospitaleratze-guneko 7. unitatekoa egokitu



Kafetegian ezinduei gordetako komuna. Heldulekuak eta deskargarako mekanismoak ezegokiak dira.



Lagundutako komuna. Transferentzia egiteko toki murriztua, komun-zuloa beheregi...



Kafetegian ezinduei gordetako komuna. Konketako osagarriak altuegi daude.



Lagundutako komuna. Ez dauka leku egokirik, ezta heldulekurik ere.



Lehenengo solairuan gordetako komuna. Albo batean ez dauka heldulekurik, eta ez dago transferentzia egiteko lekurik.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Eraikinaren behe-solairuan dago.

Kafetegirako sarbidea guztiz irisgarria da; bai eraikinaren kanpoaldetik, bai barrualdetik.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik.

Altzariak behar bezala daude antolatuta, eta mahaiek altuera egokia daukate; hala ere, bermatzeko hanka bakarra dute, eta horrek ez du ahalbidetzen gurgildun aulkien erabiltzaileak hurbiltzea. Gainera, egoera arriskutsuak eragin diezazkieke mugikortasun murriztua duten pertsoneri, horietan bermatzean. Edariak barran zerbitzatzen dira.

Kafetegiak ezinduei gordetako komuna dauka hurbil, baina gabezia batzuk dauzka.

Pazienteentzako **jantoki eksklusiboetarako** ibilbideetako ateen ez daukate araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Oro har, altzarien banaketa egokia da, bai eta mahaien neurriak ere.

Makina saltzaileak

Telefono helezin bat aztertu da.

Kapera/Areto nagusia

Kasu honetan, erabilera anitzeko espazioa da; besteren artean, kapera edo areto nagusi gisa erabiltzen da.

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Barrualdeko espazioak bira ematea ahalbidetzen die gurgildun aulkietan doazen pertsoneri.

Altzarien banaketa zuzena da, baina ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako eremurik. Dena dela, aulkia finkoak ez direnez, erraz mugitu daitezke.

Logelak eta boxak

Unitate batzuetan, logela eta komun zabalak dauzka ospitaleak, baina ez daude egokituta; izan ere, ez daukate inolako laguntza teknikorik eta komun-ontzien ezaugarriak ez dira aproposak. Lagundutako komunitetan bakarrik daude laguntza teknikoak, baina komun-ontzien ezaugarriak ez dira egokiak.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Leku egokia logelaren barrualdean.



Logelako komuna. Ez da irisgarria.



Pazienteek bakarrik erabiltzeko jantokia.



Pazienteek bakarrik erabiltzeko jantokia.



Kapera/Areto nagusia

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalerainoko kanpo-ibilbideak egokitu beharko dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduentzat gordeta dauden aparkalekuak egokitu behar dira.

Sarbideak eta itxarongelak

- Ospitaleko sarrera nagusiko arrapala egokitu behar da.
- Dauden harrera-mahaiak egokitu beharko dira, eta harrera-mahai egokituak jarri hala behar duten espazioetan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten ateak ordezkatu beharko dira.
- Altzariak egokitu behar dira.
- Kontsultetako altzariak birbanatu behar dira, bira egitea oztopatzen dute-eta.

- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten ateak aldatu behar dira

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako logeletan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Kafetegiko mostradorea egokitu beharko da.
- Pazienteen jantokiak egokitu behar dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

2.4. Quirón Vitoria Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Esperantza kalean, oinezkoentzako bidean daude jarrita kafetegiko terrazak, ibilbidea oztopatuz. Gune horretan dauden bankuek ez daukate ez bizkarraiderik, ez beso-euskarririk. Arana kaleak zenbait oztopo dauzka bidean.

Aparkatzea

Ez da aparkalekurik aztertu ospitalean. Bi kaletatik sar zaitzke ospitalera. Batetik, Esperantza kalea dugu, inguruan aparkalekurik ez duen oinezkoentzako kalea. Bestetik, Arana kalea dugu. Trafikoa dauka, baina ez du aparkaleku orokorrik hurbil. Aztertzeraz iritsi gabe, Arana kaletik ospitalera sartzeko atetik ez oso urrun zama-lanetarako eremua hauteman da. Ospitaletik hurbilen dagoen aparkaleku-eremuan ezinduei gordetako lekua utzi behar da. Beste alde batetik, Artium museoko aparkalekua erabil daiteke, baina ez dugu aztertu.



Arana kaleko sarreratik hurbil aparkalekuak, ezinduei gordetako aparkalekurik gabe.

Sarbideak eta itxarongelak

Esperantza kaleko sarbidean deitzeko tinbrea gehiegizko altueran jarrita dago. Beiraz hornitutako ateen ez daukate seinaleztapen-bandarik. Arrapalarik gabeko eskailerak daude harrera-gunera iristeko. Hala ere, eskailerak saihesteko plataforma jarri da, translazio zehharra egiteko. Gurpildun aulkien erabiltzaileek edo mugikortasun murriztua duten pertsonak ezin dezakete modu autonomoan erabili plataforma jasogailu hori, ez baitago toki aproposan jarrita, eta ez baitauka maneiatzeko argibiderik. Gainera, bertatik ezin daiteke harrera-gunearekin harremanetan jarri. Adierazi beharra dago bestelako aukerarik jartzea posible ez denean bakarrik baimentzen direla mota horretako plataformak. Hemen, ordea, aztertu beharreko aukerak daude.

Arana kaleko atean ez dauka 40 cm-ko babes-zokolorik. Gainera, atearen altuera osoan dago jarrita eskulekua, eta ez du libre uzten atearen zokaloa, gurpildun aulkiarekin katigatzea saihesteko.



Esperantza kaleko sarrera. Plataforma jasogailu ezegokia.



Arana kaleko atea. Ez dauka babes-zokolorik. Ate osoan dago jarrita eskulekua, katigatzea eraginez.

Kontsultak

Erradiologiako kontsultak komuna daukate barrualdean; bat bera ere ez da irisgarria. Bestetik, ez dago mugikortasun murriztua dutenei gordetako aldagelarik, eta kontsulta horietara sartzeko ateen ez daukate igarobide-zabalera libre egokirik.

Mamograforako sarbidea guztiz iristezina da. 113 cm-ko zabalera duen korridore estu batetik sartzen da bertara; ez da nahikoa gurpildun aulkian dauden pertsonak bira egin ahal izan dezaten. Gainera, itxarongela jarri da bira egin ahalko litzatekeen aurreko espazioan, eta estuguneak sortu dira erabilitako altzariekin.

Arana kaleko kontsultetako itxarongela txikian, eremu horretako kontsultetarako sarbidea eragozten duen estugunea dago (70 cm-koa). Arana kaleko kontsultaren batean, ezin daiteke bulegoen gunetik azterketa-gunera igaro, estugunea


sortzen baita trenkada bereizlearen eta esku-ohene zonaldearen artean.

Esperantza kaleko kontsultetako ateen igarobide-zabalera libre ezegokia daukate, ez dute ezinduei gordetako komunik, eta gurpildun aulkian daudenek ezin dezakete bira egin kontsulta batzuen barrualdean. Bestetik, 60 cm arteko estuguneak aurkitu dira bulegoen gunetik azterketa-gunerako sarbidean, iristezin bihurtuz azken hori.

Esperantza kalean, **ospitalearen kanpoaldeko behe-solairuko kontsultak** guztiz iristezinak dira, maila baitaukate ate nagusian.

Ebakuntza-gelaurreko aldagelak ez dira irisgarriak.

Larrialdiak: Larrialdietako kontsultara sartzeko atea orri bi-koitzekoa da, eta irekitzen den lehenengo atea ez dauka zabalera egokia. Barrualdeko espazioa zuzena da, baina mahaiak ez dauka hondo egokia bertara hurbildu ahal izateko.



Aldagela. Erradiologia. Iristezina.



Komuna. Erradiologia. Iristezina.



Arana kaleko kontsultak. Zutabeak estugunea sortzen du esku-ohera hurbiltzeko orduan.



Komuna. Esperantza kaleko behe-solairuko kontsultak. Iristezina.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Aztertu diren gune komunetan egiaztatu ahal izan da ateen ez daukatela igarobide-zabalera libre egokia, aztertu den komun batzuetako barrualdeak ez diela bira egiten uzten gurpildun aulkian dabiltzanei, atear komunaren barrualderantz irekitzen direla eta abar.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Erradiologia-unitatea (urria)
0. S	Kanpo-kontsulten itxarongela (Esperantza kalea) Arana kaleko sarrera nagusia
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago guztiontzako komunik
3. S	Ez dago guztiontzako komunik
4. S	Ez dago guztiontzako komunik

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez da beharrezkoa
0. S	Ez da beharrezkoa
1. S	Ebakuntza-geletako itxarongela
2. S	Ez da beharrezkoa
3. S	Ez da beharrezkoa
4. S	Ez da beharrezkoa



Erradiologia-eremuan ezinduei gordetako komuna. Heldulekua albo batean bakarrik.



Kontsulten eremuan ezinduei gordetako komuna, Esperantza kalean. Heldulekua albo batean bakarrik.

Logelak eta boxak

Oro har, logelen neurriak egokiak dira, eta bira egin daitezke horien barrualdean. Transferentzia egiteko leku nahikoa dago ohearen albo batean, bai eta gurpildun aulkia logela barruan edukitzeko lekua ere. Alabaina, logela batek ere ez dauka egokitutako komunik. Ateen neurriak, barruko azalera, dutxaontziak, konketak eta abar iristezinak dira logeletako komunetan. Dutxaontzi bakarra ikusi da zero kotan, baina ez dauka transferentzia egiteko tokirik, ezta heldulekurik ere.

Kasu honetan, ospitaleratze-guneko solairu guztietara iristen den igogailua nabarmendu daiteke. Igogailu horrek ez dauka irisgarri izateko gutxieneko neurriak: igogailura sartzeko atea ez da automatikoa, botoiak altuegi jarrita daude eta abar. Ospitalera egindako bisitan jakinarazi digute gurpildun aulkien erabiltzaileak beste leku batean kokatutako igogailuan igotzen direla logeletara, ospitaleko langileek lagunduta, autonomoak izateko aukerarik gabe.

Garabi bakarra dago ospitale guztirako.



Logelako komuna. Komun-zuloaren albo batean bakarrik dauka heldulekua. Dutxa ez dago lurraren arrasean, eta ez dauka neurri egokiak.




Dutxaontzia ez dago lurraren arrasean. Ezin daitezke bira eman, eta ez dago transferentzia egiteko tokirik.

Beste gela batzuk

Makina saltzaileak

Makinetan txanponak sartzekoa eta dialak altuera egokian daude; diru-paperarekin eta kreditu-txartelekin ordaintzeko gailuak, ordea, altuera ezegokian daude.



Makina saltzailea.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitaleko sarrera nagusiko seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekua jarri behar da Arana kaleko sarrera nagusitik hurbil.

Sarbideak eta itxarongelak

- Mekanismo egokiago batekin ordezkatu behar da eskailerak saihesteko plataforma, translazio zehar egitekoa, Esperantza kaleko sarreran.
- Arana kaleko sarrera egokitu behar da.
- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera libre egokia ez duten atek ordezkatu behar dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordezkari.
- Mamografia-unitaterako sarbidea egokitu behar da.
- Arana kaletik hurbil dagoen eremuko kanpo-kontsultak egokitu behar dira.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako logeletan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Igogailuetako bat egokitu behar da, eta, hala badagokio, ordezkatu.

2.5. Santiago Apóstol Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Done Jakue hiribideak, Herrandarren kaleak eta Olagibel kaleak isolatutako oztopoak dauzkate oinezkoentzako bidean. Olagibeleko anbulatorio berriaren eremuan jarritako altzariak ez daude luzetara lerrokatuta, eta arazoa da hori ikusmen-urritasuna duten pertsonentzat. Bankuek ez daukate ez bizkarralderik, ez beso-euskarririk. Olagibel kaleko zoladurak narriok dauzka, eta, estropezu egitea eragiteaz gain, arazoak ekartzen dizkie horrek gurgildun aulkian duten pertsonen.

Langileen aparkamendura sartzeko errepidetik egiten da larrialdi-gunerainoko oinezkoentzako bidea, eta igarobide-zabalera libre zein malda ezegokiak dauzka.

Zebrabideetako seinaleztapen-zerrendek ez daukate kontraste kromatiko egokia.

Ospitaleko sarreren kanpoko seinaleztapena ez da egokia.



Done Jakue hiribidea. Oztopoak oinezkoentzako bidean.



Larrialdietarako sarbidea. Malda eta zabalera ezegokiak.



Seinaleztapen-zerrendak kontraste kromatikorik gabe eta gaizki egindako pasabidea.

Aparkatzea

■ Bake kalea

Zama-lanetarako zonaldea dago ospitaletik hurbil, baina ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik. Beraz, gordetako aparkalekua jarri behar da sarrera nagusitik hurbil, ibilbide irisgarriarekin.

■ Herrandarren kalea

- Kale honetan ezinduei gordetako aparkalekuek ez daukate araudian ezarritako luzera.
- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira larrialdietako sarbidetik hurbil.

■ Olagibel kalea

- Ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik.
- Ezinduei gordetako aparkaleku bat jarri behar da Olagibel kaleko sarreratik hurbil, ibilbide irisgarriarekin.

■ Done Jakue hiribidea

- Gordetako aparkaleku bat dago, baina ez dauka oinezkoentzako pasabiderik hurbil. Era berean, ez dauka seinaleztapen horizontalik.



Herrandarren kalean ezinduei gordetako aparkalekua dago.



Olagibel kaleko aparkalekuak ez dauka ezinduei gordetako aparkalekurik.

Sarbidetak eta itxarongelak

Sarrera nagusira iristeko arrapalak ez du betetzen araudian ezarritakoa, gehiegizko malda baitauka.

Sarreraren kanpoaldean, braillez idatzitako seinalea dago poste batean, baina ez da baliagarria ez badira norabidezko zerrenda-gidak jartzen, ehundura eta kolore bereziz, oinezkoentzako bidetik posteraino.

Sarrerako ate beiratzatuek ez daukate egoki jarritako seinaleztapen-bandak, eta sarrerako lanpasa ez da egokia, ez baita finkoa eta labainkorra baita; estropezuak eta erorikoak eragin ditzake. Harrera-mahaiaren zonaldea, egokituta egon arren, ez da egokia.

Kanpo-kontsultetara iristeko arrapala bat dago sarrerako atea baino lehen, baina ez dago pausalekurik atearen aurrean, araudian ezartzen den bezala, bira ematea galaraziz. Ateetako seinaleztapen-bandak ez dira egokiak, lanpasak ez dira finkoak eta, gainera, labainkorak dira. Harrera-mahaiaren zonalde irisgarria oztopatu egiten da gurgildun aulkia jarri gero. Txanda ematen duen makina ez da irisgarria.

Eguneko ospitaleko atean dagoen behin-behineko arrapala ez da egokia, igarobide-zabalera libreza ez baita nahi-

koa; gainera, ez dauka eskubandarik. Ate horrek ez dauka babes-zokalarik, eta eskulekuak atearen luzera osoa hartzen du, katigatzea eraginez gurgildun aulkien erabiltzaileei.

Mamografieta eta Osatekera sartzeko atea astuna da, eta eskulekuak atearen luzera osoa hartzen du. Lanpasa ez da finkoa, eta norabidezko zerrenda-gidak ez dira egokiak; izan ere, ez daukate kolore-legendarik, ez eta araudian ezarritako dagoen zabalera eta ehundura ere, eta oztopoak dituen ibilbidetik igarotzen da.

Erradiologiara iristeko, pasabide libre ezegokia dago, **eskulekuaren eta zutabearen artean** estugunea baitago. Atariaren barrualdean, gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin, eta lanpasak ez dira finkoak. Unitate honetan, oinez erabiltzen ez den bidetik ibili behar dira gurgildun aulkien erabiltzaileak, erradiologiako kontsultetara iristeko korridorea estua da-eta.

Larrialdiak

Oinezkoentzako atea ez da irisgarria, igarobide-zabalera libre ezegokia da, gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin atearen aurrean, eta anbulantzientzat ezarritako sarbidetik sartu behar dira horiek.

Harreran finkoak ez diren alfonbratxoak daude, eta harrera-mahaiak ez dauka zonalde irisgarririk. Itxarongelak ez daukate ezinduei gordetako espaziorik. Proiekziozko gabeko hegialak daude oinezkoentzako ibilbidean; arazoak eragin diezazkieke horrek ikuspen-ezintasuna duten pertsonen.

Ospitale barruan, itxarongela batean ere ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik; ez eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.

Gehiegizko aldapa dauka sarrera nagusirainoko arrapalak.



Seinaleztapena ikusmen-ezintasuna duten pertsonentzat. Norabidezko zerrenda-gidarik gabe.



Alfonbratxoak sarrera nagusian.





Kanpo-kontsulten sarrera. Arrapala dago atearen aurrean, baina ez dauka pausalekurik.



Eguneko ospitaleko sarrerako arrapala. Zabalera ezegokia, ez dauka eskubandarik.



Larrialdietarako sarbidea. Arrapalaren zabalera eta malda ezegokiak dira.

Kontsultak

Behe-solairuko **erradiologiako kontsultek** ez daukate aldagela eta komun irisgarriak, eta, aurretik esan dugun moduan, oinez doazenek erabili behar ez duten ibilbide batetik sartu behar dira gurpildun aukien erabiltzaileak erradiologiako kontsultetara.

Proba oftalmologikoetarako kontsultek, kanpo-kontsultetan daudenean, ez daukate behar besteko maniobra-espazioa kontsulten barrualdean.

Sotoko **mamografien kontsultek** ez daukate aldagela irisgarriak, eta, gainera, zabalera eta malda ezegokiak dituen arrapala dago kontsultetarako sarbidean.

Medikuntza nuklearreko kontsultek ez daukate ezinduei gordetako aldagelarik, eta geletara sartzeko korridoreak ez dauka ezarritako zabalera. Atearen aurrean bira ematea eragozten die horrek gurpildun aukien erabiltzaileei.

Hemodialisi-unitatea gainezka dago, esku-ohenean alboetan ez dago transferentzia egiteko behar besteko lekurik eta aldagela ez da irisgarria.

Larrialdiak

Larrialdietako kontsultetara sartzeko orri bikoitzeko ate batek ere ez dauka igarobide-zabalera libre egokia (ez itxarongelatik sartzean, ez harrera-gunetik sartzean). Kontsulta sailkatuta sartzeko ateak ez dauka igarobide-zabalera libre egokia. Larrialdietako kontsultetako mahaiek ez daukate hondo egokia gurpildun aukien erabiltzaileak hurbildu ahal izan daitezen.

Osatek

Komun eta aldagela irisgarriak dauzka.

Errehabilitazioa

Errehabilitazio-gunea egokia da. Tratamenduetarako kabinetan, transferentzia egin daiteke esku-oherean albo batetik. Esku-ohenean altuera elektrikoki alda daiteke. Ez dago ekipamendu espezifikorik mugikortasun urriko pertsonentzat. Ego-kitutako aldagela bat dago, baina zenbait gabezia dauzka.



Aldagela. Erradiologia. Iristezina.



Mamografiatar iristeko arrapala. Sarrerako arrapalak ez dauzka malda eta zabalera egokiak.



Hemodialisietako aldagela. Ez irisgarria, ez egokitua.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunek, aztertutakoek, irisgarritasun-gabeziak dauzkat: gehienetan, komun-zulo ezegokia jarri da, heldulekuak albo bakarrean daude, komunaren barrualdeko azalerak ez die bira egoki egiten uzten gurpildun aukien erabiltzaileei, ez dago transferentziarako espaziorik eta komuneko osagarriak gaizki jarrita daude.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
	Osateko itxarongela
-1. S	Medikuntza nuklearreko korridorea
	Mamografiatar itxarongela
	Eguneko ospitaleko itxarongela

EZINDUENTZAT GORDE TAKO KOMUNAK

0. S	Kanpo-kontsulten sarrera nagusia
	Larrialdi-unitateko itxarongela
1. S	Ez dago guztiontzako komunik
2. S	Errehabilitazio-unitateko korridorea (eskasa)
3. S	Ez dago
4. S	Ez dago
5. S	A zonaldea
6. S	Ez dago
7. S	A zonaldea

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua Unitatea/Gunea

-1. S	Erdiguneko korridorea
	Oftalmologiako sarrera
0. S	Erradiologia-unitatea
	Larrialdietako itxarongela
1. S	Ez da beharrezkoa
2. S	A zonaldea
	A zonaldea
3. S	B zonaldea
	Hemodialisien unitatea
4. S	A zonaldea
	B zonaldea
5. S	B zonaldea
6. S	A zonaldea
	B zonaldea
7. S	B zonaldea

Ezinduei gordetako komuna. Heldulekua albo batean bakarrik.



Ezinduei gordetako komuna. Konkretako osagarriak ezegoki jarrita.



Ezinduei gordetako komuna. Komun-zulo eta konketa ezegokiak. Komun-zulora iristea oztopatzen du heldulekuak.



Logelak eta boxak

Logela irisgarri bateko komuna aztertu da, eta zenbait hutsune antzeman ahal izan ditugu: helduleku bakarra, konkretako osagarriak altu eta abar.

Logeletako komun batzuetako dutxaontziak zero kotan daude, baina ez dira irisgarriak; izan ere, manpara finkoak jarri dira, ez dago transferentzia egiteko lekurik, ez eta gurpildun aulkien erabiltzaileek bira egiteko lekurik ere. Bestetik, osagarriak gaizki jarrita egoteaz gain, ate batzuk barrurantz irekitzen dira, eta dutxa batzuek ez dute heldulekurik.

Logelek, oro har, transferentzia egiteko espazioa daukate ohearen albo batean, baina ez dago biratzeko tokirik, ez eta gurpildun aulkia logela barruan edukitzeko lekurik ere.

Ospitaleko boxen zonaldean, transferentzia egiteko espazioa dago ohearen albo batean. Zonalde horietako komunak ez daude egokituta. Azpimarratu beharra dago ZIUrako sarbideko atearen zabalera librea 57 cm-koa dela, erabat iristezina.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Logelako komuna. Manparak bira egitea galarazten du, baita dutxara transferentzia egitea ere.



Logelako komuna. Heldulekuak ez daude bi alboetan, eta alarma gaizki jarrita dago.



Logelako komuna. Manparak galarazi egiten die bira ematea gurpildun aulkietan doazen pertsoneri. Atea kanporantz irekitzen da.



Beste gela batzuk

Kafetegia

Eratxikitako eraikinaren behe-solairuan dago.

Sartzeko bi ate dauzka; batek koska dauka, bestea irisgarria da.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik.

Altzariak egoki antolatuta daude, eta mahaiek ezaugarri egokiak dauzkate. Edariak barran zerbitzatzen dira.

Kafetegiak ezinduei gordetako komuna dauka, baina ga-bezia batzuk dauzka.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak ez dira irisgarriak.

Kapera/Areto nagusia

Kasu honetan, kaperak eta areto nagusiak espazio bera partekatzen dute.

Erantsitako arrapala alternatiborik gabeko eskaileretatik sartzen da bertara; kanpoan arrapala jarriz bakarrik sar daiteke.

Barrualdeko azalera bira egitea ahalbidetzen du. Ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako espaziorik, baina horretarako lekua dago.

Oholtzak koska dauka, arrapalarik gabe.



Kapera/Areto nagusia.



Makina saltzaile iristezina.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sARBIDEEN seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira ospitaleko sarreretatik hurbil.

SARBIDEAK eta itxarongelak

- Arrapalak egokitu behar dira ospitaleko sarreretan.

- Norabidezko zerrenda-gidak jarri behar dira sARRERA nagusian, braillez idatzita dagoen seinaleraino.
- SARBIDE guztietan lanpas finakoak jarri behar dira.
- HARRERA-mahai egokituak jarri behar dira, eta daudenak egokitu, hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera libre egokia ez duten ateak ordezkatu behar dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Kontsultetako altzariak birbanatu behar dira, bira egitea oztopatzen badute.
- Hemodialisien unitatea zabaldu behar da.
- Mamografia-unitaterako sARBIDEA egokitu behar da.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten ateak aldatu behar dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordeztu.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar dira, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki behar dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako logeletan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar dira, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.
- Boxen unitateetako komunak egokitu behar dira, egokitu ez badaude.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu behar da.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Kapera/areto nagusia egokitu behar da.

2.6. Txagorritxu Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Jose Atxotegi, Euskal Herria eta Pablo Neruda kaleek isolatutako oztopoak dauzkate oinezkoentzako bidean.

Ospitale-esparruaren barrualdean, ospitaleko sarrerak lotzen dituzten ibilbideak erabat iristezinak dira. Jose Atxotegi kale-tik ospitale-esparrura sartzeko dagoen lehenengo zebrabideak, sarrera nagusirako sarbidea ematen duenak, ez dauka oinezkoentzako pasabiderik; hau da, errepidetik ibili behar dira gurpildun aulkien erabiltzaileak.

Era berean, ospitale-esparruaren kanpoaldetik larrialdietara sartzeko igarobidea guztiz iristezina da.

Ospitalearen barrualdeko esparruaren ibilbidea, eraikin nagusitik kanpo-kontsulten eraikineraino doana, guztiz iristezi-na da: espaloiek ez daukate ezarrita dagoen zabalera eta zebrabideek oinezkoentzako pasabide ezegokiak dauzkate (koska daukate). Ospitale-esparrutik kanpoko ibilbideak, Pablo Neruda kalekoak, araudiak ezartzen duen gutxieneko zabalera betetzen ez duen espaloia dauka, eta koska dauka ibilbidean, "Bartzelona" motako oinezkoen pasabidea ez baitute estali estropezu egitea saihesteko elementu batekin. Oztopo horien guztien ondorioz, bidegorritik mugitu behar dira gurpildun aulkian dauden erabiltzaileak.



Oztopoak Euskal Herria kalean.



Zebrabidea. Sarrera nagusirako sarbideak ez dauka oinezkoentzako pasabiderik.



Larrialdietarako sarbideak ez dauka oinezkoentzako pasabiderik, ezta espaloiegi ere.

Kanpo-kontsulten eraikinerako sarbidean zebrabidea dago. Koska dauka pasabidean. Ez daude ukimenezko seinaleztapen-zerrendak.



Kanpo-kontsulten eraikina

Ospitale-esparrutik kanpo dago kanpo-kontsulten eraikina, Francisco Leandro de Viana kalean. Kaleak, oro har, neurri egokiak dauzka, eta oinezkoentzako pasabideak behar bezala daude eraikita eta seinaleztatuta. Aurrerago aipatu dugun moduan, ospitale-esparruaren barrualdeko oinezkoentzako pasabideak dauka arazoa, eraikin nagusitik kanpo-kontsulten eraikinerako bideak, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, bizikleten aparkalekua jarri da fatxada nagusiaren ertzean, Francisco Leandro de Viana kalean. Bizikleten aparkalekuen kokapena oztopo da ikusmen-urritasuna duten pertsonentzat, eraikitako erroa erabiltzen baitute orientatzeko, bastoiaren laguntzarekin.



Espaloiek neurri egokiak daukate, eta pasabideak egoki eginda daude.



Oztopoak. Bizikleten aparkalekua oinezkoentzako bidean.

Aparkatzea

■ Sarrera nagusia

Ospitaleko sarrera nagusian ezinduei gordetako aparkalekuen zoladuraren margoa ez dago egoera onean, eta, beraz, aparkaleku horien erabiltzaileek ez dute ondo aparkatzen.

■ Aparkalekua

- Errepidea da aparkalekutik ospitaleko sarreretaraino oztoporik gabe joateko dagoen ibilbide bakarra.
- Aparkalekuan ez da ezinduei gordetako lekuri aurkitu, eta 13 beharko lirateke, aparkaleku kopuruari begiratu gero.

■ Osatek-kafetegia

Eremu honetan, ez dago ezinduei gordetako lekurik. Gutxienez, aparkaleku bat jarri behar da kafetegira eta Osatekera sartzeko ateetatik hurbil.

■ Errehabilitazioa

Ezinduei gordetako aparkalekuetatik espaloirainoko ibilbidea ez da irisgarria, errepidetik igarotzen baita.



Sarrera nagusian ezinduei gordetako lekuak.



Aparkalekuan ez dago ezinduen aparkalekurik.

Sarbideak eta itxarongelak

Arrapalatik **sarrera nagusira** sartzeko ate automatikoak ez dauka igarobide-zabalera libre egokia, eta ate beiratzatuen seinaleztapen-bandak ez dira egokiak. Behe-solairuko igogailuen atari nagusitik sarbidea ematen duten ate guztiek ez daukate igarobide-zabalera libre nahikoa.

Errehabilitazio-eremura sartzeko, igarobide-zabalera libre ezegokia duen atea dago, ate automatikoaren seinaleztapen-bandak ez dira zuzenak, eta irtenguneak dituen lanpas finkoa nahiz finkatu gabeko lanpasa daude bidean.

Erradioterapia-unitatera sartzeko, bi ate daude; horietako batek beira dauka eta duela gutxi egin zuten, baina seinaleztapen-bandak ez daude egoki jarrita, eta finkatu gabeko lanpasak daude bidean. Bestea, berriz, aspaldi egin zuten, ez dauka igarobide-zabalera libre egokia, eta irtenguneak dauzkan lanpas finkoak daude bidean.

Larrialdiak

Oinezkoen sarrera estuegia da, ateen ez baitaukate igarobide-zabalera libre egokia. Era berean, gurgildun aukien erabiltzaileek ezin dezakete bira eman ez atea baino lehen, ez atearen ostean, eta anbulantzien bidea erabili behar dute larrialdietara sartzeko. Harreran finkoak ez diren lanpasak daude, eta harrera-mahaiek ez daukate zonalde irisgarriak.

Itxarongelek ez daukate ezinduei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun urriko pertsonentzako eserleku egokirik ere. Harrera-gunearen aurreko sarbideak ez dauka argiztapen egokirik, eta ate beiratzatuek ez daukate seinaleztapen-bandak zuzenak.



Errehabilitaziora sartzeko atea.



Larrialdietara sartzeko atea.



Errehabilitaziora sartzeko atea.



Errehabilitaziora sartzeko atea.

Kanpo-kontsulten eraikina

Bi ate nagusi mota dauzka eraikinak. Alde batetik, seinaleztapen-bandak egoki jarrita dituen ate birakaria dago, eta sistema birakaria moteltzeko botoia dauka, mugikortasun urritasuna dutenek erabil dezaten. Beste atea eraisgarria da; pultsadorearen bidez irekitzen da. Gurgildun aukien erabiltzaileek dute berori erabiltzeko lehentasuna. Atea irekitzeko pultsadorea oso urrun dago.

Ate birakariak ez daude euskal araudian jasota. Edonola ere, gure ustez, proposatu den irtenbidea ez da egokia, mugikortasun urritasuna duten pertsonen zailtasuna baitute berori erabiltzeko orduan, eta sarrera ezberdinak egoteak ez diolako laguntzen pertsona guztiak berdintasun baldintzetan sartzeko asmoari. Irisgarritasun unibertsalaren printzipioaren xedea da gero eta inklusiboagoa izan behar duen gizartearen gizarteratzea desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboa. Beraz, herritarren zati bat baztertzeko edo kanporatzen duen oztopo oro gaingiduz joan behar da.

Harrera-mahai egokituak daude eraikineko unitate edo eremu guztietan, baina ez arretarako postu guzti-guztietan. Ondorioz, jendeari zerbitzu emateko postu guztietan jarri behar dira harrera-mahai egokituak.

Hitzorduak kudeatzeko makinak, sarrera nagusikoak, ez daude egokituta. Ukimenezko pantailak 130 cm-ko altueran daude, baimendutako gehienekoa 120 cm-koa denean.

Ospitaleko itxarongeletan egiaztatu genuen gurpildun aulkien erabiltzaileentzat eta haurtxoen orgentzat gordetako zonaldeak aurrekusi direla, laguntzailearentzako eserlekua-rekin gordetako lekuaren ondoan. Zentzu horretan, leku horiek identifikatzeko seinaleztapena aurkitu dugu. Hala ere, eserlekuak daude zonalde guztietan.

Proba osagarriak egiteko eremuko itxarongelan, 1. sotoan, aulkiz beteta dago azalera, gurpildun aulkien erabiltzaileei sartzeara eragotziz.

Larrialdietako atea irekitzeko sistema egokia da gurpildun aulkien erabiltzaileek ate horiek erabil ditzaten.



Larrialdietako atea irekitzeko mekanismoa egokia da.

Kontsultak

Eraikin nagusiko -2. sotoko **erradioterapia-kontsultek** ez daukate aldagela egokiturik. Mediku-kontsultetara iristeko korridoreak ez dauka igarobide-zabalera libre egokia; beraz, ezin daiteke bira egin kontsulta batzuetara sartzeko.

Unitate honetan, ez dago ez garabirik, ez baskula egokirik, gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.

Eraikin nagusiko behe-solairuko erradiologiako kontsultek ez daukate aldagela egokiturik.

Eraikin nagusiko **hemodialisien unitatea** guztiz iristezina da: harrera-mahaiak ez dauka zonalde egokiturik eta pazienteen aldagelak ere ez dira irisgarriak. Tratamenduen eremura sartzeko atea zuzenak dira, baina estugunea dago tratamenduen zonalderako sarbidean. Kontsultara sartzeko atea ez dauka igarobide-zabalera libre egokia. Unitateko oheak finkoak dira, altuera aldatzeko aukerarik gabekoak.

Adierazi beharra dago gurpildun aulkien erabiltzaileek gehien erabiltzen duten unitateetako bat dela hau, eta, beraz, premiazkoa dela erabateko irisgarritasuna lortzeko behar diren neurriak hartzea.

Proba osagarrien unitateko kontsulta guztiek daukate koina, baina bat bera ere ez da irisgarria. Arnas-aparatuko proben kabina guztiz iristezina da.

Loaren unitate funtzionaleko kontsultek ez daukate manio-brarako leku nahikorik barruan.

Larrialdiak

Erradiologiako kontsultak ez dauka aldagela egokiturik; gainera, bertara sartzeko ate batek ere ez dauka igarobide-zabalera libre egokia.

Beste kontsulta batzuetan ere, barrualdeko espazioa ez da egokia: aztertu diren esku-oheek altuera finkoa daukate eta mahaiek ez daukate behar besteko hondorik horietara hurbildu ahal izateko.

Otorrinoko larrialdiak artatzen diren kontsultan, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete transferentzia egin azterketa-aulkira.


Osatek

Kokapena da Txagorritxu ospitaleko erresonantzia magnetikoko unitateak duen arazo nagusia; izan ere, eraikin nagusiaren kanpoaldean dago, eta oinezkoentzako kanpoko ibilbidetik lekualdatu behar dira ohean dauden pazienteak. Gainera, seinaleztapena ez da egokia.

Harrera-mahaiaren zonaldea irisgarria da, baina harrera-gunean ezin daiteke beharrezko bira egin. Itxarongelak ez



Ate birakaria.



Ate eraisgarria. Pultsadorea urrun.



INSarekin gordetako eremua eserlekuz okupatuta.



Proba osagarrietarako itxarongela aulkiz josita.

dauka ezinduei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun urriko pertsonentzako eserleku egokirik ere.

Aldagela eta komun egokitua ditu. Aldagela barruan bira egin daiteke, baina esekitokiak altuegi jarrita daude, eta ez dago araudian ezarritako banku egokirik; komunak ez dauka komun-zulo egokia, ispilua eta eskuak lehertzeko papera altuegi daude jarrita eta konketak oinarria dauka.

Errehabilitazioa

Errehabilitazio-gimnasioak espazio egokia dauka; tratamendurako eremuetan alboko transferentzia egin daiteke, esku-ohearen albo batetik, eta esku-oheen altuera elektrikoki alda daiteke.

Igerilekuak dutxak dituen arren, bat bera ere ez da irisgarria. Mugikortasun murriztua duten pertsonen eskaintzen zaien garabiak ez ditu betetzen segurtasunerako gutxieneko betekizunak.

Aldagela berbera da gimnasiaorako eta igerilekurako. Aldagela irisgarria da, baina gabezia asko dauzka.



Aldagela erradiologian.



Komuna mamografiaren kontsultan. Iristezina.



Komuna eta aldagela hemodialisietan. Iristezina.



Aldagela hemodialisietan. Aulkiz gainezka. Banku egokirik gabe.



Erradioterapia-kontsulten korridorea. Iristezina altzariengatik.



Aldagela erradiologian. Banku iristezina.

Kanpo-kontsulten eraikina

Oro har, kontsultaren barruan, sarbidean, gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin. **Erradiologiako kontsultek** egokitutako aldagela daukate, baina horren ezaugarriak ez dira egokiak; izan ere, atea barrurantz irekitzen dira eta gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin. Gainera, esekitokiak altuegi daude.

Beste alde batetik, **ekografiatarako kontsultek** egokitutako aldagela daukate. Aurreko kasuan bezalaxe, ez daukate ezaugarri egokiak, atea barrurantz irekitzen baitira. Ekografiatarako kontsulten komunak irisgarriak dira, gabeziaren bat duten arren; hala nola, eskuak lehertzeko papera eta xaboia altuegi jarrita daude, eta konketan ez dago hondo librerik.

Proba osagarrien eremuko kontsultak oso txikiak dira; beraz, gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin horien barrualdean.

Kabinetan egiten diren probak edo tratamenduak, soinu-probak edo PUVA terapiak adibidez, kabina iristezinetan egiten dira. Soinu-proben kasuan, kabinek koska daukate sarbidean, eta barruko espazioak ez die bira egiten uzten gurgildun aulkien erabiltzaileei. Bestetik, PUVA terapiarako kabinetek ez daukate laguntza teknikorik modu autonomoan zutik egon ezin daitezkeen pertsonen tratamendua jaso ahal izan dezaten.



Aldagela egokitua. Atea barrurantz irekitzen da, espazio ezegokia bira egiteko.

Aldagela egokitua. Atea barrurantz irekitzen da, espazio ezegokia bira egiteko.



Egokitutako komuna ekografien kontsultan. Konketa eta ispilu ezegokiak. Esku-xaboa altuegi dago.



Soinu-probetarako kabinak. Koska sarbidean. Barruko espazioa ez da nahikoa.



PUVA kabina. Iristezina.



Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunek, aztertu direnek, irisgarritasun-gabeziak dauzkate. Gehienetan jarritako komun-zuloa ez da egokia. Larrialdietako komun batean jarrita dauden heldulekuek lesioak eragin diezazkieke erabiltzaileei, komunean jartzeko unean. Era berean, osagarriak altuegi jarrita daude, barrualdeko espazio txikiak daude eta hurbildu ahal izateko egokia den hondorik gabeko konketak daude. Bestetik, deskargarako mekanismo batzuk altuegi jarrita daude.

ERAIKIN NAGUSIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-2. S	Erradiologia-unitaterako sarrera Larrialdietako unitateko itxarongela (eskasa)
-1. S	Errehabilitazio-unitateko korridorea Itxarongela zabaldutako eraikinean Kafetegia Erradiologia-unitatea eratxikitako eraikinean
0. S	Sarrera nagusia Eguneko ospitaleko sarrera
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago
3. S	Ez dago
4. S	Ez dago
5. S	Ez dago
6. S	Ez dago
7. S	Ez dago

OSATEK ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago

KANPO-KONTSULTEN ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Igogailuen gune nagusia
0. S	Igogailuen gune nagusia
1. S	Igogailuen gune nagusia
2. S	Igogailuen gune nagusia
3. S	Igogailuen gune nagusia
4. S	Igogailuen gune nagusia
5. S	Igogailuen gune nagusia
6. S	Igogailuen gune nagusia
7. S	Igogailuen gune nagusia
8. S	Igogailuen gune nagusia

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-2. S	Ez da beharrezkoa Larrialdi-unitateko itxarongela
-1. S	Larrialdi-unitateko zaintzarako boxak Igogailuen gune nagusia Erradiologia-unitatea
0. S	Igogailuen gune nagusia
1. S	Igogailuen gune nagusia
2. S	Igogailuen gune nagusia
3. S	Igogailuen gune nagusia
4. S	Igogailuen gune nagusia
5. S	Igogailuen gune nagusia
6. S	Igogailuen gune nagusia
7. S	Igogailuen gune nagusia

OSATEK ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Onarpen-eremua

KANPO-KONTSULTEN ERAIKINETAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Ez da zertan ezinduei gordetako komunik jarri



Larrialdietan ezinduei gordetako komuna. Komun-zulo eta helduleku ezegokiak.



Eskuak lehortzeko papera eta ispilua ez daude ondo jarrita.



Larrialdietan ezinduei gordetako komuna. Komun-zulo eta helduleku ezegokiak.



Komun egokitua. Transferentzia egiteko tokia dago bi aldeetan.



Ezinduei gordetako komuna. Komun-zulo eta fluxometro ezegokiak.



Komun egokitua. Alarmaren eskulekua ezegokia da.

Kanpo-kontsulten eraikina

Oro har, eraikinean ezinduei gordetako komunen ezaugarriak egokiak direla esan dezakegun arren, arazoak dauzkate batzuek; besteak beste: ispiluek ez daukate makurgunerik, konketek ez daukate hondo libre egokirik, eskuak lehortzeko papera altuegi jarrita dago, argiztapena automatikoa da eta, azkenik, alarmak ez dauka eskulekurik.

Pediatria-unitatean, haurtxoak aldatzeko tokia duen komun pediatrikoa dago. Komunen gunean, komun-zulo txikiak daude, bai eta haurtxoak aldatzeko tokia ere. Haurtxoak aldatzeko tokian, bira egin dezakete gurgildun aulkien erabiltzaileek, eta aldatzailea altuera egokian dago; hala ere, egokiagoa litzateke bertara sartzeko atea kanporantz irekiko balitz eta konketak oinarririk edukiko ez balu. Era berean, azalera handiagoa egon beharko litzateke komun pediatrikoan, gurgildun aulkia erabiltzen duen senide batek aldatu ahal izan dezan haurtxoa.



Komun pediatrikoa. Aldatzailea altuera egokian dago jarrita.



Komun pediatrikoa. Konketak oinarrira dauka.



Komun egokitua. Komun-zuloak egoki jarrita daude.



Komun pediatrikoa. Toki txikiegia gurgildun aulkian dabilen senide batek haurtxoa alda dezan.

Logelak eta boxak

Ospitaleak ez dauka logela egokiturik. Logelan transferentzia egiteko tokia dago ohearen albo batean, bai eta logelaren sarreran bira egiteko lekua ere, eta gurpildun aulkia logela barruan edukitzeko tokia; komunek, ordea, ez daukate inolako egokitzapenik. Ospitaleratze-guneko korridore nagusian, logelen kanpoaldean, dutxa eta konketa egokitu dituen komuna jarri da, baina zenbait gabezia ikusi ditugu. Ideia egokia da, baina ez da unitate guztietan jarri; gainera, komun honek ez dauka komun-zulorik, eta, bisita egin genuenean, arropa zuria gordetzeko erabiltzen zen.

Oro har, **boxen eremuek** ohearen albo batean dute transferentzia egiteko tokia, baita egokitutako komuna ere.

Ospitaleratze-guneko itxarongelak eta egongelak ez daukate ezinduei gordetako tokirik. Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo ospitaleko eremu guztietarako adina.

Ospitaleratze-guneko logelen komuna. Barra finkoa komun-zuloan, transferentzia egiteko igarobiderik gabe. Dutxa iristezina.



Ospitaleratze-guneko logela.



Konketa irisgarria duen dutxa ospitaleratze-guneko zonalde komunean. Biltegi erabilera.



Larrialdietako boxa. Transferentzia egiteko leku egokia ohearen albo batean.



Beste gela batzuk

Kafetegia

Eraikin nagusiko behe-solairuan dago.

Kafetegiak bi sarrera ditu; kanpotik sartzeko atea ez dauka araudian ezarrita dagoen igarobide-zabalera libre egokia, eta babes-zokaloa eta seinaleztapen-bandak ezegokiak dira, edo ez daude.

Autozerbitzu motakoak dira kafetegia eta jatetxea. Gure ustez, kudeaketa-eredu hori ez da egokia, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezaketelako erabili modu autonomoan.

Altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek altuera egokia daukate; hala ere, bermatzeko hanka bakarra dute, eta horrek ez du ahalbidetzen gurpildun aulkien erabiltzaileak hurbiltzea. Gainera, egoera arriskutsuak eragin diezazkieke mugikortasun murriztua duten pertsonen horietan bermatzean.

Kafetegiak ezinduei gordetako komuna dauka hurbil, baina gabezia batzuk dauzka.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak ez dira irisgarriak.

Areto nagusia

Ateak araudian ezarrita dagoen zabalera libre dauka.

Barrualdeko espazioak bira ematea ahalbidetzen die gurpildun aulkietan doazen pertsonen.

Altzarien antolaketa ez da zuzena. Era berean, ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako espaziorik, horretarako lekua egon arren.


Ezinduei gordetako komunak daude hurbil, baina gabezia batzuk daukate.

Oholtzarako igoeran koska bat dago, eta ez dago arrapala alternatiborik.

Kafetegia. Autozerbitzu motako zerbitzua.



Makina saltzaile iristezina.



ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira; bai ospitalearen kanpoaldean, bai barrualdean.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Dauden aparkalekuak eta ibilbideak egokitu behar dira, ospitaleko sarreraraino.
- Ezinduentzako 13 aparkaleku gorde behar dira, sarreretatik ahalik eta hurbilen. Osatek eremuan, ezinduei gordetako aparkaleku bat jarri behar da.

Sarbideak eta itxarongelak

- Ospitaleko solairu guztietako atari nagusiko ateen zabaleira librea egokitu behar da.
- Araudian ezarritako zabalera libre ez duten ate nagusi guztiak egokitu behar dira.
- Larrialdietarako sarrera egokitu behar da.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri behar dira, eta daudenak egokitu, hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera libre egokia ez duten ateak ordezkatu behar dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Kontsultetako altzariak birbanatu behar dira, bira egitea ahalbidetzeko.
- Hemodialisien unitatea egokitu behar da.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.
- Kanpo-kontsulten eraikineko aldagela egokituak egokitu behar dira.
- Kanpo-kontsulten eraikineko sarrera nagusiaren sarbidea hobetu behar da. Sarrera nagusiko ate birakaria kentzea, aldatzea edo ordezkatzeta proposatzen da.
- Proba osagarriak egiteko unitatea egokitu behar da kanpo-kontsulten eraikineko -1. Solairuan.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten ateak aldatu behar dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar dira, halaxe behar duten kasuetan.

- Ezinduen komunak eraiki behar dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu behar da.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Ezinduei gordetako zonalde bat jarri behar da areto nagusian.

2.7. Vithas San José Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleak hainbat oztopo dauka oinezkoentzako bidean, eremu horretako bankuek ez daukate beso-euskarririk, zuhaitzek ez daukate txorkorik, espaloia txikia da eta zebrabideetako ukimenezko seinalez-tapen-zerrendek ez daukate kontraste kromatikorik.



Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea. Bidean hainbat oztopo.



Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea. Seinalez-tapen-zerrendak kontraste kromatikorik gabe.

Aparkatzea

- Espaloitik ezin daiteke iritsi ezinduei gordetako aparkalekura; ibilgailuak sartzeko pasabideetatik iritsi behar da horietara.
- Ezinduei gordetako aparkalekuek ez daukate seinaleztapen bertikalik.

Aparkatzea. Gordetako aparkalekuak seinaleztapen bertikalik gabe.



Aparkalekurako sarbidea. Ez dauka oinezkoentzako pasabide egokirik.



Sarbideak eta itxarongelak

Harrera-gunerako sarbidean, irtenguneak daude oinezkoentzako bidean, eta erorikoak sor daitezke lanpasaren egoera txarra dela-eta. Sarrera nagusiko kristalezko atearak gaizki jarritako seinaleztapen-bandak dauzka.

Kaletik **behe-solairurako sarbidea** iristezina da; arrapala duen arren, malda handia dauka, zabalera ezegokia dauka eta ez dauka heldulekurik. Gainera, seinaleztapen-banda ez dago behar bezala jarrita.

Itxarongela gehienetan, ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.

Lanpasa egoera txarrean dago (estropazu egitea eragin dezaketen irtenguneak sortzen ditu) sarrera nagusirako sarbidean.



Behe solairura sartzeko arrapala. Estua, iristezina.



Kontsultak

Erradiologiako kontsultek ez daukate ezinduei gordetako aldagela eta komunik.

Kutxako eta PEAZeko bulegoetako mahaiak oso eskasak dira, 49 cm-ko espazio librea baitaukate behealdean (iristezi-
nak dira gurpildun aulkien erabiltzaileentzat). Gainera, bulegoetara sartzeko atearak ez daukate igarobide-zabalera libre egokia, ez eta babes-zokalarik ere.

Bosgarren solairuko **ugalkortasun-kontsulta** iristezina da; isolatutako koska bat dauka (araudian ez da onartzen) kontsultaren barrualdean. Azterketa-gunerako sarbideak estugunea dauka ibilbidean, eta gela txiki-txiki batean dago azterketa egiteko esku-ohea, transferentzia egiteko lekurik gabe, iristezin eginez hori.

Bosgarren solairuko **erauzketa-gela** ere iristezina da; maila bat dauka gehiegizko malda duen arrapa alternatiboa duen sarbidean.

Ospitaleko kanpo-kontsultetako atearak igarobide-zabalera libre ezegokia daukate, 69-76 cm artekoa (estuak dira). Azterketa-geletan, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin barrualdean.

Eremuak bereizteko atearak ez daukate igarobide-zabalera libre egokia.

Larrialdiak

Larrialdietako kontsultetako atearak igarobide-zabalera libre eta barrualdeko espazio egokiak dauzkate, baina altzariak ez dira egokiak; izan ere, altuera finkodun esku-oheak eta gurpildun aulkiarekin hurbiltzeko behar den hondo librea ez duten mahaiak jartzen dira.

Errehabilitazioa

Gimnasio- eta tratamendu-guneko espazioa egokia da; transferentzia egiteko lekua dago esku-ohearen albo batean, eta aztertu diren esku-ohe gehienek altuera aldagarria daukate, mekanismo elektriko baten bidez.

Igerilekuaren eremuen dutxa irisgarria dago, baina sarreran ezin daiteke bira zuzena egin, eta bertara sartzeko atearak ez dauka igarobide-zabalera libre egokia. Eremu berean, oinetarako eta eskuetarako tratamendu-ekipamendua dago, iristezina. Igerilekuko esku-oheak finkoak dira, ez daukate altuera erregulagarria eta gehiegizko altueran daude jarrita.

Aldagela berbera da gimnasiarako eta igerilekurako; egokitu-tako aldagela da, baina hutsune batzuk dauzka.

Aldagela. Erradiologia. Iristezina.





Komuna. Erradiologia. Iristezina.



Ugalkortasun-konsulta. Koska dago kontsultan. Ez dauka kontrasterik.



Ugalkortasun-konsulta. Kontsultako espazioa oso murritza. Ere mu iristezina.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunek, aztertu direnek, irisgarritasun-gabezia larriak dauzkate. Gehienetan, komun-zuloa ez da egoki jarri; heldulekuak albo batean bakarrik daude; komunaren barrualdeko azalerak ez die bira egiten uzten gurgildun aulkian dauden pertsoneri; komuneko osagarriak gaizki jarrita daude eta abar.

EZINDUENTZAT GORDETA DAUDEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Sarrera nagusia
0. S	Sarrera nagusia Larrialdi-unitateko korridorea (eskasa)
1. S	Ebakuntza-geletako itxarongela
2. S	Ez dago guztiontzako komunik
3. S	Ez dago guztiontzako komunik
4. S	Errehabilitazioko itxarongela Traumatologia-unitateko itxarongela (eskasa)
5. S	Ez dago

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Kanpo-kontsultak
0. S	Kanpo-kontsultak
1. S	Ez da beharrezkoa
2. S	Ez da beharrezkoa
3. S	Ez da beharrezkoa

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

4. S	Traumatologia-unitateko korridorea
5. S	Igogailuen gune nagusia



Lehenengo solairuan gordetako komuna. Komun-zuloa ezegokia.



Lehenengo solairuan gordetako komuna. Konketa eta konketa osagarriak ezegokiak.



Traumatologia-unitatean ezinduei gordetako komuna. Hondo egokirik gabeko konketa.

Logelak eta boxak

Oro har, aztertu diren logelen neurriak egokiak dira: gurgildun aulkien erabiltzaileek bira eman dezakete eta transferentzia egiteko lekua daukate ohearen albo batean, bai eta gurgildun aulkia logela barruan edukitzeko espazioa ere. Alabaina, logela batek ere ez dauka egokitutako komunik. Ateen neurriak, barruko azalera, dutxaontziak, konketa eta abar iristezinak dira.

Amatasun-unitateko logeletako komunetako dutxek gutxieneko maila daukate, zero kotara, baina gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egokia egin.

Ezin izan dira logela mota guztiak aztertu.

Ospitaleratze-guneko solairu guztietara iristen diren igogailuen egoera nabarmendu daiteke. Aipatu igogailuek ez daukate gutxieneko neurriak; txikiegiak dira gurgildun aukien erabiltzaileentzat. Bestetik, igogailuko atek ez dauka igarobide-zabalera libre egokia gurgildun aukiak igaro daitezen, botoiak altuegi jarrita daude eta abar. Igogailu espezi-fiko baten bidez iristen dira gurgildun aulkien erabiltzaileak logeletara, eta ospitaleko langileek lagundu behar die, erabili ahal izan dezaten.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

*Logela.
Transferentzia
egiteko leku egokia.*



*Komuna. Logela.
Iristezina.*



*Komuna.
Erditzeko gela.
Gurpildun aulkien
erabiltzaileek ezin
dezakete bira
egin eta ez dauka
laguntza teknikorik.*



*2. Sko logelako
komuna.
Dutxaontziak maila
txikia dauka, ez
dago bira egiteko
espaziorik, ez dago
eskubandarik...*



Beste gela batzuk

Kafetegia

Eraikinaren behe-solairuan dago.

Kafetegirako sarbidea guztiz iristezina da, bai eraikinaren kanpoaldetik, bai barrualdetik, gurpildun aulkian dauden pertsonentzat.

Erabiltzaileentzako edo pazienteentzako igogailuak oso txikiak dira. Gehiegizko malda duen arrapala dago kanpoaldetik sartzeko sarbidean.

Kafetegiko mostradoreak gune baxuagoa dauka, baina ez du araudian ezarritakoa betetzen.

Altzariak behar bezala daude antolatuta, eta mahaiek altuera egokia daukate; hala ere, bermatzeko hanka bakarra dute, eta horrek ez du ahalbidetzen gurpildun aulkien erabiltzaileak hurbiltzea. Gainera, egoera arriskutsuak eragin diezazkieke mugikortasun murriztua duten pertsonen horietan bermatzean.

Edariak barran zerbitzatzen dira.

Kafetegiak ezinduei gordetako komuna dauka hurbil, baina gabezia batzuk dauzka.

Areto nagusia

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Barrualdeko espazioak bira ematea ahalbidetzen die gurpildun aulkietan doazen pertsonen.

Altzariak ez daude egoki banatuta; gainera, ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako zonalderik.

Komunak hurbil dauzka, baina ez daude egokituta.

Kafetegia.



*Areto nagusia.
Igarobide ezegokia.*



ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitaleko sarrera nagusiko seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuetatik sarrera nagusirako bidea egokitu behar da.
- Dauden aparkalekuak egokitu behar dira.

Sarbideak eta itxarongelak

- Sarrera nagusiko irtenguneak kendu behar dira.
- Seinaleztapen-bandak behar bezala jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.

- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera libre egokia ez duten atek ordezkatu behar dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordez.
- Ugalkortasun-kontsulta egokitu behar da.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako logeletan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu behar da.
- Areto nagusia egokitu behar da.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Ilogailuetako bat egokitu behar da, eta, hala badagokio, ordezkatu.

3.

Bizkaiko ospitaleak

3.1. Indautxu Klinika

Klinikako zuzendaritzak ez du irisgarritasun-azterketa egiteko baimena eman; beraz, hiri-ingurunea bakarrik aztertu ahal izan dugu.

Osasun-eraikinaren kanpoaldean, eskailera-tarte bat ikusi da sarrera nagusian, arrapala alternatiborik gabe eta beste sarrera irisgarririk gabe.

Hiri-ingurunea

Gordoniz kalean, oztopoak ikusi dira oinezkoentzako bidean. Uhagon kaleko espaloiak ez dauka araudian ezartzen den igarobide-zabalera librea.

Zebrabideetako seinaleztapen-zerrendak ez dira egoki jarri.



Sarrera nagusia.
Koska sarbidean.

Aparkatzea

Sarrera nagusitik eta oinezkoen pasabidetik hurbil, ezinduei gordetako aparkaleku bat dago; hala ere, ez dago seinalerik adierazten duenik mugikortasun murriztua ez duten pertsonen ezin dezaketela bertan aparkatu.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitaleko sarrera nagusiko seinaleztapena eta sarrera hobetu behar dira.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuaren seinaleztapena hobetu behar da.

3.2. Andra Mari Zuria Klinika

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Mendiri Maisuaren kaleko espaloiek zabalera ezegokia daukate, oso estua. Gainera, farolak daude, espaloiak are gehiago estutzea eraginez. Bestetik, proiektio horizontalik gabeko mutiloak daude.

Larrialdietako sarreratik hurbil dauden aparkaleku egokituak komunikatzen dituen zebrabideak ez dauka oinezkoentzako pasabiderik.

Andra Mari Zuriaren kalerako sarbidea ematen duen plaza loreontziz josita dago, eta, beraz, gurpildun aulkien erabiltzaileak ezin daitezke loreontzi batzuen artean igaro. Gainera, txorrorik gabeko paperontziak eta zuhaitzak aurkitu dira oinezkoentzako bidean.

Ospitalearen seinaleztapena ez da egokia inguruan.

Espaloi estua; are estuagoa farolengatik.



Pasabiderik gabeko zebraidea.



Loreontziak oinezkoentzako bidean. Espazio txikia horietako batzuen artean.



Sarrera nagusian ezinduei gordetako lekua. Ez dauzka neurri egokiak, ezta seinaleztapen bertikala ere.



Gordetako aparkalekuak, klinikarainoko ibilbide irisgarririk gabe.



Aparkatzea

■ Sarrera nagusia

Ezinduei gordetako aparkalekuak ez dauzate araudian ezarritako neurriak. Gainera, ez daude behar bezala seinaleztatuta, ez daude eraikinen sarrera nagusietatik hurbil, eta espaloirainoko ibilbidea ez da irisgarria. Era berean, mugikortasun murriztua duten pertsonen gordetako

aparkalekuak jarri behar da sarrera nagusian, ezaugarri egokiak dituen, langileen aparkalekuen eremuan.

■ Larrialdiak

Ezinduei gordetako aparkalekuaren kokapena egokia da, baina larrialdietaraino iristeko ibilbidea ez da irisgarria.

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrerako ateek, kristalezkoak izan arren, ez dauzate seinaleztapen-bandak, eta finkatu gabeko lanpasak ikusi dira sarreran, estropezuak eragin ditzaketenak. Txanda ematen duen makina ez da irisgarria.

Ospitaleko **itxarongelak** ez daukate ezinduei gordetako tokirik gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.

Larrialdiak

Larrialdietara **sartzeko ateeak** ez dauzka seinaleztapen-bandak, estropezuak eragin ditzaketen finkatu gabeko lanpasak daude eta kanpoko tinbrea gehiegizko altueran dago.

Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.

Txandak ematen dituen makina iristezina da.



Larrialdietan, tinbrea altuegi dago.



Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserleku egokirik ere.



Kontsultak

Erradiologian, ezinduei gordetako aldagela dago, ezaugarri egokiak dituena, baina eskubanda perimetrala jartzea falta da. Gure ustez, aztertu ahal izan ditugun EAeko ospitaleen artean, hoberen egokitutako aldagela da.

Eskanerraren zonaldean, ordea, ez dago ez aldagela, ez komun egokiturik. Eskanerraren zonaldeko harrera-gunean, gainazal horizontalean dago tinbrea; beraz, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dute ikusi, altuegi baitago. Era berean, ikusmen-urritasuna duten pertsonak ezin dezakete jakin tinbrea dagoenik, ez baitaukate horretarako bitartekorik.

Ateak: Bigarren solairuan, senideak informatzeko kontsultako sarrerako atea izan ezik, gainerakoek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia.

Aztertutako kontsulta guztien **barrualdeko espazioa** ez da nahikoa gurpildun aulkien erabiltzaileek bira egin ahal izan dezaten. Bestetik, mediku-kontsulten harrera-gunean, **harrera-mahaia ez dauka** zonalde irisgarri eta egokiturik.

Larrialdia: Larrialdietako boxak bakarrik aztertu dira (logelei buruzko atalean arituko gara horietaz).

Errehabilitazioa: Errehabilitazio-gunea egokia da, eta transferentzia egin daiteke gurpildun aulkitik, esku-oherean albo batean. Oro har, esku-ohereak altuak eta finkoak dira, altuera aldatzeko aukerarik gabekoak. Errehabilitazio-unitatera sartzeko atea beirazkoa da, eta ez dauka babes-zokolorik. Ez dago ekipamendu espezifikorik mugikortasun urriko pertsonentzat. Ez dago aldagelarik.



Aldagela mota erresonantzia magnetikoan.



Tinbrea gainazal horizontal iristezinean.



Ospitaleetan ikusi dugun aldagelarik egokiena da, eskubanda perimetrala falta badu ere.



Hoberen egokitutako aldagela dela uste dugu. Bira egiteko leku egokia, eta bi kontsultetarako sarbidea.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Aztertu diren komun erreserbatu guztiek daukate irisgarritasun-gabeziak; kasu batzuetan, ez dago transferentzia egiteko lekurik, ateen zabalera ez da egokia, ate batzuk barrurantz irekitzen dira eta abar.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-2. S	Erdiguneko korridorea
-1. S	Ez dago guztiontzako komunik
0. S	Kontsulten eremua
1. S	Kontsulten eremua
2. S	Ez dago guztiontzako komunik
3. S	Ez dago guztiontzako komunik
4. S	Ez dago guztiontzako komunik

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-2. S	Erresonantzia magnetikoen itxarongela Larrialdietarako sarbidea
2. S	Errehabilitaziorako sarbidea



Komun egokitua. Transferentzia egiteko tokirik gabe, hondo egokirik gabeko konketa eta ispilua altuera handian.

Logelak eta boxak

Ospitaleak ez dauka logela egokiturik. Hala ere, adieraz dezakegu logelen barrualdeko espazioa egokia dela, transferentzia egiteko toki baitago ohearen bi aldeetan, eta gurpildun aulkia logelan bertan edukitzeko aukera baitago. Alabaina, logeletako komun gehienak txikiak dira, aztertu diren dutxaontzi guztiek daukate maila eta ez daukate heldulekurik, ez eta laguntza teknikorik ere komun gehienetan.

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

Eguneko ospitaleko boxen eremuak behar besteko tokia dauka transferentzia egiteko, baina bertara sartzeko ateek ez daukate zabalera egokia, eta komuna ez da irisgarria.

Larrialdietako boxek behar besteko tokia daukate gurpildun aulkitik transferentzia egiteko, ohearen albo batean. Alabaina, irisgarritzat jotzen den eta unitatean dagoen komunak irisgarritasun-gabezia asko dauzka.

Ospitaleratze-guneko egongelek edo itxarongelek behar besteko espazioa daukate gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Komuna. Ospitaleratze-guneko logela. Ez dauka egokitzapenik. Dutxa oso txikia.



Banakako logela. Gurpildun aulkian doazen pertsonentzako espazio egokia.



Eguneko ospitaleko komuna. Egokitu gabeko komuna. Iristezina.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera libre.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik.

Altzarien banaketa egokia da gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.

Kafetegiko edariak mostradorean zerbitzatzen dira.

Kafetegiak jantokia dauka eratzkitako espazioan, jatetxe gisa funtzionatzen duena. Bertara sartzeko ateek ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera libre.

Altzarien banaketa egokia da gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten, eta menua mahaietan zerbitzatzen da.

Kafetegian zein jantokian erabiltzen diren mahaiak ez dira egokiak; izan ere, bermatzeko hanka bakarra daukate erdigunean, eta ezegonkortasuna eragin dezake horrek mahaietan, gurpildun aulkien erabiltzaileak hurbiltzea galarazteaz batera.

Kafetegiak ez dauka ezinduei gordetako komunik, eta hurbilena behe-solairuko kanpo-kontsulten korridorean dago. Era berean, komunak gabezia batzuk dauzka.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak iristezinak dira.



Jantokia. Altzarien banaketa egokia, altzari desegokiak.



Txandak ematen dituen makina iristezina da.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalearen kanpoaldeko ibilbide guztiak egokitu behar dira.
- Kanpoko ibilbideetako oztopoak kendu behar dira.
- Sarrera ezberdinen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Sarrera nagusitik hurbil, ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira; ahal bada, ospitaleko langileentzako aparkalekuan.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.

- Larrialdietako ateko tinbrea altuera egokian jarri behar da.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten atek ordezkatu beharko dira.
- Kontsultetako altzariak berrantolatu behar dira, horietan ezin bada bira egin.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-ohetako finkoak jarri behar dira esku-ohetako finkoen ordez.
- Eskanerraren unitateko harrera-guneko tinbrea toki egokian jarri behar da.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Kafetegia eta jantokia egokitu beharko dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

3.3. Basurtuko Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Kanpo-kontsultak: Kanpo-kontsultetarako sarbidean, oztoporen bat ikusi da oinezkoentzako bidean; zebrabideek mailak daukate pasabidean, ez daukate ukipenezko seinaleztapen-zerrendak eta narrioak daude zoladuran.

Administrazioa: Administrazio-eraikinerako sarbidean, oztoporen bat ikusi da oinezkoentzako bidean. Hala, pasabidean koska duen zebrabidea dago, eta ez dauka ukipenezko seinaleztapen-zerrendak.

Ospitale-esparruaren barrualdea: Eremuko pabiloien artean ez dago oinezkoentzako bide irisgarririk; beraz, urritasun fisikoa duten pertsonak errepidetik mugitu behar dira nahitaez, eta, helmugaren arabera, ibilbidea luzea izan daiteke. Gainera, oztopoak aurkitu dira oinezkoentzako bideetan.

Larrialdiak: Larrialdietara sartzeko espaloia txikia da, esku-bandarik ez duen aldapa handia dago eta oztopoak aurkitu dira oinezkoentzako bidean.

Sarrera, Gurtubay kaletik: Osasun-langileen aparkalekua gurutzatu behar da kale honetatik sartzeko. Oinezkoentzako bideko zoladuran irisgarritasun-arazo batzuk daude ikusmen-ezintasuna duten pertsonentzat; adibidez, bideak ez dauka zintarririk, ezta ikusmen-ezintasuna duten pertsonak orientatzeko norabidezko zerrenda-gidarik ere.



Oinezkoentzako bideak ez dauka seinaleztapen-zerrenda gidarik, ezta orientazio-zintarririk ere, ikusmen-ezintasuna duten pertsonentzat.



Zebrabideak maila dauka pasabidean.



Espaloiak ez dauka zabalera nahikoa.



Espaloia estua da eta pasabideak koska dauka sarbidean.



Oinezkoentzako bideko eskailerek ez daukate arrapala alternatiborik.



*Oztopoak
oinezkoentzako
bidean.*

Aparkatzea

Atzeko sarrera

Ospitaleko langileentzako aparkalekua da; bertan, ez dago egokitutako aparkalekurik. Ospitale-esparruaren kanpoaldean dago ezinduei gordetako aparkalekua. Ospitale-esparruaren barrualdean jarri behar dira ezinduei gordetako aparkalekuak, pabilioen sarreretatik hurbil. Horretarako, ibilgailuarekin sartzen utzi beharko zaie ezintasunen bat duten pertsoneri, aparkatzeko txartela badute.

Eskuza pabilioia

Ospitale-esparruan egokituta dagoen aparkaleku bakarra dago bertan, baina ez dago Eskuza pabilioiaren sarrera nagusitik hurbil.



*Ospitale-
esparruaren
barrualdean
ezinduei gordetako
aparkalekuak.*

Sarbideak eta itxarongelak

Pabilioietara **sartzeko ateak**: Eskuza, Farmazia, Gandarias, Gobernu, Iturrizar, Jado, San Jose, San Pelaio eta San Bizente pabilioiek ez daukate araudian ezarrita dagoen igarobide-zabalera libre, oso ate estuak dira-eta. Adibide gisara adieraz dezakegu Farmazia pabilioira sartzeko ateak 60 cm-ko igarobide-zabalera libre duela. Gainera, egokitutako zonalderik gabeko harrera-mahaiak aurkitu ditugu pabilioi askotan, eta sarbide askok ez daukate bira egiteko tokirik.

Arrupe pabilioiko **sarrera nagusiak** arrapala dauka sarbidean, baina malda handia dauka. Era berean, ospitalean erabiltzaile gehien duen pabilioia izan arren, ez dauka harreara-mahai irisgarria harrera-gunean.

Nabarmendu beharra dago San Jose pabilioira sartzeko arrapala bat dagoela, %20ko malda duena gutxi gorabehera, eta ez duela eskubandarik. Orri bateko ateak 68 cm-ko zabalera libre dauka.

Oro har, **itxarongela** gehienetan ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.

Larrialdiak

Larrialdietako sarrera nagusian malda handia duen arrapala dago, eta zoladura irristakorra da, bai kanpoaldean, bai barrualdean. Lanpasak ez daude finkatuta, eta estropezuak eragin ditzakete.



*Gandarias pabilioiko
sarrera nagusiko
harrera-mahaia ez
da irisgarria.*



*Ateak igarobide-
zabalera libre
ezegokia dauka
(lehenengo irekitzen
denak).*



*Gehiegizko malda
duen arrapala
Arrupe pabilioiko
sarreran.*



*Itxarongelak ez
dauka gurgildun
aulkien erabiltzaileei
gordetako lekurik.*

Kontsultak

Arrupe pabilioia

Arrupe eraikineko kontsulta gehienak guztiz iristezinak dira. Kontsultetara iristeko korridoreek ez daukate igarobide-zabalera libre nahikoa, eta gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira eman kontsultara sartzeko atearen aurrean. Gainera, korridoreak are gehiago estutzea eragiten duten

oztopoak daude oinezkoentzako bidean; tarte batzuetan, 61 cm-raino iristen dira. Eremu honetako osasun-langileek diote *“korridoreetan egiten zaizkiela azterketak gurpildun aulkien erabiltzaileei”*. Oro har esan dezakegu Arrupe eraikineko harrera-mahai batek ere ez duela zonalde irisgarririk. Eraikineko unitate batzuetara sartzeko gehiegizko malda duten arrapalak daude.

Eraikineko itxarongelak gainezka egoten dira. Eraikineko altzariak ez dira egokiak; mahaiek ez daukate hondo nahikorik, eta aztertu diren esku-ohetuek gehienak finkoak dira, ezin zaie altuera aldatu.

Behe-solairuko ginekologia-kontsultak guztiz iristezinak dira. Kontsulta-gunera sartzeko atearen igarobide-zabalera librea 60 cm-koa da. Korridoreetako igarobide librea 77 cm-koa da.

Kontsultetan ez dago bira eta transferentzia egiteko espazio nahikorik, eta unitatean ez dago aldagela egokiturik.

Errehabilitazioa

Gimnasioko errehabilitazio-gunea egokia da. **Tratamenduetarako kabinetan**, beharrezko transferentzia egin daiteke gurpildun aulkietatik, esku-ohetuen albotan. Esku-ohetuek gehienetan elektrikoki aldatu daiteke altuera, baina egurrezko esku-ohetuek altu eta finkoak ere badaude, altuera aldagarririk gabekoak. Ez dago berariazko ekipamendurik mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil dezaten. Ez dago gurpildun aulkian doazen pertsonentzako aldagela irisgarririk.

San Jose pabilioia

San Jose pabilioiko kontsultak guztiz iristezinak dira: bertara sartzeko ateak estuak dira, 77 cm-ko igarobide librea daukate, eta kontsultetara iristeko korridorean zein kontsulten barrualdean ezin daiteke bira egin.

Jado pabilioia

Sotoko **hemodialisien unitateak** irisgarritasun-arazo asko dauzka. **Unitatera kanpotik sartzeko**, igarobide-zabalera libre ezegokia duen atea dago; **itxarongelak** ez dauka unitatera bertaraten diren pertsona guztientzako leku nahikorik; **tratamenduen eremura** sartzeko korridoreek ez daukate zabalera nahikorik gurpildun aulkien erabiltzaileek bira egin ahal izan dezaten; kontsultetara sartzeko ateak ez daukate igarobide-zabalera egokia; unitatean ez dago komun edo aldagela irisgarririk eta aztertu diren harrera-mahaiek ez daukate zonalde irisgarririk.

Iturrizar pabilioia

Jaioberrien unitateak irisgarritasun-gabeziak dauzka. Jaioberrien sehasken eremura normal sartzeko, eskailerak daude; beraz, onarpen-mahaitik (egokitu gabe dago) igaro behar dira gurpildun aulkien erabiltzaileak, jaioberrien unitatera sartzeko eskatzeko. Horretarako, bigarren ate bat dago, igogailutik hurbil dagoena (inon ez da horren berri ematen). Unitatean bertan, **jaioberriak prestatzeko gela** dago. Behealdean, toki librerik ez duten konketak daude, esekitokiak altuegi daude eta espazioa ez da nahikoa gurpildun aulkien erabiltzaileek barrualdean bira egin ahal izan dezaten. Gai-

nera, unitateko **itxarongelak** ez dauka ezinduei gordetako komun irisgarririk.

Aztarain pabilioia

Pabilioi honetako **kontsultek** ez daukate maniobrarako leku nahikorik barruan.

Sotoko **farmaziak** altuegi dauka tinbrea, eta harrera-mahaiek ez dauka zonalde irisgarririk.

Makua pabilioia (larrialdia)

Larrialdietako **erradiologia-unitateak** ez dauka egokitutako aldagelarik. Larrialdietako kontsultetako ate gehienek igarobide-zabalera libre egokia daukate, eta kontsulten barrualdeko espazioa zuzena da.

San Bizente pabilioia

Behe-solairuko **kontsulta** batek 62 cm-ko igarobide-zabalera librea duen atea dauka. Behe-solairuko kontsulta guztien barrualdea txikia da, eta esku-ohetuek finkoak dira, altuera aldagarririk gabekoak.

Sotora iristeko, pabilioiaren sarrera nagusian dauden eskailera batzuk daude. Beraz, gurpildun aulkien erabiltzaileak pabilioi guztiak lotzen dituen lurrazpiko korridoretik (ez dago seinaleztatuta) iritsi behar dira bertara, eskailerak ez baitauka igogailu edo arrapala alternatiborik.

Pabilioiko sotoan, azeleratzaile nuklearren eremua dago; bertan, aldagela irisgarri bakarra dago eremu guztirako.

Anpuero pabilioia

Erradiologia-gela batek ere ez dauka ezinduei gordetako komun edo aldagelarik. Pabilioiko **itxarongelak** ez dauka behar besteko espaziorik gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.

Lehenengo solairuko **neurologia-zerbitzuko kontsultek** komuna daukate, baina bat bera ere ez da irisgarria.

Gobernu eraikina

Erradiologia-gelek ez daukate aldagela irisgarririk, eta itxarongelen barrualdeko espazioa oso txikia da. Medikuntza nuklearreko unitatera sartzeko ateak ez dauka igarobide-zabalera libre egokia; 62 cm-koa da (oso estua).



Arrupe eraikinean, historia-orgak ezin daitezke korridoretik igaro.



Ginekologia-konsultetan aldagela txikia.



Arrupe eraikineko ginekologia-konsultak ez dauka transferentziarako tokirik.



San Jose eraikineko konsultan azalera txikia.



Jado pabilioiko hemodialisien unitatean komuna.



Aztarain pabilioiko konsulten eremurako sarbidean hainbat oztopo daude.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Pabilioietan ezinduei gordetako komun gehienek gabezia asko dauzkate. Guztiek dauzkate irisgarritasun-gabezia

handiak; bai birgaitutako eraikinek, bai birgaitu ez direnek (azkenek arazo handiagoak dauzkate). Eraikin batzuek ez daukate komun irisgarririk (gero aipatuko ditugu), eta nabarmendu beharra dago Arrupe eta Revilla pabilioietan ezinduei gordetako komunek irisgarritasun arloan duten egoera txarra. Izan ere, horietako gehienetan ez dago heldulekurik, komun-ontziak oso baxu daude, eta osagaiak altuegi daude. Birgaitutako eraikinetako komunek ere gabeziak dauzkate; horietako batzuetan, ez dago transferentzia egiteko tokirik.

ARRUPE PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Kafetegia
0. S	Konsulten korridorea (eskasa)
	Konsulten korridorea (eskasa)
1. S	Konsulten korridorea (eskasa)
	Konsulten korridorea (eskasa)
2. S	Konsulten korridorea (eskasa)
3. S	Konsulten korridorea (eskasa)

REVILLA PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Banatzalea
0. S	Ezkerraldea (eskasa)
1. S	Ezkerraldea (eskasa)
2. S	Ezkerraldea (eskasa)
3. S	Ezkerraldea (eskasa)

GANDARIAS PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
	Ez dago (eraikin-aldaketa)

GOBERNU PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Korridorea
0. S	Igogailuen eremua

ITURRIZAR PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
	Ez dago (eraikin-aldaketa)

JADO PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
	Ez dago (eraikin-aldaketa)

MAKUA PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Larrialdi-unitateko helduen itxarongela
3. S	Boxen eremurako sarbidea

SAN BIZENTE PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Lurrazpiko tunela
	Azeleragailu nuklearren eremu berria

ESKUZA PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago (eraikin-aldaketa)

ANPUERO PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago guztiontzako komunik
0. S	Onkologia- eta traumatologia-kontsulten korridorea
1. S	Ez dago guztiontzako komunik
2. S	Ez dago guztiontzako komunik

ALLENDE PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago (eraikin-aldaketa)

SAN JOSE PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
	Ez dago (eraikin-aldaketa)

PELAIO PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
	Ez dago (eraikin-aldaketa)

ARRUPE PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Erauzketen eremua
3. S	Gune komuna
	Dauden guztiak egokitu

REVILLA PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
	Dauden guztiak egokitu

GANDARIAS PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
1. S	Ezkerraldea Eskuinaldea
2. S	Ezkerraldea Eskuinaldea

GOBERNU PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Medikuntza nuklearerako sarbidea Medikuntza nuklearreko itxarongela Medikuntza nuklearren ondoko kontsulten itxarongela

ITURRIZAR PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Itxarongela
0. S	Ezkerraldea Eskuinaldea
1. S	Jaioberrien itxarongela
2. S	Eskuinaldea

JADO PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Dialisiak
0. S	Ezkerraldea Eskuinaldea
1. S	Ezkerraldea
2. S	Eskuinaldea

MAKUA PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Larrialdi pediatrikoetako itxarongela

SAN BIZENTE PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Itxarongela

ESKUZA PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Erabilera anitzeko aretoa

ANPUERO PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Errehabilitazioa
0. S	Erradiologiako itxarongela Erradiologiako korridorea
1. S	Itxarongela

ALLENDE PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Itxarongela
0. S	Itxarongela

SAN JOSE PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Itxarongela

PELAIO PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Sarrera nagusia
1. S	Itxarongela



Guztiontzako komuna Allende pabilioian. Iristezina.



Komun egokituak oztopoak dauzka Anpuero pabilioian.



Heldulekurik gabeko komun egokitua, eta transferentzia egiteko tokia okupatuta, Areilza pabilioian.



Heldulekurik gabeko komun egokitua Arrupe pabilioian.

Logelak eta boxak

Anpuero, Eskuza, Gandarias eta Jado pabilioietan **logela irisgarriak** daude. Gandarias eta Jado eraikinetako logela egokituek irisgarritasun-gabezia batzuk dauzkate; komunetan batez ere. Hauek dira aipatu gabeziak: komunaren barrualdean bira egiteko leku falta, transferentzia egiteko leku falta, heldulekuak falta dira eta abar.

Oro har, pabilioietako **boxen eremuak** txikiak dira; horietako askotan ez dago gurgildun aulkitik ohera transferentzia egiteko tokirik, eta boxen eremuan ez dago komun irisgarriak, Areilza eta Aztarain pabilioietan salbu, gabezia batzuk dituzten komun gordeak baitaude horietan.

Ospitaleratze-guneko itxarongelek ez daukate behar beste espaziorik gurgildun aulkien erabiltzaileentzat.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Gandarias eraikineko logela egokituko komuna.



Makua eraikineko boxa.



Jado pabilioiko logela egokituko komuna. Ez dago alboko transferentzia egiteko tokirik.



Revilla pabilioiko logelako komuna.



Haurtxoen sehaska iristezina altueragatik San Pelaio pabilioian.



Haurtxoak garbitzekoa iristezina altueragatik San Pelaio pabilioian.



Kafetegia.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Arrupe pabilioiko sotoan dago kafetegia.

Kanpotik kafetegira sartzeko hainbat modu daude: batetik, malda handia duen eta eskubandarik ez duen arrapala dago, eta, bestetik, eskaierak. Bestela ere, igogailuz irits daiteke, Arrupe eraikineko goiko solairuetatik.

Ateek ez daukate araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka egokitutako zonalderik, eta mahaien eremuko altzariak ez daude behar bezala jarrita. Kafetegiko edariak mostradorean zerbitzatzen dira.

Autozerbitzu motakoa da jatetxea. Gure ustez, kudeaketa-eredu hori ez da egokia, gurpildun aukien erabiltzaileek ezin dezaketelako erabili modu autonomoan.

Mahaiak ez dira egokiak; izan ere, bermatzeko hanka bakarra daukate erdigunean, eta ezegonkortasuna eragin dezake horrek mahaietan, gurpildun aukien erabiltzaileak hurbiltzea galarazteaz batera.

Kafetegiak ezinduei gordetako komun bat dauka hurbil.

Makina saltzaileak

Makina saltzaile irisgarriren bat aurkitu bada ere, eta telefonoren bat altuera egokian jarrita badago ere, adierazi beharra daukagu horrelako elementu gehienak ez daudela egokituta.

Kapera

Kaperarako sarbidea ez da irisgarria.



Kafetegirako sarbidea.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitaleko sarreretarainoko bideak eta pabilioien arteko ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitaleko sarreretan eta pabilioietan norabidezko seinaleztapena jarri behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira ospitale-esparruaren barrualdean.

Sarbideak eta itxarongelak

- Araudian ezarrita dagoen zabalera ez duten ateak ordezkatu beharko dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Nahitaez jarri behar dira seinaleztapen-banda egokiak beirazko ate eta trenkadetan.
- Sarbide guztietan lanpas finakoak jarri behar dira.
- Digestio- eta oftalmologia-eremuetako itxarongelak hantitu behar dira.
- Gurpildun aukien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan, eta erdiko mahaiak kendu.
- Korridore estuetan kokatutako itxarongelak kendu behar dira.

Kontsultak

- Arrupe pabilioiko kontsultak egokitu behar dira.
- Nahitaez, Jado pabilioiko hemodialisien unitatea egokitu behar da.
- Iturrizar pabilioian, jaioberrien unitaterako sarbidea egokitu behar da.
- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten ateak ordezkatu beharko dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

- Kontsultetako altzariak berrantolatu behar dira, horietan ezin bada bira egin.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-ohetako finkoak jarri behar dira esku-ohetako finkoen ordez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Egokitutako logelen ezaugarriak berrikusi behar dira.
- Unitate guztietan eraiki behar dira logela egokituak.
- Garabiak eta baskulak erosi behar dira gurgildun aulkien erabiltzaileek erabili ditzaten.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu beharko da.
- Kapera egokitu behar da.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

3.4. Gurutzetako Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Gurutzetako plaza: Eremu horretako dendek eta kafetegiak plazan uzten dituzte beren produktuak eta terrazak, oinezkoentzako bidea hartuz. Plazatik ospitaleko sarrera nagusira iristeko, igogailurik edo hurbileko arrapalarik gabeko eskailera dago. Eremu horretako zebrabideek mailak dauzkate pasabidean.

Eguneko ospitalea: Ospitale-esparruaren kanpoaldetik eguneko ospitaleko sarrerarainoko ibilbidea irisgarria da. Balejo kaletik iristen da eguneko ospitale-ingurura. Kale irisgarria da, baina malda handia duten eta zabalera ezegokia duten oinezkoentzako pasabideak daude.

Sarrera nagusia: Gurutzeta kaleko plazan dago sarrera nagusia. Bertan, zoladura oso heterogeneoa da, eta nahasmena eragin diezaieke horrek ikusmen-urritasuna duten pertsonen, ez baitago nagusizat jo daitekeen eta zerrenda-gida izateko balio dezakeen bat.

Larrialdietara: Larrialdietara iristeko, malda handia duen kale bat dago. Altuera bikoitzeko eskubanda dago, baina ez da maldaren hasieran hasten. Alternatiba gisara, aparkalekuan edo Gurutzetako plazan hartzen den igogailua dago larrialdietara iristeko.

Kafetegia-Kanpo-Kontsultak-Onkologia: Kafetegira iristeko, ospitalearen atzeko aldean jarritako igogailu berria dago, edo, bestela, Balejo kaletik iritsi daiteke bertara. Bi bideak dira irisgarriak. Aitzitik, kanpo-kontsultetako sarrerak hainbat gabezia dauzka; hala nola, narriok dituen zoladura dago. Zonalde horretatik errehabilitaziora iristeko bidea ez da irisgarria. Seinalaztapena ez da egokia inguruan.

Traumatologia-Anestesia Aurrea-Errehabilitazioa: Aurre-rago esan den bezala, kafetegitik zonalde honetara iristeko bidea ez da irisgarria, eta, beraz, gurgildun aulkien erabiltzaileak errepidetik iritsi behar dira. Larrialdien eremutik zonalde honetara iristeko bidea ibiltzeko modukoa da, estugunea baitago errehabilitazioko sarrerara iristeko espaloian.



Gurutzetako plaza. Oztopoek hartzen duten bidea.



Gehiegizko malda duten pasabideak. Balejo kalea.



Sarrera nagusirako sarbidea. Zoladura heterogeneoa.



Larrialdietarako sarbidea.



Kafetegia-kanpo-kontsultak-onkologia, gaizki egindako zebraideak.



Larrialdietarako sarbidea. Barandarik gabeko gehiegizko malda eta zabalera eskasa espaloian.



Ezinduei gordetako aparkalekua. Lurrazpiko aparkalekua. Seinaleztapen bertikala falta da.



Ezinduei gordetako aparkalekua. Kanpoko kontsuluten eta kafetegiaren zonaldea. Seinaleztapen bertikala falta da.

Aparkatzea

■ Barruko aparkalekua

- Aparkalekuan, ezinduei gordetako sei toki baino ez dira ikusi, eta 25 behar dira araudia betetzeko. Igo-gailutik hurbil dauden solairuetan jarri beharko lirateke toki horiek.
- Ezinduei gordetako aparkalekuek ez daukate seinaleztapen bertikalik.
- Aparkalekuan igogailu bakarra dago, eta txikia da. Aipatu tokitik sartzen den pertsona kopurua dela-eta, beste igogailu bat jarri beharko litzateke.
- Ibilgailuak aparkalekura sartzeko tokiaren ondoan, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako pasabidea dago seinaleztatuta; alabaina, pasabide hori ibiltzeko modukoa da, ez oso irisgarria. Izan ere, ez dauka araudian ezarritako zabalera eta malda.
- Parkimetroa irisgarria da.

■ Kafetegia-Kanpo-Kontsultak-Onkologia

Gordetako aparkalekuetatik ospitaleko sarrerarako ibilbidea ez da irisgarria.

■ Traumatologia-Anestesia Aurrea-Errehabilitazioa

Aparkalekuen zabalera ez du araudia betetzen.

■ Larrialdiak

Eremu honetan, ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik.

Sarbideak eta itxarongelak

Ospitaleko sarrera nagusira iristeko, ate birakaria dago. Hori ez da gurgildun aukien erabiltzaileentzako edo mugikortasun murriztua dutenentzako aukerarik onena. Atea etengabe geratzen da puntako orduetan.

Harrera-guneko harrera-mahaiek ez daukate toki irisgarriak.

Kanpoaldetik kanpo-kontsuluten sarrera nagusirako sarbidea guztiz iristezina da; izan ere, eskailerak edo errepidea daude, horrek dakarren arriskuarekin. Beste alde batetik, aipatu eskailerak igarota, arapala dago sarrerako ateraino. Atearen aurrean edozelako bira egitea eragozten du horrek.

Ospitaleko itxarongelek ez daukate gurgildun aukien erabiltzaileei gordetako eremurik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere; gainera, itxarongela batzuen erdialdean mahaiaik daude, oztopoa sortuz.

Larrialdiak

Larrialdietara sartzeko atek ez dauka seinaleztapen-bandarik. Larrialdien barrualdean, ate automatikoak daude. Atea irekitzeko pultsadoreak daukate, baina altuegi jarrita daude. Ate horiek ere ez daukate seinaleztapen-bandarik.



Sarrera nagusian, ate birakariak.

Kanpo-kontsultetarako sarbidea. Eskailerak eta ibilgailuentzako arrapala, gehiegizko maldarekin.



Itxarongelak ez dauka gurpildun aukien erabiltzaileentzako lekurik.



Larrialdien unitateko barruko atean altuegi dauka irekitzeko mekanismoa.



Kontsultak

Behe-solairuko erradiologiako kontsultek ez daukate ez aldagela, ez komun egokiturik. Behe-solairuko oftalmologia-kontsultek ez daukate bira egiteko nahikoa tokirik kontsultetara iristeko korridoreetan. Digestio-kontsultetako batean, 34 cm baino ez dituen pasabide ezegokia dago. Eguneko ospitaleko kontsultetako ateen ez daukate igarobide-zabalera libre egokia.

Sotoko hemodialisien unitateko atean igarobide-zabalera libre ezegokia dauka, eta unitateko itxarongelak toki gutxi dauka; beraz, korridorean jarri da itxarongela. Gainera, unitateko aldagelak ez daude egokituta.

-2. sotoko erradiologia-unitateak ez dauka aldagela egokiturik, eta, horren orde, ondoko logela bat erabiltzen da. Alabaina, horko atean ez dauka igarobide-zabalera libre egokia.

Ospitaleratze-guneko unitateetan, idazkaritza-bulegoak daude, eta senideek zein ospitaleratuta dauden pazienteek asko erabiltzen dituzte. Bada, orri bikoitzeko atean daude horietara sartzeko, eta igarobide-zabalera ezegokia dago ateatako batean (lehenengo irekitzen denean).

Audiometria-proben kabina guztiz iristezina da.

Amatasun-unitatean ginekologia-azterketa egiteko kontsultak ez die sartzeko aukerarik erabiltzaileei; izan ere, kontsultara sartzeko atean 60 cm-ko igarobide libre dauka. Bestetik, barrualdeko espazioak ez die bira egiten aukerarik erabiltzaileei. Gainera, azterketa egiteko esku-ohetuek altuera finkoa dauka, ez aldagarria, eta altuegi dago.

Laugarren solairuko kardiologia- eta aurpegi-masailetako kontsultek ez daukate bira eta lekualdaketak egiteko behar den tokia barrualdean, eta esku-ohetuek altuegi jarrita daude (70 cm-ra), iristezin eginez horiek. Alergologia-kontsultetara sartzeko atean ez dute betetzen igarobide-zabalera libre egokia, eta, kontsulten barrualdean, ez dago toki nahikorik.

Bosgarren solairuko E unitateko ebakuntza-geletarako sarbidean dagoen aldagelak ez dauka sartzeko toki nahikorik, eta ezin daiteke bira egin horren barrualdean.

Bosgarren solairuko kanpo-kontsultetako kontsulta batera ezin daiteke sartu, estugunea sortzen baita atearen eta mahaiaren artean. Unitateko medikuek mahaia mugitu behar dute gurpildun aukien erabiltzaileak bertaratzen direnean.

Hamaikagarren solairuko barne-medikuntzako kontsultek orri bikoitzeko atea daukate banaketa-korridorera sartzeko, eta igarobide-zabalera libre ezegokia dauka horrek. Era beran, kontsultetako atean ere ez daukate igarobide-zabalera libre egokia. Kontsulta horien kokapena ez da batere zentzuzkoa; izan ere, asko erabiltzen dira eta ez dago igogailu gehiegirik. Ondorioz, itxarote-denborak oso luzeak izaten dira.

Larrialdiak

Kontsulta sailkatuek ez daukate maniobra edo lekualdaketa egiteko behar den lekua barrualdean. Mahaiek ez daukate hondo egokia.

Errehabilitazioa

Gimnasioko errehabilitazio-gunea egokia da. Tratamenduetarako kabinetan, transferentzia egin daiteke esku-ohetuen albo batetik, eta, oro har, esku-ohetuek erregulagarriak dira. Ez dago ekipamendu espezifikorik mugikortasun urriko pertsonentzat. Errehabilitaziorako gimnasioaren inguruan, ez dago aldagelarik; errehabilitaziorako igerilekuan bakarrik daude, eta ez dira irisgarriak.



Esku-ohera iristeko pasabide urria. Digestio-kontsulta.



Aldagela.
Erradiologia.



Aldagela iristezina
hemodialisietan.



Azterketa egiteko
esku-ohea altu.
Ginekologia-
konsulta. Iristezina.



Toki murriztua
kontsultan.



Kabina txikia,
mailarekin,
audiometrietarako.



Kabina txikia,
mailarekin,
arnas-
probetarako.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Gordetako komun gehienek behar besteko azalera daukate barrualdean. Aitzitik, komun horien atondo batzuetan, ezin daiteke bira egokia egin.

Aztertu diren komun askotan, oztopoak ikusi dira komun-zu- lora transferentzia egiteko tokian, eta oso orokorra da konke- tako osagarriak, ispiluak eta langileei deitzeko alarmak toki ezegokian jarrita egotea. Era berean, barrurantz irekitzen diren atea duten komunak, gaizki jarritako heldulekuak edo apurtutako heldulekuak, oinarria duten konketak eta altu ja- rritako deskargarako mekanismoak aurkitu dira.

ERAIKIN NAGUSIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
	Errehabilitazioko harrera-gunea
-2. S	Medikuntza nuklearreko korridorea Erradiologiako eremua
-1. S	Larrialdi-unitateko helduen itxarongela Larrialdi-unitateko haurren itxarongela C zonaldeko kanpo-kontsultak
0. S	C zonaldeko korridore nagusia E zonaldeko korridore nagusia Eguneko ospitaleko sarrera C zonaldeko kanpo-kontsultak
1. S	B-C zonaldeko korridore nagusia C zonaldeko korridore nagusia C-D korridore nagusia D-E korridore nagusia C zonaldeko kanpo-kontsultak Eskailera kiribilaren erdigunea
2. S	C zonaldeko kanpo-kontsultak A zonaldeko korridore nagusia Eskailera kiribilaren erdigunea
3. S	A zonaldeko korridore nagusia Eskailera kiribilaren erdigunea
4. S	B-A zonaldeko korridore nagusia C zonaldeko kanpo-kontsultak Eskailera kiribilaren erdigunea
5. S	A zonaldeko itxarongela C zonaldeko kanpo-kontsultak (eskasa) Eskailera kiribilaren erdigunea
6. S	Eskailera kiribilaren erdigunea E zonaldea (eskasa)
7. S	Eskailera kiribilaren erdigunea
8. S	Eskailera kiribilaren erdigunea
9. S	Eskailera kiribilaren erdigunea
10. S	Ez dago
11. S	Eskailera kiribilaren erdigunea
12. S	Ez dago

Y ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Kafetegia
1. S	Areto nagusia

W ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

W ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

1. S	Erdiguneko korridorea
------	-----------------------

LABORATEGI-ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua Unitatea/Gunea

-1. S	Tanatorioa
1. S	Helduen itxarongela

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua Unitatea/Gunea

-2. S	Errehabilitazioa
-1. S	Larrialdietako bilakaera-boxen sarbidea
	Digestio-unitatea
	A zonaldeko arnasketa-errehabilitazioa
0. S	B zonaldeko erradiologia pediatrikoa
	B zonaldeko erradiologiako itxarongela
	B zonaldeko erradiologia
	C zonaldeko ebakuntza-gelen itxarongela
	C zonaldeko kanpo-kontsultak
1. S	C zonaldeko lo-probak
2. S	Ez da beharrezkoa
3. S	C zonaldeko kanpo-kontsultak
4. S	Ez da beharrezkoa
	B zonaldeko ZIUko itxarongela
5. S	E zonaldeko ziber-ikasgelaren eratzkia
6. S	B zonaldeko ABUko itxarongela
7. S	Transplante-unitateko itxarongela
8. S	Ez da beharrezkoa
9. S	Ez da beharrezkoa
10. S	Gune komuna
11. S	Itxarongela
12. S	Gune komuna

Y ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua Unitatea/Gunea

Ez da zertan ezinduei gordetako komunik jarri

W ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua Unitatea/Gunea

0. S	Kanpo-kontsultetako itxarongela
------	---------------------------------

LABORATEGI-ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua Unitatea/Gunea

0. S	Pediatriako itxarongela
------	-------------------------



Ezinduei gordetako komunera sartzeko atondoak. Ezin daiteke bira egin.



Komun egokitua. Mahaiarekin okupatuta transferentziarako tokia.



Ezinduei gordetako komuna. Transferentziarako tokia okupatuta.



Komun egokitua. Transferentziarako tokia okupatuta.



Komun egokitua. Konkretako osagarriak eta ispilua ezegoki jarrita.

Logelak eta boxak

Ospitalean, muineko lesioa dutenentzako unitatean, psikiatria-unitatean, otorrinolaringologia-unitatean eta 3. solairuko A unitatean bakarrik daude logela egokituak. Egokitutako logelek behar besteko tokia daukate ohearen albo batean transferentzia egiteko, bai eta gurgildun aulkia logelaren barrualdean edukitzeko tokia ere; aitzitik, gehienetan ez dago lekuri gurgildun aulkien erabiltzaileek barrualdean bira egin ahal izan dezaten.

Logela batzuek lurraren arrasean daukate dutxaontzia, baina dutxaontzi horien neurria ez da egokia; beraz, ezin daitezke logela egokitzat jo.

Muineko lesioa dutenentzako unitateko zortzi logelak due-la gutxi eraldatu dira, eta domotika-sistema jarri da horietan. Sistema horrek pazienteen autonomiari laguntzen dio, eta mugitzen zein transferentzia egiten laguntzen die bai zaintzaileei, bai osasun-langileei.

Adieraz dezakegu instalazio domotikoaren maila ezberdinak daudela pazientearen muineko lesioaren arabera. Lauk sistema osoa daukate, eta mendekotasun handiko pertsoneri daude bideratuta. Ohea, komun-zuloa eta dutxa lotzen dituen sabaiko garabi-erraila daukate, domotizatu gabeko alboko mugimendua egin daiteke eskuz, eta erabiltzaileak ingurunea, argia, pertsiana, atea, telefonoa, telebista, ohea eta abar kontrolatzeko gadget-ak dauzka.

Beste bi logelatan, ohea, komun-zuloa eta dutxa lotzen dituen erraila dago, albo batean monitorizatutakoa, eta, bestetik, komuneko ate lerragari monitorizatu, pertsiana eta argia daude.

Beste bi logelak soilagoak dira; hala ere, monitorizatutako sabaiko erraila daukate.

Albo batean motorizatutako sabaiko garabi domotizatu gabeei esker, gurpildun aulkia erabili gabe egin daitezke transferentziak. Garabia logelako sabaian jartzen da, errail batean, eta horrek ohea, dutxa eta komun-zuloa lotzen ditu, hainbat transferentzia egin beharrik gabe. Kasu honetan, garabiaren mugimendua ez dago domotizatuta; hau da, ez da logelaraino lekualdatzen erabiltzailearen agintearen deia bidez. Hirugarren batek mugitzen du garabia, garabian bertan txeretatutako agintearen bidez.

Albo batean motorizatutako sabaiko garabi domotizatuari esker, gurpildun aulkia erabili gabe egin daitezke transferentziak. Garabia logelako sabaian jartzen da, errail batean, eta horrek ohea, dutxa eta komun-zuloa lotzen ditu, hainbat transferentzia egin beharrik gabe. Kasu honetan, garabiaren mugimendua domotizatuta dago; hau da, erabiltzailearen agintearen deia bidez lekualdatzen da logelaraino, eta, beraz, ez da hirugarren baten laguntzarik behar.

Logeletako sistema domotikoa erabiltzeko, paziente bakoitzaren mugikortasunaren arabera erabiltzen dira interfaze-sistemak. Horretarako, tableta, ohiko agitea edo pultsadore soil bat ematen zaie.

Logeletako komunek sarbide egokia daukate, eta, barrualdean, zuzenak dira bai dutxaren neurriak, bai dutxara nahiz komun-zulora transferentzia egiteko lekuak.

Komun-zuloa, konketa eta komuneko osagarriak altuera egokian daude. Alabaina, konketak ez dauka arauz ezarritako igarobide-hondo libre. Kordo motako alarma ez dago altuera egokian jarrita.

Ospitaleko boxen zonaldeak, oro har, zabalak dira, eta ohearen albo batetik transferentzia egitea ahalbidetzen dute. Boxen zonaldeko komunak irisgarriak dira, baina zenbait gabezia dauzkate. Hauek dira komun irisgarririk gabeko boxen zonaldeak: epilepsia-unitatea, iktus-unitatea eta hemodialisi-unitatea.

Oro har, ospitaleratze-guneko itxarongelek ez daukate behar besteko espaziorik gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Amatasun-unitateko ospitaleratze-guneko dutxa mota. Iristezina.



Egokitutako komuneko komunean, dutxaontzia eta manpara; beraz, iristezina.



Komun irisgarria boxen zonaldean. Konketa iristeko toki ezegokia.



Dutxaontzi iristezina duen komun mota, logela irisgarririk ez duten unitateetan.



Dutxaontzia lurraren arrasean, bira egiteko toki nahikorik ez.



Leku txikia logelaren barrualdean.



IGKUko aldagela.



Haurtxoak aldatzekoa iristezina.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Eraxkitako eraikinaren behe-solairuan dago.

Sarrerako ateen neurri egokiak daukate, baina, mugikortasun murriztua dutenez, zaila da horiek irekitzea.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik.

Altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek altuera egokia daukate; hala ere, bermatzeko hanka bakarra dute, eta horrek ez du ahalbidetzen gurgildun aulkien erabiltzaileak hurbiltzea. Gainera, egoera arriskutsuak eragin diezazkieke mugikortasun murriztua duten pertsonen horietan bermatzean.

Kafetegiak ezinduen komuna dauka, baina zenbait gabezia dauzka.

Jatetxea autozerbitzu motakoa da. Zerbitzu mota hori ez da egokia gurgildun aulkien erabiltzaileentzat, ezin baititzakete zerbitzuak modu autonomoan erabili. Mostradoreak neurri egokiak dauzka.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak iristezinak dira.

Areto nagusia

Eraxkitako eraikinaren lehenengo solairuan dago.

Sartzeko, ontziratzeko-gunea eraikinaren kanpoaldean duen igogailua dago. Igogailuaren ezaugarriak egokiak dira.

Areto nagusira sartzeko ateen ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik, eta, oholtzara igotzeko, malda handia duen arrapala dago.

Oholtzako mahaia araudian ezarritako neurriak dauzka.

Kapera

Eraikinaren kanpoaldetik nahiz barrualdetik sar daiteke kaperara. Kanpoko sarrerak eskailerak dauzka ibilbidean, ez dauka arrapala alternatiborik. Eraikinaren barrualdetik, berriz, araudian ezarritako zabalera librea ez duten ateen daude ibilbidean.

Barrualdeko espazioak bira ematea eta maniobra egitea ahalbidetzen die gurgildun aulkietan doazen pertsonen. Ez dago ezinduei gordetako eremurik, baina gurgildun aulkien erabiltzaileentzako tokia dago.

Tanatorioa

Laborategi-eraikineko sotoan dago tanatorioa. Kanpoaldean dagoen arrapatatik sartzen da bertara. Alabaina, gehiegizko malda dauka, sarrerako ateen ez dauka araudian ezarritako zabalera, eta lanpasa ez da finkoa.

Tanatorioan, ezinduen komuna dago, baina gabezia handiak dauzka.

Tanatorioa aurkitzeko seinaleztapena eskasa da.



Kafetegirako sarbidea.



Areto nagusia.



Tanatoriora iristeko arrapala.



Tanatoriora sartzeko atea.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Kanpo-kontsulten sarreratik errehabilitazio-gunerainoko ibilbidea egokitu behar da.
- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitaleko sarrera nagusira doazen espaloien zabalera handitu behar da.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Barrualdeko aparkalekuan, ezinduentzako 19 toki jarri behar dira. Gainera, beste igogailu bat jarri beharko litzateke ospitalera sartzeko.
- Kafetegiaren zonaldeko ezinduen aparkalekuetatik sarretarainoko ibilbideak egokitu behar dira.
- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira larrialdietako sarreratik hurbil.

Sarbideak eta itxarongelak

- Sarrera nagusiko sarbidea hobetu behar da; horretarako, sarrera nagusiko ate birakaria kentzea, aldatzea edo ordezkatzeari proposatzen dugu.
- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Egokitutako harrera-mahaietako oztopoak kendu beharko dira.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.
- Itxarongela guztietako erdiko mahaiak kendu behar dira.
- Korridoreetan dauden oztopo guztiak kendu behar dira.
- Larrialdien unitateko ate automatikoak irekitzeko mekanismoa egokitu behar da.
- Hemodialisi-unitateko itxarongela handitu behar da.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera libre egokia ez duten atearik ordezkatu behar dira.
- Ginekologia-kontsultak egokitu behar dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten atearik aldatu behar dira.
- Proiekzioz gabeko hegala kendu behar dira.

- Altuera erregulagarria duten esku-ohreak jarri behar dira esku-ohre finkoen ordez.
- Goiko solairuetako kontsultak kendu behar dira, eta ospitalearen beheko aldeko solairuetan jarri.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.
- Boxen unitateetako komunak egokitu behar dira, egokitu ez badaude.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu beharko da.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Kapera eta areto nagusia egokitu behar dira.
- Tanatoriorako sarbidea aldatzea proposatzen dugu, eta laborategi-eraikineko sarrera nagusitik egitea aholkatzen dugu, horrela, eraikineko igogailutik iritsi ahal izateko tanatoriora.

3.5. Galdakao-Usansoloko Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ospitaleko berehalako ingurunea oso iristezina da. Sarrerak komunikatzen dituzten espaloietatik ere ez dauka araudian ezarritako zabalera, eta oztopoak eta mailak ikusi dira ibilbide guztietan. Zebrabideek gaizki egindako pasabideak daukate, ez daukate ukimenezko seinaleztapen-zerrendarik eta pasabideko zoladurak narriok dauzka.

Osatekeko sarreratik ZIU-AKUrako sarbidean, larrialdietako eskailerak daude, hegal eginez aterata, eta ez dute behar besteko pasabide librerik uzten. Horrek lesioak eragin ahal dizkie ikusmen-arazoak dituzten pertsonen.

Ospitaleko sarreren seinaleztapena ez dago ondo eginda.

Narrioak eta gaizki egindako pasabideak dituzten zebrabideak.



Koska oinezkoentzako bidean.



Zebrabide batek oztopoak dauka ibilbidean.



UZI-AKUrako pasabidea. Altuera libre ezegokia.



Aparkatzea

■ 1.AO

Seinaleztapen horizontala narriatuta dago aparkaleku batzuetan, eta ez dago seinaleztapenik adierazten duenik debekatuta dagoela mugikortasun murriztua ez dutenek aparkatzea.

■ 2.AO

Aparkalekurako sarbidea ez da irisgarria, eta ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik.

■ Kanpo-kontsultak

Oinezkoentzako pasabidetik hurbil ez dagoenez, gordetako aparkalekuetatik espaloira joateko sarbidea ez da irisgarria. Ez dago seinaleztapenik adierazten duenik debekatuta dagoela mugikortasun murriztua ez dutenek aparkatzea.

■ Ospitaleratze-gunea

Espaloira iristeko errepidea dago, eta ez dago seinaleztapenik adierazten duenik debekatuta dagoela mugikortasun murriztua ez dutenek aparkatzea.

■ Osatek

Eremu honetan, ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik. Osatekeko sarreratik hurbil, ezinduei gordetako bi aparkaleku jarri behar dira, ibilbide irisgarriarekin.

■ ZIU-AKU

Eremu honetan, ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik. ZIU-AKUko sarreratik hurbil, ezinduei gordetako aparkaleku bat jarri behar da, ibilbide irisgarriarekin.

■ Larrialdiak

Ezinduei gordetako aparkalekuak ez daude larrialdietako sarreratik hurbil, eta sarrera nagusirako ibilbideak bihurtugunedun arrapala dauka, zabalera nahikorik gabekoa, eta koska ibilbidean.

1.AO Seinaleztapen horizontala narriatuta dago aparkaleku batzuetan, eta ez dago seinaleztapenik adierazten duenik debekatuta dagoela mugikortasun murriztua ez dutenek aparkatzea.



2.AO Aparkalekura sartzeko eskailerekin ez dute arrapala alternatiborik.



Sarbideak eta itzarongelak

Sarrera nagusiko atea ez dauka seinaleztapen-bandak, zoladura irristakorra da euri-egunetan, eta lanpas finkoek ez dute bat egiten horretarako sortutako zuloarekin. Ondorioz, estropezu egitea eragin dezaketen altuera ezberdinak sortzen dira. Harrera-mahaiek ez daukate toki egokiturik. Beirazko itxiturak ez daukate seinaleztapen-bandak, eta arrisku-egoerak eragin ahal dizkie horrek ikusmen-urritasuna duten pertsonen bereziki, baina baita edozein pertsonari ere, oro har.

Errehabilitazio-guneko sarrerako atea kristalezkoa da, ez dauka seinaleztapen-bandarik eta zoladura irristakorra da euri-egunetan. Beirazko itxiturak ez daukate seinaleztapen-bandak, eta arrisku-egoerak eragin ahal dizkie horrek ikusmen-urritasuna duten pertsonen bereziki.

Errehabilitazio-guneko sarrerako atea ez dauka seinaleztapen-bandarik, eta zoladura irristakorra da euri-egunetan. Beirazko itxiturak ez daukate seinaleztapen-bandak,

eta arrisku-egoerak eragin ahal dizkie horrek ikusmen-urritasuna duten pertsoneri. Lanpasak torlojudun profilen bidez iltzatu dira lurrean, eta irtenguneak sortzen dituzte, estropezu egitea eraginez. Informazio-mahaiak ez dauka toki irisgarririk. Txanda ematen duen makina ez da irisgarria. Eremuko informazio-taulan erabiltzen den letraren tamaina ez da nahikoa.

Ospitaleko itxarongelek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako eremurik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere; gainera, mahaiak jarri dira itxarongelen erdian, oztopoa sortuz.

Larrialdiak

Larrialdi-gunerako sarbidean, atearen aurrean, malda handia duen arrapala dago. Harrera-guneko harrera-mahaiak ez dauka egokitutako eremurik, eta itxarongeletara sartzeko atek astunak eta txikiak dira.

Aztertu diren ospitaleen artean, otorrinolaringologiako itxarongelarekin batera, begizta magnetikoa duen itxarongela bakarra da.

Itxarongela batek maila dauka kanpotik sartzeko tokian.

Osatek

Bertara sartzeko atek ez dauka seinaleztapen-bandarik. Itxarongelaren sarreran, loreontzi bat dago oinezkoentzako ibilbidean, igarobidea oztopatuz.



Sartzeko ate nagusia. Ez dauka seinaleztapen-bandarik, eta lanpasak irtengunea eragiten du.



Errehabilitaziora sartzeko atek ez daukate seinaleztapen-bandarik, eta zoladura irristakorra da.



Kanpo-konsulten sarrera. Profilen bidez iltzatutako lanpasa, irtenguneak sortuz.



Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako lekurik.

Kontsultak

Erradiologia-unitatean hiru aldagela daude ustez egokituak. Horien barrualdean, ezin daiteke bira egin, aldageletara sartzeko atek barrurantz irekitzen dira eta esekitokiak altuegi jarrita daude.

Barne-medikuntzako, onkologiako, ginekologiako, errehabilitazioko eta nefrologiako unitateetan, kontsultetara sartzeko atek edota kontsulten barrualdeko espazioa ez dira egokiak. Hala ere, unitate batzuetako kontsultetako atek araudian ezarritako zabalera daukate, baina beste irisgarritasun-arazo batzuk daukate, kontsulta horien korridorera joateko atek ez baitute araudian ezarritako zabalera (horien artean, pazienteen arretarako bulegoa dago). Oso erraza litzateke igarobide-zabalera libre egokia utziko duen ate batekin ordezkatzera zabaltzen den lehenengo atea.

Errehabilitazio- eta ginekologia-kontsultetara **sartzeko korridoreek** ez daukate ezarritako zabalera, eta gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin. Hemodialisi-unitateak egokitutako komuna dauka, baina takilen eremua guztiz iristezina da.

Ospitalean ez dago **baskula** kopuru nahikorik. Endokrinologia-unitatean, langileek esan dutenaren arabera, ezin daitezke pisatu gurpildun aulkian bertaraten diren pazienteak.

Digestio- eta oftalmologia-guneetako itxarongelek ez daukate espazio nahikorik; mugikortasun murriztua duten pertsonak zutik itxaron behar dute txanda, eta gurpildun aulkien erabiltzaileek korridoreetan itxaron behar dute.

Digestiboko kontsultek komuna daukate, baina bat bera ere ez da irisgarria.

Kontsulten arteko ibilbidean dauden **orri bikoitzeko atek** askok ez daukate igarobide-zabalera libre orrietako batean (lehenengo irekitzen den orrian). Kontsulten korridore batzuek ez daukate **argiztapen** egokia.

Larrialdiak

Erradiologiako gelek ez daukate aldagela egokiturik. Oro har, igarobide libre egokia dute kontsultetako atek, eta barrualdeko espazio egokia daukate kontsultek, **"7. boxak"** izan ezik. Bereizitako bi espazio dauzka horrek; lehenengo oso leku zabala da, baina medikuaren mahaia jartzeko bakarrik erabiltzen da. Azterketa ginekologikorako mahaia bigarren espazioan jartzen da, baina hain da txikia, gurpildun aulkien erabiltzaileak ezin daitezke sartu.

Osatek

Komun eta aldagela egokitua dauzka, gabezia batzuekin.

Errehabilitazioa

Gimnasioko errehabilitazio-gunea egokia da. Zabalera txikia dago errehabilitazio-kontsulten korridorean; kontsultetara sartzeko ateen ez daukate behar den igarobide-zabalera libre, eta itxarongelak korridoreetan daude, gurpildun aukien erabiltzaileentzako tokirik gabe. Tratamenduetarako kabinetan transferentzia egin daiteke esku-ohearen albo batean; hala ere, altuak eta finkoak dira, eta ezin zaie altuera aldatu. Ez dago ekipamendu espezifikorik mugikortasun urriko pertsonentzat. Ez dago aldagela egokiturik.



Kontsultak ez dauka maniobrarako tokirik barrualdean.



Dutxa mota errehabilitazioko igerilekuan.



Itxarongela errehabilitazioko korridorean.



Erradiologiako aldagela egokitua. Barrualdeko espazioa egokia da, baina atea barrurantz irekitzen da.



Kontsultara sartzeko atea ez dauka zabalera nahikoa.



Sartzeko eta maniobra egiteko toki txikia kontsultan.



Kontsultak sartzeko espazio murrizta dauka esku-ohearen eremuan.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ospitalean ezinduei gordetako komunek gabezia batzuk dauzkate: komun-zulo batzuk baxuak dira, eta, oro har, atearen zabalera egokia bada ere, batzuek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia. Era berean, hauek ere ikusi dira: atea komunaren barrualderantz irekitzen dira, alarmak altuera handian daude, edo kable kiribildua dute, edo erabili gabea, eta transferentzia egiteko tokiek oztopoak dauzkate. Larrialdi-guneko senideentzako itxarongelako komunaren sarreran dauden oztopoak nabarmendu behar dira, erabili ezinik geratzen baita.


EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Osatekeko itxarongela
	Erradiologiako itxarongela
	Kanpo-kontsulten sarrera
0. S	Sarrera nagusia
	Onkologiako tratamenduetarako sarbidea
1. S	Larrialdietako 1. itxarongela
	Larrialdietako 2. itxarongela
	Erradiologiako itxarongela ZIUko kanpo-kontsultak

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
2. S	Ebakuntza-geletako itxarongela Hematologiako kanpo-kontsultak
3. S	Ez dago
4. S	Igogailuen gune nagusia
5. S	Igogailuen gune nagusia
6. S	Ez dago
7. S	Ez dago
8. S	Ez dago
9. S	Ez dago
10. S	Ez dago

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Kontsulten eremua Kafetegia
0. S	Areto nagusia Tanatorioa Hemodialisien unitatea Oftamologiako unitatea Digestio-unitatea
1. S	Kardiologia-unitatea Nefrologia-unitatea Urologia-unitatea Unitate baskularra Kardiologiako, nefrologiako... unitateetarako sarbidea.
2. S	AKUko itxarongela Psikiatria-unitatea
3. S	Igogailuen gune nagusia
4. S	Ez da beharrezkoa
5. S	Ez da beharrezkoa
6. S	Igogailuen gune nagusia
7. S	Igogailuen gune nagusia
8. S	Igogailuen gune nagusia
9. S	Igogailuen gune nagusia
10. S	Igogailuen gune nagusia



Komun egokitua. Komun-zulo ezegokia eta atea barrurantz irekitzen da.



Komunerako sarbide egokitua larrialdietako itxarongelan.



Konketako osagarriak altuegi daude.



Transferentziarako tokia okupatuta egokitutako komunean. Alarmaren lokarria laburra.



Erabili gabeko alarma egokitutako komunean.

Logelak eta boxak

Ospitalean, egokitutako logelak daude unitate batzuetan. Logela zabalak dira, ohearen albo banatan transferentzia egiteko, bira egin ahal izateko eta gurpildun aulkia logelan eduki ahal izateko toki nahikoa dutenak. Logelako logelak irisgarritasun-gabezia arinak dauzka; hala nola, dutxako txorrotten eta heldulekuen egoera.

Logela orokorren espazioa oso txikia da. Batzuek ez daukate dutxarrik barrualdean; beraz, guztiontzako komunak jarri dira ospitaleratze-guneko korridorean. Hala ere, solairu batzuetako logeletan egokitutako komunak daudela egiaztatu dugu.

Larrialdietako logeletan ez dago komun irisgarririk. Logelaren azalera txikia da, eta barrualdean dauden gehiegizko altzariek eragotzi egiten dute ohearen alboraino joatea.

Aztertutako **boxen** eremuan behar besteko lekua dago oheetara eta besaulkietara transferentzia egiteko, eta, box txikiak ikusi badira ere, unitate gehienetan handiagoak daude. Komun egokitua daukate unitatean.


Oro har, ospitaleratze-guneko itxarongelak eta egongelak gurpildun aulkia erabiltzen duten pertsonen gordetako espazioak dauzkate, baina ez daude seinaleztatuta.

Ospitalean garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Egokitutako guztiontzako komuna ospitaleratze-unitatean.



Egokitutako guztiontzako komuna ospitaleratze-unitatean. Komun egokiturik gabe.



Boxean transferentzia egiteko toki oso justua gurpildun aulkiarekin egoteko.



Boxetan, komuneko atearantz irekitzen dira.



Ospitaleratze-guneko komun lagunduaren egoera.



Beste gela batzuk

Kafetegia

Sartzeko ate automatikoak ez dauka araudian ezarritako zabalera, ez eta seinaleztapen-banda egokirik ere.

Kafetegiko mostradoreak neurri egokiak dauzka gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil dezaten.

Kafetegiko arreta-zerbitzua autozerbitzu motakoa da. Zerbitzu mota horrek ez die kafetegia modu autonomoan erabiltzen uzten gurpildun aulkien erabiltzaileei.

Altzarien banaketa eta kolorea ez dira egokiak. Altzarien banaketak mostradoreira iristeko bi korridore mugatzen ditu, eta horietako batean ezin da bira egin. Altzarien kolorea eta trenkada-multzoaren kolorea berbera dira; ondorioz, ikusmen-urritasuna dutenek ezin ditzakete bereizi.

Mostradorearen korridorean bira egin daiteke, baldin eta kafetegian jendetzarik ez badago.

Mahaien neurria egokia da.

Kafetegiak komunak dauzka bere instalazioetan; horietako batek irisgarritasunaren nazioarteko sinboloa dauka, baina horren ezaugarriak ez dira batere irisgarriak.

Jantokiak

Jantokia psikiatria-unitateko pazienteek bakarrik erabil dezakete.

Jantokiko sarrera eta altzarien antolaketa eta ezaugarriak egokiak dira.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaile guztiak ez dira irisgarriak.

Areto nagusia

Eraikin nagusiarri eratzkitako eraikin batean dago areto nagusia.

Areto nagusiko sarrera nagusiak eskailerak dauzka, arrapala alternatiborik gabe; beraz, araudian ezarritako zabalera ez duen alboko ate batetik sartu behar dira gurpildun aulkien erabiltzaileak.

Areto nagusian ezinduei gordetako tokia lehenengo lerroan dago, hizlariengandik oso hurbil. Oholtzara igotzeko, malda oso handia duen eta eskubandarik ez duen arrapala dago.

Areto nagusiko bigarren solairura sartzeko barrualdeko eskailerak daude, eta, alternatiba gisara, arrapala dago eraikinaren kanpoaldean; arrapalaren ezaugarriak guztiz ezegokiak dira.

Areto nagusiko eraikinean komunak daude, baina bat bera ere ez dago egokituta. Eraikin nagusiko sarrera nagusian daude ezinduei gordetako komun hurbilenak.

Kapera

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Altzarien banaketak ez du ahalbidetzen espazioa erabiltzea.

Ez dago gurpildun aulkian doazen pertsonentzat gordetako espaziorik.

Tanatorioa

Tanatoriora kanpoaldetik sartzen da.

Ospitaleko behe-solairuan dago; beraz, malda handia duen aldapa jaitsi behar da bertara sartzeko. Ibilgailuen zirkulazioa duen sarrera da, eta ez dago araudian ezarritako zabalera duen espaloirik.

Tanatoriora sartzeko ateak, gaubeiletako ateez bezalaxe, ez dauka araudian ezarritako zabalera.

Gaubeiletako barrualdeko espazioak bira egitea ahalbidetzen du.

Itxarongelan komunak daude, baina bat bera ere ez dago egokituta. Sarrera nagusian dago ezinduei gordetako komun hurbilena.



Kafetegia. Sartzeko ateak zabalera ezegokia dauka.



Kafetegiko sarrerak. "Ustezko" komun egokitua.



Areto nagusia. Malda malkartsuko arrapala.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitaleko sarreretarainoko ibilbideak egokitu beharko dira.
- Eskailera aldatu behar dira, edo ZIU-AKUko unitateranzko ibilbidean dauden larrialdietako eskaileren azpiko pasabidea kendu.

- Ospitaleko sarreraren norabidezko seinaleztapena jarri behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkaleku berriak jarri behar dira, eta sarrera nagusietara lekualdatu daudenak.
- Nahitaez, ibilbide irisgarria eraiki beharko da gordetako aparkalekuetatik sarreretaraino.

Sarbideak eta itxarongelak

- Nahitaez jarri behar dira seinaleztapen-banda egokiak beirazko ate eta trenkadetan.
- Sarbide guztietan lanpas finakoak jarri behar dira.
- Zoladura irristakorrentzako tratamendu egokia eman behar da ospitaleko sarreretan.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Digestio- eta oftalmologia-eremuetako itxarongelak handitu behar dira.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongelatan. Erdiko mahaiak kendu behar dira.
- Korridore estuetan kokatutako itxarongelak kendu behar dira.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten ateak ordezkatu beharko dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Kontsultetako altzariak berrantolatu behar dira, horietan ezin bada bira egin.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordeiz.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako logelen ezaugarriak berrikusi behar dira.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.
- Garabiak eta baskulak erosi behar dira gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.

Beste gela batzuk

- Altzariak aldatzea edo kafetegiko trenkaden kolorea aldatzea proposatzen da.
- Ezinduei gordetako komuna eraiki behar da kafetegiko instalazioetan.
- Korridoreak eta mostradorearen eremua handitu behar dira.
- Kafetegian, beste alternatiba bat eman behar zaio "autozerbitzuari", edo, bestela, deitzeko botoi irisgarria jarri behar da, jatekoa modu autonomoan hartu ezin dezaketeinei arreta emateko. Kasu horretan, laguntza mota hori eskaini beharko luke kafetegiak.
- Areto nagusiaren eraikina egokitu behar da.
- Kapera egokitu behar da.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

3.6. Gernika-Lumoko Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Sarrera nagusiko zebraideak farolak eta zuhaitzak dauzka ibilbidean, pasabidea oztopatuz. Ospitaleko arkupeetara iristeko arrapala dago. Testuradun lauzekin seinaleztatu da arrapala ibilbide osoan; hala ere, sarrera nagusitik ospitalera dagoen sarbidea seinaleztatzea praktika ona bada ere, testuradun lauzak gaizki erabilia dago; izan ere, arrapalaren sarbidean bakarrik jarri beharko litzateke, eta ez azalera osoan. Bestetik, kaleko bankuek ez daukate ez beso-euskarrik, ez bizkarralderik.



Zebraide batek oztopoak dauzka ibilbidean.



Arrapala sarrera nagusian. Seinaleztapenez zoladura ezegokia.

Aparkatzea

- Kanpoko aparkalekua

Ezinduei gordetako aparkalekuak ez dauka seinaleztapen bertikalik.

Kanpoaldeko aparkalekuko toki horretaz gain, ezinduei gordetako beste bi toki daude larrialdietako sarreran. Hala ere, beste bat jarri behar da kanpoko aparkalekuan, gutxienez egon behar den kopurua betetzeko.

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrera nagusiko itxitura koloreztatutako beirazkoa da; alabaina, koloreztatua izan arren, seinaleztapen-bandak jarri behar dira.

Sarrera nagusiko egongelan ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.

Aparkalekutik kanpo-kontsultetara sartzeko ateez ez daukate seinaleztapen-bandarik.

Eremu horretako itxarongelek behar besteko tokia dute gurpildun aulkien erabiltzaileentzat, baina ez daukate seinaleztapenik.

Larrialdiak

Larrialdietako sarrera nagusiko kristalezko ateez seinaleztapen-bandak dauzkate, baina ez daukate kontrasterik; beraz, ez dira behar bezala bereizten. Gainera, itxitura ere beirazkoa denez, seinaleztapen-bandak jarri behar dira itxitura horietan ere, kristalen aurka talka egitea eragin dezakete-eta.

Larrialdietako itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik.



Beirazko itxitura seinaleztapen-bandarik gabe.



Itxarongelak ez dauka tokirik gurpildun aulkien erabiltzaileentzat, eta telefonoa iristezina da.



Sartzeko ateez ez dauzka seinaleztapen-bandak egokiak.



Larrialdietako itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileentzako tokirik, ez eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserleku egokirik ere.

Kontsultak

Erradiologiako gelek ez daukate aldagela egokiturik. Kontsulta gehienek leku nahikoa daukate barrualdean, ateen igarobide-zabalera libre egokia daukate eta esku-ohetik gailu elektrikoa daukate altuera aldatu ahal izateko.

Larrialdiak

Larrialdietako kontsultek ez daukate maniobra egiteko leku nahikoa barrualdean, sendaketa-geletan izan ezik.

Errehabilitazioa

Gimnasioko errehabilitazio-gunea egokia da. Tratamendue-tarako kabinetan, transferentzia egin daiteke esku-ohetaren albo batetik, eta esku-ohetik gehienak altuak eta finkoak dira. Ez dago ekipamendu espezifikorik mugikortasun urriko pertsonentzat. Aldagela irisgarri eta egokitua ditu.



Erradiologiako aldagela mota. Iristezina.



Toki murriztua larrialdietako kontsultetan.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Oro har, aztertutako komun batzuen azalera ezegokia dela esan dezakegu, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin baitezakete bira egin barrualdean.

Errehabilitazioko itxarongelako komunak ez dauka transferentzia egiteko tokirik, eta ez dauzka helduleku finkoak bi alboetan.

Hainbat gabezia ikusi dira; hala nola, alarmen eta konketen osagarrien kokalekua, altuegi jarrita baitaude; konketak oso txikiak dira eta ez daukate hurbiltzeko hondorik; haurtxoak aldatzeko tokia iristezina da eta abar.

Larrialdietako pediatria-guneko itxarongelan ezinduei gordetako komunak jarri behar dira.

Duela gutxi eraikitako ospitalea izateko, harrigarria da sexuen arabera bereizitako komun egokiturik ez egotea (bana, sexu bakoitzeko).

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Erradiologiako itxarongela (eskasa)
	Errehabilitazioko itxarongela (eskasa)
	Larrialdi-unitateko helduen itxarongela
1. S	Kontsulten korridorea larrialdi-unitatean
	Senideentzako itxarongela
2. S	Harrera-guneko itxarongela
	Kanpo-kontsultetako itxarongela

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Larrialdi-unitateko pediatriako itxarongela



Ezinduei gordetako komuna. Komun-zuloa, alarma eta eskuak lehertzeko papera altuera ezegokian.



Ezinduei gordetako komuna. Hondo egokirik gabeko konketa.



Ezinduei gordetako komuna. Bira egiteko espazioa ez da nahikoa.

Ezinduei gordetako komuna. Ez dago transferentzia egiteko tokirik albo batean ere ez.



Logelak eta boxak

Ospitaleak ez dauka ospitaleratze-oharik.

Kirurgia-box anbulatorioen unitatean, esku-oheen eremuko transferentzia-tokia oso murrizta da, eta, gehienetan, ezin daiteke transferentzia egin gurgildun aulkitik. Gela berean, ordea, besaulkiek duten tokia egokia da.

Unitateak ezinduei gordetako komun bat dauka, baina irisgarritasun-gabeziak dauzka; hala nola, komuneko atea barrurantz irekitzen da, eta dutxak, manpara finkoa edukitzeaz gain, koska dauka sarbidean. Oztopo handiak dira horiek gurgildun aulkien erabiltzaileentzat.

Larrialdietako behaketa-unitateko boxen eremua egokia da, eta esku-ohetik behar besteko lekua daukate transferentzia egiteko, ohearen albo batean. Unitateak komun irisgarria dauka, zenbait gabezia dituen arren; adibidez, heldulekuak falta dira komun-zuloan eta dutxan, eta osagarriak altu jarrita daude.

Garabiak ikusi dira, baina ez osasun-zentroko unitate edo eremu guztietarako adina.

Transferentzia egiteko leku egokia kirurgia-box anbulatorioan.



Transferentzia egiteko leku ezegokia kirurgia-box anbulatorioan.



Gordetako komunak ez dauka heldulekurik. Larrialdietako behaketa-boxak.



Beste gela batzuk

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak iristezinak dira.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Zebrabideko oztopoak kendu beharko dira.
- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Aparkalekuen sarbideak seinaleztatu behar dira.
- Ezinduei gordetako aparkalekuetan, seinaleztapen egokia jarri behar da.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan, baita itxituretan ere.
- Egokitutako harrera-mahaietako oztopoak kendu beharko dira.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Larrialdietako kontsultetako altzariak berrantolatu behar dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-ohetik jarri behar dira esku-ohetik finkoen orde.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Kirurgia-box anbulatorioen eta larrialdietako boxen irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da; baita unitateetako komunetan ere.
- Ospitaleak ez dauka logelarik, eta azken solairua ez da erabiltzen. Logelak eraikitzearen alde egingo balitz, egokia litzateke logela egokituak egitea, Debagoieneko ospitaleko eraikin berrian egin den bezalaxe.

Beste gela batzuk

- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

3.7. Gorlizko Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Ospitale-esparruko kanpoaldean, oztopoak ikusi dira oinezkoentzako bidean. Bada, adieraz dezakegu zebrabideek maila daukatela, eta ez daukatela ukipenezko seinaleztapen-zerrendarik.

Ospitale-esparrurako sarbidean kontrola dago. Jendeari arreta emateko leihatila dauka, baina iristezina da.

Hondartzarako sarbidea eraikin nagusiaren albo batean dago. Oso narriatuta dago, eta ez dauka eskubandarik bi aldeetan, ezta altuera bikoitzik ere.

Eraikinen arteko ibilbideak edo kanpoaldeko egongelak irisgarriak dira, baina banku batzuk daude oztopo eginez. Gainera, banku batzuek ez daukate beso-euskarririk.

Kafetegiko sarrera batek mailak dauzka.



Zebrabidea ukipen-seinaleztapenik gabe.



Hondartzarako sarbidea. Zoladura narriatuta, eskubandarik gabe bi aldeetan.

Aparkatzea

■ Sarbidea

- Ezinduei gordetako aparkalekuek ez daukate seinaleztapen bertikalik.
- Ezinduei gordetako aparkalekuetatik sarrera nagusira joateko ibilbideko zoladurak irtenguneak dauzka, estropezu egitea eraginez.

■ Ospitale-esparruaren kanpoaldea

Ospitalearen kanpoaldean ezinduei gordetako hiru aparkaleku daude; hala ere, beste bat jarri beharko litzateke

ospitale-esparruko sarrera nagusitik hurbil, ez baitago bat bera ere eremu horretan.



Ibilbideak narriok dauzka sarrera nagusirako sarbidean.



Gordetako aparkalekua seinaleztapen bertikalik gabe.



Gordetako aparkalekuak gaizki mugatuta daude, eta ez daukate seinaleztapen bertikalik.

Sarbideak eta itxarongelak

Ospitaleko sarrerako ateek ez daukate seinaleztapen-bandarik, harrera-guneko **harrera-mahaiak** ez daukate zonalde irisgarririk, eta sarrera nagusiko lanpasa ez da finkoa, estropezu egitea eraginez.

Igerilekuaren eraikinera sartzeko, arrapala bat dago, baina eskubanda ez dago altuera bikoitzean eta bi aldeetan.

Itxarongela gehienetan, ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuri egokirik ere. Gainera, itxarongela batzuetan, altuera ezegokia duten mahaiak daude.

Sarrera nagusiko itxarongelako eserlekuak oso baxuak dira (36 cm-ko altuera dute).



Sartzeko atek ez dauzka seinaleztapen-bandak.

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

Sarrera nagusiko harrera-mahaiak ez dauka zonalde irisgarririk.



Behe-solairuko kontsultetan, sarrerako atearik ez dauka zabalera nahikoa.



Igerilekurako sarbideak ez dauka altuera bikoitzeko eskubandarik, eta ez daude bi aldeetan.



Igerilekuaren eremuan, gabeziak ezinduei gordetako komunetan.



Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako lekurik.



Igerilekuan, aldageletarako sarrera irisgarria.



Kontsultak

Erradiologiako kontsultak ez dauka aldagela irisgarririk.

Behe solairuko kontsultetako sarrerako atearik ez daukate igarobide-zabalera libre egokia, eta horien barrualdeko espazioak ez die bira egitea ahalbidetzen gurpildun aulkien erabiltzaileei.

Errehabilitazioa: Errehabilitazio-gunea egokia da. Tratamenduetarako kabinetan, transferentzia egin daiteke esku-oherean albo batetik. Oro har, esku-oherean altuera elektrikoki alda daiteke. Ekipamendu egokia dago mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil dezaten. Errehabilitaziorako gimnasioaren eremuak ez dauka aldagelarik. Igerilekuaren unitateak aldagela irisgarria dauka, baina gabezia batzuk dauka.

Makineria egokia mugikortasun urriko pertsonentzat.



Gune komunen ezinduei gordetako komunak

Ospitalean ezinduei gordetako komunek zenbait gabezia daukate; izan ere, heldulekuak ez dira egokiak urritasunen bat duten pertsonen autonomoki erabil ditzaten. Horietako batean, barra bertikala dago komun-zuloaren albo batean. Kasu horietan, barra eraisgarria jarri behar da.

ERAIKIN NAGUSIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Sarrera nagusia Erradiologiako itxarongela
1. S	Ez dago guztiontzako komunik
2. S	Unitate nagusiko gimnasioko korridorea
3. S	Ospitaleratze-unitatea

KAFETEGIKO ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Kanpo-kontsultetako itxarongela

KAFETEGIKO ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Komunak



Helduleku ezegokiak ezinduei gordetako komunean.



Egokitu gabeko komuna behe-solairuko kontsultetan.

Logelak eta boxak

Ospitaleko logela guztiak dira irisgarriak. Birgaitu ez diren logelek behar besteko lekua dute transferentzia egiteko, bira egiteko eta gurpildun aulkia logelan edukitzeko. Logela horietako komunek behar besteko lekua daukate, baina zenbait gabezia dituzte; hala nola, hauek: komun batzuetako konketen altuera, konketako osagarriak gehiegizko altueran, helduleku ezegokiak eta abar.

Birgaitutako logelak egokiak dira; behar besteko tokia dute transferentzia ohearen bi alboetan egiteko, bira emateko eta gurpildun aulkia logelan edukitzeko. Birgaitutako logeletako komunek behar besteko lekua daukate, baina zenbait gabezia dituzte; hala nola, hauek: komun batzuetako konketen altuera, konketako osagarriak gehiegizko altueran, elementuren batek hartzen du transferentziarako tokia, komun-zulo baxuak eta abar.

Lekualdaketak egiteko garabi nahikoak daude.



Logelako komuna. Konketako osagarriak altuegi daude. Apalek konketara hurbiltzea galarazten dute.



Logeletan, leihoak irekitzeko sistema altuera irisgarrian.



Logelako komuna. Helduleku ezegokiak.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Eratxikitako eraikinaren behe-solairuan dago.

Bertara sartzeko atea neurri egokiak dauzka, baina ez dauzka seinaleztapen-bandak.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik.

Altzariak egoki antolatuta daude, eta mahaiek ezaugarri egokiak daukate. Edariak barran zerbitzatzen dira, eta menuak mahaietan.

Kafetegian heldulekuak dituen komuna dago, baina horren ezaugarriak oso urrun daude irisgarriak izatetik.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak iristezinak dira.

Areto nagusia

Areto nagusirako sarbidea irisgarria da. Ez dago ezinduei gordetako eremurik, baina gurpildun aulkien erabiltzaileentzako tokia dago. Oholtzak koska dauka, arrapalarik gabe.



Kafetegia. Sartzeko atea ez dauzka seinaleztapen-bandak.



Areto nagusia.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.
- Sarrerako kontroleko leihatila egokitu behar da.
- Kafetegira sartzeko oinezkoentzako ibilbidetik koska kendu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuetan, seinaleztapen egokia jarri behar da.
- Ezinduei gordetako aparkalekuetatik sarrera nagusirako bidea egokitu behar da.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan, baita itxiturretan ere.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.
- Igerilekuaren eraikinerako sarbidea egokitu behar da.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten atean ordezkatu beharko dira.
- Behe-solairuko kontsultetako altzariak berrantolatu behar dira, bira egitea oztopatzen baitute.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Egokitutako aldagelak egokitu behar dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu beharko da.

- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

- Areto nagusia egokitu behar da.

3.8. Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Ospitalearen inguruak zenbait gabezia dauzka irisgarritasunaren arloan; Arresi kaleko zebrabideak eta Tonpoi bideak koska daukate sarbidean, eta oinezkoentzako pasabideak gaizki jarrita daude. Bada, Arresi kaleko zoladura eta Tonpoi bidea oso narriatuta daude, eta kale horietako seinaleztapena ez da egokia; batez ere, Tonpoi bide osoan, ez baita ikusten ospitaleko sarrera adierazten duen kartela.

Ospitale-esparrura sartzeko altzairuzko ate bat dago, araudian ezarritako zabalera ez duena. Ospitale-esparrura sarbidea ematen duen atetik eraikineko sarrera nagusira arteko ibilbidea aparkalekutik igarotzen da.

Pazienteek gozatzeko dauden lorategiz hornitutako patioak edo eremuak ez dira irisgarriak. Leku horietako zoladurak irtegunek eta narriak dauzka. Lorategiz hornitutako hainbat tokik mahaiak eta aulkiak dauzkate, baina ez dago horietara iristeko ibilbide irisgarririk.



Tonpoi kalerako sarbidean zebrabidea.



Tonpoi kalerako sarbidean zebrabidea.



Sarrera nagusira iristeko ibilbidea.



Lorategiko egongelarako sarbidea. Narriak ibilbidean.



Egongela lorategian, ibilbide irisgarririk gabe.



Egoitzara iristeko arrapala. Arrapalaren ezaugarriak ez dira egokiak.



Egoitzara sartzeko atea. Ateak zabalera ezegokia dauka, eta arrapalak gehiegizko malda.

Aparkatzea

■ Sarbidea

Ezinduei gordetako aparkalekuak ez dauzka neurri egokiak, ezta seinaleztapen bertikala ere.



Erreserbatutako aparkalekua. Seinaleztapen bertikala falta da.

Sarbideak eta itzarongelak

Sarrera nagusiak ate bikoitza dauka sarreran; lehenengoa automatikoa da, beirazkoa eta seinaleztapen-bandarik gabea, bestea, berriz, orri bikoitzekoa da, igarobide-zabalera libre ezegokia duena lehenengo irekitzen den atean.

Pazienteentzako lorategietara edo zonaldeetara iristeko sarbideen multzoa eskasa da; izan ere, ateen zabalera estua daukate, arrapalak malda ezegokia daukate, arrapalarik gabeko eskailerak daude, seinaleztapena falta da eta eskubandak oso narriatuta daude.



4. errehabilitazio-unitatera sartzeko atea. Koska atearen markoan, eta atearen zabalera ezegokia da.



Bertara sartzeko, orri biko atea dago, zabalera ezegokia duena lehenengo irekitzen den orrian.

Kontsultak

Mediku-kontsultara sartzeko ateen 60 cm-ko igarobide librea dauka soilik, esku-oharen altuera finkoa da eta mahaiak ez dauka behealdeko hondo egokia. Pazienteen arretarako zerbitzuaren bulegora sartzeko lehenengo ateen 62 cm-ko igarobide librea dauka soilik.

Oro har, kontsulten edo erabilera anitzeko aretoen barrualdeko espazioak ez dauka bira egiteko behar den lekua. Kontsulten edo eremuen arteko ibilbidean dauden orri bikoitzeko ateen askok ez daukate igarobide-zabalera librea lehenengo irekitzen den atean. "Sukaldaritza-tailerreko" sukaldeak koska dauka sarbidean, eta altzariak ez daude egokituta.

Errehabilitazioa: Ospitalean errehabilitaziorako erabiltzen ez den gimnasioa dago, bizikleta estatikoak bakarrik baitaude, gela txiki batean, gurgildun aulkien erabiltzaileek transferentzia edo bira egiteko lekurik gabe. Ez dago ekipamendu egokirik mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil dezaten. Komuna ez da irisgarria.

Erabilera anitzeko kontsultaren barrualdeko espazioa ez da nahikoa.



Irtenguneak oinezkoentzako bidean.



Koska sukaldeko sarreran.



Kafetegian sarbide irisgarria.



Konketako osagarriak altuegi daude.



Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Gune komunean ezinduei gordetako komun bakarra aztertu da. Kafetegian dago, eta gabezia asko dauzka: konketak ez dauka hondo egokia, ispilua altu dago eta abar. Egokitutako

beste komun bat aztertu da, baina, ospitaleratze-gunean dagoenez, lagundutako komuntzat edo logelako komuntzat jotzen da.

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Senideentzako itxarongela
1. S	Jantokia, 3. errehabilitazio-unitatea
2. S	Gimnasioaren eremua, 2. errehabilitazio-unitatea

Logelak eta boxak

Ospitaleak ez dauka ondo egokitutako logelarik: logela gehienek edo ez daukate nahikoa leku barrualdean, edo logelako komuna guztiz iristezina da. Lagundutako komunek ere gabezia asko dauzkate.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Sartzeko ateak ez dauka igarobide-zabalera libre egokia.



Logelan komun berritua. Irisgarritasun-arazo batzuk dauzka.



Logelan komun berritua.





Egokitzapen urria logelako komunean.



Lagundutako komuna. Ez dauka heldulekurik, ezta transferentzia egiteko toki egokirik ere.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Eratxikitako eraikinaren behe-solairuan dago.

Eratxikitako eraikineko arkupeetatik sartzen da. Arkupeetako zoladura irristakorra da.

Ibilbidean eskailerak daude. Arrapala alternatiboa daukate, baina malda handia dauka, eta ez dauka altuera bikoitzeko eskubandarik.

Kafetegira sartzeko atea ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik.

Altzariak egoki antolatuta daude, eta mahaiek neurri egokiak daukate. Altzariak plastikozkoak dira. Horrek arriskua ekar diezaike mugikortasun murriztua duten pertsoneri, altxatzeko bertan bermatzen badira.

Edariak barran zerbitzatzen dira.

Kafetegia ezinduei gordetako komuna dauka hurbil, baina gabezia batzuk dauka.

Aztertu diren jantoki espezifikoetara iristeko ibilbideetako ateek ez daukate araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Egoitzako jantokiak konketa bat dauka pazienteen higienarako, baina konketarako sarbidea nahiz konketa bera ez dira irisgarriak.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak iristezinak dira.

Areto nagusia

Mugikortasun murriztua duten pertsonak ezaugarri ezegokiak dituen igogailu batean iritsi behar dira areto nagusira.

Ibilbideko ateek ez daukate araudian ezarritako zabalera, eta araudian onartzen den gutxieneko altuera ez duten eremuak edo pasabideak daude ibilbidean.

Barrualdeko espazioak erabilera autonomoa egitea ahalbidetzen die gurgildun aukietan doazen pertsoneri.



Kafetegia. Altzarien materiala ezegokia da, baina horien antolaketa egokia da.



Jantokia. Altzari finkoak.



Jantokia. Konketa zonaldea eta konketa bera iristezinak.



Areto nagusia.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalerainoko kanpo-ibilbideak egokitu beharko dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.
- Ospitale-esparrura sartzeko atea ordezkatu behar da, eta sarreretarainoko barne-ibilbideak egokitu behar dira.
- Nahitaez, ospitale-esparruaren barrualdetik eraikin nagusira iristeko sarbide guztiak egokitu behar dira.
- Pazienteentzako lorategiak egokitu behar dira.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuetan, seinaleztapen egokia jarri behar da.
- Ezinduei gordetako aparkalekua egokitu behar da.

Sarbideak eta itzarongelak

- Ospitaleko sarrera guztiak egokitu behar dira, guztiek dauzkatelako irisgarritasun-gabezia handiak.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten atea ordezkatu beharko dira.
- Altzariak egokitu behar dira.
- Kontsultetako altzariak birbanatu behar dira, gehienetan ezin baita bira egin.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten atea aldatu behar dira.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu beharko da, eta horri eratzkitako komunaren ezaugarriak hobetu.
- Pazienteen jantokiak egokitu behar dira.
- Pazienteentzako sukaldia dagoen aretorako sarbideko koska kendu behar da, eta, gainera, sukaldako altzariak egokitu behar dira.
- Areto nagusira iristeko ibilbidean igarobide-zabalera libre ezegokia duten atea ordezkatu behar dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

3.9. Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoa

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Ospitale-esparruaren kanpoaldean, esparruarekin komunikatu den espaloiak ez dauka zabalera egokia.

Ospitalearen barrualdeko esparrura iristeko burdin sarea duen metalezko atea dago, koska bat daukana. Beraz, mugikortasun murriztua duten pertsonak ibilgailuen ibilbide berretik sartu behar dira esparrura.

Esparruaren barrualdea ere guztiz iristezina da. Gurpildun aulkien erabiltzaileak ezin daitezke sarrera nagusitik eraikin gorrira sartu (Zamudioko ospitale psikiatrikoko eraikin gorriren erreplika da), eta errepidea da koskarik gabeko ibilbide bakarra; alabaina, malda ezegokiak dauzka.



Esparrura sartzeko atea. Koska oinezkoentzako sarreran.



Bertara iristeko espaloiak ez dauka behegarunerik.



1., 2. eta 3. ULE eraikinetara iristeko espaloiak ez dauka behegarunerik.

Aparkatzea

■ Sarrera nagusia

- Ospitale-esparruaren barrualdean ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik.
- Gutxienez, ezinduei gordetako hiru aparkaleku jarri behar dira sarrera nagusietatik hurbil.

Sarbideak eta itzarongelak

Sarrera nagusira 1. eraikinetik sartzeko sarrerak arrapala alternatiborik gabeko koska dauka, eta sarrerako atea 63 cm-ko igarobide-zabalera librea dauka soilik (oso estua). Sarrera guztietako harrera-mahaiek ez daukate zonalde irisgarririk, eta lanpasak ez dira finkoak, estropezu egitea eraginez.

Eraikin gorriko sarrera nagusira sartzeko, arrapala alternatiborik gabeko eskailera dago. Eraikinaren atzealdean, beste sarrera bat dago, koskarik ez duena, baina malda handia dauka eta ez dauka seinaleztapenik. Gainera, arrapala duen sarrerako ateak ez dauka araudian ezartzen den zabalera.

Egongelek ez daukate ezinduei gordetako tokirik gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.



1. eraikineko sarrera nagusia. Arrapala alternatiborik gabeko koska.



Eraikin gorriko sarrera nagusia. Arrapala alternatiborik gabeko eskailerak.



Atzealdetik eraikin gorriara iristeko sarbidea. Gehiegizko malda duen arrapala, barandarik gabekoa.

Kontsultak

Eraikin gorriko mediku-kontsultek ate estuak dauzkate, 66 cm-ko zabalera daukate igarobide libreek, mahaiek ez daukate hondorik eta barrualdeko espazioa murrizta da batzuetan.

ULE eraikineko onarpen-gunetik hurbil dauden kontsultak guztiz iristezinak dira: horietara iristeko korridoreak ez die bira egiten uzten gurpildun aulkien erabiltzaileei, estuguneak daude, kontsultetara sartzeko ateek zabalera libre ezegokia daukate eta kontsuluten barrualdeko lekua txikia da. 2. eraikineko terapia-gelek komuna daukate, baina bat bera ere ez da irisgarria.

1. eraikineko sarreratik hurbil dauden kontsultetara iristeko korridorean ezin daiteke bira eman. Gainera, korridorera iristeko atea estua da, 62 cm-ko igarobide librea baitauka soilik.

Tutoretzen bulegoak ez dauka egokitutako harrera-mahaia.



Mediku-kontsultara sartzeko atea estua da, 66 cm-koa bakarrik.



Gurpildun aulkien erabiltzaileei ez zaie uzten mahai nagusira iristen.



Tutoretzen bulegoan egokitu gabeko harrera-mahaia. Gurpildun aulkian doazen pertsonentzako espazio txikia.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Gune komunean ezinduei gordetako komun bakarra aztertu da (1. eraikineko senideen itxarongelako komuna da), baina beste gune batzuetan dauden komun erreserbatuak aztertu dira; hala nola, terapia-gelen barrukoak eta erabilera anitzeko geletakoak. Aztertutako komunak irisgarritasun-gabezia asko dauzka: komuneko atea barrurantz irekitzen da, komun-zuloaren altuera ez da egokia, ez dago heldulekurik eta konketak oinarria dauka.

1., 2. eta 3. ERAIKINETAKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Senideentzako itxarongela
1. S	Ez dago
2. S	Ez da aztertu

ULE ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago guztiontzako komunik
2. S	Ez dago guztiontzako komunik

ERAIKIN GORRIKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago

ERAIKIN GORRIKO EZINDUEN KOMUNAK

1. S	Ez dago guztiontzako komunik
------	------------------------------

1., 2. eta 3. ERAIKINETAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	1. eraikineko sarrera nagusiko korridorea
1. S	Gune komuna
2. S	Ez da aztertu

ULE ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Erdiguneko korridorea
1. S	Ez da beharrezkoa
2. S	Ez da beharrezkoa

ERAIKIN GORRIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Gune komuna
1. S	Ez da beharrezkoa

KANPOALDEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Komun publikoak

Komunaren azalera egokia da, komun-zuloa baxu dago, eta ez dauka laguntza teknikorik.



Konketak oinarria dauka eta ispilua altu dago.



Komuneko atea barrurantz irekitzen da.



Logelak eta boxak

ULE eraikinak egokitutako logelak dauzka, baina zenbait gabezia dauzkate; hala nola, logelara sartzeko atearen igarobide-zabalera librea eta konketako osagarrien altuera. Logelako azalera oherako transferentzia egitea ahalbidetzen du, eta bira egiteko zein gurgildun aulkia logelan edukitzeko adina toki dago logelaren barrualdean.

Eraikin gorriak ez dauka logela egokiturik. 2. eraikineko logelek transferentzia egiteko toki nahikoa daukate ohearen albo batean, baina gurgildun aulkia logelaren barrualdean edukitzeko lekua ere; hala ere, logeletara sartzeko ateez ez daukate igarobide-zabalera libre egokia, eta komuna ez da irisgarria. Lagundutako komunak daude 2. eraikinean, baina gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin ditzakete modu autonomoan erabili.

Mugitzeko garabi nahikoak ikusi dira ospitalean.

ULE eraikinean, logelan transferentzia egiteko nahikoa leku.



ULE eraikinean, komun irisgarria logelan.



3. eraikinean, komuna logelan.



Eraikin gorrian, komuna logelan.



Beste gela batzuk

Kafetegia

1. eraikinaren behe-solairuan dago.

Gehiegizko malda duen arrapala dago barrualdetik sartzeko sarbidean.

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Kanpoaldetik sartzeko, zabalera libre egokia duen ate bat dago, baina arrapala alternatiborik ez duen koska dago.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik.

Altzariak egoki antolatuta daude, eta mahaiek neurri egokiak dauzkate. Edariak barran zerbitzatzen dira.

Kafetegiak komunak dauzka hurbil, baina, zoritxarrez, bat bera ere ez dago egokituta.

Pazienteentzako jantoki espezifikoetara sartzeko ateek ez daukate araudian ezarritako zabalera librea; dena dela, guztietara sar daiteke, eraikin gorriko jantokira izan ezik, ateek igarobide-zabalera libre ezegokia dute-eta. Altzarien banaketa eta ezaugarriak egokiak dira, ULE eraikineko behe-solairuko jantokiko mahaianak salbu, araudian ezarritakoa baino altuera txikiagoa baitute. Aztertu diren jantoki guztiek dauzkate komunak hurbil, baina bat bera ere ez dago ezinduei gordeta.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak ez dira irisgarriak.



Kafetegia. Malda malkartsuko arrapala.



Jantokia. Mahaian neurriak ezegokiak.



Areto nagusia.

Areto nagusia

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Altzarien banaketak espazioa erabiltzea ahalbidetzen du. Ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako eremurik. Dena dela, aulkiak finkoak ez direnez, erraz mugi daitezke.

Oholtzarako igoeran koska bat dago, eta ez dago arrapala alternatiborik. Oholtzako mahaia ez dauzka neurri egokiak.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalerainoko kanpo-ibilbideak egokitu beharko dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.
- Ospitale-esparrura sartzeko ateko koska kendu behar da, eta sarreretarainoko barne-ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdetik eraikin nagusira iristeko sarbide guztiak egokitu behar dira.
- Lorategiak egokitu behar dira, baita pazienteak horietara sartzeko ibilbideak ere.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako hiru aparkaleku jarri behar dira.

Sarbideak eta itzarongelak

- Ospitaleko sarrera guztiak egokitu behar dira, guztiek dauzkatelako irisgarritasun-gabezia handiak.
- Dauden harrera-mahaia egokitu beharko dira, eta harrera-mahai egokituak jarri hala behar duten espazioetan.
- Itzarongeletan, gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokiak jarri behar dira.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten ateek ordezkatu beharko dira.
- Altzariak egokitu behar dira.
- Kontsultetako altzariak birbanatu behar dira, bira egitea oztopatzen dute-eta.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten ateek aldatu behar dira.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Nahitaez, kafetegia egokitu behar da.
- Pazienteen jantokiak egokitu behar dira.
- Areto nagusira iristeko ibilbidean igarobide-zabalera libre ezegokia duten ateak ordezkatu behar dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

3.10. Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Ospitale-esparruaren kanpoaldean, koska duen pasabidea dago, eta zebrabideek ez daukate oinez hautemateko seinaleztapen-zerrendak, beharrezkoak horiek.

Ospitale-esparrura sartzeko, burdin sarea duen metalezko atea dago, koska bat daukana. Beraz, gurgildun aulkien erabiltzaileak ibilgailuen ibilbide berberetik sartu behar dira esparrura.

Pazienteek erabiltzeko lorategiak asfaltatutako ibilbidea dauka eraikin gorriraino. Aipatu bidearen ohiko ibilbideak eskailerak dauzka amaieran. Hala ere, koskarik gabeko ibilbidea eraiki berri dute eraikin gorriraino, baina ez dago seinaleztatuta.

Pazienteentzako seinaleztapena urria da bai ospitalearen kanpoaldean, bai lorategiz hornitutako eremuan.



Ospitale-esparrura sartzeko ateak koska.



Eskailerak eraikin gorrira sartzeko.

Aparkatzea

■ Sarrera nagusia

- Aparkalekuan, ezinduei gordetako toki bat dago, baina ez dauka seinaleztapen bertikalik.
- Ezinduei gordetako beste aparkaleku bat jarri behar da sarrera nagusitik hurbil.



Ezinduei gordetako toki aparkaleku orokorrean. Ez dauka seinaleztapen bertikalik.

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrera nagusira iristeko arrapalak gehiegizko malda dauka, sarrerako ateak ez dauka araudian ezartzen den igarobide-zabalera libre eta lanpasa ez da finkoa, estropezu egitea eraginez.

Bestetik, ibilbidean gurutzatu beharreko hurrengo ateen ere ez dute araudian ezarritako zabalera; adibidez, senideentzako itxarongelara sartzeko ateak 70 cm-ko igarobide-zabalera libre dauka soilik.

Eraikin gorriko sarrera nagusira sartzeko, arrapala alternatiborik gabeko eskailera dago. Eraikinaren atzealdean, koskarik gabeko sarrera dago; alabaina, gehiegizko malda duen arrapala dago bertara iristeko, eta ez dago inolako seinaleztapenik adierazten duenik sarrera irisgarria dela. Gainera, arrapala duen sarrerako ateak ez dauka araudian ezartzen den igarobide-zabalera libre.



Sarrera nagusira iristeko arrapala. Gehiegizko malda. Heldulekua albo batean bakarrik.



Sarrera nagusiko atea. Igarotzeko zabalera libre ezegokia.



Eraikin gorriko sarrera nagusian eskailerak. Eskailera horietan ez dago arrapala alternatiborik.

Kontsultak

Eraikin gorriko behe-solairuko mediku-kontsultako atea ez dauka beharrezko igarobide-zabalera libre. Eraikin nagusiko lehenengo solairuko kontsultetan, gurgildun aulkien erabiltzaileek ez daukate behar besteko tokirik bira egiteko; ez atearen aurreko tokian, ez geroko tokian.

Errehabilitazioa: Ospitalean gimnasio bat dago, baina ez da errehabilitaziorako erabiltzen, bizikleta estatikoak baino ez baitaude. Gimnasioaren azalera neurri egokiak dauzka. Ez dago ekipamendu egokirik mugikortasun urriko pertsonentzat. Hurbil, komun irisgarria dauka.



Eraikin nagusiko kontsulta. Barruko espazioa ez da nahikoa.



Eraikin nagusiko kontsulta. Sartzeko leku nahikorik ez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Gune komunetan, ezinduei gordetako bi komun aztertu dira, eta biek dauzkate gabeziak; besteak beste, hauek: komun-zuloen altuera, ispiuaren eta eskuak lehortzeko pape-raren altuera, konketak ez dauka hondo egokirik...

ERAIKIN NAGUSIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Erdiguneko korridorea
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago

TERAPIA-ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Erdiguneko korridorea

ERAIKIN GORRIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez da beharrezkoa
1. S	Erdiguneko korridorea
2. S	Erdiguneko korridorea

TERAPIA-ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
Ez da zertan ezinduei gordetako komunik jarri	


ERAIKIN GORRIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Gune komuna
1. S	Gune komuna

Logelak eta boxak

Ospitaleak ez dauka logela egokiturik. Oro har, logelen barrualdeko espazioa egokia da, eta transferentzia egiteko toki dago ohearen albo batean. Hala ere, logeletara sartzeko ateez igarobide-zabalera libre ezegokia daukate, ez dago bira egiteko toki nahikorik, eta, logela bikoitzetan, ez dago gurgildun aulkia edukitzeko lekurik. Era berean, ospitale-ratze-guneko komunak ez daukate inolako egokitzapenik. Lagundutako komunak daude, baina ezin daitezke modu autonomoan erabili.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Eraikin nagusiko logeletarako sarbidea.



Eraikin nagusiko logeletako komuna. Dutxa iristezina, eta komun-zuloak ez dauka transferentziarako tokirik.



Eraikin gorriko logeletako komuna.



Lagundutako komuna eraikin gorrian. Ez du erabilera autonomoa ahalbidetzen.



Ospitaleratze-guneko iturriak.



Pazienteek bakarrik erabiltzeko jantokia.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Terapia-eraikinaren behe-solairuan dago.

Ate bikoitza duen ataritik sartzen da bertara, eta ateen zabalera libreak zein atariko espazioak ez dute araudian ezarritakoa betetzen.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik.

Altzariak egoki antolatuta daude, eta mahaiek neurri egokiak dauzkate. Edariak barran zerbitzatzen dira.

Kafetegiak ezinduei gordetako komun bat dauka hurbil, baina zenbait gabezia dauzka.

Aztertu diren pazienteentzako jantoki espezifikoetara sartzeko ateek ez daukate araudian ezarritako zabalera librea, baina horietara sar daiteke. Altzarien antolaketa eta ezaugarriak egokiak dira. Eraikin nagusiko solairuko jantokiak bakarrik dauka ezinduei gordetako komuna hurbil.

Makina saltzaileak

Ospitaleratze-guneko iturriak bakarrik aztertu dira, eta guztiz iristezinak dira.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalerainoko kanpo-ibilbideak egokitu beharko dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.
- Ospitale-esparrura sartzeko atea ordezkatu behar da, eta sarreretarainoko barne-ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdetik eraikin nagusira iristeko sarbide guztiak egokitu behar dira.
- Pazienteentzako lorategiak egokitu behar dira.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuetan, seinaleztapen egokia jarri behar da.
- Ezinduei gordetako aparkalekua egokitu behar da.

Sarbideak eta itzarongelak

- Ospitaleko sarrera guztiak egokitu behar dira, guztiek dauzkatelako irisgarritasun-gabezia handiak.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten atearordezkatu beharko dira.
- Altzariak egokitu behar dira.
- Kontsultetako altzariak birbanatu behar dira, bira egitea oztopatzen dute-eta.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten atear aldatu behar dira.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu beharko da, eta horri eratzikitako komunaren ezaugarriak hobetu.
- Pazienteen jantokiak egokitu behar dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

3.11. San Eloy Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Ospitaletik hurbilen dagoen kanpoaldeak ez dauka oztoporik, baina parkimetro bat dago La Bondad kalean, eta oinezkoentzako ibilbidea oztopatzen du horrek. Miranda etorbideko zebrabideak gaizki eginda daude; malda handiak dauzkate oinezkoentzako pasabideetan, eta ez dauzkate ukimenezko seinaleztapen-zerrendak.

Ospitale-esparrura sartzeko, metalezko atea dago. Ate horren igarobide-zabalera librea 80 cm-koa da; hau da, ez da nahikoa. Bestetik, ospitale-esparruaren sarreran, segurtasun-kabina dago. Aitzitik, hegala dauka, eta horrek eragotzi egiten du igarobide-altuera librea 220 cm-koa izatea. Beraz, istripuak eragin diezazkieke ospitaleko erabiltzaileei.



Pasabideak dituen zebrabideak gehiegizko malda sarbidean.



Ospitale-esparrura sartzeko atea 80 cm-ko igarobide librea dauka.



Proiekzio horizontalik gabeko hegala duen kabina.

Larrialdietara iristeko, espaloi estuak daude, zoladura hondatua dutenak, eta eremu horretako sarrerara iristeko oinezkoentzako pasabiderik ez dutenak.

Aparkatzea

■ Barrualdeko esparrua

- Esparruko aparkalekuan, ezinduei gordetako bi leku daude, eta beste bat larrialdietarako sarreran.
- Ezinduei gordetako aparkaleku bat jarri behar da sarrera nagusitik hurbil.



Ospitale-esparruko aparkalekuan ezinduei gordetako lekuak.

Sarbideak eta itxarongelak

Ospitaleko sarrera nagusira iristeko, ondoz ondoko bi arrapala daude; ospitalearen kanpoaldean bata, barrualdean bestea. Barrualdeko arrapalak malda handia dauka, zoladura irristakorra da, eskubanda ez da jarraitua arrapala osoan, eta oztopoak daude ibilbidean.

Harrera-mahaiko zonalde irisgarria ez da erabiltzen, manpara bat jarri baita hor.

Itxarongelek ez daukate gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua duteentzako eserlekurik ere.



Sarrerako arrapalak malda handia, zoladura irristakorra, finkatu gabeko lanpasak eta oztopoak bidean. Eskubandak ez daude alfonbraren zonaldean, eta ez dute igotzen edo jaisten laguntzen.



Sarrera nagusian ezinduei gordetako harrera-mahaia itxita dago, manpara bat baitago hor.

Larrialdiak: Larrialdietara sartzeko, sarrerako atea baino lehen plataforma horizontal egokirik ez duen arrapala dago, eta gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin aipatu sarreran. Sarrerako atea kristalezkoa da, baina ez

dauka seinaleztapen-banda egokirik. Harrera-mahaiak ez dauka toki irisgarririk. Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako lekurik.

Larrialdietara sartzeko atea.



Itxarongela. Neurri txikiak, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin, eta ez dauka gurpildun aulkiak uzteko tokirik.



Kontsultak

Erradiologiako kontsultek ez daukate ez aldagela ez komun irisgarririk. Mamograforako sarbidea guztiz iristezina da.

Pazienteen arretarako bulegoak eta proba funtzionalen kontsultak ez diete bira egiten uzten gurpildun erabiltzaileei, horietara sartzeko ateetan.

Farmaziako tinbrea eta botiken leihatila oso altu jarrita daude.

Larrialdiak

Kontsulten espazioa zein horietara sartzeko ateak egokiak dira, kontsulta sailkatuan izan ezik; izan ere, kontsultaren barrualdeko neurriak oso txikiak dira, eta gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira eman. Esku-oheak finkoak dira.

Errehabilitazioa

Errehabilitazio-gunea egokia da. Tratamenduetarako kabinetan, transferentzia egin daiteke ohearen albo batetik, eta esku-oheen altuera alda daiteke. Ez dago ekipamendu egokirik mugikortasun urriko pertsonentzat. Aldagela irisgarri bat dago, baina zenbait gabezia dauzka. Egindako bisitan ikusi genuen aireztatzeko sistema ez dela egokia eremu horretan.

Aldagela erradiologian.



Mamografiarako sarbidea. Iristezina.



Pazienteen arretan, barrualde txikia.



Kontsulta sailkatua.



Errehabilitazioan ezinduei gordetako aldagelako dutxa iristezina da.



Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunen barrualdeko azalera egokia da. Aitzitik, osasun-gailuak eta konketako osagarriak ez daude egoki jarrita; heldulekurik gabeko komunak ikusi dira, hondo egokirik gabeko konketak, oztopoak transferentziak egiteko tokian, konketako osagarriak gehiegizko altueran.

Bestetik, adierazi beharra daukagu ezinduen komunetan fluxumetroak jartzea ez dela aukera onena; are gutxiago komun-zuloaren albo batean altuera handian jartzen bada. Mugikortasun urriko pertsonentzat zaila da sakatzea.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Onarpen-guneko itxarongela

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
0. S	Erradiologia-unitatea Larrialdi-unitateko itxarongela
1. S	Itxarongela (eskasa)
2. S	Ez dago guztiontzako komunik
3. S	Ez dago
4. S	Ez dago
5. S	Ez dago
6. S	Ez dago

Logelak eta boxak

Ospitaleak ez dauka logela egokiturik. Logela guztiak dira berdinak, bat izan ezik, eraberrituta baitago eta komuna baitauka. Eraberritu gabeko logeletako espazioa eta eraberrituko berdin-berdinak dira; ez dago transferentziarako tokirik ohearen albo batean, eta, era berean, ez dago gurgildun aulkia logelan bertan edukitzeko tokirik. Eraberritu gabeko logeletako komuneko ateez 56 cm-ko igarobide-zabalera librea daukate soilik, ez daukate gurgildun aulkien erabiltzaileek barrualdean bira egin ahal izateko lekurik, dutxaontziez zintarriak dauzkate, komun-zuloak baxu daude, osagarriak altu eta abar. Eraberritutako logelako komunak zeroko kotan dauka dutxa, baina, oro har, gabezia handiak dauzka: komun-zuloa baxu jarrita dago, ez dauka heldulekurik, kontaktak ez dauka hondo egokia, ispilua altu dago eta abar.

Larrialdietako boxen zonaldean, transferentzia egiteko espazioa dago ohearen albo batean, baina ez dago komun irisgarriarik. Ebakuntza-gelen zonaldeko boxen inguruak behar besteko tokia dauka ohearen albo batean transferentzia egiteko, eta komun irisgarria dago, baina zenbait gabezia dauzka.

Ospitaleratze-guneko itxarongelek ez daukate behar besteko espaziorik gurgildun aulkien erabiltzaileentzat.

Ospitalean garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Logela mota. Ohera iristeko tokia.



Komun mota, eraldatu gabeko logeletan.



Eraldatutako komun mota ospitaleratze-guneko logelan.



Eraldatutako komun mota ospitaleratze-guneko logelan.



Komun egokitu. Ez dauka heldulekurik, fluxumetroak altuegi daude, eta toki ezegokian.



Konketako osagarriak altuegi daude.



Hondo egokirik gabeko konketa. Eskuak lehertzeko papera altuera egokian.

Beste gela batzuk

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak iristezinak dira.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalerainoko kanpo-ibilbideak egokitu beharko dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.
- Ospitale-esparrura sartzeko atea ordezkatu behar da, eta sarreretarainoko barne-ibilbideak egokitu behar dira.
- Nahitaez, kontrol-mahaiko leihatila egokitu behar da, eta kabinak eragiten duen hegala kendu.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuetan, seinaleztapen egokia jarri behar da.
- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira sarrera nagusitik hurbil.
- Ezinduei gordetako aparkalekueetatik sarrera nagusirako bidea egokitu behar da.

Sarbideak eta itxarongelak

- Sarrera nagusiko sarrera egokitu behar da.
- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan, baita itxiturretan ere.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Nahitaez, egokitutako harrera-mahaietako oztopoak kendu beharko dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurgildun aukien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.
- Itxarongela guztietako erdiko mahaiak kendu behar dira.
- Oftalmologiako itxarongela handitu behar da.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten atea ordezkatu beharko dira.
- Pazienteen arretarako kontsultetako, proba funtzionaltarako kontsultetako eta kontsulta sailkatuetako altzariak berrantolatu behar dira, bira egitea oztopatzen baitute.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Egokitutako aldagelak egokitu behar dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordeiz.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.

- Ezinduen komunak eraiki beharko dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Unitate guztietan eraiki behar dira logela irisgarriak.

Beste gela batzuk

- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

3.12. San Juan de Dios Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Mugakoa kaletik iristen da ospitaleko sarrera nagusira, eta hainbat gabezia dauzka: espaloien igarobide-zabalera librea txikia da, mailak daude zebrabideen pasabideetan, malda malkartsua oinezkoentzako pasabideetan, zoladura irris-takorra da eta farola bat dago oinezkoentzako pasabidearen erdian.

Ospitale-esparruaren barrualdean, sarrera nagusira iristeko ibilbideek (Mugakoa kaletik edo aparkalekutik joanda) oztopoak dauzkate, eta eremu horretako seinaleztapena ez da egokia. Ospitale-esparruaren barrualdeko zebrabideek ez daukate ukipenezko seinaleztapenik.

Cristobal Murrieta etorbidetik iristen da errehabilitazio-gunea. Neurri egokiak dituzten eta ibilbidean oztoporik ez duten espaloiak daude kale horretan. Hala ere, etorbideko zebrabideek ez daukate ukipenezko seinaleztapenik.

Ospitale-esparruaren barrualdean, errehabilitazio-gunea sartzeko, ibilbide osoan eskubandarik ez duen arrapala dago.

Espaloiak ez dauka zabalera nahikoa, eta farola dago, estugunea sortuz. Pasabiderik gabeko zebrabidea, eta farola oinezkoentzako pasabidearen erdian.



Oztopoak oinezkoentzako bidean.





Seinaleztapena toki ezegokian.

Aparkatzea

Aparkalekuan dagoenaz gain, ezinduei gordetako beste toki bat jarri behar da, sarrera nagusitik ahalik eta hurbilen. Era berean, dagoen aparkaleku gordea lekualdatu behar da, sarrera nagusitik ahalik eta hurbilen jarriz. Aparkalekura iristeko oinezkoentzako ibilbidean, loreontziak eta mutiloia daude, eta espaloiak igarobide-zabalera libre egokia edukitzea galarazten dute horiek. Parkimetroa irisgarria da.

Errehabilitazio-guneko sarrera

Ezinduen aparkalekuak ez dauka ibilbide irisgarrikerik errehabilitazioko sarreraraino. Ezinduen beste aparkaleku bat aparkaleku gehiagoren artean dago, errehabilitazioko sarrerara iristeko eskaileren aurrean. Ezinduen aparkaleku hori lekualdatzea proposatzen da, aipatu gunera iristeko arrapatatik ahalik eta hurbilen, eskaileren sarbidea libre utziz.



Aparkalekuan ezinduei gordetako lekua sarrera nagusitik urrun. Seinaleztapen bertikala falta da.



Ezinduen aparkalekua errehabilitazio-gunean. Ez dauka seinalaztapen bertikalik. Aparkalekutik, ez dago errehabilitaziorako sarbiderik. Eskaileretara iristea oztopatzen du.

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrera nagusiko ateko seinalaztapen-bandak ez dira egokiak, eta errehabilitazio-gunera sartzeko atea oso astuna da.

Oro har, ospitaleko itxarongelak ez daukate gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murritzua dutenentzako eserlekurik ere.

Larrialdiak

Sarrerako ateko seinalaztapen-bandak ez dira egokiak. Harrera-guneko harrera-mahaiak ez dauka toki irisgarrikerik.



Errehabilitaziora sartzeko atea ez dauka seinalaztapen-banda egokiak.



Larrialdietara sartzeko atea ez dauka seinalaztapen-banda egokiak.



Itxarongelak ez dauka gurgildun aulkien erabiltzaileentzako lekurik.

Kontsultak

Kanpo-kontsulten unitateko kontsultetara sartzeko atea egokiak dira. Barrualdeko espazioa zuzena da, erizainarentzako mahaia duena izan ezik, kontsulten sarreran bira egitea galarazten du-eta. Kanpo-kontsulten unitateko esku-ohak finkoak dira, altuera aldagarrikerik gabekoak.

Urologia-kontsultak egokitutako komuna dauka. Soinu-proben kabina guztiz iristezina da.

Pazienteen arretarako kontsultak ez die bira egiten uzten gurgildun aulkien erabiltzaileei; ezin daitezke sartu, ezta atea itxi ere. Mahaiak ez dauka hondo egokia. Erradiologia-, eskaner- edo erresonantzia-kontsulta batek ere ez dauka aldagela egokiturik.

Larrialdiak

Larrialdietako kontsultetara sartzeko atea zabalera egokia dauka. Kontsulten barrualdeko espazioak bira egitea ahalbidetzen die gurgildun aulkien erabiltzaileei, eta esku-ohak finkoak nahiz elektrikoak daude.

Errehabilitazioa

Errehabilitazio-unitatera kanpoaldetik sartzeko atea oso astuna da, eta errehabilitazio-gunerainoko ibilbidean dauden orri biko ateek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia.

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

Errehabilitazioko espazioa ez da nahikoa, eta, kabina batzuetan, ezin daiteke transferentzia egin esku-ohearen albo bate-tik.

Oro har, esku-oheak altuak eta finkoak dira, altuera aldatzeko aukerarik gabekoak. Ez dago ekipamendurik mugikortasun urriko pertsonentzat. Era berean, ez dago aldagela egokiturik.



Aldagela.
Erresonantziak.



Mahaia luzatu egiten da, eta ez die maniobra egiten uzten gurgildun aulkien erabiltzaileei.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunek irisgarritasun-gabeziak dauzkate; hala nola, hauek: komun-zuloen kokapena, ispi-luen eta konketako osagarrien altuera, transferentziarako guneak oztopoekin okupatuta, langileei deitzeko alarman falta eta komunaren barrualdeko azalera txikia.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-2. S	Errehabilitazioa (eskasa)
-1. S	Mutualitateko itxarongela (eskasa)
0. S	Pazienteen arreta-zerbitzuko bulego eratzikia Aldagelak (kanpo-kontsulten zonaldea) Kafetegia
1. S	Atondo nagusia Akutuen psikiatria-unitatea
2. S	Ez dago

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-2. S	Errehabilitaziokoa egokitu
-1. S	Mutualitateko itxarongelan komuna dago, baina ezin daiteke bira egin
0. S	Ez da beharrezkoa
2. S	Atondo nagusia



Komun egokitua errehabilitazioan.
Komun-zulo ezegokia, ezkerreko barra komun-zulotik urrun, sartzeko atea estua, 78 cm.



Komun egokitua mutualitatean.
Komun-zuloa eta barruko espazioa ezegokiak.

Logelak eta boxak

Ospitaleko logela guztiak egokituta dauden arren, guztiak dauzkate irisgarritasun-gabeziak. Horrela, bada, transferentzia egiteko tokia ohearen albo batean dago; hau da, gurgildun aulkien erabiltzaileek bira egin dezakete eta logelaren barrualdean eduki dezakete gurgildun aulkia. Hala ere, aztertu ditugun logela batzuetan, ohearen azpian geratzen den espazioa oso txikia da, eta zailtasunak egon daitezke logelara sartzeko. Komunetan ere gabeziak daude; besteak beste, hauek: heldulekurik ez, iturrien eskutokia iristezina, komun-zulo baxuak eta abar.

Larrialdietako unitateko boxen eremuan ez dago transferentzia egiteko toki nahikorik.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Logelako komuna.
Komun-zuloaren altuera ezegokia, heldulekuak albo batean.



Logelako komuna.
Hondo egokirik gabeko konketa.



Logelaren barrualdeko espazioa. Gurpildun aulkian doazen pertsonentzako espazio txikiak.



Kafetegia. Altzariak modu egokian banatuta.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Ateak ez dauka araudian ate automatikoentzat ezarrita dagoen zabalera librea.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik. Altzarien banaketa egokia da gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten. Kafetegiko edariak mostradorean zerbitzatzen dira.

Mahai mota egokia da mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil dezaten.

Kafetegiak ez dauka ezinduei gordetako komunik, eta hurbilena kafetegira iristeko korridorean dago, igogailuaren aurrean.

Jantokiak

Jantokia akutuen psiquiatria-unitateko pazienteek bakarrik erabil dezakete.

Jantokiko sarrera irisgarria da, eta altzarien antolaketa egokia da.

Mahaian behealdeko altuera ez da araudian ezarritakoa.

Makina saltzaileak

Aztertu diren makina saltzaileak iristezinak dira.

Areto nagusia

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Altzarien banaketak espazioa erabiltzea ahalbidetzen du. Ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako eremurik. Dena dela, aulkiak finkoak ez direnez, erraz mugi daitezke.

Oholtzarako igoeran koska bat dago, eta ez dago arrapala alternatiborik. Oholtzako mahaiak ez dauzka neurri egokiak.

Kapera

Ateak araudian ezarrita dagoen zabalera librea dauka.

Altzarien banaketak espazioa erabiltzea ahalbidetzen du. Ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako espaziorik, horretarako lekua egon arren.



Areto nagusia. Oholtzara igotzeko maila.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitaleko sarreretarainoko ibilbide guztiak egokitu behar dira.
- Ospitaleko sarreren norabidezko seinaleztapena jarri behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkaleku berri bat jarri behar da, eta sarrera nagusira lekualdatu jada badagoena.
- Ibilbide irisgarria eraiki behar da aparkalekuko toki gordetik errehabilitazioko sarreraraino.

Sarbideak eta itxarongelak

- Errehabilitazio-unitatera sartzeko bigarren atea aldatu edo automatizatu behar da.
- Seinaleztapen-banda egokiak jarri behar dira beirazko atean.
- Harrera-mahai egokituak jarri behar dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.
- Altuera bikoitzeko eskubanda jarri behar da errehabilitaziorako sarbidean.

Kontsultak

- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Kontsultetako altzariak berrantolatu behar dira, horietan ezin bada bira egin.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen orde.
- Pazienteen arretarako kontsulta egokitu behar da.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan, irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako logelen ezaugarriak berrikusi behar dira.

Beste gela batzuk

- Mostradore egokitua jarri behar da kafetegian, alde batean.
- Areto nagusiko oholtzarako sarbidea egokitu behar da, eta ezinduei gordetako tokia seinaleztatu.
- Akutuen psikiatria-unitateko jantokiko altzariak aldatu behar dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Kaperan ezinduei gordetako tokia seinaleztatu behar da.

3.13. Santa Marina Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Aparkalekutik eta autobus-geralekutik sarrera nagusira dagoen bidea ez da irisgarria, zenbait maila baitaude ibilbidean. Bestetik, aparkalekutik ospitalera irteteko eskailerak ez dauka heldulekua bi aldeetan, dagoen eskubanda ez da jarraitua, eta ez dauka altuera bikoitza. Zebrabideek ez daukate ez pasabiderik, ez oinez hautemateko seinaleztapen-zerrendarik.



Aparkalekutik sarrera nagusira joateko eskailerak. Seinaleztapena falta da mailetan, eta eskubanden tartekak falta dira.



Autobus-geralekurako bidean zebrabidea, espaloira igotzeko pasabiderik gabe.



Oinezkoentzako bidean, maila bakarra (debehatuta araudian).

Aparkatzea

■ Goiko aparkalekua

Aparkalekuan, ezinduei gordetako toki bat dago, baina ez dauka seinaleztapen bertikalik. Gordetako aparkalekutik sarrera nagusirako ibilbidea ez da irisgarria. Gordetako aparkaleku horretaz gain, gordetako beste bi aparkaleku daude ospitaleko sarrera nagusian; hala ere, horietako batek ere ez dauka seinaleztapen bertikala.



Ezinduei gordetako tokia goiko aparkalekuan. Ez dauka seinaleztapen bertikalik.



Ezinduei gordetako aparkalekuak sarrera nagusitik hurbil. Aparkalekuetako batek maila dauka espaloira igotzeko.



Maila ezinduei gordetako bigarren aparkalekurako ibilbidean, ospitaleko sarrera nagusian.

Sarbideak eta itxarongelak

Ospitaleko sarrerako atearen seinaleztapen-bandak ez daude egoki jarrita; beherago jarri behar dira. Lanpasak ez daude lurtean iltzatuta, estropezu egitea eraginez, eta harrera-gunean ez dago toki irisgarririk harrera-mahaian.

Itxarongelek ez daukate gurgildun aulkien erabiltzaileak egoteko leku erreserbatuak. Itxarongela batzuen argiztapena ez da nahikoa.



Sarrera nagusia. Ateen seinaleztapen-bandak ezegokiak, eta finkatu gabeko lanpasa.



Sarrera nagusiko harrera-guneak ez dauka harrera-mahai irisgarria.



Proiektzio horizontalik gabeko hegalk sarrera nagusian, estropezuak eragin diezazkieke horrek ikuspen-ezintasuna duten pertsonen.

Kontsultak

Erradiologiako gelek ez daukate aldagela egokiturik.

Behe-solairuan aztertutako kontsulenteen ate batek ere ez dauka igarobide-zabalera libre egokia, eta, aztertu diren kontsultak gehienetan, barrualdean, ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileek bira egin ahal izateko toki nahikorik. Era berean, aztertu diren esku-ohetik ez daukate altuera erregulagarria.

Kardiologia- eta bronkoscopia-unitateetara sartzeko atearak oso estuak dira, 58 cm-ko igarobide librea baitute soilik.

Larrialdiak

Mediku-bulegoaren barrualdeko espazioak ez die bira egiten uzten gurgildun aulkien erabiltzaileei, eta, gainera, mahaia ez dauka hondo egokirik, bertara hurbildu ahal izateko.

Errehabilitazioa

Errehabilitazio-unitatera sartzeko atearak ez daukate zabalera libre egokia. Gimnasioaren zein tratamenduen guneak txikiak dira, eta ez dago transferentzia egiteko leku egokirik. Unitatean, ez dago aldagelarik.



Erradiologiako aldagela, ez irisgarria.



Mediku-kontsulta. Ez dago lekurik gurgildun aulkien erabiltzaileek bira egin ahal izan dezaten, eta mahaiek ez daukate hondo egokira.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunak batzuen ezaugarriak eskasak dira; batez ere, eraldatu gabeko zonaldeetan. Kasuren batean, larrialdietako eremuko komuna adibidez, oso eskasa da; izan ere, komuneko ateko seinaleztapenak dio ezinduen komuna dela, baina ez dauka inolako egokitzapenik.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Kanpo-kontsultak (eskasa)
1. S	Larrialdietako unitatea (eskasa) Ospitaleratze-unitatea
2. S	Ez dago
3. S	Ez dago
4. S	Ospitaleratze-unitatea
5. S	Ez dago guztiontzako komunik

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Dagoena egokitu
1. S	Larrialdietako unitatean dagoena egokitu
2. S	Ospitaleratze-unitatea
3. S	Ospitaleratze-unitatea
4. S	Ez da beharrezkoa
5. S	Ez da beharrezkoa



Ezinduen komuneko espazioa, larrialdietako unitatean.



Konketak oinarria ezinduen komunena, larrialdietako eremuan.



Ezinduen komunera sartzeko atea, larrialdietako unitatean, atearen igarobide librea ezegokia eta kontraste kromatikorik gabea.



Ezinduei gordetako komuna. Barrualdean, ezin daiteke bira egin, eta ez dauka komun-zulora transferentzia egiteko tokirik.



Gordetako komunak bira eta transferentzia egiteko toki egokia.

Logelak eta boxak

Ospitaleak logela irisgarriak dauzka eraldatutako solairu guztietan. Egokitutako logeletan, ohera transferentzia egite-

ko eta gurpildun aukia logela barruan edukitzeko toki nahikoa dago; hala ere, gurpildun aukien erabiltzaileek ezin dezakete bira egokia egin, eta logela horietako komunek irisgarritasun-gabezia batzuk dauzkate, hala nola, dutxara eta komun-zulora transferentzia egiteko tokia falta da, komun-zuloak baxu jarrita daude, eta konketetako osagarriak altu daude.

Larrialdietako boxetan, aldiz, ez dago oheetara transferentzia egiteko leku nahikorik. Larrialdietako boxetan ezinduei gordetako komunera sartzeko atea ez dauka neurri egokidun igarobide-zabalera librea, ezta bira egiteko behar den lekua ere.

Ospitaleratze-guneko itxarongek gurpildun aukia erabiltzen duten pertsoneri gordetako espazioak dauzkate, baina ez daude seinaleztatuta.

Lekualdaketak egiteko garabi nahikoak daude.



Logelako ezinduen komuna, komun-zulora transferentzia egiteko tokirik gabe. Komun-zuloa baxua da, eta alarma altuera handian jarrita dago.



Larrialdietako boxak. Transferentzia egiteko leku urria.



Larrialdietan ezinduei gordetako komuna. Ez dauka gurpildun aukien erabiltzaileek barrualdean bira egiteko toki nahikorik

Beste gela batzuk

Kafetegia

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka zonalde egokiturik, eta bertan zerbitzatzen dira edariak. Eguneko menuak, aldiz, mahaietan zerbitzatzen dira.

Altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek altuera egokia daukate; hala ere, bermatzeko hanka bakarra dute, eta ho-

rrek ez du ahalbidetzen gurgildun aulkien erabiltzaileak hurbiltzea. Gainera, egoera arriskutsuak eragin diezazkieke mugikortasun murriztua duten pertsonen horietan bermatzean.

Kafetegitik hurbil ezinduei gordetako komuna dago, baina horren ezaugarriak oso urrun daude irisgarriak izatetik.

Makina saltzaileak

Kafea eta janaria saltzen dituzten makinek altuera egokiak dauzkate; telefonoak eta telebistarako txartelak ematen dituzten makinak, aldiz, altuegi jarrita daude.

Areto nagusia

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Altzarien banaketak espazioa erabiltzea ahalbidetzen du.

Ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako eremurik. Dena dela, aulkiak finkoak ez direnez, erraz mugi daitezke.

Oholtzara igotzeko, arrapala alternatiborik ez duen koska dago, eta oholtzako mahaia ez dauzka neurri egokiak.

Hurbilen dagoen ezinduen komuna kafetegira atxikita dagoena da, irisgarria izatetik oso urrun dagoena.

Kapera

Ateak araudian ezarrita dagoen zabalera librea dauka. Altzarien banaketak espazioa erabiltzea ahalbidetzen du. Ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik.

Tanatorioa

Kasu honetan, ehorztetxeek erabiltzen duten bulegoaz ari gara, ospitaleak ez duelako gaubeilarik bere instalazioetan.

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Barrualdeko espazioan ezin daiteke bira egin, eta mahaia ez dauzka neurri egokiak.



Kafetegia. Altzari ezegokiak.



Areto nagusia.



Kapera



Telefonoa. Iristezina eta proiektzio horizontalik gabea.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitaleko sarrera nagusiko seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekua jarri behar da goiko aparkalekuan.
- Ospitaleko sarreratik hurbil dauden ezinduen aparkalekuak egokitu behar dira, baita horietatik sarrera nagusi-rainoko ibilbidea ere.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Nahitaez, sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri behar dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.
- Korridoreetan dauden oztopo guztiak kendu behar dira.
- Argi gehiago jarri behar da hala behar duten itxarongela guztietan.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera libre egokia ez duten ateak ordezkatu behar dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.

- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordean.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.
- Larrialdietako unitatea egokitu behar da.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu beharko da.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Areto nagusia egokitu behar da.
- Tanatorioan, ezinduei gordetako zonaldea sartu behar da.

3.14. Urdulizko Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Ospitalearen berehalako inguruneak zenbait gabezia dauzka. Goieta kalea duela gutxi urbanizatu dute, baina zenbait zailtasun dauzka zebrabideetan. Espaloietara iristeko arrapalek koska nabarmenak dauzkate, eta zailtasunak eragiten dizkie horrek gurgildun aulkian doazen pertsonari, espaloira igotzeko orduan. Era berean, zebrabide horietan dauden zerrenda-gidak ez dira behar bezala jarri; izan ere, azalera osoa estaltzen dute, oinezkoen pasabidetik espaloien ertzeraino.

Ospitalerantz doan oinezkoen bidean, igarotzea oztopatzen duten hiri-altzariak jarri dira, eta orientatzea zailtzen die horrek ikusmen-urritasuna duten pertsonari.

Kanpoko seinaleztapena ez da egokia, eskasa edo ezdeusa baita erdigunetik Urdulizko Ospitalera sartzeko sarrera ezberdinetarako seinaleztapena.



Koska handia oinezkoen igarobidean. Goieta kalea.



Zebrabideak koska handia dauka pasabidean, eta gaizki jarrita dago oinez hautemateko zoladura.

Aparkatzea

- **Goieta kaleko aparkalekua (udalaren titulartasuneko)**

Ospitaletik hurbil gordetako aparkaleku bakarra larrialdietara sartzeko kalean dago. Erabilgarri dauden gainerako aparkalekuen artean, ez dago ezinduei gordetako bat bera ere. Gainera, nolabaiteko malda duen toki batean jarri da erreserbatutako aipatu aparkalekua, eta aparkaleku horretatik hurbil dagoen espaloien zintarriaren ondoko galtzada-harrietak o zerrendak, oinezkoen ibilbidetik igarotzen denak, gehiegizko malda dauka. Mugikortasun murriztua duten pertsonak espaloira igotzea eta aipatu aparkalekua erabiltzea zailtzen du horrek.

Hortaz, egun ezinduei gordetako aparkalekua egokitu behar da, eta mugikortasun murriztua dutenentzako beste bi aparkaleku jarri beharko dira gutxienez sarrera nagusitik hurbil.



Ezinduei gordetako aparkalekua larrialdietara sartzeko kalean.

Sarrerak eta itxarongelak

Eraikinaren sarbide nagusian kristalezko ate birakaria dago, eta behar bezala jarritako bi seinaleztapen-banda dauzka. Sistema birakaria moteltzeko botoia dago, mugikortasun murriztua dutenek erabil dezaten. Hala ere, adierazi beharra dago ate birakariak ez daudela jasota ezartzekoa den araudian, gurgildun aulkien erabiltzaileak, bastoien erabiltzaileak eta abar bertara sartzeko zailtasuna sortzen baitute.

Sarreretan eta unitateetan dauden harrera-mahaiak behar bezala egokituta daude.

Hitzorduak kudeatzeko balio duten makinak, hitzorduaren zenbakia eskuratzeko ezinbestekoak direnak eta sarrera nagusian daudenak, ez dira irisgarriak. Ukimen-pantailak 130 cm-ko altueran daude, eta pantailarekin aritzeko botoiak 140 cm-tik gora jarrita daude, 120 cm-koa denean onartzen den gehieneko altuera. Beraz, autonomia kentzen diete gurpildun aulkian doazenei edo altuera gutxi dutenei.

Sarrera nagusian eta otorrinolaringologiako unitatean, begizta magnetikoa jarri da entzumen-urritasuna duten pertsonentzat; dena dela, ez dago aipatu espazioetan horrelakorik dagoela adierazten duen seinaleztapenik.

Sarrera nagusiko zoladura ez da egokia, ez baita pentsatu intereseko tokietara bideratu dezakeen zoladura eta ehundura mota ezberdinak jartzea. Bereizketa kromatikoa jarri da aipatu zoladuran, argazkian ikus daitekeen bezala, baina ez da jarri intereseko toki batera argi eta garbi bideratzeko moduan, nahastea eraginez.

Erabilera publikoko eraikinetara iristeko, norabidezko gida-zerrendak jarri dira, kolore kontrastatua dutenak, bai eta luzetarako ildaskak ere, behar besteko informazioa emanez berehalako eta beharrezko eremuetara iristeari begira. Ospitaleko sarreraren kasua da hori, baina sarrera nagusiko harrera-mahairako seinaleztapena falta da.

Ospitaleko itxarongeletan, ez da tokirik gorde gurpildun aulkien erabiltzaileentzat, eta ez dira eserleku egokiak jarri mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil ditzaten.

Larrialdietako atekak –ebakuazioa egin behar izanez gero, kanpoaldera zuzenean ematen dutenak– irekitzeko sistema egokia da gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil dezaten, atekak barra bikoitza baitaukate, altuera ezberdinean. Aitzitik, eraikin barruko sektoreetako atekak ez dira egokiak; izan ere, barra bakarra daukate –gehiegizko altueran–, horiek ireki ahal izateko.

Oro har, aztertu diren lekuak eta itxarongelak zabalak dira.



Ate birakariak eta zoladura ezegokia sarrera nagusian.



Kanpo-konsultetako itxarongela.

Kontsultak

Erradiologiako kontsulta guztiak dauzkate komun eta aldagela egokituak. Aldagelen ezaugarriak egokiak dira. Hala ere, atek kabinen barrualderantz irekitzen dira, eta barruko bankuek ez daukate indarrean dagoen araudian ezartzen diren neurriak.

Aztertu diren kontsultek behar besteko tokia dute gurpildun aulkien erabiltzaileak barrualdean mugitu ahal izan daitezten.

Ohiko kontsultetako esku-ohe gehienak elektrikoki manipula daitezke, eta 55 cm inguruko gutxieneko altuera daukate. Oftalmologiako eta ginekologiako esku-oheetan transferentzia egin dezakete gurpildun aulkien erabiltzaileek, albo batean.

Audiometriak egiteko kabinak, ordea, ez dira irisgarriak.

Kanpo-konsultetara sartzeko atekak ez daukate kontraste kromatikorik.

Nabarmendu egin behar da Urdulizko Ospitalea dela, txosten hau egite aldera bisitatu direnen artean, SUHak (sute-aho hornituak) eta sute-botoiak altuera egokian dituen lehena. Era berean, adieraz dezakegu babeslekuak eta ebakuazio-bideak dituela gurpildun aulkien erabiltzaileentzat. Gainera, egoki seinaleztatuta daude.

Gurpildun aulkien erabiltzaileek erabiltzeko garabiak eta basculak dauden arren, ez dira nahikoak, eta ez daude kontsulta guztietan.

Kontsultetan jarri diren mahaiek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileak horietara hurbiltzeko sakonera egokia.

Larrialdiak

Larrialdietako unitatea ez zegoen jendearentzat irekita, eta, bisita egin genuenean, ez zeukan inolako altzaririk. Oro har, aztertutako espazioek zabalak ziruditen.

Errehabilitazioa

Ez da errehabilitaziorako tokirik aztertu.



Kontraste kromatikorik gabeko atek kanpo-konsultetan.



SUHak, su-itxalgailuak eta su-alarma altuera egokian daude.

Esku-ohere elektrikoa, transferentzia egiteko tokia bi alboetan.



Ezinduei gordetako komunaren atea.



Oftalmologiako probak irisgarriak dira.



Ezinduei gordetako komun-zuloaren albo bakarrean dago transferentzia egiteko tokia.



Audiometriako egiteko kabina iristezina.



Konketak sakonera txikia.



Audiometriako egiteko kabina iristezina.



Logelak eta boxak

Bisitaren unean, ospitaleratze-guneko logelek ez zeukaten altzaririk, horma-armairuak salbu. Armairu horietako apalak eta pertxak gehiegizko altueran jarrita daude.

Logeletako komunek 0 kotako dutxa-ontzia daukate, eta gurpildun aulkien erabiltzaileek bira egiteko moduko tokia.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunak ezaugarri orokorrak egokiak dira; hala ere, oro har, barrualdeko espazioa murrizta da. Aztertu diren komun gehienetan, guztizko zabalera 150/151 cm-koa da; hau da, eskatzen den gutxieneko tokia betez diseinatu dira. Bestetik, kanpo-kontsulten solairuan, bi sekuentzako komun bakarra jarri da.

Aztertu diren komunetan, komunaren albo bakarrean jarri da transferentzia egiteko tokia, eta bi alboetan behar da. Konketa osagarriak, papera eta xaboia adibidez, gehiegizko altueran jarri dira.

Era berean, heltzeko barra bakarra duten komun-zuloak edo konketa txikiak ikusi dira.

0 kotako dutxa-ontzia logelan.



Tokia logelako komunean.



*Konketa logelan.*

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Goieta kaleko zebrabideetako koska guztiak kendu behar dira.
- Zebrabideetan oinez hautemateko baldosa aldatu behar da, eta behar den moduan jarri.
- Ibilbide eta sarrera ezberdinetako seinaleztapena hobetu behar da.
- Ospitaletik hurbil ez dago autobus-geralekurik; beraz, ospitaletik hurbil garraio publiko eta egokia jartzea eskatzen dugu.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira Goieta kaleko aparkalekuan.

Sarrerak eta itxarongelak

- Lanpas finkoak jarri behar dira sarrera guztietan.
- Itxarongeletan, gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokiak jarriko dira, bai eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak ere.
- Zoladuran seinaleztapen-zerrenda jarri behar da toki nagusietaraino, ikusmen-urritasuna dutenentzat egokia.
- Txanda emateko makinaren irisgarritasuna hobetu behar da.
- Nahitaez, begizta magnetikoa dagoela seinaleztatu behar da.
- Ospitale guztian, barrualdeko seinaleztapena hobetu behar da.

Kontsultak

- Altzari irisgarriak jarri behar dira.
- Garabi eta baskula nahikoak erosi behar dira, gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.
- Esku-ohetako ordez, altuera alda dezaketen esku-ohetako jarriko dira.
- Kanpo-kontsulten unitateko ateak kontrastatzea gomentatzen da.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Komunetako irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, hala behar duten komunetan.

3.15. Victoria Eugenia Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Zonaldeko zebrabideek ez daukate egoki jarrita oinez hautemateko seinaleztapen-zerrendak. Gainera, Urkixo zumarkaleko Ojeda kafetegiak banku bat dauka jarrita oinezkoentzako ibilbidean.

*Bankuak oinezkoentzako ibilbidea oztopatzen du.**Oinezkoen pasabideko seinaleztapen-zerrendak ezegoki jarrita.*

Aparkatzea

■ Urkixo zumarkalea

Ospitalearen inguruan, ez da ezinduen aparkalekurik ikusi; beraz, gutxienez leku bat jarri beharko da sarrera nagusitik hurbil.

*Urkixo zumarkaleko aparkalekuak.*

Sarbideak eta itxarongelak

Ospitaleko sarrerako atea kristalezkoa da, baina seinaleztapen-bandak ez daude egoki jarrita. Kanpoaldeko tinbrea, altuera egokia badu ere, ez dago erabilgarri; izan ere, loreontzi bat jarri dute, oztopo eginez. Beraz, gurpildun aulkien erabiltzaileak ezin daitezke bertara hurbildu.

Sototik iristeko, gehiegizko malda duen arrapala dago. Al-tuegi dago jarrita atea irekitzeko gailua.



Deitzeko tinbrea sarrera nagusian. Ezin daiteke hurbildu, loreontzia baitago.



Sarrerako atea irekitzeko botoia. Altuegi jarrita dago.



Kanpoaldetik, sotora iristeko arrapala. Gehiegizko malda.



Laborategiko sarrera.



Erradiologiako komuna. Iristezina.

Kontsultak

Eraikin nagusiko laborategira iristeko espazioak ez die bira egiten uzten gurgildun aulkien erabiltzaileei.

Ospitaleko kanpo-kontsulten eremuko erradiologia-kontsulak aldagela irisgarria dauka, baina komuna ez dago egokitu-ta.

Oro har, adieraz dezakegu ospitaleko kanpo-kontsultetara sartzeko ateen igarobide-zabalera libre egokia dutela, eta esku-ohene altuera aldagarria dela. Hala ere, mahaiek ez daukate hondo egokia.

Errehabilitazioa: Ez da errehabilitazio-gunea aztertu.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduen komun gehienek irisgarritasun-gabeziak daukate; kasu batzuetan, atea barrurantz irekitzen da, komun-zuloen altuera ez da egokia, osagarriak ez dira egoki jarri, konketek oinarria daukate eta abar. Adierazi beharra daukagu kanpo-kontsulten lokalean aztertu ditugun komunak eskasak direla, duela gutxi ireki den lokala izan arren. Aztertutako komun batean, gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin, eta transferentzia egiteko tokian oztopo egiten duten objektuak daude.

ERAIKIN NAGUSIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Itxarongela
1. S	Onarpen-gunea (eskasa)
2. S	Ez dago
3. S	Ospitaleratze-unitatea

KANPO-KONTSULTEN LOKALEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Gune komuna
1. S	Gune komuna

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez da beharrezkoa
1. S	Ez da beharrezkoa
2. S	Ospitaleratze-guneko itxarongela ABU

KANPO-KONTSULTEN LOKALEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez da beharrezkoa
1. S	Ez da beharrezkoa

Ezinduen komuna sotoan. Heldulekua albo batean bakarrik.





Hirugarren solairuan gordetako komuna. Heldulekuak albo batean bakarrik, eta komun-zuloa baxu.

Logelak eta boxak

Ospitaleak egokitutako logela bakarra dauka; logelak behar besteko tokia dauka ohera transferentzia egiteko, gurgildun aulkien erabiltzaileek bira egiteko, eta gurgildun aulkia logelan bertan edukitzeko. Aitzitik, komunak koska bat dauka atean, eta irisgarritasun-gabezia handiak dauzka.

Ospitaleko boxen zonaldean, ez dago sartzeko, oheetara transferentzia egiteko eta bira egiteko toki nahikorik, eta ez dago ezinduen komunik.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Ospitaleratze-guneko itxarongelek eta egongelek ez daukate gurgildun aulkian dabilzan pertsonentzako espaziorik.



Egokitutako logela. Dutaontziak ez dauka transferentziarako leku egokirik.



Egokitutako logela. Komun-zuloak ez dauzka heldulekuak bi alboetan, eta ez dauka altuera egokia.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Ospitaleko sarrera nagusiko seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekua jarri behar da sarrera nagusian.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Libre utzi behar da sarrera nagusiko tinbrerako pasabidea.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Igarobide-zabalera libre egokia ez duten ateak ordezkatu behar dira.
- Nahitaez, ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki behar dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.
- Boxen zonaldea egokitu behar da.

3.16. Osatek, Areilza Doktorea Anbulatorioa

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Areilza Doktorearen kaleko establezimendu batzuek espaloiak hartzen dituzte, objektuak jartzen baitituzte oinezkoentzako ibilbidean. Eremuko zebra-bide batzuek koska daukate oinezkoentzako pasabidean, eta ez daukate oinezkoentzako seinaleztapen-zerrendak. Areilza Doktorearen kaleko bankuek ez daukate beso-euskarririk.



Areilza Doktorearen kaleko zebra-bideak maila dauka oinezkoentzako pasabidean. Seinaleztapen-zerrenda ezegokiak.



Koska zebrabidean.

Aparkatzea

■ Areilza Doktoarearen kalea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak ez daude oinezkoentzako pasabidetik hurbil; beraz, aparkalekuak erabiltzen dituzten eta gurpildun aulkien erabiltzaileak diren pertsonak errepidetik iritsi behar dira, ez baitago oinezkoentzako pasabiderik.
- Aparkalekuek ez daukate araudian ezarritako luzera.
- Ez daukate aparkatzea debekatzeko seinalea.

■ Poza kalea

- Ezinduei gordetako aparkalekuek ez daukate araudian ezarritako luzera.
- Ez daukate aparkatzea debekatzeko seinalea.



Ezinduei gordetako aparkalekua Poza kalean.



Ezinduei gordetako aparkalekuak Areilza Doktoarearen kalean.

Sarbideak eta itxarongelak

Osatekeko harrera-guneko harrera-mahai nagusiak ez dauka toki irisgarririk. Itxarongelan, gurpildun aulkien erabiltzaileentzako tokia dago, baina ez dago seinaleztatuta. Sarrera nagusian eta igogailuen irteeran, finkatu gabeko lanpasak daude, estropezu egitea eraginez.



Anbulatorioko sarrera nagusia Areilza Doktoarearen kaletik.



Itxarongela. Gurpildun aulkian doazen pertsonentzako espazio egokia, baina seinaleztatu gabea.

Kontsultak

Kontsultara sartzeko orri bikoitza duen beirazko atea dago; igarobide librea dauka (lehenengo irekitzen den atean), zabalera ezegokia eta ez dauka babes-zokolorik. Aldagela irisgarria dago, baina ez dauka bankurik.



Kontsultara sartzeko atea. Orri bateko igarobide libre ezegokia eta ez dauka babes-zokolorik.



Aldagela egokitua. Ez dago arropa aldatzeko bankurik.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Osatekeko unitateko itxarongelan dago ezinduei gordetako komuna. Bertara iristeko, igarobide-zabalera libre murrizta duen atea dago, eta komunera iristeko korridoreak ez die bira egiten uzten gurpildun aulkien erabiltzaileei. Komunaren barruan, lekua ez da nahikoa bira egitea ahalbidetzeko, eta ez dauzka helduleku egokiak.



Ezinduei gordetako komunera iristeko korridorea. Ez die bira ematea ahalbidetzen gurpildun aulkietan doazen pertsoneri.



Hondo egokirik gabeko konketa. Eskuak lehertzeko papera altu dago, eta ispilua ez dago ondo jarrita.



Ezinduei gordetako komuna. Barruko azalera txikia, komun-zuloa baxu, helduleku ezegokiak.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Anbulatorioko sarrera nagusiko seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak egokitu behar dira; bai eta sarrerarainoko ibilbidea ere.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokia jarri behar da.
- Itxarongelan, gurpildun aulkien erabiltzaileentzako tokia seinaleztatu behar da.

Kontsultak

- Unitatera sartzeko atea egokitu behar da.
- Dagoen aldagela egokitu behar da.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Komunaren irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da.

3.17. Osatek, Areetako Anbulatorioa

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Amaia eta Bidebarrietan kaleetan, oztopoak ikusi dira oinezkoentzako bidean. Amaia kaleko espaloiak ez dauka araudian ezarritako zabalera, eta eraikinaren kanpoaldeko seinaleztapena ez da egokia.

Eremuko zebrabideek ez dauzkate seinaleztapen-zerrendak, eta daudenak gaizki jarri dira.



Oztopoak Bidebarrieta kalean. Espaloi estua.



Seinaleztapen-zerrendak gaizki jarrita.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak ez dauzka araudian ezarritako neurriak.
- Ez dago oinezkoentzako pasabidetik hurbil; aparkalekuan pasabidea baldin badago ere, ez da egokia, ibilgailuaren neurriarekin bat egiten du-eta.
- Ez dago aparkatzea debekatzeko seinaleztapena.



Ezinduei gordetako aparkalekua. Erdigunean dago espaloirako sarbidea, aparkatutako ibilgailuarekin bat eginez.

Sarbideak eta itxarongelak

Anbulatorioko sarrera nagusira iristeko arrapalak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera. Anbulatorioaren barrualdeko seinaleztapena ez da egokia. Harrera-gunerako sarbidea guztiz iristezina da, eta ez dauka harrera-mahai irisgarririk.

Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik.



Anbulatoriara iristeko arrapala. Zabalera ezegokia.



Harrera-gunea. Koska sarreran, bira egiteko leku nahikorik ez eta egokitu gabeko harrera-mahaia.

Kontsultak

Eskanerraren eremura sartzeko atea igarobide-zabalera libre ezegokia dauka, aldagelen aurreko lekuak ez die bira egiten uzten gurpildun aulkien erabiltzaileei eta ez dago aldagela irisgarririk.



Eskanerraren eremurako sarrera. Atearen igarobide-zabalera libre ezegokia da, eta ez dago bira egiteko lekurik.



Aldagela. Ez dauka egokitzapenik. Iristezina.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Osatekeko unitaterako sarbidean dago ezinduei gordetako komuna. Komunak ez dauka komun-zulo egokirik, helduleku bakarra dauka albo batean eta konketako osagarriak ez dira egoki jarri. Komunak egokitu behar dira.



Ezinduei gordetako komuna. Komun-zulo ezegokia eta heldulekuak albo bakarrean.



Konketak ez dauka hondo egokia, eta konketako osagarriak altuera ezegokian daude.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Dauden ibilbideak egokitu behar dira.
- Anbulatorioko sarrera nagusiko seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak egokitu behar dira; bai eta sarrerarainoko ibilbidea ere.

Sarbideak eta itxarongelak

- Nahitaez, sarrera nagusiko arrapala egokitu da.
- Osatekerako sarrera egokitu behar da.
- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Osatekeko harrera-gunea egokitu behar da.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako zonaldea jarri behar da.

Kontsultak

- Osatekeko kontsulta egokitu behar da.
- Egokitutako aldagela sartu behar da.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Komunaren irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da.

4.

Gipuzkoako ospitaleak

4.1. Santa María de la Asunción
Klinika

Hiri-ingurunea

Autobus-geralekutik eta Tolosatik sarrera nagusira doan ibilbideak hainbat gabezia dauzka: espaloia-aren zabalera ez da egokia, eta espaloirik gabeko tartea daude; espaloia-aren zoladura oso hondatuta dago; oztopoak daude oinezkoentzako bidean, espaloiko oinezkoentzako pasabideek malda ezegokiak dauzkate eta oinezkoentzako pasabiderik gabeko zebra-bideak daude.



Autobus-geralekutik sarrera nagusira iristeko espaloiek zabalera libre ezegokia daukate, eta pasabiderik gabeko zebra-bidea.



Narrioak sarrera nagusiko sarbidean, eta proiektziorik gabeko jabaloiak.



Kafetegira iristeko espaloia, zabalera nahikorik ez eta landaredi irristakorra bidean.



Luminariak oinezkoentzako bidean.

Autobus-geralekutik kafetegira dagoen bideak ez du ibilbide autonomoa ahalbidetzen mugikortasun murriztua dutentzat: goroldio erako landaredia dago ibilbidearen sarbidean, irristakorra, eta ez dauka araudian ezarritako zabalera. Bestetik, ez dago espaloitik kafetegira sartzeko pasabiderik. Ondorioz, gurpildun aulkien erabiltzaileak errepidetik joan behar dira, horrek dakarren arriskuarekin.

Aparkalekutik ospitalerako sarbidea irisgarria da. Bidean, oso luminaria txikiak daude, erorikoak eragin ditzaketenak, eta proiektzio horizontalik gabeko hegala daude, jabaloia-aren ondozioakoak⁴.


Aparkatzea

Aparkaleku-erakina (klinika).

- Ez dago eska daitekeen gutxieneko ezinduen aparkaleku kopurua. Beste bi toki jarri behar dira igogailutik hurbil, eta daudenak aldatu, igogailuaren ondoan jarri.
- Ospitaleko sarrera nagusirainoko bideak proiektziorik gabeko hegala dauzka, eta luminaria oso txikiak daude bidean.
- Parkimetroa ez da irisgarria gurpildun aulkian doazen pertsonentzat.

Sarbideak eta itzarongelak

Ospitaleko sarrera nagusira iristeko, araudian ezarritako zabalera ez duen korridorea dago. Era berean, korridoreak finkatu gabeko lanpasa dauka oinezkoentzako ibilbidean, erorikoak eraginez. Sarrera nagusiaren kanpoaldeko terrazan, beheko aldean babesik ez duen baranda dago. Sarrerako ateeak seinaleztapen-banda ezegokiak dauzkate, eta ez dago harrera-mahai egokitu eta irisgarririk.



Parkimetro iristezina.



Ezinduei gordetako aparkalekuak ez dauka seinaleztapen horizontal egokia.

⁴ Egurrezko edo metalezko pieza, modu zeharreen beste pieza bertikal bati lotuz gero, hirugarren pieza horizontal edo makur baten euskarri izateko balio duena.

Ospitaleko itxarongela batzuetan, behar besteko tokia dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzat. Laguntzailearentzako eserlekua ere badago, albo batean, baina ez dago seinalez-tatuta. Era berean, itxarongela guztiek ez daukate mugikortasun murriztua dutenentzako eserleku egokiak.

Larrialdiak

Larrialdietara sartzeko, ate bat dago kanpoaldeko espaloian, eta txapa metaliko bat jarri da espaloian, sartzeko arrapala gisara. Aipatu arrapalak bira egitea galarazten du atearen kanpoaldean, eta irristakorra da.

Larrialdietako tinbrea 132 cm-ra dago jarrita; hau da, iristezina da. Larrialdietako korridorean, estuguneak daude, eta larrialdietatik ospitalera sartzeko ateak ez dauka araudian ezarritako zabalera librea.

Larrialdietara sartzeko arrapala. Ez die bira ematea ahalbidetzen gurpildun aulkietan doazen pertsoneri. Metalezko lurzorua, irristakorra.



Larrialdietako tinbrea altuegi, eta proiektzio horizontalik gabeko hegala oinezkoentzako ibilbidean.




Klinikako sarrera nagusira iristeko korridorea, igarobide-zabalera librerik gabea.



Terrazako baranda babesik gabea.



Sarrera nagusira sartzeko ateak ez dauka seinalez-tapen-banda egokiak. Argi gutxi.



Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.



Kontsultak

Erradiologia-kontsulta batek ere ez dauka egokitutako aldagelarik, eta erradiologiako esku-ohetak oso altuak dira, 96 cm-ko altueraraino; iristezinak dira.

Kontsultetara sartzeko ate gehienek zabalera libre egokia ez duten arren, barrualdeko espazioa egokia da.

Kontsultetan aztertu diren esku-ohetuek guztiek daukate altuera finkoa, aldagarria ez dena. Otorrinolaringologia-proben kabinan guztiz iristezina da.

Larrialdiak

Kanpotik larrialdien zonaldera iristeko tokian, sarrerako atearen ondoan, proiektzio horizontal egokirik gabeko hegala dago, eta lesioak eragin diezazkieke horrek ikusmen-urritasuna duten pertsoneri.

Barrualdean, orri bikoitzeko ateak daude, eta orri horietako batek (lehenengo irekitzen dena) igarobide-zabalera ezegokia dauka. Kontsulten korridorean oztopoak ikusi dira, estuguneak sortzen dituztenak. Kontsultetara sartzeko ateek ez daukate kontraste kromatiko egokia.

Erradiologiako aldagela mota, guztiz iristezina.





Koska erradiologiako esku-ohera iristeko, eta esku-ohera altuegi dago.



Erradiologia-kontsultara sartzeko atek ez dauka kontraste kromatiko egokia.



Kontsultan, esku-oherean eremuak bira eta transferentzia egiteko toki gutxi. Esku-ohereak ez dauka altuera aldagarria.



Larrialdietako korridorea oztopoekin okupatuta.



Oztopoak kontsultan sarreran, eta kontraste kromatikorik gabeko atek.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ospitaleak komun egokitu eta irisgarri bakarria dauka, baina ezaugarri eskasak dauzka: barrak distantzia ezegokietara daude jarrita, atek ez dauka zabalera egokia, eta konketako osagarriak altuegi jarrita daude.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago
3. S	Ospitaleratze-unitatea (urria)
4. S	Ez dago
5. S	Ez dago

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Kafetegia
1. S	Sarrera nagusia Kanpo-kontsultak
2. S	Kardiologia-unitatea Areto nagusia
3. S	Ez da beharrezkoa
4. S	Ospitaleratze-unitatea
5. S	Ospitaleratze-unitatea



Lehenengo solairuko sarrera nagusiko komuna ez dago egokituta.



Lehenengo solairuko komuna ez dago egokituta.



Lehenengo solairuko komuna ez dago egokituta.



Hirugarren solairuko komun egokitua oso eskasa.

Logelak eta boxak

Ospitaleak ez dauka logela egokiturik. Dutxaontzia lurrean duten komunak ikusi dira, bira egitea ahalbidetzen ez dutenak; gainera, komun batean ere ez dago konketako osagarrri edo laguntza tekniko egokirik, komunera sartzeko ateek igarobide-zabalera libre ezegokia daukate eta argiztapena ere ez da egokia. Aztertu diren logeletan, ez dago gurpildun aulkia logelan eduki ahal izateko leku nahikorik.

Boxetako espazioak zabalak dira, eta transferentzia ohearen albo batean egitea ahalbidetzen dute; alabaina, ez daukate komun egokiturik.

Aztertu diren itzarongela eta egongela gehienek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik, eta, bada-goenean, lekua ez dago seinaleztatuta.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Boxak, transferentzia eta bira egiteko leku nahikoa.



Logelako komun mota; dutxa 0 kotan, bira eta transferentzia egiteko tokirik gabe.



Transferentzia ohera egiteko toki nahikorik ez.



Logelan, pasatzeko leku nahikorik ez.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Kafetegira sartzeko, barrualdeko eta kanpoaldeko eskailerak daude. Eskailerak erabili nahi ez badira, errepidea da aukera bakarra. Kafetegira sartzeko atea araudian ezarrita dagoen zabalera libre dauka.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik. Edariak barran edo jantokiko mahaietan zerbitzatzen dira.

Altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek ez daukate neurri egokia gurpildun aulkien erabiltzaileek erabili ahal izan ditzaten.

Kafetegiak komunak dauzka bere instalazioetan, baina bat bera ere ez dago egokituta. Hurbilen dagoen ezinduen komuna hirugarren solairuko ospitaleratze-unitatean dago, eta gabezia batzuk dauzka.

Makina saltzaileak

Janaria saltzen duen makina irisgarria da; gainerakoak, telefonoa eta telebista ordaintzeko makinak barne hartuta, iristezinak dira.

Areto nagusia

Areto nagusira sartzeko atea ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera libre.

Ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik, eta argiztapena mugatua da.

Oholtzako mahaiak araudian ezarritako neurriak dauzka.

Areto nagusiak egokitu gabeko komuna dauka. Hurbilen dagoen ezinduen komuna hirugarren solairuko ospitaleratze-unitatean dago, eta gabezia batzuk dauzka.



Kafetegia. Kanpoaldetik sartzeko eskailerak.



Areto nagusia.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalearen kanpoaldeko ibilbide guztiak egokitu behar dira.
- Kanpoko ibilbideetako oztopoak kendu behar dira.
- Proiekzio horizontalik gabeko hegialak kendu behar dira, edo lurrerainoko proiektzioz hornitu.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ospitaleko sarrera guztietan jarri behar dira, edo horra lekuak, ezinduei gordetako aparkalekuak.

Sarbideak eta itxarongelak

- Larrialdietako sarrera egokitu behar da.
- Terrazako barandaren behe aldean, babesa jarri behar da.
- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri behar dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Argiztapen egokia jarri behar da.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.
- Korridoreetan dauden oztopo guztiak kendu behar dira.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten atek ordezkatu behar dira, eta kontraste kromatikoz hornitu horiek.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten atek aldatu behar dira.
- Komuna eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.
- Garabi eta baskula nahikoak erosi behar dira gurgildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan, irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki behar dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ospitaleko unitate eta box-zonalde guztietan eraiki behar dira logela egokituak.
- Garabiak erosi behar dira gurgildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.

Beste gela batzuk

- Ibilbide irisgarria eraiki behar da eraikinaren barrualdetik ospitaleko kafetegira, eta kafetegia eta eratzkitako komunak egokitu behar dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Areto nagusia eta komuna egokitu behar dira.

4.2. Aita Menni Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Autobus-geralekutik iristeko zeharabideak maila dauka pasabidean, eta ez dauka zerrenda-gidak. Kaletik ospitaleko sarrera nagusirako sarbidean, eskubandarik ez duen malda handia dago. Hala ere, plataforma jasotzailea dago malda handiaren alternatiba gisa. Aldaparen zoladura eta plataforma jasotzaile bertikalera sartzeko zoladura irristakorra dira.

Plataforma bertikalak tarte handiegia dauka, bai bertikalak, bai horizontalki, plataformaren ateari dagokionean.

Gainera, atek ez dauka 40 cm-ko babes-zokolorik.

Eraikin nagusiaren eta eratzkitako eraikinaren arteko ibilbideetan, malda handia duten arrapalak daude; bai eta eskubandarik gabeko arrapalak ere, eta narrioak zoladuran. Arantzazu eraikineko arkupeetako zoladura irristakorra da.



Sarrera nagusirako sarbideko malda. Eskubandarik gabe eta zoladura irristakorra. Eredu honetan, ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik.



Plataforma bertikalera sarbideko zoladura irristakorra.

Plataforma jasotzailean kota ezberdinak.



Oinezkoentzako pasabide narriatua autobusera galekurako sarbidean.



Ospitale-esparruaren barrualdeko arrapalak malda ezegokia dauka, ez dauka eskubandarik...



Kartoen pabilioiko sarrerako arrapala.



Arrapalaren ezaugarriak ez dira egokiak.



Aparkatzea

Aparkalekuko sarrera ez dago ospitalearen kanpoaldean seinaleztatuta. Ezinduei gordetako aparkalekua jarri behar da sarrera nagusian.

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrera nagusira iristeko, ezaugarri ezegokiak dituen atea dago, eta harrera-gunean argiztapena falta da. Sarrera nagusiko harrera-mahaia ez dauka toki egokiturik.

Kartoen pabilioirako sarbidean, guztiz iristezina den arrapala dago, eta finkatu gabeko lanpasa dago sarreran.


Psikiatria legaleko pabiloiko sarreran, igarobide-zabalera libre ezegokia duen atea dago.

Kontsultak

Eraikin nagusian aztertu den kontsultan salbu, gainerakoek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia duen atetik. Oro har, kontsulten barrualdeko espazioa txikia dela esan dezakegu, eta gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezaketela bira egokia egin bertan. Kontsultetako mahaiek ez daukate hondo libre egokia.

Errehabilitazioa: Gimnasioko espazioa egokia da, eta transferentzia egin daiteke esku-ohearen albo batean. Esku-oheen altuera alda daiteke. Ekipamendu espezifikoa dago mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil dezaten. Ez dago aldagelarik.

Kontsulta txikia.



Errehabilitazioan, makineria egokia mugikortasun urriko pertsonentzat.



Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Komunen barrualdeko espazioa, oro har, egokia da; komun-zuloen eta konketetako osagarrien ezaugarriek, ordea, irregularitasunak dauzkate: aztertu diren komun-zulo gehienek ez daukate behar besteko altuera, eta komun-zuloa altxatzeko osagarria jarri da, horiek altxatze aldera; komun-zuloek ez daukate araudian ezarritako ezaugarriak betetzen dituzten heldulekuak, eta komun-zuloa altxatzeko osagarriari atxikita jarri dira, egonkortasun-arazoak eraginez. Bestetik, osagarriak altuegi jarri dira.

ERAIKIN NAGUSIKO EZINDUEN KOMUNAK

<i>Solairua</i>	<i>Unitatea/Gunea</i>
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago

ERAIKIN NAGUSIKO EZINDUEN KOMUNAK

2. S	Ez da erabiltzaileentzako edo pazienteentzako zonaldea
3. S	Kontsulten korridoreak
4. S	Ez dago

ARANTZAZU ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Kafetegira iristeko korridorea
1. S	Egongela
2. S	Ez dago guztiontzako komunik
3. S	Ez dago guztiontzako komunik
4. S	Ez dago guztiontzako komunik

JESUSEN BIHOTZA ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Korridore nagusia (eskasa)
1. S	Ez dago guztiontzako komunik
2. S	Ez dago guztiontzako komunik
3. S	Egongela

BENITO MENNI ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK (LOGELAK)

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago guztiontzako komunik
2. S	Ez dago guztiontzako komunik
3. S	Ez dago guztiontzako komunik
4. S	Ez dago guztiontzako komunik

BENITO MENNI ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK (KOMUNAK)

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago
2. S	Egongela
3. S	Egongela
4. S	Egongela

ZERBITZUEN ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago guztiontzako komunik
1. S	Ez dago guztiontzako komunik
2. S	Ez dago
3. S	Ez dago
4. S	Ez da erabiltzaileentzako edo pazienteentzako zonaldea

KARTOIEN PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago

PSIKIATRIA LEGALAREN PABILIOIKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Sarrera nagusia Areto nagusia
1. S	Areto nagusia

ARANTZAZU ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Jantokia

JESUSEN BIHOTZA ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
1. S	Guztiontzako gunea (badago, baina oso eskasa)

BENITO MENNI ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK (LOGELAK)

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Erabilera anitzeko aretoa asmoa

BENITO MENNI ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK (LOGELAK)

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ile-apaindegia

ZERBITZUEN ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
2. S	Gune komuna
3. S	Gune komuna

KARTOIEN PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Gune komuna

PSIKIATRIA LEGALAREN PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Itxarongela



Hondo egokirik gabeko konketa, iturri iristezina eta ispilua altuegi.

Komun-zuloa altxatzeko osagarria komun-zuloan. Ezegonkorra.



Komun egokitu egokia logelan.



Egokitutako komunaren barrualdeko ezaugarriak egokiak; atea, ordea, barrurantz irekitzen da.



Logelako komuna egoki egokitu gabe.



Altzariek okupatuta transferentziarako tokia.



Logelak toki nahikorik ez altzarien artean.



Komun irisgarria, psikiatria legalaren zonaldea. Egokitzapenik gabe.



Komuna. Psikiatria legalaren unitatean, egokitzapenik ez.



Logelak eta boxak

Ospitaleak egokitutako logelak dauzka unitate edo eraikin eratziki guztietan, psikiatria legalaren unitatean izan ezik. Psikiatria legaleko logeletan, lo egiteko tokia egokia da, baina komunak irisgarritasun-gabezia asko ditu.

Unitateetan egokitutako logelek ere gabeziak dauzkate. Horrela, bada, ateen igarobide-zabalera libreak, komuneko atea barrurantz, komun-zulo baxuak eta abar. Logelen barrualdeko espazioak, oro har, ohearen albo batean dauka transferentzia egiteko tokia, baina ez dauka gurpildun aukia logelan uzteko tokirik.

Mugitzeko garabi nahikoak ikusi dira.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Bisitaren unean, kafetegia itxita zegoen, obrak zirela-eta. Altzariak jartzea baino ez zen falta.

Egiaztatu ahal izan zen kafetegira sartzeko atek irisgarriak direla.

Hurbilen dagoen ezinduen komuna kafetegiko sarreraren aurrean dago, korridore nagusian.

Jantokiak

Ospitaleratuta dauden pazienteek bakarrik erabiltzeko jantokiak aztertu dira. Jantokietara sartzeko atek ez daukate araudian ezarrita dagoen zabalera libre.

Altzariak egoki antolatuta daude, eta egokia da gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten. Menuak mahaietan zerbitzatzen dira.

Makina saltzaileak

Ospitaleko logela guztiak dira irisgarriak.

Areto nagusia

Bi areto nagusi aztertu dira ospitalean.

Lehena, eraikin nagusiko behe-solairuan dago, eta, bigarrena, lehenengo solairuan.

Behe-solairua:

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Atearen osteko berehalako espazioan ezin daiteke bira egin.

Besaulkien zonaldea maldan dago, eta eskaierak daude oholtzara igotzeko, arrapala alternatiborik gabe.

Ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik, baina besaulkien aldeko erdiguneko korridorean jartzeko tokia dago.

Areto nagusiak ez dauka ezinduen komunik, eta hurbilene-tan, eraikin nagusiko hirugarren solairuan daudenetan, ez dago ezinduei gordetako komunik.



Jantokia. Altzariak modu egokian banatuta.



Kapera



Lehenengo solairuko areto nagusia.

Lehenengo solairua:

Ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Atearen osteko berehalako espazioan bira egin daiteke.

Besaulkien zonaldea maldan dago, eta ez dago eskaierarik oholtzara igotzeko.

Ez dago ezinduei gordetako tokirik, eta gurpildun aulkien erabiltzaileak jartzeko tokia maldan dago.

Areto nagusiak ez dauka ezinduen komunik, eta hurbilene-tan, eraikin nagusiko hirugarren solairuan daudenetan, ez dago ezinduei gordetako komunik.

Kapera

Kafetegira sartzeko ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Ez dago ezinduei gordetako eremurik, baina gurpildun aulkien erabiltzaileentzako tokia dago.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalera iristeko ibilbide guztiak egokitu behar dira; bai barruko patiokoak, bai kanpokoak.
- Plataforma bertikala egokitu behar da.

Aparkatzea

- Ospitale-esparruko aparkalekua seinalaztatu behar da.
- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira sarrera nagusian.

Sarbideak eta itxarongelak

- Sarrerako ateak aldatu behar dira, igarobide libre egokia ez badute.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.
- Kartoen pabilioiko sarrerako arrapala egokitu behar da.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten ateak ordezkatu beharko dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordeez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.

- Ezinduen komunak eraiki beharko dira “Gune komunitan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako logelen ezaugarriak berrikusi behar dira.

Beste gela batzuk

- Jantokietara sartzeko atea ordezkatu behar dira.
- Areta nagusiak eta horietatik hurbil dauden komunak egokitu behar dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Kaperara sartzeko atea aldatu behar da.

4.3. Debagoieneko Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ospitaleko berehalako ingurunea irisgarria da. Nafarroa kalea lorategiz hornituta dago; beraz, hainbat ibilbide daude eraikineko sarrera nagusira iristeko. Halere, ikusmen-urritasuna dutenek edukiko lukete arazo handiena inguru honetan, ez baitago norabidezko zerrenda-gidarik. Txaeta kalean, aldiz, zailagoa da ospitalera iristea, altuera ezegokia duten mutiloi ugari baitaude.

Larrialdietako sarreratik hurbil dagoen zebrabidean, mutiloi oso txikiak jarri dira, eta edozein pertsona erortzea eragin dezakete oro har, eta ikusmen-arazoak dituztenak erortzea bereziki.

Kanpoko seinaleztapena ez da egokia; Nafarroa kaletik, ez dira ospitaleko sarrera guztiak identifikatzen.



Sarrera nagusirako sarbidea, Nafarroa kaletik.



Mutiloi txikiak Txaeta kaleko sarbidean.

Aparkatzea

■ Nafarroa hiribideko aparkalekua (udala)

Kale honetan, aparkaleku bat dago. Horretaz gain, aparkatzeko lekuak daude kale berean. Kanean eskuragarri dauden aparkalekuetan, bi daude ezinduei gordeta; alabaina, aparkaleku nagusian ez dago bat bera ere. Beste bi leku gorde behar dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzat; bai kanean, sarrera nagusitik hurbil, bai aparkalekuan bertan, sarreratik ahalik eta hurbilen, ibilbide irisgarriarekin.

■ Txaeta kaleko aparkalekua (udala)

Txaeta kalean, ezinduen aparkaleku batzuk daude, eta, ospitalearen eremuan, bi daude. Horietako bat larrialdietatik urrun dago; beraz, leku aldatu egin behar da.



Nafarroa hiribideko aparkalekua.



Txaeta kaleko aparkalekua.

Sarbideak eta itxarongelak

A eraikineko sarrera nagusiak ez dauka harrera-mahai egokiturik, eta sarrerako atea ezegoki jarrita dauzka seinaleztapen-bandak.

E eraikineko sarrera nagusian, eta, oro har, lurzoru guztian, hainbat kolore dituen zoladura jarri da, eta nahasmendua eragin diezaieke horrek ikusmen-arazoak edo adimen-urritasuna duten pertsonen gainera. A eraikineko sarreran bezalaxe, ate automatikoen seinaleztapen-banda ezegokiak dauzkate.

Ospitaleko itxarongelak ez daukate gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.

Erresonantzia magnetikoak ospitalearen kanpoaldean egiten dira, Osatekeko kamioi mugikor batean. Kamioiak plataforma bertikal bat dauka bertara igo ahal izateko, baina ontziratze gunean ez dauka botoi irisgarririk desgaitasun fisikoa duten pertsonak modu autonomoan igo ahal izan daitezen.

Larrialdietako zonaldea. Larrialdietara sartzeko atea seinaleztapen-banda ezegokiak dauzka. Kontsulta sailkatua guztiz iristezina da. Pediatriako itxarongelak ez dauka gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik.



A eraikineko sarrera nagusian, seinaleztapen-banda ezegokiak.



A eraikineko itxarongelak ez dauka gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.



E eraikineko sarrera nagusian, seinaleztapen-banda ezegokiak, eta lurzoruko zoladurak nahasmendua eragin dezaketeko kolore ugari.



B eraikineko kanpo-kontsulten itxarongelak ez dauka gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.

Kontsultak

Erradiologia- eta ginekologia-kontsultek ez daukate ez komun, ez aldagela egokiturik, eta duela gutxi eraiki den E eraikinean daude. Era berean, igarobide-zabalera libre urriak ikusi dira, zonalde egokiturik gabeko harrera-mahaiak, gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako eremurik gabeko itxarongelak eta abar.

B eraikineko kontsultak komunikatzeko, korridore estuak daude; hala ere, ateen zabalera egokia da. Altzariak eta esku-oheak iristezinak dira.

Kontsulta horiek laster desagertuko dira, A eraikineko ospitaleratze-gunera lekualdatzea pentsatu baita. A eraikineko ospitaleratze-gunean jarriko diren kontsulta guztiek edukiko dute komuna, lehen logelak baitziren. Komun horiek ez daude egokituta.

Farmaziara sartzeko ateko tinbrea altuegi dago.

Ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileentzako garabi eta bascula nahikorik.

Larrialdiak

Larrialdietako kontsulta sailkatua txikia da; gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin, edo kontsulten eremura zuzenean sartu. Izan ere, kontsultetara sartzeko atea oztupoak dauzka ibilbidean, eta ezin daiteke atea guztiz ireki.

Errehabilitazioa

Gimnasioko eta tratamendu-guneetako espazioa txikia da. Esku-ohe batzuetan, transferentzia egin daiteke albo batetik.

Tratamenduetarako esku-oheak finkoak dira, eta egurrezkoak. Iristezinak dira pertsona batzuentzat.

Ez dago ekipamendu espezifikorik mugikortasun urriko pertsonentzat. Ezinduei gordetako aldagelak daude, baina zenbait gabezia dauzkate; hala nola, atea irekitzeko noranzkoa.



Erradiologia-kontsultako komun mota. Txikia, iristezina.



Erradiologia-kontsultako aldagela mota. Txikia, iristezina.



Itxarongelak ez dauka gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserleku egokirik ere. Toki txikia da.



Kontsulta sailkatua txikia da gurgildun aulkien erabiltzaileek bira eta maniobra egin ahal izan dezaten.

Errehabilitazioko komun egokituak baxu dauka komun-zuloa, eta atea barrurantz irekitzen da.



Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduen komunen ezaugarri orokorrak ez dira egokiak, aztertu diren komun-zulo guztiek baitute altuera ezegokia, eta komuneko osagarriak altuegi jarri baitira. Hurbiltzeko eta transferentzia egiteko tokietan dauden paperontziek ere erabiltezin egiten dute lekua.

A ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago guztiontzako komunik
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago

B ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago

E ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Farmazia
0. S	Erradiologia-unitatea Larrialdia
1. S	Ez dago guztiontzako komunik
2. S	Ospitaleratze-gunea (bisitaren unean, biltegia zen)
3. S	Ospitaleratze-gunea (bisitaren unean, biltegia zen)

A ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez da beharrezkoa
0. S	Guztiontzako komuna solairu osoan
1. S	Guztiontzako komuna solairu osoan
2. S	Guztiontzako komuna solairu osoan

B ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez da beharrezkoa
0. S	Sarrera nagusia
1. S	Guztiontzako komuna solairu osoan (A eraikineko berbera izan zitekeen)
2. S	Guztiontzako komuna solairu osoan (A eraikineko berbera izan zitekeen)

E ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez da beharrezkoa
0. S	Ez da beharrezkoa
1. S	Ez da beharrezkoa
2. S	Oztopoak kendu ezinduen komunetik
3. S	Oztopoak kendu ezinduen komunetik

E eraikineko komun egokituak. Gabeziak komun-zuloaren, ispilua, eskuak lehertzeko paperaren altueran, eta konketak hondo eta altuera ezegokiak.



Logelak eta boxak

Ospitaleratze-guneko logela guztiak dira irisgarriak; transferentzia egiteko behar den tokia dago alboetako batean, eta gurgildun aulkia gorde daiteke bertan.

Hala ere, zenbait gabezia dauzka komunak; besteak beste, heldulekua falta da dutxan, komun-zuloa baxu dago, konketako osagarriak altu daude eta abar.

Garabiz lagundutako komun bana dago solairu guztietan, baina ez dira asko erabiltzen; izan ere, ospitaleratze-guneko logela guztietako komunak daude egokituak.

Ospitaleratze-guneko korridoreetan, leihoak barrurantz makurtuta irekitzen dira, proiektio horizontalik gabeko hegala sortuz. Arazotsua izan daiteke hori ikusmen-urritasuna duten personentzat.

Aztertu diren larrialdietako boxetan, transferentzia egiteko leku nahikoa dago albo batean. Hala ere, unitateko komunak gabeziak dauzka; transferentzia egiteko toki gabezia da larriena.

Eguneko ospitaleko boxetan, aldiz, oheetara transferentzia egiteko leku nahikoa dago. Unitateko komunak irisgarritasun-gabezia batzuk dauzka; hala nola, komun-zuloak baxu daude, komun-zulora transferentzia egiteko tokian oztopoak daude, konketetako osagarriak altu daude eta abar.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Ospitaleratze-guneko egongelek ez daukate gurgildun aukien erabiltezaileentzat gordetako tokirik.

Larrialdietako boxetan egokitutako komuna. Ez dago komun-zulora transferentzia egiteko tokirik.





Egokitutako logelako komuna. Komun-zuloa baxu.



Logela egokituko dutxa. Heldulekuak falta. Duxtaren altuera aldatzeko barra falta da.



Barrurantz makurtzen den leihoa oinezkoen bidean, proiektzio horizontalik gabe.



Ospitaleratze-guneko harrera-mahaia ez da irisgarria.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Kafetegirako sarbidea irisgarria da; hala ere, sarrerako atean ez dauka araudian ezarritako zabalera.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik. Edariak barran edo jantokiko mahaietan zerbitzatzeko dira.

Altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek neurri egokiak daukate gurgildun aulkien erabiltzaileek erabili ahal izan ditzaten.

Kafetegiak ez dauka komunik bere instalazioetan. Kafetegitik hurbil dagoen komun bakarra ez dago egokituta, eta hurbilen dauden komun gordeak E eraikineko behe-solairuan daude.



Kafetegia. Altzariak egoki antolatuta, mahaiek hanka bakarra erdigunean.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Oinez hautemateko seinaleztapen-zerrendak jarri behar dira Nafarroa kaletik ospitalerako bidean dauden ibilbideetan.
- Txeta kaleko mutiloak aldatu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira Nafarroa kaleko aparkalekuan.
- Txeta kalean dauden lekualdatu behar dira, larrialdietako sarreratik hurbil.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri behar dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Nahitaez, gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.
- Korridoreetan dauden oztopo guztiak kendu behar dira.
- Itxarongela eta erresonantzien kamioirako sarbidea egokitu behar dira.

Kontsultak

- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten atean aldatu behar dira.
- Kontsulta sailkatua egokitu behar da.
- Garabi eta baskula nahikoak erosi behar dira gurgildun aulkien erabiltzaileek erabili ditzaten.
- Farmaziako tinbrea egokitu behar da.
- Altuera erregulagarria duten esku-ohak jarri behar dira esku-ohetako finkoen orde.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Garabi gehiago erosi behar dira gurpildun aukien era-biltzaileek erabil ditzaten.

Beste gela batzuk

- Sarrera nagusitik hurbil dauden kafetegia eta komunak egokitu behar dira.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

4.4. Bidasoa Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ospitaleko berehalako ingurunea oso iristezina da. Ospitale-esparruko espaloi batek ere ez dauka araudian ezarritako zabalera, eta espaloietak oinezkoen pasabide guztiek daukate gehiegizko malda. Ez dago oinezkoentzako ibilbide irisgarririk ospitaleko sarreren artean.

Aparkalekurainoko ibilbidea ere ez da irisgarria.

Oztopoak ikusi dira oinezkoentzako ibilbideetako espaloi gehienetan; hala nola, mutiloiak, kotxeak, farolak, paletak... Zonalde batzuetako zoladura narriatuta dago.

Zebrabideak gaizki eginda daude; maila daukate, inolako pasabiderik gabe, eta ez dago seinaleztapen-zerrendarik.

Zabalera nahikorik gabeko espaloia, oztopoak oinezkoentzako bidean, eta pasabiderik gabeko zebrabidea.



Oinezkoentzako pasabidea gaizki egina.



Gordetako aparkalekua seinaleztapen bertikalik gabe.



Bide iristezina kanpo-kontsulten sarrera nagusiraino.



Zabalera nahikorik gabeko espaloia, zebrabide iristezina.



Oinezkoen pasabideak gehiegizko malda, pasatzeko seinaleztapenik gabe, irisgarritasun txarra beheargunetik espaloiira eta abar.



Aparkatzea

■ Sarrerako aparkalekua (Osakidetza)

Eremu honetan, ez dago ezinduen aparkalekurik. Toki bat jarri behar da.

■ Aparkalekua (Osakidetza)

- Eremu honetan, egokitutako aparkaleku bat dago; hala ere, ez dauka seinaleztapen bertikalik, eta horizontala oso higituta dago.
- Ezinduei gordetako lau aparkaleku jarri behar dira, seinaleztapen egokiarekin.

■ Kanpo-kontsultetako aparkalekua (Osakidetza)

- Ezinduei gordetako aparkaleku kopurua egokia da, baina seinaleztapenak gabezia larriak dauzka.
- Gordetako aparkalekuetatik sarrera nagusirako ibilbidea ez da irisgarria.

■ Larrialdietako aparkalekua (Osakidetza)

- Eredu honetan, ez dago ezinduen aparkalekurik. Ezin duei gordetako aparkaleku bat jarri behar da, errehabilitazioko sarreratik hurbil.

Sarbideak eta itxarongelak

Kanpo-kontsulten sarrera nagusiko atearen aurreko espazioan, ez dago azalera horizontal irisgarri eta egokirik. Gunea maldan dago, eta, beraz, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin. Gainera, sarrerako ate batek ez dauka araudian ezartzen den igarobide-zabalera librea.

Sarrera nagusiko harrera-mahaiek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileentzat egokitutako toki irisgarriak.

Oinezkoentzako ibilbidean, irekita daudenean proiektzio horizontalik gabeko hegalek sorrarazten dituzten leihoak daude, arriskutsuak izan daitezkeenak.

Ospitaleko itxarongelek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.

Orri bikoitzeko ate banatzaileak ikusi dira, eta, horietako batean, ez dago igarobide-zabalera libre egokia (lehenengo irekitzen denean).

Larrialdiak. Larrialdietako sarrerako atearen aurreko lekuan, ez dago azalera horizontal egokirik, eta, beraz, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin. Ate automatikoak ez dauka seinaleztapen-banda egokirik, eta harrera-guneko harrera-mahaia ez dauka alde egokiturik. Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.



Kanpo-kontsultetako ate nagusiak maldan dauka atearen aurreko azaleran.



Harrera-mahaian, ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzat egokitutako tokirik.



Itxarongelak ez dauka ezinduei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.



Orri bikoitzeko atearak zabaleraz ezegokiarekin, eta beste barra bat falta zaie beherago.



Hegalek dituzten leihoak proiektzio horizontalik gabe; arriskutsuak izan daitezke edonorentzat.



Larrialdietara sartzeko atearak ez dauka seinaleztapen-bandak.

Kontsultak

Erradiologiako gelek ez daukate ez komun, ez aldagela egokiturik.

Kontsultetara sartzeko ate gehienek ez daukate ez zabalera egokia, ez kontraste kromatikoa.

Kontsulten arteko ibilbideetan, orri bikoitzeko atearak daude, igarobide-zabalera libre ezegokia dutenak orrietako batean (lehenengo irekitzen denean), eta hegalek ez daukate proiektzio oinezkoentzako ibilbidean. Bi kasuetan, egoera arriskutsuak gerta daitezke.

Erauzketa-mahaia ez daude egokituta; izan ere, barra bat daukate beheko aldean, eta gurpildun aulkien erabiltzaileak ezin daitezke hurbildu.

Ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzako garabi eta bascula nahikorik.

Larrialdiak

Larrialdietako kontsultek behar besteko tokia daukate barrualdean maniobra egiteko. Igarobide-zabalera libre duen atea egokia da.

Altuera aldagarria duten esku-ohetako elektrikoak eta altzariak egokituta daude. Larrialdietako kontsultetara sartzeko atearak ez daukate babes-zokalarik.



Erradiologia-kontsultako komuna. Barra ezegokia, eta beste barra bat falta da.



Erradiologia-kontsultako aldagela iristezina.



Erauzketa-gelan altzari ezegokiak; behealdeko barra dela-eta, ez diete hurbiltzen uzten gurpildun aulkien erabiltzaileei.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ezinduei gordetako komunen ezaugarriak ez dira egokiak; kasu batzuetan, heldulekuak jartzea besterik ez da egokitapena. Kanpo-kontsultetako eta bosgarren unitateko komunetan, ezin daiteke komun-zulora aurrez aurre hurbildu, komuneko atea barrurantz irekitzen da-eta. Gainera, kanpo-kontsultetako komunak ez dauka komun-zulo irisgarririk.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago
0. S	Kanpo-kontsultak (eskasa)
1. S	Larrialdietako harrera-gunea (eskasa)
2. S	Bosgarren unitateko ospitaleratze-gunea

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Igogailuen gune nagusia
0. S	Larrialdietako itxarongela
	Larrialdietako unitatea
2. S	Igogailuen gune nagusia



Larrialdien eremuan egokitutako komuna. Komun-zulo ezegokia, komuneko osagarrien altuera ezegokia.



Larrialdien eremuan egokitutako komuna. Heldulekua albo batean bakarrik. Eta transferentziarako tokirik gabe.



Guztionezko komuna egokituta ospitaleratze-gunean. Komuneko atea barrurantz irekitzen da komun eraberritu berrian.

Logelak eta boxak

Ospitaleak ez dauka egokitutako logelak unitate guztietan. Aztertu diren logela egokitueta komunek zenbait gabezia daukate: heldulekua falta da albo batean, konketak ez dauka hondo egokia, alarma altuegi jarrita dago, edo kiribilduta eta abar.

Lo egiteko eremuak behar besteko tokia dauka gurpildun aulkia logelan eduki ahal izateko.

ABUko unitateko boxak bakarrik aztertu dira. Zabalak dira, baina ez daukate komunik. ABU unitatera sartzeko ateez ez daukate igarobide-zabalera libre egokia.

Lagundutako komuna jarri da, ez baitago logela irisgarririk unitate guztietan.

Transferentzia egiteko garabi nahikoak ikusi dira.

Oinezkoentzako tokian, orri bikoitzeko ateez daude, eta, lehenengo atean, ez daukate igarobide-zabalera egokia.

Adieraz dezakegu ospitaleratze-guneko pazienteentzako egongelako sarrera eta mahaia egokiak direla. Hala ere, ez dago gurgildun aulkian doazen pertsonentzat gordetako espaziorik.



Egokitutako logelako komuna. Heldulekua albo batean bakarrik.



Egokitutako logelako komuna. Konketak ez dauka hondo egokia; ispilua eta eskuak lehertzeko papera altuegi.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Kafetegirako sarbidea irisgarria da. Sarrerako atea beirazkoa da, eta araudian ezarritako zabalera dauka; hala ere, ez dauka seinaleztapen-bandak.

Kafetegiko mostradoreak neurri egokiak dauzka gurgildun aulkien erabiltzaileek erabil dezaten.

Kafetegiko arreta-zerbitzua autozerbitzu motakoa da. Horrek ez die kafetegiaren erabilera autonomoa egiten uzten gurgildun aulkien erabiltzaileei.

Aretoko altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek neurri egokiak dauzkate gurgildun aulkien erabiltzaileek erabili ahal izan ditzaten.

Kafetegiak ez dauka komunik bere instalazioetan. Kafetegitik hurbil dagoen komun bakarria ez dago egokituta, eta hurbilen dauden komun gordeak ospitaleko behe-solairuan daude.

Makina saltzaileak

Ospitaleko logela guztiak dira irisgarriak.

Kapera

Kafetegira sartzeko atea ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera libre. Barrualdeko tokia guztiz iristezina da; izan ere, bankuz beteta dago barrualdeko espazioa, bira egitea eragotziz, eta ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik.



Mostradorea. Neurri egokiak, autozerbitzu motakoa.



Jantokia. Altzarien banaketa egokia, altzarien ezaugarri egokiak.



Kapera Atearen zabalera ez da nahikoa.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalearen kanpoaldeko ibilbide guztiak egokitu behar dira.
- Kanpoko ibilbideetako oztopoak kendu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Dauden lekuak lekualdatu behar dira, edo ezinduen apartakalekuak jarri ospitaleko sarreretatik hurbil.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri behar dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.
- Korridoreetan dauden oztopo guztiak kendu behar dira.

Kontsultak

- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Odola ateratzeko gelako atea eta mahaia aldatu behar dira.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten atean aldatu behar dira.
- Proiektzio gabeko hegala kendu behar dira, edo hor daudela adierazi proiektzio horizontal osoan.
- Nahitaez, argiztapen homogenea jarriko da kanpo-kontsulten unitatean.
- Garabi eta baskula nahikoak erosi behar dira gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar da, gutxienez, ezinduei gordetako logela bana.

Beste gela batzuk

- Kafetegian, beste alternatiba bat eman behar zaio “auto-zerbitzuari”, edo, gutxienez, deitzeko botoi irisgarria jarri behar da, jatekoa modu autonomoan hartu ezin dezaketen arreta emateko. Kasu horretan, laguntza mota hori eskaini beharko luke kafetegiak.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Kapera egokitu behar da.

4.5. Mendaroko Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ospitaleko berehalako ingurunea iristezina da. Ospitaleko espaloietan ez dauka araudian ezarritako zabalera; beraz, ez dago oinezkoen bide irisgarriko ospitaleko sarreren artean.

Oztopoak ikusi dira oinezkoentzako ibilbideetako espaloietan; hala nola, mutiloak, kotxeak, farolak, markesinak...

Zebrabideak gaizki eginda daude: pasabideek koska dute, pasabideetako malda ezegokia da, seinaleztapen-zerrendak falta dira...

Kanpoaldeko seinaleztapena ez da egokia.

Aparkatzea

■ Sarrera nagusiko aparkalekua (Osakidetza)

Ezinduei gordetako lau aparkaleku. Ezinduen komunak oso urrun daude sarrera nagusitik.

■ Etxeko ospitaleratze-guneko aparkalekua (Osakidetza)

Eremu honetan, ez dago ezinduen aparkalekurik. Ezinduei gordetako lau aparkaleku jarri behar dira etxeko ospitaleratze-guneko sarreratik hurbil.

■ Errehabilitazioko aparkalekua (Osakidetza)

Eremu honetan, ez dago ezinduen aparkalekurik. Ezinduei gordetako bi aparkaleku jarri behar dira errehabilitazioko sarreratik hurbil.

■ Larrialdietako aparkalekua (Osakidetza)

Eremu honetan, ez dago ezinduen aparkalekurik. Ezinduei gordetako bi aparkaleku jarri behar dira errehabilitazioko sarreratik hurbil.



Zabalera nahikoa ez duen espaloia, eta kotxeek hartua.



Markesinarako pasabidea ez da nahikoa; tranpa izan daiteke gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.



Pasabiderik gabeko espaloia larrialdietako zonaldera.



Oztopoak oinezkoentzako bidean.



Seinaleztapen-bandarik gabeko beirazko atek.



Ezinduei gordetako aparkalekuak sarrera nagusitik urrun.




Oinezkoen bidean proiektzio horizontalik ez duen SUHa; estropezuak eragin ditzake.

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrera nagusiko harrera-mahaiak eta onarpen-mahaiak ez dira irisgarriak. Ospitaleko sarrera nagusitik ospitaleko eremu ezberdinetaraino, kontraste kromatikoa duten norabidezko zerrenda-gidak daude, baina ez daukate ibilbidearen norabidearekiko paraleloa den ildaskarik, edo orientatzeko ehundura motaren bat, ikusmen-urritasuna duten pertsonentzat.

Ospitaleko itxarongelek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere. Ospitaleko ibilbideetan, proiektzio horizontalik gabeko hegalak daude; adibidez, SUHak, apalategi tolesgarriak eta abar. Laborategiko onarpen-guneko itxarongelak egokitutako harrera-mahaia dauka, baina beti egoten da itxita.

Orri bikoitzeko ate banatzaileak ikusi dira, eta, orri horietako batean, ez daukate igarobide-zabalera libre egokia (lehenengo irekitzen denean).



Oinezkoentzako bidean, proiektzio horizontalik gabeko apalategia.

Larrialdiak. Ospitaleko unitate eraldatu berria. Hala ere, larrialdietara sartzeko atek ez daukate seinalaztapen-bandarik, eta, onarpen-guneko harrera-mahaiak egokitutako alde irisgarria duen arren, objektuekin okupatuta dago. Larrialdietako itxarongeletan, toki zabalak izan arren, ez da gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako tokirik jarri.

Kontsultak

Erradiologia- eta ginekologia-gelek ez daukate ez komun, ez aldagela egokiturik.

Kontsultetara sartzeko ate askok ez daukate ez zabalera egokia, ez kontraste kromatikorik. Kontsulten arteko ibilbideak proiektzio horizontalik gabeko hegalak dauzka, eta arrisku-egoerak eragin ahal dizkie horrek ikusmen-urritasuna duten pertsoneri.

ZIUko unitateak (zaintza intentsiboetako unitateak) komuna dauka, baina ezaugarri ezegokiak dauzka; hala nola, helduleku baten instalazioa, heldulekurik eta eserleku egokirik gabeko dutxa. Bestalde, 2. ZIU unitateak komun iristezina dauka.

Odola ateratzeko gelak 70 cm-ko igarobide-zabalera librea duen atea dauka, eta, beraz, gurpildun aulkien erabiltzaileak ezin daitezke ohiko bidetik joan; beste toki batetik iritsi behar dira bertara. Erauzketa-mahaia ere egokitu gabe dago.



Alde egokiturik gabeko harrera-mahaia.



Erabiltzen ez den harrera-mahai egokitua, objektuak jarri baitituzte bertan.

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

Oro har, kontsultetako mahaiak ez dira irisgarriak, ez baitaukate gurpildun aulkien erabiltzaileak mahaira hurbiltzeko moduko hondorik.

Behe-solairuko kanpo-kontsulten argiztapena ez da homogeneoa, eta islak sorrarazten ditu zoladuran.

Ospitaleko farmazia oso txikia da; beraz, gurpildun aulkiekin ezin daiteke bertara sartu, eta, esparruaren barrualdean, ezin daiteke maniobrarik egin. Gainera, jendeari arreta emateko mahaiak alde irisgarri bat dauka, baina erabiltezin bihurtu da, ordenagailu bat jarri baita bertan. Farmaziara sartzeko atek ez dauka kontraste kromatiko egokia.

Ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzako garabi eta bascula nahikorik.


Larrialdiak: Larrialdietako kontsultek barrualdean manioobra egiteko leku nahikoa dute, atek zabalera libre egokia daukate, esku-oheak elektrikoak dira, eta altzariak egokituta daude.

Errehabilitazioa: Gimnasia sartzeko orri bikoitzeko atek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia. Gimnasioaren barrualdeko espazioa egokia da, eta transferentzia egin daiteke esku-ohearen albo batean.

Ez dago ekipamendu espezifikorik mugikortasun urriko pertsonentzat, eta ez dago aldagelarik barrualdean.



Kontsultetako mahaiak ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileak iristeko tokirik.



2. ZIU, aldagela ez da egokia gurpildun aulkietan doazen pertsonentzat.



2. ZIU, egokitu gabeko komuna.



Erradiologia-kontsultako komuna iristezina.



Erradiologia-kontsultako aldagela ez da egokia gurpildun aulkietan doazen pertsonentzat.



Farmazian, barrualdeko espazioa ez da nahikoa gurpildun aulkian doazen pertsonentzat.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Aztertu diren komun gehienek irisgarritasun-gabeziak dauzkate, eta, are, larrialdietako unitatean eraldatutako komunek ere ezaugarri ezegokiak dauzkate; hala nola, konketak ez dauka hondo egokirik, edo ispilua altuegi eta makurdurarik gabe jarri da. Ezinduen gainerako komunetan, barrurantz irekitzen diren atek aurkitu dira, edo transferentziarako tokiak oztopoekin okupatuta daude, edo heldulekuak alde bakarrean daude.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Kanpo-kontsultak
1. S	Larrialdietako itxarongela, helduak Kanpo-kontsultak
2. S	Kanpo-kontsultak Iggailuen gune nagusia
3. S	Ebakuntza-geletako itxarongela

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
1. S	Larrialdi pediatrikoetako itxarongela Barne-medikuntzako ospitaleratze-unitatea
2. S	Kirurgiako ospitaleratze-unitatea Tokoginekologiako ospitaleratze-unitatea



Egokitutako komunean, komuna barrurantz irekitzen da.



Transferentziarako toki txikia.



Hondo egokirik gabeko konketa, eskuak lehertzeko papera eta ispilua altuegi.

Logelak eta boxak

Ospitaleak egokitutako logelak dauzka, baina barne-medikuntzako unitatean bakarrik. Mendekotasun handiko pertsonentzat egokitutako logelek polipastoak dauzkate. Logeletako komunek irisgarritasun-gabeziak dauzkate; adibidez, tokia falta da komun-zulora alboko transferentzia egin ahal izateko, komun-zuloa baxu dago, alarma altuegi jarrita dago... Egokitutako logelek behar besteko tokia dute gurgildun aulkiak logela barruan egon ahal izan daitezen.

Larrialdietako boxek leku egokia dute transferentzia ohearen albo batean egiteko, baina egokitutako komunak gabezia batzuk dauzka; 2. ZIUKo boxetan, berriz, ohearen albo batean transferentzia egiteko tokia dago, baina komuna ez dago egokituta.

Ospitaleratze-gunea, ez dago lagundutako komunik.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Oinezkoentzako tokian, orri bikoitzeko atek daude, eta orri batek ere ez dauka igarobide-zabalera egokia.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Mendaroko ospitaleak ez dauka kafetegirik bere instalazioetan. Ospitalearen ondoan, kafetegi bat dago, eta horrek eskaintzen die zerbitzua ospitaleko pazienteei eta langileei. Kafetegirako sarbidea irisgarria da; hala ere, sarrerako atek ez daukate araudian ezarritako zabalera.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik. Edariak barran edo jantokiko mahaietan zerbitzatzen dira.

Aretoko altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek neurri egokiak daukate gurgildun aulkien erabiltzaileek erabili ahal izan ditzaten.

Kafetegiak ezinduen komun bat dauka behe-solairuan; bisi-taren unean, ordea, itxita zegoen.

Makina saltzaileak

Ospitaleko makina saltzaile guztiak dira iristezinak.



Makina saltzaile iristezinak.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalearen kanpoaldeko ibilbide guztiak egokitu behar dira.
- Autobus-geralekuko markesina egokitu behar da.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduen aparkalekuak jarri behar dira ospitaleko sarrera guztietatik hurbil, edo daudenak lekualdatu behar dira.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Egokitutako harrera-mahaietako oztupoak kendu beharko dira.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.

- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.
- Korridoreetan dauden oztopo guztiak kendu behar dira.

Kontsultak

- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Odola ateratzeko gelako atea eta mahaia aldatu behar dira.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten atek aldatu behar dira.
- Proiekzioirik gabeko hegalak kendu behar dira.
- Farmaziako unitatea egokitu behar da.
- Argiztapen homogenea jarri behar da kanpo-kontsulten unitatean.
- Garabi eta baskula nahikoak erosi behar dira mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil ditzaten.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordeiz.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Unitate guztietan eraiki behar da ezinduei gordetako logela bat.
- Larrialdietako unitateko boxetako ezinduen komunen irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da.
- Ezinduei gordetako komun bat eraiki behar da 2. ZIuko unitatean.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu beharko da, eta ezinduen komuna irekita eduki.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

4.6. Ricardo Bermingham Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Iza kalea, oro har, oztoporik gabe dago; hala ere, igarobidea oztopatzen duen bizikleten aparkalekua dago oinezkoen bidean. Zebrabideko pasabideak ez daude behar bezala eginda.

Zarautz etorbideko sarrerara iristeko, Pinu Bidea kalea dago; malda oso handia duen eta erdialdean eskubanda bakarra duen bidea. Aldapa dela-eta, oso bide iristezina da. Bide hori saihesteko, egoitzara iristeko bidea seinaleztatu eta horra bideratu daiteke ibilbidea. Zarautz etorbidean dago sarrera hau (Matia Fundazioaren jabetzakoa da), eta malda gutxiagoko aldapa duen bidea dauka ospitaleraino.

Ospitale-esparruko sarbidean, onarpen-gunerantz, egoera txarrean edo lekuz kanpo dauden piezak dauzkaten estolda-zulo linealak daude, erorikoak eragin ditzaketenak.



Pinu Bidetik egiten den sarbideak oso malda handia dauka.



Narriatutako estolda-zulo linealak onarpen-gunerako bidean.

Aparkatzea

■ Iza eremuko aparkalekua (ospitalea)

Ezinduei gordetako aparkalekuek ez daukate seinaleztapen egokia.

■ Aparkaleku-eraikina (ospitalea)

- Aparkalekuko sarreratik hurbilago jarri beharko liriateke ezinduen aparkalekuak.
- Aparkalekuko parkimetroa ez da irisgarria.

■ Sarrera nagusia (udala)

Ezinduei gordetako aparkalekuek ez daukate araudian ezarritako luzera.



*Aparkaleku-
eraikineko ezinduen
aparkalekuak.
Aparkalekuko
sarreratik urrun.*



*Aparkaleku-
eraikineko
parkimetroa. Ez da
irisgarria.*



*Sarrera nagusian
ezinduei gordetako
lekuak. Neurri
egokirik gabeko
aparkalekuak.*



*Iza eremuko
aparkalekua.
Gordetako
aparkalekuak
seinaleztapen
egokirik gabe.*

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrera nagusiko ateek ez daukate kontraste kromatikorik. Seinaleztapena ez da egokia.

Ospitaleko itxarongelek gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak daukate, baina ez daude seinaleztatuta. Bestetik, ez dago mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik.



*Sarrera nagusiko
ateak ez dauka
kontraste
kromatikorik.*

Kontsultak

Behe-solairuko kontsultetara sartzeko ateek ez daukate igarobide-hutsune libre egokia. Kontsultetako mahaiek ez daukate behar den altuera, ez baitute behealdeko espazio librea zuzen.

Ospitaleko kanpo-kontsultek behar besteko tokia dute barrualdean; ospitaleratze-guneko kontsultek, ordea, ez daukate gurgildun aulkien erabiltzaileek maniobra egiteko toki nahikorik.

Errehabilitazioa: Gimnasioko espazioa egokia da, eta transferentzia egin daiteke esku-ohearen albo batean. Oro har, esku-oheek altuera elektrikoki aldatzeko aukera daukate. Ez dago berariazko ekipamendurik mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil dezaten. Egokitutako aldagela bat dago, baina zenbait gabezia dauka.



*Errehabilitazioan,
tratamenduetako
eremuan toki egokia
transferentziarako.*

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Aztertu diren komun irisgarri guztiek dauzkate gabeziak: kasu batzuetan, osagarriak altu jarrita daude, eta, gehienguan, albo batean daukate helduleku bakarra; alarmak apurtuta edo kiribilduta daude, eta, beraz, ez dute inolako funtziorik. Zenbaitetan, komun-zulora transferentzia egiteko tokian paperontzia dago, eta behealdean hondo egokirik gabeko konketaren bat ere ikusi da.

Ez da beharrezkoa komun egokiturik eraikitzea, baina dau-denak egokitu behar dira, eta mantentze-lanak egin horietan.

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Tanatorioa (eskasa)
0. S	Sarrera nagusia Onarpen-guneko sarrera
4. S	Ospitaleratze-unitatea



*Egokitutako
komunak albo
batean heldulekua,
lekualdatzeko
tokiak oztopoa
dauka, eta alarma
apurtuta dago.*

Egokitutako komunak ez dauka heldulekua albo batean, lekualdatzeko tokia okupatuta dago, eta alarma kiribilduta dago.



Komun egokitua. Eskuak lehortzeko papera altuegi dago, eta konketak ez dauka hondo egokia.



Logelak eta boxak

Logela guztiak daude egokituta, baina gabeziak dauzkate; batez ere, konketako osagarrietan. Logelen barrualdeko espazioak ohearen albo batetik transferentzia egitea ahalbidetzen du, eta, oro har, gurpildun aulkia logela barruan edukitzeko toki nahikoa dago.

Ospitaleratze-guneko egongelek edo itxarongelek behar besteko espazioa daukate gurpildun aulkien erabiltzaileentzat, baina ez daude seinalizatuta.

Mugitzeko garabi nahikoak ikusi dira ospitalean.

Egokitutako logelako komuna.



Egokitutako logela.



Beste gela batzuk

Kafetegia

Kafetegirako sarbidea guztiz irisgarria da. Kafetegira sartzeko beirazko ateak araudian ezarrita dagoen zabalera libre dauka.

Kafetegiko mostradoreak toki egokitu dauka. Edariak barran edo jantokiko mahaietan zerbitzatzen dira.

Altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek neurri egokiak dauzkate gurpildun aulkien erabiltzaileek erabili ahal izan ditzaten.

Kafetegiak ez dauka komunik bere instalazioetan. Onarpen-guneko sarrera nagusian dago ezinduei gordetako komun hurbilena.

Makina saltzaileak

Ospitaleko makina saltzaile guztiak dira iristezinak.

Kapera

Kaperara sartzeko ateak araudian ezarrita dagoen zabalera libre dauka.

Barrualdeko espazioak bira ematea eta maniobra egitea ahalbidetzen die gurpildun aulkietan doazen pertsoneri. Ez dago ezinduei gordetako eremurik, baina gurpildun aulkien erabiltzaileentzako tokia dago.

Tanatorioa

Gaubeiletako ateek ez daukate araudian ezarrita dagoen zabalera libre. Gaubeilako barrualdeko ateek ez daukate kontraste kromatikorik.

Barrualdeko espazioak bira ematea eta maniobra egitea ahalbidetzen die gurpildun aulkietan doazen pertsoneri.

Gaubeilan bertan komunik ez badago ere, egokitutako bat dago hurbil, nahiz eta ezin daitekeen bira egin bertan.

Kafetegia. Mostradore egokitua.



Telebistako txartelak emateko makina. Iristezina.





Tanatorioa. Ateak ez dauka kontraste kromatikorik.



Kapera. Bira eta maniobra egiteko toki egokia.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalera egoitzatik iristeko bidea seinaleztatu behar da.
- Kanpoko ibilbideetako oztupoak kendu behar dira.
- Kaletik onarpen-gunerako bidean, irtenguneak kendu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ezinduei gorde beharreko aparkalekuak jarri behar dira, eta daudenak lekualdatu.
- Aparkalekuko parkimetroa egokitu behar da.

Sarbideak eta itxarongelak

- Kontraste kromatiko eman behar zaie sartzeko ateei.
- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten atek ordezkatu behar dira.
- Komun eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.

- Garabi eta baskula nahikoak erosi behar dira gurgildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.
- Altuera erregulagarria duten esku-ohetak jarri behar dira esku-ohetako finkoen ordez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, halaxe behar duten kasuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako logelen ezaugarriak berrikusi behar dira.
- Ospitaleratze-guneko egongeletan, gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak seinaleztatu behar dira.

Beste gela batzuk

- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Gaubeiletara sartzeko atek aldatu behar dira, eta eremu horretan ezinduei gordetako komunaren ezaugarriak berrikusi.

4.7. Donostiako Unibertsitate Ospitalea

Hiri-ingurunea

Amara eraikina: Amara eraikinaren esparrurako sarbidea ez da irisgarria; izan ere, eskailerek ez daukate arrapalarik eta, ondorioz, gurgildun aulkien erabiltzaileak errepidetik iritsi behar dira bertara. Kanpoko seinaleztapena ez da egokia, eta eraikinerako sarrera ez da erraz ikusten.

Arantzazu eraikina: Gipuzkoa eraikinetik edo aparkaleku orokorretik Arantzazu eraikinera joateko bidea ez da irisgarria, kanpo-kontsultetako eskailerek oztopatzen baitute ibilbidea. Ondorioz, aparkalekutik mugitu behar dira. Zebrabideak gaizki eginda daude; oinezkoentzako pasabiderik eta seinaleztapen-zerrendarik gabeko zebrabideak daude. Kanpoaldeko seinaleztapena ez da egokia.

Gipuzkoa eraikina: Aparkalekutik Gipuzkoa eraikinetik sarrera nagusira joateko bidea irisgarria da. Aitzitik, sarrera nagusitik eraikin bereko onkologiako sarrerara doan ibilbidea ez da irisgarria. Gipuzkoa eraikina inguratzen duten espaloiek gabezia asko daukate: oztupoak ibilbidean, hala nola, motorrak eta farolak, eta zoladurak narrioak dauka. Zebrabideak gaizki eginda daude, mailak baitaizkate pasabideetan. Kanpoaldeko seinaleztapena ez da egokia.

Osatek-Psikiatria-Farmazia-Kirurgia handi anbulatorioa: Aparkalekutik eremu honetara iristeko ibilbidea guztiz iristezina da; gurgildun aulkien erabiltzaileak errepidetik iritsi behar dira. Eremu honetarantz doan ibilbidean, proiektziarik gabeko hegialak daude, eta margotzen amaitu gabeko zebrabideak. Farmaziara iristeko aldapak ez dauka eskubandarik; gainera, aldapako zoladura ez da egokia, irtenguneak baitaizkate, eta zoladura irristakorra baita euri-egunetan. Farmaziako sarrearen aurrean dagoen plaza txikiak arrapalarik gabeko mai-

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

lak dauzka. Osatekera eta tanatoriora iristeko espaloiek ez daukate araudian ezarritako zabalera; guztiz iristezinak dira. Kanpoaldeko seinaleztapena ez da egokia.

Amen eta haurren eraikina: Amen eta haurren eraikineko sarrera nagusirainoko ibilbidea guztiz iristezina da; izan ere, lehen azaldutako tokietatik iritsi behar da bertara. Espaloien zabalera metro 1ekoa da; beraz, ez daukate behar besteko zabalera. Bestetik, zebrabideek ez daukate egoki eraikitako pasabideak. Ospitale-esparruaren kanpoaldetik, ez da erraz aurkitzen amen eta haurren eraikineko sarrera.

Larrialdiak-Eguneko ospitalea: Larrialdietara eta eguneko ospitalera sartzeko, arrapala alternatiborik gabeko eskaileira irristakorrek daude. Eskailerak saihesteko aukera bakarra mailarik gabeko bide paraleloa da, eskailearen sarbide alternatiboak ez baitauka pausalekurik erdialdean, ez eta eskubandarik ere, eta farolak baitaude oinezkoen ibilbidean. Eredu horretako zebrabideak gaizki eginda daude, eta maila daukate pasabidean. Gainera, eguneko ospitalera iristeko, zutabe bategen eragindako estugunea dago espaloian; beraz, gurgildun aukilen erabiltzaileak errepidetik iritsi behar dira ospitalera.

Oro har, argazkietan ikus daitekeen bezala, eraikinen edo sarreren arteko ibilbideek hainbat eta askotariko irisgarritasun-arazoak daukate, hobetu eta konpondu beharrekoak horiek.

*Psikiatria-
eraikinerako,
amen eta haurren
eraikinerako,
farmaziarako,
Osatekerako...
sarbidea,
aparkalekutik
eta kanpoaldeko
esparrutik.
Eskailerak
ibilbidean.*



*Larrialdietako
eraikinerako sarbidea,
ospitale-esparruaren
kanpoaldetik. Eskailera
irristakorrek inguruan
seinaleztatutako
eta egokitutako
arrapalarik gabe;
errepidetik joan behar
dira mugikortasun
murriztua duten
personak.*



*Kotxeek oztopatzen
dute psikiatria-
eraikinerako
sarbidea.*



*Farmaziaren
zonalderako
sarbidea.
Eskubandarik
gabeko arrapala,
zoladura irristakorra
eta lurlean proiektzio
horizontalik ez duen
hegala, estropuz
egitea eraginez.*



*Amara eraikinerako
sarbidea, oinezkoen
bidetik. Arrapala
osagarri eta
alternatiborik
gabeko eskailerak.*



*Gipuzkoa
eraikinerako
sarbidea, ospitale-
esparruaren
kanpoaldetik.
Pasabiderik gabeko
zebrabidea.*



*Psikiatria-
eraikinerako,
amen eta haurren
eraikinerako,
farmaziarako,
Osatekerako...
sarbidea,
aparkalekutik
eta kanpoaldeko
esparrutik. Mailak
oinekoentzako
ibilbidean.*



Aparkatzea

■ Ospitale-esparruaren kanpoaldea (udala)

Ospitale-esparruaren kanpoaldean, ezinduei gordetako hainbat leku ikusi dira. Aparkaleku kopuru egokia da guztira daudenekin alderatuta, baina horien egoera eta ibilbidea ez dira egokienak. Ospitale-esparruaren kanpoaldean dauden tokiak berrantolatzea litzateke planteamendu onena, ibilbide irisgarriak dituzten sarreretara hurbilduz horiek, eta aipatu ibilbideak hobetzea.

■ Arantzazu eraikineko sarrera (Osakidetza)

Ezinduei gordetako aparkaleku kopurua egokia da. Aitzitik, aparkaleku horien neurria ez da araudian ezarrita dagoena. Aparkalekuetatik sarrera nagusirako ibilbideak hainbat hutsune dauzka.

■ Onkologikoa-Osakidetza aparkaleku partekatua

Ezinduei gordetako aparkaleku kopurua egokia da, baina ospitaleetako sarreretatik urrun daude. Aparkalekuen

kokapena berrantolatu beharko litzateke, Donostia eta Onkologikoa ospitaleetako sarbideetatik hurbil jarritz horiek.

Makina deuseztatzaileak ez dira irisgarriak.

■ Gipuzkoa eraikina (Osakidetza)

Ezinduei gordetako aparkaleku kopurua egokia da, baina eraikineran iristeko ibilbidea ez da irisgarria.

■ Osatek-Psikiatría-Farmazia-Kirurgia handi ambulatorioa

Ezinduei gordetako aparkaleku kopurua egokia da, baina neurriek ez dituzte betetzen arauz ezarritako betekizunak. Gainera, sarreretarainoko ibilbidea ez da irisgarria, beste aparkalekuekin gertatzen den moduan.

■ Amara eraikina

Sarreratik hurbil, ezinduei gordetako bi leku daude, baina ibilbideak irisgarritasun-arazoak dauzka.



Amen eta haurren eraikinetik hurbil dauden ezinduen aparkalekuak. Ibilbide iristezina ospitaleko sarreretaraino.



Arantzazu eraikinaren parean ezinduei gordetako aparkalekuak. Neurri eta seinaleztapen ezegokia.

Sarbideak eta itxarongelak

Amara eraikina: Sarrera nagusira iristeko arrapalak ez dauka araudiak ezarritako zabalera; egokitutako harrera-mahaiak egokia dena baino altuera handiagoa dauka, eta ez dauka hondorik.

Itxarongelek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako tokirik.

Etxeko ospitaleratze-gunera sartzeko, orri bikoitzeko atea dago, eta ate bakoitzaren igarobide-zabalera librea ez da nahikoa. Sarrerako atetik etxeko ospitaleratze-gunerako ibilbidean arrapala dago, malda luzeegia duena eta eskubandarik ez duena.

Arantzazu eraikina: Sarrera nagusiko ateez ez daukate seinaleztapen-bandak, eta sarrera nagusiko lanpasak ez dira finkoak, estropezu egitea eraginez. Harrera-mahaiak egokitutako zonaldea dauka, baina beti egoten da itxita. Gainera, ez dago ondo eginda, behar dena baino altuera handiagoa baitauka, eta ez baitauka hondorik. Sarrera nagusiko igarobide-tarteek ez daukate kontraste kromatikorik. Ospitaleko zonalde ezberdinen seinaleztapena ez da egokia.

Arantzazu eraikineko kirurgia-kontsulten sarrerako ateez ez daukate araudian ezarritako igarobide-zabalera librea, eta seinaleztapen-bandak ezegoki jarrita daude. Bestetik, lanpasak ez dira finkoak. Txanda hartzeko gailua ez da irisgarria. Sarrera nagusiko igarobide-ateek ez daukate kontraste kromatikorik.

Kirurgia handi ambulatorioko unitateko sarrerako ateez 77 cm-ko igarobide librea dauka, eta ezegokia da hori. Harrera-guneko harrera-mahaiak ez dauka toki egokitu eta irisgarriak.

Ospitaleko itxarongelek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako tokirik.

Osatek: Harrera-gunera sartzeko ateez 65 cm-ko igarobide-zabalera librea dauka, ezegokia. Unitatearen barrualdean, itxitura dago atearen aurrean, ez du bira egiten uzten harrera-gunearen barrualdean. Harrera-gunean, ez dago harrera-mahai egokiturik.

Larrialdiak: Finkatu gabeko lanpasak daude sarreran, estropuz egitea eragin dezaketenak. Harrera-mahai irisgarriaren aldea harrera-mahai orokorraren albo batean dago, seinaleztapenik gabe.

Gipuzkoa eraikina: Kanpo-kontsulten sarrerako arrapalak ez dauka bi altuerako eskubanda, sarrerako ateez ez dauka igarobide libre nahikoa, eta astunegia da irekitzeko. Egokitutako harrera-mahai sarrera nagusiaren beste aldean dago, seinaleztatu gabe, eta beti egoten da itxita.

Gipuzkoa eraikineko ospitaleratze-guneko sarrerako arrapala irrastakorra da, eta ez dauka araudian ezarritako dagoen zabalera, ezta eskubandarik ere. Eskaileraren zonaldeko zoladurak isla egiten du, eta, eskaileretan kontrasterik ez dagoenez, erorikoak gerta daitezke. Sarrerako atetara iritsi aurretik, malda handia duen beste arrapala bat dago; araudian xedatutakoaren arabera, bira egitea ahalbidetzen ez duena. Horrek arazoak eragiten ditu aipatu sarreran. Harrera-mahaiak ez dago egokituta.

Eraikineko itxarongelek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako tokirik.

Psikiatría: Sarrera nagusiak ez dauka egokitutako harrera-mahairik. Itxarongelek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako tokirik.

Gazteen unitateak ez dauka eskailerak saihesteko modurik patiora joateko.

Amen eta haurren eraikina: Sarrera nagusiko ateez ez daukate seinaleztapen-banda egokirik, eta lanpasak ez dira finkoak, estropezu egitea eraginez. Harrera-mahaiak ez daukate toki egokiturik. Gainera, itxarongeletan ez dago desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako zonalderik.



Amara eraikineran iristeko arrapala. Zabalera ez da nahikoa, eta kontrastea eta eskubanda falta dira ibilbide osoan, bi alboetan.

Etxeko ospitaleratze-gunera sartzeko atea, Amara eraikinean. Igarotzeko zabalera libre ezegokia.



Arantzazu eraikinerako sartzeko atea. Ateen seinaleztapen-bandak ezegokiak, eta finkatu gabeko lanpasa.



Amara eraikineko sarrerako harrera-mahaia. Alde irisgarria itxita. Ez dauka hondorik gurpildun aulkietan doazen pertsonak hurbiltzeko.



Kirurgien kanpo-konsulten sarrerako atea. Igarobide-zabalera libre ezegokia, eta gaizki jarritako seinaleztapen-bandak.



Kirurgien kanpo-konsultetako itxarongela. Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserleku egokirik ere.



Gipuzkoa eraikineko kanpo-konsulten sarrera. Arrapalak ez dauka eskubanda bi altueratan, sarrerako atek ez dauka zabalera libre egokia eta astuna da irekitzeko.



Gipuzkoa eraikineko kanpo-konsulten onarpen-gunea. Harrera-mahai irisgarria beti itxita.



Psikiatriako onarpen-gunea. Harrera-mahai iristezina.



Amen eta hurren eraikineko onarpen-gunea. Harrera-mahai iristezina, ez dauka alde baxuagorik.



Kontsultak

Amara eraikina: Kontsulta batzuetara sartzeko, malda handia duen arrapala dago, eta, orokorrean, kontsultetako atek ez daukate araudian ezarritako zabalera. Kontsulter arteko ibilbidean, eserlekuak lerrotatu gabe dituzten itxarongelak daude, eta orientazio-arazoak sor diezazkieke horrek ikusmen-urritasuna dutenei.

Ospitaleko harrera-mahai irisgarriek ez dituzte betetzen araudian ezarritako ezaugarriak.

Kontsulta batzuetara sartzeko atek ez daukate kontraste kromatiko egokia, eta kontsulter arteko banaketa-ateek ez daukate araudian ezarritako igarobide-zabalera libre.

Errehabilitazioa: Gimnasia sartzeko orri bikoitzeko atek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia. Gimnasioaren barrualdeko espazioa egokia da, eta transferentzia egin daiteke esku-oherean albo batean. Esku-ohere gehienak elektrikoak dira. Ez dago berariazko ekipamendurik mugikortasun murriztua duten pertsonen erabil dezaten, ezta ezinduei gordetako aldagelarik ere.

Arantzazu eraikina: Erradiologia-eremuko kontsulta batek ere ez dauka aldagela edo komun egokiturik. Kirurgien kanpo-konsulten eremura sartzeko atek ez daukate kontraste kromatikorik.

Urologia-kontsultak, jatorriz, irisgarriak ziren, baina, bertan jarri den material kopurua dela-eta, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin ditzakete beharrezko birak eta lekualdaketak egin.

Entzumen-proben kabinak guztiz iristezinak dira.

Kardiologia-, behe dialisi- eta hemodialisi-unitateak guztiz iristezinak dira, eta, horietan, ez da ez komun, ez aldagela egokiturik aurkitu. Kontsultetara sartzeko ateen ez daukate araudian ezarritako zabalera libre, eta harrera-mahaiek ez daukate alde egokiturik. Zonalde guztietan, korridoreetan jartzen dira itxarongelak. Ondorioz, gurgildun aulkien erabiltzaileak horien erdian jarri behar dira.

Larrialdiak: Larrialdietako kontsultak zabalak dira, eta ateen neurri egokiak daukate, baina ikusi diren esku-ohetuek gehienak finkoak dira, ez dute altuera aldatzen.

A itxarongelako kontsulten sarbideak iristezinak dira, 110 cm-ko zabalera duen korridore batetik iristen baita horietara, eta gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin.

Osatek: Osatekeko kontsultak ez dauka ezinduen aldagelarik.

Gipuzkoa eraikina: Erradiologiako kontsulta batek ere ez dauka aldagela egokiturik.

Traumatologiako kontsulten barrualdean, ezin daiteke bira egin, eta esku-ohetuek, oro har, finkoak dira, ez daukate altuera aldagarria. Sendaketa-gela iristezina da erabat; igarobide-hutsune libre nahikoa ez duten ateen daukate, eta barrualdeko espazioa ez da nahikoa. Halere, nabarmendu egin behar da esku-ohetuek funtzionamendu elektrikoak duela gela honetan.

Eremu hauetara sartzeko ateen ez daukate kontraste kromatikoa egokia.

Oro har, onkologia-eremuko kanpo-kontsultak irisgarriak dira; erizaintzako kontsulta bakarrik da txiki-txikia: Eremu honetako esku-ohetuek finkoak dira.

Farmazia: Farmaziako harrera-mahaira iristeko ateen ez daukate araudian ezarritako zabalera, eta harrera-mahaiek ez dira irisgarriak.

Tanatorioa: Dolua egiteko aretoetarako sarbidea iristezina da; izan ere, ateen ez daukate igarobide libre egokia, eta gurgildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin horien barrualdean.

Psikiatriako eraikina: Psikiatriako kontsultak irisgarriak dira, baina barrualdeko mahaiek ez daukate behar besteko hondorik gurgildun aulkien erabiltzaileak hurbildu ahal izan daitezkeen.

Amen eta haurren eraikina: Erradiologia-eremuko kontsulta batek ere ez dauka aldagela edo komun egokiturik.

Ginekologia-kontsultak guztiz iristezinak dira: ateen zabalera ez da egokia, eta ez dago gurgildun aulkien erabiltzaileek bira egiteko tokirik. Transferentzia egiteko lekuak oso murrizak dira, eta ez dago egokitutako aldagelarik ginekologia-kontsulta batean ere.

Gainera, zonalde batzuetan, argiztapena ez da egokia.

Eraikin honetako orri bikoitzeko ate gehienek ez daukate zabalera libre egokia horietako batean (lehenengo irekitzen denean).

Larrialdi pediatrikoak: Larrialdi pediatrikoen kontsultak irisgarriak dira, behar besteko espazioa daukate kontsulten barrualdean, ateen igarobide-zabalera libre egokia daukate

eta esku-ohetuek elektrikoak dira; aitzitik, mahaiek ez dira egokiak, ez baitaukate behar besteko hondorik gurgildun aulkien erabiltzaileak hurbildu daitezkeen.



Kontsulta oso txikia. Amara eraikina.



Gehiegizko aldapa duten arrapalak kontsulta batzuen sarreran. Barandarik gabe. Amara eraikina.



Errehabilitazioko aldagela. Amara eraikina.



Erradiologia-eremuko komuna. Koska sarreran; iristezina. Arantzazu eraikina.



Erradiologiako aldagela. Arantzazu eraikina.



Irtenguneak zoladuran. Arantzazu eraikina.



Audiometria-probak iristezinak. Arantzazu eraikina.



Erradiologiako aldagela. Gipuzkoa eraikina.



Transferentziarako tokirik ez igeltsuen kontsultan. Gipuzkoa eraikina.



Egokitu gabeko harrera-mahaia farmazian. Gipuzkoa eraikina.



Hondo egokirik gabeko mahaia. Psikiatriako eraikina.



Ginekologia-kontsultako komuna-aldagela. Amen eta hurren eraikina.



Igarotzeko atea, komuna-aldagela, ginekologia-kontsulta, 45 cm-ko igarobide-zabalera libre. Amen eta hurren eraikina.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Ospitalean, ezinduen komunak falta dira eraikin guztietan. Gainera, ezinduei gordeta dauden komun askok irisgarritasun-hutsuneak dauzkate; hala nola, konketak ez dauka behealdeko hondo egokia, ispilua altuegi eta makurdurarik gabe jarrita dago, ateen zabalera libre ezegokia dute, edo barrurantz irekitzen dira, hainbat objektuekin daude okupatuta transferentzia egiteko tokiak, edo ez dago tokirik, edo heldulekuak albo bakarrean daude eta abar.

GIPUZKOA ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago guztiontzako komunik
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago
3. S	Ez dago
4. S	Ez dago
5. S	Ez dago

AMARA ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Ez dago
1. S	Onarpen-mahaitik hurbil
2. S	Ospitaleratze-gunea eta kontsultak lotzeko korridorrean (eskasa)
3. S	Ez dago
4. S	Ez dago

PSIKIATRIAKO ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Jantokia Harrera-lekua
0. S	Senideentzako egongela Tailerren eremua Haurren psikiatria
P 1	Jantokia Ospitaleratze-gunea

AMEN ETA HAUREN ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago
0. S	Larrialdi pediatrikoetako itxarongela Kanpo-konsulta pediatrikoak (eskasa)
1. S	Igogailuen gune nagusia
2. S	Ez dago
3. S	Ez dago
4. S	Ez dago

BIDONOSTIA ERAIKINEKO EZINDUEN KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Igogailuen gune nagusia
1. S	Igogailuen gune nagusia
2. S	Igogailuen gune nagusia

ARANTZAZU ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Larrialdiak Osatek Kirurgiako kanpo-kontsultak Erradiologia Igogailuen gune nagusia (eskasa)
0. S	Kafetegia Erradiologia (eskasa)
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago
3. S	Ez dago
4. S	Ez dago
5. S	Ez dago

GIPUZKOA ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Traumatologia-kontsulten eremua Alergien kontsulten eremua Onkologia-kontsulten eremua Endokrino-kontsulten eremua
1. S	Ospitaleratze-guneko itxarongela Igogailuen eremua Boxen eremua
2. S	Ospitaleratze-guneko itxarongela Ospitaleratze-guneko korridorea
3. S	Ospitaleratze-guneko itxarongela
4. S	Ospitaleratze-guneko korridorea
5. S	Ospitaleratze-guneko korridorea

PSIKIATRIAKO ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Tanatorioaren zonaldea

AMARA ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago guztiontzako komunik
0. S	Ez dago
1. S	Ez dago
2. S	Ez dago
3. S	Ez dago
4. S	Ez dago
5. S	Ez dago

ARANTZAZU ERAIKINEAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Otorrinolaringologia-eremua Larrialdietako C itxarongela Larrialdietako kontsultak Larrialdietako erradiologia Eguneko ospitalea Aferesien eremua
0. S	Kardiologia-probak Infekzioen unitatea Igogailuen gune nagusia Endoskopien unitatea Behe-dialisien unitatea Erradiologiako itxarongela Igogailuen gune nagusia
1. S	Laborategiko proben eremua Gipuzkoa eraikinarekin lotzeko korridoretik hurbil dauden kontsulten eremua Laugarren unitateko ospitaleratze-unitatea
2. S	Igogailuen gune nagusia Laugarren unitateko ospitaleratze-unitatea Hemodialisien unitatea
3. S	Igogailuen gune nagusia Laugarren unitateko ospitaleratze-unitatea
4. S	Igogailuen gune nagusia
5. S	Laugarren unitateko ospitaleratze-unitatea



Egokitutako komuna, transferentziarako tokirik gabe eta komun-zuloa altuera ezegokian. Amara eraikina.



Ospitaleratze-gunean komun mota bakarra, egokitu gabea. Amara eraikina.



Egokitutako komuna, bira egiteko tokirik gabe, transferentziarako tokia okupatuta. Arantzazu eraikina.

Egokitutako komuna, konketa hondo egokirik gabe, ispilua eta eskuak lehortzeko papera altuegi. Arantzazu eraikina.



Ospitaleratze-gunean komun mota bakarra, egokitu gabea. Arantzazu eraikina.



Eguneko ospitaleko komuna egokitu gabe, iristezina. Arantzazu eraikina.



Komun egokitua, bira egiteko tokirik gabe, atea barrurantz irekitzen da, transferentzia egiteko tokirik ez, komun-zulo ezegokia. Gipuzkoa eraikina.



Komun egokitua, laguntza teknikorik gabe. Gipuzkoa eraikina.



Ospitaleratze-gunean komun mota bakarra, egokitu gabea. Amen eta hurren eraikina.



Ospitaleratze-gunean komun mota bakarra, egokitu gabea. Gipuzkoa eraikina.



Egokitutako komuna, heldulekua albo bakarrean, komun-zuloa altuera ezegokian. Psikiatriako eraikina.



Logelak eta boxak

Amara eraikina: Amara eraikineko ospitaleratze-guneko logela guztiak dira antzekoak. Logelen barrualdeko espazioa txikia da, baina transferentzia egitea ahalbidetzen du ohean erdiguneko aldean. Logeletako komunek hainbat gabezia dauzkate; hala nola, komun-zuloak ez daude egoki jarrita, albo bakarrean baitute heldulekua; konketek apala daukate behealdean, eta hurbiltzea galarazten die gurgildun aulkien erabiltzaileei, eta konketak osagarriak ezegoki jarrita daude. Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Lo-probak egiteko logelak ez daude egokituta.

Ospitaleratze-guneko egongelek ez daukate gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako eremurik, eta aztertu den itxarongelak ez dauka gordetako tokirik.

Arantzazu eraikina: Eraikinak egokitutako logelak dauka, baina ez unitate guztietan. Aztertu diren logela egokitu-tan, irisgarritasun-gabeziak aurkitu dira; besteak beste, komun-zuloa ezegoki jarrita dago, eta helduleku finkoak daude transferentzia egiteko tokian, transferentzia egitea galaraziz. Gainera, logelen barrualdeko espazioa murrizta da, eta, aztertu diren logela gehienetan, ez dago behar besteko tokirik gurgildun aulkia logelan edukitzeko. Ospitaleratze-guneko ibilbidean, proiektio horizontalik gabeko hegalkak daude, estropezu egitea eragin dezaketenak.

Ospitaleratze-gunea, ez dago lagundutako komunik.

Azttertutako itxarongela eta egongela gehienek ez daukate gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik.

Larrialdietako unitateko eguneko zaintzen eremuak behar besteko tokia dauka transferentzia egiteko, eta komun egokitua dauka. Komunak irisgarritasun-gabezia batzuk dauka. Larrialdietako unitateko gaueko zaintzen eremuak behar bes-

teko tokia dauka transferentzia egiteko, ohearen albo batean, eta, komun egokitua badauka ere, dutxa ez da irisgarria.

Eguneko ospitaleko boxek behar besteko tokia dute transferentzia egiteko, ohearen albo batean, baina unitateko komunak ez daude egokituta.

Eskuragarri dauden garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Gipuzkoa eraikina: Eraikin honetan, ez dago ezinduei gordetako logelarik. Bada, gurpildun aulkien erabiltzaileei barrualdean bira egitea galarazten dien dutxaontzia duten logelak daude, eta, gainera, konketek ez daukate osagarririk, ezta laguntza tekniko egokirik ere, logela batean ere. Aztertu diren logela gehienetan, ez dago gurpildun aulkia logelan eduki ahal izateko leku nahikorik.

Ospitaleratze-gunea, ez dago lagundutako komunik.

Aztertutako itxarongela eta egongela gehienek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik.

Lehenengo solairuko boxen zonaldean, transferentzia egiteko espazioa dago ohearen albo batean, baina komuna iristezina da. Bigarren solairuko boxen zonaldean, besaulkien ondoan, ez dago transferentzia egiteko behar besteko tokirik. Komuna irisgarria da, baina hainbat gabezia dauzka.

Eskuragarri dauden garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Amen eta haurren eraikina: Eraikin honetan, ez dago ezinduei gordetako logelarik. Gurpildun aulkien erabiltzaileei barrualdean bira egitea galarazten dien dutxaontzia duten logelak daude, lurraren arrasean daudenak, eta, gainera, konketek ez daukate osagarririk, ezta laguntza tekniko egokirik ere, logela batean ere. Aztertu diren logela gehienetan, ez dago gurpildun aulkia logelan eduki ahal izateko leku nahikorik.

Aztertutako itxarongela eta egongela gehienek ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik.

Eraikineko boxen zonaldean, transferentzia egiteko espazio txikiak daude, eta komunak egokitu gabe daude.

Eskuragarri dauden garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.

Psikiatriako eraikina:

Helduen unitatea: Eraikinak ez dauka logela egokiturik. Komunak zero kotan dauka dutxaontzia, baina barrualdeko espazioa txikia da. Banakako logelek transferentzia egiteko tokia dute ohearen albo batean, baina gurpildun aulkia logelan edukitzeko tokia ere; aitzitik, logela bikoitzek ez daukate behar besteko espaziorik ohearen albo batean transferentzia egiteko, ezta gurpildun aulkia logelan edukitzeko tokirik ere. Lau logela zabal daude, bira egitea ahalbidetzen duten komunekin, baina dutxaontziak koska dauka. Gainera, aztertutako logela batek ere ez dauka osagarririk edo laguntza teknikorik.

Haurren unitatea: Ez dago logela egokiturik, eta logelak txikiak dira gurpildun aulkien erabiltzaile bat egon ahal izateko.



Logela mota. Amara eraikina.



Komuna. Heldulekua albo bakarrean, hondo egokirik gabeko konketa, ispilua eta eskuak lehortzeko altuegi... Amara eraikina.



Lo-proben logelak ez dauka egokitzapenik. Amara eraikina.



Egokitutako logelako komuna. Barra finkoa dago, eta transferentzia egitea eragozten die horrek gurpildun aulkien erabiltzaileei; bestetik, komun-zuloa eta konketa ez dira egokiak. Arantzazu eraikina.



Egokitutako komuna, laguntza teknikorik gabe. Arantzazu eraikina.



Oinezkoentzako bidean, proiektzio horizontalik gabeko hegala leihoetan. Arantzazu eraikina.

Zero kotan dago dutxaontzia, gurpildun aulkien erabiltzaileek ezin dezakete bira egin, ez dago laguntza teknikorik... Gipuzkoa eraikina.



Boxetako komun mota. Amen eta hurren eraikina.



Jaioberrien logela iristezina. Amen eta hurren eraikina.



Logelan, bainuontzia duen komuna guztiz iristezina. Amen eta hurren eraikina.



Bainuontzia duen komuna guztiz iristezina. Amen eta hurren eraikina.



Egokitutako logela. Dutxaontziak koska, hondo egokirik gabeko konketa, ez dago laguntza teknikorik. Psikiatriako eraikina, helduen unitatea.



3. unitateko ate motak ez dauka kontraste kromatikorik. Arantzazu eraikina.



Egokitutako logela. Transferentziarako tokia albo batean, eta toki nahikoa gurpildun aulkia edukitzeko. Psikiatriako eraikina, helduen unitatea.



Logela mota. Psikiatriako eraikina, hurren unitatea.



Logelako komun mota, egokitzapenik gabea. Psikiatriako eraikina, hurren unitatea.



Beste gela batzuk

Kafetegia

Arantzazu eraikinean dago.

Kafetegira iristeko, eskailerak daude, eta, bestela, eskaile-
rak saihesteko plataforma dago, zeharra. Plataformari giltza
batekin eragiten zaio, Arantzazu eraikineko sarrera nagusiko
harrera-gunean eskatu behar dena. Adierazi beharra dago
bestelako aukerarik jartzea posible ez denean bakarrik bai-
mentzen direla mota horretako plataformak. Kasu honetan,
ordea, aztertu beharreko aukerak daude.

Kafetegiko mostradoreak neurri egokiak dauzka gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil dezaten. Kafetegiko arreta-zerbitzua autozerbitzu motakoa da. Horrek ez die kafetegiaren erabilera autonomoa egiten uzten gurpildun aulkien erabiltzaileei.

Altzariak egoki antolatuta daude, eta mahaiek neurri egokiak dauzkate gurpildun aulkien erabiltzaileek erabili ahal izan ditzaten.

Kafetegiak ezinduen komuna dauka bere instalazioetan; hala ere, zoladura irristakorra da.

Psikiatria-unitateko jantokia

Helduen unitateko jantokien ezaugarriak egokiak dira; bai ateen zabalera, bai altzarien antolaketa, bai altzarien ezaugarriak, bai zerbitzu mota.

Gazteen unitatean, atearen zabalera librea ez da araudian ezarritakoa, eta barrualdeko espazioak ez die berori erabiltzen uzten gurpildun aulkien erabiltzaileei. Altzariak ere ez dauzkate araudian ezarritako neurriak.

Makina saltzaileak

Ospitalean, makina saltzaile irisgarri bakarra dago.

Areto nagusia

Arantzazu eraikina

Areto nagusira sartzeko atea ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Areto nagusiak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako tokirik.

Oholtzara igotzeko, malda handia duen eta eskubandarik ez duen arrapala dago.

Oholtzako mahaia ez dauzka araudian ezarritako neurriak.

Biodonosti eraikina

Eraikinean, bi areto nagusi aztertu dira; bata, behe-solairuan dago, eta, bestea, hirugarren solairuan.

Behe-solairua

Areto nagusira sartzeko atea araudian ezarritako zabalera dauka, baina ez dauka ez zokalorik, ez beirazko ateentzako seinaleztapenik.

Areto nagusiak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako tokirik.

Oholtzara igotzeko, malda handia duen eta eskubandarik ez duen arrapala dago.

Oholtzako mahaia araudian ezarritako neurriak dauzka.

Bigarren solairua

Areto nagusira sartzeko atea araudian ezarritako zabalera dauka, baina ez dauka ez zokalorik, ez beirazko ateentzako seinaleztapenik.

Areto nagusiak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako tokirik. Aulkiak ez dira finkoak; beraz, erraz mugitu daitezke.

Oholtzak ez dauka ez koskarik, ez arrapalarik bertara igotzeko.

Oholtzako mahaia araudian ezarritako neurriak dauzka.

Kapera

Kafetegira sartzeko atea ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Barrualdeko espazioak bira ematea eta maniobra egitea ahalbidetzen die gurpildun aulkietan doazen pertsonari.

Kaperan, ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzat gordetako espaziorik, baina badago horretarako lekua.

Tanatorioa

Tanatoriora sartzeko atea ez daukate araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Gaubeiletako barrualdeko espazioa ezegokia da. Bira egin daiteke barrualdean, baina ez atea zeharkatu eta berehala.

Gaubeiletako beirateek ez daukate altuera egokia.

Tanatorioan komunak daude, baina bat bera ere ez dago egokituta.

Egokitutako komun hurbilena Osatekeko itxarongelan dago, edo kirurgien kanpo-kontsulten itxarongelan; biek dauzkate hutsuneak.



Eskailerak saihesteko plataforma zeharra.



Kafetegia. Autozerbitzu-mostradorea.




Kafetegia. Jantokian, altzari egokiak.

Arantzazu eraikineko areto nagusia. Manda handia duen arrapala, eskubandarik gabea.



Biodonostia eraikineko behe-solairuko areto nagusia. Zokalarik eta seinaleztapen-bandarik gabeko beirazko atea.



ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Ospitalearen kanpoaldeko ibilbide guztiak egokitu behar dira.
- Kanpoko ibilbideetako oztopoak kendu behar dira.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Ospitaleko sarrera guztietan jarri behar dira, edo horra lekuak, ezinduei gordetako aparkalekuak.
- Ibilbide irisgarria eraiki behar da gordetako aparkalekuetatik sarreretaraino.
- Aparkalekuko parkimetroa egokitu behar da.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finakoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri behar dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Egokituta dauden harrera-mahaiak irekita egon behar dira beti.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.
- Korridoreetan dauden oztopo guztiak kendu behar dira.
- Amara eraikinean, etxeko ospitaleratze-unitateko sarre-rako ateak aldatu behar dira; bai eta Arantzazu eraikineko kirurgia handi anbulatorioko unitatekoak eta Gipuzkoa eraikineko kanpo-kontsultetakoak ere.

Kontsultak

- Amara eraikinean, sarbidean malda handiko arrapala duten kontsultak aldatu, ordezkatu edo kendu behar dira.
- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten ateak ordezkatu behar dira.
- Orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten ateak aldatu behar dira,
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri behar dira.
- Garabi eta baskula nahikoak erosi behar dira gurgildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finakoan orde.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki behar dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Logela egokitu irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ospitaleko unitate eta boxen eremu guztietan eraiki behar dira egokitutako logelak, baita Arama eraikineko lo-proben logelak ere.
- Garabiak erosi behar dira gurgildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.

Beste gela batzuk

- Kafetegian, beste alternatiba bat eman behar zaio “autozerbitzuari”, edo, gutxienez, deitzeko botoi irisgarria jarri behar da, jatekoa modu autonomoan hartu ezin dezaketei arreta emateko. Kasu horretan, laguntza mota hori eskaini behar luke kafetegiak.
- Ezinduen komuneko zoladuran, irristatzeen aurkako produktua eman behar da, edo aldatu.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Kapera egokitu behar da.
- Areta nagusia egokitu behar da.
- Tanatorioa eta komunak egokitu behar dira.

4.8. Zumarragako Ospitalea

Hiri-ingurunea

Ospitalea maldan dago eraikita, eta, beraz, bertara iristeko bideak ez dira irisgarriak.

Ospitaleko sarrera nagusiko espaloiak ez dauka igarobide-zabalera libre nahikoa (65 cm).

Zerbrabideetako seinaleztapen-zerrendak ez dira egokiak.

Diseminados Barreiatua kaletik ospitaleko sarrerarako sarbidea ez da sarrera nagusia bezain malkartsua, eta aukera ona da ospitalera oinez joatea erabakitzen dutenentzat. Kanpo-konsulten eremuko azken eraberritzean, eraikin berria egitean, arrapala alternatiborik gabeko eskailera-tartea eraiki da ibilbidearen azken zatian; gainera, bideak narrio batzuk dauzka lurzoruan.

Ospitale-esparruan, oro har, ez dago oztoporik; hala ere, paperontzi batzuk daude oinezkoen bidean eta sarrera nagusiko sarreran.

Esparru barruko kanpo-seinaleztapena ez da oso egokia (ez ikusmen-urritasuna dutenentzat, ez inorentzat); izan ere, esparruaren sarbidean, larrialdietara edo kanpo-konsultetara sartzeko sarrerak ez daude adierazita. Ospitale-esparruaren kanpoaldeko seinaleztapena ezegokia da, eta ospitalea ez da erraz ikusten.



Malda handia larrialdietara eta kanpo-konsultetara sartzeko tokian.



Ospitale-esparruaren atzeko aldeko sarrerak malda egokia dauka.



Ospitale-esparruaren atzeko aldeko ateak arrapalarik gabeko eskailera dauka.



Espaloi estua ospitaleko sarbidean.



Desgaitasun fisikoa dutenek ezin dezakete oinezkoen bidea erabili.



Estugunea espaloian.

Aparkatzea

■ Kanpoko aparkalekua

Aparkalekuak ez dauka zoladurarik, aparkalekuak margotu gabe daude, eta, ospitalera sartzeko, narriatutako igarobide iristezina dago. Hala ere, egokitzapen-lanak egingo direla adierazi digute, eta ezinduei gordetako lekuak jarriko direla laster.

■ Aparkalekuko sarrera

- Aparkalekuko zonalde honetan, ez dago ezinduei gordetako aparkalekurik, guztiak baitaude larrialdien eremuan. Ezinduei gordetako aparkaleku bat jarri beharko litzateke sarrera nagusian.
- Kanpoko esparrutik aparkalekura iristeko, araudian ezarritako zabalera ez duen espaloia dago.

■ Larrialdietako aparkalekua

- Zonalde honetan daude ospitaleko ezinduen aparkaleku guztiak. Praktika ona dirudi; izan ere, ospitaleko sarrerak maldan daude, eta larrialdietako sarrera da altuen dagoena; beraz, gune honetatik, ospitaleko eremu guztietara iritsi zaitezke. Komenigarria litzateke ezinduen aparkalekuen kokagunea seinaleztatzea ospitale-esparruaren sarreratik bertatik.
- Era berean, ezinduei gordetako aparkaleku bat jarri beharko litzateke sarrera nagusian, hortik sartzen baitira ospitalera bisita egitera bertarutzen direnak.

Desgaitasun fisikoak dutenek ezin dezakete oinezkoen bidea erabili.



Zoladura oso narriatuta duen aparkalekua.



Aparkalekura kanpoaldetik iristeko, zabalera nahikoa ez duen espaloia dago.



Harrera-mahai iristezina; harrera-mahai egokitua itxita aurkitu da.



Seinaleztapen-bandarik gabeko beirazko ateak sarreran.



Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.



Itxarongelak ez dauka gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, gurpildun aulkien erabiltzaileak korridorean jartzen dira:



Sarbideak eta itxarongelak

Sarrerako ateak kristalezkoak dira, eta ez daukate seinaleztapen-banda horizontalik. Lanpasak ez dira finkoak, eta harrera-mahai guztiek ez daukate zonalde egokiturik. Harrera-mahai batzuek zonalde egokitua eta irisgarria dute, baina pertsiarekin itxita daude.

Gauzez ospitalera sartzeko ateak 75 cm-ko igarobide librea dauka, eta ez dauka tinbre irisgarririk kanpoaldean.

Sarrera nagusira iristeko arrapalan, estalkirik ez duenez, ur-pilaketak sortzen dira ibilbidean. Gainera, eskubanda al-tuera ezegokian dago jarrita; beraz, komenigarria litzateke arrapala horrek estalkia edukitzea, oso bide luze eta hotza da-eta.

Ospitaleko itxarongelak ez daukate gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako tokirik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere; gainera, aztertu diren itxarongela askotan, mahaiak daude gelaren erdian, eta horrek ez die maniobra egiten uzten gurpildun aulkien erabiltzaileei.

Larrialdietako harrera-mahai egokituak oztopoa dauka, iristezin eginez.



Sarrera nagusira iristeko arrapala. Komenigarria litzateke arrapala estalita egotea.



Larrialdietako eremua: Bisitaren unean, harrera-mahai egokitua kutzaz beteta zegoen, eta sarrerako ateen ez zeukaten seinaleztapen-bandarik. Larrialdietako harrera-gunerainoko bidea ohez, gurpildun aulkiz eta abarrez beteta dago; oztopoak dira horiek, ikusmen-maila txikia edo ezdeusa dute-nentzat. Ate batzuen seinaleztapena ezegokia da; gainera, koloredun zirkulu batzuk erabiltzen dira larrialdietako gela ezberdinetan, inolako logikarik gabe. Horrek nahasmendua eragin diezaike ikusmen-urritasuna duten pertsonen.

Kontsultak

Oro har, kontsultetako harrera-mahaiak eta mahaiak irisgarriak dira, baina gurpildun aulkien erabiltzaileak hurbildu ahal izateko behar den hondorik gabeko mahaiak eta harrera-mahaiak ikusi dira.

Kontsulten arteko ibilbideetan, orri bikoitzeko atean daude, igarobide-zabalera libre ezegokia dutenak orrietako batean, eta hegalek ez daukate proiektzioak oinezkoentzako ibilbidean. Bi kasuetan, egoera arriskutsuak gerta daitezke.

Erradiologiako gelek ez daukate ez komun, ez aldagela egokiturik. Eraberritutako zonaldeko kontsulta orokorreko egokitutako komuna daukate. Endoskopien eta dialisien unitateko komunek gabezia batzuk daukate, eta eguneko ospitalea ez da irisgarria.

Farmaziaren zonaldea guztiz iristezina da: Alde batetik, itxarongelak eta kontsultak igarobide-zabalera libre ezegokia duten atean daukate, eta, bestetik, harrera-guneko harrera-mahaiak ez dauka zonalde egokiturik. Gainera, igogailutik farmaziako atara iristeko bidean oztopoak daude; hala nola, arropa-orgak.

Ez dago gurpildun aulkien erabiltzaileentzako garabi eta bascula nahikorik. Dialisien unitatean, polipastoa dago sabaian. Praktika ona da hori behar den guztietan garabia erabili ahal izateko, beste unitate bati eskatu beharrik gabe, eta egunero laguntza izan daiteke bai mugikortasun murriztua dute-nentzat, bai langileentzat.

Larrialdiak

Kontsultetako ate batzuek koloredun zirkuluak daukate gainazalean, inolako logikarik gabe jarrita; nahasmendua eragin diezaike horrek ikusmen-urritasuna dutenei. Interesgarria litzateke informazio-zentzuz erabiliko balitz seinaleztapen mota hori.



Larrialdietako ateen seinaleztapena ezegokia da, ez baitu informaziorik ematen.



Erradiologia-unitateko komuna egokitu gabe.



Dialisien unitateko komuna, irisgarritasun-gabeziakin.



Hondo egokirik gabeko mahai kontsultan.



Farmazia-kontsultarako sarbidea. Ez die bira ematea ahalbidetzen gurpildun aulkietan doazen pertsonen.



Orri bikoitzeko atean; orri bikoitzaren igarobide-zabalera librea ezegokia.



Oztopoak farmaziako sarbidean. Norabidezko seinaleztapena falta da.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Oro har, ezinduen komun guztiek daukate irisgarritasun-gabeziaren bat: kasu batzuetan, atea ez dauka zabalera egokia, edo barrurantz irekitzen da; beste batzuetan, osagarriak altuegi jarrita daude, edo, oso ohikoa izaten denez, langileei abisatzeko alarmak ez dauzka ezaugarri egokiak, edo, ezaugarriak bete arren, kiribilduta dago.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Ez dago
0. S	Kafetegia
1. S	Kafetegia
	Kafetegia
2. S	Larrialdiak
	Kanpo-kontsultak
	Igogailuen gune nagusia
3. S	Ez dago

EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK	
Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Igogailuen gune nagusia
0. S	Oftalmologia
	Igogailuen gune nagusia
1. S	Ospitaleratze-gunea
	Larrialdi pediatrikoetako itxarongela
2. S	Eraberritu gabeko kanpo-kontsulten unitatekoa egokitu
3. S	Dialisietako itxarongela

Eskuak lehertzeko papera altu jarrita dago duela gutxi eraikitako komunean.



Egokitutako logelako komunak. Dutzak neurri txikiak, transferentzia egiteko eserlekurik gabe, eta alarma altuegi.



Egokitutako komunean, atea barrurantz irekitzen da, barrualdean mugikortasuna eragotziz.



Egokitutako logelako komunak. Komun-zulora transferentzia egiteko tokia ez da nahikoa, armairu bat baitago bertan.



Ez dago komun-zulora transferentzia egiteko tokirik, okupatuta baitago. Langileei deitzeko alarma altuegi jarrita dago.



Eguneko ospitaleko komunak. Irisgarritasun-gabezia asko; adibidez, konketak oina dauka, eta osagarriak altu daude.





Erditzeko gela. Komun-zuloa altuera ezegokian; dutxan, heldulekuak falta.



Jolas-gela. Mahai iristezina.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Kafetegirako sarbidea irisgarria da. Kafetegira sartzeko orri bikoitzeko ateez ez daukate araudian ezarritako zabalera – orri bakarrekoa baita ezarritakoa –, baina beti daude irekita; beraz, sarbidea bermatuta dago.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik. Edariak barran edo jantokiko mahaietan zerbitzatzen dira.

Jantokira sartzeko ateez ez dauka araudian ezarritako zabalera, eta sarreran oztopo egiten dute jantokiko altzariak. Mahaiak ez daukate neurri egokia gurgildun aulkien erabiltzaileek erabili ahal izan ditzaten.

Kafetegiak ezinduei gordetako komunak dauzka.

Makina saltzaileak

Ospitaleko makina saltzaile guztiak dira iristezinak, altuera egokian dagoen telefono publiko bat salbu.



Telefono publiko irisgarria da. Altuera egokian jarri den telefono publikoa estandarra da.



Jantokiko sarrera. Altzariak sarrera oztopatzen dute.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Diseminados Berriatua kaletik ospitalera iristeko bidea egokitu behar da.
- Ospitaleko sarrera nagusira doazen espaloien zabalera handitu behar da.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden sarbideen seinaleztapena hobetu behar da.

Aparkatzea

- Zoladura jarri behar da kanpoko aparkalekuan, eta ezin duen aparkalekuak jarri.
- Ezinduei gordetako aparkalekua jarri behar da ospitaleko sarrerako aparkalekuan.

Sarbideak eta itxarongelak

- Seinaleztapen-bandak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Egokitutako harrera-mahaietako oztopoak kendu beharko dira.
- Nahitaez, sarbide guztietan lanpas finkoak jarriko dira.
- Sarrera nagusiko arrapala estali behar da.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Ospitaleko gaueko sarrerako atea aldatu behar da.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan, eta itxarongela guztietako erdiko mahaiak kendu.
- Ate guztietako koloredun zirkuluak kendu behar dira, edo horiek ulertzea ahalbidetuko duen zentzua eman.
- Korridoreetan dauden oztopo guztiak kendu behar dira.

Kontsultak

- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Nahitaez, orri bikoitza duten eta igarobide-zabalera ezegokia duten ateez aldatu behar dira.
- Proiekzioz gabeko hegalak kendu behar dira.
- Farmaziako unitatea egokitu behar da.

- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordean.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki behar dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu behar da, halaxe behar duten kasuetan.
- Hirugarren solairuan, ezinduei gordetako logela bat eraiki behar da.
- Eguneko ospitaleko boxak zabaldu behar dira, eta unitateko komuna berrikusi.

Beste gela batzuk

- Kafetegia egokitu behar da.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

4.9. Onkologikoa-Donostia

Hiri-ingurunea

Ibilbidea

Beristain Doktorea kalean, mutiloiak daude oinezkoen bidean, eta, mutiloetik mutiloira, proiektzio horizontalik gabeko kateak daude, estropezu egitea eraginez; era berean, bizkarralderik eta beso-euskarririk gabeko eserlekuak daude. Eraikineko sarrera nagusirako sarbidea ematen duen zerbrabideak ez dauka ukimenezko seinaleztapen egokirik.



Mutiloiak dituen ibilbidea.



Proiektzio horizontalik gabeko katea, kontraste gutxi, eta bizkarralderik zein beso-euskarririk gabeko bankuak.

Aparkatzea

■ Onkologikoa-Osakidetza aparkaleku partekatua

Ezinduei gordetako aparkaleku kopurua egokia da, baina ez daude ospitaleetako sarreretatik hurbil. Donostia eta Onkologikoa ospitaleetatik hurbil dauden aparkalekuak berrantolatu behar dira.

Parkimetroak ez dira irisgarriak; beraz, egokitu egin behar dira.

■ Barrualdeko aparkalekua, Onkologikoa (erabilera partikularra)

Aparkalekuen kopurua eta horien neurriak egokiak dira.



Donostiako Unibertsitate Ospitalea-Onkologikoa aparkaleku partekatua.

Sarbideak eta itxarongelak

Sarrerako ateko seinaleztapen-bandak ez dira egokiak. Sarreran, finkatu gabeko lanpasak daude. Txanda ematen duen makina iristezina da, edo zailtasun handiak dauzka. Sarrerako harrera-mahaiaren atzealdeko informazioa ez da irisgarria.

Ospitaleko itxarongelek ez daukate gurgildun aukien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.



Sarrera nagusiko atek ez dauzka seinaleztapen-banda egokiak.



Txandak ematen dituen makina iristezina da.



Itxarongelak ez dauka gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espaziorik, ezta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekurik ere.



Harrera-mahai irisgarria, zenbait gabeziarekin.

Kontsultak

Kontsulta orokorretako ateen igarobide-zabalera libre egokia daukate, baina, oro har, horien barrualdeko espazioak ez die bira egitea ahalbidetzen gurgildun aulkien erabiltzaileei.

Odola ateratzeko kontsultek, gizarte-langilearen bulegoak, bularreko minbizia goiz hautemateko programaren kontsultak eta abarrek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia duten ateen. Kontsulta batzuek babes-zokalarik gabeko beirazko ateen daukate.

Erradiologia-proben aldean, aldagela irisgarri bakarria dago; aldagela hori ez da egokia, neurriak ez baitira araudian ezarrita daudenak.



Aldagela egokitu, barrualdeko espazioa ez da nahikoa.



Kontsultetan, transferentzia egiteko toki nahikorik ez.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Oro har, aztertu diren ezinduen komun ia guztiek dute barrurantz irekitzen den eta igarobide-zabalera ezegokia duen atea. Ispiluak, papera eta etengailuak altuegi jarrita daude, eta, komun batzuetan, oztopoak aurkitu dira komun-zulora transferentzia egiteko tokian. Itxarongela edo itxaronleku jakin batzuetan, komun bereziak daude tratamenduak jasotzen dituzten pertsonentzat, baina bat bera ere ez da irisgarria.

EZINDUENTZAT GORDETAKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
-1. S	Itxarongela orokorra
0. S	Kafetegirako sarbidea Kontsulten eremua
1. S	Itxarongela orokorra
2. S	Itxarongela orokorra

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
	1. itxarongela
-1. S	2. itxarongela Komun berezia



Komun egokitu. Komun-zuloa altuera ezegokian dago, heldulekuak ezegoki jarrita daude eta komuneko atea barrurantz irekitzen da.



Ezinduen komunean eta haurtoak aldatzeko gelan, atea barrurantz irekitzen da.



Komun berezia, tratamenduen aldean, egokitu gabe.

Logelak eta boxak

Ospitaleko logela guztiak antzekoak dira. Banakako logelek nahiz logela bikoitzek toki nahikoa dute barrualdean, transfe-

(III). IRISGARRITASUNA AZTERTUTAKO OSPITALEETAN

rentzia eta bira egiteko tokia, bai eta gurpildun aulkia logelan edukitzeko lekua ere.

Logeletako komunek irisgarritasun-arazoak dauzkate. Komun batzuetan, duxtako eserlekura transferentzia egitea eragozten duten beirazko manparak jarri dira. Beste batzuetan, gurpildun aulkitik duxtako eserlekura transferentzia egitea eragozten duen helduleku finkoa jarri da; gainera, konketek apala daukate behealdean, eta gurpildun aulkien erabiltzailerak hurbiltzea galarazten du horrek.

Ospitaleratze-guneko itxarongelek gurpildun aulkia erabiltzen duten pertsonen gordetako espazioak dauzkate, baina ez daude seinaleztatuta.

Aztertu diren boxen eremuek transferentziarako leku nahikoa daukate, besaulkiaren edo esku-oherearen albo batean; eta, tratamenduetarako boxen eremuko komuna irisgarria bada ere, itxaronlekuan ez dago egokitutako komunik.

Garabiak ikusi dira, baina ez unitate edo eremu guztietarako adina.



Egokitutako logelako komuna. Manparak komun-zulora transferentzia egitea eragozten du.



Konketa mota. Hondo libre egokirik gabea, jarri den apalarengatik.

Beste gela batzuk

Kafetegia

Ospitalearen barrualdetik zein kanpoaldetik irits daiteke kafetegira.

Barrutik sartzeko atek ez dauka araudian ezarritako zabalera, ezta babes-zokaloa eta seinaleztapen-bandarik ere.

Kanpotik sartzeko atek araudian ezarritako zabalera dauka, baina ez dauka babes-zokalorik. Heldulekuak eta seinaleztapen-bandak ezegokiak dira.

Kafetegiko mostradoreak ez dauka toki egokiturik. Altzarien antolaketa ez da egokia, mahaien arteko korridoreak oso zabalera txikia dauka-eta. Kafetegiko edariak mostradorean zerbitzatzen dira.

Kafetegia jatetxea ere bada. Zerbitzua "autozerbitzu" motakoa da; beraz, mugikortasun murriztua duten pertsonak ezin dezakete modu autonomoan erabili zerbitzua.

Kafetegiak ez dauka ezinduei gordetako komunik, eta hurbilena kafetegira ospitalearen barrualdetik iristeko korridorean dago; zenbait gabezia dauzka.

Areto nagusia

Areto nagusira sartzeko atek ez daukate araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Lehenengo atek ez dauka kontraste kromatikorik. Ez dago gurpildun aulkien erabiltzailerentzat gordetako espaziorik, horretarako lekua egon arren.

Oholtzara igotzeko, eskaileak daude; mugikortasun murriztua duten pertsonak atzeko atetik joan behar dira bertara.

Oholtzako mahaiak ez dauzka araudian ezarritako neurriak.

Kapera

Kaperara sartzeko atek ez daukate araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Ibilbidean, ezin daiteke bira egin.

Barrualdeko espazioa iristezina da, ezin daiteke bira egin, eta ez dago gurpildun aulkien erabiltzailerentzat gordetako tokirik.

Tanatorioa

Ez da aztertu.



Kafetegia. Sarrerako atea ezegokia.



Jantokiko mostradorea. Autozerbitzu motako zerbitzua.



Areto nagusia. Gurpildun aulkian doazen pertsonentzako espazio posiblea.



Kapera Bira egiteko leku urria.

ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Oinezkoen bidean, mutiloiak eta proiektzio horizontalik gabeko kateak kendu behar dira.
- Zebrabideko seinaleztapen-zerrendak egokitu behar dira.

Aparkatzea

- Ezinduei gordetako aparkalekuak jarri behar dira sarrera nagusitik hurbil.
- Parkimetroa egokitu behar da.

Sarbideak eta itxarongelak

- Nahitaez, seinaleztapen-banda egokiak jarriko dira beirazko ate guztietan.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Harrera-mahai egokituak jarri beharko dira hala behar duten unitate edo eremuetan.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri beharko dira itxarongeletan.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten ateak ordezkatu beharko dira.
- Kontsultetako altzariak berrantolatu behar dira, horietan ezin bada bira egin.
- Babes-zokaloak jarri behar dira beirazko ate guztietan.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordezkari.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.
- Ezinduen komunak eraiki beharko dira "Gune komunetan ezinduei gordetako komunak" atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

Ezinduei gordetako logelen ezaugarriak berrikusi behar dira.

Beste gela batzuk

- Kafetegiko altzarien antolaketa aldatu behar da.
- Nahitaez, kafetegira sartzeko ateak aldatuko dira.
- Kapera egokitu behar da.
- Areto nagusiko atearen zabalera librea aldatu behar da, eta kontraste kromatikoz hornitu.
- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak aldatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.

4.10. Usurbilgo Erietxea

Hiri-ingurunea

Usurbiletik erietxerainoko oinezkoen bidea errepidetik egiten da, eta, Usurbilen eta erietxearen arteko kota-desberdintasuna dela-eta, ezin daiteke errepidea egokitu. Bestetik, bideak ez dauka oinezkoak eta errepidea banatzeko inolako tarterik, eta egoera arriskutsuak eragiten ditu horrek.

Ospitale-esparruaren barrualdeko bideek landaredia daukate, eta erorikoak eragin ditzake horrek. Alde batzuetako zoladura ez da ez gogorra, ez trinkoa, eta, ospitale-esparruan, egokitu gabeko egonlekuak daude.

Erietxearen barrualdeko pazienteen patioak hainbat ibilbide dauzka, baina horietako bat ez da irisgarria, zoladura mota dela-eta.



Babesik gabeko oinezkoen bidea Usurbiletik.



Ospitale-esparruaren barrualdetik sarrera nagusirainoko bidea.

Erietxeko lorategietako oinezkoen bidea.



Erabiltzaileen patioan, ibilbide iristezina.



Aparkatzea

Malda malkartsuan daude, aparkalekuen neurriak ez dira egokiak, eta ez daukate seinaleztapen bertikalik.

Ezinduen aparkalekuetatik sarrera nagusira joateko, aldapa handia duen aparkalekua dago. Ezinduen aparkalekuak lekualdatzea aholkatzen da, sarrera nagusiko zero kotarantz eramanez horiek.

Ezinduen aparkalekua maldan.



Ezinduen aparkalekua maldan, seinaleztapen bertikalik gabe eta neurri egokirik gabe.



Sarbideak eta itxarongelak

Sarrera nagusiaren kanpoaldeko seinaleztapena ezdeusa da. Eraikinera sartzeko atea astuna da, eta, bertan, deitzeko aldaba jarri da, altuera ezegokian. Eraikinera sartzeko bigarren atea igarobide-zabalera libre ezegokia dauka. Lanpasak ez daude finkatuta.


Frontoitik hurbil dagoen erabilera anitzeko pabiloira joateko, igarobide-zabalera ezegokia duen atea dago.

Lorategiko etxolak koska dauka serreran, eta atea ez dauka igarobide-zabalera libre egokia.

Usurbileko erietxeko fatxada nagusia.



Lorategiko bisita-etxolen sarrera. Zabalera libre ezegokia eta koska sarbidean.



Kontsultak

Frontoiari eratzikitako kontsultek edo tailerrek ez daukate igarobide-zabalera libre egokia atean. Eskularen tailerlean, taldeko terapia-aretoak eta erabilera anitzeko aretoak behar besteko tokia daukate barrualdean, eta gurpildun aulkien erabiltzaileek maniobra egin dezakete; aztertu diren bulegoek, ordea, ez daukate maniobra egiteko toki nahikorik. Eskularen tailerreko komunak ere ez daude barrualdean egokituta.

Eraikin nagusiarri eratzikitako erabilera anitzeko pabiloia finkatu gabeko lanpasa dauka barrualdean, eta oholtza iristezina da, koska bat baitago bertara igotzeko tokian. Erabilera anitzeko eraikineko sotoan, senideekin elkartzeko aretoak daude. Bertara iristeko, eskailerak bakarrik daude, arrapala edo igogailu alternatiborik gabe.

Eskularen tailerra.



Eskularen tailerreko komuna. Iristezina.





Senideekin elkarteko aretoetara iristeko, eskailerak daude. Ez daukate ez barandarik, ez arrapala alternatiborik.



Erabilera anitzeko pabilioia. Oholtzak koska dauka, iristezina gurpildun aukietan doazen pertsonentzat.



Erabilera anitzeko aretoko sarbidean, ez dago seinaleztapenik.



Guztionezako komuna irisgarria eta egokitu gabea. Oso eskasa erabilera anitzeko pabilioiko sotoan.



Behe-solairuko komuna. Ez dago egokitzapenik.

Logelak eta boxak

Ospitaleko logela irisgarriek irisgarritasun-gabeziak dauzkate: logelen barrualdeko espazioak txikiak dira, ohearen alboan ez dago transferentzia egiteko toki nahikoa, sartzeko ateez igarobide-zabalera libre ezegokia dute, eta ez daukate gurpildun aukia logelaren barrualdean edukitzeko tokirik.

Egokitutako logelek komuna partekatzen dute korridorean. Komun irisgarriak zenbait gabezia dauzka egokitzapenei dagokienez; hala nola, heldulekua falta da albo batean, ispilua altu dago, eta komuneko atea barrurantz irekitzen da.

Lekualdaketak egiteko garabi nahikoak daude.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

Eraikin nagusiko gune komunetan, ez dago komun egokiturik. Erietxeak komun egokitu bakarra dauka (eskasa) erabilera anitzeko pabilioian, baina komunerainoko bidea ez da irisgarria.

ERAIKIN NAGUSIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Eskaileren gune nagusia Jantokia

FRONTOIKO PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
0. S	Gune komuna

ERABILERA ANITZEKO PABILIOIAN EZINDUEI GORDE BEHARREKO KOMUNAK

Solairua	Unitatea/Gunea
1. S	Erabilera anitzeko aretoa



Egokitutako logeletako komuna. Transferentzia egiteko tokirik ez, heldulekua albo bakarrean...



Egokitutako logelako komuna. Atea barrurantz irekitzen da.

*Igarotzeko espazio
libre txikia logela
egokitan.*



*Makina saltzailea.
Iristezina.*



Beste gela batzuk

Kafetegia

Ospitaleak ez dauka kafetegirik bere instalazioetan.

Pazienteek bakarrik erabiltzeko jantokia dauka. Eraikinaren barrualdetik iristen da bertara, malda handia duen arrapala batetik; eraikinaren kanpoaldetik ere irits daiteke, ate bikoitz batetik. Bi ateen arteko espazioan ezin daiteke bira egin. Ateak ez dauka lanpas finkorik.

Altzariak egoki banatuta daude. Mahaiek neurri egokiak daukate gurgildun aulkien erabiltzaileek erabili ahal izan ditzaten. Menuak mahaietan zerbitzatzen dira.

Jantokiak komunak dauzka instalazioetan, baina bat bera ere ez dago ezinduentzat gordeta. Ezinduen komun hurbile-na ospitaleratze-guneko lehenengo solairuan dago.

Makina saltzaileak

Ospitaleko makina saltzaile guztiak dira iristezinak. Lorategiko etxolan daude makina saltzaile guztiak. Etxolara sartzeko, koska dago; beraz, gurgildun aulkien erabiltzaileak ezin daitezke bertara sartu.

Etxolara sartzeko ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea.

Kapera


Kafetegira sartzeko ateak ez dauka araudian ezarrita dagoen zabalera librea. Barrualdeko espazioak bira ematea eta maniobra egitea ahalbidetzen die gurgildun aulkietan doazen pertsoneri.

Ez dago ezinduei gordetako eremurik, baina gurgildun aulkien erabiltzaileentzako tokia dago.

*Jantokia. Malda
malkartsuko
arrapala.*



*Makina saltzaileen
etxola. Zabalera
ezegokia duen
atea eta koska
sarbidean.*



Kapera.



ONDORIOAK

Hiri-ingurunea

- Usurbiletik erietxerainoko zoladuran, oinezkoen bidea seinaleztatu behar da.
- Ospitaleko ibilbide guztiak egokitu behar dira; bai barruko patioakoak, bai kanpokoak.

Aparkatzea

- Ezinduen aparkalekuak lekualdatu, eta sarrera nagusitik hurbil jarri behar dira.

Sarbideak eta itxarongelak

- Sarrera nagusia seinaleztatu behar da.
- Ate nagusia aldatu behar da, edo laguntzeko mekanismoen bat jarri, atea irekitzeko.
- Sarbide guztietan lanpas finkoak jarri behar dira.
- Gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako espazioak eta mugikortasun murriztua dutenentzako eserlekuak jarri behar dira itxarongeletan.
- Makina saltzaileen etxola egokitu behar da.

Kontsultak

- Araudian ezarrita dagoen gutxieneko zabalera ez duten atek ordezkatu beharko dira.
- Ezinduei gordetako komunak eta aldagela egokituak jarri behar dira hala behar duten kontsulta guztietan.
- Altzari irisgarriak jarri beharko dira.
- Erabilera anitzeko oholtzara igotzeko arrapala jarri behar da.
- Garabi eta baskula nahikoak erosi behar dira gurpildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.
- Altuera erregulagarria duten esku-oheak jarri behar dira esku-ohe finkoen ordez.
- Ibilbide irisgarria eraiki behar da erabilera anitzeko pabilioiko sotoan.

Gune komunetan ezinduei gordetako komunak

- Ezinduei gordetako komunetan, irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharko da, halaxe behar duten kasuetan.

- Ezinduen komunak eraiki beharko dira “Gune komunetan ezinduei gordetako komunak” atalean zehaztutako unitate edo eremuetan.

Logelak eta boxak

- Nahitaez, ezinduei gordetako logelen ezaugarriak berrikusi behar dira.
- Unitate guztietan eraiki behar dira ezinduei gordetako logelak.

Beste gela batzuk

- Araudia betetzen ez duten makina saltzaileak ordezkatu behar dira, telefonoak, telebista-txartelak saltzeko makinak eta abar barne hartuta.
- Kaperara sartzeko atea aldatu behar da.



Euskadiko ospitale-sarearen irisgarritasuna.

Osakidetzako teknikarien eta osasun zerbitzuak erabiltzen dituzten ezintasunen bat duten pertsonen ikuspuntua

k a p i t u l u a

IV. kapitulua

Euskadiko ospitale-sarearen irisgarritasuna. Osakidetzako teknikarien eta osasun zerbitzuak erabiltzen dituzten ezintasunen bat duten pertsonen ikuspuntua

1.

Sarrera

EAEko osasun-sareko ospitaleak aztertu eta lehen ondorioak atera ondoren, bidezkotzat jo zen eztabaida-talde bat eratzea (egia esan, bi talde eratu dira, berehala azalduko den moduan), landa-lanaren fasean –ospitaleetan egindako bisitetan– jasotako informazio kuantitatiboa eta objektiboa osatzeko.

Erabilitako metodologia garai hartan bildutako informazioa egiaztatu eta humanizatzeko baliatu zen partaidetza-estrategiaren zati da. Izan ere, metodologia hau erabiliz, xehetasunez ezagutu nahi izan dira, alde batetik, osasun-teknikarien iritziak eta proposamenak, eta bestetik, ezintasunen bat (fisikoa zein sentzoriala) duten pertsonen osasun zerbitzuak erabiltzeko orduan antzemandako zailtasunak.

Eztabaida-taldea 2015eko urriaren 9an bildu zen, Arartekoaren Gasteizko egoitzan.

Arartekoko eta Elkartuko arduradunek landa-azterlanaren bidez lortutako ondorio nagusien laburpena aurkeztu dute foroan eta zenbait gai proposatu dituzte eztabaidarako. Une jakin batean, taldea bi azpitaldetan banatu da, jardunaldia eraginkorragoa izateko:

- **I. azpitaldea:** ospitaleetan lan egiten duten teknikariak.
- **II. azpitaldea:** ospitaleko zerbitzuak erabiltzen dituzten ezintasunen bat duten pertsonak (ospitaleetako ezintasunen bat duten langile batzuk ere sartu dira talde honetan).

1.1. Aurretiazko kontu batzuk

- Parte-hartzaileek beren izenean hartu dute parte, ez Administrazioaren edo gizarte-erakundeen ordezkari gisa. Horregatik, hain zuzen ere, euren lekukotasunak modu anonimoan jaso dira eta pertsona horien nortasuna ez jakinaraztea erabaki da, iritziak ahalik eta askatasun handienaz adierazteko aukera bermatzeko.
- Bistakoa denez, galdetutako pertsonak Osakidetzako lanbide-profil guztietakoak ez badira ere, horietako asko ospitaleko arretaren giltzarria dira: mediku profesionalak, erizainak, administrazioko langileak, zeladoreak...
- Era berean, ezintasunen bat dutenen taldean ez daude ezintasun mota guztietako pertsonak, eta ez dute kolektibo osoa ordezkatzeko, ezintasunen bat duten pertsona ororen ikuspuntua adierazten duten arren.
- Talde-lanaren helburuetako bat jasotako informaziotik ateratako kontrastea “humanizatzea” dela kontuan izanda, ekarpenak eta hitzak ahalik eta modu literalenean islatu eta interpretatu nahi izan dira, emandako iritzien “freskotasuna” bermatuz.
- Galdetutako pertsona zein azpitaldetakoa den kontuan hartu gabe, egiaztatu da erabateko adostasuna dagoela existitzen diren arazoaren eta proposatutako behin-behineko ondorioen inguruan. Izan ere, ez da desberdintasun aipagarririk ikusi, galdetutakoek azalduetako egoera edo informazio zehatzei buruz ikuspegi osagarriak dituztela baizik.
- Behin-behineko ondorioak aurkeztu ondoren, saioak galderak oinarri hartuta egituratu baziren ere, egia esan, gaiak gainjarri egiten dira askotan, eta ekarpen zehatzak osasun-sistemaren egoera orokorretik bereiztea zaila izaten da.

Azpitaldeetan egin beharreko lanari edukia emateko, aurretik aipatu bezala, jarraian azaltzen diren galderen multzoa erabili zen.

2.

Balorazioa azpitaldeen arabera

2.1. I. AZPI-LANTALDEA: euskal osasun-sistema publikoko langileak

■ **Ospitaleko zuzendariak eskatzen al die langileei euren iritzia ospitalean birgaitze-lan bat edo obra berri bat diseinatu aurretik? Erantzuna baiezkoa bada, langileek esandakoa aintzat hartzen al da?**

Gai horri dagokionez, azaldu dute ospitaleko zuzendariak, oro har, ez dutela ohiturarik langileen iritzia aintzat hartzeko, ospitalean obra edo aldaketaren bat egin nahi dutenean. Hortaz, askotan, ez da kontuan hartzen teknikarien iritzia, eta beste batzuetan, gutxitan bakarrik, erabakia ospitale bakoitzeko zuzendariaren esku egoten da, jarraian jasotzen den bezala:

- “Osakidetzan, langilearen kontzeptua oso hierarkizatua dago. Goi-istantzietan baino ez dute galdetzen”.
- “Hainbat maila daude kontsulta egiteko. Oro har, unitate batean obrak egitekotan, unitate-buruari galdetzen zaio, eta gero, berak erabakitzen du hierarkian beherago dauden langileen iritzia galdetu ala ez”.
- “Eraikin berrietako obra handien kasuan, kontsulta taldeak sortzen dira (adibidez: Txagorritxuko kanpo-kontsultak)”.
- “Osakidetzak erosten duen guztia estandarizatu nahi du, gastuak murrizteko”.
- Parte-hartzaile batek duela hainbat urte ikusitakoa kontatu zuen: unitate bat osorik berritzen ari zenean, atea hain ziren estuak, non ezinezkoa baitzen oheak pasatzea. Horren berri eman zuen arren, ez zioten kasurik egin. Ateak ez ziren aldatu, eta ondorioz, ez zegoen ohe horiek geletatik ateratzeko modurik (zeladoreek esku-oheak erabili behar izaten zituzten gaixoak probak egitera eramateko).

■ **Osasun-langileen eguneroko lanean irisgarritasun-arazoren bat antzemanda horren berri ospitaleko zuzendariari ematen zaionean, aintzat hartzen da?**

- “Langileek PEAZera (pazientearen eta erabiltzailearen arreta-zerbitzura) jo ohi dute kexak aurkeztera”.
- Parte-hartzaile batek azaldu du hilabeteak daramatzala Donostia Ospitaleko Gipuzkoa eraikinean dagoen bainu erreserbatua irekitzeko eskatzen eta ez diotela jaramonik egiten. Bere esanetan, “Teknikari asko daude, eta denetarako, irisgarritasunerako izan ezik”.

■ **Eman al da berariazko prestakuntza, entzumen- edo ikusmen-urritasunen bat duten pertsonen arreta emateko?**

- Galdetutakoek diote ez dutela berariazko prestakuntzarik jaso; oso beharrezkoa dela uste dute. PEAZeko langileek soilik jasotzen omen dute horrelako prestakuntza. Galdetutakoek arabera, PEAZeko langileek gaixoak harreran artatu eta aholkatu behar dituztenean soilik hitz egin behar dute entzumen- edo ikusmen-urritasuna duten pertsonekin, hortaz, ezin da esan erabiltzaileei lehen mailako arretako langileak direnik.
- Hori dela eta, beren ustez, prestakuntza mota hori ospitaleetako lehen mailako arretako langileek jaso beharko lukete batez ere.
- Aipatzen dute, gainera, ospitaleko erabiltzaileak tratatzeko era hobetzeko prestakuntza jasotzen dutela, baina ez dela ezintasunen bat duten pertsonen buruzkoa.

■ **Ezagutzen al dira protokoloak ezaugarri berezi batzuk dituzten pertsonen (adibidez, adimen-urritasuna edo autismoa dutenei, ezintasunen bat duten haurrei, zainak agerian ez dituztenei...) arreta emateko?**

- Galdetutakoek ez dute ezagutzen protokolorik premia bereziak dituzten pertsonak artatzeko.

■ **Nahikoak al dira laguntza teknikoak ezintasun fisikoren bat duten pertsonen laguntzeko?**

- “Oro har, dauden laguntza teknikoak ez dira nahikoak. Gaixoak laguntzeko langileak egon badaude, baina, errealitateak erakutsi duenez, ez da erraztasunik ematen laguntza hori eman ahal izateko”.
- “Gaixoei laguntzeko orduan istripu bat gertatzen bada, langileak izaten dira erantzule. Horrek esan nahi du, askotan, langileek behar ez diren arriskuak saihestu nahiago dituztela, beraz, gaixoari komunera lagundu beharrean, pixoihala jartzen diote, txiza gainean egin ez dezan”.
- Azaldu denez, psikiatrikoetan egoera are okerragoa da horri dagokionez: “Gaixo psikiatrikoen botikak ematen zaizkie lasaitzeko, edo gaixoa immobilizatu egiten da, adibidez, musikoterapia nahikoa izango litzatekeenean”.

■ **Ospitaleratze-guneetan, familiakoekin edo gaixoei gai pribatuari buruz hitz egiteko berariazko lekuri eza nabarmentzen da?**

- Orokorrean toki gutxi dagoela aipatzen da. Gainera, batzuetan, gela batzuk libre egon arren, ez dira erabiltzen gai pribatu eta zailei buruz hitz egiteko.
- Parte-hartzaile batek behin baino gehiagotan ikusi du: “berri txarrak korridoreetan ematen direla, horretarako egokia den lekua libre egon arren”.
- Beste baten iritziz, “berak, medikuak, bere eguneroko lanean horretarako egokia den toki bat behar duenean, aurkitu egiten du”. Bere ustez, “askotan, medikuaren edo langilearen esku dago”. Gainera, “itxarongelak handitu beharra dago, benetan”.

■ **Ospitaleko unitateetan, badago nahiko lekurik materiala biltegitzeko? Erantzuna ezezkoa bada, horrek badu eraginik erabiltzaile eta gaixoentzat gordetako guneeetan (korridoreetan, itxarongeletan...)?**

- Oro har, parte-hartzaile guztiak bat datoz ez dagoela toki nahikorik materiala biltegitzeko. Adibidez, “Donostia Ospitalean komun egokitu bat biltegi bihurtu da”.
- Orokorrean, esaten dute ospitaleetako kanpo-kontsultek beste eraikin batean egon beharko luketela (Txagorritxun bezala), ez ospitalean bertan. Bestela, ospitaleko eraikinean daudenean, nahastu egiten dira ospitaleratutako gaixok eta kanpo-kontsulten erabiltzaileak.

■ **Eguneroko jardunean, zer-nolako arazoak ikusten dituzu, ezintasunen bat duten pertsonak artatzeko moduari dagokionez? Nola hobetuko zenuke?**

- “Kaleko arropa kendu eta ospitaleko pijama janzten duzun unean, tratuak okerrera egiten du”.
- “Sistemak ‘balio ez duen’ pertsonatzat jotzen du edozein gaixo”.
- “Ospitalizazio-unitateetarako sartzeko politika aldatu egin da. Lehen, eguneko ordu jakin batzuetan soilik ematen zen sartzeko aukera; orain, ordu guztietan sar daiteke, medikuaren bisitak egiteko orduan izan ezik. Horrela, gaixok familiakoek zaintzen dituzte eta zeladore gutxiago behar ditu Osakidetzak”.
- “Ospitaleak prozesutzat hartzen ditu gaixok. Egun bakarreko prozesuak nahiago ditu, iraupen luzeak baino”.
- Galdetutako batek ez du arazo berezirik ikusten, baina, bere ustez, “badago zer hobetu, adibidez, kome-nigarria izango litzateke prestakuntza gehiago ematea, protokoloak, laguntza teknikoak eta abar erabiltzea, ikuskapenak egitea, ospitalean hartzen diren erabakiak hartzeko modua aldatzea, alde guztiak parte har dezaten”.

2.2. II. AZPI-LANTALDEA: ezintasunen bat duten pertsonak

■ **Itxarongelak nahiko handiak dira? Gurpil-aulkietan doazen pertsonentzat bakarrik den gunerik badago?**

Ospitaleetako itxarongelei buruzko kexa ugari jaso dira.

- Parte-hartzaileen arabera, itxarongelak EZ dira nahiko handiak: “Itxarongeletan jendea eserita baldin badago, ez dago leku nahikorik”.
- Diotenaren arabera, medikuarekin edo erizainarekin hitz egiteko “txanda-zenbakia hartzeko” aukera egon beharko litzateke, eta audio bidezko sistema erabili beharko litzateke.
- Gainera, ospitale batzuetan abian jarri den barra-kodearen bidezko sistema “ez da erraz iristekoa, altuegi ipinita dago eta gurpil-aulkian eserita bazaude, ezin duzu pantaila ikusi”, “ez du audiorik”.

■ **Ospitaleko harrera-mahaiak erraz iristeko modukoak dira?**

- “Oso altuak dira gehienak, eta baxuak diren horiek ez dira behar bezala erabiltzen, besteak beste, landareak eta gauzak uzteko erabiltzen baitira; pertsiana jaitsita eta itxita izaten dute, langileak ‘hoztu’ egiten direla-eta”.
- “Esaten digute askotan: ‘zuentzat bakarrik da, baina irekita badago, guztiak etortzen dira”.
- Entzumen-urritasuna duten pertsonak jasotzen duten arretari dagokionez, keinu-hizkuntzako interpretea nahiago izaten dute indukzio magnetikoko begizta baino, azken hori lehenago entzuten zuten edo entzumen-arrastoak dituzten pertsonentzat soilik baita egokia.

■ **Ospitaleetan txanda-zenbakiak banatzen dituzten makinak erraz iristeko modukoak dira? Makina ezin bada erabili, nola eska daiteke txanda?**

Adierazi dutenez, makinak ez dira erraz iristeko modukoak eta gainera:

- “Ahal duzun moduan moldatu behar duzu”, “erabiltzaile edo zeladore bati eskatu”.
- Adineko gorrek diote, gainera: “arazo asko izaten ditugu makina horiekin”.

■ **Komun egokituaren kopurua eta ezaugarriak kontuan hartuz gero, ospitalea iristerraza al da?**

- Parte-hartzaile guztien iritziz, komun egokituak ez dira nahikoak eta euren ezaugarriak ez dira behar bezalakoak: “Ez, gabezia asko daude eta komunak eraikin askotan falta dira”.
- “Gorrentzako komunitan ez dago informaziorik, ezta argi-abisurik ere”.
- “Pertsona horientzat bakarrik diren komunak bilatu behar dira”.

■ **Ospitaleetako seinaleztapena egokia al da?**

Oro har, agerian utzi da ospitaleetako seinaleztapena ez dela egokia eta ez dituela kontuan hartzen ezintasun desberdinak.

- “Entzumen-urritasuna duten pertsonentzat egokia da”.
- “Donostian galtzen zara, baita Gurutzetako ospitalean ere”.
- “Lurrean seinaleak jarri behar dira ibilbideak seinaleztatzeko, kaletik ospitaleraino eta informazio-gunetik gehien erabiltzen diren lekuetaraino”.
- “Beharrezkoa da laguntza pertsonala, Donostia ospitalean bezala”.
- “Aldez aurretik esan behar da braille-seinaleak jarrita daudela, bestela, erabiltzaileak ez daki seinaleak hor daudenik”. “Non daude?”

■ **Nola moldatzen zara arropa kendu eta gero janztean eskatzen duten kontsultetan, hau da, aldagela bat duten kontsultetan, adibidez, erradiologia-probak egitean edo ginekologoarenean?**

Kasu honetan ere bat datoz galdetutakoak. Argi dago al dagueletan moldatzea zaila izaten dela, tokia egokitu gabe dagoenean.

Proba osagarriak egiteko gainerako gelei buruzko iritzia ere antzekoa da:

- “Gaizki”.
- “Kanpo-kontsultetan, ondo”.
- “Arropa kanpoan aldatzen da, kontsultan bertan”.
- “Mamografiak egiten diren kontsultan ez dago eserlekurik”.
- “Inoiz ez nau ikusi ginekologo batek, ezin bainaiz ohatilan jarri”.

■ **Nola egiten dizkizute kabina txikietan egin beharreko probak, hala nola arnas-proba edo audiometria? Gauzatu egiten dira ala ez?**

Kasu honetan, erantzuna biribila izan da, ikus daitekeenez:

- “Kabinetik kanpo egiten dira edo ez dira egiten”.

■ **Ezintasunen bat duten langileek egindako beste iruzkin batzuk:**

Ikusten denez, zalantzak izaten dituzte eta ez dira seguru sentitzen, egoera okerragoa ez bada:

- “Ordenagailuetako programak aldatzen dituzte eta arazoak izaten ditugu, abisatzen ez digutenez, gaixoak ikusi ezin ditugu-eta”.
- “Medikuek ez dituzte ezagutzen eraikinak eta ez dakite egokitutako komunik dagoen”.
- “Donostian, erresonantziak egiteko itundutako zentroa helezina da. Eraikina irisgarria den telefonoz galdetzen badute, baietz esaten diote, baina heltzen direnean, ikusten dute ez dela horrela”.
- “Barruko errotulueta erabilitako letrak txikiegiak izaten dira”.
- “Askotan gertatzen da ezintasunen bat duten pertsona traumatologian edo urrun dagoen gela batean sartzen dutela eta dagokion medikua ez dela gaixoa ikustera joaten. Bisitari gisa etortzen bazara, ezin zara gelan sartu”.

■ **Kafetegiko sarbideak egokituta daude? Barrak irisgarriak dira? Self-service motako zerbitzua duten kafetegietan, langileek laguntzen al diete gurpil-aulkietan doazen edo ikusmen-ezintasuna duten erabiltzaileei? Komunak egokituta daude?**

Ospitalearen araberakoa dela ikus daiteke:

- “Zumarragan, jantokiko atea estua da, ezin da sartu”.
- “Txagorritxun, atea estua da”.
- “Self-service motako jantokietan, mostradore eta barraren artean sartzen bazara eta ondo badago, laguntzen dizute; laguntza eskatzen duzunean ere laguntzen dizute”.

■ **Helarazi dizkiguten beste ohar batzuk:**

- “Medikuek eta interpreteek ez dute elkarrekin lan egiten”.

- “X-izpiak erabiltzen diren gunean, barruan ez dago keinu-hizkuntzako interpreterik entzumen-ezintasuna duten pertsoneri laguntzeko, eta ez dago beste biderik (adibidez, argi-seinalerik) gaixoarekin komunikatzeko”. “Ez hartu arnasarik” esaten dizute, baina gero ez dizute esaten ‘arnasa hartu ahal duzu’”. “Entzuten ez duzunez...”.
- “Aparkalekuak gutxi eta estuak dira. Txagorritxun guztiak toki berean daude, atzealdean ez dago aparkalekurik. Ez dago arrapalarik espaloietara igotzeko”.
- “Zure autoaren ondo-ondoan aparkatzeko ohitura dute, itsatsirik, eta irtetea edo sartzea ezinezkoa izaten da”.
- “Jendeak autoak dauden tokitik igaro behar du, ez baitago arrapalarik espaloira igotzeko”.
- “Aparkalekuak gaizki erabiltzen dira”. “Ezintasunik ez duten pertsonak erabiltzen dituzte”.
- “Egokitutako gela eta komun baten protokoloa egin behar da, horiek eredu gisa erabiltzeko”.
- “Zeladoreei ez zaie errazten beren lana”.

3.

Ondorio bateratuak

Eztabaida-azpitalde bien saioak amaitu ondoren, elkarrekin egiteko saio bat antolatu zen, eta bertan, parte-hartzaile guztiek emandako iritzi asko –ospitaleetako erabiltzaileak diren ezintasunen bat duten pertsonen zein osasun-teknikariren iritzia– bat zetozela ikusi zen. Era berean, euren iritzia bat datoz, landa-lanean lortutako emaitzekin.

Parte-hartzaileek egin dute lehen hausnarketa; topaketaren eta jasotako erantzunaren garrantzia nabarmendu dute. Horri esker, gune horiek egunero erabiltzen dituztenek –ospitaleetako erabiltzaileak diren ezintasunen bat duten pertsonak eta langileek– iritzia emateko eta egoera nola bizi izaten duten azaltzeko aukera izan dute.

Parte hartzeko prozesu horretan, talde-dinamikan eta ateratako ondorioetan agerian jarri denez, prozesuetan presente egon behar duten arren ahaztuta dauden horiei hitza eman zaie.

Hortaz, atera behar den lehenengo ondorioa zera da: komunikatzeko bide eraginkoragoak ireki behar dira ospitaleetako langileen eta kudeatzaileen artean, kontu horiei dagokienez, komunikaziorik eza nabarmentzen delako eta existitzen den komunikazioa eraginkorra ez delako. Gainera, azpimarratu beharra dago egoera zailak bizi izaten dituztenen ekarpenek ahalmen handia dutela irisgarritasunaren ikuspuntutik sistema hobetzeko, egunerokoa kontuan hartuta. Ondorioz, lehenengo hobekuntza-jardura kontsultak egiteko eta egin beharreko obrei buruzko iritzia emateko bideak antolatzea izango litzateke.

Berez, alde aurretik gaia proposatu gabe, parte-hartzaile guztiek azpimarratu dute, euskal ospitale-sistemaren erreali-

tatea, oro har, eta ospitale zehatz batzuetan, ezintasunen bat duten pertsonen zerbitzuetarako, proba diagnostikoetarako edo ospitaleratzeko sarbidea bermatzeko egokia ez bada ere, osasun-langileen konpromiso, sentiberatasun eta gauzak ongi egiteari esker, zerbitzua garatzeko baldintzak espero baino askoz ere hobekak direla. Izan ere, pertsona horien ahaleginari eta ardurari esker lortzen da osasun-zerbitzuak ematea.

Bestaldek, parte-hartzaileak bat datoz berriazko prestatuntza eskaini behar dela, ezintasun mota desberdinei, ondorioei eta osasun-zerbitzu osoa lortzeko baldintzei dagokienez. Era berean, berriazko protokoloak abian jarri behar harko lirateke, ezintasunen bat duten pertsonak artatzeko modua, laguntza eta ezintasuna dela-eta ematen zaien arreta hobetzearen.

Halaber, iritziak erkatze horretan parte hartu dutenek azpimarratzen dute laguntza tekniko gehiago emateko premia, dauden ez baitira nahikoak. Horrek eragin ona izango du zerbitzuan eta ezintasunen bat duten pertsonen ematen zaien arretan.

Behin eta berriro agertu da tokirik ezaren inguruko kexa. Hain zuzen ere, toki bereziak falta dira materiala gordetzeko, familiakoei informazioa emateko, itxarongetan, eta abar. Parte-hartzaileen ustez, kanpo-kontsultak ospitalizazio-erakinean ez egoteak hobetuko luke zerbitzua, bai gaixoen, bai erabiltzaileen ikuspuntutik.

Ospitaleetan, oro har, ezintasunak dituzten gaixoak tratatzeko erak okerrera jo duela diote, gaixo horiek ez baitira jotzen pertsona "baliaduntzat". Konturatu dira, gainera, langile gutxiago daudela gaixoak zaintzeko eta arreta emateko.

Halaber, egiaztatu dute itxarongetan ez dagoela toki nahikorik gurgil-aulkietan doazen erabiltzaileentzat. Txanda-zenbakiak banatzen dituzten makinak erabilgaitzak dira gurgil-aulkietan doazen erabiltzaileentzat eta ikusmen urrituentzat, eta, gainera, nekez erabil ditzakete adinekoek edo entzumen urrituek.

Garbi ikusi da, gainera, oro har, mostradoreak gaizki erabiltzen direla eta ez dutela beren funtzioa betetzen. Gehienak ez dira irisgarriak eta erraz iristekoak diren gutxi horiek gauzak uzteko erabiltzen dira, eta ondorioz, erabilezin bihurtzen dira.

Keinu-hizkuntzako interpreteak falta dira, eta ez da jarri beste baliabiderik entzumen-ezintasuna duten pertsonekin komunikatzeko.

Komunei dagokienez, ospitaleetan daudenak ez dira nahikoak eta gutxi horiek ere akats asko dituzte. Ikusmen- eta entzumen-urritasuna duten pertsonen informazio nahikorik ematen ez zaienez, ez dakite komunitateko zein den egokiena beren egoeran.

Ospitaleetan, oro har, behar bezalako seinaleztapenik eza antzematen da: ibilbideak ez daude seinaleztatuta eta kalean ez dago informaziorik gune komunitaraino heltzeko.

Laguntza pertsonal gehiagoren falta sumatzen da, bai ospitalerako sarbidean, baita, beharrezkoa denean, laguntza jasotzeko orduan ere.

Aldagelak lehenbailehen egokitu behar dira, irisgarriak izan daitezten. Bestela, ezin da bermatu mugikortasun urriko pertsonak duintasunez tratatzea, askotan, arropa langileen aurrean jantzi/erantzi behar izaten baitute.

Ginekologoen kontsultetan dauden irisgarritasun-gabeziak konpontzeko eskatu da, miaketa egitera toki horietara jotzen dutenean, askotariko zailtasunak izaten baitituzte.

Era berean, mota guztietako kabinetan (erradiografiak eta abar egiteko) antzeman dira irisgarritasun-arazoak, baita entzumen-ezintasuna duten gaixoekin komunikatzeko biderik eza ere.

Horretaz gain, premiazkoa dirudi ospitaleen inguruetan apartakaleku erreserbatu gehiago jartzea eta daudenen ezaugarriak hobetzea, sarreratik hurbilago egon daitezten. Halaber, begiratu behar harko litzateke behar bezala erabiltzen ote diren.

Behin eta berriro aldarrikatzen diren beste kontu batzuetako bat gune desberdinetan gela irisgarriak egotea da. Irisgarritasun-eredutzat jotzeko moduko gela eta komun bat egitea ere aipatzen da askotan.

Eskerrak eman behar dizkiegu Arartekoarekin lankidetzat aritu diren pertsona guztiei, erakutsi duten parte-hartzeko prestatutasunari esker, jardunaldia oso onuragarria izan baita. Izan ere, interes handiko informazio erabilgarria bildu dugu, eta horrek balio izan du, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ospitale aztertze fasean bildutako datu kuantitatiboak egiaztatzeko.



Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak
**burututako
jardun-programak**

k a p i t u l u a

V. kapitulua

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak burututako jardun-programak

Osasunaren arloan, osasun-zentroen irisgarritasuna sustatze aldera burutu diren edo burutuko diren jardun-programak kapitulu honetan azaltzen hasi baino lehen, gogorarazi nahi dugu EAEko erabilera publikoko eraikinen irisgarritasunari buruzko 2003ko txostenaren arabera, Eusko Jaurlaritzako sailen konpromiso-mailari dagokionez, irisgarritasuna faktore garrantzitsua zela sail batetik besterako aldeak ulertzeko. Konpromiso-maila neurtzeko, besteak beste, arloan jardun orokorrak planifikatuta egotea edo halakorik eza hartu zen kontuan. Une hartan egiaztatu zenez, irisgarritasuna bultzatzeko lau urteko plana ezarpen-fasean zuen sail bakarra Segurtasun Saila zen, batez bestekotik gorako emaitzekin.

Bestalde, Justizia Sailak irisgarritasun-maila altua zuen, azken urteetan politika aktiboa garatu baitzuen zentro berriak eraikitzean. Hori dela eta, egiaztatu zen azken urteotan instalazio berriak eraikitzeko politika garatu zuten sailen irisgarritasun-maila handiagoa zela, gainerakoetan baino.

Aitzitik, ondorioztatu zen bigarren hezkuntzako sarea eta, neurri txikiagoan, Osakidetzaaren sarea eraikin zaharren inguruan egituraturik zeudela. Izan ere, administrazio zentralak besterendu zituen eraikin horietako asko erkidegoak eskumenak bere gain hartu aurrekoak dira. Batzuetan, beren jatorrizko erabilera beste bat zen, eta lurralde osoan daude sakabanatuta. Halako kasuetan, jasotako ondarea (konplexua, lurralde mailako sakabanatzearen eta neurri txiki zentroak ugaritzearen ondorioz) ez da behar bezala konpentsatu, arkitektura araudiaren eskakizunetara egokitzeko beharrezko ahalegina ginez.

Ageri-agerikoa da, nolana ere, hipotesi horrek egoera neurri batean baino ez duela azaltzen; izan ere, azterlanean lortutako emaitzak ikusita, egiaztatu dugunez, oinplano berriko eraikin askotan arlo horri dagokionez aurrerapauso handiak egin arren, batzuek ez dituzte baldintzak betetzen irisgarritasun

egokikoak direla jotzeko, eta oraindik, horietan egindako egokitzapenak eta neurri zuzentzaileak ez dira nahikoak.

Aurrerapen horietako batzuk aipatzearen, honako hauek nabarmenduko genituzke:

- **Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak.** 2013-2016. Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eudel. Mendekotasun-egoeran daudenak eta adinekoak aintzat hartzen dira proposamen estrategikoan.
- **Osakidetzaaren 2008-2012 Plan Estrategikoa.** Informazio sistemei buruzko atalean aipatzen diren helburuetako bat (TA.2.3) ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonen eskuragarritasuna bermatzea da. Asistentzia azpiegiturei buruzko atalean, helburuetako bat (TA.3.3) ezintasunen bat daukaten pertsonentzako irisgarritasuna bermatzea da. *“Osakidetza bere eraikinetara iristeko baldintzak nolakoak diren aztertuko du eta, hala egitea komeni dela ikusiz gero, egokitu egingo ditu”.*
- **Irisgarritasunaren Kudeaketa Eredua.** Eusko Jaurlaritza. Web irisgarritasuna, hau da, webgune bat bisitatzeko edo web zerbitzu bat erabiltzeko aukera ahalik eta pertsona kopuru handienak izatea, erabiltzaile horien muga personalak edo teknologikoak kontuan hartu gabe. Horretaz gain, web irisgarritasuna funtsezkoa da ezintasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasuna bultzatzeko, Konstituzioak aitortzen dien eskubidea –kulturarako eta aisialdirako irispidea izateko– erabiltzeko aukera emanez.
- **Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.** Plan horrek modu sistematikoan ekitatearen ikuspegia sartzen du osasun-sistemako eta osasun publikoko plan eta esku-hartze guztietan. Horrek esan nahi du neurriak abiarazi behar direla, alde batetik, gizartean eta osasu-

nean desabantaila gehien duten talde sozialei zuzendutako baliabideen esleipena lehenesteko, eta bestetik, osasun-zerbitzuetarako irisgarritasun unibertsala, zainketen jarraitutasuna eta Euskadin bizi diren pertsona guztientzako kalitatezko arreta integrala bermatu, desabantailan dauden talde jakin batzuei sortzen zaizkien oztopoak edo osasun-zainketak eskuratzeko zailtasunak ezabatuz, besteak beste:

- Oztopo fisikoak eta garraio-oztopoak pertsonen aniztasun funtzionalagatik.
- Genero-oztopoak.
- Gaixotasun eta nahasmendu jakin batzuen ondoriozko estigma sozialeko oztopoak.
- Oztopo sozial, kultural eta ekonomikoak.

■ **Euskadiko ospitale-sareko zentroetan irisgarritasuna sustatzeko garatu diren jarduerak. Horien artean, honako hauek aipa ditzakegu:**

- Gurutzetako ospitalean, iktusa duten gaixoen bizitza-kalitatea hobetzeko proiektu bat garatzen ari da; gaixoari laguntza osoa emateko egokituta dauden lau gela erabiltzean datza proiektua.
- Galdakaoko ospitalean, aukera-berdintasuna bermatzeko nahian, instalazioak komunikatzeko sistema hobetzeko lanak egingo dira, ikusteko eta entzuteko desgaitasuna dutenei ospitalean sartzea errazte aldera.
- Araba ESI osatzen duten ospitaleak handitzeko eta berritzeko prozesuaren barruan, Eginez-Araba ESI Obrak Berrikusteko Taldea sortu da, Eginaren Eginez Arabako ezintasun daukaten pertsonen elkartearen partaidetzarekin. Proposatutako helburuen artean, traumatologia-rekin lotutako ospitaleratze-arloan, sabaian garabi bat finkatuta izango duen gela bat egokitzeko lanak onartu dira. Etorkizunean, beste ospitaleratze-arlo batzuetan ere horrelako gelak egokitzea aurreikusita dago.

- San Juan de Dios ospitaleak plan estrategiko bat dauka.
- Zumarragako ospitalea eraikinaren irisgarritasuna ebaluatzeko txostena duen zentro bakarra da.
- Gurutze Gorriaren ospitaleak ezintasunen bat duten pertsoneri arreta emateko protokolo bat du.
- Aztertutako hainbat ospitalean, langileek jakinarazi digute ezintasunen bat dutenei arreta emateko, “Valoración de la Dependencia: criterios y técnicas de valoración y clasificación” izenburuko dokumentuan jasotako gaiak erabiltzen dituztela protokolo gisa.

Bukatzeko, azpimarratu nahi dugu irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programa dela oinarritzeko tresna, lehendik dauden titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikoko hirialde, espazio publiko, eraikin, garraio eta informazio eta komunikazio-sistemetara irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko, hala agintzen baitu abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, irisgarritasuna sustatzekoak. Horren bitartez, administrazio guztiek eta gainerako herri-erakundeek egin beharko dituzte: egoeraren diagnostikoa eta egokitu beharreko kanpoko gune, eraikin, garraio eta komunikazioen inbentarioa; jardueren hurrenkera ezarri, lehentasunen arabera eta eraginkortasuna eta erabiltzaileen kopurua kontuan hartuta; egitarau ekonomikoa eta finantzarioa, baita egokitzapenak egiteko egutegi bat ere.

Hala eta guztiz ere, irisgarritasuna sustatzeko Legeak dagozkion lau urteko programak egiteko ezarri duen epea baino askoz denbora luzeagoa igaro da, eta jaso dugun informazio eskasa aztertuta, esan dezakegu EAEko sareko ospitale bakar batek ere ez duela egin agindutako irisgarritasun-plana. Zumarragako ospitaleak bakarrik irisgarritasunaren diagnostikoari buruzko ebaluazio-txostena egin du, 2009. urtean.

Hori dela eta, legeak agintzen duena betetzeko eta lau urteko programa egokiak egiteko beharra azpimarratu behar dugu, plan horiek ezinbesteko tresnak baitira pertsona guztien irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko.



Ondorioak

k a p i t u l u a

VI. kapitulua

Ondorioak

1.

Ondorio orokorrak

Aurretiazko gogoetak

Hiru baliabide motaren arabera multzokatuta eta bi planotan aurkezten dira gogoetak: ondorio orokorrak batetik, eta xeheak bestetik. Azken horietan, aniztasun funtzional mota ezberdinen betetze-mailak jasotzen dira, ehunekoetan. Irisgarritasunerako eszenatoki potentziala %100ekoa izango da, eta, berehala lortu ezin bada ere, pixkanaka lor daitekeen helburua izango da hori.

Agerikoa denez, txostenean zerrendatzen diren eta kapitulu honetan jasotzen diren zailtasunak ez dira berberak ospitale-esparru guztietan, eta ez diete berdin eragiten desgaitasun mota guztiei; era berean, ez dute garrantzi berbera ospitaleetako kanpo-zerbitzuetan eta ospitaleratzetik eratorritako zerbitzuetan. Hala ere, ikuspegi orokorra errazte aldera, ondorio horiek multzokatuta aurkeztea erabaki da, informazioa biltzeko bisitetan jaso dugun informazio grafiko eta tekniko andana dela-eta (elementu bakoitza xehetasunez ezagutzeko, jo txostenaren IV. kapitulura).

Nolanahi ere, pertsona guztien eskubideen defendatzaileak garen heinean, eta hitzarmenean jasotzen diren eskubideak hartuta paradigmatzat, hots, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak hartuta jo-puntutzat, uste dugu beharrezkoa dela irisgarritasun unibertsalaren xedea lortzeko lanean tinko jarraitzea, kontuan hartuta, gainera, biztanleriaren zahartze-prozesu jarraituan sartuta dagoela euskal gizartea.

Erreferentziazko esparru hori bazter utzi gabe, egia da, Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legetik eratorritako betebeharrak betetze aldera, eta garrantzia-ordenari gagozkiola, gehieneko garrantzia eman behar zaiola euskal administrazio publikoek, sanitarioek bereziki, plangintza errealista eta jasangarri egokia egin dezatela, epe ertainera eta luzera begirakoa, modu eraginkorrean joratu ahal izan daitezen txostenean azpimarratzen diren gabeziak.

Horretarako, lehentasunez joratu beharko da osasun-gune bakoitzean baliabide-kopuru egokia egoteko beharra. Baliabide horiek pixkanaka joango dira osatzen, baina, gutxienez, hauteman diren arazo larrienak arintzea ahalbidetuko dute, bai eta erabiltzaile-kopuru handienarentzako hobekuntzak ekartzea ahalbidetuko ere; bereziki, kanpo-konsultetako zerbitzuetan eta proba diagnostikoak egiteko zerbitzuetan.

1. Irisgarritasun-baldintzak: EAEko ospitaleetako irisgarritasun-baldintzak eta beste eremu batzuetan (garraioan, hezkuntzan, kirol-instalazioetan eta abarretan) daudenak ez dira oso ezberdinak. Irisgarritasun-katearen etapa giltzari guztietan atzematen dira gabezia pilatuak irisgarritasun-egoeraren arloan:

- Ospitaleetarako sarbideen ibilbideetan.
- Ospitale-esparruaren barrualdeko ibilbideetan.
- Ospitale-zentroak eratzen dituzten sekzioen barne-mugikortasunean: itxarongeletan, kontsultetan, askotariko diagnostiko-unitateetan, logeletan eta abarretan.
- Nabarmendu egin behar da, beste eremu batzuetan bezalaxe, osasun-instalazioetan funtsean ez dagoela inolako neurririk ikusmen- edo entzumen-degaitasuna duten pertsonak informaziora berdintasun-baldintzetan iristea bermatzeko.

2. Esparru juridikoa: Irisgarritasunaren gaiaren esparru juridikoa, EAEn, Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak finkatzen du. Bi garapen-dekretu hauetan ezartzen dira baldintza teknikoak, eta lege horretan jasotzen diren esku hartzeko eremuetan ezar daitezke: apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan batetik, zeinak hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemaren irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, eta garraioan irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen uztailaren 10eko 126/2001 Dekretuan bestetik.

3. Bilakaera eta egungo egoera: Jakin egin behar da lege hori indarrean jarri zenetik aurrerapauso handiak egin direla EAeko osasun-zentroetan irisgarritasun-baldintza teknikoak bermatzeko neurriak hartzeko orduan.

Batez ere, eraikin berrietan ikus daiteke bilakaera hori; izan ere, zero ko kotan eraikitzen dira sarrerak, oztoporik gabe eraikitzen dira esparruaren barrualdeko ibilbideak, komun egokituak jartzen dira eraikinetako solairu guztietan, eta irisgarritasuna bermatzen da ospitaleko logela guztietan.

Hala eta guztiz ere, txosten honetan egindako diagnostikoak aukera ematen du ondorioztatzeko gaur egun gabezia oso adierazgarriak daudela, eta erabilera unibertsala izatea mugatzen dutela horiek.

Berriak ez diren eraikinei dagokionez, adierazi beharra dugu horiek birgaitzeko eta egokitzeko ahalegin handia egin dela, eta hainbat jardura egin direla instalazioen irisgarritasuna bermatzeari eta sustatzeari begira. Dena dela, ikerlan honetako datuei erreparatuta, esan dezakegu irisgarritasunean lortu diren hobekuntzak ez direla nahikoak oraindik, mugikortasun murriztua duten pertsonak EAeko ospitale-zerbitzuetara modu autonomoan eta berdintasun-baldintzetan iritsi ahal izateko mailara iristeari dagokionez.

Askotarikoak dira irisgarritasuna bultzatzeko obrak egiteko unean dauden zailtasunak azal ditzaketen arrazoiak eta kausak. Batzuetan, egiaztatu ahal izan dugu eraikinen antzinatasunak eragiten duela zailtasun hori; beste batzuetan, ordea, instalazioen erabilera okerrak eragiten du iristezintasuna.

4. Osasun-langileen laguntza: Azpimarratzekoa da, baita ere, osasun-langileek oro har egiten duten lana; izan ere, ahalegin handia egiten dute mugikortasun murriztua duten pertsonak osasun-zerbitzuak erabiltzean topatzen dituzten zailtasunak eta oztopoak konpon daitezken, ahalik eta hobere iritsi ahal izan daitezken horiek.

Txosten hau egiteko sortu zen kontraste-taldeak bat-batean eta aurretik pentsatu gabe nabarmendu zuen, Euskadiko ospitale-sisteman oro har eta ospitale zehatz batzuetan bereziki hauteman diren mugaketak eta gabeziak albo batera utzi gabe, desgaitasunen bat duten pertsonak zerbitzuetara, proba diagnostikoetara edo ospitaleratze-guneetara iristeari dagokionez, zerbitzua berez uste dena baino baldintza hobeetan burutzea lortzen dutela osasun-langileen konpromisoak, sentikortasunak eta egite onak.

Egite hori medikuei, zalantzarik gabe artatzen baitituzte korridoreetan kontsultetara sar ezin daitezkeen pazienteak, zeladoreei, esku-ohetarako transferentzia egiten laguntzen baitute, erizainei, irisgarriak ez diren logeletan ospitaleratu-

ta dauden pazienteen egonaldia hobetzen saiatzen baitira, mantentze-lanetako langileei eta desgaitasunen bat duten pertsonak osasun-zerbitzuetara ahalik eta baldintza onenetan iritsi ahal izatea ahalbidetzen duten langile guztiei egotz dakieke.

5. Osasun-langileek azpiegiturak planifikatzeko eta egikaritzeko orduan duten parte-hartzea: Kontraste-taldean eskuratu diren lehenengo ondorioen artean, langileen eta ospitale bakoitzeko administrariaren artean komunikazio-bideak irekitzeko beharra agertzen da, kontu horien inguruan komunikazio urria edo ez-eraginkorra dagoela hautematen baita. Gainera, nabarmendu dezakegunez, hobetzeko aukera handia egongo litzateke beren eguneroko lana sistema honen irisgarritasun-egoera eskasetan egin behar duten profesionalen ekarpenak kontuan hartuko balira. Beraz, osasun-langileek nahiz erabiltzaileek obra posibleen inguruan edo jorratu beharko liratekeen edo jorra litezkeen hobekuntzen inguruan egiten dituzten ekarpenak kontsultatzeko eta aztertzeko bide arinagoak sortu beharko lirateke.

6. Irisgarritasun-katea: Osasun-eremuan irisgarritasun-katea osatzen duten elementuei dagokienean, lehenik eta behin, ospitale-zentroetara iristeko balio duten hiri-inguruneen egoera oro har txarra dela ikusi dela adierazi behar da; hala nola: ospitale bereko eraikinetara sartzeko ibilbideak eta horien artean mugitzeko ibilbideak, desgaitasunen bat dutenentzat gordetako aparkaleku-gabezia (gainera, aparkaleku horiek gutxitan egoten dira sarrera nagusietatik hurbil, eta hala egon beharko lukete), bide ezegokiak garraio publikoen geralekueetatik, garraio publiko gutxi edo, batzuetan, horien maiztasun urria.

Aintzat hartu behar da hiriguneetatik urrun daudela gure osasun-zentro asko, eta, gainera, malda handiegia duten guzietan egoten direla eraikinak. Horrek are beharrezkoagoa egiten du ibilbide irisgarriak eta oztoporik gabeak jartzea, eta garraio publikoaren sisteman eskaintza egokia emanez iritsi ahal izatea bermatzea.

7. Komun egokituak: Era berean, datuetan ikus daitekeenez, gabezia handia dago instalazioetako gune komunetan eta proba diagnostiko jakin batzuk egiteko eremuetan egon behar den komun egokituen kopuruan. Ospitale batzuetan, eraikinaren komunikazio horizontaletan komun egokiturik ez dagoela egiaztatu ahal izan da. Komun egokiturik egon ezean, lekualdaketak egin behar izaten dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonak, edo eratzkitako eraikinetara joan.

8. Itxarongelak: Egiaztatu ahal izan denaren arabera, itxarongelak, askotan, ez dute behar besteko tokirik edukitzen gurgildun aukien erabiltzaileentzat. Sarreretako atondoetan dauden itxarongelen %84an, ez dago ezinduei gordetako tokirik, eta, aztertu diren gainerako itxarongeletan, guztizkoaren %90ean falta dira horiei gordetako tokiak. Ondorioz, igarobideetan edo itxaroteko aurreikusita dauden guneetatik kanpo egon behar izaten dute gurgildun aukien erabiltzaileek, beren arretarako behar den informaziorako sarbidea zailduz.

9. Makina saltzaileak: Makina saltzaileak, askotan, iristezi-kan izaten dira bai gurgildun aukien erabiltzaileentzat, bai

ikusmen-desgaitasuna dutenentzat. Gainera, egiaztatu ahal izan denez, konplexuak izaten dira adinekoek edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonak erabil ditzaten.

10. Harrera-mahaiak: Garbi ikusi da, gainera, oro har, harrera-mahaiak gaizki erabiltzen direla askotan, eta ez dutela beren funtzioa betetzen. Gehienak ez dira irisgarriak gurgildun aulkien erabiltzaileentzat, eta erraz iristekoak diren horiek beste helburu batzuetarako erabiltzen dira (askotariko gauzak uzteko...), eta, ondorioz, erabiltezin bihurtzen dira.

11. Ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzako komunikazioa: Oro har, zeinu-hizkuntzako interpreteak falta dira, eta ez dago entzumen-desgaitasuna duten pertsonen komunikatzeko neurri teknikorik.

12. Proba diagnostikoak egiteko kabinak eta ekipamenduak: Kezka handiz ikusi da irisgarritasun-zailtasun handiak dituzten kabina eta ekipamendu bereziak daudela, mediku-diagnostiko jakin batzuk egiteko erabakigarriak direnak. Audiometriak, arnasketa-probak eta proba kardiologikoak egiteko kabinez, PUVA kabinez eta abarrez ari gara.

Ekipamendu horiek erabili ezin izatearen ondorioz, batzuetan zaila da mugikortasun urriko pertsonen dagozkien probak egitea, eta, beste batzuetan, berriz, ezinezkoa da. Horrek mediku-diagnostikoetan eragin dezake, baita arin hautemateko probetan ere.

13. Ginekologia-kontsultak: Ginekologia-arretako kontsultetan ere irisgarritasun-zailtasunak daudela egiaztatu da. Egin diren egiaztapenetan ikusi ahal izan da irisgarritasun-arazoak daudela bai erabiltzen diren tresnekin, bai ekipamenduekin (esku-ohetak, atondoak eta komunak); ematen du ez dutela kontuan hartzen desgaitasunen bat duten emakumeak bertaratu daitezkeela. Bisitatu diren ginekologia-kontsultetan, ez da aurkitu diagnostikoak egiteko mahai irisgarriak. Horregatik salatzen dute desgaitasunen bat duten emakumeek ginekologia-arreta jasotzeko ezintasuna.

14. Aldagelak: Bai kontsulta orokorretako aldagelei dagokienez, bai erradiologia-eremuko eta ginekologia-kontsultetako aldagelei dagokienez, adierazi beharra dugu %14 bakarrik direla irisgarriak, baina ez dituztela nahitaezko alarmak eta eserleku egokiak, nabarmen zailduz horrela mugikortasun murriztua duten pertsonak modu autonomoan ibili ahal izatea. Aldagelak egokitu beharra dago, desgaitasunen bat duten pertsonen toki duinak izan ditzaten, eta langileen aurrean gehiegitan erantzi behar izatea saihesteko.

15. Logelak: Adierazgarria da irisgarriak edo irisgarritasun mugatua duten logelen kopurua hain urria izatea EAEko ospitale gehienetan.

Oro har egiaztatu ahal izan dugunez, traumatologia-eremuan daude logela egokituak, eta, beraz, eremu horretan ospitaleratan dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonak, ospitalean egon behar izatea eragin duen patologia edozein izanik ere, dagokien tratamendua jaso dezaten. Antolakuntza-arazo ugari sorrazten ditu egoera horrek.

Era berean, ikusi denaren arabera, eta mugikortasun murriztua duten pertsonen gurgildun aulkia barrualdean utzi ahal izateari begira, askotan ez da nahikoa izaten logelen ba-

rrialdeko espazioa. Horrek galarazi egiten du mugikortasun murriztua duten pertsonak logelan bertan mugitu ahal izatea, eta etengabeko laguntza behar izaten dute moldatu ahal izan daitezen.

Era berean, ezin dezakegu ahatz logelen espazioa erabakigarria izaten dela mugikortasun murriztua duten pertsonak laguntzaile aritu daitezen, edo bisitari gisa joan daitezen ospitaleetara.

16. Laguntza teknikoak: Edonola ere, inguruabar jakinetan, hauteman diren gabeziak arindu ditzakete laguntza tekniko egokiak, gurgildun aulkien erabiltzaileak ospitaleko zerbitzuetara iristea errazten duten heinean. Zentzu horretan, erabakigarria litzateke garabiak jartzea ospitaleko hainbat eremutan, bai kontsulta-guneetan, bai probetarako kabinetan, bai logeletan, mugikortasun murriztua duten pertsonen egin behar duten transferentzia egiteari begira. Hala ere, laguntza tekniko horien hornidura oraindik nahikoa ez dela egiaztatu dute osasun-langileek eta pazienteek beraiek. Batzuetan, transferentzia egitea galarazi diezaioke horrek erabiltzaileari.

17. Lau urterako programak: Bukatzeko, azpimarratu nahi dugu **irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programa** dela oinarritzko tresna, lehendik dauden titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikoko hirialde, espazio publiko, eraikin, garraio eta informazio eta komunikazio-sistemetara irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko, hala agintzen baitu abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, irisgarritasuna sustatzekoak. Programa horren bidez, honako hauek egin behar dituzte eskudun administrazio eta gainerako erakunde publiko guztiek:

- egoeraren gaineko diagnostikoa egin eta egokitu behar diren kanpoko tokien, eraikinen, garraioaren eta komunikazioaren inbentarioa egin;
- eraginkortasun eta pertsona-kopuru handienak aintzat hartuko dituen lehentasun-ordena zehaztu;
- egokitzapenen finantza-programa ekonomikoa eta egutegia onartu.

Hala eta guztiz ere, irisgarritasuna sustatzeko legeak dagozkion lau urteko programak egiteko ezarri duen epea baino askoz denbora luzeagoa igaro da, eta jaso dugun informazio eskasa aztertuta, esan dezakegu EAEko sareko ospitale ia bakar batek ere ez duela egin agindutako irisgarritasun-plana. Zumarragako Ospitaleak bakarrik egin du irisgarritasunaren diagnostikoari buruzko ebaluazio-txostena, 2009. urtean.

Hori dela eta, lau urteko programa egokiak egiteko beharra azpimarratu behar dugu, plan horiek ezinbesteko tresnak baitira pertsona guztien irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko.

2.

Baliabide motaren araberako ondorioak

Bildu diren datuei buruzko azterketa xeheak, txosten honen V. kapituluaren modu garatuagoan jasotzen direnak, au-

rreko orrialdeetan oro har jaso diren ondorioei eusten die. Jarraian, baliabide motaren arabera multzokatuko dira, eta kontzeptualki aurkeztuko.

2.1. Ospitaleetarako sarbideen ibilbideak

- Zebrabideen %90 baino gehiago ondo eginda daude, maldari eta gutxieneko zabalera dagokienean. Alabaina, espaloien %50ek ez daukate pasabidea zeroko kotan; hau da, askok "koskak" daukate oraindik ere. Batzuetan, estropezu egitea eragin dezakete, eta benetako oztopo bihurtzen dira gurgildun aulkien erabiltzaileak espaloietatik ibil daitezten.
- Aztertu diren zentroetarako ibilbideetan dauden espaloien %32k ez dute betetzen igarotzeko gutxieneko zabalera, eta %50ek oztopoak daukate ibilbidean. Ondorioz, mugikortasun murriztua duten pertsonak errepidetik mugitu behar izaten dira.
- %8k bakarrik daukate beharrezko norabide-seinaleak; horregatik, kasurik gehienetan, baliteke jendeak ez jakitea nora joan behar duen sarrera nagusia edo esparruak izan litzakeen bestelako sarrerak aurkitzeko.
- Aparkalekuetan erreserbatutako tokiak ez dira nahikoak.

2.2. Ospitale-esparruaren barrualdeko ibilbideak

- Oro har, adierazi beharra dago, kanpoko ibilbideetan bezalaxe, arazo handia dagoela ospitale-esparruaren barrualdeko ibilbideen irisgarritasun-baldintzetan. Aztertu diren kasu gehienetan hauteman dira gabeziak. Bada, hauek adieraz ditzakegu:
 - Espaloi estuak (%38k bakarrik daukate zabalera egokia).
 - Ibilbideen %31k gehiegizko malda dute.
 - Ez dago oinezkoentzako pasabiderik espaloietara iristeko.
 - Espaloien %71k oztopoak daukate ibilbidean.
 - Ibilbide batzuek zoladura bigunak daukate (lurra, hartxintzarra), iristezinak horiek mugikortasun murriztua dutenentzat.
 - Ospitale-esparruetako zebrabideak ere ez daude ondo eginda; izan ere, ez daukate zeroko kotako behegainerik. Ondorioz, segurtasunik gabe eta arrisku-egoeran egoten dira gurgildun aulkien erabiltzaileak, gaitzadatik ibili behar baitira, edo espaloi horiek erabili, erortzeko edo estropezu egiteko arriskuarekin.
- Entzumen- eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen komunikaziorako eta informaziorako sarbidea edukitzea bermatzeko irisgarritasun-baldintza teknikoak betetzeari dagokionez, ospitale-esparruetan konpondu gabeko arazoak dela egiaztatu dugu:
 - Herritarrei orientazio-arazoak sor dakizkiekeen kanpoaldeetan, norabide-seinaleak falta dira.

- Maldaren gainaldea adierazteko seinaleztapena ez-deusa da ia; ibilbideen %21ean bakarrik daude behar bezala seinaleztatuta. Era berean, zebrabideen %17 bakarrik daude ondo seinaleztatuta.
- Bestalde, ez dira norabideko gida-zerrendak erabiltzen ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen orientatzen laguntzeko.
- Ospitale-esparruaren barrualdean dauden semaforoak %17k bakarrik daukate soinu-gailuak. %33k pultsadoreak dituzten arren, pultsadore horiek ez daude altuera egokian jarrita gurgildun aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten.

2.3. Aparkalekuak

- Bai udalaren titulartasuneko aparkalekuetan, bai ospitale-esparruetan dauden aparkalekuetan, zentrorra iristeko ibilbideek gabezia handiak daukate. Eskailera-tarteak %11k bakarrik daukate arrapalak, eta horien %20k bakarrik daukate ezaugarri egokiak.
- Aztertu diren aparkaleku batzuk zolatu gabe daude, eta horrek arazo larriak eragiten dizkio ospitaleetara joaten diren pertsonen mugikortasunari.
- Ospitaleen barrualdeko aparkalekuen %59k bakarrik daukate ezinduei gordetako lekuak, ezar daitezkeen araudien arabera dagozkienak. Era berean, adierazi beharra dago aparkatzeko eremuen %28k ez daukatela erreserbatutako plazarik mugikortasun urriko pertsonentzat.

2.4. Ospitaleetako sarrera nagusietara iristea

Oraindik ere, ospitale-zentroetako sarrera nagusi asko ez daude zeroko kotan. Era berean, egoera konpontzeko jarri diren arrapala gehienak ez daude behar bezala eginda. Zentzu horretan, hau adieraz dezakegu:

- Sarbideetan dauden arrapalen %62 ondo eginda daude; gainerakoek malda ezegokiak daukate.
- Sarreretako sarbideen %4k koska isolatua dute, arriskuak izan daitezkeena, ez baita hautemangarria.
- Aztertu diren sarreretako ateen %21ean, indar handiegia egin behar da horiek irekitzeko. Modu berean, ez daude behar bezala kontrastatuta eta seinaleztatuta, eta kristalezko ateen %23k bakarrik daukate seinaleztapen egokia, horietara iristea zailduz ikusmen-desgaitasuna edo ikusmen gutxi duten pertsonen.
- Ospitale batek ere ez dauka Brailleko seinaleztapenik, ez eta norabideko gida-zerrendarik ere, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat. Ez dago goi-erliebean egindako planorik.
- Bigarren mailako sarreraren %80 ondo eginda daude, eta gainerako %20k eskailera daukate; horien %60k bakarrik daukate arrapala alternatiboak.
- Aztertu diren arrapala gehienek ez dituzte betetzen eza-eritako baldintza teknikoak: baimendutako malda-parametroaren gehieneko muga gainditzen dute, ez daukate

albo-heldulekuak, ez daukate ibilbidearen seinaleztapenik eta abar.

- Atondoetako lanpasen edo alfonbratxoan erdia baino gutxiago daude lurtean finkatuta, eta zoladuraren %25 bakarrik ez da guztiz ez-labaingarria.
- Harrera-mahaien %25ek bakarrik daukate gurgildun aulkien erabiltzaileak edo altuera txikikoak diren pazienteei arreta emateko toki egokia. Edonola ere, adierazi beharra dago langileek gaizki erabiltzen dituztela gune horiek; izan ere, bulegoko materiala edo landareak jartzeko erabiltzen dituzte, erabiltezin bihurtuz horiek; edo, besterik gabe, itxita egoten dira.

2.5. Eskailera-tarteak

- Eskailera-tartean %38k bakarrik betetzen dituzte ezarritako baldintza teknikoak. %46k bozela dute, eta eskailera-mailen %14k ez daukate mailarterik, katigatzea eta estropezu egitea eraginez.
- Adierazi beharra dugu eskaileren %33k bakarrik dutela heldulekua bi alboetan.

2.6. Igogailuak

- Oro har, adieraz dezakegu igogailuek neurri egokiak daukatela, eta, beraz, ohean dauden pazienteei ere erabil ditzaketela. Hala ere, igogailuen %8 iristezinak dira gurgildun aulkien erabiltzaileentzat.
- Igogailuetan ikusi ditugun gabezien artean, hauek adierazi behar ditugu: kanpoaldean jarritako pultsadoreen %28 araz ezarritakoaren gainera daude jarrita, kabinen barrualdeko botoien %61 bezalaxe; ateen %13k ez dute betetzen igarotzeko gutxieneko zabalera librea, eta %48k ez daukate Braillez eta goi-erliebean emandako informazioak.
- Nabarmendu beharra dago kabinen %45ek bakarrik daukatela larrialdietan erabiltzeko interfonoak, eta %9k bakarrik daukatela pantailen bidezko interkomunikazioa.
- Aztertu diren igogailuen %66k ez daukate igogailua zein solairutan dagoen adierazteko soinu-informazioa, eta %2k bakarrik daukate seinaleztapena lurtean. Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen igogailua non dagoen jakiteko balio du seinaleztapen horrek.

2.7. Komun orokorrak

- Nabarmenezkoa da komun orokorren %14k bakarrik dutela mugikortasun murriztua dutenentzako erreserba espezifikoak; izan ere, bereizitako tokietan eta multzo orokorretatik kanpo eraikitzen dira komun erreserbatuak. Era berean, komun erreserbatuak ez daude seinaleztatuta; beraz, nahasmendua eragin dezakete bertara joan nahi duten eta mugikortasun murriztua duten pertsonengan.
- Komunetara sartzeko, %3k bakarrik daukate arrapalak, baina horietako batek ere ez dauka malda egokia.

■ %9k bakarrik daukate gurgildun aulkien erabiltzaileak igarotzeko zabalera libre egokia duten ateak.

■ Komun horietan, ateen %14 beiraz hornituta daude, eta horien erdiak bakarrik dute seinaleztapen egokia. Era berean, komunen %16k bakarrik dute Braillez eta goi-erliebean emandako seinaleztapena.

2.8. Komun erreserbatu eta irisgarriak

- Lehen esan dugun bezalaxe, sarritan, mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako komunak komun orokorrak dauden zonatik kanpo jartzen dira, gerora eraiki direlako. Inguruabar horrek zailtasunak sortzen dizkie mugikortasun urria daukaten pertsonen, beste espazio, solairu eta are beste eraikin batzuetara joan behar izaten baitute.
- Akatsak ikusi dira komun erreserbatuen egikaritzean, eta, horren ondorioz, guztiz iristezinak izaten dira batzuetan. Horrela, bada, aztertu diren komun %29k igarotzeko zabalera libre nahikoa ez dutela adieraz dezakegu, eta ez direla kanporantz irekitzen. Komunera sartzeko zailtasun du horrek, eta, funtsean, iristezin egiten ditu. Erreserbatutako komun %13an, albo batean ere ezin daiteke lekualdaketak egin, eta %5ek bakarrik daukate lekualdaketa tokia bi alboetan. Erreserbatutako komun %68k heldulekuak bi alboetan eduki arren, %15ek ez daukate inolako heldulekurik oraindik, eta %2k gaizki jarrita daukate.
- Erreserbatutako komun %25ek bakarrik daukate sexu bakoitzerako komuna, eta gainerako %75ek erreserbatutako komun misto bakarra daukate.
- Adierazi beharra dago Txagorritxuko ospitalean pediatría-eremuko adingabeek erabiltzeko komun espezifikoak eta eskusiboa dagoela, ondo baloratu beharrekoa.
- Era berean, adierazi beharra dago konketetako osagarriak jartzean akatsak egiten direla, altuegi jartzen baitira orokorrean.
- Komun %21ek bakarrik daukate alarma barrualdean. Alarma horietako asko ezin daitezke erabil, bilduta edo helduta baitaude, antza, garbitzeko orduan eragotz ez dezaten.
- Komun %72k ez daukate Braillezko eta goi-erliebezko informazioak.
- Azpimarratu beharra dago biltegi-erabilera ematen zaiela batzuetan egokitutako komunei, ospitaleetan biltegiaratzeko tokia falta baita. Horrek galarazi egiten du desgaitasuna duten pertsonen komun horiek erabiltzea.

2.9. Itxarongelak

- Sarreretako atondoetan dauden itxarongelen %84an, ez dago gurgildun erabiltzaileentzat gordetako tokirik. Aztertu diren gainerako itxarongeletan, berriz, erreserbatutako tokien gabezia %90era iristen dela esan dezakegu. Zentroetako korridoreei itxarongela-erabilera ematen zaiela egiaztatzen dugu. Horrek, erreserbatutako tokiak edukitzea aukera murrizteaz gain, gurgildun aulkien erabiltzaileak korridore horietatik igarotzea ere eragozten du.

- Era berean, itxarongelen %84an, eserlekuek ez dituzte betetzen arauz ezarritako baldintzak.
- Aldi berean, adierazi beharra dago itxarongela horietan dauden informazio-taula batean ere ez dagoela soinu-gailurik ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak informazioa jaso dezaten, eta taulen %10ean bakarrik erabiltzen direla Braillez idatzitako testuak.
- Azkenik, ikusi dugunez, gero eta gehiago erabiltzen dira argidun ohartarazleak; hala ere, horien %3k bakarrik dauzkate soinu-gailuak.

2.10. Kontsulta orokorrak

- Aztertu diren kontsultetako ateen %53k bakarrik daukate igarobide-zabalera egokia, eta horrek zaildu edo galarazi egiten du mugikortasun murriztua duten pertsonak kontsultetara sartzea.
- Kontsultetan ez dago Braillez edota goi-erliebean idatzitako informaziorik.
- Elementu asko (behatxuloak edo postontziak, adibidez) oso goian daude kokatuta.
- Esku-oheetara iristeari dagokionez, aztertu diren esku-oheen %37 bakarrik erregula daitezke. Kontsulten %67an, esku-oheen albo batean egin daiteke transferentzia. Hala ere, horien %18 guztiz iristezinak dira, ez baitute lekualdaketa egitea ahalbidetzen duen behar besteko tokirik. Alabaina, kontsulten %3an bakarrik ikusi dira garabiak. Nabarmentzekoa da horrelakoetan zeladoreek egiten duten lana, mugikortasun murriztua dutenak esku-oheetara mugitzeari dagokionean.
- Dena dela, ondo baloratu behar da Urdulizko ospitaleko ohiko kontsultetako esku-ohe ia gehienak elektrikoki erregula daitezkeela, 55 cm-ko gutxieneko altuerarekin gutxi gorabehera.
- Beste alde batetik, hainbat proba diagnostiko (oftalmologikoak batez ere) egiteko erabiltzen diren "besaulki" jakin batzuei buruz aritu behar dugu; izan ere, ez daukate altuera aldagarririk eta ez dute ahalbidetzen beso-euskarriak altxatzea transferentzia egin ahal izateko. Hori dela-eta, askotan, gurgildun aulkian bertan egin behar izaten dira proba diagnostikoak, eta emaitzen zehaztasunean eragin dezake horrek.
- Kontsultetan erabiltzen diren diagnostiko-gailuen %69 irisgarritzat jo daitezkeen arren, arazo handia dago proba horiek egiteko behar diren eta mediku-diagnostikoak zuzen egiteko erabakigarriak diren kabinen edo ekipamendu berezien irisgarritasunari dagokionean. Audiometriak, arnasketa-probak eta proba kardiologikoak egiteko kabinez, PUVA kabinez eta abarrez ari gara.
- Ekipamendu horiek erabili ezin izatearen ondorioz, batzuetan zaila da mugikortasun urriko pertsonen dagozkien probak egitea, eta, beste batzuetan, berriz, ezinezkoa da. Horrek mediku-diagnostikoetan eragin dezake, bai eta arin hautemateko probetan ere.
- Kontsultetako aldagelei dagokionez, adierazi beharra dugu %14 bakarrik direla irisgarriak, baina ez dituzte

la nahitaezko alarmak eta eserleku egokiak, nabarmen zailduz horrela mugikortasun murriztua duten pertsonak modu autonomoan ibili ahal izatea.

- Kontsultetako komunei dagokionez, adierazi beharra dago aztertu diren kontsulten %18k bakarrik dauzkatela komun irisgarriak, eta horietako askori biltegi-erabilera ematen zaiela.
- Funtsean, ez dago entzumen- eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen komunikaziorako eta informaziorako sarbidea edukitzea bermatzeko laguntza teknikorik.

2.11. Erradiologiako kontsulta

Aztertutako erradiologiako zonetan, agerian geratu da hutsuneak daudela, bai irisgarritasun fisikoari dagokionez, bai komunikazioa bermatzeari dagokionez. Aintzat hartu behar da zerbiztu hori dela diagnostikoak egiteko orduan gehien erabiltzen den unitateetako bat.

- Horrela, bada, kontsultetara iristeko korridoreen erdiak baino gehiagok zabalera egokia ez dutela esan dezakegu, eta korridoreen %2 eta ateen %37 iristezinak direla. Kasu guztietan, gurgildun aulkien erabiltzaileek ibilbide luzeagoa egin behar izaten dute kontsultara iristeko.
- Diagnostiko-mahaien %9 bakarrik dira irisgarriak; gainerakoak irisgarriak dira baina zailtasunarekin, edo, askotan, iristezinak. Barruan, kontsulten %3k bakarrik dituzte lekuz aldatzen laguntzeko garabiak.

Berriro ere nabarmendu behar dugu, kontu horri dagokionez, osasun-langileek egiten duten lan garrantzitsua; izan ere, bestela, mugikortasun murriztua duten pertsonen ezingo lituzkete proba batzuk egin.

Diagnostiko-mahai irisgarriak ez egoteak nahiz egin behar diren lekualdaketa egitea ahalbidetzeko laguntza teknikorik ez egoteak, batzuetan, probak gurgildun aulkian egin behar izatea ekartzen du, eta egoera hori ez da ez gomendagarria, ez komenigarria.

- Ez dago baliabide teknologiko edo pertsonalik entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin komunikatu ahal izateko.
- Erradiologia-eremuko aldagelen %11 bakarrik dira irisgarriak, %9k banku egokia daukate barrualdean, eta batek ere ez dauka alarmerik, larrialdietarako ezinbesteko gailua izanik.
- Kontsulta horien barrualdean dauden komunei dagokionean, adierazi beharra dugu komun horien %18 bakarrik jo daitezkeela irisgarritzat, eta gainerakoek irisgarritasun-arazoak dituztela.

2.12. Ginekologia-arretako kontsulta

Ginekologia-arretako kontsultetan irisgarritasun-zailtasunak daudela egiaztatu da. Egin diren egiaztapenetatik ondorioztatu denez, erabiltzen diren tresnek nahiz jarrita dagoen ekipamenduak (esku-oheak, atondoak, komunak) dauzkaten irisgarritasun-arazoak ez dituzte kontuan hartzen desgaita-

sunatu duten emakumeak joan daitezkeela. Baieztapen hori babesten dute datu hauek:

- Ez da aurkitu diagnostiko-mahai irisgarririk. Esku-ohene %45ek bakarrik daukate transferentzia egiteko altuera egokia; hala ere, dauzkaten ezaugarriak direla-eta, ia ezinezkoa da horietara iristea. Hala ere, kontsulten %4an bakarrik ikusi dira garabiak.
- Kontsultetako ateen %28k bakarrik dute igarotzeko zabalera egokia, eta kontsulten %44an bakarrik egin daiteke bira barrualdean.
- Ginekologia-kontsulten %12k aldagela duten arren, horietako bat bera ere ez da irisgarria gurgildun aulkien erabiltzaileak diren emakumeentzat.
- Era berean, aldagelekin bezalaxe, kontsulta horietan daudden komunen %20 iristezinak dira.
- Ez dago inolako laguntza teknikorik ikusmen- edo entzumen-desgaitasuna duten emakumei bideratuta.

Desgaitasunen bat duten emakumeek zerbitzu horiek erabiltzean topatzen dituzten oztopo horien guztien ondorioz, hirugarrenen laguntza behar izaten dute, eta, batzuetan, ez da posible izaten. Edonola ere, ageriko diskriminazio-kasubaten aurrean gaudela adierazi behar dugu, eta desgaitasuna duten emakumeek intimitaterako duten eskubidea ez dela bermatzen.

2.13. Pazientearen eta erabiltzailearen arreta-zerbitzua (PEAZ)⁵

Pazientearen eta erabiltzailearen arreta-zerbitzuak administrazio-unitateak dira, eta Osakidetza osasun-zerbitzu publikoen erabiltzailei arreta eta aholku emateko ardura dute.

⁵ Zeregin hauek egiten dituzte:

- a) Euskadiko osasun-sistemako erabiltzaileen eta horien senideen eskubideak eta betebeharrak betetzen direla zaindu.
- b) Erabiltzaileak eta horien senideak informatu eta orientatu zentroko egonaldiari dagozkion kontuen gainean, osasun-zerbitzu edo -establezimenduen gainean eta Euskadiko osasun-sistemari dagozkion eskubideen eta betebeharren gainean (adierazpen honetan jasotzen dira eskubide eta betebeharrak)
- c) Laguntza-taldeekin elkarlanean aritu, erabiltzaileek eta pazienteek baimen informatuaren dokumentua zuzen betetzeko behar dezaketen informazio osagarria ematean.
- d) Osasun-zentroaren, -zerbitzuaren edo -establezimenduen funtzionamenduen inguruko erreklamazioei arreta eman, eta eskudun organoari bideratu, hark erantzun diezaien. Egindako jardueren berri emango zaie kexagileei, dekretu honen garapean ezartzen diren epeen barruan.
- e) Osasun-zentroko, -zerbitzuko edo -establezimenduko zuzendaritzari jakinarazi erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak ez betetzea ekar dezaketen egitateak edo jarrerak egon ahal izan direla.
- f) Zentroko zuzendaritzak osasun-profesionalekiko eta osasun-egituretan lan egiten duten gainerako langileekiko erasoak prebenitzeko eta horiei arreta emateko xedez ezarri dituen neurriak betetzen direla zaindu, alde batera utzi gabe, laneko arriskuen prebentzioaren arloan, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan dauden prebentzio-zerbitzuei dagozkien eskumenak.
- g) Erabiltzaileak eta haien senideek aurkeztutako ekimenak eta iradokizunak izapidetu eta haiei erantzun.
- h) Bitartekaritza-proposamenak egin, erreklamazioaren gaiaren izaera hala ahalbidetzen duenean.

Eskuratu diren emaitzetatik abiatuta, EAEko ospitale-zentroetan zerbitzu hori duten gelen %50ek baino gehiagok arazoak dauzkatela adieraz dezakegu, irisgarritasun fisikoaren eta komunikazioaren eremuari dagokionean. Hala:

- Zerbitzu horietan, ateen %33k ez daukate igarotzeko zabalera egokia. Era berean, beiraz hornitutako ateen %11k ez daukate seinaleztapen egokia.
- Bulego horien %44k bakarrik ematen dute barruan egoki biratzeko aukera.
- Bulego horietan, ez dago zeinu-hizkuntzako interpretarik, eta ez da jarri beste baliabiderik entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin komunikatzeko edo soinua areagotzeko.

2.14. Logelak

- Oraindik ere, irisgarriak edo irisgarritasun mugatua duten logelen kopurua mugatua da EAEko ospitale ia gehienetan. Ospitaleratzeko eremu guztiei erreparatuz gero, ez dago erabat irisgarria den logela bat ere, eta, oro har, traumatologia-eremuan daude horiek. Horrek esan nahi du mugikortasun urriko pertsona bat, dagokion tratamendua jaso ahal izateko, traumatologia-zonan ospitaleratuko dutela, ospitalean geratzeko patologia edozein izanda ere. Antolakuntza-arazoak eragiten ditu egoera horrek.
- Hala eta guztiz ere, zehaztu nahi dugu ospitale batzuek ahalegin handia egin dutela eraikinetako logeletako irisgarritasuna hobetzeko. Edonola ere, oraindik ere, gutxi dira oso-osorik egokitzeko eta eraikinetako eremu guztietan egokitutako logelak edukitzeko beharrezkoak diren obrak egin dituzten ospitaleak.
- Orokorrean, esan behar dugu ospitaleko korridore guztiek dutela igarotzeko zabalera egokia. Edonola ere, aipatu behar da kasu askotan altzariak modu desegokian kokatuta daudela, eta, ondorioz, gurgildun aulkien erabiltzaileak ezin izaten direla instalazioetatik modu autonomoan ibili.
- Telebistak pizteko gailuak ez dira irisgarriak, altuera oso garaian baitaude. Leihoak irekitzeko mekanismoekin ere gauza bera gertatzen da.
- Logeletako balkoi edo terrazetara irteteko sarbideak ere ez dira irisgarriak.

Logela bikoitzak

- Logela bikoitzetan, ateen %16k ez daukate igarotzeko zabalera libre egokia; orri bikoitzeko ateetan batez ere.
- Era berean adierazi behar da logelen %43k ez daukate altzariak behar bezala jarrita; hori dela eta, gurgildun aulkien erabiltzaileek, logela beste pertsona batekin partekatzean, zailtasun larriak izan ohi dituzte beren aulkia erabiltzeko eta aulkia logelaren barruan uzteko. Beraz, ezin dira gelatik mugitu.
- Armairuen %62 ez dira irisgarriak, gurgildun aulkien erabiltzaileak ezin baitituzte aurrez aurre erabili.

- Logeletako komunei dagokienez, komunen %31 bakarrik jo daitezke irisgarritzat; hala ere, adierazi beharra dago ez direla iristen behar diren ezaugarri guztiak erabat betetzera.
- Era berean, atentzioa ematen du komunen %36k alarmarik ez edukitzeak, erortzeko arrisku handiko tokiak direla kontuan hartuta.
- Konketei dagokienez, adierazi beharra dago konketeen %58k ez daukatela toki librerik behealdean, iristezin eginez horiek. Iturrii dagokienez, esan beharra dago logelen %11k "eskutoki" motako iturriak dauzkatala, eta iristezi-nak dira horiek desgaitasuna duten pertsona askorentzat.
- Era berean, komunitako hodien %3 hormen kanpoaldean daude jarrita, isolatzaile termikorik gabe, erredurak eragiteko aukerarekin.
- Dutxei dagokienez, nabarmentzekoa da horien %40k bakarrik daukatela gurgildun aulki batetik transferentzia egiteko behar den tokia, eta %46 bakarrik daudela zerroko kotan eta inolako goragunerik gabe. %44k altuera egokian dauzkate heldulekuak.
- Logela batzuetan, bainuontziak daude oraindik ere, eta bainuontzien %11k bakarrik dute barnealdean transferentzia eta bira egiteko tokia. Hala ere, guztiak ez dauzkate erabiltzeko moduko eserlekuak.

Banako logelak

- Mota horretako logelak mugikortasun murriztua dute-entzat egokiak izan daitezkeela pentsa daitezkeen arren, guztiak ez daukate toki libre egokia barrualdean. Logela horien %66k egoki antolatuta dauzkate altzariak, eta gurgildun aulkien erabiltzaileak bertan mugi daitezke. Logela ia guztietako oheak irisgarriak dira, eta alboetako batean egin daitezke transferentzia.
- Logelen %54an, armairuek altuera egokian daukate jarrita apalak.
- Komunei dagokienez, adierazi beharra dugu horien %36k bakarrik betetzen dutela igarotzeko zabalera librea, %29k bira egoki egiteko tokia dutela eta komun-zuloen %47k transferentziak egiteko tokia dutela albo batean. Zifra horiez gain, dutxen %52 bakarrik daude behar bezala egokituta. Gainerakoek ez dituzte betetzen arauz ezarrita dauden irisgarritasun-betekizunak.
- Logela horietan aztertu den bainuontzi bat bera ere ez da irisgarria.
- Logela batzuek ez dute komunik, baina konketa dute barrualdean. Bada, konketa horien %8k bakarrik daukate toki librea behealdean, gurgildun aulkiekin iritsi ahal izateko.
- Kanpoko hodien %16 ez daude behar bezala jarrita, eta erredurak eragin ditzakete.

Bi ohe baino gehiago dituzten logelak

- Logeletara iristeko korridoreen %86k ez dute betetzen igarotzeko behar den zabalera librea, eta logeletako ateen %57k ere ez dute igarotzeko zabalera egokia.

- Oheei dagokienez, adierazi beharra dugu, horien %71n transferentzia albo batean egin daitezkeen arren, guztiak ez dutela lekualdaketa hori behar bezala egiteko altuera egokia (%57k).
- Logela mota horietako armairuak ez dira irisgarriak; horien %29k bakarrik dute altuera egokia.
- Komunei dagokienez, adieraz dezakegu horien %17 bakarrik har daitezkeela irisgarritzat; izan ere, ate gehienek ez daukate zabalera egokia, eta komunen barrualdean ezin daitezke bira egin.
- Era berean, dutxek irisgarritasun mugatua dute, ez baitituzte betetzen ezarrita dauden irisgarritasun-betekizun guztiak.
- Modu berean, adieraz dezakegu logela horietan dagoen bainuontzi bat bera ere ez dela irisgarria.

2.15. Boxak

- Boxetara iristeko ibilbideen %20k ez dute betetzen igarotzeko zabalera libre egokia, eta, egiaztatu dugunez, horien %35ean, igarotzea eragozten duten altzariak daude.
- Oheen %37k bakarrik dute bi alboetatik iristeko toki nahikoa, eta %29k bakarrik dute albo batetik transferentzia egiteko tokia. Edonola ere, toki horiek ez dira nahikoak gurgildun aulkien erabiltzaileak laguntzaile batekin egon ahal izan daitezen, edo pazienteren bat lagundu dezaten.
- Oheen %18k ez daukate transferentzia egoki egin ahal izateko behar den altuera.
- Boxetako komunen %50ek bakarrik dute irisgarritasun mugatua; hau da, ez dituzte betetzen mugikortasun murriztua dutenek komun horiek modu autonomoan erabiltzeko behar diren betekizun guztiak.
- Komunen %45ek bakarrik daukate alarma barrualdean.
- Era berean, adierazi beharra dago dutxen %45 bakarrik direla irisgarriak, baina mugaketa handiak dituztela; izan ere, dutxen %27k bakarrik dituzte heldulekuak, eta ur-zurrusten %18 barra batzuen gainean daude jarrita, altuera aldatu ahal izateko.
- Boxen eremuan aurkitu diren bainuontziak iristezinak dira.

2.16. Askotariko aldagelak/komunak

- Ospitale batzuetako eremu espezifikoetan, ospitaleratu-ta dauden pazienteak laguntzen dituzten pertsonak erabiltzeko aldagelak eta komunak daude jarrita. Aldagela horien %43k ate egokiak daukate, baina ez daukate armairu eta banku irisgarriak. Era berean, %43k bakarrik daukate egokitutako jo daitezkeen komun-zuloak, baina ez dituzte betetzen eska daitezkeen gainerako irisgarritasun-betekizunak.
- Aldagela horietako dutxen %71 ez dira irisgarriak gurgildun aulkien erabiltzaileentzat.

2.17. Osatek zentroak⁶

Osatek SA Eusko Jaurilaritzaren sozietate publikoa da, Osasun Sailaren mende dagoena. Osatek 1992an sortu zen, eta sortu zenetik lagundu du pazienteen diagnostikoak egiten, erresonantzia magnetikoaren bidez. Aitzindaria izan da erresonantzia magnetikoko ezarpen berriak abiarazteko orduan; hala nola, 3D angiografia kontrastatua, kolangio-pankreatografia eta garun-perfusioa.

Hori dela eta, ezinbestekoa da EAE osotik banatuta dauden zentro guztiek aurreikusitako irisgarritasun unibertsalerako estandarrak betetzea; izan ere, horrela bermatu ahal izango da pertsona guztiei dagozkien irudi-diagnostikoak berdintasun-baldintzetan egin ahal izango zaizkiela.

Hala ere, zentroek irisgarritasun-gabeziak dituztela ikusi ahal izan dugu egin ditugun egiaztapenetan.

- Zentroen %33k eskailerak dituzte sarbideetan, eskailerak horien %50ek bakarrik daukate arrapalak, eta, horietatik, %50ek bakarrik bermatzen dute irisgarritasuna.
- Sarreretakoa ateen %33k ez dute betetzen igarotzeko zabalera librea, %83 beiraz hornituta daude, eta %20k bakarrik daukate seinaleztapen egokia.
- Sarreretan dauden lanpasen edo alfonbratxoaren %17 bakarrik daude lurrean finkatuta.
- Seinaleei dagokienez, esan dezakegu kontsulten %83k ez dutela Braillez edota goi-erliebean idatzitako informaziorik, eta zentro batean ere ez dagoela norabideko gida-zerrendarik.
- Itxarongeletan, sarreretan beiraz hornitutako ate batek ere ez dauka eskatzen den seinaleztapena. Era berean, ateen %50ek bakarrik daukate igarotzeko zabalera libre egokia.
- Aztertu diren itxarongela guztien artean, bakarrean aurreikusten da mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gordetako eremua. Horien erdietan, eserlekuek bat egiten dute irisgarritasun-irizpideekin.
- Itxarongela batek ere ez dauka argidun edo soinudun informazio-taularik, ez eta Braillezko informaziorik ere.
- Osatekeko aldagelen %50ek igarotzeko zabalera libre egokia duten atea daukate, baina %17k bakarrik daukate banku egokituak eta alarma-sistema. Beraz, irudi-probak egiten diren tokian bertan jantzi eta erantzi behar izaten dira gurpildun aulkien erabiltzaileak.
- Komunei dagokienez, %60 irisgarritzat jo daitezkeen arren, irisgarritasun mugatua dute, ez baitituzte betetzen eskatzen diren betekizun guztiak: zailtasuna komun-zulora iristeko, %20k bakarrik daukate alarma eta konketa batek ere ez du betetzen mugikortasun murriztua dutenak horietara iristea ahalbidetzeko sakonera egokia edukitzeko neurria.

⁶ Hauek dira Osateken jarduera nagusiak:
 – Puntako teknologiarako irudien bidezko diagnostiko-zerbitzuak kudeatzea, administratzea eta ustiatzea.
 – Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-politika orokorraren esparruan ezartzen diren araubidean eta baldintzetan ikertzea eta irakastea.

- Irudi bidezko diagnostikoak egiteko erabiltzen diren gailu guztiak dira iristezinak. Hala ere, zentroen %17k bakarrik daukate transferentzia egiteko garabiak. Beste behin ere, zeladoreek horrelakoetan egiten duten lana nabarmendu behar dugu, horiei esker lortzen baita egitea desgaitasuna duten pertsonak diagnostiko horietara iristeko transferentzia.
- Ez dago zeinu-hizkuntzako interpretarik, ez eta entzumen-desgaitasuna dutenekin komunikatzeko beste modurik edota soinu-handigarrikerik ere.

2.18. Errehabilitazio-kontsultak

- Aztertu diren errehabilitazio-kontsultetan, ateen %62k daukate igarotzeko zabalera libre egokia; hortaz, gainerako kasuetan, mugikortasun murriztua dutenak nekez sar daitezke, edo ezin daitezke sartu. Egoera oso larria da, horixe baita ospitaleetan mugikortasun murriztua duten pertsona gehien hartzen dituen unitatea.
- Kontsulten barrualdeari dagokionez, %62an bakarrik irudika daiteke zirkuluaren diametro egokia.
- Adierazgarria da aztertu diren errehabilitazio-kontsulten %19k ez edukitzea behar besteko lekurik esku-oheen alboetan transferentzia egiteko.
- Esku-oheen %37k bakarrik dute altuera egokia.
- Diagnostiko-gailuen %86 irisgarriak dira, eta %14 iristezinak.
- Kontsulta horien %19k bakarrik daukate lekuz aldatzeko garabia.
- Errehabilitazio-kontsulten barrualdean, aldagela bakarra aztertu da, eta iristezina da.
- Kontsulta batek ere ez dauka Braillezko edo goi-erlieboko seinaleztapenik, eta ez dago zeinu-interpretarik.

Errehabilitazio-gunea / gimnasioa

- Errehabilitazio-guneetarako sarbideen %88k daukate zabalera egokia.
- Ateen %67k igarotzeko beharrezkoa den zabalera dute. Horien %88k kontraste egokia daukate.

Aldagelak

- Errehabilitazio-guneen %54k aldagelak dituzte barruan, baina aldagelen %54k soilik ematen dute barruan biratzeko aukera.
- Aztertu diren ateen %67k igarotzeko beharrezkoa den zabalera dute.
- Aldageletako ateen %23 lerragarriak dira edo kanporantz irekitzen dira. Horrek izugarri zailtzen die bertara sartzea desgaitasun fisikoa duten pertsonen.
- Aldagelen %8k bakarrik daukate mugikortasun murriztua dutenek erabiltzeko moduko bankuak, eta %8k bakarrik daukate alarma barruan.
- Eremu horien %38k dutxak daukate. Duxa horiek ez dituzte betetzen irisgarritzat jo ahal izateko behar diren arauak.

Komunak

- Errehabilitazio-guneen %54k komunen bat dute hurbil.
- Komun horietako ateen %54k igartzeko zabalera libre egokia dute. Ateen %38 lerragarriak dira edo kanporantz irekitzen dira.
- Komunen %31k baino ez dute barruan biratzeko aukera ematen.
- Komunen %8k bakarrik dauzkate alarma eta garabia/polipastoa barrualdean.
- Komun-zuloen %38k dute tokia albo batean gurpildun aulki batetik transferentzia egiteko, eta %8k dute altuera egokia.
- Komunen %70ek dauzkate konketak altuera egokian jarrita, baina horien %5ek bakarrik dute gurpildun aulkien erabiltzaileak horietara iritsi ahal izateko sakonera egokia.
- Nabarmenezkoa da konketetako iturrien %31 "eskutoki" motakoak izatea oraindik ere.
- Ispiluen %38 eta kakotegien eta toalla-euskarrien %15 ez daude altuera egokian jarrita.

Esku-ohreak

- Errehabilitazio-gunean dauden esku-oheen %79k altuera egokia dute.
- Eremu horien %50ek lekualdaketak egiteko garabiak dituzte.

Erabiltzen den errehabilitazioko ekipoa

Erabiltzen diren errehabilitazioko ekipoa ez dira beti irisgarriak izaten mugikortasun urriko pertsonentzat. Hala ere, zentro batzuetan motordun pedalak sartzen ari direla ikusi dugu.

2.19. Adingabeentzako eskolak

- Adingabeentzako eskolen %50 bakarrik dira irisgarriak.
- Gelen %50ean bakarrik daude komunak, baina bat bera ere ez da irisgarria.
- Entzumen-desgaitasuna dutenentzat, ez dago komunikatzeko beste modurik edota soinu-handigarrikerik ere.

2.20. Ziber-gelak

Ziber-gelen %25ek bakarrik dute irisgarritasun mugatua.

2.21. Farmaziak

Farmazien %43k bakarrik dauzkate ate egokiak eta altzarien erdia baino gehiago irisgarria. Ez dago zeinu-hizkuntzako interpreterik, ez eta entzuteko desgaitasuna dutenekin komunikatzeko beste modurik edota soinu-handigarrikerik ere.

2.22. Kafetegiak

- Kafetegiaren %17k sartzeko zailtasunak dauzkate. Horri dagokionez, adierazi beharra dugu Donostiako Unibertsitate

tate Ospitaleko kafetegira sartzeko eskailerak saihesten dituen sistema bat jarri dela, baina ezin daiteke elementu egokitzat jo urritasunen bat duten pertsonak modu autonomoan sartzera bermatzeari begira.

- Harrera-mahaien %22k bakarrik dute gurpildun aulkien erabiltzaileentzako eremu irisgarriren bat.
- Kafetegietan *self service* sistema ezartzeak murriztu egiten du mugikortasun murriztua duten pertsonen eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen autonomia. Pertsona horiek ez daukate bitartekorik jatekoa mahaia-eramaiteko, eta, beraz, hirugarrenen laguntza behar izaten dute.
- Kafetegiaren %4k bakarrik dute Brailleko eta goi-erliebezko seinaleztapena.

2.23. Ekitaldi-aretoak edo auditoriumak

- Auditoriumetako ateen %25ek dute gurpildun aulkien erabiltzaileek erabiltzeko moduko zabalera. Beiraz hornitutako ate batek ere ez dauka seinaleztapen-bandarik.
- Aretoen %18k ez daukate aurreikusita mugikortasun murriztua dutenentzako toki erreserbatuak, eta toki erreserbatuak dutenek ez daukate seinaleztatuta.
- Oholtzen %50ek arrapala daukate, baina horien %6k bakarrik betetzen dituzte eskatzen diren betekizunak.
- Aretoetako komun bat ere ez da irisgarria.

2.24. Kaperak

- Ez dago norabidezko gida-zerrendarik, ez eta Brailleko eta goi-erliebezko seinaleztapenik ere.
- Ateen %38k bakarrik daukate igartzeko zabalera libre nahikoa.
- Kaperen %8 iristezinak dira, eskailera-tarteak daukate-eta.
- Kaperen %38k eremu egokiak dituzte gurpildun aulkien erabiltzaileak jartzeko, baina bat bera ere ez dago seinaleztatuta.
- Kaperen %38k eserleku egokiak daukate mugikortasun urriko pertsonentzat.
- Ezin daiteke iritsi Brillez edo goi-erliebean ematen den informaziora.
- Kaperen %8k argidun ohartarazleak daukate, baina ez daukate soinurik.

2.25. Beilatokiak

- Aztertu diren beilatokietako ateen %33k dute igartzeko zabalera egokia.
- %50ek bakarrik daukate toki egokia altzarien artean.
- Komunen %50 irisgarriak dira, baina batek ere ez du alar-marik.



Gomendioak

k a p i t u l u a

VII. kapitulua

Gomendioak

Gomendio hauek proposatzen dira, bai orokorrak, bai eskumen-banaketaren arabekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako instalazioen irisgarritasun-baldintzak hobetze aldera:

Gomendio orokorrak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eta EAEko udalei:

1. Euskadiko osasun-sisteman irisgarritasun unibertsalaren baldintzak sustatzeari begirako estrategia diseinatzea gomendatzen da, eta luzamendurik gabe egin dezatela, modu jarraituan, xede horretarako ezartzen den planarekin bat egiten duen finantza-baliabide egokiz hornituz, eta txosten honetan jasotzen den diagnostikoan oinarritu daitezela xedeak eta lehentasunak zehazteko unean. Horretarako, **osasun-instalazioetan eta -zerbitzuetan irisgarritasunaren arloan dauden gabezien diagnostikoa egin beharko da,** irisgarritasuna sustatzeari begirako lau urteko nahitaezko programak egiteko xedez, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez⁷.

2. Euskal osasun-sistema erregulatzen duen esparru juridikoan egin behar diren aldaketak egin daitezela gomendatzen da, irisgarritasun unibertsalaren printzipioa eta baldintza tekniko nahikoak sartzeari begira, eta osasunera

iristeko aukera-berdintasuna eta osasunerako eskubidea berma daitezen, etengabeko ahaleginaren bidez.

Gomendioak hiri-inguruneen, espazio publikoen eta hiriko zein hiriarteko garraio publikoaren erakunde arduradunei; hau da, udalei, foru-aldundiei eta Osakidetzari:

3. Ospitale-instalazioetara iristeko ibilbideen irisgarritasun-baldintzak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, eta irisgarritasun-katean oinarritutako ikuspuntutik har daitezela:

- Ospitale-instalazioetatik hurbil dauden kaleetan.
- Garraio-geralekuetan edo geltokietan.
- Mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuetan.

4. Oinezkoen ibilbideen irisgarritasun-baldintzak bermatzeko behar diren neurriak modu jarraituan hartzea gomendatzen da. Horretarako, hauek egin beharko dira:

- Oinezkoak ibiltzea eta iristea zailtzen edo eragozten duten oztopoak kendu.
- Zeroko kotako beheraguneekin egin oinezkoen ibilbide horiek.
- Arrapalak jarri eskaileretan, dagozkien zehaztasun teknikoekin.
- Behar bezala egin oinezkoen ibilbideetako zoladurak.
- Soinudun gailuak jarri oinezkoen ibilbideetan dauden semaforoetan, pultsadoreak altuera egokian egongo direla bermatuz, eta erraz saka daitezkeela, eskuzko semaforoetan argi-aldaketa aktibatzeko.

⁷ 13-1. artikulua hau xedatzen du: *“Para garantizar y promover la accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificios, transportes y sistemas de información y comunicación ya existentes, de titularidad, uso o servicio público, el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales, los Ayuntamientos y demás entidades públicas elaborarán programas cuatrienales para la promoción de la accesibilidad...”*.

5. Oinezkoen ibilbideen seinaleztapen-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Norabidezko seinaleztapen egokia sartzea, Brailleko eta goi-erliebezko informazioarekin.
- b) Oinez hautemateko pasabideak jartzea, eta ibilbideetako kota aldatzea.

6. Ospitale-instalazioetara iristeko garraio publikoa egongo dela ziurtatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, bai eta **garraio bideen, azpiegituren eta ekipamenduen** irisgarritasun-baldintzak bermatzea ere. Horretarako, hau erraztu beharko da:

- a) Garraio publikoaren lineak eta maiztasunak areagotzea ospitale-instalazio guztietara, estrategikoak baitira horiek herritarren ongizateari begira; bereziki, hiriguneetatik urrun bizi direnentzat.
- b) Garraio publikoa egunero eta etengabe egongo dela bermatzea; batez ere, asteburuetan edo jaiegunetan egiaztatu diren mugaketen harira.
- c) Geralekuen, markesinen eta garraio-azpiegituren gainerako elementuen irisgarritasun-baldintzak bermatzea.
- d) Komunikazio- eta informazio-sistema akustikoa sustatzea geralekuetan, markesinetan eta garraio-azpiegituren gainerako elementuetan, legez aurreikusten diren irisgarritasun-baldintza teknikoekin bat eginez.
- e) Garraio publikoko ibilgailuetara igotzeko plataformak sustatzea, bai eta horiek egokitzea ere, hala behar duten geralekuetan.

7. Mugikortasun urria duten pertsonen erreserbatutako aparkalekuen arloan indarrean dagoen esparru juridikoa betetzea gomendatzen da, eta, zehazki, neurri hauek hartzea:

- a) Gutxienez, legez ezarritako aparkaleku-kopurua erreserbatzea mugikortasun urria dutenentzat.
- b) Mugikortasun urria dutenentzako aparkalekuetako zehaztasun teknikoak betetzea, legez aurreikusitakoak; bereziki, aparkaleku horien neurriak eta seinaleztapena.
- c) Zebrabideak egotea mugikortasun urria dutenentzako aparkalekuen ondoan, erabiltzaileei arrisku-egoerak saihesteko xedez.

Gomendioak itunpeko ospitale-zentroetako arduradunei eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari, ospitale-instalazio publikoen erakunde arduraduna den heinean:

8. Ospitale guztietan Irisgarritasun Plan bat diseinatzea eta onartzea gomendatzen da, **kronograma egoki bat finkatuz, horien kanpoaldeko instalazioak hobetzeko xedez**, eta lehentasuna emanez oinezkoen inguruneak egokitzeko jarduerai:

- a) Oinezkoen ibilbide argiagoak eta irisgarriagoak egotea, ibilgailuei ordezkari emanez lehentasuna, ospitaleen kanpoaldeko instalazioetan.
- b) Arrapalak eraikitzea oinezkoen ibilbide guztietan dauden eskailetan, mugikortasun urria dutenek itzulitzaile handiak egitea saihestuz horrela, ospitalera iristeari dagokionez.
- c) Espaloiaren irisgarritasun-baldintzak betetzea, zabalagoak eginez horiek eta dauden oztopoak kenduz (postak, paperontziak eta gainerako hiri-altzariak).
- d) Zoladuren irisgarritasun-baldintzak betetzea; adibidez, hartxintzarrezko edo hondarrezko lurra kenduz, oztopoa baitira horiek mugikortasun urria duten pertsonentzat.
- e) Zebrabideen irisgarritasun-baldintzak betetzea; bereziki, espaloietara iristeko behar diren zeroko kotoak jartzei dagokionez.
- f) Ibilbide guztietako komunikazio- eta seinaleztapen-sistemak ezartzeko eta hobetzeko plan bat egitea. Plan horrek hauek jaso beharko ditu:
 - Sestra-aldaketak.
 - Zebrabideak.
 - Sarrera nagusietaranzko norabidezko gida-zerrendak.
 - Norabidezko eta edozein motatako seinaleztapena.
 - Informazioa Braillez eta goi-erliebez.
 - Elementu gardenen seinaleztapen egokia.
- g) Soinu-gailuak jartzea ospitale-guneen barrualdeko oinezkoen ibilbideetan dauden semaforoetan, pultsadoreak altuera egokian egongo direla bermatuz, eta erraz saka daitezkeela, eskuzko semaforoetan argi-aldaketa aktibatuz.

9. Era berean, ospitale-guneetan mugikortasun urria duten pertsonen erreserbatutako aparkalekuen arloan indarrean dagoen esparru juridikoa betetzea gomendatzen da, 7. gomendioan azaldu diren aurreikuspenekin bat eginez. Bestetik, mugikortasun urria dutenentzako erreserbatutako aparkalekuak ospitaleetako sarrera nagusietatik hurbil jartzea gomendatzen da.

10. Ospitaleetako sarreretan irisgarritasun-, segurtasun- eta erosotasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, eta, zehazki, zehazten den plangintzarekin bat egin dezatela:

- a) Ospitaleetako sarreretan maila-aldaketa guztiak kentzea, inolako maldarik gabeko ateak jartzea eta gurgildun aulkien erabiltzaileek edo mugikortasun urria duten guztiak bira egiteko behar duten diametroa egotea bermatzea.
- b) Automatikoki irekitzeko ateak sustatzea, ospitaleetara modu autonomoan sartu ahal izan daitezkeen herritar guztiak; zehazki, mugikortasun urria duten pertsonak.

- c) Seinaleztapen egokia egotea sarreretako ateetan, behar den kontrastea dagoela bermatuz, eta seinaleztapen-banda egokiak jarri kristalezko ateetan.
- d) Ospitaleetara iristeko arrapalen irisgarritasun-baldintzak betetzea (malda, zabalera, eskailera-buruak, heldulekuak, zoladura eta abar).
- e) Koska isolatuak dituzten sarrerak kentzea.
- f) Sarreretako lanpasak eta alfonbrak lurrera finkatzea, estropezu egitea edo erortzea saiheste aldera.
- g) Irristatzeen aurkako zoladura, bai lehor dagoenean, bai bustita dagoenean.
- h) Behar diren neurriak hartzea ikusmen-desgaitasuna dutenentzat:
 - Sarrera guztietako komunikazio- eta seinaleztapen-sistemak ezartzeko eta hobetzeko plan bat egitea.
 - Sarrera nagusietara iristeko ibilbideetan, bai eta sarreretatik atondoetako harrera-mahaietara iristeko ibilbideetan ere, seinaleztapen-zerrendak jartzea.
 - Informazioa Braillez eta goi-erliebez ematea.
 - Kokatzeko planoak Braillez eta goi-erliebez jartzea.
- i) Entzumen-desgaitasuna dutenei zuzendutako neurriak hartzea, sarreretan norabidezko seinaleztapena jarri.
- j) Itxarongelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako guneak ahalbidetuz eta laguntzailearentzako eserleku bat jarri horietatik hurbil, eta eserleku egokiak jarri gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.
- k) Ate guztietatik igarotzeko gutxieneko zabalera libre betetzea.
- l) Arrapalak jartzea eskailerak dituzten sarrera guztietan.
- m) Arrapalen irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- e) Kanpoaldeko tinbreen irisgarritasun-baldintza teknikoak betetzea.
- f) Sarrera guztietan jartzea komunikazio- eta seinaleztapen-sistemak.
- g) Informazioa Braillez eta goi-erliebez ematea.
- h) Norabidezko seinaleztapen egokia jartzea.
- i) Itxarongelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako guneak ahalbidetuz eta laguntzailearentzako eserleku bat jarri horietatik hurbil, eta eserleku egokiak jarri gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.
- j) Entzumen-desgaitasuna dutenei informazioa modu irisgarrian emango zaiela bermatzea.

13. Eskaileraren irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; bereziki, bi aldeetan helduleku bikoitza egoteari dagokionez, baldintza tekniko egokiak betez. Horrekin batera, eskaileretatik hurbil informazioa jar liteke, goiko eta beheko pisuetan dauden zerbitzuei buruzkoa. Bestetik, heldulekuetan ikusmen-desgaitasuna dutenentzako norabidezko seinaleztapen egokia jartzea gomendatzen da.

14. Ospitaleetan dauden igogailuen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak modu jarraituan hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Kanpoaldeko pultsadoreak altuera egokian egotea.
- b) Igogailuko ateetatik igarotzeko gutxieneko zabalera betetzea, bai eta paretekiko kontraste egokia egotea ere.
- c) Oinez hautemateko seinaleztapen egokia egotea igogailuen sarbidean.
- d) Barrualdeko botoiak altuera egokian egotea, eta informazioa Braillez eta goi-erliebez ere ematea.
- e) Soinudun informazioa egotea kabinen barrualdean.
- f) Kanpoaldearekin komunikatzeko interfonoak edo telefonoak egotea.
- g) Informazio-pantailak jartzea herritar guztientzat, eta, batez ere, entzumen-desgaitasuna dutenentzat.

15. Ospitaleetan dauden komun orokorren irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Komunetara sartzeko arrapalen irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- b) Mugikortasun urria dutenentzako komun erreserbatuak jartzea komun orokorretan, erreserbatuak urrun egoten baitira batzuetan, nahasmendua eragiteko arriskuarekin. Horrekin, erreserbatutako komun gutxieneko kopurua beteko litzateke.
- c) Erreserbatutako komun hurbilenak non dauden adierazten duen seinaleztapen egokia jartzea komun orokorretan.

11. Jendeari arreta emateko harrera-mahaien eta leihatilen irisgarritasun-baldintzak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, bai horien diseinuari dagokionean, bai oztopoak kentzeari dagokionean. Era berean, jendeari arreta emateko harrera-mahaien eta leihatilen irisgarritasun unibertsala bermatzeari zuzendutako neurriak sustatu behako lirateke, pertsona guztiei egokitutako diseinu baten arabera.

12. Ospitaleetako larraldietako guneen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak modu jarraituan hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- b) Automatikoki irekitzeko ateak sustatzea, modu automoan sartu ahal izan daitezen herritar guztiak, eta, zehazki, mugikortasun urria duten pertsonak.
- c) Sarreretako lanpasak eta alfonbrak lurrera finkatzea, estropezu egitea edo erortzea saiheste aldera.
- d) Irristatzeen aurkako zoladura, bai lehor dagoenean, bai bustita dagoenean.

- d) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- e) Informazioa Braillez eta goi-erliebez jartzea.

16. Ospitaleetan mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako komunen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Ospitale-gune guztietan egotea mugikortasun urria dutenei erreserbatutako eta egokitutako komunak, beste gune edo solairu batzuetara joan behar izatea saihesteko.
- b) Dauden komun erreserbatuetako seinaleztapena egokia izatea.
- c) Sarreretako koska guztiak kentzea, eta arrapalek irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- d) Irisgarritasun-baldintzak betetzea erreserbatutako komun sarreretan; bereziki, igarotzeko zabalera egokia duten eta kanpoalderantz irekitzen diren ateak egoteari dagokionean (lerragarriak izan daitezke).
- e) Argi automatikorik ez jartzea.
- f) Pediatria-guneetan, irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten komunak egotea mugikortasun urria duten adingabeentzat.
- g) Gurpildun aulki batetik komun-zulora lekualdatzea ahalbidetzen duen albo bat egotea gutxienez.
- h) Irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten heldulekuak jartzea.
- i) Komun-zuloak altuera egokian egotea.
- j) "Eskutoki" motako iturriak kentzea, eta aginte bakarreko txorrotak edo txorrola automatikoak jartzea horien orde.
- k) Komuneko osagaiak altuera egokian jartzea.
- l) Kordoi motako alarma-sistema jartzea, eta behar bezala edukitzea hori, funtzionatuko duela bermatzeko.
- m) Informazioa hobetzea ikusmen-desgaitasuna dutenentzat.
- n) Biltegitratzeko toki nahikoak egotea ospitaleetan, mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako komunak xede horrekin erabiltzea saihesteko.

17. Ospitaleetan dauden lagundutako komunen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, mugikortasun urria dutenek erabili ahal izan ditzaten.

18. Ospitaleetan dauden itxarongelen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Itxarongelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako guneak ahalbidetuz eta laguntzaileentzako eserleku bat jarriz horietatik hurbil, eta eserleku egokiak jarriz gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.

- b) Itxarongelak korridoreetan ez jartzea.
- c) Informazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- d) Soinudun informazioa sartzen joatea argidun ohartarazpenetan edo txanda emateko makinetan.
- e) Arrapalen irisgarritasun-baldintzak betetzea txanda emateko makinetan.

19. Kontsulta orokorren irisgarritasun-baldintza egokiak plangintza bideragarri baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Oztoporik gabeko ibilbideak eta korridoreak egotea bermatzea.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- d) Informazio egokia egotea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- e) Postontzien, behatxuloen eta tinbreen irisgarritasun-baldintzak betetzea, bai altuerari dagokionez, bai seinaleztapenari dagokionez.
- f) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- g) Diagnostiko-zerbitzuetako besaulkien eta kabinen irisgarritasun-baldintzak betetzea. Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak lekualdatzeko.
- h) Aldagelen eta komun irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- i) Biltegitratzeko toki nahikoa egotea, mugikortasun urria dutenak aldageletara eta komunitara sartzeko eta horietan mugitzea zailtzen edo eragozten duten oztopoak egotea saihesteko.
- j) Entzumen-desgaitasuna dutenak komunikatzea bermatzeko protokoloak egitea.

20. Erradiologia-zerbitzuen eta otorrinolaringologia-, arnasketa- eta indar-probak egiteko kabinen irisgarritasun-baldintza egokiak jarduera jarraitu baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da.

- a) Horietara sartzeko ibilbideak zailtzen dituzten oztopoak kentzea.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Erradiologia-ekipoen irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- d) Diagnostiko-mahaien irisgarritasun-baldintzak betetzea, mugikortasun murriztua dutenak lekualdatzeko garabiak eta polipastoak barne hartuta.
- e) Kabinen barrualdean komunikazio-sistema egokiak jartzea (argidun seinaleak edo beste mota batekoak), entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat.
- f) Aldagela irisgarriak egotea erradiologia-gune guztietan.
- g) Aldageletan alarma-sistemak jartzea.

- h) Mugikortasun urriko pertsonentzako komun irisgarriak egotea.

21. Errehabilitazio-zerbitzuen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Sarreren eta ateen irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- b) Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak lekualdatzeko.
- c) Informazio- eta komunikazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.

22. Gimnasioen edo errehabilitazio-guneen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Oztoporik gabeko ibilbideak eta korridoreak egotea bermatzea.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- d) Gutxienez aldagela irisgarri bat egotea, mugikortasun murriztua dutenentzat egokiak diren ezaugarriekin.
- e) Irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten dutxak egotea.
- f) Komunetan, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako komun irisgarri bat egotea gutxienez, sexua- ren arabera berezita.
- g) Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak lekualdatzeko.
- h) Informazio- eta komunikazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- i) Irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak bermatzea errehabilitazio-ekipoak eta -gailuak sartzean.

23. Ginekologia-kontsultetan irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Oztoporik gabeko ibilbideak eta korridoreak egotea bermatzea.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Gutxienez ginekologia-eremu irisgarri bat egotea ospitale bakoitzean, ezaugarri egokiekin, besaulki edo esku-ohere egokiekin, irisgarritasun-baldintza egokiak dituen aldagelarekin, eta garabia edo polipastoa jartzea mugikortasun murriztua dutenak lekualdatzeko.
- d) Informazio- eta komunikazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.

24. Pazientearen eta erabiltzailearen arretarako zerbitzuen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.

- b) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- c) Informazio- eta komunikazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.

25. Logelen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanakako plangintza baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Ahalik eta logela egokitu gehien egotea mugikortasun urria duten pertsonentzat, ospitaleratze-gune guztietan.
- b) Pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioekin bat egiten duten logela- eta komun-ereduak egitea, eta EAEko ospitaleetan ezartzea horiek, pixkanaka.
- c) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- d) Gurpildun aukien erabiltzaileek logelen barrualdean bira egin ahal izatea, diametro egokiarekin.
- e) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- f) Logeletan dauden gailuen eta makina saltzaileen (telebista-txartelak, telefonoak, etengailuak eta abar) irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- g) Kordoi motako alarma-sistemak jartzea komunetan, eta behar bezala edukitzea horiek, funtzionatuko dutela bermatzeko.
- h) Ospitaleratuta daudenen gurpildun aukiak edo mugikortasun urria dutenen laguntza-produktuak uzteko toki nahikoa egotea bermatzea.
- i) Terrazara oztoporik edo trabarik gabe atera ahal izatea bermatzea, logelak terraza duenean.
- j) Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak lekualdatzeko.
- k) Logelak domotizatzeari begirako neurriak sustatzea; bereziki, leihoak irekitzeko mekanismoei, argiei eta abarrei dagokienean.
- l) Logeletako konketen irisgarritasun-baldintzak bermatzea; batez ere, horietara hurbildu ahal izateko toki libreaki dagokienean.
- m) Kanpoaldeko hodiak behar bezala estalita egotea, erretzeko arriskuak saihesteko.

26. Boxen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Mugikortasun urriko pertsonentzako gune irisgarri eta egokiak egotea.
- b) Pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioarekin bat egiten duten boxen ereduak egitea.
- c) Mugikortasun urriko pertsonentzako komun irisgarriak egotea.
- d) Duxen kopuru nahikoak bete ditzala irisgarritasun-baldintzak.

27. Erabilera anitzeko aldagelen eta komun irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, senideei bideratutako komun, dutxen eta aldagelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, mugikortasun urria duten pertsonen egokitutako komun/dutxa/aldagela bana egotea bermatuz gutxienez gune bakoitzeko.

28. Osatek zentroyen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten arrapalak egotea eskailerak dauzkaten sarrera guztietan.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- d) Sarreretako lanpasak eta alfonsak lurrera finkatzea, estropezu egitea edo erortzea saiheste aldera.
- e) Brailleko eta goi-erliebezko informazioa jartzea, bai eta norabidezko gida-zerrendak jartzea ere.
- f) Itxarongelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako guneak ahalbidetuz eta laguntzaileentzako eserleku bat jarri horietatik hurbil, eta eserleku egokiak jarri gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.
- g) Informazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- h) Gutxienez aldagela irisgarri bat egotea, mugikortasun murriztua dutenentzat behar diren ezaugarriekin.
- i) Gutxienez komun irisgarri bat egotea, mugikortasun murriztua dutenentzat behar diren ezaugarriekin.
- j) Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak diagnostiko-mahaietara lekualdatzeko.

29. Adingabeentzako eskolen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak modu jarraituan hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea, eta mugikortasun urria duten ikasleentzat egoki antolatuta egotea horiek.
- b) Komun irisgarri bat egotea, mugikortasun murriztua dutenentzat behar diren ezaugarriekin.
- c) Informazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- d) Informazioa Braillez eta goi-erliebez jartzea.

30. Ziber-ikasgelen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanakako plangintza baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea, eta mugikortasun urria duten ikasleentzat egoki antolatuta egotea horiek.

- b) Ordenagailu eta gailu teknologiko irisgarriak egotea, eta egokitzapen posibleak aurreikustea.
- c) Informazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.

31. Areto nagusien eta auditoriumen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea, behar duten kontrastearekin.
- b) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- c) Brailleko eta goi-erliebezko informazioa jartzea, bai eta norabidezko gida-zerrendak jartzea ere.
- d) Mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako guneak egotea, behar diren baldintza teknikoekin.
- e) Behar besteko eserleku egokiak egotea mugikortasun urria dutenentzat.
- f) Oholtzetara igotzeko arrapalak egotea.
- g) Mugikortasun urriko pertsonentzako komun irisgarriak egotea.

32. Kaperen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanakako plangintza baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten arrapalak egotea eskailerak dauzkaten sarrera guztietan.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea, behar duten kontrastearekin.
- c) Brailleko eta goi-erliebezko informazioa jartzea, bai eta norabidezko gida-zerrendak jartzea ere.
- d) Mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako guneak egotea, behar diren baldintza teknikoekin.
- e) Eserleku egokiak egotea mugikortasun urria dutenentzat.

33. Ospitaleetan dagoen ekipamenduaren irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanaka bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da. Horretarako, beharrezko klausulak edo baldintzak sustatu beharko dira kontratazio publikoko prozeduretan, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak bermatze aldera.

34. Ospitaleetako postontzien eta tinbreen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanaka bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da. Horretarako, elementu horiek instalatzeko protokolo bat egin behar da, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioetan oinarritutakoa.

35. Larrialdietako ateen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, indarrean dagoen esparru juridikoa betez, eta barra bikoitza

duten atea egotea bermatuz, behar bezala seinaleztatutako irteera irisgarriekin batera.

36. Ospitaleetan dauden makina saltzaileen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanaka egokitzea bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da. Horretarako, beharrezko klausulak edo baldintzak sustatu beharko dira kontratazio publikoko prozeduretan, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak bermatze aldera.

37. Ospitaleetako elementuak, gailuak eta azpiegiturak hornitzeaz, jartzeaz eta horien mantentze-lanak egiteaz arduratzen diren **teknikariei zuzendutako kontzientzia-zio-ekintzetan prestakuntza-prozesuak eta prozesu parte-hartzaileak antolatzea** gomendatzen da, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak osasun-eremuan erabat ezartzea bermatzeko xedez.

38. Ospitale bakoitzeko langileen eta zuzendaritzaren arteko komunikazio- eta informazio-bideen arintasuna eta eraginkortasuna hobetzeko behar diren ahaleginak egitea gomendatzen da, birgaitze-lanen proiektuak egiteari dagokionez. Ekarpen egokiak jasotzea eta integratzea ahalbidetuko luke horrek, desgaitasunen bat duten pertso-

nentzako irisgarritasun funtzionalari mesede egiteko iradokizunak sartze aldera.

39. Desgaitasunen bat duten pertsonak biltzen dituzten elkarteekin prozesu parte-hartzaileak egitea gomendatzen da, bai eta erabiltzaileekin ere, ospitale-esparruak birgaitzeko obra handien proiektuak egiteari dagokionez.

40. Kronograma zehatz bat ezarriz, osasun-gunee-tan, -gailuetan, -elementuetan eta -zerbitzuetan **pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak erabat ezartzea lortzea ahalbidetuko duten protokoloak egitea** gomendatzen da.

41. Kontratazio publikoko prozeduretan pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak erabat eta eraginkorki sartzea gomendatzen da, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak osasun-eremuan bermatzeko xedez.

42. Osasun-instalazioei eta -zerbitzuei dagokienez, irisgarritasunaren arloan, indarrean dagoen esparru juridikoan dauden gabezien diagnostikoa egitea gomendatzen da, araudia aldatzeko ekimenak abiarazi daitezen eskudun eremuetan.



Laburpena

k a p i t u l u a

VIII. kapitulua

Laburpena

Helburuak

Helburu nagusia

Txosten honek Euskal Herriko ospitaleen irisgarritasuna zertan den aztertzea du helburu.

Desgaituek erakunde honi egin zizkioten eskaerengatik erabaki zuen Arartekoak, nagusiki, txosten hau prestatzea. Izan ere, urteotan barrena, talde horrek kexa ugari egin ditu, banaka nahiz taldeka, EAEko osasun zentroetan eta ospitaleetan dauden oztopo ugariak direla eta.

Aztergai izan ditugu bai Osakidetzaren sare publikoko ospitaldeak, bai Osakidetzarekin itundutako ospitale pribatu batzuk.

Era berean, azterlan honen bidez, [Desgaituen eskubideei buruzko Hitzarmen-tik](#) eratorritako betebeharra bete nahi da. Hitzarmen hori New Yorken onetsi zen, 2006ko abenduaren 13an, eta Espainiak berretsi zuen, 2007ko abenduaren 3an ([BOE, 96. zk., 2008ko apirilaren 21ekoa](#)). Honela dio: “estatu kideek informazio egokia bilduko dute, estatistika eta ikerketa datuak barne direla, hitzarmen hau gauzatzeko politikak formulatu eta ezarri ahal izan ditzaten”.

Euskal osasun sistemak garrantziko tokia du Estatu osoan; horregatik, Arartekoak, ekimen honen bidez, elementu garrantzitsuak eman nahi izan ditu irisgarritasunaren arlo zehatzean sistema hobetu ahal izateko.

Helburu zehatzak

Azterketa honen bidez Arartekoaren erakundeak planteatu dituen helburu zehatzak honako hauek dira:

- Osakidetzaren sareko edo itunpeko ospitaleetan, irisgarritasunari buruzko araudiaren betetze maila aztertzea.
- Desgaitasun eta mugikortasun urria duten pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleak baldintza berdinetan erabiltzeko eskubidea bermatzea, are gehiago, biztanle guztiei bizitzako une batean eragin dakiekeen gaia dela kontuan hartuta.
- Oinarri objektibo eta metodologikoa hartuta, lege- eta administrazio-neurriak eskatzea, ospitaleekin zerikusia duten hirigintza-jarduketetan irisgarritasunari buruko araudia betetzea bermatzeko.
- Osasun Administrazio Publikoa kontzientziatzea irisgarritasunari buruzko indarreko araudia bete behar duela, desgaitasuna duten pertsonen osasun zerbitzuak bete-betean eta baldintza berdinetan erabili ahal izateko. Horretarako, ahaleginak egin behar dituzte osasun zerbitzu horiek, osasun mentaleko zerbitzua, laguntza psikologikoa, kanpo-kontsultak eta gaixo ospitalizatuen zainketa barne, nahikoa ekipamendu izan dezaten eta eraginkorrak izan daitezen pertsona desgaituen premiak betetzeko.
- Hain zuzen ere, aniztasun funtzionala duten emakumeek ginekologoaren zerbitzua (kontsultak eta tratamendua) eskuratzeko daukaten aukera aztertzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen komunikazioa errazteko eta eurekin komunikatzeko neurriak hartzen direla bermatzea. Komunikazioak ulergarria izan behar du eta gaixoari ezinbesteko informazioa eman behar zaio (zeinu-hizkuntzako interpreteen

bidez, braillez, ahoz edo beste sistema bat erabiliz) osasun-arretaren arloko beharrei edo egin behar zaizkion tratamendu medikoei buruz.

Irisgarritasuna eta mugikortasun urriko pertsonak

Irisgarritasuna

Azterketa horren edukia mugatzeko, beharrezkoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistemaren eginkizunak irisgarritasunaren ikuspuntutik zehaztea, mugikortasun urriko pertsonentzako ibilbide, instalazio eta zerbitzuen kokapena eta erabilgarritasuna erabakitzen dituen irisgarritasun katea kontuan hartuta.

Irisgarritasuna honako premisa honen ikuspuntutik ulertu behar da: edozein pertsonak eskubidea du eraikin, zerbitzu edo produktuak baldintza berdinetan erabiltzeko.

Bestalde, irisgarritasunaren kontzeptua ulertzeko, giza jarduerari loturiko hiru oinarritzko gaitasunak hartu behar dira kontuan: mugikortasuna, komunikazioa eta elkar ulertzea. Hiru giza jarduera horiek mugatuak daude, hainbat oztopo daudelako.

Irisgarritasuna bermatzeak esan nahi du ingurune, eraikin, garraibide edo komunikabide jakin batera sartzeko aukera egongo dela eta pertsona guztiak zerbitzua pentsatu den moduan erabili ahal izango dutela. Gainera, erabilera autonomoa bermatu behar da, hau da, pertsona guztiak baliaibidea modu independentean erabiltzeko aukera eman behar zaie.

Irisgarritasun katea

Pertsona bat lekuz aldatzeak jarraitua eta oztoporik gabea izan behar du, abiapuntutik helmugaraino. Hau da, ibilbideak hasieratik amaierara izan behar du irisgarria, pertsona guztiak baldintza berdinetan erabili ahal izateko.

Irisgarritasun kate horrek joan-etorriak egiteko informaziorako sarbidea ere eman behar du, mezuak jaso eta ulertzeko erraztasunak eta abar.



Txosten hau egiteko, irisgarritasun katea egituratzeko aintzat hartu diren funtsezko elementuak honako hauek izan dira: garraioa, publikoa (ospitaletik hurbil dauden geltokiak) zein pribatua (aparkalekuak), ospitalera iristeko beharrezkoak diren elementuak, kanpoaldetik barrura sartzeko ibilbidea eta ospitalearen eraikina.

1. **KANPOKO IRISGARRITASUNA:** ekipamendurako (geltoki edo aparkalekurako) ibilbideak irisgarria izan edo gutxienez ibiltzeko moduan egon behar du; geltokiak edo aparkalekuak ere irisgarriak izan behar dute.
2. **BARNE-IRISGARRITASUNA:** (bisitaria-gaixoa) sarbidea eta barrutian zehar mugitzea, barruko elementuetara heltzea eta ekipamendua erabiltzea.
3. **OSPITALEKO IRISGARRITASUNA:** (gaixoa) gelen barruan mugitzeko baldintzak, baita ospitaleratzeak, kontsultategietara heltzeak, errehabilitazioak, erradiografiak eta ekografiak egiteak eta abarrek eskatzen dituzten zerbitzuetara iristeko baldintzak ere.

Zeharkako alderdi gisa, irisgarritasun katearen ibilbide osoan komunikazioa aztertu da. Komunikazio hori garrantzitsua da helmugara heltzeko, eta seinaleen, jarraitu beharreko marren eta informazio akustiko zein bisualeko elementuen bidez eman behar zaie entzuteko zein ikusteko desgaitasuna duten pertsonei.

Mugikortasun urriko pertsonak

Azterketa honen ondorioetarako, adineko eta desgaitu guztiak izango dira **mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonak**. **Mugikortasun urri iragankorra dutenak**, berriaz, gaixotasun edo eragozpenak dituzten pertsonak dira (haurdunak, igeltsua jarrita

dutenak, iktusak jota daudenak, bihotzeko gaitza dutenak, hezur-giltzaduretako gaixotasunak dituztenak eta abar), baita ospitalera 3 urtetik beherako haurrekin batera jotzen dutenak ere.

Eustatek (Euskal Estatistika Erakundea) 2015ean jasotako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 2.173.210 pertsona bizi ziren. Horietako **458.396** 65 urtetik gorakoak izan dira, biztanleen %21. Era berean, 2008ko desgaitasun, autonomia pertsonala eta mendekotasun-egoerei buruzko inkestaren bidez jasotako datuen arabera, **169.400** pertsona desgaitu bizi ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, biztanleen %7,79, alegia.

Eustatek 2014an EAEko zentroetan ospitaleratuta zeuden biztanleei buruz jaso dituen datuei dagokienez, “%46,5 65 urtetik gorakoak ziren eta ospitalizatutako gaixo gehienak 78 urtekoak ziren”.

Pertsona horien kopuruari gehitu behar zaio, ospitaleen erabiltzaile direnez, mugitzeko gaitasuna aldi batez mugatua duen edozein pertsona, hau da, desgaitasuna aitortua ez izan arren une jakin batzuetan mugitzeko arazoak izan ditzaketen pertsonak, hala nola aldi baterako ezintasuna dutenak, haurdunak, igeltsua jarrita dutenak, istripuren bat izan dutenak, oro har, gaixoak eta abar.


Kontuan izan behar da, gainera, mugikortasun urriko pertsonak biztanleen %50 izatera hel daitezkeela, “**EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa**” izenburuko txostenean azaldu bezala. Osasun zerbitzuen erabiltzaileei dagokienez, ehuneko hori are handiagoa izango dela aurreikusten da.

Lurraldea	Mugikortasun urri iraunkorra, guztira	Mugikortasun urri iragankorra, guztira	Mugikortasun urria dutenak, guztira	Mugikortasun urria dutenen ehunekoa
Araba	85.411	30.473	115.884	%36,01
Bizaia	338.891	103.390	442.281	%38,74
Gipuzkoa	203.494	64.342	267.836	%37,72
GUZTIRA	627.796	198.205	826.001	%38,00

Datu orokorretara joz gero, esan daiteke egun EAEn bizi eta ospitaleen erabiltzaileak direnen %38k mugikortasun urriko pertsonak direla.

Ospitaleen erabiltzaileei dagokienez, %76,5ek mugikortasun urria dute, iraunkorra edo iragankorra. Datu hori kontuan hartuta, ospitaleen inguruko irisgarritasunaren gaiari lehenbailehen heldu behar zaio la ikus daiteke. Izan ere, ezinbestekoak dira gaia erakunde eta agente eskudunen agendetan sartzeara eta aurrekontu egokia ezartzea, irisgarritasun-baldintzak betetzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleak normaltasunez erabiltzea ahalbidetzeko.

Mugikortasun urria duten biztanleak EAEko ospitaleetan



Antzemandako irisgarritasun arazoak

Ospitaleetako zerbitzuetara iristeko orduan, talde horrek aurki ditzakeen arazo nagusiak honako hauek izan daitezke:

- **Arazo fisikoak:** jarraitu beharreko ibilbideetan, azpiegituretara heltzeko gorabeherak, aldapak eta eskailerak igotzeko ezina; toki edo pasabide estuetatik pasatzeko ezina, bira emateko tokirik eza; atea ireki eta itxeko zailtasunak; esku biekin batera eragiten diren mekanismoak erabiltzeko arazoak; igogailuak edo eskailerak erabiltzeko oztopoak; kontsultategietara sartzeko edo azterketa eta miaketa jakin batzuk egiteko arazoak eta abar.
- **Arazo sentsorialak:** botoiak edo errotuluak bezalako objektuak identifikatzeko ezina; gorabeherak edo elementu irtenak bezalako oztopoak detektatu ezina; jarraitu beharreko norabideak edo ibilbideak aukeratzeko informaziorik eza; seinale akustikoak edo argizkoak identifikatzeko zailtasuna, adibidez, alarmak edo txanda eskatzeko seinaleak.

Metodologia

Azterketaren metodologia

Ikerlanean metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili dira. Metodologia kuantitatiboa irisgarritasunaren arauen betetze maila ebaluatzeko adierazleen ereduak erabiliz burutu da. Adierazleen multzoa gure teknikariek osatu dute. Horietaz gain, galdetegi batzuk ere erabili dira, bisita egin aurretik ospitaleetara bidali direnak. Galdetegien bidez, aztertutako arloei buruzko datu zenbatgarriak batu ditugu.

Metodologia kualitatiboa elkarrizketen bidez burutu da. Elkarrizketa horiek ospitaleetan egin dira, edo zenbait ospitaleetako teknikari batzuek eta mugikortasun urriko erabiltzaile batzuek osatutako kontraste taldeetan.

Faseak

Azterlana burutzeko, zenbait fasetan oinarritutako metodologia jarraitu da. Fase bakoitzean, halaber, ekintza batzuk bereizten dira eta, horiei esker, azterketa egitean parte hartu duten eragile desberdinen (tekniko, sozial eta legala) ekarpenak bildu eta bateratu ditugu, aztergaiaren gaur egungo egoera ezagutu eta ikertzeko.

Txosten hau 2014ko maiatzetik 2016 maiatzera bitartean egin da.

Diagnostikoa egiteko tresnak

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako irisgarritasuna ebaluatzeko prozesuan hainbat datu zehatz biltzen dituen fitxa tekniko bat erabili da oinarri. Horri esker, irisgarritasunari buruzko araudiarekin bat, ospitaleek –publikoek zein pribatuek– irisgarriak direla esateko bete behar dituzten zenbait eskakizun aztertu dira. Izan ere, fitxa horrek ospitaleetara egindako bisitetan datuak biltzeko tresna gisa erabili da. Fitxak emango du ondoren landuko den informazio osoa. Fitxa hori egiteko, hainbat datu tekniko bildu dira, honako bi araudi hauetan jasota daudenak: [apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua](#), hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena; Eraikuntzaren Kode Teknikoa, hain zuzen ere, [“Documento Básico SUA. Seguridad de utilización y accesibilidad”](#). Datu horiek aparkalekuak egiteko erabili dira.

Ospitaleen kanpoaldean, garraio-sistematik abiatuta eremu bakoitzean zer ibilbide jarraitu behar den aztertu da, baita mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako apar-

kalekuak ere. Era berean, sarrera, espaloi, arrapala, eskailera eta seinaleetara heltzeko jarraitu behar diren ibilbideak aztertu dira.

Zentroetako sarbideetan, kanpoko ibilbideak eta aparkalekuak aztertzeaz gain, begiratu da sarbidea kale mailan dagoen, zer ate mota erabili den, ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzako seinaleak, ibilbideen seinaleztapena eta abar.

Ospitaleetako barnealdeari dagokionez, honako elementu hauei buruzko datuak bildu dira: zoladura mota, ibilbideak, kontsultategiak, komunak eta aldagelak, itxarongelak, gelak, kafetegiak, kaperak, beilatokiak, farmaziak eta abar. Saiatu da gaixoek zein familiakoek erabil ditzakeen elementu guztiak aztertzen, eta kasu batzuetan, langilearen ikuspuntutik ere.

Osakidetzak hiru lurraldeetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) dituen ospitaleak aukeratu eta aztertu dira, baita Osakidetzarekin itunduta dauden beste ospitale batzuk ere (lurralde bakoitzeko, gutxienez, horietako bi aztertu ahal izateko). Halaber, Osateken ospitale psikiatrikoak eta zentroak bisitatu dira.

Azterlan honetarako, ospitale adierazgarrienak eta “gaixotasun akutuek” artatzen dituztenak hautatu dira lagina osatzeko. Osakidetzako sare publikoko 16 ospitaleak aztertu dira, Osakidetzarekin ituna sinatu duten 12 ospitale pribatu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 8 ospitale psikiatriko. Era berean, Osatekek eskaintzen dituen 7 zerbitzuak aztertu dira, ospitaleak osatzeko elementu behar-beharrezkotzat eta garrantzitsutzat jotzen direlako.

Ospitaleak	Publikoak/ Osakidetzak	Pribatuak/ Itunpekoak	Psikiatrikoak	Guztira	Osatek
Araba	3	3	1	7	2
Bizkaia	8	4	3	15	4
Gipuzkoa	5	5	4	14	1
GUZTIRA	16	12	8	36	7

Osateken ospitale eta zerbitzu hauek aztertu dira:

OSPITALEAK	HIRIA
Indautxu klinika	Bilbao
Santa María de la Asunción klinika	Tolosa
Virgen Blanca klinika	Bilbao
Aita Menni ospitalea	Arrasate/Mondragón
Bidasoako ospitalea	Hondarribia
Basurtuko ospitalea	Bilbao
Gurutzetako ospitalea	Barakaldo
San Onofre Zainketa Ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Gorlizko ospitalea	Gorliz
Lezako ospitalea	Laguardia
Mendaroko ospitalea	Mendaro

OSPITALEAK	HIRIA
Urdulizko ospitalea	Urduliz
Zumarragako ospitalea	Zumarraga
Deba Garaiko ospitalea	Arrasate/Mondragón
Galdakao-Usansoloko ospitalea	Galdakao
Gernika-Lumoko ospitalea	Gernika-Lumo
Arabako Ospitale Psikiatrikoa	Vitoria-Gasteiz
Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa	Bermeo
Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoa	Zaldibar
Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa	Zamudio
Quirón Vitoria ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Ricardo Bermingham ospitalea	Donostia-San Sebastián
San Eloy ospitalea	Barakaldo
San Juan de Dios ospitalea	Santurtzi
Santa Marina ospitalea	Bilbao
Santiago Apostolua ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Txagorritxuko ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Donostia Unibertsitate Ospitalea	Donostia-San Sebastián
Donostia Unibertsitate Ospitalea. Arantzazu eraikina	Donostia-San Sebastián
Victoria Eugenia ospitalea	Bilbao
Vithas San Jose ospitalea	Vitoria-Gasteiz
Donostiako Onkologikoa	Donostia-San Sebastián
Osatek, Areetako anbulatorioa	Getxo
Osatek, Doktor Areilza anbulatorioa	Bilbao
Usurbilgo sendategia	Usurbil

Bisitaturako ospitale bakoitzaren tamaina nolakoa zen, denbora luzeagoa ala laburragoa behar izan da haietako bakoitza aztertzeke, zehazki, 4 eta 40 ordu bitartean.

Euskadiko ospitale-sarearen irisgarritasuna (teknikarien eta erabiltzaileen ikuspuntua)

Euskadiko ospitale-sarearen irisgarritasuna

Osakidetzako teknikarien eta osasun zerbitzuak erabiltzen dituzten ezintasunen bat duten pertsonen ikuspuntua

EAEko osasun-sareko ospitaleak aztertu eta lehen ondorioak atera ondoren, bidezkoztat jo zen eztabaida-talde bat eratzea (egia esan, bi talde eratu dira, berehala azalduko den moduan), landa-lanaren fasean –ospitaleetan egindako bisitetan– jasotako informazio kuantitatiboa eta objektiboa osatzeko.

Erabilitako metodologia garai hartan bildutako informazioa egiaztatu eta humanizatzeko baliatu zen partaidetza-estrategiaren zati da. Izan ere, metodologia hau erabiliz, xehe-tasunez ezagutu nahi izan dira, alde batetik, osasun-teknikarien iritziak eta proposamenak, eta bestetik, ezintasunen bat (fisikoa zein sentsoriala) duten pertsonen osasun zerbitzuak erabiltzeko orduan antzemandako zailtasunak.

Eztabaida-taldea 2015eko urriaren 9an bildu zen, Arartekoaren Gasteizko egoitzan.

Galdetutako pertsonak Osakidetzako lanbide-profil guztietakoak ez badira ere, horietako asko ospitaleko arretaren giltzarria dira: mediku profesionalak, erizainak, administrazio langileak, zeladoreak...

Era berean, ezintasunen bat dutenen taldean ez daude ezintasun mota guztietako pertsonak, eta ez dute kolektibo osoa ordezkatzeko, ezintasunen bat duten pertsona ororen ikuspuntua adierazten duten arren.

Parte hartzeko prozesu horretan, talde-dinamikan eta ateratako ondorioetan agerian jarri denez, prozesuetan presente egon behar duten arren ahaztuta dauden horiei hitza eman zaie.

- Hortaz, atera behar den lehenengo ondorioa zera da: **komunikatzeko bide eraginkorrak ireki behar dira ospitaleetako langileen eta kudeatzaileen artean**, kontu horiei dagokienez, komunikaziorik eza nabarmentzen delako eta existitzen den komunikazioa eraginkorra ez delako. Ondorioz, **lehenengo hobekuntza-jarduerak kontsultak egiteko eta egin beharreko obrei buruzko iritzia emateko bideak antolatzea izango litzateke**.
- Berez, aldez aurretik gaia proposatu gabe, parte-hartzaile guztiek azpimarratu dute, euskal ospitale-sistemaren errealitatea, oro har, eta ospitale zehatz batzuetan, ezintasunen bat duten pertsonen zerbitzuetarako, proba diagnostikoetarako edo ospitaleratzeko sarbidea bermatzeko egokia ez bada ere, **osasun-langileen konpromiso, sentiberatasun eta gauzak ongi egiteari esker, zerbitzua garatzeko baldintzak espero baino askoz ere hobekak direla**. Izan ere, pertsona horien ahaleginari eta ardurari esker lortzen da osasun-zerbitzuak ematea.
- Halaber, iritziak erkatze horretan parte hartu dutenek azpimarratzen dute **laguntza tekniko gehiago emateko premia**, daudenak ez baitira nahikoak. Horrek eragin ona izango du zerbitzuan eta ezintasunen bat duten pertsonen ematen zaien arretan.
- Behin eta berriro agertu da **tokirik ezaren inguruko kexa**. Hain zuzen ere, **toki bereziak falta dira materiala gordetzeko, familiakoei informazioa emateko, itxarongeletan, eta abar**.

- Parte-hartzaileen ustez, **kanpo-kontsultak ospitalizazio-eraikinean ez egoteak** hobetuko luke zerbitzua, bai gaixoen, bai erabiltzaileen ikuspuntutik.
- Ospitaleetan, oro har, **ezintasunak dituzten gaixoak tratatzeko erak okerrera jo duela** diote, **gaixo horiek ez baitira jotzen pertsona “balioduntzat”**. Konturatu dira, gainera, **langile gutxiago daudela gaixoak zaintzeko eta arreta emateko**.
- Halaber, egiaztatu dute itxarongeletan **ez dagoela toki nahikorik gurgil-aulkietan doazen erabiltzaileentzat**. Txanda-zenbakiak banatzen dituzten makinak erabilgaitzak dira gurgil-aulkietan doazen erabiltzaileentzat eta ikusmen urrituentzat, eta, gainera, **nekez erabil ditzakete adinekoek edo entzumen urrituek**.
- Garbi ikusi da, gainera, oro har, **mostradoreak gaizki erabiltzen direla eta ez dutela beren funtzioa betetzen**. Gehienak ez dira irisgarriak eta erraz iristekoak diren gutxi horiek gauzak uzteko erabiltzen dira, eta ondorioz, **erabilezin bihurtzen dira**.
- **Keinu-hizkuntzako interpreteak falta dira, eta ez da jarri beste baliabiderik entzumen-ezintasuna duten pertsonekin komunikatzeko**.
- **Komunei dagokienez, ospitaleetan daudenak ez dira nahikoak** eta gutxi horiek ere **akats asko dituzte**. Ikusmen- eta entzumen-urritasuna duten pertsonen informazio nahikorik ematen ez zaienez, ez dakite komunitetako zein den egokiena beren egoeran.
- Ospitaleetan, oro har, **behar bezalako seinaleztapenik eza antzematen da**: ibilbideak ez daude seinaleztatuta eta kalean ez dago informaziorik gune komunitaraino heltzeko.
- **Laguntza pertsonal gehiagoren falta sumatzen da, bai ospitalerako sarbidean, baita, beharrezkoa denean, laguntza jasotzeko orduan ere**.
- Aldagelak **lehenbailehen egokitu behar dira, irisgarriak izan daitezten**. Bestela, **ezin da bermatu mugikortasun urriko pertsonak duintasunez tratatzea**, askotan, arropa langileen aurrean jantzi/erantzi behar izaten baitute.
- **Ginekologoek kontsultetan dauden irisgarritasun-gabeziak** konpontzeko eskatu da, miaketa egitera toki horietara jotzen dutenean, askotariko zailtasunak izaten baitituzte.
- Era berean, **mota guztietako kabinetan (erradiografiak eta abar egiteko) antze-man dira irisgarritasun-arazoak**, baita entzumen-ezintasuna duten gaixoen komunikatzeko biderik eza ere.
- Horretaz gain, premiazkoa dirudi ospitaleen inguruetan **aparkaleku erresebatu gehiago jartzea** eta daudenen ezaugarriak hobetzea, sarreratik hurbilago egon daitezten. Halaber, begiratu beharko litzateke behar bezala erabiltzen ote diren.
- Behin eta berriro aldarrikatzen diren beste kontu batzuetako bat **gune desberdinetan gela irisgarriak** egotea da. **Irisgarritasun-eredutzat jotzeko moduko gela eta komun bat egitea** ere aipatzen da askotan.

Ondorio orokorrak

Ondorio orokorrak

Txostenean zerrendatzen diren zailtasunak ez dira berberak ospitale-esparru guztietan, eta ez diete berdin eragiten desgaitasun mota guztiei; era berean, ez dute garrantzi berbera ospitaleetako kanpo-zerbitzuetan eta ospitaleratzetik eratorritako zerbitzuetan. Hala ere, ikuspegi orokorra errazte aldera, ondorio horiek multzokatuta aurkeztea erabaki da, informazioa biltzeko bisitetan jaso dugun informazio grafiko eta tekniko andana dela-eta.

Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legetik eratorritako betebeharrak betetze aldera, eta garrantzia-ordenari gagozkiola, garrantzirik handiena eman behar zaio euskal administrazio publikoek, sanitarioek bereziki, plangintza errealista eta jasagarri egokia egin dezatela, epe ertainera eta luzera begirakoa, modu eraginkorrean jorratu ahal izan daitezen txostenean azpimarratzen diren gabeziak.

Horretarako, lehentasunez jorratu beharko da osasun-gune bakoitzean baliabide-kopuru egokia egoteko beharra. Baliabide horiek pixkanaka joango dira osatzen, baina, gutxienez, hauteman diren arazo larrienak arintzea ahalbidetuko dute, bai eta erabiltzaile-kopuru handienarentzako hobekuntzak ekartzea ahalbidetuko ere; bereziki, kanpo-kontsultetako zerbitzuetan eta proba diagnostikoak egiteko zerbitzuetan.

1. Irisgarritasun-baldintzak: EAEko ospitaleetako irisgarritasun-baldintzak eta beste eremu batzuetan (garraioan, hezkuntzan, kirol-instalazioetan eta abarretan) daudenak ez dira oso ezberdinak. Irisgarritasun-katearen etapa giltzarri guztietan atzematen dira gabezia pilatuak irisgarritasun-egoeraren arloan:

- Ospitaleetarako sarbideen ibilbideetan.
- Ospitale-esparruaren barrualdeko ibilbideetan.
- Ospitale-zentroak eratzen dituzten sekzioen barne-mugikortasunean: itxarongeletan, kontsultetan, askotariko diagnostiko-unitateetan, logeletan eta abarretan.
- Nabarmendu egin behar da, beste eremu batzuetan bezalaxe, osasun-instalazioetan funtsean ez dagoela inolako neurririk ikusmen- edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonak informaziora berdintasun-baldintzetan iristea bermatzeko.

2. Esparru juridikoa: Irisgarritasunaren gaiaren esparru juridikoa, EAEn, Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak finkatzen du. Bi garapen-dekretu hauek ezartzen dira baldintza teknikoak, eta lege horretan jasotzen diren esku hartzeko eremuetan ezar daitezke: apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan batetik, zeinak hiri-in-

guruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, eta garraioan irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen uztailaren 10eko 126/2001 Dekretuan bestetik.

3. Bilakaera eta egungo egoera: Jakin egin behar da lege hori indarrean jarri zenetik aurrerapauso handiak egin direla EAEko osasun-zentroetan irisgarritasun-baldintza teknikoak bermatzeko neurriak hartzeko orduan.

Batez ere, eraikin berrietan ikus daiteke bilakaera hori; izan ere, zeroko kotan eraikitzen dira sarrerak, oztoporik gabe eraikitzen dira esparruaren barrualdeko ibilbideak, komun egokituak jartzen dira eraikinetako solairu guztietan, eta irisgarritasuna bermatzen da ospitaleko logela guztietan.

Hala eta guztiz ere, txosten honetan egindako diagnostikoak aukera ematen du ondorioztatzeko gaur egun gabezia oso adierazgarriak daudela, eta erabilera unibertsala izatea mugatzen dutela horiek.

Berriak ez diren eraikinei dagokionez, adierazi beharra dugu horiek birgaitzeko eta egokitzeko ahalegin handia egin dela, eta hainbat jarduera egin direla instalazioen irisgarritasuna bermatzeari eta sustatzeari begira. Dena dela, ikerlan honetako datuei erreparatuta, esan dezakegu irisgarritasunean lortu diren hobekuntzak ez direla nahikoak oraindik, mugikortasun murriztua duten pertsonak EAEko ospitale-zerbitzuetara modu autonomoan eta berdintasun-baldintzetan iritsi ahal izateko mailara iristeari dagokionez.

Askotarikoak dira irisgarritasuna bultzatzeko obrak egiteko unean dauden zailtasunak azal ditzaketan arrazoiak eta kausak. Batzuetan, egiaztatu ahal izan dugu eraikinen antzinasunak eragiten duela zailtasun hori; beste batzuetan, ordea, instalazioen erabilera okerrak eragiten du iristezintasuna.

4. Osasun-langileen laguntza: Azpimarratzekoa da, baita ere, osasun-langileek oro har egiten duten lana; izan ere, ahalegin handia egiten dute mugikortasun murriztua duten pertsonak osasun-zerbitzuak erabiltzean topatzen dituzten zailtasunak eta oztopoak konpon daitezen, ahalik eta hoberen iritsi ahal izan daitezen horiek.

Txosten hau egiteko sortu zen kontraste-taldeak bat-batean eta aurretik pentsatu gabe nabarmendu zuen, Euskadiko ospitale-sisteman oro har eta ospitale zehatz batzuetan bereziki hauteman diren mugaketak eta gabeziak albo batera utzi gabe, desgaitasunen bat duten pertsonak zerbitzuetara, proba diagnostikoetara edo ospitaleratze-guneetara iristeari dagokionez, zerbitzua berez uste dena baino baldintza hobetan burutzea lortzen dutela osasun-langileen konpromisoak, sentikortasunak eta egite onak.

Egite hori medikuei, zalantzarik gabe artatzen baitituzte korridoreetan kontsultetara sar ezin daitezkeen pazienteak, zeladorei, esku-ohetarako transferentzia egiten laguntzen baitute, erizainei, irisgarriak ez diren logeletan ospitaleratuta dauden pazienteen egoaldia hobetzen saiatzen baitira, mantentze-lanetako langileei eta desgaitasunen bat duten pertsonak osasun-zerbitzuetara ahalik eta baldintza onenetan iritsi ahal izatea ahalbidetzen duten langile guztiei egotz dakieke.

5. Osasun-langileek azpiegiturak planifikatzeko eta egikartzeko orduan duten parte-hartzea: Kontraste-taldean eskuratu diren lehenengo ondorioen artean, langileen eta ospitale bakoitzeko administrariaren artean komunikazio-bideak irekitzeko beharra agertzen da, kontu horien inguruan komunikazio urria edo ez-eraginkorra dagoela hautematen baita. Gainera, nabarmendu dezakegunez, hobetzeko aukera handia egongo litzateke beren eguneroko lana sistema honen irisgarritasun-egoera eskasetan egin behar duten profesionalen ekarpenak kontuan hartuko balira. Beraz, osasun-langileek nahiz erabiltzaileek obra posibleen inguruan edo jorratu beharko liratekeen edo jorra litezkeen hobekuntzen inguruan egiten dituzten ekarpenak kontsultatzeko eta aztertzeko bide arinagoak sortu beharko lirateke.

6. Irisgarritasun-katea: Osasun-eremuan irisgarritasun-katea osatzen duten elementuei dagokienean, lehenik eta behin, ospitale-zentroetara iristeko balio duten hiri-inguruneen egoera oro har txarra dela ikusi dela adierazi behar da; hala nola: ospitale bereko eraikinetara sartzeko ibilbideak eta horien artean mugitzeko ibilbideak, desgaitasunen bat dutenentzat gordetako aparkaleku-gabezia (gainera, aparkaleku horiek gutxitan egoten dira sarrera nagusietatik hurbil, eta hala egon beharko lukete), bide ezegokiak garraio publikoen geralekueetatik, garraio publiko gutxi edo, batzuetan, horien maiztasun urria.

Aintzat hartu behar da hiriguneetatik urrun daudela gure osasun-zentro asko, eta, gainera, malda handiegia duten guneetan egoten direla eraikinak. Horrek are beharrezkoagoa egiten du ibilbide irisgarriak eta oztoporik gabeak jartzea, eta garraio publikoaren sisteman eskaintza egokia emanez iritsi ahal izatea bermatzea.

7. Komun egokituak: Era berean, datuetan ikus daitekeenez, gabezia handia dago instalazioetako gune komunetan eta proba diagnostiko jakin batzuk egiteko eremuetan egon behar den komun egokituaren kopuruan. Ospitale batzuetan, eraikinaren komunikazio horizontaletan komun egokiturik ez dagoela egiaztatu ahal izan da. Komun egokiturik egon ezean, lekualdaketak egin behar izaten dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonak, edo eratzikitako eraikinetara joan.

8. Itxarongelak: Egiaztatu ahal izan denaren arabera, itxarongelek, askotan, ez dute behar besteko tokirik edukitzen gurpildun aulkien erabiltzaileentzat. Sarreretako atondoetan dauden itxarongelen %84an, ez dago ezinduei gordetako tokirik, eta, aztertu diren gainerako itxarongeletan, guztizkoaren %90ean falta dira horiei gordetako tokiak. Ondorioz, igarobideetan edo itxaroteko aurreikusita dauden guneetatik kanpo egon behar izaten dute gurpildun aulkien erabiltzaileek, beren arretarako behar den informaziorako sarbidea zailduz.

9. Makina saltzaileak: Makina saltzaileak, askotan, iristezinak izaten dira bai gurpildun aulkien erabiltzaileentzat, bai ikusmen-desgaitasuna dutenentzat. Gainera, egiaztatu ahal izan denez, konplexuak izaten dira adinekoek edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonak erabil ditzaten.

10. Harrera-mahaiak: Garbi ikusi da, gainera, oro har, harrera-mahaiak gaizki erabiltzen direla askotan, eta ez dutela beren funtzioa betetzen. Gehienak ez dira irisgarriak gurpildun aulkien erabiltzaileentzat, eta erraz iristekoak diren horiek beste helburu batzuetarako erabiltzen dira (askotariko gauzak uzteko...), eta, ondorioz, erabiltzein bihurtzen dira.

11. Ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzako komunikazioa Oro har, zeinu-hizkuntzako interpreteak falta dira, eta ez dago entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin komunikatzeko neurri teknikorik.

12. Proba diagnostikoak egiteko kabinak eta ekipamenduak: Kezka handiz ikusi da irisgarritasun-zailtasun handiak dituzten kabina eta ekipamendu bereziak daudela, mediku-diagnostiko jakin batzuk egiteko erabakigarriak direnak. Audiometriak, arnaske-ta-probak eta proba kardiologikoak egiteko kabinez, PUVA kabinez eta abarrez ari gara.

Ekipamendu horiek erabili ezin izatearen ondorioz, batzuetan zaila da mugikortasun urriko pertsonen dagozkien probak egitea, eta, beste batzuetan, berriz, ezinezkoa da. Horrek mediku-diagnostikoetan eragin dezake, baita arin hautemateko probetan ere.

13. Ginekologia-kontsultak: Ginekologia-arretako kontsultetan ere irisgarritasun-zailtasunak daudela egiaztatu da. Egin diren egiaztapenetan ikusi ahal izan da irisgarritasun-arazoak daudela bai erabiltzen diren tresnekin, bai ekipamenduarekin (esku-oheak, atondoak eta komunak); ematen du ez dutela kontuan hartzen desgaitasunen bat duten emakumeak bertaratu daitezkeela. Bisitatu diren ginekologia-kontsultetan, ez da aurkitu diagnostikoak egiteko mahai irisgarririk. Horregatik salatzen dute desgaitasunen bat duten emakumeek ginekologia-arreta jasotzeko ezintasuna.

14. Aldagelak: Bai kontsulta orokorretako aldagelei dagokienez, bai erradiologia-eremuko eta ginekologia-kontsultetako aldagelei dagokienez, adierazi beharra dugu %14 bakarrik direla irisgarriak, baina ez dituztela nahitaezko alarmak eta eserleku egokiak, nabarmen zailduz horrela mugikortasun murriztua duten pertsonak modu autonomoan ibili ahal izatea. Aldagelak egokitu beharra dago, desgaitasunen bat duten pertsonen toki duinak izan ditzaten, eta langileen aurrean gehiegitan erantzi behar izatea saihesteko.

15. Logelak: Adierazgarria da irisgarriak edo irisgarritasun mugatua duten logelen kopurua hain urria izatea EAEko ospitale gehienetan.

Oro har egiaztatu ahal izan dugunez, traumatologia-eremuan daude logela egokituak, eta, beraz, eremu horretan ospitaleratzen dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonak, ospitalean egon behar izatea eragin duen patologia edozein izanik ere, dagokien tratamendua jaso dezaten. Antolakuntza-arazo ugari sorrazten ditu egoera horrek.

Era berean, ikusi denaren arabera, eta mugikortasun murriztua duten pertsonen gurgildun aulkia barrualdean utzi ahal izateari begira, askotan ez da nahikoa izaten logelen barrualdeko espazioa. Horrek galarazi egiten du mugikortasun murriztua duten pertsonen logelan bertan mugitu ahal izatea, eta etengabeko laguntza behar izaten dute moldatu ahal izan daitezen.

Era berean, ezin dezakegu ahatz logelen espazioa erabakigarria izaten dela mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntzaile aritu daitezen, edo bisitari gisa joan daitezen ospitaleetara.

16. Laguntza teknikoak: Edonola ere, inguruabar jakinetan, hauteman diren gabeziak arindu ditzakete laguntza tekniko egokiek, gurgildun aulkien erabiltzaileak ospitaleko

zerbitzuetara iristea errazten duten heinean. Zentzu horretan, erabakigarria litzateke garabiak jartzea ospitaleko hainbat eremutan, bai kontsulta-guneetan, bai probetarako kabinetan, bai logetan, mugikortasun murriztua duten pertsonen egin behar duten transferentzia egiteari begira. Hala ere, laguntza tekniko horien hornidura oraindik nahikoa ez dela egiaztatu dute osasun-langileek eta pazienteek beraiek. Batzuetan, transferentzia egitea galarazi diezaiokie horrek erabiltzaileari.

17. Lau urterako programak: Bukatzeko, azpimarratu nahi dugu **irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programa** dela oinarritzko tresna, lehendik dauden titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikoko hirialde, espazio publiko, eraikin, garraio eta informazio eta komunikazio-sistemetara irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko, hala agintzen baitu abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, irisgarritasuna sustatzekoak. Programa horren bidez, honako hauek egin behar dituzte eskudun administrazio eta gainerako erakunde publiko guztiek:

- egoeraren gaineko diagnostikoa egin eta egokitu behar diren kanpoko tokien, eraikinen, garraioaren eta komunikazioaren inbentarioa egin;
- eraginkortasun eta pertsona-kopuru handienak aintzat hartuko dituen lehentasun-ordena zehaztu;
- egokitzapenen finantza-programa ekonomikoa eta egutegia onartu.

Hala eta guztiz ere, irisgarritasuna sustatzeko legeak dagozkion lau urteko programak egiteko ezarri duen epea baino askoz denbora luzeagoa igaro da, eta jaso dugun informazio eskasa aztertuta, esan dezakegu EAEko sareko ospitale ia bakar batek ere ez duela egin agindutako irisgarritasun-plana. Zumarragako Ospitaleak bakarrik egin du irisgarritasunaren diagnostikoari buruzko ebaluazio-txostena, 2009. urtean.

Hori dela eta, lau urteko programa egokiak egiteko beharra azpimarratu behar dugu, plan horiek ezinbesteko tresnak baitira pertsona guztien irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko.

Gomendioak

Gomendioak

Gomendio hauek proposatzen dira, bai orokorrak, bai eskumen-banaketaren araberakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako instalazioen irisgarritasun-baldintzak hobetze aldera:

Gomendio orokorrak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eta EAEko udalei:

1. Euskadiko osasun-sisteman irisgarritasun unibertsalaren baldintzak sustatzeari begirako estrategia diseinatzea gomendatzen da, eta luzamendurik gabe egin dezatela, modu jarraituan, xede horretarako ezartzen den planarekin bat egiten duen finantza-baliabide egokiz hornituz, eta txosten honetan jasotzen den diagnostikoan oinarritu daitezela xedeak eta lehentasunak zehazteko oinean.

2. Euskal osasun-sistema erregulatzen duen esparru juridikoan egin behar diren aldaketak egin daitezela gomendatzen da, irisgarritasun unibertsalaren printzipioa eta baldintza tekniko nahikoak sartzeari begira, eta osasunera iristeko aukera-berdintasuna eta osasunerako eskubidea berma daitezen.

Gomendioak hiri-inguruneen, espazio publikoen eta hiriko zein hiriarteko garraioaren erakunde arduradunei; hau da, udalei, foru-aldundiei eta Osakidetzari:

3. Ospitale-instalazioetara iristeko ibilbideen irisgarritasun-baldintzak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, eta irisgarritasun-katean oinarritutako ikuspuntutik har daitezela:

- a) Ospitale-instalazioetatik hurbil dauden kaleetan.
- b) Garraio-geralekuetan edo geltokietan.
- c) Mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuetan.

4. Oinezkoen ibilbideen irisgarritasun-baldintzak bermatzeko behar diren neurriak modu jarraituan hartzea gomendatzen da. Horretarako, hauek egin beharko dira:

- a) Oinezkoak ibiltzea eta istea zailtzen edo eragozten duten oztopoak kendu.
- b) Zeroko kotako beheguneekin egin oinezkoen ibilbide horiek.
- c) Arrapalak jarri eskaileretan, dagozkien zehaztasun teknikoekin.
- d) Behar bezala egin oinezkoen ibilbideetako zoladurak.
- e) Soinudun gailuak jarri oinezkoen ibilbideetan dauden semaforoetan, pultsadoreak altuera egokian egongo direla bermatuz, eta erraz saka daitezkeela, eskuzko semaforoetan argi-aldaketa aktibatzeke.

5. Oinezkoen ibilbideen seinaleztapen-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Norabidezko seinaleztapen egokia sartzea, Brailleko eta goi-erliebezko informazioarekin.
- b) Oinez hautemateko pasabideak jartzea, eta ibilbideetako kota aldatzea.

6. Ospitale-instalazioetara iristeko garraio publikoa egongo dela ziurtatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, bai eta **garraio bideen, azpiegituren eta ekimenduen** irisgarritasun-baldintzak bermatzea ere. Horretarako, hau erraztu beharko da:

- a) Garraio publikoaren lineak eta maiztasunak areagotzea ospitale-instalazio guztietara, estrategikoak baitira horiek herritarren ongizateari begira; bereziki, hirigunee-tatik urrun bizi direnentzat.
- b) Garraio publikoa egunero eta etengabe egongo dela bermatzea; batez ere, aste-buruetan edo jaiegunetan egiaztatu diren mugaketan harira.
- c) Geralekuen, markesinen eta garraio-azpiegituren gainerako elementuen irisgarritasun-baldintzak bermatzea.
- d) Komunikazio- eta informazio-sistema akustikoa sustatzea geralekuetan, markesinetan eta garraio-azpiegituren gainerako elementuetan, legez aurreikusten diren irisgarritasun-baldintza teknikoekin bat eginez.
- e) Garraio publikoko ibilgailuetara igotzeko plataformak sustatzea, bai eta horiek egokitzea ere, hala behar duten geralekuetan.

7. Mugikortasun urria duten pertsonen erreserbatutako aparkalekuen arloan indarrean dagoen esparru juridikoa betetzea gomendatzen da, eta, zehazki, neurri hauek hartzea:

- a) Gutxienez, legez ezarritako aparkaleku-kopurua erreserbatzea mugikortasun urria dutenentzat.
- b) Mugikortasun urria dutenentzako aparkalekuetako zehaztasun teknikoak betetzea, legez aurreikusitakoak; bereziki, aparkaleku horien neurriak eta seinalez-tapena.
- c) Zebrabideak egotea mugikortasun urria dutenentzako aparkalekuen ondoan, era-biltzailei arrisku-egoerak saihesteko xedez.

Gomendioak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari, ospitale-instalazioen erakunde arduraduna den heinean:

8. Ospitale guztietan Irisgarritasun Plan bat diseinatzea eta onartzea gomendatzen da, **kronograma egoki bat finkatuz, horien kanpoaldeko instalazioak hobetzeko xedez,** eta lehentasuna emanez oinezkoen inguruneak egokitzeke jardueri:

- a) Oinezkoen ibilbide argiagoak eta irisgarriagoak egotea, ibilgailuei ordez oinezkoen emanez lehentasuna, ospitaleen kanpoaldeko instalazioetan.
- b) Arrapalak eraikitzea oinezkoen ibilbide guztietan dauden eskaileretan, mugikortasun urria dutenek itzulginguru handiak egitea saihestuz horrela, ospitalera iristeari dagokionez.
- c) Espalioen irisgarritasun-baldintzak betetzea, zabalagoak eginez horiek eta dauden oztopoak kenduz (posteak, paperontziak eta gainerako hiri-altzariak).
- d) Zoladuren irisgarritasun-baldintzak betetzea; adibidez, hartxintzarrezko edo hondarrezko lurak kenduz, oztopoa baitira horiek mugikortasun urria duten pertsonentzat.

(VIII). LABURPENA

- e) Zebrabideen irisgarritasun-baldintzak betetzea; bereziki, espaloietara iristeko behaguneak zeroko kotan jartzeari dagokionez.
- f) Ibilbide guztietako komunikazio- eta seinaleztapen-sistemak ezartzeko eta hobetzeko plan bat egitea. Plan horrek hauek jaso beharko ditu:
 - Sestra-aldaketak.
 - Zebrabideak.
 - Sarrera nagusietaranzko norabidezko gida-zerrendak.
 - Norabidezko eta edozein motatako seinaleztapena.
 - Informazioa Braillez eta goi-erliebez.
 - Elementu gardenen seinaleztapen egokia.
- g) Soinu-gailuak jartzea ospitale-guneen barrualdeko oinezkoen ibilbideetan dauden semaforoetan, pultsadoreak altuera egokian egongo direla bermatuz, eta erraz saka daitezkeela, eskuzko semaforoetan argi-aldaketa aktibatuzeko.

9. Era berean, ospitale-guneetan mugikortasun urria duten pertsonen erreserbatutako aparkalekuen arloan indarrean dagoen esparru juridikoa betetzea gomendatzen da, 7. gomendioan azaldu diren aurreikuspenekin bat eginez. Bestetik, mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako aparkalekuak ospitaleetako sarrera nagusietatik hurbil jartzea gomendatzen da.

10. Ospitaleetako sarreretan irisgarritasun-, segurtasun- eta erosotasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, eta, zehazki, zehazten den plangintzarekin bat egin dezatela:

- a) Ospitaleetako sarreretan maila-aldaketa guztiak kentzea, inolako maldarik gabeko ateak jartzea eta gurgildun aulkien erabiltzaileek edo mugikortasun urria duten guztiak bira egiteko behar duten diametroa egotea bermatzea.
- b) Automatikoki irekitzeko ateak sustatzea, ospitaleetara modu autonomoan sartu ahal izan daitezen herritar guztiak; zehazki, mugikortasun urria duten pertsonak.
- c) Seinaleztapen egokia egotea sarreretako ateetan, behar den kontrastea dagoela bermatuz, eta seinaleztapen-banda egokiak jarriz kristalezko ateetan.
- d) Ospitaleetara iristeko arrapalen irisgarritasun-baldintzak betetzea (malda, zabale-
ra, eskailera-buruak, heldulekuak, zoladura eta abar).
- e) Koska isolatuak dituzten sarrerak kentzea.
- f) Sarreretako lanpasak eta alfonbrak lurrera finkatzea, estropezu egitea edo erortzea saiheste aldera.
- g) Irristatzen aurkako zoladura, bai lehor dagoenean, bai bustita dagoenean.
- h) Behar diren neurriak hartzea ikusmen-desgaitasuna dutenentzat:

- Sarrera guztietako komunikazio- eta seinaleztapen-sistemak ezartzeko eta hobetzeko plan bat egitea.
- Sarrera nagusietara iristeko ibilbideetan, bai eta sarreretatik atondoetako sarrera-mahaietara iristeko ibilbideetan ere, seinaleztapen-zerrendak jartzea.
- Informazioa Braillez eta goi-erliebez ematea.
- Kokatzeko planoak Braillez eta goi-erliebez jartzea.
- i) Entzumen-desgaitasuna dutenei zuzendutako neurriak hartzea, sarreretan norabidezko seinaleztapena jarriz.
- j) Itxarongelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako guneak ahalbidetuz eta laguntzailearentzako eserleku bat jarriz horietatik hurbil, eta eserleku egokiak jarriz gurgildun aulkien erabiltzaileentzat.
- k) Ate guztietatik igarotzeko gutxieneko zabalera librea betetzea.
- l) Arrapalak jartzea eskailera dituzten sarrera guztietan.
- m) Arrapalen irisgarritasun-baldintzak betetzea.

11. Jendeari arreta emateko harrera-mahaien eta leihatilen irisgarritasun-baldintzak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, bai horien diseinuari dagokionean, bai oztopoak kentzeari dagokionean. Era berean, jendeari arreta emateko harrera-mahaien eta leihatilen irisgarritasun unibertsala bermatzeko zuzendutako neurriak sustatu behako lirateke, pertsona guztiei egokitutako diseinu baten arabera.

12. Ospitaleetako larrialdietako guneen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak modu jarraituan hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- b) Automatikoki irekitzeko ateak sustatzea, modu autonomoan sartu ahal izan daitezen herritar guztiak, eta, zehazki, mugikortasun urria duten pertsonak.
- c) Sarreretako lanpasak eta alfonbrak lurrera finkatzea, estropezu egitea edo erortzea saiheste aldera.
- d) Irristatzen aurkako zoladura, bai lehor dagoenean, bai bustita dagoenean.
- e) Kanpoaldeko tinbreen irisgarritasun-baldintza teknikoak betetzea.
- f) Sarrera guztietan jartzea komunikazio- eta seinaleztapen-sistemak.
- g) Informazioa Braillez eta goi-erliebez ematea.
- h) Norabidezko seinaleztapen egokia jartzea.
- i) Itxarongelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, gurgildun aulkien erabiltzaileei gordetako guneak ahalbidetuz eta laguntzailearentzako eserleku bat jarriz horietatik hurbil, eta eserleku egokiak jarriz gurgildun aulkien erabiltzaileentzat.
- j) Entzumen-desgaitasuna dutenei informazioa modu irisgarrian emango zaiela bermatzea.

13. Eskaileren irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; bereziki, bi aldeetan helduleku bikoitza egoteari dagokionez, baldintza tekniko egokiak betez. Horrekin batera, eskaileretatik hurbil informazioa jar liteke, goiko eta beheko pisuetan dauden zerbitzuei buruzkoa. Bestetik, heldulekuetan ikusmen-desgaitasuna dutenentzako norabidezko seinaleztapen egokia jartzea gomendatzen da.

14. Ospitaleetan dauden igogailuen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak modu jarraituan hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Kanpoaldeko pultsadoreak altuera egokian egotea.
- b) Igogailuko ateetatik igarotzeko gutxieneko zabalera betetzea, bai eta paretekiko kontraste egokia egotea ere.
- c) Oinez hautemateko seinaleztapen egokia egotea igogailuen sarbidean.
- d) Barrualdeko botoiak altuera egokian egotea, eta informazioa Braillez eta goi-erliebez ere ematea.
- e) Soinudun informazioa egotea kabinen barrualdean.
- f) Kanpoaldearekin komunikatzeko interfonoak edo telefonoak egotea.
- g) Informazio-pantailak jartzea herritar guztientzat, eta, batez ere, entzumen-desgaitasuna dutenentzat.

15. Ospitaleetan dauden komun orokorren irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Komunetara sartzeko arrapalen irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- b) Mugikortasun urria dutenentzako komun erreserbatuak jartzea komun orokorretan, erreserbatuak urrun egoten baitira batzuetan, nahasmendua eragiteko arriskuarekin. Horrekin, erreserbatutako komun gutxieneko kopurua beteko litzateke.
- c) Erreserbatutako komun hurbilenak non dauden adierazten duen seinaleztapen egokia jartzea komun orokorretan.
- d) Kristalezko aletean seinaleztapen egokia jartzea.
- e) Informazioa Braillez eta goi-erliebez jartzea.

16. Ospitaleetan mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako komun irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Ospitale-gune guztietan egotea mugikortasun urria dutenei erreserbatutako eta egokitutako komunak, beste gune edo solairu batzuetara joan behar izatea saihesteko.
- b) Dauden komun erreserbatutako seinaleztapena egokia izatea.

- c) Sarreretako koska guztiak kentzea, eta arrapalek irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- d) Irisgarritasun-baldintzak betetzea erreserbatutako komun sarreretan; bereziki, igarotzeko zabalera egokia duten eta kanpoalderantz irekitzen diren ateak egoteari dagokionean (lerragarriak izan daitezke).
- e) Argi automatikorik ez jartzea.
- f) Pediatria-guneetan, irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten komunak egotea mugikortasun urria duten adingabeentzat.
- g) Gurpildun aulki batetik komun-zulora lekualdatzea ahalbidetzen duen albo bat egotea gutxienez.
- h) Irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten heldulekuak jartzea.
- i) Komun-zuloak altuera egokian egotea.
- j) “Eskutoki” motako iturriak kentzea, eta aginte bakarreko txorrotak edo txorrotak automatikoak jartzea horien ordez.
- k) Komuneko osagaiak altuera egokian jartzea.
- l) Kordoi motako alarma-sistema jartzea, eta behar bezala edukitzea hori, funtzionatuko duela bermatzeko.
- m) Informazioa hobetzea ikusmen-desgaitasuna dutenentzat.
- n) Biltegiratzeko toki nahikoak egotea ospitaleetan, mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako komunak xede horrekin erabiltzea saihesteko.

17. Ospitaleetan dauden lagundutako komun irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, mugikortasun urria dutenek erabili ahal izan ditzaten.

18. Ospitaleetan dauden itxarongelen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Itxarongelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako guneak ahalbidetuz eta laguntzailearentzako eserleku bat jarriz horietatik hurbil, eta eserleku egokiak jarriz gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.
- b) Itxarongelak korridoreetan ez jartzea.
- c) Informazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- d) Soinudun informazioa sartzen joatea argidun ohartarazpenetan edo txanda emateko makinetan.
- e) Arrapalen irisgarritasun-baldintzak betetzea txanda emateko makinetan.

19. Kontsulta orokorren irisgarritasun-baldintza egokiak plangintza bideragarri baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Oztoporik gabeko ibilbideak eta korridoreak egotea bermatzea.

- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- d) Informazio egokia egotea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- e) Postontzien, behatxuloen eta tinbreen irisgarritasun-baldintzak betetzea, bai al-tuerari dagokionez, bai seinaleztapenari dagokionez.
- f) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- g) Diagnostiko-zerbitzuetako besaulkien eta kabinen irisgarritasun-baldintzak be-tetzea. Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak le-kualdatzeko.
- h) Aldagelen eta komunen irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- i) Biltegitratzeko toki nahikoa egotea, mugikortasun urria dutenak aldageletara eta komunetara sartzeko eta horietan mugitzea zailtzen edo eragozten duten oztopoak egotea saihesteko.
- j) Entzumen-desgaitasuna dutenak komunikatzea bermatzeko protokoloak egitea.

20. Erradiologia-zerbitzuen eta otorrinolaringologia-, arnasketa- eta indar-probak egi-teko kabinen irisgarritasun-baldintza egokiak jarduera jarraitu baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da.

- a) Horietara sartzeko ibilbideak zailtzen dituzten oztopoak kentzea.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Erradiologia-ekipoen irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- d) Diagnostiko-mahaien irisgarritasun-baldintzak betetzea, mugikortasun murriztua dutenak lekualdatzeko garabiak eta polipastoak barne hartuta.
- e) Kabinen barrualdean komunikazio-sistema egokiak jartzea (argidun seinaleak edo beste mota batekoak), entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat.
- f) Aldagela irisgarriak egotea erradiologia-gune guztietan.
- g) Aldageletan alarma-sistemak jartzea.
- h) Mugikortasun urriko pertsonentzako komun irisgarriak egotea.

21. Errehabilitazio-zerbitzuen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Sarreren eta ateen irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- b) Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak lekualdatze-ko.
- c) Informazio- eta komunikazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaita-suna dutenentzat.

22. Gimnasioen edo errehabilitazio-guneen irisgarritasun-baldintza egokiak ber-matzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Oztoporik gabeko ibilbideak eta korridoreak egotea bermatzea.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- d) Gutxienez aldagela irisgarri bat egotea, mugikortasun murriztua dutenentzat ego-kiak diren ezaugarriekin.
- e) Irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten dutxak egotea.
- f) Komunetan, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako komun irisgarri bat egotea gutxienez, sexuaren arabera bereizita.
- g) Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak lekualdatze-ko.
- h) Informazio- eta komunikazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaita-suna dutenentzat.
- i) Irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak bermatzea errehabilitazio-eki-poak eta -gailuak sartzeko.

23. Ginekologia-kontsultetan irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Oztoporik gabeko ibilbideak eta korridoreak egotea bermatzea.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Gutxienez ginekologia-eremu irisgarri bat egotea ospitale bakoitzean, ezauga-ri egokiekin, besaulki edo esku-ohere egokiekin, irisgarritasun-baldintza egokiak dituen aldagelarekin, eta garabia edo polipastoa jartzea mugikortasun murriztua dutenak lekualdatzeko.
- d) Informazio- eta komunikazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaita-suna dutenentzat.

24. Pazientearen eta erabiltzailearen arretarako zerbitzuen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- b) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- c) Informazio- eta komunikazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaita-suna dutenentzat.

25. Logelen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanakako plangintza baten bidez ber-matzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Ahalik eta logela egokitu gehien egotea mugikortasun urria duten pertsonentzat, ospitaleratze-gune guztietan.

- b) Pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioekin bat egiten duten logela- eta komun-ereduak egitea, eta EAeko ospitaleetan ezartzea horiek, pixkanaka.
- c) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- d) Gurpildun aulkien erabiltzaileek logelen barrualdean bira egin ahal izatea, diametro egokiarekin.
- e) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- f) Logeletan dauden gailuen eta makina saltzaileen (telebista-txartelak, telefonoak, etengailuak eta abar) irisgarritasun-baldintzak betetzea.
- g) Kordoi motako alarma-sistemak jartzea komunetan, eta behar bezala edukitzea horiek, funtzionatuko dutela bermatzeko.
- h) Ospitaleratuta daudenen gurpildun aulkiak edo mugikortasun urria dutenen laguntza-produktuak uzteko toki nahikoa egotea bermatzea.
- i) Terrazara oztoporik edo trabarik gabe atera ahal izatea bermatzea, logelak terraza duenean.
- j) Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak lekualdatzeko.
- k) Logelak domotizatzeari begirako neurriak sustatzea; bereziki, leihoak irekitzeko mekanismoei, argiei eta abarrei dagokienean.
- l) Logeletako konketen irisgarritasun-baldintzak bermatzea; batez ere, horietara hurbildu ahal izateko toki libreari dagokionean.
- m) Kanpoaldeko hodiak behar bezala instalita egotea, erretzeko arriskuak saihesteko.

26. Boxen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Mugikortasun urriko pertsonentzako gune irisgarri eta egokiak egotea.
- b) Pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioarekin bat egiten duten boxen ereduak egitea.
- c) Mugikortasun urriko pertsonentzako komun irisgarriak egotea.
- d) Dutxen kopuru nahikoa bete ditzala irisgarritasun-baldintzak.

27. Erabilera anitzeko aldagelen eta komun irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, senideei bideratutako komun, dutxen eta aldagelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, mugikortasun urria duten pertsonen egokitutako komun/dutxa/aldagela bana egotea bermatuz gutxienez gune bakoitzeko.

28. Osatek zentroen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten arrapalak egotea eskailerak dauzkaten sarrera guztietan.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea.
- c) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- d) Sarretetako lanpasak eta alfonbrak lurrera finkatzea, estropezu egitea edo erortzea saiheste aldera.
- e) Brailleko eta goi-erliebezko informazioa jartzea, bai eta norabidezko gida-zerrendak jartzea ere.
- f) Itxarongelen irisgarritasun-baldintzak betetzea, gurpildun aulkien erabiltzaileei gordetako guneak ahalbidetuz eta laguntzailearentzako eserleku bat jarriz horietatik hurbil, eta eserleku egokiak jarriz gurpildun aulkien erabiltzaileentzat.
- g) Informazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- h) Gutxienez aldagela irisgarri bat egotea, mugikortasun murriztua dutenentzat behar diren ezaugarriekin.
- i) Gutxienez komun irisgarri bat egotea, mugikortasun murriztua dutenentzat behar diren ezaugarriekin.
- j) Garabiak eta polipastoak jartzea mugikortasun urria duten pertsonak diagnostiko-mahaietara lekualdatzeko.

29. Adingabeentzako eskolen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak modu jarraituan hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea, eta mugikortasun urria duten ikasleentzat egoki antolatuta egotea horiek.
- b) Komun irisgarri bat egotea, mugikortasun murriztua dutenentzat behar diren ezaugarriekin.
- c) Informazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.
- d) Informazioa Brailleko eta goi-erliebez jartzea.

30. Ziber-ikasgelen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanakako plangintza baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Altzarien irisgarritasun-baldintzak betetzea, eta mugikortasun urria duten ikasleentzat egoki antolatuta egotea horiek.
- b) Ordenagailu eta gailu teknologiko irisgarriak egotea, eta egokitzapen posibleak aurreikustea.
- c) Informazio-sistema hobetzea ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzat.

31. Areto nagusien eta auditoriumen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea, behar duten kontrastearekin.

(VIII). LABURPENA

- b) Kristalezko ateetan seinaleztapen egokia jartzea.
- c) Braillezko eta goi-erliebezko informazioa jartzea, bai eta norabidezko gida-zerrendak jartzea ere.
- d) Mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako guneak egotea, behar diren baldintza teknikoekin.
- e) Behar besteko eserleku egokiak egotea mugikortasun urria dutenentzat.
- f) Oholtzetara igotzeko arrapalak egotea.
- g) Mugikortasun urriko pertsonentzako komun irisgarriak egotea.

32. Kaperen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanakako plangintza baten bidez bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da; zehazki, hauek:

- a) Irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten arrapalak egotea eskailerak dauzkaten sarrera guztietan.
- b) Igarotzeko zabalera egokia duten ateak egotea, behar duten kontrastearekin.
- c) Braillezko eta goi-erliebezko informazioa jartzea, bai eta norabidezko gida-zerrendak jartzea ere.
- d) Mugikortasun urria dutenentzat erreserbatutako guneak egotea, behar diren baldintza teknikoekin.
- e) Eserleku egokiak egotea mugikortasun urria dutenentzat.

33. Ospitaleetan dagoen ekipamenduaren irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanaka bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da. Horretarako, beharrezko klausulak edo baldintzak sustatu beharko dira kontratazio publikoko prozeduretan, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak bermatze aldera.

34. Ospitaleetako postontzien eta tinbreen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanaka bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da. Horretarako, elementu horiek instalatzeko protokolo bat egin behar da, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioetan oinarritutakoa.

35. Larrialdietako ateen irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da, indarrean dagoen esparru juridikoa betez, eta barra bi-

koitza duten ateak egotea bermatuz, behar bezala seinaleztatutako irteera irisgarriekin batera.

36. Ospitaleetan dauden makina saltzaileen irisgarritasun-baldintza egokiak pixkanaka egokitzea bermatzeko behar diren neurriak hartzea gomendatzen da. Horretarako, beharrezko klausulak edo baldintzak sustatu beharko dira kontratazio publikoko prozeduretan, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak bermatze aldera.

37. Ospitaleetako elementuak, gailuak eta azpiegiturak hornitzeaz, jartzeaz eta horien mantentze-lanak egiteaz arduratzen diren teknikariei zuzendutako kontzientzia-ekintzetan prestakuntza-prozesuak eta prozesu parte-hartzaileak antolatzea gomendatzen da, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak osasun-eremuan erabat ezartzea bermatzeko xedez.

38. Ospitale bakoitzeko langileen eta zuzendaritzaren arteko komunikazio- eta informazio-bideen arintasuna eta eraginkortasuna hobetzeko behar diren ahaleginak egitea gomendatzen da, birgaitze-lanen proiektuak egiteari dagokionez. Ekarpen egokiak jasotzea eta integratzea ahalbidetuko luke horrek, desgaitasunen bat duten pertsonentzako irisgarritasun funtzionalari mesede egiteko iradokizunak sartze aldera.

39. Desgaitasunen bat duten pertsonak biltzen dituzten elkarteekin prozesu parte-hartzaileak egitea gomendatzen da, bai eta erabiltzaileekin ere, ospitale-esparruak birgaitzeko obra handien proiektuak egiteari dagokionez.


40. Kronograma zehatz bat ezarriz, osasun-guneetan, -gailuetan, -elementuetan eta -zerbitzuetan pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak erabat ezartzea lortzea ahalbidetuko duten protokoloak egitea gomendatzen da.

41. Kontratazio publikoko prozeduretan pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak erabat eta eraginkorki sartzea gomendatzen da, pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak osasun-eremuan bermatzeko xedez.

42. Osasun-instalazioei eta -zerbitzuei dagokienez, irisgarritasunaren arloan, indarrean dagoen esparru juridikoan dauden gabezien diagnostikoa egitea gomendatzen da, araudia aldatzeko ekimenak abiarazi daitezen eskudun eremuetan.

1. (eranskina)

**Eraitza globalak:
irisgarritasun-baldintzak ospitaleetan**



1. eranskina

Emaitza globalak:

irisgarritasun-baldintzak ospitaleetan

Atal honetan, EAEko ospitaleetako analisi-fasean eskuratu-tako emaitza orokorrak erakusten dira. Helburua aztertutako ospitaleen egoeraren diagnostiko orokorra erakustea da, irisgarritasunari dagokionez, baliabide edo zerbitzu motaren arabera taldekatuta, azterlanean aurkeztu diren sistemako osotasuneko ondorioak oinarritu ahal izateko.

Informazio hau testu eta grafiko bidezko informazio xehe eta osatua bilduz sortu dugu. Uste dugu, gainera, oso baliagarria izan daitekeela osasun baliabide horien kudeatzaileentzat, gaur egungo egoeraren mapa xehea irudikatzen lagundu ahal dutelako.

Informazio hau biltzen lagundu diguten Osakidetzako langileei eskerrak eman nahi dizkiegu berriro ere; beraien laguntza gabe litzateke lan hau burutzea.

Kontuan izanik pertsona baten joan-etorri fisikoa puntu bate-tik bestera –batez ere pertsona horrek desgaitasun funtzio-nala badauka– etengabe egin behar da. Hori kontuan izanik, emaitza globalak aztertzeko, kasu bakoitzean joan-etorri hori bermatzeko bete behar den irisgarritasun-kateari jarraitu zaio. Horrela, ondoko espazio hauek aztertu dira: kanpokoak, aparkalekuak, ospitaleetako sarbideak, ospitaleetako larrialdiak, barrualdeak, kontsultak, ginekologiako kontsultak, PEAZ, ingresoetarako eremuak, OSATEKen zentroak, eta beste espazio batzuk (“Beste batzuk” atalean jaso dira).

KANPOKOAK: Kanpoko espazioetan udaletxe kanpo espazioak nahiz ospitale-esparruaren kanpoko espazioak aztertu dira.

KANPOKOAK	
Udaletxeen kanpokoak	
Ospitaleetatik kanpoko ibilbideak/espaloiak	50
Zebrabideak	99
Garraioko geltokiak	42
Ospitale-esparruen kanpoaldeak	
Ospitalerantz doazen zonak edo ibilbideak/espaloiak	58
Zebrabideak	98

APARKALEKUAK: Udalen aparkalekuak eta ospitale-esparruetako aparkalekuak aztertu dira.

APARKALEKUAK	
Udalen aparkalekuak, eremu horietan MUPentzat erreserbatuta dauden plazak barne	18
Aztertutako aparkatze-eremuak, ospitale-esparruen barruan, baita MUPentzat gordetako plazak ere	46

SARBIDEAK: Ospitaleetako sarbideak aztertu dira, baita beraietan dauden itxarongelak ere.

SARBIDEAK	
Ospitaleetako sarbide nagusiak	52
Bestelako sarbideak	50
Sarbideetako itxarongelak	27

LARRIALDI EREMUAK:

LARRIALDI EREMUAK	
Larrialdi eremuak	16

BARRUALDEAK: Atal honetan, mostradoreak eta leihatilak, eskailera-tarteak, igogailuak eta komun orokorrak nahiz ego-

kituak, lagundutako komunak, jantokiak eta hainbat itxaron-gela aztertu dira.

BARRUALDEAK	
Mostradoreak eta leihatilak. Jendeari oro har arreta egiteko espazioak	242
Eraikin guztietako eskailera-mailak. Guztira 31 eraikin aztertu dira: Araba, 7; Bizkaia, 14; Gipuzkoa, 10	94
Igogailuak. 89 igogailu-eredu aztertu dira, guztira 27 eraikinetan	89
Komun orokorrak	129
Komun egokituak	184
Lagundutako komunak	22
Ospitale psikiatrikoetako jantokiak	16
Itxarongelak	245

KONTSULTAK: Zenbait espezialitatetako kotsultak, erradiologiako zonak eta errehabilitazioko kotsultak.

KONTSULTAK	
Hainbat motatako kotsulta analizatuak: Araba, 69; Bizkaia, 227; Gipuzkoa, 123	419
Erradiologiako zonak	65
Aztertu diren errehabilitazioko kotsultak, 10 ospitaletakoak	21
20 ospitaletan aztertu dira gaixoen errehabilitazioa egiten den zonak	24

GINEKOLOGIAKO KONTSULTAK:

GINEKOLOGIAKO KONTSULTAK	
Aztertu diren kotsultak, 7 ospitaletakoak	25

PEAZ:

PEAZ (Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta-zerbitzua)	
Aztertutako unitateak	18

GAIXOAK INGRESATZEKO EREMUAK: Ereku hauetan dauden logela motak aztertu dira, baita boxak eta aldagela batzuk ere.

GAIXOAK INGRESATZEKO EREMUAK	
Logela bikoitzak	198
Banako logelak	47
2 ohe baino gehiagoko logelak	7
Boxak	62
Hainbat motatako aldagelak	7

OSATEK ZENTROAK:

OSATEK ZENTROAK	
Sarrerak	6
Barrualdeak	6

BESTE BATZUK: Atal honetan, aztertu diren elementu hauek sartzen dira: ospitale psikiatrikoak, ziber-gelak, farmaziak, kafetegiak, ekitaldi-aretoak, kaperak, beilatokiak eta makina saltzaileak.

BESTE BATZUK	
Ospitale psikiatrikoak	8
Eskolak	2
Ziber-gelak	4
Farmaziak	7
Kafetegiak	23
Ekitaldi-aretoak	17
Kaperak	13
Beilatokiak	6
Makina saltzaileak	26

Txosten honetan analizatu diren espazioak aztertu direnez, hona hemen beraiek betetzen dituzten irisgarritasun baldintzak.

1.

Kanpo espazioen irisgarritasun baldintzak

Kanpo espazioen erabateko irisgarritasunak ospitaleetan sartu ahal izatea bermatzea dakar; horrenbestez, espazio horien egoerari arreta berezia eskaini behar zaio.

Atal honetan, azaldu dugunez, udalaren erantzukizun peko espazioek eta ospitaleenak direnek bat egiten dute: ospitaleen inguruetak kaleetako espaloiak, eta inguruko kaleetatik horietara doazen sarbideak eta ibilbideak.


Halaber, autobus geltokiak eta mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuak aztertu dira.

1.1. Udal titulartasuneko kanpo ibilbideak

Ibilbide hauetan aztertu den lehenengo elementua ospitaleen inguruetak espaloietako irisgarritasuna, malda mota, bertan sartzeko arrapalarik dagoen, estua den, dauden oztopoak eta abarrekoak dira.

7. grafikoa.

Espaloietako malda



Aztertu diren kanpoko 50 zonetatik, ibilbideen %22 malda gogorreko kaleetan zehar egiten dira. Horrek ospitaleetara sartzeko arazo handiak sortzen ditu ibilbidea oinez egin gura denean. Ospitaleen kokalekua, sarritan, biztanleengandik urrun egoten da. Horren ondorioz, ospitaleetara garraibide pribatuaren bidez joan behar izaten da, garraio publikoko lineak ez baitira zentroetaraino iristen. Egoera horrek, era berean, aparkalekuetan espazio-arazo larriak sortzen ditu, auto-kopuru handia pilatzen duelako. Hori zailtasun erantsia da mugikortasun urriko pertsonentzat.

Ospitaleetan sartzeko ibilbideetan dauden espaloiaren %32k ez dauka igarotzeko gutxieneko zabalera. Horrek pertsona guztiei igarotzea zailtzen die, batez ere mugikortasun urriko pertsonaiei; horrela, batzuk zein besteak errepidetik ibili behar dira, horrek dakarren arriskuarekin.



Virgen Blanca klinika. Espaloi estua.



Ricardo Bermingham ospitalea. Kanpoaldea. Malda gehiegi.




Lezako ospitalea. Hartxintzarrezko zorua aparkalekuan eta sarbidean.



Santa María de la Asunción klinika. Espaloi estuak, farolekin, igarotzea oztopatzen.

8. grafikoa.

Ibilbideak ospitaleetara



Espaloiaren egoera honi beste arazo bat gaineratu behar diogu, oso ohikoa dena: ibilbidean oztopoak aurkitzea, alegia. Zehazki, espaloiaren %50ean igarotzea eragozten duten oztopoak daude, hala nola farolak, paperontziak (%20) eta abar.

Zoru motari dagokionez, esan behar dugu beraien %82 zuzena dela: gogorrak, labainduren aurkakoak eta irtengunerik gabekoak. Hala eta guztiz ere, oraindik ere ospitaleetarako zenbait ibilbidetan zoruak bigunak dira (%8), eta gurpil-aulkiak edo umeen aulkiak ezin dira beraietatik irristatu eta hondoratzen dira, eta makilarekin ibiltzen diren pertsonen estropezu egiten dute.

Ibilbideetan dauden desnibel edo kota-aldaketetan, berriz, beraietako %30 bakarrik daude behar bezala seinalatuta, eta ukimen-seinale egokiak. Maila aldaketa horien ondorioz, ikusteko desgaitasuna daukaten pertsonen estropezu egin ahal dute.



Modu berean, ibilbideen %10ak ez du errespetatzen ibilbideko igarotzeko gutxieneko altuera librekoa. Horrek ikusteko desgaitasuna duten pertsonaiei istripuak eragin ahal dizkie.

Ibilbideetan dauden seinaleei dagokionez, %86ak euskarri egokiak dauzka, eta irakurtzeko erraz hurbil daiteke beraietara, baina %2a bakarrik dago ukimenez atzemateko altuera egokian, eta batek ere ez dauka braillezko edo goi-erliebezko seinalerik.

Esan behar dugu %8ak bakarrik dauzkala norabide-seinaleak; horregatik, kasurik gehienetan baliteke jendeak ez jakitea nora joan behar duten sarrera nagusia edo esparruak izan litzakeen bestelako sarrerak aurkitzeko.

Analizatu diren sarreretan, emandako informazioa erraza eta egokia da kasuen %64an, eta beraien %60ak kontraste egokia dauka kartelen eta karaktereen artean.

San Juan de Dios ospitalea. Farola oinezkoen pasabidean, arrapalarik gabe.




Zamudioko ospitale psikiatrikoa. Seinale iritsiezinak.



9. grafikoa.

Seinaleztapena ospitaleetarako ibilbideetan




Ibilbideen %12ak eskailerak dauzka, eta haietako %13ak bakarrik dauka arrapala. Horrek mugikortasun urriko pertsonari sartzera oztopatzen die, ibilbide handiak egin behar izaten dituztelako arrapala egokia daukan zona bateraino heltzeko.



Basurtuko ospitalea. Arrapala iritsiezina, arrapala gogorregia duelako.

10. grafikoa.


Eskailerak ospitaleetarako ibilbideetan



Arrapala horiek ez dute araudia osorik betetzen, kasu askotan arauz onartutakoa baino aldapa gogorragoa daukate-lako. Sarritan eskudeletako bat bakarrik daukate, eta altuera txikiena izan beharko lukeena ez dago.

11. grafikoa.

Arrapalak ospitaleetarako ibilbideetan



Hiri-altzariei dagokienez, esan behar dugu, zoritxarrez, ibilbideen %32aren irisgarritasunean oztopo bat direla. Ibilbideen %54an bakarrik daude altzariak behar bezala jarrita espaloien kanpoko alboan. Hori ezinbestekoa da ikusteko desgaitasuna daukaten pertsonak orientatu ahal izateko eta ibilbidea egiten jarraitu ahal izateko.

Oro har, elementu gardenek ez daukate banda adierazle egokiak eta, ez direnez atzematen, istripuak sor ditzakete.



Santa Marina ospitalea. Sarbidea autobus geltokitik. Eskailera-maila isolatua, arriskutsua, iritsiezina.



Zebrabideak eskailera-mailarekin eta beheerapenik gabe.



Victoria Eugenia ospitalea. Markesina oztopagarria, oinezkoen ibilbidea eteten baitu.



Vithas San José ospitalea. Espaloi estutua. Eskailera-maila isolatua, iritsiezina.


Egindako analisisian ikusi da udalaren jabetzako oinezkoen pasabideen %90a baino gehiago ondo eginda dagoela maldei eta gutxieneko zabalerari dagokienez. Aitzitik, espaloi horietako %50ak ez dauka pasabiderik zero kotan; horrek esan nahi du oraindik ere oinezko pasabide askok daukatela "eskailera-maila".

Oinezkoen pasabideen %56ak oinetarako ukimen-zerrenda egokiak dauzka. Bestalde, %35ak bakarrik ditu seinale zuzenak oinezko pasabidearekin perpendikularrean. Honelako zerrenda eta seinaleak instalatzea ezinbestekoa da ikusteko desgaitasuna daukaten pertsonak orientatu ahal izateko eta kale bat zeharkatu ahal izateko nora jo jakiteko.

Beste alde batetik, esan behar dugu oinezkoen pasabideetako irlatxoak %40ak ez daukala sakonera nahikoa gurpil-aulki batentzat. Horrek arriskua sor dezake. Modu berean, beraien %38ak bakarrik dauzkaten ukimen-seinale egokiak.


12. grafikoa.

Oinezkoen pasabideak ospitaleetarako ibilbideetan



13. grafikoa.

Irlatxoak ospitaleetarako ibilbideetan





Txagorritxu ospitalea. Irlatxoa, igarotzeko zabalera egokiarekin.



Mendaroko ospitalea. Markesina iritsiezina.

Semaforoei dagokienez, zehaztu behar dugu %33ak bakarrik daukela soinu bidezko abisua ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat; seguru ibili ahal izateko ezinbestekoa da abisu hori jartzea. Modu berean, %8ak bakarrik dauka botoia gurpil-aulki batetik sakatu ahal izateko altuera egokian.

Aztertu diren markesinak eta garraio-geltokiak ospitale-sarbideetatik hurbil daudenak dira. Irigarritasun-kateko elementu erabakigarriak dira horiek, mugikortasun urriko pertsonak garraio publikoan berdintasun baldintzetan sartu ahal izateko. Bestela, desgaitasuna daukaten pertsonak ibilgailu partikularrak erabili behar izaten dituzte eta, sarritan, anbulantziak.

Markesinen %79ak biratzeko espazioa dauka barruan. %38ak bakarrik dauka garraio irisgarriari buruzko informazio-panelik.

Geltokien %71ak elementu gardenak dauzka baina %37ak bakarrik dauzka seinale-banda zuzenak. Modu berean, geltokien %5ak bakarrik dauzka jaisteko plataforma egokiak.





Txagorritxu ospitalea. Kanpoaldea. Markesina egokia.



Debabarrenako ospitalea. Orduategien informazioa formatu digitalean. Soinu-informazioa falta da.

14. grafikoa.

Garraio geltokiak ospitaleetarako ibilbideetan




1.2. Ibilbideak ospitale-eremuen barruan

Ospitale-eremuen barruko ibilbideak kanpoko ibilbideetako parametro bereberekin aztertu dira.

Ibilbideen %12a malda gogorrek dauzkaten arrapalen bidez egiten dira. Espaloiei dagokienez, esan behar da hobekuntza asko dagoela egiteke, haien %38ak bakarrik duelako zabale-ara egokia, eta %31k malda gogorregiak dituelako.


15. grafikoa.

Maldak ibilbideetan, ospitale-eremuen barruan



16. grafikoa.

Espaloiak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan



Mendaroko ospitalea. Espaloi estua eta pasabidea oztopoekin.




Galdakao-Usansoloko ospitalea. Beilatokiko sarbidea. Espaloi estuak, farolekin, Lurrean ez dago seinalerik.

Ibilbideetako espaloiaren %71n oztopo motaren bat dago.

Ibilbideen %14ak zoru bigunak dauzka: ibilbidean lur gainean, hartxintzarra, eta abar. Horrek arazoak sortzen dizkie mugikortasun urriko pertsonari. Ibilbideen %21ak ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat ukimenezko seinale egokiak dauzka maila-aldaketetan.

17. grafikoa.


Ibilbideetako elementuak ospitale-eremuen barruan



Ospitaleen kanpoaldean, seinaleen %86a behar bezala kokatuta daude, ez daukatelako oztoporik eta posible delako beraien irakurtzera hurbiltzea. Aitzitik, esan behar dugu %9a bakarrik dagoela ukimen bidezko errekonozimendurako altuera egokian. Adierazi behar da harrigarria dela aztertu diren seinale guztietatik bakar batek daukala informazioa goi-erliebean eta braille sisteman.


18. grafikoa.

Seinaleak ibilbideetan, ospitale-eremuen barruan



19. grafikoa.

Seinaleztapenaren ezaugarriak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan



Ospitaleen %40an norabide-seinaleak daude, hartu behar dugun norabidearen eta dauden sarbideen berri ematen dituztenak. Informazioa erraza eta ulertzeko erraza da panelen %74an.

Txagorritxu ospitalea. Sarbidea braillez seinaleztatuta.



Zumarragako ospitalea. Eskailera-mailak.



Basurtuko ospitalea Bolardoa ibilbidean, kontraste egokirik gabe. Estropezu egin arazi ahal du.




Gorlizko ospitalea. Braillezko informazioa eta goi-erliebezkoa falta da kanpoan.



Ibilbideen %23an eskailera-mailak daude ibilbidean, eta %27ak bakarrik dauzka arrapalak. Gainera, esan behar da haietako batek ere ez daukela malda egokia eta arau ezarritako altuera gainditzen dutela. Ez da hori arrapala hauek daukaten gabezia bakarra. Izan ere, haietako %33an eskudela falta da eta %33ak bakarrik dauka bigarren eskudela altuera txikiagoan.

20. grafikoa.

Arrapalak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan




Hiri-altzariei dagokienez, esan behar da oztopo direla ibilbideen erdian baino gehiagoan (%57) eta elementu gardenak ez daudela inola ere ondo seinaleztatuta.

Ospitale-esparruetan dauden oinezkoen pasabide ia guztiek (%95) malda egokiak dauzkate, bai luzetara bai zeharka, baina gutxiago dira zabalera egokia daukatenak (%77). Hala eta guztiz ere, maldak egokiak diren arren, nabarmendu behar dugu gutxi direla benetan irisgarriak, haietako %32ak bakarrik duelako "zero kotako" arrapala galtzadarekiko loturan.

21. grafikoa.

Oinezkoen pasabideak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan




Donostiako Unibertsitate ospitalea. Oinezkoen pasabideak eskailera-maila dauka. Pasabide irisgarria; auto bat dauka aurrean aparkatuta.



Donostiako Unibertsitate ospitalea. Zebrabidea larrialdietako sarbidean.

22. grafikoa.

Zer kota oinezkoen pasabideetan, ospitale-eremuen barruko ibilbideetan



Oinekin ukitzeko zerrendak, oinezkoen pasabideetan, beharrezkoak dira ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat, kota aldaketan, beherapenen, galtzadarekin bat egiteko tokiaren eta abarren berri eta abisuak ematen dituztelako. Aitzitik, pasabide horietako %17a bakarrik dago behar bezala seinaleztatuta. Modu berean, esan behar dugu %11k bakarrik daukala zintarri perpendikularra pasabidearekin oinezkoen pasabide bat dagoela adierazteko.

Errei bakarreko galtzadetan dauden irlatxoei dagokienez, berriz, alde positiboan artean esan behar dugu %81ak tarteko espazio egokia daukala. Ordea, zenbait erre gaitzitzen dituzten irlatxoetan %33ak bakarrik dauka babeserako espazio egokia, eta gurpil-aulkien erabiltzaileei arazoak sortu ahal zaizkie horrela.

Irlatxoek %14ak bakarrik dauka oinezko ukimen-seinaleztapen egokia ikusteko desgaitasuna daukaten pertsonentzat.

Galdakao-Usansoloko ospitalea. Kanpo-kontsultetako sarbidea. Irlatxoak, eskailera-mailarekin.




Galdakao-Usansoloko ospitalea. Gaizki egindako irlatxoak.



23. grafikoa.

Irlatxoak ospitale-eremuen barruko ibilbideetan



Semaforoei dagokienez, esan behar dugu ospitale-esparruetan dauden semaforoen %17ak bakarrik daukela soinu-informazio egokia, batetik erabiltzaileari noiz pasatu esaten diona eta bestetik beste espaloiara iristeko erreferentzia ematen duena.

Semaforoen %33ak bakarrik dauka funtzionatzen jartzeko botoia, eta horietatik %17ak bakarrik dauka gurgil-aulki batetik aktibatzeneko altuera egokia.

2.

Aparkalekuak

Ospitaleetako asko hiriguneetatik urrun daudenez gero eta kasu askotan mugikortasun urria daukan pertsona batentzat ia ezinezkoa denez hiri-garraiobide bat erabiltzea, uste dugu garrantzitsua dela aparkalekuak analizatzea, bai udalenak direnak eta ospitaleetatik hurbil daudenak, bai ospitale-eremuaren barruan daudenak.

Galdakao-Usansoloko ospitalea. Arrapalarik gabeko eskailera.




2.1. Udal titulartasuneko aparkatzeko eremuak

Ibilbideen %78a, udalen aparkalekuetatik abiatuta, irisgarriak dira mugikortasun urriko pertsonentzat.

Ibilbideen %6an eskailera dira, arrapalarik ez daukatenak, eta ibilbideen beste %6 batean daude arrapalak. Arrapala horiek egokiak dira maldei eta ezaugarri orokorrei dagokienez, baina ez daukate eskudelik ez iristaduren aurkako zoladurarik.

24. grafikoa.

Eskailera-mailak eta arrapalak udal titulartasuneko aparkatzeko eremuetan



Erreserbatutako aparkalekuak

Erreserbatutako aparkalekuei dagokienez, esan behar da aparkalekuen %50ak bakarrik betetzen duela behar den erreserba, plaza-kopuru erabilgarriaren arabera. %22ak plaza erreserbatuak dauzka, baina ez dauka nahitaez eduki beharreko plazen kopurua.

Deigarria da aparkalekuen %28an ez dagoela mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako plazarik.

Beste alde batetik, esan behar da erreserbatutako plazetatik ospitaleko sarbideraino doazen ibilbideen %56 bakarrik dela irisgarria.




Basurtuko ospitalea. Ez dago espazio nahikorik autotik jaisteko.



Zumarragako ospitalea. Ez da plazarik markatu. Zoru mota ez da irisgarria.

25. grafikoa.

Erreserbatutako aparkatze plazak, udal titulartasunekoak, kopuruaren arabera




Erreserbatutako plazen %22ak bakarrik dauzka dimentsio egokiak eta %6ak bakarrik dauka hurbilketa-eremu zuzena.

Plazen seinaleztapenari buruz esan behar dugu %67ak irisgarritasunerako nazioarteko sinboloa daukala (INS), baina %28ak bakarrik daukala seinale egokia, mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzen ez dituzten ibilgailuei apartatzea galarazten diena.

26. grafikoa.

Udal titulartasuneko apartatze plaza erreserbatuen ezaugarriak




2.2. Aparkatzeko eremuak ospitale-instalazioetan

Ospitale-instalazioetan 46 aparkatze-eremu aztertu dira. Ibilbideen %15ak eskailera-tarteak dauzka eta haietako askok ez dituzte betetzen ezaugarri egokiak.

Ibilbide horien %11n arrapalen bidez ibiltzen da (haietako batzuk eskailera-tarteen alternatiba dira), eta arrapalen %20ak bakarrik betetzen ditu ezaugarri egoki guztiak, nahiz eta haietako batek ere ez daukan bigarren eskudela altuera txikiagoan. Arreta deitzen du arrapaletako batera irteteko eskailera-maila batetik igaro behar dela; horrek iritsiezin egiten du.

27. grafikoa.

Eskailerak aparkatzeko eremuetan, ospitale-instalazioetan



Galdakao-Usansoloko ospitalea. Arrapala ibilbidean



San Eloy ospitalea. Eskailerak ibilbidean.

Aparkatzeko eremu batzuk ez daude zolatuta, beraz mugikortasun urriko pertsonak ezin dira haietara iritsi. Aparkalekuen eraikin bat ere aztertu da, harrera-gelara iristeko igogailu bakarra daukana, gainerako sarbideak eskaileren bidez baitira. Dagoen igogailu bakarra ez da nahikoa daukan erabilera-bolumenerako.

Erreserbatutako aparkalekuak


Mugikortasun urriko pertsonak erreserbatuta dituzten plazak puntu garrantzitsua dira irisgarritasun katean, ospitaleen ezaugarri orografikoak eta hiri-garraioaren falta kontuan izanik. Egin den analisitik ondorioztatu da ospitaleen barruan aparkatzeko zonen %59ak dagozkion plaza erreserbatuak

dauzkala. Zonen %13ak, berriz, plaza erreserbatuak dauzkan arren, ez dauka behar den plaza kopurua. Era berean, oso esanguratsua da aparkatzeko eremuen %28ak ez daukela erreserbatutako plazarik mugikortasun urriko pertsonentzat.

Beste alde batetik, esan behar dugu plaza hauen %30ak bakarrik dauzkala neurri egokiak eta haien %17ak ez daukela aparkatze plazara hurbiltzeko eremurik; hori oztopoa da mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak sartzeko.

28. grafikoa.

Erreserbatutako plaza kopurua ospitale-instalazioetako aparkatzeko eremuetan




Galdakao-Usansoloko ospitalea. Erreserbatutako aparkalekua.

Erreserbatutako aparkalekuak behar bezala seinaleztatuta daude INSarekin, %56an. Haietatik %20ak bakarrik dauka beste pertsona batzuek aparkatzea debekatuta dagoela dioen seinalea.

Esan behar dugu erreserbatutako aparkalekuen %57 bakarrik dagoela ospitaleen sarbideetatik hurbil. Horrek mugikortasun urriko pertsonak gehiago mugitzera behartzen ditu.

29. grafikoa.

**Erreserbatutako plaza kopurua ospitale-
instalazioetako aparkatzeko eremuetan**

*Txagorritxu ospitalea.
Sarbide atea
kanpo-kontsulten
eraikinera.*



*Santiago Apostol
ospitalea.
Eguneko ospitaleko
sarrerako atea.
Tiradorea iritsiezina
da.*



*Santa María de la
Asunción klinika.
Sarbide nagusiko
korridorea.*

3.**Sarbideak****3.1. Sarrera/sarbide nagusiak**

Atal honen barruan, ospitaleek beren sarbideetan daukaten irisgarritasuna aztertu da. Berebiziko garrantzia dauka sarbide nagusiak zero kotan egotea eta, arrapalak daudenean, indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete dezatela. Era berean, ateen zabalera egokia izan behar dute mugikortasun urriko pertsonak biratu ahal izateko, atearen aurrean eta atearen atzean.

Aztertutako sarbideetan, ospitale bat aurkitu da, zeinaren sarbide nagusia arrapala baten bidez egiten den. Arrapala horrek ez dauka atearen aurretik inolako atsedengunerik; horrek mugikortasun urriko pertsonen bertan sartzea oztopatzen die, oso zaila baita maldan biratzea edo atea arrapalatik irekitzea.

Azpinarratu behar dugu sarrera nagusien %4a gutxieneko pasabidea ez daukaten korridore estuen bidez egiten dela; izan ere, gurgil-aulkien erabiltzaileek ezin dute diametro egokiko birarik egin.


Sarbide-ateen %73ak gutxieneko pasabide libre duka. Oro har ateen kontrastea dagoen arren, lehenik irekitzen dena ez dago behar bezala kontrastaturik.

Aztertu diren sarbide ateen %21ean indarra egin behar da beraiek irekitzeko, eta oso zaila da hori mugikortasun urriko pertsonentzat (makilaz ibiltzen direnak, umetxoan aulkia daramatzaten pertsonak, gurgil-aulkian doazen pertsonak eta abar).

Ateen %79 beirazkoak dira. Halere, %23a bakarrik dago ondo seinalizatuta ikusteko desgaitasuna daukaten pertsonentzat.

30. grafikoa.

Sarbide atea



Ospitaleetako sarbideek eskailerak dauzkate kasuen %42an. Gainera, azpimarratu behar da tarte hauen %4a isolatutako eskailera-mailen bidez direla, edo bi eskailera-mailarekin; araudiak horrelako eskailera-mailak debekatzen ditu, normalean ez direlako bereizten inguruko zorutik eta horrek jendea erori araz dezakeelako.



Quirón ospitalea. Eskailera-igogailua.




Vithas San José ospitalea. Sarrera nagusia. Sarbideko arrapala.

Eskailera-tarteen %82ak arrapalak dauzka. Haietatik %44ak bakarrik dauka malda egokia salbatu behar duen tarterako. Modu berean denek ez daukate ezaugarri egokiak irisgarritzat jo ahal izateko.

31. grafikoa.

Arrapalak sarbideetan



Sarbide nagusien %92ak oin-zatarrak edo alfonbrak dauzkate sarreran, euri-ura biltzeko. Baina haietatik %25 bakarrik daude lurrari finkatuta, eta ez dira egokiak estropezu egitea eragozteko.

Zorionez, zoruen %83 irristaduren aurkakoak dira.

Sarreretako batek ere ez du brailleko eta goi-erliebezko seinalerik.



Zaldibarko ospitale psikiatrikoa. Eskudeia alde batean. Seinalerik gabe.



Gorlizko ospitalea. Sarrera. Gida-zerrendak eta kontrastea falta dira ateetan.

Ospitaleetako batzuek norabideko gida-zerrendak dauzkaten arren, haietako bat ere ez da egokia ikusteko desgaitasuna daukaten pertsonentzat. Hori handicap bat da pertsona horientzat, egoera horrek zailago egiten baitu modu autonomoan mugitu ahal izatea. Hori landu beharra dago, eta kasu aztertu ze ibilbide egin behar den.

Informazio-panelen %73 egokiak dira, baina haietako bat ere ez dauka braillezko edo goi-erliebezko sistemarik.

Modu berean, ez dago erliebezko planorik ospitaleetako sarbideetan, eta horiek beharrezkoak dira ospitaleen barruan orientatu ahal izateko.



Mendaroko ospitalea. Sarrera. Gida-zerrendek ez dute testurarik.



Mendaroko ospitalea.

Mostradoreen %26ak bakarrik dauka altuera txikiagoan dagoen zona bat eta, haietatik, %80ak ez ditu ezaugarri egokiak betetzen. Horri gaineratu behar diogu egindako bisitetan ikusi dela mostradore egokitueta gehienak erabiltezin daudela, bestelako gauzak jartzeko erabiltzen baitira: ordenagai-luak, landareak, kutxak, eta abar.



Galdakao-Usansoloko ospitalea. Mostradore egokitu gabea.




Galdakao-Usansoloko ospitalea. Sarrera nagusia. Ez dago zona erreserbatutik.



San Eloy ospitalea. Mostradore iritsiezina, manpara dagoelako.


32. grafikoa.

Sarbideak. Ikusteko desgaitasuna



33. grafikoa.

Mostradoreak



3.2. Mostradoreak eta leihatilak


Mostradoreak eta leihatilak gaixoentzako arreta zuzeneko postuak dira. Beraz, gorpil-aulkian doazen pertsonentzat nahitaezko espazioak dira. Zentzu horretan, esan behar dugu mostradoreen ereduak bisitatu ditugun ospitaleetako askotan errepikatzen direla.

3.3. Altzariak

Sarreraren %88an altzari egokiak daude, baina %17ak “hegal-duraren” bat dauka (kasuren batean hankarik gabeko altzari motaren bat izan daiteke). Hori arriskutsua da ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat.

34. grafikoa.

Sarbideetako itxarongeletako altzariak



3.4. Itxarongelak

Itxarongelen %13an ez dago azalera egokia, gurpil-aulkien erabiltzaileek bira egin ahal izateko modukoa. Itxarongeletako batzuek sarbidean atek dauzkate, eta %50 beirazkoak dira. %33ak bakarrik dauka igarotzeko zabalera libre nahikoa.

Sarbideetan instalatutako itxarongelen %16ak bakarrik dauka espazio egokia gurpil-aulkien erabiltzaileentzat, baina araudiaren arabera gutxienez bi espazio egon behar dira. Oro har, ez daude behar bezala seinatuta INSarekin.

Eserlekuei dagokienez, dauden %16a bakarrik da egokia mugikortasun urriko pertsonak erabiltzeko, eta %3ak bakarrik dauzka beso-euskarriak. Halere, bat ere ezin da etzan.


Gelen %13an argi-alarmaak daude, baina batek ere ez du soinu bidezko informaziorik.



Gorlizko ospitalea. Itxarongela. Beso-euskarririk gabeko eserlekuak.

35. grafikoa.

Sarbideetako itxarongelak



3.5. Beste sarrera/sarbide batzuk

Atal honetan beste eremu batzuetara doazen sarrerak aztertuko dira (kanpo-kontsultak, ginekologia eta abar).

Sarrera sekundarioen %76 korridoreen bidez egiten da. Oro har, zabalera libre egokia daukate. Hala erakusten du sarrera hauetako %95ean bira ondo egin daitekeela.


Ateei dagokienez, %62ak bakarrik du gutxieneko zabalera. %10ean, gurpil-aulkien erabiltzaileek ezin dezakete biratu sarreran.



Quirón ospitalea. Kanpo-kontsultetako sarrera bakarra. Sarrerako eskailera-maila.

36. grafikoa.

Beste sarrera/sarbide batzuetako atearak



Sarreraren %20 eskaileren bidez egiten da, eta %60ak arrapalak ere badauzka.

Guztira, sarbide horietako %30 arrapalaren bidez egiten da. Deigarria da arrapala horien %60k ez daukela arauz onartuta dagoen gehieneko malda. Arrapalaren %47k bakarrik du eskudela; horietatik, %27k bigarren eskudela dauka, altuera txikiagoan jarri behar dena.

Arrapalaren %60ak gutxienez irristaduren aurkako zorua dauka, bai lehorrean, bai bustita. Hori garrantzitsua da erorketak eta irristadurak ekiditeko.

Beste hainbeste gertatzen da sarrera nagusietan, sarbide horien %86ak oin-zatakkak edo alfonbrak dituelako ura atxikitzeko, baina haietatik %21a bakarrik dago lurrari behar bezala finkatuta. Modu berean, zoruen %78 irristaduren aurkakoak dira.




Santiago Apostol ospitalea. Eguneko ospitaleko sarbidea. Arrapala laburra.



Gurutzetako ospitalea. W eraikinaren sarbidea. Arrapalaren sarreran ez dago seinalerik.

37. grafikoa.

Sarbideko arrapalak




Seinaleei dagokienez, zoritxarrez, sarbide nagusietako ga-bezia berdinak daude: ez dago informaziorik braillez edo goi-erliebez kartel eta seinaleetan, eta ez dago norabide-zerrendarik kanpoko eta barruko ibilbidean. Ateen %12 ez dira irekitzeko errazak. Horrek autonomia kentzen die mugikortasun urriko pertsonari eta %74 beirazkoak dira edo gehienek kristala daukate. Aitzitik, haien %30ak bakarrik dauzka seinale egokiak ikusmen urriko pertsonentzat.

Sarbide hauen %68ak informazio-panelak dauzka testu laburrekin, eta %58 altuera egokian jarrita dago.

Aitzitik, informazio-panelen %36k ez dauka irakurtzeko tamaina egokia duen karaktererik, eta ez dauka kontraste egokia karaktereen eta kartelaren atzealdearen artean. Deigarria da, baita ere, kartel horien %10ak bakarrik edukitzea informazioa braillez eta goi-erliebez.

38. grafikoa.

Seinaleak sarbideetan



Sarbide hauetan dauden itxarongeletan, ateen %85ak pasatzeko espazio librea behar bezala dauka, eta %30ak beirazko atea dauzka.

Gela hauen %77an zirkulu bat egin daiteke barrualdean. Hala eta guztiz ere, itxarongeletako %22an bakarrik daude altzariak behar bezala kokatuta, eta gurpildun aulkien erabiltzaileak igarotzeko behar den espazio libre egokia dago. Deigarria da, baita ere, itxarongelen %15ak bakarrik daukela espazio nahikoa gurpil-aulkiko erabiltzaile batentzat eta espazio hori inola ere ez dagoela behar bezala seinalatuta. Azkenik, esan behar dugu espazio hauen %11k eserleku bat daukela hurbil laguntzailearentzat, eta gelen %30ak mugikortasun urriko pertsonentzako aulkiak dauzkala; aitzitik, eserleketako batek ere ez du beso-euskarririk.



Galdakao-Usansoloko ospitalea. Errehabilitazioko sarbidea. Beso-euskarririk gabeko eserlekuak.



Galdakao-Usansoloko ospitalea. Seinale egokirik gabeko atea.

Aztertu diren itxarongelen %22ak argi-alarmak dauzka. Oro har, aztertutako paneletako batek ere ez dauka soinu-informazioa eta ez da irakurtzeko erraza.



Galdakao-Usansoloko ospitalea. Kanpo-kontsulten sarrera. Soinu-informazio alternatiboa falta da.




Gurutzetako ospitalea. Makina ez da irisgarria. Soinu-informazioa falta da.



Galdakao-Usansoloko ospitalea. Braillezko informaziorik gabe.


39. grafikoa.

Sarbideetako itxarongelak



40. grafikoa.

Askotariko seinaleak sarbideetan



4.

Larrialdi eremuak

Aztertutako larrialdi eremuetan, ateen %88ak zabalera egokia dauka. Hala eta guztiz ere, esan behar dugu sarrera horietan gehienetan arrapalen bidez sartzen dela, sarbideetan biratzea galaraziz.

Ate guztiak beirazkoak dira eta haietatik %25ak bakarrik dauzka banda adierazle egokiak. Ateen %6 irekitzeko zailak dira, beraietan egin behar den zaratagatik.

Sarrera horietan ere oin-zatarrak edo alfonbra txikiak daude. Haietatik %38a bakarrik daude lurrari ondo lotuta. Zoruen %75 irristaduren aurkakoak dira.

Larrialdi eremuko sarbide bat baino gehiagotan txirrinak daude, kanpoaldean sakatu behar direnak. Baina haietako bat ere ez dago gurpil-aulkian dabiltzan pertsonen sakatu ahal izateko altuera egokian.



Txagorritxu ospitalea. Larrialdietako sarbideko atea estua da.




San Eloy ospitalea. Larrialdietako sarrera.



Galdakao-Usansoloko ospitalea. Larrialdietako sarbideetako bat.

41. grafikoa.


Larrialdi zonetako sarbideak



Sarrera horien %38 arrapalen bidez egiten da eta %33ak bakarrik dauka malda egokia dagoen altuerarako. Ehuneko 50ak eskudela dauka, baina batek ere ez dauka bigarren eskudela, baxuago jarri behar dena. Arrapalen %50ean zorua irristaduren aurkako da.

42. grafikoa.

Larrialdi zonetako sarbideetako arrapalak



4.1. Itxarongelak

Gela hauen %80ak ezaugarri egokiak dauzka, baina esan behar dugu batek ere ez daukala gurpil-aulkien erabiltzaileak jartzeko erreserbatutako espaziorik. Ehuneko 20ak bakarrik dauzka mugikortasun urriko pertsonentzat egokiak diren ezaugarriak dituzten aulkia, baina batek ere ez dauka beso-euskarri egokirik.

Itxarongela horietan dauden panelen %10ak argizko edo ikusteko informazioa dauka. Baina haietako batek ere ez dauka soinu-zuko edo braille-zuko informaziorik.

Larrialdi gela horietako batean ere ez dago braille-zuko edo goi-erliebezko informaziorik, ezta norabideko gida-zerrendarik ere.

Ateen %88 behar bezala kontrastatuta daude beren hormarekin, baina kartelen %25ak bakarrik dauka braille-zuko eta goi-erliebezko informazioa.




Bidasoa ospitalea.
Larrialdi gela.
Ez dago espaziorik gurgil-aulkientzat.
Ez dago informaziorik braillez.
Beso-euskarriak falta dira.



Lezako ospitalea.
Itxarongela.
Ez dago espazio nahikorik gurgil-aulkien erabiltzaileentzat.


44. grafikoa

Larrialdi zonetako sarbideak. Ikusteko desgaitasuna



43. grafikoa.

Larrialdi zonetako itxarongelak



5. Ospitaleetako barrualdeko elementuak

5.1. Eskailera-tarteak

Atal honetan, ospitale bakoitzeko eskaileren irisgarritasun-ezaugarriak aztertzen dira.


45. grafikoa.

Aztertutako eraikinak guztira



46. grafikoa.

Eskailera-tarteak, lurraldearen arabera



Guztira 94 eskailera-tarte aztertu dira 31 eraikinetan.



Virgen Blanca klinika. Eskailera nagusiak. Eskailera-maila, bozelarekin.



Bidasoa ospitalea. Eskudel ez-anatomikoa, albo batean.



Bermeoko ospitale psikiatrikoa. Kontramailarik gabeko eskailera. Eskailera-maila estuak.



Bermeoko ospitale psikiatrikoa. Eskudelik gabeko eskailera, egoera txarrean.

Berriro ere, zoritxarrez, esan behar dugu aztertu diren eskailera-tarteen %38ak bakarrik betetzen duela zabalera egokia, eta eskailera-mailen %46ak bakarrik daukela bozela. Gainera, ikusi dugu eskaileren %19an maila batzuk besteen gainean daudela; horrek oinak arrastaka eramaten dituzten pertsonen estropezu egina ahal die.


Aztertu diren eskailera-tarteen %17ak bakarrik dauka dimentsio egokietako eskailera-burua. Modu berean, eskailera-mailen %14ak ez dauka kontramailarik. Beste alde batean, esan behar dugu eskailera-mailen %5a bakarrik daudela konpentsaturik.

Tarteen %33ak eskudela dauka eskaileren bi alboetan, eta %17ak eskudela altuera txikiagoan dauka.

Eskudelen luzapenei dagokienez, eskudelen %4 bakarrik luzatzen da eskaileren hasieratik amaieraraino, eta analizatutako eskudeletako batek ere ez du seinalerik.

47. grafikoa.

Eskaileren ezaugarriak




5.2. Igogailuak

Ospitaleetan hainbat igogailu-eredu daude, urteetan berrikuntza eta aldaketa ugari egin direlako. Oro har, gurgil-aulkian doazen pertsonak erabili ahal izateko dimentsioak dauzkate; %72an kanpoko botoien altuera zuzena da, eta atean %87ak zabalera egokia dauka igarotzeko. Puntu honetan, ordea, esan behar dugu igogailuek beste irisgarritasun arazo batzuk dauzkatela.

48. grafikoa.

Igogailuen kanpo espazioa




Igogailuen kabinen %92ak dimentsio egokiak dauzka, baina %61ak ez dauzka barruko botoiak altuera egokian. Ehuneko 54ak bakarrik ditu botoiak braillezko informazioarekin, eta %57ak goi-erliebiko informazioarekin.

Praktika on bezala, nabarmendu nahi dugu aztertutako igogailuen %65ak barruan ispilu bat daukala, gurgil-aulkian doazen pertsonen maniobretan lagungarria dena.

49. grafikoa.

Igogailuen kabinak



Esan behar dugu kabinen %45ak bakarrik daukela komunikazioko interfonorik (igogailua ez dabilenean erreskaterako ezinbestekoak diren arren), eta %9ak bakarrik daukela paneladun interkomunikatzailerik.

Egoera hau gainditzeko egokitzapenak egin beharra dago. Izan ere, ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzako norabideko gida-zerrendak bakarrik daude analizatutako igogailuen %2aren kanpoaldean, zoruaren eta igogailuaren arteko kontrastearekin jazotzen den bezalaxe.



Igogailuaren kabina. Botoiak altu daude.



Basurtuko ospitalea. Arrupe eraikina. Argirik gabeko botoiak. Lurrean ez dago seinalerik.




Gorizko ospitalea. Ez dago informaziorik braillez. Orientatzeko informazioa ematen da.


Igogailuen plataformen %94ak kanpo seinaleak dauzka dagoen solairuaren zenbakiarekin, eta %56ak informazio akustikoa eta argiduna dauzka, baina kabinen %34ak bakarrik dauka soinu-informazioa, igogailua dagoen solairuaz abisatzen duena.

Beste alde batetik, esan behar da igogailuen %62ak sartze-zonan ikono seinalizatzaile bat duela (gezi bat), igogailua gora ala behera doan adierazten duena. Igogailuen %3ak beirzako atek dauzka.


50. grafikoa.
Igogailuen botoiak



52. grafikoa.
Igogailuen ezaugarriak. Entzuteko desgaitasuna



51. grafikoa.
Igogailuen ezaugarriak. Ikusteko desgaitasuna



5.3. Komun orokorrak

Guztira 129 komun orokor aztertu dira. Oro har, esan behar dugu gutxitan aurkitu direla komun orokor irisgarriak. Izan ere, baliteke komunak erabiltzeko moduan egotea, baina ez dute inondik ere irisgarritasun araudia betetzen.

Korridoreetan zehar dauden komunen sarreren %75 egokiak dira. Kasuen %2an eskaileretatik sartu behar da. Eta sarbide horietan guztietan ez dago arrapala alternatiborik. Era berean, sarbideen %3 arrapalen bidez egiten da. Arrapaletako batek ere ez dauka malda egokia gainditu beharreko altueran, eta %50ak irristaduren aurkako zorua dauka.


Komun orokorren %25ak eskudela dauka, baina haietako batek ere ez dauka bigarren eskudela, altuera txikiagoan.



Basurtuko ospitalea. Gandarias eraikina. Ate estuak.

53. grafikoa.

Komun orokorretara sartzeko eskailerak/ arrapalak




Komun orokor hauetan, %9ak bakarrik dauzka pasatzeko zabalera egokia duten atearak.

Komunen %14ak bakarrik dauka erreserba egokia mugikortasun urriko pertsonentzat, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

54. grafikoa.

Komun orokorren kanpoaldea



Basurtuko ospitalea.
Revilla eraikina.
Komun orokorraren sarrera.
Korridore estuak.



Onkologikoa.
Malda arriskutsua daukan arrapala baten bidez sartzen da komunera.



Usurbilgo erietxea.
Komun orokorreko sarbidea, eskailera-maila isolatuarekin.



Virgen Blanca klinika.
Ospitaleratzea.
Komun iritsiezina.



Komun hauetako %12an barruan biratu ahal da eta soilik aztertu diren komun orokorren %13ak dauka oratzeko nolabaiteko barrarik.

Komunen %4ak bakarrik dauka alarma-sistema.

Konketagehienak altuera egokian dauden arren, %10ak baino ez du sakonera egokia. Erabiltzen diren txorroten %12, oraindik ere, "eskutoki" motakoa da, eta aztertutako ispiluen %4 bakarrik daude ondo jarrita.


Komunen %22an oin-zatarrak edo alfonbra txikiak daude, baina haietatik %8a baino ez dago lurrari itsatsita.

Komunen %14ak beirazako atearak dauzka, baina haien erdiak bakarrik dauzka seinale-banda egokiak.

Brailleko eta goi-erliebezko seinaleak dauzkaten komunak %16 dira.


55. grafikoa.

Komun orokorren barrualdea



56. grafikoa.

Komun orokorren komunontziak



5.4. Komun erreserbatu eta irisgarriak

Sarritan, mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako komunak komun orokorrak dauden zonatik kanpo jartzen dira, gerora eraiki direlako. Inguaruabar horrek zailtasunak sortzen dizkie mugikortasun urria daukaten pertsoneri, beste espazio, solairu eta are beste eraikin batzuetara joan behar izaten baitute.

Guztira, mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako 184 komun aztertu dira.

Komunetarako ibilbideen %86 egokiak dira. Sarbideen %1 eskaileren bidez egiten da, arrapala alternatiborik ez daukatena, eta komuna iritsiezin egiten dutenak. Sarbideen beste %1 arrapala bidez egiten da. Arrapala horiek ez daukate malda egokia eta, oro har, ez dituzte ezaugarri egokiak beteko. Eskudel bat daukate, baina ez bigarrena, altuera txikiagoan jarri behar dena.




Santiago Apostol ospitalea. Larrialdi zerbitzua. Komun arrunt egokitua. Oratzeko barra finkoa oztopoa da eta estropezu egin arazten du.



Debabarrenako ospitalea. Ate egokia. Kontrastea falta da.

57. grafikoa.

Erreserbatutako komunen sarbide atea



Erreserbatutako komunaren sarbide-ateen %71k pasabide libre egokia dauka. %70ak INS dauka eta %13ak soilik dauka babesteko erradapia. Ateen %71 gidaridunak dira edo kanporantz irekitzen dira. Halere, komunaren %29an barrurantz irekitzen diren atea daude. Horrek zaildu egiten du komunaren barruko mugimendua, eta iritsiezinak dira horregatik, nahiz eta daukaten tamainarengatik erabat irisgarriak edo gutxienez erabilgarriak izan ahalko liratekeen.

Taldekatutako komun %25ak komun bat dauka sexu bakoitzerako; horrek esan nahi du komunik gehienak bi sexuek erabili ahal dituztela. Horrek egon beharko liratekeen komun erreserbatuen kopurua murrizten du. Atal honetan, aipatu beharra dago Txagorritxu ospitalean egin den praktika egokia, pediatriako zonan adingabekoentzako komuna baitago.


Nabarmendu behar dugu erreserbatutako eta egokitutako komun %14 bakarrik dagoela komun orokorren zonetan. Horregatik, komun orokorren baterietan komun erreserbatuen egoera seinalatu behar da.



Gernika-Lumoko ospitalea. Komun estu eta iritsiezina.

58. grafikoa.

Komun erreserbatuen motak




Erreserbatutako komun irisgarrietan ez da argi automatikorik egon behar. Halere, badirudi gero eta gehiago erabiltzen dela, aztertutako komun %45ean horrelako argiak baitaude, energia aurrezteko.

Komunen %96an irristaduren aurkako zorua dago eta haietako %80an barruan zirkulu bat egin daiteke.

59. grafikoa.

Komun erreserbatuen barrualdea



Komunontzien antolaketak bide ematen du alboetako batetik sartzeko erreserbatutako komun %83an, eta %5ean bakarrik sar daiteke bi aldeetatik. Erreserbatutako komunak diren arren, deigarria da haietako %13ak ez daukala komunontzira joateko espaziorik gurpil-aulkian doazen pertsonentzat.

Modu berean, komunontzien %85ak oratzeko barrak dauzka alboren batean. Beraien %68 bi alboetan daude, eta %17an bakarrik dago barra alboetako bakar batean. Aztertutako komun %2an barra finkoak daude komunontzien bi alboetan. Horrek erabiltezin uzten ditu, gurpil-aulkian dabilzan erabiltzaileei hurbiltzea galarazten dielako. Erabilitako barren %80ak ez ditu ezaugarri egokiak.

Beste alde batetik, komunontziaren eserlekuaren altuera zuzena da komun %42an.




Basurtuko ospitalea. Arrupe eraikina. Heldulekua.



Donostiako Unibertsitate ospitalea. Amara eraikina. Ez dauka oratzeko barrarik albo batean.

60. grafikoa.


Komun erreserbatuetako komunontziak



Konketei dagokienez, esan behar dugu %90ean altuera egokia dela goiko aldean, baina soilik %83an, beheko aldean. Ehuneko 18ak bakarrik du sakonera egokia; horregatik, sarritan, ezinezkoa da konketea hurbiltzea. Txorrotak, oro har (%90), mando bakarrekoak dira. Baina esan behar dugu konketeen %8an oraindik ere "eskutoki" motako txorrotak daudela, pertsona askorentzat irrisiezinak direnak.

61. grafikoa.

Komun erreserbatuetako konketak



Komunen %97ak ispilua daukan arren, ispiluen %34ak soilik dauzka altuera eta inklinazio egokiak. Esan behar dugu, halaber, komunik gehienen osagarriak ez daudela behar be-


zala kokatuta (bakarrik %25ean). Kakotegien eta toalla-euskarrien kasuan, egoera hobea da, baina haietako %47a bakarrik dago behar bezala jarrita.



Basurtuko ospitalea. Arrupe eraikina. Ispilu altua.

62. grafikoa.


Komun erreserbatuetako osagarriak



Deigarria da aztertutako komun %79ak ez daukala inolako alarmerik, behar denean pizteko.

63. grafikoa.

Alarmak erreserbatutako komunitan




Komunen %27ak oin-zatarrak edo alfonbrak dauzka, eta haien erdia bakarrik dago lurrari finkatuta.

Komunen %11k beirazko atea dauzka, eta haietatik %29ak soilik dauzka seinale-banda egokiak.

64. grafikoa.

Komun erreserbatuetako ezaugarriak. Ikusteko desgaitasuna



Gernika-Lumoko ospitalea. Komun iritsiezina. Ez du ahalbidetzen barruan biratzea.



Gernika-Lumoko ospitalea. Kontraste egokia.

Seinaleen %90ak ezaugarri egokiak dauzka tamainari, hur-bilketari eta kontrasteari dagokienez, baina beraien %28ak bakarrik dauka informazioa braillez eta goi-erliebeetan.

Deigarria da erreserbatutako komun horietako asko ezin direla erabili, biltegi bihurtu direlako. Horrela, gorpil-aulkian mugitzen diren pertsonen edo mugikortasun urriko pertsonen ezin dituzte erabili behar dutenean.

5.5. Lagundutako komunak


Ospitaleetako batzuetan “lagundutako komunak” daude. Komun horietan bainuontzi bereziak erabiltzen dira, murriztutako mugikortasun larria duten pertsonentzat. Normalean, komun horiek ez dituzte modu autonomoan erabiltzen desgaitutako pertsonen. Halere, egia da haietako batzuek dutxa eta komunontziak dauzkatela, modu autonomoan erabiltzeko.

Ibilbideen %62ak zabalera egokia dauka eta biratzeko zonak dauzka korridoreen %86an.

Komunetan sartzeko ateen %68ak zabalera egokiko pasabidea dauka. Bakarrik %9ak dauka babesteko erradapia, eta aztertutako ateen %64 ate gidaridunak dira edo kanporantz irekitzen dira, araudiak agintzen duenez.

65. grafikoa.


Lagundutako komunetarako ibilbideak



Lurzoruak iristaduren aurkakoak dira komun guztietan. Komun %27an, argiak automatikoki pizten dira, eta lagundutako komun %68an barruan biratu ahal da. Nabarmendu behar da komun hauen %18ak bakarrik daukela alarma barruan.

66. grafikoa.

Lagundutako komunen barrualdeak




Komunen %55ak kakoak eta toalla-euskarriak altuera egokian daukate.

Lagundutako komun horien %95ean komunontziak daude barrualdean, baina %57ak bakarrik dauka lekua alboren batetik sartzeko, eta %5ak bakarrik dauka bi alboetatik sartzeko lekua.

Komunontzien %57ak oratzeko barrak daukate. Horietatik %50 behar bezala jarrita daude, eta luzera eta altuera egokiak daukate. Hala eta guztiz ere, komunontzien %12ak bakarrik du altuera egokia.

67. grafikoa.

Lagundutako komunen komunontziak



Lagundutako komun %86ak konketak dauzka. Haietako %84 altuera egokian dago, baina batek ere ez dauka sakonera egokia gurpil-aulkien erabiltzaileak hurbildu ahal izateko. Txorroten %11 "eskutoki" motakoa da, eta horregatik iritsiezinak dira persona batzuentzat.


Komunen %16an ispiluak altuera egokian daude jarrita, eta konketen osagarriak %11n.



Bermeoko ospitale psikiatrikoa. Konketa, oinarekin. Komunontzia, lekualdaketarako espaziorik gabe. Ez da irisgarria.

68. grafikoa.

Lagundutako komunen konketak



Lagundutako komun %95ak dutxa dauka, eta ia guztiek dimentsio egokiak betetzen dituzte. Dutxen %90ak lekualdaketetarako alboko espazioa dauka.

Dutxen %48ak kanporantz irekitzen diren dutxa-itxiturak daukate. Dutxen %5ak malda handiegia du, eta beste %5 batean, platerak irtenguneak dauzka.

Dutxen %57ak aulki jasoa dauka, eta aulki horien %48 etzan daitezke. Dutxen %86ak oratzeko barrak daukate, baina %10ak baino ez dauzka eskudelak horretan.

Dutxen txorrotei dagokienez, esan behar dugu soilik dutxen %48ak dituela txorrota monomando egokiak eta %29 bakarrik dagoela altuera egokian jarrita. Jauzi-iturriei dagokienez, haietako %14an bakarrik erregulatu daitezke altuera.

Lagundutako komun %5ak bainuontzia dauka. Bainuontzi horiek ez daukate altuera egokia, baina guztiek daukate lekualdaketetarako azalera eta oratzeko barrak.




Galdakao-Usansoloko ospitalea. Bainuontzi iritsiezina.



Bermeoko ospitale psikiatrikoa Jauzi-iturriaren altuera aldatzeko barra falta da aldatzeko.

69. grafikoa.

Lagundutako komunen dutxak



5.6. Itxarongelak

Ospitaleetan, gehien erabiltzen diren espazioetako bat itxarongela da.

Azttertutako analisitik ondorioztatu da zenbait itxarongela eredu daudela, baina oro har ospitale guztietan eredu berbera aurki dezakegu. Berriztatu diren eremuetan bakarrik egin dira itxarongela eredu ezberdinak.


Gutxi gorabehera gelen %70ak du ate-zabalera egokia (atea dutenak). Gainera, %70ean ondo biratu daiteke barruan, eta %20ak beirazko atea dauzka.



Basurtuko ospitalea. Arrupe eraikina. Itxarongelako sarbidea ez da irisgarria.

70. grafikoa.

Itxarongelako sarbideak




Deigarria da gelen %10ak bakarrik edukitzea espazio erre-erbatu edo egokitu bat gurgil-aulkien erabiltzaileentzat. Oro har, pertsona horiek espazio desegokietan jarri behar izaten dira, korridoreetan edo gelen erdian.



Basurtuko ospitalea. Aztarain eraikina. Beirazko hormak, seinalerik gabekoak.

71. grafikoa.

Itxarongeletako altzariak



Basurtuko ospitalea. Ampuero pabiloia. Gela txikia, kontuan izanik zenbat jende etortzen den. Ez dago espaziorik gurpil-aulkien erabiltzaileentzat. Ez dago beso-euskarriak dauzkan eserlekurik.



Basurtuko ospitalea. Arrupe eraikina. Itxarongela txikia. Ez dago espaziorik gurpil-aulkien erabiltzaileentzat. Ez dago espaziorik eserlekuen artean. Beso-euskarriak falta dira.



Gurpil-aulkien erabiltzaileentzat erreserbatutako espazioa Txagorritxu ospitalean bakarrik dago behar bezala seinalatu-tuta.

Bestalde, nabarmendu behar dugu espazio horietako %10ak bakarrik daukela alboko eserleku bat laguntzailearentzat, %16ak bakarrik daukela eserleku egokiak mugikortasun urria duten pertsonentzat, eta %3ak bakarrik daukela beso-euskarriak.




Galdakao-Usansoloko ospitalea. Ez dago espaziorik gurpil-aulkientzat.



Guruzetako ospitalea. Gurpil-aulkien erabiltzaileak gelaren erdian geratzen dira.

72. grafikoa.

Itxarongeletako seinaleak



Itxarongeletako seinaleak eta informazioa kontuan izanik, zehaztu behar dugu %36ak motaren bateko idatzizko informazio-panelak daukela, baina informazio hori ez dagoela inola ere braillez edo goi-erliebez.

Bakarrik itxarongelen %3an daude argi-alarmaak. Batek ere ez dauka soinu bidezko sistemarik.



Basurtuko ospitalea. Aztarain eraikina. Informazio bisuala. Ez dago soinu-informaziorik.


6.

Kontsulta orokorrak

Kontsulta orokorre dagokienez, adierazi behar dugu ospitaleen barruko askotariko espezialitatetako eta mota desberdinetako 419 kontsulta aztertu ditugula.

73. grafikoa.

Aztertutako kontsulta orokorrak, lurraldeka



Kontsulten irisgarritasunari dagokionez, esan behar dugu honako hauek aztertu ditugula: kontsultetara sartzeko korridoreak, atea eta biratzeko deskribapen-zona, bai korridoreetan, bai sartzeko ateen barruan zein kanpoan.

Kontsulten barruan, gainera, mugikortasun urriko pertsonak altzarietara iritsi ahal diren aztertu da (ohatila, mahaiak, diagnostikorako ekipoa eta abar), bai eta dauden aldagelen eta komunen irisgarritasuna ere.

Kontsultetara sartzeko korridoreen %30 estuak dira.

Ibilbidean dauden ateen %72k igartzeko zabalera nahikoa du.

Gainera, adierazi behar da aztertutako ibilbideen %4k eskailerak dituela kontsultetara sartzeko, eta ibilbide horien %67k beste arrapala batzuk ditu sartzeko. Hori dela eta, kontsulten %33 ez da irisgarria. Aztertuko arrapalen artean, batek ere ez du malda egokia, gainditu behar den alturari dagokionez. %8k bakarrik du eskudela altuera bikoitzean. Azpimarratu behar da, halaber, arrapala horien %50ek irristaduren aurkako zoladura duela.

Ospitale askotan, korridoreak itxarongela gisa erabiltzen dituzte. Horren ondorioz, itxarongeletako espazioak murrizten dira, estuak eta helezinak direnak.

Kontsulten %53k bakarrik ditu igartzeko zabalera egokia duten atea. %3 beirazko atea dira, eta %86 ez dago modu egokian seinaleztatuta.



Gurutzetako ospitalea. Eraikin nagusiko korridorea.




Basurtuko ospitalea. Allende eraikina. Itxarongela gisa erabiltzen den korridorea.



Gurutzetako ospitalea. Eraikin nagusiko korridorea. Itxarongela gisa erabiltzen da, korridorea gehiegi estutzen da eta ezin dira gurpil-aulkien erabiltzaileak sartu jendea eserita baitago.

74. grafikoa.

Kontsulta orokorretako atea





Donostiako Unibertsitate ospitalea. Gipuzkoa eraikina. Barrutik bakarrik sar daiteke. Ez da irisgarria.



Donostiako Unibertsitate ospitalea. Gipuzkoa eraikina. Kanpotik sartzea. Ez da irisgarria.



Vithas San José ospitalea. Ezin da kontsultara iritsi. Eskailera-maila isolatua.



Donostiako Unibertsitate ospitalea. Amara eraikina. Lehenengo solairua. Malda gehiegi duen arrapatatik sartu behar da.



Elementu asko, behatxuloak edo postontziak besteak beste, oso goian daude kokatuta, eta ezinezkoa da horietara heltzea. Kontsultetan ez dago brailen edota goi-erliebean idatzitako informaziorik.

Kontsulten %52k ematen du barruan zirkulu egoki bat egiteko aukera. Horrek esan nahi du aztertutako kontsulten %48k ez duela barruan biratzeko aukerarik ematen.

Kontsulten %72k ohatilak ditu barruan. Ohatiletara igotzeko, alboetako bat erabili daiteke (kasuen %67) edo bi alboak erabili daitezke (kasuen %15).

Ohatilen %37k bakarrik du altuera egokia.



San Eloy ospitalea. Behatxulo altua. Ez dago brailen idatzitako informaziorik.



Basurtuko ospitalea. Ampuero pabiloia. Kontraste egokia.



Txagorritxu ospitalea. Objektu bat, oztopoa dena ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat.




San Juan de Dios ospitalea. Ez dago tokirik gurpil-aulkien erabiltzaileak sartzeko.



Galdakao-Usansolo ospitalea. Ezinezkoa da ohatilara igotzea.

75. grafikoa.

Kontsulta orokorretako altzariak



Aztertutako kontsulten %69k altuera egokian du mahaia, nahiz eta %27k bakarrik du atzeko aldea libre eta gurgil-aulkia duten pertsonen modu egokian sartu ahal izateko moduan.

Diagnostikoa egiteko gailuei dagokienez, aipatu behar dugu %69 jotzen dela egokitzat, baina kontsulta batzuetan (kardiologia, otorrinolaringologia eta abar) ezinezkoa da kabina askotara sartzea, hala nola audiometria kabinak, arnas probak egiteko askotariko kabinak eta kardiologia-efortzua neurtzeko probetarako zintak.



San Eloy ospitalea. Ez dago tokirik gurgil-aulkietarako.




Basurtuko ospitalea. Ampuero pabiloia. Ezinezkoa da ekipamenduetara iristea.



Santa Marina ospitalea. Ezinezkoa da ekipamenduetara iristea.

76. grafikoa.

Kontsulta orokorretako mahaia eta beste osagarri batzuk



Beste alde batetik, azaldu behar dugu, gainera, diagnostikorako probak egiteko ezinbestekoak diren beste altzari mota batzuk aztertu ditugula, besteak beste, oftalmologia-probetan erabili ohi diren besaulkiak. Gehienetan egiaztatu dugu ezin zaiela altuera aldatu eta beso-euskarriak ezin direla etzan beharrezkoa den lekualdaketa egin ahal izateko. Egoera horren ondorioz, elementuak ez dira irisgarriak eta gurgil-aulkien erabiltzaileei ezin zaie azterketa behar den moduan egin, haien aukietatik bertatik ez bada. Batzuetan, zeladoreen laguntza behar da lekualdaketak egiteko. Aztertutako kontsulten %3k bakarrik ditu beharrezkoak diren lekualdaketak egiteko garabiak.

Edonola ere, azpimarratu beharra dago batzuetan ezin dela lekualdaketarik egin alboetan aukia kokatzeko toki nahikorik ez dagoelako.



San Juan de Dios ospitalea. Kabinara sartzeko eskailera-maila.



Gorlizko ospitalea. Garabia kontsultan.



Vithas San José ospitalea. Ezinezkoa da besaulkian esertzea.


6.1. Aldagelak

Kontsulten %7k aldagelak ditu barruan. Aztertutako aldagelen artean, batek ere ez du alarma barruan, ez eta mugikortasun urriko pertsonak modu autonomoan arropa jantzi eta erantzeko dimentsio zuzenak ere.



San Eloy ospitalea. Aldagela ez da irisgarria.

77. grafikoa.
Aldagelak



6.2. Komunak

Aزتututako kontsulten %9k komun bat dauka barruan. %10ek du irisgarritasunerako nazioarteko sinboloa. %18k du gupil-aulkien erabiltzaileak igarotzeko beharrezkoa den zabalera ateetan, eta %3k babesteko erradapia du. Ateen %46 ate gidaridunak dira edo kanporantz irekitzen dira, baina komunen %18k bakarrik ematen du barruan egoki biratzeko aukera.

Komunontzien %74k ez dauka tokirik albo batetik sartzeko, eta komunontzietako batean ere ez dago bi alboetatik sartzeko aukerarik. Era berean, komunen %23k bakarrik ditu oratzeko barrak, eta komunontzien %8k bakarrik du altuera egokia.

Konketen %5ek du gupil-aulkien erabiltzaileek erabiltzeko moduko sakonera egokia. Aztertutako komunen %26k ditu "eskutoki" itxurako txorrotak.

Konketako osagarrien %15 eta ispiluen %12 bakarrik daude altuera egokian.

Soilik komunen %13k du barruan eroriz gero edo gerta daitekeen beste edozein arazo gertatuz gero erabiltzeko alarma-sistema.

Esekutoki edo toalla-euskarrien %15ek du altuera egokia.

Ospitaleko zona batzuetan biltegi gutxi daudenez, komun batzuk, irisgarriak direnak, biltegi gisa erabiltzen dira.



Santa Marina ospitalea. Komuna ez da irisgarria.




Txagorritxu ospitalea. Komunontzia ez da irisgarria.



Gurutzetako ospitalea. Eraikin nagusia. Komun irisgarria, baina mahai batek blokeatzen du.

78. grafikoa.

Komunak aldageletan



6.3. Entzuteko desgaitasuna

Agerian utzi behar da aztertutako kontsulta guztien %1ek bakarrik duela entzuteko desgaitasuna duten pertsonekin komunikatzeko beste modu bat.

6.4. Erradiologiako zonak

Aztertutako erradiologiako zonetan, agerian geratu da hutsu-neak daudela, bai irisgarritasun fisikoari dagokionez, bai komunikazioa bermatzeari dagokionez. Aintzat hartu behar da zerbitzu hori dela diagnostikoak egiteko orduan gehien erabiltzen denetako bat.

Erradiologia-probak, ekografiak, erresonantzia magnetikoak, erradioterapiak eta abar egiteko hainbat espazio bisitatu dira.

Egiten diren diagnostikoengatik oso espazio garrantzitsuak dira ospitaleen barruan. Kontuan hartu behar da proba horiek egitera bertaraten direnak bi motatako erabiltzaileak daudela: ospitaleko paziente gisa sartzen direnak (kasu horretan osasun-langileren batek lagunduko die, zeladoreak, adibidez) edo anbulatorioan eskatutako proba bategatik datozenak. Azken kasuan hautematen dira irisgarritasun-arazo gehienak.

Entzuteko desgaitasuna duten pertsonen ez dute komunikazioa errazteko inolako baliabiderik.

Zerbitzu horietara iristeko egin behar diren ibilbideei dagokienez, esan beharra dago korridoreen %32k bakarrik duela zabalera egokia. %2k beste edozein arrapalarik gabeko eskailerak ditu, eta, beraz, ibilbide horiek, ez dute inolako irisgarritasunik gurpil-aulkian doazen pertsonentzat.

Kontsultetara sartzeko ateen %63k igarotzeko zabalera egokia du. Diagnostikorako probak egiteko kontsulten barrualdeari dagokionez, %82k bakarrik ematen du egoki biratzeko aukera.

Kontsulten %51k ematen du gurpil-aulkitik ohatilara bi alboetatik lekualdatzeko aukera, eta %42k bi alboetako baten batetik esertzeko aukera ematen du.

Diagnostikorako mahaien %9 bakarrik da modu autonomoan irisgarria, gainerakoak irisgarriak dira, baina zailtasunekin; izan ere, nahiz eta altuera alda daitekeen, ez dute lekualdatzea egiteko gutxieneko altuera zuzena. Mahai horietako askok eskailera-maila txikiak dituzte eta, ondorioz, mugikortasun urriko pertsonen zail egiten zaie igotzea.



Zumarragako ospitalea. Ate bikoitza zabalera desegokiarekin.




Bidasoa ospitalea. Mahai altua.



Zumarragako ospitalea.
Mahaira igotzeko eskailerak.


79. grafikoa.

Erradiologiako zonetako barrualdea eta altzariak



Barruan, kontsulten %3k bakarrik ditu lekuz aldatzen laguntzeko garabiak. Aurretik adierazi den bezala, tresna hori ez edukitzearen ondorioz, proba batzuk pazientearen gurpil-aulkian bertan egin behar dira, eta egoera hori ez da bere gomendagarria edo egokia.


Mota horretako kontsulten %69k du aldagela. Horietako %29k soilik ditu igartzeko zabalera egokiko atea, eta %18k gidaridun atea ditu edo kanporantz irekitzen dira. Aztertutako aldagelei erreparatuz gero, %11k bakarrik ematen du barruan biratzeko aukera. Era berean, aldagelen %9k baino ez du gurpil-aulkiaren erabiltzaileak arropa erantzeko edo jantzeko neurri zuzenak dituen eserleku bat.



Galdakao-Usansolo ospitalea.
Ezin da barruan biratu.

80. grafikoa.

Erradiologiako zonetako aldagelak



Bisitatutako aldageletan ez dago inolako alarma-sistematik.

Kontsulten %34k komunak ditu. Horietatik, %14k bakarrik du irisgarritasunerako nazioarteko sinboloa. %18k igartzeko gutxieneko zabalera duten atea, eta %37k gidaridun atea edo kanporantz irekitzen diren atea ditu. Ateek ez dute babesteko erradapirik, batek ere ez. Komunen %14k ematen du barruan biratzeko aukera.

Komunontzien %27k ematen du albo batetik sartzeko aukera, eta soilik %5ek dute bi alboetatik sartzeko espazio nahikoa. Komunontzien %36k ditu oratzeko barrak. Komunontzien altuerari dagokionez, esan behar da komunen %14k bakarrik duela altuera egokia.

Beste alde batetik, konketen %5ek bakarrik du bertara gurrpil-aulkian baten bidez sartzeko sakonera egokia.

%32k dituzte "eskutoki" itxurako txorrotak.

Aزتututako komunen artean, %5ek baino ez du ispilua modu egokian jarrita, eta %5ek bakarrik du alarma barruan.


Datu horietatik ondoriozta daiteke, oro har, erradiologiako zonetan dauden komunak ez direla irisgarriak mugikortasun urriko pertsonentzat.



Zumarragako ospitalea.
Komuna ez da irisgarria.

81. grafikoa.

Erradiologiako zonetako komunak



6.5. Errehabilitazioko kontsultak

Atal honetan, errehabilitazioko kontsultak aztertu ondoren lortutako emaitzak eskaintzen dira. Hain zuzen ere, pazientei diagnostikoa egiteko kontsultak hartu dira kontuan.

Kontsultetako ateen %62k du igarotzeko zabalera egokia, eta barruan biratzeko aukera dago. Ehunekoak nahiko txikia da, aintzat hartuta kontsulta horietara gurpil-aulkien erabiltzaile asko joaten direla.

Errehabilitazioko kontsulten %86k ohatilak ditu. Horietatik, %62k altuera egokia du, %29k bi alboetatik igotzeko aukera ematen du eta %52k bi alboetako batetik igotzeko aukera ematen du.

Diagnostikoa egiteko gailuei dagokienez, esan beharra dago %86 irisgarriak direla.

Kontsulta horien %19k bakarrik du lekuz aldatzeko garabia.

Aztertutako kontsulta guztien artean, bakarrik du aldagela, eta ez da irisgarria.

Kontsulten artean, batek ere ez du braillez idatzitako seinaleen bat, ezta zeinu-hizkuntzako interpreteren bat ere, entzuteko desgaitasuna duten pertsonen informazioa eskuratzea eta komunikazioa edukitzea bermatu ahal izateko.



Vithas San José ospitalea. Ez dago espazio nahikorik ohatilaren alboetan.

6.6. Errehabilitazioko gimnasioak/eremuak

Errehabilitazioko gimnasioetarako sarbideen %88k zabale-
ra egokia du. Sarbideetako batek egokiak diren ezaugarriak
dituen arrapala bat du, baina ez du beherago jarri beharko
litzatekeen bigarren eskudelik.

Gimnasioko ateen %67k igarotzeko beharrezkoa den zaba-
lera du, %88k kontraste egokia du, ateen %17 beirazkoak
dira, eta horien %50ek seinale egokiak ditu.



Galdakao-Usansolo ospitalea. Baranda ez da egokia. Ateetako seinaleak ez dira zuzenak.

Errehabilitazioko eremuen ohatilei dagokienez, adierazi be-
har dugu %79k altuera egokia duela. Eremuen %50ek lekual-
daketak egiteko garabiak ditu.

Oro har, adierazi dezakegu zona horietan erabilitako seina-
leak egokiak direla kontraste, altuera eta karaktereei dago-
kinez, baina, hala ere, informazioa ez da brailleen edo goi-er-
liebean idatzita ageri.

Errehabilitazioko igerileku guztietan lekuz aldatzeko garabiak
daude eta egokiak dira bertan egiten den errehabilitazio-mo-
tari begira, baina erabili ahal izateko ospitaleko langileen la-
guntza behar da; hortaz, ezin dira modu autonomoan erabili.

Erabiltzen den errehabilitazioko ekipoa ez da beti irisgarria
mugikortasun urriko pertsonentzat. Zentro batzuek motor-
dun pedalak dituzte, gurpil-aulki batetik erabili ahal direnak.
Hori da mugikortasun urriko pertsonentzat beren-beregi da-
goen material bakarra.




Donostiako Unibertsitate ospitalea. Amara eraikina. Pedala, funtzionamendu elektrikokoa eta irisgarria.



Bidasoa ospitalea. Ohatila altura aldagarrian.


82. grafikoa.

Errehabilitazioko eremuetako ohatilak eta garabiak



83. grafikoa.

Errehabilitazioko eremuak. Ikusteko desgaitasuna



Gimnasioko kontsulten %54k aldagelak ditu barruan, eta soilik aldagelen %54k ematen du barruan biratzeko aukera.

Aldageletako ateen %46k bakarrik du zabalera egokia, eta %23 gidaridun atea edo kanporantz irekitzen diren atea dira.


Aldagelen %8k bakarrik ditu bankuak eta alarma-sistema barruan.



Galdakao-Usansolo ospitalea. Esekitoki altuak. Irisgarriak ez diren bankuak eta heldulekurik gabekoak.

84. grafikoa.

Errehabilitazioko eremuetako aldagelak



Aldagelen %38k dutxak ditu. Dutxetako bat ere ez da erabat irisgarria; izan ere, ez dituzte irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak.

Errehabilitazioko zonen %54k komun bat du hurbil, eta %23k bakarrik du irisgarritasunerako nazioarteko sinboloa.

Ateen %54k igartzeko zabalera egokia du, eta %8k bakarrik du babesteko erradapia.

Ateen %38 gidaridunak dira edo kanporantz irekitzen dira. Komun %31k baino ez du barruan biratzeko aukera ematen.

Era berean, adierazi behar da komun %8k alarma duela barruan, bai eta komunitzira lekuz aldatzen laguntzeko garabia/polipastoa.


Komunitzien %38k du espazioa alboan gurgil-aulkitik bertara lekuz aldatzeko. Horien %8k bakarrik du lekualdaketa egiteko altuera egokia, eta %69k oratzeko barrak ditu.



Galdakao-Usansolo ospitalea. Alboan ez dago tokirik lekualdaketa egiteko.

85. grafikoa.

Errehabilitazioko eremuetako komunak



Konketen %70 ez dira egokiak altuerari dagokionez, eta %15ek bakarrik du gurgil-aulkian doazen pertsonen erabiltzeko sakonera egokia.

Konketen %31k ditu "eskutoki" itxurako txorrotak, pertsona ugarirentzat iritsiezinak direnak.

Aztertutako komunen artean, %38k ispiluak ondo kokatuta ditu, eta %15ek bakarrik ditu kakoak eta toalla-euskarriak altuera egokian.

7.

Ginekologiako kontsultak

Puntu honetan komenigarria da zehaztea irisgarritasun-bal-dintzen azterketa sakonagoa egin dela, egin badaiteke; izan ere, mugikortasun urriko emakumeengandik kexa gehien jaso ohi dituen kontsultetako bat da. Hori horrela, gurgil-aulkia erabiltzen dituzten emakume desgaituek bertan aurkitu ohi dituzten zailtasunak zehaztu nahi dira.

Guztira, ginekologiako 25 kontsulta aztertu dira. Aztertutako kontsulten %26k egokia den zabalera baino zabalera estuagoa duten korridoreak ditu.


Kontsultetara sartzeari dagokionez, esan behar dugu kasuen %8k ez duela malda egokiko arrapalarik, gainditu behar den altuerari begira. Gainera, ez dituzte erabat irisgarritzat hartu ahal izateko ezaugarri aproposak betetzen.



Basurtuko ospitalea. Arrupe eraikina. Ibilbidea ez da irisgarria.

86. grafikoa.

Ginekologiako kontsulten kanpoaldeak



Deigarria gertatzen da kontsultetara sartzeko ateen %28k bakarrik duela igarotzeko zabalera egokia.

Ateen %4 beirazkoak dira, eta bakar batek ere ez du seinaleztapen zuzena. Horrez gain, gurpil-aulkien erabiltzaileei kontsulten %44k bakarrik ematen die aukera barruan bira emateko.

Azterketak egiteko besaulki edo ohatilei dagokionez, zehaztu behar dugu %73k alboan espazio egokia duela gurpil-aulkien erabiltzaileen lekualdaketak egiteko. Lekualdaketen %21 bi alboetatik egin daiteke.

Aztertutako ohatilen %45ek bakarrik du erabiltzeko altuera egokia.


Era berean, aipatu behar da kontsulten %4k bakarrik duela lekuz aldatzeko garabia, eta kasu horietan, diagnostiko eraginkorra lortzeko, ezinbestekoa da pazientea ohatila edo besaulkira mugitzea. Batzuetan, mugikortasun urriko emakumeak azterketa horietara joan daitezke zeladoreek ondo jokatzan dutelako, eta ezin izango lirateke joan zeladoreek lekualdaketan parte hartuko ez balute.



Donostiako Unibertsitate ospitalea. Ez dago biratzeko espazio nahikorik.

88. grafikoa.


Ginekologiako kontsultetako altzariak



Soilik ginekologiako kontsulten %12k ditu aldagelak, baina ez dira irisgarriak. Komunekin gauza bera gertatzen da: dauden %20ren artean bat ere ez da irisgarria.

87. grafikoa.

Ginekologiako kontsulten barrualdeak



Kontsultetako batek ere ez du entzuteko desgaitasuna duten pertsonekin komunikatzeko aukera ematen duen baliabiderik.

8. PEAZ (Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta-Zerbitzua)

PEAZeen ibilbideen %80 egokiak dira.


Bulegoetara sartzeko ateen %67k igarotzeko zabalera egokia du. Ateen %11 beirazkoak dira, eta ez dute inolako banda adierazlerik.



Gurutzetako ospitalea. Beirazko atea, babesteko erradapi eta seinaleztapen egokirik gabe.

89. grafikoa.

PEAZetara joateko sarbideak




Bulegoen %44k ematen du barruan egoki biratzeko aukera.

PEAZen dauden arretarako mahaiei dagokienez, adierazi behar da %94 altuera egokian egon arren, %6k bakarrik duela gurpil-aulkien erabiltzaileak hurbiltzeko beharrezkoa den sakonera egokia.

Unitate horietan ez dago zeinu-hizkuntzako interprete bat ere ez, eta ez da jarri beste baliabiderik entzuteko desgaitasuna duten pertsonekin komunikatzeko.

90. grafikoa.

PEAZetako barrualdeak



Ospitaleratzeko eremuak

9.1. Logelak

Atal honetan, ospitaletako logelen egoera aztertuko da baina irisgarritasunaren ikuspuntutik. Gaur egun dauden askotariko logelen ereduak ikusita, azterketa zehatzagoa egiteko egokitzat jo da logelak atalka sailkatzea, atal desberdinetan: logela bikoitzak, banako logelak, bi ohe baino gehiago dituzten logelak eta boxen zonak. Guztira, 198 logela aztertu dira.

Adierazgarria da irisgarriak edo irisgarritasun mugatua duten logelen kopurua mugatua izatea EAEko ia ospitale gehienetan. Ospitaleratzeko eremu guztiei erreparatuz gero, ez dago erabat irisgarria den logela bat ere ez, eta, oro har, traumatologia-eremuan daude. Horrek esan nahi du mugikortasun urriko pertsona bat, dagokion tratamendua jaso ahal izateko ospitalean geratzeko patologia edozein izanda ere, traumatologia-zonan ospitaleratuko dutela. Egoera horrek arazoak sortzen ditu ospitaleko langileen antolaketan.

Hala eta guztiz ere, zehaztu nahi dugu ospitale batzuek ahalegin handia egin dutela eraikinetako logeletako irisgarritasuna hobetzeko. Edonola ere, oraindik ere, gutxi dira oso-osorik egokitzeko eta eraikinetako eremu guztietan egokitzeko logelak edukitzeko beharrezkoak diren obrak egin dituzten ospitaleak.

Orokorrean, esan behar dugu ospitaleko korridore guztiek dituztela igarotzeko zabalera egokia. Hala ere, aipatu behar da kasu askotan altzariak modu desegokian kokatuta daudela, eta, ondorioz, gurpil-aulkien erabiltzaileak ezin dira instalazioetatik modu autonomoan ibili.

Telebistak pizteko gailuak ez dira irisgarriak, altuera oso garai batean baitaude. Leihoak irekitzeko mekanismoekin ere gauza bera gertatzen da.

Logeletako balkoi edo terrazetara irteteko sarbideak ere ez dira irisgarriak.



Zumarragako ospitalea. Logela irisgarria. Mekanismo altuak.



Zumarragako ospitalea. Logela irisgarria. Irisgarria ez den leihoa.



Santiago Apóstol ospitalea. Armairua ez da irisgarria ate estua duelako.


9.2. Logela bikoitzak

Logeletako ate gehienak orri bakarrekoak dira, eta kasuen %84k zabalera egokia du. Zentzu horretan, komeni da adieraztea ateen derrigorrez 90 cm baino gehiagoko zabalera izan behar dutela pazienteak lekualdatzeko oheak arazorik gabe mugitu ahal izateko. Logeletako sarbideen %42k bakarrik ematen du barruan biratzeko aukera.

Oheen %80k du gurgil-aulki batekin sartzeko alboko espazioa, eta %81ek altuera egokia du. Hala ere, soilik logelen %57k du altzarien eta ohearen artean igarotzeko zabalera egokia; hori dela eta, gurgil-aulkien erabiltzaileek, logela beste pertsona batekin partekatzean, zailtasun larriak izan ohi dituzte beren aulkiak erabiltzeko eta logelaren barruan uzteko. Beraz, ezin dira gelatik mugitu.

91. grafikoa.


Logela bikoitzen barrualdeak



Aztertutako armairuen %62 ez da irisgarria, gurgil-aulkien erabiltzaileek ezin baitituzte aurrez aurre erabili.

92. grafikoa.

Logela bikoitzetako altzariak



Logelen %95ek komunak ditu barruan. Aztertutako komunen %31k bakarrik ematen du barruan egoki biratzeko aukera. Komunen %22k ditu igarotzeko zabalera egokia duten ateen. Ateen %72 gidaridunak dira edo kanporantz irekitzen dira. Atentzioa ematen du komunen %36k alarmerik ez edukitzea, erortzeko arrisku handiko tokiak direla kontuan hartuta.


Adierazi behar da komunontzien %36k espazio egokia duela alboetako batean, eta %3k bakarrik ematen duela bi alboetatik erabiltzeko aukera. Komunontzien %49k ditu oratzeko barrak, nahiz eta soilik %22k eduki oratzeko barrak bi alboetan. Hala ere, barra gehienak ez daude ondo instalatuta. Horrez gain, esan dezakegu komunontzien %15ek altuera egokia duela.



Santiago Apóstol ospitalea. Ez dago lekualdaketak egiteko tokirik.

93. grafikoa.

Logela bikoitzetako komunak




Konketen %91k altuera egokia du, baina %8k bakarrik du gurgil-aulkia duen erabiltzaile batek aurrez aurre erabili ahal izateko sakonera nahikoa. %11k "eskutoki" itxurako txorrotak ditu. Ispiluen %20 baino ez dago ondo kokatuta. Amaitzeko, esan behar dugu logelen %3k ez dituela hodiak horman sartuta, kanpotik kokatuta daude eta ez dute inolako isolamendu termikorik. Horrek erredurak ekar ditzake txarto kokatuta egoteagatik.



Arabako Ospitale Psikiatrikoa. Konketa ez da irisgarria.

94. grafikoa.

Logela bikoitzeko komunetako elementuak



Logelen %86k dutxa du, baina %41k baino ez ditu gutxieneko dimentsio minimo egokiak. Era berean, %40k bakarrik du lekuz aldatzeko espazio nahikoa.

Dutxako itxiturei dagokienez, aipatu behar da %34 direla irisgarriak, eta %46k bakarrik dute zero kota eta irtengunerik ez. Bestalde, dutxen %18k baino ez ditu aulki egokiak. Dutxen %66k oratzeko barraren bat du, eta %44k altuera egokia du. Horrez gain, %9k eskudelak ditu gela osoan.


Txorrotei dagokienez, esan behar dugu %51 aginte bakarrekoak direla, eta %63 ondo kokatuta daudela. Soilik jauzi-iturrien %22 daude altuera aldatzeko barra baten gainean.



San Onofre Zainketa Ospitalea. Dutxa irisgarria.

95. grafikoa.

Logela bikoitzetako dutzak



Adierazi behar dugu logela bikoitzen %5ek bainuontziak dituela komunetan. Komun horien %11k bakarrik ematen du barruan biratzeko aukera, ez dago lekualdaketa egiteko toki nahikorik, ezta oratzeko barrarik ere. Bainuontzien %56k aginte bakarreko txorrotak ditu.



Santiago Apóstol ospitalea. Bainuontzia irisgarria ez den komunean.


9.3. Banako logelak

Guztira, banako 47 logela aztertu dira, eta horien %80ra sartzeko dimentsio egokiak dituzten korridoreak erabiltzen dira, baina askotan estuagoak izaten dira altzariak txarto kokatuta daudelako.

Ateen %85ek igarotzeko zabalera egokia du, baina, hala ere, logela bikoitzekin gertatzen den bezala, gutxienez igarotzeko metro bateko zabalera edukitzea gomendatzen da.

96. grafikoa.

Banako logeletako sarbideak



Logelen %66k espazio nahikoa du altzarien eta ohearen artean. Mota honetako logeletan espazio gehiago dago, eta lortutako datuekin argi geratu da hori; izan ere, logelen %60k espazio nahikoa du oheko lekualdaketa bi alboetatik egiteko, eta %36k alboetako batetik egiteko. Horrek esan nahi du espazio nahikoa dagoela gurgil-aulkitik lekualdaketa erositasunez egiteko.

Logela horietako batzuetan polipastoa jartzen hasi dira.

Logelen %94k armairua du, baina egiaztatu ahal izan dugunez, armairuen %43k altuera desegokian ditu apalak.




Mendaroko ospitalea. Mendekotasun handia duten pertsonentzako logela. Polipastoa.



Zumarragako ospitalea. Egokitutako logela. Albo batetik lekualdatzea galarazten duen armairua.

97. grafikoa.

Banako logeletako altzariak




Logelen %96k komuna du, horietatik %36k zabalera egokia du atarekin eta %4k babesteko erradapiarekin.

Banako logelen komunetako ateei dagokienez, adierazi behar dugu %69 gidaridunak direla edo atea kanporantz irekitzen zaiela.

Beste alde batetik, soilik komunen %29k ematen du barruan rgoki biratzeko aukera.

98. grafikoa.

Banako logeletako komunak




Komunen %47an, komunontziak alboetako baten batetik erabili ahal dira. %57k oratzeko barrak ditu, eta horien %80

egokiak dira (altuera, luzera eta kokapena). %27k bakarrik du eserlekua altuera egokian jarrita.

99. grafikoa.

Banako logeletako komunontziak



Logelen %98k konketa du, eta gehienak altuera egokian daude. Dena dela, ez dute gurpil-aulkia duen erabiltzaile batek aurrez aurre erabili ahal izateko sakonera nahikoa. Konketen %15ek "eskutoki" itxurako txorrotak ditu.

Konketako osagarrien %33 eta ispiluen %31 altuera egokian kokatuta daude.

Komunen %42k hodiak kanpoan ditu (ez daude horman sartuta), baina hodi horien %84 ez dago ondo babestuta.

Banako logelen %96k dutxa dauka, baina %44k bakarrik ditu dimentsio egokiak. Dutxen %58k zero kota du, eta %42k dutxaontziak ditu, baina irtenguneekin. Dutxen %37k eserlekua du barruan. Eserlekuen %21 etzan ahal dira, eta altuera zein zabalera egokiak ditu.

Dutxen %70ek oratzeko barraren bat du, eta horien %53 altuera egokian kokatuta dago.

Soilik konketen %42k du aginte bakarreko txorrota. %37 altuera egokian dago, eta dutxen %37k altuera aldatzeko barru bat du jauzi-iturrian.



Basurtuko ospitalea. Revilla eraikina. Ispilu altua eta inklinaziorik gabekoa.



Basurtuko ospitalea.
Revilla eraikina.
Dutxa irisgarria.

9.4. Bi ohe baino gehiago dituzten logelak

Bi ohe baino gehiago dituzten zazpi logela aztertu dira ospitale desberdinetan. Aztertu ondoren, honako datu hauek lortu dira:

Korridoreetatik mugitzeko ibilbideen %14k bakarrik du zabalera egokia.

Korridoreetan dauden ateen %57k eta logeletarako sartzeko ateen %43k ondo igarotzeko zabalera egokia dute. Datu hori kezkarria da; izan ere, lehen aipatu dugun bezala, ezinbestekoa da ateen 90 cm baino gehiagoko zabalera edukitzea oheak logeletatik lekualdatzeko.


Logelen %71k espazio nahikoa du lekualdaketa ohearen bi alboetatik egiteko. Era berean, oheen %86k altuera egokia du gurpil-aulkitik lekualdaketa egiteko, baina ohetik hurbil dauden kontrol-mekanismoen %57k bakarrik du altuera egokia.

Armairuen %29k soilik ditu apalak eta tiraderak altuera egokian.

Logelen %86k komunak ditu barruan. Komun horien %17k igarotzeko zabalera egokia du, baina batek ere ez du babes-teko erradapirik. %83 kanporantz irekitzen dira edo gidaridunak dira.

100. grafikoa.

Banako logeletako dutxak



Komunen %7k bainuontziak ditu, baina bat ere ez da egokia mugikortasun urriko pertsonentzat.



Basurtuko ospitalea.
San Pelayo eraikina.
Zaila da sartzea.



Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa.




Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa.
Ez dago gurpil-aulkia aurrez aurre hurbiltzeko espazio nahikorik.



Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa.
Ez dago lekualdaketa egiteko tokirik.

101. grafikoa.

Bi ohe baino gehiago dituzten logeletako komunak




Aztertutako komunen %17k bakarrik ematen du barruan egoki biratzeko aukera. Era berean, esan beharra dago %17k bakarrik duela alarma-sistema.

Komunontzien %33k bakarrik du espazioa albo batetik, eta %17k oratzeko barrak ditu ezaugarri egokiekin. Batek ere ez du eserlekua altuera egokian.

102. grafikoa.

Bi ohe baino gehiago dituzten logeletako komunontziak



Konketa guztiak altuera egokian kokatuta daude, baina ez dute gurgil-aulki batekin erabiltzeko sakonera egokia. Gainera, osagarriak ez daude altuera egokian.

Solilik ispiluen %17 dago altuera egokian kokatuta, eta kako edo toalla-euskarriei dagokienez, ez daude beharrezkoa den altueran kokatuta.



Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa. Konketa, oinarekin.

Komunen %50ek dutxak ditu. Horietatik, %33k dimentsio egokiak ditu, eta %67k lekualdatzea errazteko espazio nahikoa.


Guzti-guztietan dutxako-itxitura egokia dago edo ez dago dutxa-itxiturarik.

%33k dutxaontzia du irtengunearekin, eta %33k aulkia du, baina ezin da etzan.

Ez dute, ez barrarik, ez eskulekurik, eta txorrota guztiak okerreko altueran kokatuta daude. Horrez gain, ezin da jauzi-iturrien altuera aldatu.

103. grafikoa.

Bi ohe baino gehiago dituzten logeletako dutxak



Komunen %50ek bainuontziak ditu, baina horietako batek ere ez du alboan espazio nahikorik lekualdaketetarako. Bestalde, ez dituzte irisgarritasunari dagozkion ezaugarri egokiak betetzen.

9.5. Boxak

Boxetako ibilbideen %80 irisgarriak dira. Sartzeko ateen %92k igarotzeko beharrezkoa den zabalera du.

Boxen barruan dauden altzarien %65k espazio nahikoa uzten du erditik igarotzeko.

Beste alde batetik, boxetan dauden oheen %37k bi alboetatik igotzeko aukera ematen du, eta oheen %29k albo batetik ohera sartzea.

Boxetako %40k ditu pazienteentzako armairuak, eta horietatik %76k apalak eta tiraderak altuera egokian ditu.



Santiago Apóstol ospitalea. Informazioa goian baino ez dago.



Santiago Apóstol ospitalea. Gurgil aukientzat egokitutako tokia.




Santiago Apóstol ospitalea. Espazio gutxi boxen artean.



Vitoria Eugenia ospitalea. Armairuak ez dira irisgarriak.

104. grafikoa.

Boxetako altzariak




Boxen %47k bakarrik du komuna. Komun horien %21ek argia pizteko sistema automatikoa du, eta barruan gurgil-aulkiarekin egin behar den bira kasuen %48tan baino ezin da egin.

%45ek alarma-sistema dauka.

Sartzeko ateen %55ek igarotzeko beharrezkoa den zabalera du, eta soilik %17k du babesteko erradapia. Ateen %62 gidaridunak dira edo kanporantz irekitzen dira.

105. grafikoa.

Boxetako komunak




Komunontzien %7k bakarrik ematen du bi alboetatik sartzeko aukera, eta %62k albo batetik baino ez.

Dutxen %66k oratzeko barraren bat du, eta horien %80k ezaugarri egokiak betetzen ditu. Era berean, eserlekuen %28 baino ez dago altuera egokian.

106. grafikoa.

Boxetako komunontziak



Konketei dagokienez, esan behar dugu %86k altuera egokia duela, baina, hala ere, soilik %14k du gurpil-aulkien erabiltzaileak hurbiltzeko sakonera nahikoa.

Ispiluen %34 altuera egokian daude, eta konkretako osagarrien %38 ere bai.

Esekitokien eta toalla-euskarrien %48 ondo kokatuta daude.



Galdakao-Usansolo ospitalea. Konketa egokia. Ispilua eta papera oso goian daude.

Aztertutako boxen %38k dutxak ditu eremuan. Horien %45ek neurri egokiak ditu, bai eta lekualdaketak egiteko alboko espazioa ere.


Dutxa-itxituren %36 ondo dago.

Dutxen %55etako dutxaontziek irtenguneak dituzte. %27k eserlekua du dutxan, baina ezin dira etzan. %27k barrak ditu alboetako batean, eta %9k eskudelak esparru osoan.

Soilik jauzi-iturrien %18 dago kokatuta altuera aldatzeko barraren gainean.

107. grafikoa.

Boxetako dutxak



Aztertutako boxetako batek bainuontzia du. Bertan ez dago lekuz aldatzeko eremurik, ez eta sartzeko lagungarri den beste elementurik.

9.6. Aldagelak

Atal honetan, ospitaletan espezifikoak ez diren zonatan kokatutako aldagela ezberdinak aztertu dira, hala nola pediatriako aldagelak (ospitaleratutako adingabeen familientzat diren aldagelak) edo errehabilitazioko eta erradiologiako zonetatik hurbil daudenak, baina beren-beregi zerbitzu horietakoak ez direnak. Guzti-guztiekin dituzte komunak barruan; hortaz, erabilera mistoa dute: komuna eta aldagela batera.


Guztira, mota horretako 7 aldagela aztertu dira. Aldagelen %71k ibilbide egokiak ditu.



Basurtuko ospitalea. San Pelayo eraikina. Alboan ez dago tokirik lekualdaketak egiteko.

108. grafikoa.

Aldageletako sarbideak



Ateen %43k igarotzeko zabalera egokia du, %14k babes-teko erradapia du eta %29 ate gidaridunak edo kanporantz irekitzen direnak ditu.

Argia automatikoki pizten da aldagelen %14an. Horietako batek ere ez du alarmerik beharrezkoa denean eragiteko.




Donostiako Unibertsitate ospitalea. Ama-haurren eraikina. Ez da irisgarria gurpil-aulkien erabiltzaileentzat.

Aldagelen %43k armairuak ditu barruan, baina apalak ez daude altuera egokian kokatuta horietako batean ere ez.

Aztertutako aldageletan, ez dago dimentsio egokiak dituen banku bat ere ez, eta kakoak ez daude altuera egokian kokatuta.

109. grafikoa.


Aldagelak



Aldageletako komun %43k alboko espazioa eta oratzeko barrak ditu sartzeko errazteko, baina %29k bakarrik ditu ezaugarri egokiak. Horrez gain, komunontzietako eserlekuen %29 altuera egokian dago.

110. grafikoa.

Aldageletako komunontziak



Aldageletako konketen %86k altuera egokia badu ere, horietako batek ere ez du gurpil-aulki batekin aurrez aurre sartzeko sakonera egokia.

Ispiluen %29 altuera egokian dago, baina konketako osagarriekin ez da hori betetzen. Soilik aldagelen %14k ditu kakoak eta toalla-euskarriak altuera aproposan.

Era berean, komun %14k ez du kanpoko hodian beharrezkoa den babes termikorik, ez eta erregulatuak termikorik ere.

Logelen %86k dutxa du barruan. Dutxa horien %29k dimentsio zuzenak ditu, baina %14k bakarrik du lekualdaketa albotik egiteko espazio nahikoa.


Dutxa-itxitura guztiak desegokiak dira. Dutxen %50 zoruaren jarraipena bada ere, %17k "irtenguneak" ditu, gurpil-aulkien erabiltzaileentzat oztopoa izan daitekeena. Dutxen gainerako %50ek dutxaontzia du baina ez dago zoruarekin berdinduta.

Dutxen %17k ez du irristaduren aurkako zorurik.

Dutxen %17k etzan daitekeen eserlekua du horman. Era berean, %17k oratzeko barra du alboetako batean, baina ez dago altuera egokian. %17k bakarrik ditu txorrota egokiak, eta jauzi-iturrien %67ren altuera aldatu daiteke.

111. grafikoa.


Aldageletako dutxak



Osatek zentroa, Areetako ambulatorioa.

112. grafikoa.

Osatek zentroetako ibilbideak eta sarbideak



10.

Osatek zentroak

Osatek zentroak, erradiologiako zonak bezala, diagnostikoak eta erabiltzaileek jarraitu beharreko askotariko tratamenduak egiteko zerbitzu erabakigarriak dira. Hori dela eta, ezinbestekoa da EAE osotik banatuta dauden zentro guztiek aurreikusitako irisgarritasun unibertsalerako estandarrak betetzea; horrela, bermatu ahal izango da pertsona guztiei dagozkien irudi-diagnostikoak berdintasun-baldintzetan egin ahal izango zaizkiela.

Guztira, 6 Osatek zentro aztertu dira ospitale eta ambulatorioetan, bai eta unitate mugikor bat ere.

Seinaleei dagokienez, esan dezakegu Osatek zentroetako %83k ez duela brailen edota goi-erliebean idatzitako informaziorik. Horietako batean ere ez dago sarrerako harreara-mahaietara doazen norabideko gida-zerrendarik.

Kasuen %67k bakarrik ematen du barruan egoki biratzeko aukera.



Osatek zentroa, Galdakao-Usansolo ospitalea.




Osatek zentroa, Areilza anbulatorioa. Ez dago aukirik mugikortasun urriko pertsonentzat.



Osatek zentroa, Areetako anbulatorioa. Sarbide arrikutsua eskailera-mailagatik.

113. grafikoa.

Osatek zentroetako sarbideak. Ikusteko desgaitasuna



114. grafikoa.

Osatek zentroetako itxarongelak



10.2. Osatek zentroetako itxarongelak

Itxarongeletako ateetako %50 beirazkoak dira eta ez dute inolako seinalerik, eta %50ek tokia du ondo igarotzeko.

Itxarongelen %17k gupil-aulkien erabiltzaileak egoteko tokia dute, eta, gainera, alboan aulki bat dute beste lagun batekin egoteko. Zona horietan ez dago irisgarritasunerako nazioarteko sinbolorik, batean ere ez.

Itxarongelen %50ek mugikortasun urriko pertsonentzako eserleku egokiak dituzte, baina beso-euskaririk gabe.

Itxarongelen %67k ematen du barruan biratzeko aukera.

Informazio gutzia idatziz ematen da. Geletan ez dago inolako argi- edo soinu-informaziorik.

10.3. Osatek zentroetako barrualdeak

Barruko korridoreen %77k zabalera egokia du. Barruko sarbideen %14k eskailera-maila isolatua du, eta ez dago igarotzeko beste biderik.


Diagnostikoko zonetara sartzeko ateen %67k igarotzeko gutxieneko zabalera du.

Kontsulen %67k barruan biratzeko toki nahikoa du.

Ohatilak erabiltzeari dagokionez, aipatuta behar da kasuen %83k baduela bi alboetatik sartzeko aukera, eta, bestalde, beti dago albo batetik sartzeko aukera.

Aldagelen %50ek gidaridun atek ditu edo kanporantz irekitzen dira, zabalera egokiarekin.


Soilik %17k ditu banku bat eta alarma-sistema.



Osatek zentroa, Donostiako Unibertsitate ospitalea. Aldagela ez da irisgarria.

115. grafikoa.

Osatek zentroetako aldagelak



Osatek zentroetako %83k komuna du barruan.

Komunen %60k ate gidaridunak edo kanporantz irekitzen direnak ditu, zabalera egokiarekin. Gainera, irisgarritasunerako nazioarteko sinboloa dago bertan. Alabaina, %20k baino ez du babesteko erradapia. Ateen %20 beirazkoak dira, eta bakar batek ere ez du banda adierazlerik.

Komunen %80k bakarrik ematen du barruan egoki biratzeko aukera, eta %20k bakarrik du alarma barruan.

Komunontzien %20k bakarrik ematen du bi alboetatik sartzeko aukera, eta %40k albo batetik baino ez. %80k oratzeko barra du, baina soilik horien %20 dago altuera egokian kokatua.


Konketei dagokionez, esan behar dugu %80 altuera egokian dagoela, baina batek ere ez duela gurgil-aulkien erabiltzaileek erabiltzeko sakonera nahikoa. Bestalde, ispiluen %20 altuera egokian kokatuta daude.



Osatek zentroa, Areilza anbulatorioa.

116. grafikoa.


Osatek zentroetako komunak



Diagnostikorako gailuei dagokionez, adierazi behar da, ez dira irisgarriak, baina guzti-guztietan daude zeladoreak mugikortasun urriko pertsonen bertara sartzeko laguntzeko prest. Zentro horien %17k bakarrik du lekuz aldatzeko garabia.

117. grafikoa.

Osatek zentroetako altzariak



10.4. Osatek zentroetako irisgarritasuna entzuteko desgaitasuna duten pertsonentzat

Ez dago zeinu-hizkuntzako interpretetik, ez eta entzuteko desgaitasuna dutenentzako komunikatzeko beste modurik edota soinu-handigarrikerik ere.

11.

Beste batzuk

11.1. Eskolak ospitaleetan

Aztertutako eskolen %50ek zabalera egokiko atea dute, eta barruan bira bat eman ahal da horien %50ean. Gainera, %50ek espazio egokia du altzarien artean.

Mahaien %50 irisgarriak dira gurpil-aulkien erabiltzaileentzat. %50ek komuna dute, baina ez dira irisgarriak.

Kasu batean ere ez dago zeinu-hizkuntzako interpretetarik.



Donostiako Unibertsitate ospitaleko eskola. Ez da irisgarria.



Donostiako Unibertsitate ospitaleko eskola. Ez da irisgarria.

11.2. Ziber-gelak

Ziber-geletara doazen ibilbideen %75 egokiak dira.

%25ek bakarrik dute igarotzeko zabalera egokia duten atea, eta ateen %50 beirazkoak dira, baina batek ere ez du seinaleztapen zuzenik seinale-banden bitartez.

Altzarien %25ek espazio egokia du elementuen artean. Soilik mahaien %50ek du gurpil-aulkien erabiltzaileak hurbiltzeko sakonera egokia azpian eta zabalera egokia.

11.3. Farmaziak

Farmazietako ibilbideen ia %90 egokiak dira, baina, hala ere, sartzeko ateen %43k bakarrik du igarotzeko zabalera egokia. Era berean, farmazien %14k gurpil-aulkien erabiltzaileei barruan biratzeko ematen die aukera.

Altzarien %57k espazio egokia du elementuen artean igarotzeko.

Farmazietan ez dago zeinu-hizkuntzako interprete bat ere ez, ez eta entzuteko desgaitasuna duten pertsonekin komunikatzeko beste modurik ere.



Donostiako Unibertsitate ospitaleko farmazia. Seinale-bandarik gabeko atea.

11.4. Kafetegiak

Guztira, ospitaleen barruan dauden 23 kafetegi aztertu dira.

Ibilbideetan eskailera-mailak dituzten zatiak badaude ere, %50ek baino ez du arrapala alternatiboa. Arrapalak dituzten kafetegietako sarbideen %25ek gutxieneko zabalera du, eta %25ek malda egokia du gainditu behar den altuerari dagokionez. Arrapalen %50ek bakarrik du eskudela, eta horietako batek ere ez du beheerago kokatu behar den bigarren eskudela. Era berean, %50ek irristaduren aurkako zoladura du.

Kafetegietako sarbideen %9 kanpotik baino ez da egiten. Sarbideen beste %4 errepidetik doan ibilbidetik egiten da, eta ez da irisgarria. Sarbideen %4k eskailerak igotzeko eta jaisteko plataforma du kafetegira sartzeko.

Kafetegien %4k ez du aterik. Dauden ateetatik, %74k igarotzeko zabalera egokia du, %39k beirazko atea dute eta bakarrik %15ek dute seinale-bandak.

Kafetegien %74k ematen du barruan biratzeko aukera.

Barren %22k du gurpil-aulkien erabiltzaileek erabiltzeko moduko ezaugarriak dituen eremu bat.

Kafetegietako arazorik larriena da *self-service* sistema ezarri dela; izan ere, zerbitzu mota horrek oro har arazoak ekartzen dizkie mugikortasun urriko pertsoneri eta, bereziki, ikusteko desgaitasuna duten pertsoneri.

Kafetegien %57k oin-zatarrak edo alfonbra txikiak dute, baina horien %15 baino ez dago ondo finkatuta.

Kafetegian dagoen seinaleztapenaren %4 baino ez dago brailleen edota goi-erliebean idatzita.

Karaktereen kontrastea eta karaktereei begira, seinaleen %45 bakarrik da egokia, baina, hala ere, paneletara hur-

biltzeko aukerari dagokionez, azpimarratu behar da seinaleen %4k bakarrik duela brailleen edota goi-erliebean idatzitako informazioa.

Kafetegietako gelen %43k bakarrik ditu informazio-panelak. Kasuen %26an informazioa idatziz jasota dago, eta paneletako batek ere ez du argi bidezko abisurik.



Galdakao-Usansolo ospitaleko kafetegia. Seinale-bandarik gabeko ate estuak.



Bidasoa ospitaleko kafetegia. Self-service.

11.5. Ekitaldi-aretoak eta auditoriumak

Ospitaleetan ekitaldi-aretoak eta auditoriumak daude, non askotariko hitzaldiak eta ekitaldiak antolatu ohi diren. Guztira, 17 aztertu dira.

Gela horietara joateko ibilbideen %93k igarotzeko gutxieneko zabalera du, baina, hala ere, korridoretako ateen %47k soilik du igarotzeko gutxieneko zabalera.

Sartzeko ateei dagokienez, adierazi behar da %24k bakarrik duela igarotzeko zabalera egokia. %18 beirazkoak dira, eta ez dute seinale-bandarik.

Auditorium guztien barruan biratu ahal da.

Erabilitako altzarien %80k ezaugarri egokiak ditu.

Hala eta guztiz ere, nabarmendu behar da ekitaldi-aretoen %18k ez duela gurgil-aulkien erabiltzaileentzat erreserbatutako espaziorik. Erreserbatutako espazioen %12 ez dira irisgarriak, aldaparen batean daudelako. Ekitaldi-aretoen %58k bakarrik du gurgil-aulkien erabiltzaileentzako erreserbatutako espazioa baldintza egokietan, baina ez du inolako seinaleztapenik edo kokaleku zehatzik.

Ekitaldi-aretoen %53k oholtzara igotzeko arrapalak ditu, edo zero kotan dago. Hala ere, horien %6k bakarrik du oholtzara igotzeko beharrezkoak diren ezaugarri egokiak.

Auditorium batzuetan dauden komunetatik bat ere ez da irisgarria; izan ere, ez dituzte mugikortasun urriko pertsonak erabiltzeko ezaugarri egokiak betetzen.



Gurutzetako ospitaleko ekitaldi-aretoa.

11.6. Kaperak

Ospitale guztietan ez dago kaperarik, eta existitzen direnak era askotako tipologiakoak dira. Guztira, 13 aztertu dira.

Kaperen %54k oin-zatarrak edo alfombra txikiak dituzte sarbidean, baina ez daude ondo finkatuta. Dauden seinaleek ez dute brailleen edo goi-erliebean idatzitako informaziorik, eta ez daude norabideko gida-zerrendarik, ez kaperen barruan, ez kanpoan.

Soilik %38k ditu igarotzeko zabalera egokia duten ateak, eta ateen %8 beirazkoak dira, baina batek ere ez du seinaleztapen zuzenik.

Kaperen %8k du eskailera-mailak dituen tarteren bat, baina ez arrapala alternatiborik.

Eserlekuen arteko espazioari dagokionez, korridoreen %62k zabalera egokia du.

Kaperen %38k zona egokiak ditu gurgil-aulkien erabiltzaileak jartzeko, baina batek ere ez du irisgarritasunerako nazioarteko sinbolorik. Beste alde batetik, kaperen %38k du mugikortasun urriko pertsonentzako eserleku egokiren bat, baina ez du etzan daitekeen beso-euskarririk.

Kaperen %23k informazio-panelen bat du. Guzti-guztiek idatziz dute jasota informazioa, baina batek ere ez du brailleen edo goi-erliebean idatzita. Informazio-panel horien %8k argi-alarma du.



San Juan de Dios ospitaleko kapera. Irisgarriak ez diren eserlekuak.

11.7. Beilatokiak

Guztira, ospitaleen barruan dauden 5 beilatoki aztertu dira.

Ibilbideei dagokienez, adierazi behar dugu korridoretan dauden ateen %33k bakarrik duela zabalera egokia. Sarbideetan, ateen ez dute igarotzeko zabalera egokia, batek ere

ez. Ate horien %33 beirazkoak dira, eta erdiak bakarrik ditu seinale-banda egokiak.

Beilatokietan dauden altzarien %50ek igarotzeko zabalera egokia du elementuen artean.

Beilatokiak %33k komunak ditu. Horien erdiak beharrezkoak den zabalera duten ateak ditu, eta, gainera, mugikortasun urriko pertsonak sartzeko ezaugarri egokiak betetzen dituzte. Batek ere ez du alarrik.



Galdakao-Usansolo ospitaleko beilatokia.

11.8. Makina saltzaileak

Ospitaletako makina saltzaileak ez dira irisgarriak; izan ere, ez dute diseinu unibertsal bat, pertsona guztiak erabili ahal izateko ezaugarriak betetzen dituen. Hortaz, esan dezakegu ez dutela inolako neurririk ikusteko desgaitasuna duten pertsonak modu autonomoan erabili ahal izateko. Era berean, ez daudenez altuera egokian kokatuta, erabiltzeko beharrezkoak diren elementuak ez dira irisgarriak mugikortasun urriko pertsonentzat, besteak beste, aginteak, produktua ateratzeko zonak, dirua sartzeko tokia eta abar.

Kanpoko enpresek ekartzen dituzte gailu horiek ospitaleetara; hortaz, administrazioaren ardura da dagozkien adjudikazio-lehiaketetan betekizun gisa eskatzea mota horretako makinek irisgarritasun unibertsala bete behar dutela.



Galdakao-Usansolo ospitalea. TBko txartelak erosteko makina. Ez du altuera egokia.

11.9. Askotariko ekipamendua

11.9.1. Askotariko ekipamendua erabiltzea

Atal honetan, ospitaleetan pazienteen diagnostiko ezberdinak egiteko erabiltzen den ekipamenduarekin dauden arazoak jaso dira. Zehazki, honako hauek egiteko kabinei buruz ari gara: audiometriak, fototerapia-tratamenduak, arnas

probak eta abar. Proba horiek garrantzitsuak dira medikuen diagnostikoetarako.

Ekipamendu horiek erabili ezin izatearen ondorioz, batzuetan zaila da mugikortasun urriko pertsonen dagozkien probak egitea eta beste batzuetan, berriz, ezinezkoa da. Gure ustez, horrek modu eztabaidaezinean eragin dezake medikuen diagnostikoetan, bai eta arin hautemateko probetan ere.

PUVA (fototerapia tratamendua) kabinen kasuan, esan behar dugu mugikortasun urriko pertsonak ezin direla bertara sartu; izan ere, kasu gehienetan pertsona horiek ezin dira kabinen barruan zutik egon tratamendua jasotzeko beharrezkoak den denbora guztian.



Txagorritxu ospitalea. Kanpo-kontsulten eraikina. Otorrinolarin-gologiako kabina.



Eskailera-maila bat dago kabinara sartzeko.



PUVA ekipamendua.



Arnas probak egiteko kabina ez da irisgarria.

11.9.2. Postontziak eta txirrinak

Ospitale gehienetan postontziak eta txirrinak erabiltzen dira pazienteen eta ospitaleko langileen artean komunikatzeko. Alabaina, ohiko da postontzi eta txirrinak irisgarriak ez izatea,

batzuetan ez daudelako altuera egokian eta beste batzuetan oztopo asko dauden zonatan daudelako. Ez dago horiek seinaleztatzeko ezer, eta kasu batzuetan egiaztatu da objektu horiek oztopoak baino ez direla ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat (kokatuta dauden tokiengatik).

*Galdakao-Usansolo ospitalea.
Postontzi altua.
Informazioa ez dago, ez braillean, ez goi-erliebean idatzita.*



*Galdakao-Usansolo ospitalea.
Postontzi altua.
Kolpeak har ditzakete, ez baita zoruraino proiektatzen.*



11.9.3. Jardunbide onak

Argazkian agertzen den txirrina erakutsi nahi dugu jardunbide on baten adibide gisa, arauzko altueran kokatuta baitago eta zoruan zein horman seinaleztatuta baitago. Hala ere, ez du beharrezkoa den braille edo goi-erliebiko seinaleztapenik, ez eta testurarik zoruan ere, ikusteko desgaitasuna duten pertsonen elementu hori hor dagoela jakin ahal izateko.

Galdakao-Usansolo ospitalea.



11.9.4. Larrialdietako irteeretarako ateak

Oro har, esan ahal dugu aztertutako larrialdietako irteeretarako ateen artean oso gutxi betetzen dutela irisgarritasunari buruzko araudia. Gehienek ez dute gurpil-aulki batetik zabalteko aukera ematen duen barra bikoitza

*Txagorritxu ospitalea.
Kanpo-kontsulten eraikina.
Larrialdietako ateak.
Barra altuera bikoitzean.*




*San Onofre Zainketa Ospitalea.
Barra altuera bikoitzean.*



2. (eranskina)

**Informazioa biltzeko
galdera-sorta**



Data:

Ospitalea:

Lurraldea:

Helbidea:

Telefonoa:..... Faxa e-posta:.....

Harremanetarako pertsona:

Web orria:.....

Ospitalera ezgaitasuna duen paziente bat joaten denean, ¿ba al dago jarraipen-protokolorik aniztasun funtzionaleko pertsonei beren ezgaitasunaren arabera ezartzeko?

- Ezgaitasun fisikoa dutenentzat:
Zein?

EZ **BAI**

.....

- Ikusteko ezgaitasuna dutenentzat:
Zein?

EZ **BAI**

.....

- Entzuteko ezgaitasuna dutenentzat:
Zein?

EZ **BAI**

.....

- Komunikazio arazoak dituztenentzat:
Zein?

EZ **BAI**

.....

Protokolo horiek idatzita daude eta langile guztiek ezagutzen dituzte?

.....

Aldizka bilerarik egiten al duzue ezgaituen federazio edo elkarteren batekin?

.....

Ospitale horrek erabiltzen al ditu laguntzeko produktuak (laguntza teknikoak) ezgaitasun fisikoa duten pertsonak mugitzeko?

- Eskuzko gurpil aulkiak **EZ** **BAI**
- Gurpil aulki elektronikoak **EZ** **BAI**
- Lekuz aldatzeko garabia **EZ** **BAI**
- Gurpil aulkitik erraz iristeko moduko andak **EZ** **BAI**
- Ohe artikulatuak **EZ** **BAI**
- Beste batzuk. Zeintzuk?

Erabiltzen al dira laguntzeko produktuak (laguntza teknikoak) beste ezgaitasun batzuetarako?

- Kiribil magnetikoa **EZ** **BAI**
- Komunikagailuak, komunikazio arazoak dituztenentzat **EZ** **BAI**
- Beste batzuk. Zeintzuk?

Ospitale horretan ba al dago zeinu-mintzairaren interpreterik, entzumen ezgaitasuna dutenekin komunikazioa errazteko?

.....

¿Ospitale horretan dauden adierazle eta seinaleak egokitzen al dira ikusmen arazoak dituztenekin komunikatzeko ezarrita dauden eskakizun eta jarraibideetara?

.....

Ospitale horrek ba al du "irisgarritasun planik" (Irisgarritasunezko Gida Proiekturik, edozein berriztate-proiektutan kontsultatzeko eta kontuan hartzeko) ?

EZ **BAI**

Plan hori noiz egin zen:



www.ararteko.eus